





MEZA = =

= = SANTUA







M. 2877
N. M. 2815
R. 34758

ATV
17.792

†

MEZA SANTUA

ZER DAN,

BERA ENTZUTEKO LAU JARDUERA,
KONFESATZEKO ETA KOMULGATZEKO

BESTE BI ONDOREN DITUALA,

AITA BENERAGARRI

MARTIN KOTŠEM'TARRAK

ARGITARATUA

29
—
4

Jesus'en Maria Haghenebeck
Rinkon Gallardo'tarrak
gaztelaniara itzulirik,
apaiz euskaldun batek euskeraratua



DURANGO'N
FLORENTINO ELOSU'REN e'tsuan
1915-garren urtean

OBISPADO

DE
VITORIA



Gobierno eclesiástico S. p.

*Por las presentes, como Gobernador ecc.º de la Diócesis S. p., concedemos a V. la licencia que tiene solicitada para la impresión y publicación, en vascuence guipuzcoano, de la obra titulada **Explicación de la Santa Misa**, toda vez que habiendo sido examinada de Nuestra orden, según el censor, no solo son completamente ortodoxos los originales de la versión vascucongada de dicha obra sino que juzga que el Pbro. D. Pedro Miguel Urruzuno merece plácemes y alabanzas por haber llevado a término la traducción de una obra utilísima e interesante sobre manera al pueblo fiel.*

Dios guarde á V. muchos años.

Vitoria 19 de Noviembre de 1912.

Dr. Ignacio Hernández.

(Rubricado)

L. S.

Kaputšinoen Prokuradore Nagusi

IZANDU ZAN

**EXUPERE, AITA BENERAGARRIA'REN
ITZ BATZUEK,**

**Jesu-Kristo gure Jaunaren
Jaungoikotasuna ikuserazteko**

Jesu-Kristo'ren Jaungoikotasuna ikuserazteko, ezagungarririk argiena, da bere piztutzea. Añse da gure fedearen oñarri, desegiñ eziñ ditekena. Jaungoikoak nai izan zuan inguratu gertari aundien au, argitasunik miragarrienaz. Eztago Kondairan ezer ere bera baño ziurragorik eta ezagungarri oberik duanik. Beragatik asmo zuzen eta adimentu ona duan gizonak naita ez sinistu bear du gertaera aiñ argi eta Jainkozko au.

Nik sinisten diet—esan du Paskal'ek—bizia eman duten testiguai. Bada egiaz merezi dute sinistea. Baña askoz sinisgarriagoa izango da Apostoluen testimonioa, gogoratzen bada, etziotela auek lenbizian ulertu Jesu-Kristo'ri, zer esan nai zien piztuko zala, esaten zienian; ill ondoan, ez bakarrik dudatu, baizik eldu zirala, ez sinistera; eta Salbatzallea piztu eta berai agertzean, gertaera jainkozko onen zai zeudenai zegokien fede irazeki eta poz andia azaldu bearrean, lenengo mugida beldurrez atzeratzekoa izan zala; emen ikusten da argiro, etzegoala oietan idurimenik; bere animak etzeudela idikiak oraindik, adimena eta

grazia sartzeko; balorea etzala sartu beren biotzetan, eta azkenik berakgandik urruti zeudela, geroagoan aĩn goiturik iduki zituzten birtute oiek berak.

Mudantza aĩn andia egiteko gizon oien biotzetan, gauza bearra zan, gertaera orren argitasuna eguzkiarena bezelakoa izatea. Jesus piztu zala sinisteko, eta gañera sinismen onegatik pozik beren biziak emateko, gauza bearra zan, Jaungoiko piztua ikustea, ukitzea eta bere itza askotan aditzea. Baña obeki ezagutzeko, eta Apostoluen biotzetan egiñ zan mudantza aĩn miragarri onen kontu obeki ateratzeko, goazen atzeruntz, Jesu-Kristo'k adiskideai ta etsaiari bere Piztutzearen gañian itzegin zien denbora artaraño. Anei, bere Gorputzagatik itz egiñaz, esaten die: **Desegiñgotet tenploa, eta iru egunen buruan berriro egingo det.** Begira ondo bere itzai; esan nai duana da, Bera piztuko dala bere birtutez, onela bere Jaungoikotasuna ezagutu eraziaz.

«Giza-arraza sinismen gabeko eta gaizto onek milagroak eskatzen ditu, baña onuzkero etzaio emango beste milagrorik Jonas'ena baño, bada Jonas baliaren barruan iru egunez egon zan bezela, alaše egongo da gizonaren Semea ere iru egunean lurraren barruan.» Emen ere Jesu-Kristo gure Jaunak adierazten digu bere Jaungoikotasuna. Jaungoikoak bakarrik egiten ditu milagroak, eta berak bakarrik esau dezake zeĩn ordu ta unetan egingo diran.

Jesu-Kristo gure Jaunak bere ikasleai bere Pasioaren gañian itz egiten zienian, bukatzen zituan bere itzaldiak ondorengo itz oekiñ: **eta iru egunen buruan piztuko naiz**, baña ikasleak etzioten ulertzen, edo beñepein gutšienaz ere dudatu zuten egia esaten ote zien; ala aditzen eman zuten, Pasioak iraun zuan bitartean gertatu ziran gauza batzuek. Pasioa asi ta bereala artalde beldurtu, bere artzaigandik urruti iges egiten duan bat dirurite. Beren beldurra andienetakoa da. Esperantza guzia galdu dute. Pedro'k bere juramentuen buruan ere iru aldiz ukatzen du. San Juan'ez ostean eztago beste ikaslerik Jesus'en urrean, bera iltzean, ezta oraindik obiratzean ere. Egia da emakume santak lagundu ziotela, baña oraindik Madalena bera Jesus'i beti leial izan zitzaiona ere, eldu zan bere piztutzeaz dudatzera. Apostoluen aldetik, utsa; etzirudian beste gauzarik, baizik obian baño illagorik zegoala oraindik Jesus beren biotzetan. Geroagoan, emakume santak esaten dietenian, ikusi dutela Jauna pizturik, uste dute emakumeen buruarinkeriak dirala, ta eztiote sinismenik eman nai aien itzai. Gauza bearra da Jesu-Kristo berai agertzea, itz egitea eta berak indartzea, Jesus aurkezteak ematen dien beldurra kentzeko, bada oraindik begiratzen diote mamu ikaragarri bati bezela. **Ni naiz**—esaten die—**Ikusi nazazute, ukitu zadazute**, eta oraindik geiago egiten du; beraekiñ batean jaten du. Tomas zan bakarrik an orduan etzegoana, eta gero

lagunak esaten diotenian gertatu dana, eran-
izuten die berak: «Nik sinistuko det bakarrik,
ikusten dedanian, eta nere beatzak bere zau-
rietan sartzen ditudanian.» Jesus jartzen da
Tomas'en eskabide eziñ andiago onetara, eta
umilltasunik andien onekin garaitzen du aren
federik-ez geiegizkoa.

Gertaera oiek aiñ argiro ikusten ziran, nun
sartu zan beren biotzetan zeruko argia. Guziak
sinistu zuten, eta sinistu zuten beren testimo-
nioak indarrik andiena izateraño, bada baka-
rrik beren itza izango da asko, arrazoezko gi-
zon guziaz sinisterazitzeko, eta beren testimo-
nioa izango da berdiñik gabea, eta eziñ iñork
ere dudatuko du orrezaz, eta berak ipiniko-
dute piantzan beren bizitzaren mudantza sus-
traitikakoa, eta martirioa sufritzea.

Beren Maisua bizi zalarik, lotsagarrizko
moduan iges egiten zuten makal aiek, oraiñ
eztiote ezeri ere beldurrik. Zesar guziak be-
ren amenza ta kastiguakiñ eztira asko izan-
go isillerazteko, eta askoz gutsiago oraindik
galerazteko berak ikusi dutenaren testimonioa
ematea. Azotatzen dituzte, eta biurtzen dira
pozez beterik, Jaunaren Izenagatik zerbait su-
fritu dutelako.

Zuek izango zerate nere testiguak Jerusa-
len'en, Samaria'n eta baita lurbira guziko uri-
rik urrutienetan ere, esaten die Jesus'ek, piz-
tu ondoan, eta Jerusalem, Samaria, Atenas,
Korinto, Erroma'k eta mundu guziak aditzen
du oien itza, Jesus'en piztutzea adieraziaz. Ez-

tago nekerik eta ez arriskurik atzeratuko dituanik; bakarrik eriotzak isillduko ditu, baña beren odolarekiñ beren erakutsia sillatzean, iristen dute ematea orri bere jainkozko balio guzia.

Apostoluen bizitza eta eriotza orrek aditzen ematen du, Jesus'en piztutzea gauza ageria zala.

Eta egiaz, ¿nola pentsa diteke arkitzea lurrean gizonik, bere ezaguera osoan dagoala, eriotza ontzat artuko duanik? Eztet esaten gezur bati eusteagatik, baizik, egia izanda ere, bearko luke izan jainkozko jatorria duana, argiro ezagutua, eta martirioak baño sari askoz andiagoa ziur duana. Jesus'ek Apostoluai agindu zien betiko bizitza, eta ikustean auek, gloriaz beterik zerura igotzen beren Maisua, segurutzat artu zuten berak agindua.

Geitu dezaiogun testimonio oni San Paulorena. Au ezta Jesus'en ikasle bat, baizik kristauen persegitzalle amurratu bat. Jesus'i eta onen erlijioaren jarraitzalleai dien gorrotoak eztu neuririk. San Esteban illtzeko epaia iristearren egiten du al guzia; eta ezta naikua beretzat Santu ori arrika illtzen zutenen erropak zaitutzea; baizik iritsirik berak eskatu zuan eskubidea, berak nai zukean gauza apart baterako, badijoa Damasko'ra, kristauen billa, katez loturik Jerusalem'era eramateko. Bat batera argi izugarri batek inguratu ta lurrean ezarten du, eta denbora berean aditzen du Jainkozko dei esaten diona: **Saulo, Saulo, ¿zer-**

gatik persegitzen nazu?—¿Nor zera Zu, Jauna?—Ni naiz zuk persegitzen dezun Jesus. Alperrik zabilta neri atzera eragiñ naian. Jauna, ¿zer nai dezu nik egitea? Damasko'n esango dizute. Eta Damasko'n mudantza oso bat egingo du, eta zeruko argi batek argituko du ordutik beti bere anima. Une ortatik pertsegitzallea izango da Apostolu sutsu bat, eta artuko du Jesu-Kristogandik zuzenean Ebangelioa eta predicatuko du aspertu gabe ill arte-raño.

San Paulo'k etzuan ikusi beñere Jesu-Kristo, ill aurretik. Jesu-Kristo'k piztuta gero lurrean ezarten du, beragana biurtzen du, eta erakusten dio Ebangelioa. Bakarrik andik geroagoan artzen du ezagüera Apostoloakiñ; agertzen die bere Ebangelioa, eta ontzat ematen diote Jesu-Kristo'k bere Elizari eusteko pillaretzat ipini zituan amabi gizon aiek. Gerroztikakoan ezta izango bere biziaren jabe, bada guzia izango da Jesus Piztuarentzat, eta aiñ sutsu ta zeloz betea izango da, nun eztuan arkituko berdiñik, len berak geien persegitu dituan guzien artian ere, iristen duala azkenik Jesu-Kristo'gatik bizia ematea.

Apostoluen gañean bakarrik itz egin bade-gu ere emen, ez beza iñork sinistu, Apostoluak bakarrik izan dirala Jesus'en piztutzearen testiguak. Zeruko Maisuak, Apostoluen testimonio apartaz gañera, nai izan zuan eman beste testigu asko eta aundiena. San Paulo'k esaten digu gai onetan, Korinto'koai eskribatu zien

eskutitz batean, Jauna agertu zitzaiela bosteun eta geiago anairi era batera.

Gogoratu genitzake era berean Tiberiades' ko itsasoan egiñ zituan agerkerak; San Pedro'ri egiñ ziona, iru alditaraño beraganako amorioa aitortu eraziaz, bere artaldea aren kontura uztean, eta azkenik emakume santai egiñ ziztenak, auen artian gogoengarriena zala, Maria Magdalena'ri egiña; eta onen bizitza arrigarri, Jesu-Kristo'rentzat bakarrik bere azkeneko eguneraño izan zana ere, esan diteke Jesus'en piztutzearen ezagungarri bat dala.

Bukatu dezagun Elizaren itzakiñ: **Jesu-Kristo piztu da egiaz; edo San Paulo'enakin:**

Guziak ill dira Adan'egan; guziak piztuko dira Jesu-Kristo'gan, edo Salbatzalle berare-nakiñ:

Ni naiz Piztutzea eta bizitza; nigan sinisten duan guzia illtzen bada-re biziko da; eta nigan bizi eta sinisten duanak, eztu geiago ezagutuko eriotza.

Kristau batek, (naiz izan giza-semea, naiz emakumea) iduki lezakean oiturarik onena da egunero Meza entzun eta Jaun-artu edo Komulgatzea.

Aita Santu Pio amargarrenak eman ditu zazpi urte ta zazpi berrogeiko parkamenak, **Jesus, Maria eta Jose** esaten dan bakoitzean.

IRAKURLEARI

Arkituko dituzu liburu onetan utsegiteren batzuek, bear bada askotsore bai, euskeraren gañean. Aitortzen det gai onetan nere jakinduri gutsia, baña nere gutsian ere saiatu naiz jartzen, ez euskera alik garbienean, baizik, nere iritzian, euskaldunik geientsuak ulertu edo entendituko duten eran. Barkatu bada utsegiteak, eman eskerrak Jaungoikoari, arkituko dituzun gauz onak gatik, eta oroitu nizaz zure otoitzetan.

Itzulariak.

G beti gue eta t̄s ch irakurtzen dira: bestiak, lenago bezela.



ITZAURREA

Aita Kotssem'en liburu, «Meza Santuaren azaldea», izendatzen dana, Jaungoikoak alaita, nere eskuetaraturik ikusteko zorionan izan nuanian, aĩn atsegiñ andia artu nuan, nun ez nintzan aspertzen nere ezagun guzian gomendatzez; baña etzan ori asko neretzat; nere naija zan al guzia zabaltzea liburu ori, eta orregatik artu nuan nere itzkerara itzultzeko asmoa, baña ez nintzan fiitzen nere jakinduriaz, ezta nere indarretan ere, ainbeste denbora eta alako jarraipidea eskatzen zuan lan bat asi eta bukatzeko. Nere zorionean arkitu nuan orduan apaiz bat; onen adimentu andi eta jakinduriaren berri ondo nekian; eta berak animatu ninduan lanbide onetara, aginduaz berak bertikusiko zituala nere lanak, liburu au atera zediñ osoro Elizaren lege eta premiak eskatzen zuten bezela.

Indarturik nere gogoa, nere estutasunetan bere laguntza andia izango nualako esperan-

tzarekiñ, lanbide aiñ gaitz onetan, ekiñ nion berari, eta Jaungoikoak egiñ dit bukatzeko mesedea.

Liburu au, lenengo aldiz alemanez eskribitu zan, eta emendik egin ziran, itzulkerak bat ingelesez eta bi diferenteak prantzesez, eta auetatik, ala batetik nola bestetik, baliatu naiz. Auetako batetik bakarrik egiñ dira iru argitaldi berrogeita amar milla libururekiñ bi urteren barruan, eta onetan ezagutzen da zeñ estimazio andia izan duan, eta beragatik nolako meritua duan berez liburu onek. Jaungoikoak nai dezala nere itzulkerak onek estimazio berdiña izatea, bada nere nai bakarria da zabaltzea, eta inolare ez, nere irabazia.

Elizari deitzen zaio *Jaungoikoaren Et̄sea*, eta ala da egiaz, ant̄sen dagolako beti Gure Jauna, eta beragatik da oitura guziz it̄susia t̄sistua botatzea, errespeto aiñ andiaz egon bear dan leku santu artan.

(Florentino Elosu da liburu onen jabea.)



EGUN BAKOITZIAN ILTZEN DIRAN

eunda berrogei milla lagunen onerako

(Miñutu bakoitzian larogeita amazazpiren bat,
urtean berrogeita amaika milloi).

Jaunaren izenian eskatzen diegu Meza Santua entzutera datozen kristau guziaz, erregutu degiotela Jesus'en Biotz Sagraduari, mundu guzian oraiñ agonian dauden eta gaur bertan ill bear duten pekatariak gatik.

(Eun eguneko barkamena, Aita Santu Pio Amargarrenak 1907-ko Urriaren 26-an).


MEZA GUZIEN ESKEIÑIA

(Egunero ematen dira Eliza guzian
irureunen bat milla Meza).

Eskeintzen dizkitzut, nere Jaungoikoa, mundu guzian gaur ematen diran Meza guziak, oraiñ agonian dauden, eta gaur bertan ill bear duten pekatarien onerako.

¡Gure Erredentore Jesus'en Odol balio guziz andikoak irit̃si degiela Misericordia!

(Irureun eguneko barkamena Aita Santu Pio Amargarrenak 1907-ko Urriaren 26-an.)



LENENGO BURUA

Meza Santua zer dan

Meza Santua *Sakrifizioa* deitzen da latíñez, eta itz orrek adierazten du illtzea, eta eskeintzea. Sakrifizioa da Jaungoikoaren serbitzari berezkiro konsagraturik dagoan batek Jaun berari bakarrik eskeintzen dion tributu bat, ezagutu eta baieztutzeko Jaungoikoak gauza guzien gaiñian daukan nagusitasuna.

Erri guziak gai onetan beti izan duten oituratik San Agustiñ'ek ikuserazten digu Sakrifizioa, esan dan bezela adierazia, bakarrik Jaungoikoari dagokiona dala. “¿Nork pensatu du beñere—esaten du, ⁽¹⁾ Jaungoikotzat ezagutzen de-

(1) De Civit. Dei, lib. X, cap. IV.

gunari, edo aintzakotzat daukagunari ez izanik, beste iñori, sakrifizioak eskeiñi degizkiola? “Santu onek berak esaten digu beste leku batean: ⁽¹⁾ Deabruak ez lieke eskatuko sakrifiziorik bere adoratzalleai, ezpaleki, sakrifizioa dala gauza bat, Jaungoikoari bakarrik eta ez beste iñori, dagoikiona. Izandu dira agintari gaizto asko berentzat jainkozko gallaldi edo pribilejioak nai izan dituztenak, baina guziz gutsik agindu dute eskeintzeko berai sakrifizioak, eta onetarako ausardia izan dutenak, nai izan dute beren buruak Jaungoikotzat idukitzea.

Santo Tomas'ek erakusten duanez, ⁽²⁾ berezko lege bat da Jaungoiko guziz altsuari sakrifizioak eskeintzea, eta gizonak berez egiten du ori.

Eta egiaz, eztegu ikusten Abel, Noe, Abraham, Job eta beste Aitalenak ortarako, agindu edo Zerutikako inspirazioaren baten premiarik izan dutenik.

Ez bakarrik egiazko fededunak eskeiñi dizkiote ala nai ta sakrifizioak Jaungoikoari; baizik fede ori gabekoak ere

(1) *Contra advers. leg.*, lib. 1, cap. XVIII.—(2) 2. 2. q. 85, art. 1.

eskeiñi dizkiote era berean beren Jaungoiko gezurrezkoai, berak onratzeko. Jaungoikoak Israeltarrai eman zien legean, agindu zien, egunero sakrifizio bat eskeintzeko; eta sakrifizio au pestegun andietan eskeintzen zan otsandigo bereziakiñ. Etzuten kontentatu bear, bildotsak, ardiak, tšekorrak eta idiak illta eskeintzearekiñ, baizik sazerdoteak eskeiñi bear zituzten beren zeremoni bereziakiñ. Jaun oek, salmoak kantatzen ziran bitartian, eta tronpetaren otsean, lepoak mozten zizten animaliai, larrututzen zituzten, banatzen zuten beren odola, eta aragia aldarearen gañean erretzen zuten. Auek ziran judioen sakrifizioak, eta oekiñ ematen zizkion erri autatuak, Jaungoikoari zor zitzaizkan onoreak, eta aitortzen zuan era onetan, Jaungoikoa zala gauza guzien egiazko jabea.

Erri guziak erakutsi dute, zeñ ondo datorren sakrifizioa gizonen berezko griñakiñ, jartzen dutela bera, Jaungoikoari adorazio emateko egiten diran gauzen artean bakarrik, eta ez bestetan. Zan beragatik gauza bearra, ipintzea

Salbatzalleak era berean sakrifizio bat bere Elizarentzat. Eta ala, gure zentsu onak esaten digu, Jesu-Kristok eziñ utzi zitzakela egiazko fededunak, adoratzeko modurik goien au eman gabe: ala ezpaltz, Eliza, judioen erlijioa baño gutšiangoz izango litzake, bada auen sakrifizioak aiñ ziran andiak, nun jentillak etortzen ziran urrutietatik, gauza miragarri oiek ikustera, eta oien Erregeren batzuek ematen zieten, ortarako gastatu bear zutena, Eskritura Santuak dion bezela. ⁽¹⁾

Sakrifizioari, Jesu-Kristok bere Elizan egiñ zuan bezela begiraturik, onaz er esaten digun Trento'ko Kontzilio Santuak onen ganian: ⁽²⁾ “Testamentu zarrean, San Paulok erakusten digunez, Lebiren ordenako sazerdoteak etzuan santutasuna egiteko birtuterik, eta ala gauza bearra izandu zan,—Jaungoiko errukitsuak ala nairik,—jaikitzea beste sazerdote bat Melkisedek'en ordenakoa, santutu bear zutenak artarako duiñ egiñ eta osotutzeko. Sazerdote au ezta besterik Jesu-Kristo gure Jaungoiko eta

(1) Machab. III. - (2) Sess., XXII. c. I.

Maisua baño, eta onek utzi nai izan zion bere Esposa maite, Elizari, begiz ikusi ziteken sakrifizio bat, berak gurutzean eskeiñi bear zuan sakrifizio odolztuaren oroimenean; munduaren azkeneraño iraun zezan oroimen onek, eta bere birtute osasungarria utzi zigun, gure eguneroko utsegiteen barkaziorako, aitortzen zala bera Melkisedek'en ordenako Sazerdote jarria, azkeneko afarian; eta entregatua izandu zan gau artan bertan, eskeiñi zion bere Aita Jaungoikoari, ogiaren eta ardoaren iduripian, bere Gorputza eta bere Odola, eta janari eta edari oien beren irudipen bean eman zien Apostoloai, egiten zituala orduti Testamentu Berriko sazerdote, eta agindu zien berai ta beren ondorengoai, berritu zezatela sakrifizio au itz oekin: "*Egiñ ezazute au nere oroipenean.*" Eliza Katolikoak ala beti ulertu ta erakutsi izan du.

Beragatik Elizak agintzen digu, sinisteko, Jesu-Kristo gure Jaunak azkeneko afarian ez bakarrik ogia ta ardoa bere Gorputz eta Odol biurtu zituala, baizik gañera eskeiñi zizkiola gauz oiek Aita

Jaungoikoari, eta ala egiñ zuala Testamentu Berriko sakrifizioa bere personan, egiñaz onela, Melkisedek'en ordenako Sazerdoteari dagozkion eginkizunak. Eskritura Sagraduak dio: ⁽¹⁾ “Melkisedek, Salengo Erregeak, eskeiñi zituan ogia ta ardoa Jaungoikoaren Sazerdotea zalako, eta bedeinkatu zuan Abraham.” Egiaz, Eskritura Sagraduak eztu esaten argiro Melkisedek'ek Jaungoikoari sakrifiziorik eskeiñi dionik, baña lenengo denboretatik Elizak ala ulertu izan du, Elizako Gurasoak ala azaldu zuten, eta Dabid'ek ere ala adierazi zuan esanaz: ⁽²⁾ “Jaunak juramentu egindu eta ezta izango gezurrezko juramentugillea: zu zera betiko sazerdotea, Melkisedek'en ordenakoa.” Melkisedek'ek eta Jesu-Kristo gure Jaunak eskeiñi zituztela egiazko sakrifizioak ezagutzen degu San Paulo'k esaten digunetik: ⁽³⁾ “Edozeiñ sazerdote-nagusi edo Pontifize dago ipinia doaiak eta jauskaiñi edo biktimak eskeintzeko.”

Apostolu onek berak esaten digu

(1) Gen., XIV, 18 y 19. — (2) Ps. CIX. — (3) Hebr., VIII, 3.

oraindik argiroago ⁽¹⁾: “Gizonen artean aututako edozein Sazerdote nagusi edo Pontifize, Jaungoikoari dagozkion gauzetan, dago ipinia, doaiak eta sakrifizioak pekatuakgatik eskeintzeko.” Eta dio gñera: “Eztezala beste inork uste izan, diñidade au duanik, Aaron'i bezela, Jaungoikoak deitu dionak bakarrik baik. Eta egiaz, Kristok eztu gloriatu bere burua sazerdote nagusi egiteko, baik bere Aitagandik artu du onore au, esaten diolarik onek: “Zu zera nere Semea, nik sortu zaitut gaur; zu zera betiko sazerdotea, Melkisedek'en ordenaren erara.”

Argiro ikusten da, ba, Jesu-Kristo ta Melkisedek izan dirala Sazerdote nagusiak, eta titulu onekiñ biak eskeiñi dizkiotela Jaungoikoari doaiak eta sakrifizioak. Melkisedek'ek etzion animalia illik eskeiñi Jaungoikoari, Abraham'ek eta denbora artako fededun gizonak bezela, baik Espiritu Santuaren biotz mugidaz, eta denbora artako oituraz bestera, eskeiñi zituan ogia ta ardoa zeremoni ta

(1) Hebr., v. I.

otoitz bereziakin; jaso zituan zerurontz eta eskeiñi ziozkan Jaungoikoari, beraren gogoko ziran animali ill erreen lekuan. Onela merezi izan zuan Jesu-Kristo'ren iduria izatea, eta bere sakrifizioa izan zan lege berriko sakrifizioaren iduria. Arrazoi onegatik Aita Jaungoikoak jarri badu sazerdotetzat Jesu-Kristo—ez animali illak eskeintzen zituan Aaron'en ordenaren erara, baizik ogia ta ardoa eskeintzen zituan Melkisedek'en ordenaren erara,—emendik erraz ezagutzen da, lurrean bizitu zan bitartean, egiñ zituala sazerdoteari zegozkion zeregiñak, eta eskeiñi zuala ogi ta ardozko sakrifizio bat.

Galdetuko litzakigu: ¿Noiz egin ditu Jesu-Kristo gure Jaunak sazerdotearen zeregiñak, Melkisedek'en ordenaren erara? Oni erantzungo genikio: Ebangelioan ezta ezer ere esaten onelako ofrendaren naturalezari dagokion gauzaren gañian, azkenengo Afariaz kanpora. ⁽¹⁾
“Afaltzen zeudela, artu zuan Jesus'ek ogia, bedeinkatu eta zatitu zuan eta

(1), Matth., XXVI, 26-28.

eman zien bere ikasleai, esanaz: Artu ezazute eta jan ezazute; au da nere Gorputza. Jarraituan, arturik kaliza, eman zituan eskerrak, eta eman zien esanaz: Edan ezazute, bada au da nere Odola, Testamentu berriko Odola, zuekgatik eta askogatik iñuriko dana pekatuen barkaziorako.“

Itz auetan ezta esaten, Jesu-Kristo'k ogia ta ardoa eskeiñi dituanik, baña mol-dadera aiñ argiro dago, nun etzuan ori-ala esan bearrik. Gañera Jesu-Kristo'k ezpazuan eskeiñi *orduan* ogi eta ardo-rik, etzuan egiñ beñere, eta au onela izan ezkerro, etzan izango sazerdote Melkise-dek'en ordenaren erara. Eta beragatik nik galdetzen det, zer esan nai duan San Paulo'ren itzkuntza onek: “Beste sazerdoteak izan dira juramentu gabe jarriak; baña au juramentuarekiñ, bada Jaungoi-koak esan zuan juramentuaren bian, eta eztu jango bere itza: zu zera sazerdote betikotasun guzian. Onek, betikotasun guzian bizi dalako, dauka sazerdote iza-te betikoa.“ (1)

(1) Hebr., VII, 21, 24.

Elizak, Trento'ko Batzarre edo Konzilio Santuan erakutsi du, nola ulertu edo entenditu bear dan, eta sakrifizio berria dala; garbi eta mantšarik gabea, eta sakrifikatzaileak izan lezakean edozeiñ gaitz edo gaiztakerik ere, eziñ zikindu lezake, Jaunak Malakias profeta-
ren aotik bere izenian eskeintzekotzat adierazo zuana.

Malakias'ek itz eragiten dio ejerzituen Jaungoikoari onela: ⁽¹⁾ “Amaitu dira (esaten die Lege zarreko sazerdoteai) zuegan nituan atsegiñak, eta aurrera-koan ez tet artuko zuen eskuetatik bate-re doairik, sortalde eta sartaldetik nere izena andia dalako errien artean, eta sakrifizio garbi bat eskeintzen zaiolako nere izenari leku guzietan.” Izkuntza au artu dute Elizako Guraso guziak Mezako sakrifizio santuaren profezia bat bezela. Eta ala, itz auek etziran kunplitu Lege Zarrean, baña bai Berrian; Lege Berri onetan ikusten dan bezela kunpliturik Aita Jaungoikoak bere Semeari egiñ zion promes au ere: ⁽²⁾ “Zu zera

(1) Mal., I. 10, 11.—(2) Ps. II.

nere Semea: nik sortu zaitut gaur. Eska zadazu eta nik emango dizkitzut erreinuak erentzitzat.“ Badakigu profezia aukunplitu zala Apostoluak gentillak fendera erakarri zituztenian.

Malakias'en profeziak eztu argiro adierazten, Jesu-Kristo gure Jaunak Gurutzean eskeiñi zuan sakrifizioa, erejeak, arrazoi gabe, esan nai luketen bezela, bada sakrifizio au etzan eskeiñi izan, Profetak esan zuan bezela; baizik leku baten bakarrik, au da, Kalbarioko mendian. Eziñ adierazi ditzake gure orazio ta obra onak ere, zergatik eztira auek eta ez aiek ere sakrifizio garbi bat, baizik ofrenda garbieza: ala ezagutzen dute erejeak berak eta deadar egiten du Isaias'ek: “Gu gera guziok garbiezak eta gure justiziaren obrak dira oial mantсандun bat bezela.” (1)

Ala, bada, profezia au entenditu bear da bakarrik Meza Santuarekiko, au bakarrik dalako Lege Berriko sakrifizioa; sakrifizio oso garbia, Jesu-Kristo'k bere Aitari denbora ta leku guzietan sazer-

(1) Isai. LXIV, 6.

doteen eskuz eskeintzen diona. Jesu-Kristo gure Jauna bakarrik da apaiz nagusi edo Pontifize osoa eta berdiñik gabea; apaizak eztira bere ministroak baizik; auek eztute egiten beste gauzarik, baizik beren besoak eta aoa berari uztea. Eta egiaz, Jesu-Kristo eziñ ikusi diteke, eta sakrifizioak izan bear du ikusi ditekena, gizonak berarekin elkartu ditezen, beragatik gauza bearra zan apaizak ministro izatea. Gañera, sakrifizio au eskeiñiko da munduaren azkeneraño, eta ezta amaituko Ante-Kristoa eldu arteraño.

Erejeak, kontra egiteko, esaten digute, *Meza*'ren itz au eztala arkitzen Eskritura Santuan. Ala izan dedilla; baña ezta arkitzen *Trinidad*'eren izenik ere. ¿Egon gindezke, benturaz, Misterio andi au sinistu gabe? Eztigu esaten Eskriturak jaian lan ez egitekorik, ezta umeak bataiatzekorik ere, eta ala ere auek obligazio oso estuak dira. *Meza*'ren izena Eskritura Sagraduan arkitzen ezpada ere, arkitzen da Aita Santuen obretan; auek dira San Klemente, San Pedro'ren ondorengoetan irugarrena, San Ebaristo

eta San Alejandro, lenengo eundi edo sigloan bizi izan zeranak. San Agustin, San Ambrosio, San Juan Krisostomo eta beste askok, jartzen dute *Meza*'ren izena, Lege Berriko sakrifizioaz itz egitean. San Ambrosio'k dio bere eskutitzetako batean: ⁽¹⁾ “Kunplitzen nuan nere eginkizuna, asten nintzan Meza Santua ematen, eta Sakrifizioak zirauan bitartean, eskatzen nion Jaunari, mesede egiñ zezala guri laguntzera etortzeaz.”

San Agustiñ'en sermoi batean arkitzen da Mezaren aitamena, ⁽²⁾ esaten duala: “Mezatan irakurten ditugun irakurgaietan, etc.” Begira nola bi Aita auek *Meza*'ren izena aiñ maiz aitatzean, ezagutzen dan, Meza Santua zegoala orduan ondo zabaldua.

Elizako Gurasoak irakusten digute, Apostoloak berak eskeiñi izan zutela sakrifizio au. San Mateo ill zuten aldean, Meza ematen zegoala. San Andres'ek, kondairak diones, esaten zion Ejeas juezari: “Nik egunero eskeintzen diot sakrifizioa Jaungoiko guzialdunari,

(1) Ep. 33.—(2) Serm. 91 de Temp.

ez zezenen aragia, ta ez ta akerren odola ere, baizik mantša gabeko Bildotsa. Santiago eta San Markos'enak dauzka-gu, gañera, Meza'tako liturjiak, au da Meza'tan esaten diran otoitzak. Arkitzen ditugu *Elizako Gurasoen Liburutegi-ko* lenengo zatian; Liturji auetako bat usatzen zan Jerusalem'en, eta bestia Alexandria'n, Ejipto'n.

Sanktus'etik eta *Komunio*'raño, *Kanon* deitzen dan Mezaren zatia, datorrigu San Pedro'gandik. Aita Santu batzuek geroago geitu zizkioten itzen batzuek lenengo zati orri. Emendik ikusten da argiro, lenengo denboretatik ematen zala Elizan Meza, eta beti ezagutu izan dala izen orrekiñ Lege Berriko egiazko sakrifizio bezela.

Ikusi dezagun oraiñ, nolako gerra egiñ izan dioten erejeak Meza Santuari.

Denbora guzietan deabruak Mezako Sakrifizioari egiñ nai izan dion gerrak, ezagutu erazten digu, zein santua izan bear duan Mezak; eta denbora berean, zein beldurgarria deabruarentzat; ala ez-palitz, elioke gerra aiñ gogorra egingo. Judioak eta jentillak oituak zeuden, Sa-

krifizioari, relijioaren biotzari bezela begiraten. Erejiarik gorrotagarrienak ere, bearturik ikusten ziran kristauen sakrifizioari, beñepein aintzat, errespetoz begiratzera; gañerakcan mundu guzia al-denduko zitzaien ikaraturik. Etsaiak guziz aurriz prestatu bear zuan ausarkeri andi orretarako.

Onetarako arkitu zuan lenengo laguntzallea, izandu zan Tours'ko Berenger, gizon arro eta gezurrezko juramentu egillea, 1015-garren urtetik 1088-rabitartean bizitu zana. Egia da gizon doakabe au biurtu zala bide onera ill baño zortzi urtez aurretik, eta ill zala oso damuturik Eliza katolikaren seme bezela. Baña berak erein zuan aziak, eman zuan frutua iñill-iñillik, eta andik urte batzuen buruan azaldu zuten albitar erejeak. Gizon lasai eta fedegalduko auek egin zioten gerra gogorra Meza Santuari, batez ere Meza errezatuari, eta baita Meza ematen zutenai ere. Zorioneko Heisterbatst'ar Zesareo denbora artan bizitu zanak, (bada ill zan 1240-garren urtean,) kontatzen digu ondorengo gertaera au: ⁽¹⁾

(1) Lib. VII, 24.

Albitarrak kastigatzen zituzten oso gogor Meza errezatuak ematen zituzten apaizak. Meza Santuari debozio oso andia zion apaiz on batek, etzuan utzi naizan. Sakrifizio au, ez aien debekazioagatik, eta ez kastiguakgatik. Jakiñ zuten erejeak, eta beren Juez nagusiak, tribunalera eramán erazorik, galdetu zion era onetan: “Esan digute gure debekazio aiñ jakiñaren buruan ere, eman dezula Meza errezatu bat; beragatik egin dezu gaiztakeri andi bat. ¿Egia da?” Apaizak beldurrik gabe erantzun zion onela: “Nik erantzungo dizut, Apostolu Santuak erantzun zuten bezela, Judioak berai galdetu zietenian, ia debekaturik egonik ere, Jesu-Kristo‘ren fedea predikatu zuten: Gauza bearra da Jaungoikoari obeitzea gizonai baño len. Juezak, aserreturik eziñ geiagoraño itz balorez betetako oiekin, ez bakarrik tratu gaiztoak eman zizkioten, baizik erri guzieren aurrean mingaña ondolik ateratzeko agindu zuten. Martiriak sufritu zuan tormentu au pazientzia andi batekiñ, eta aoa odolez beterik zuala, juan zan elizara, eta belaunikaturik Meza eman

zuan aldarearen aurrean, kejatu zitzaion umillki Ama Birjiñari, eskatuaz fede bizi batekin, egiñ zegiola mesede, bere mingaña biurtzeaz. Bere erregua aiñ sutua izandu zan, eta alako alegiñaz eskatzen zion bere biotzaren barruenetik, nun azkenik Jaungoikoaren Ama agertu zitzaion, eta, mingaña biurturik, esan zion: “Egiten dizut mesede au Jaungoikoaren eta nere onra eta gloriara eman dezun Mezaren sarian.” Eta esan zion, aurrerakoan ere usa zezala bere mingaña, arterañoan bezela. Gertaera onek, geiagoko gabe, aditzera ematen du erejeak deabruzko amorrutarekiñ persegitzen zituztela, fedea gordetzeagatik tormentuai beldurrik etzieten apaiz aiek.

Gertaera au egiazkoa dala ezagutzeko, asko degu Zesareo Doatsuak bere ejemploen liburuaren asieran jartzen dituan itzak irakurriaz: “Jaungoikoa ipintzen det testigu, dio, eztedala emen esan beste gauzarik, baizik nere begiekiñ ikusia, eta gezurra esatea baño illtzea naiagoko zuten gizonen aotik adi-tua.” Jaungoikoak egiñ ditu onelako milagro asko Meza Santuaren anditasuna

guri argiroago erakusteagatik. Zesareo Doatsuak esaten dizkigu berrogeita amar baño geiago. Irakurri ezazute bere liburua; zuen fedea sendatuko da, eta Meza Santuaganako zuen debozioa geituko da.

Meza Santuari gerra egiten zien albitarren dotriñak, denbora beran egiten zien lurreko gobiernuai ere. Beren eskuetako armen indarrez nai zuten beren dotriña gaizto eta gezurrezkoa zabaltzea, baña oso bestera irten zitzaien. 1209 garren urtetik 1227 arteraño iraun zuan gerra batek desegin zuan ia oso-ro, eta andik denbora gutširen buruan ezkutatu zan lurretik ereje aien dotriña gaizto ori.

Deabruak asten duanian gerra bat ez-tio uzten aiñ errez peleari. Erejiya bat ondätzen bada, beste batek jarraitzen dio. Len esan degun arrazoiagatik, lenengo erejeak Meza Santuari gerra egiteko ausardirik izan ezpazuten ere, gerroztik ezta ikusi sortzen, gerra egiñ ez-tion erejiarik.

1517 garren urtetik asi zan Martin Lutero doakabea Elizatik aldentzen, ar-

teraño bere barruan bizitza paketsu bat igarota, baña alare etzion gerrarik egiñ aldareko misterio oni, andik urte askoz geroagoraño arte: eta orduan ere egiñ zion deabruaren burutazioz. Onen gañean iñork dudarik izan etzezan, Jaungoikoak nai izan zuan, Lutero'k berak autortzea, Satanas'ek bultza egiten ziola, Meza Santua, gezurrezko Jaungoikoen adoratzalleen egite bat balitz bezela, kentzera.

¡Begira gizon onen itšumen andiari; ezagutzen du Satanas'ek eman dizkiola bere lezioak; badaki onek gorroto diola gauz on guziari, eta eztuala agintzen egiteko tšarra besterik! Lutero'ren adimentua ezpalute bete infernuko iluntasunak, kontuak onela aterako zituan: Satana'sek dio, Meza Santua dala gezurrezko Jaungoikoen adoratzalleen egite bat; ala balitz, ¿zergatik nai du kentzea? Bera alabatu eta zabaltzearekin ¿eluke arkituko Jaungoikoari injuria beti egiteko alderdi andi bat?

Begira bada orain, Satanas'ek kendu die Meza Santua, ez bakarrik Lutero-tarrai, baizik baita kalbinistai eta bi ere-

jiya auetatik sortu diran beste gezurrezko religio askori ere, kalterik andienak onekiñ egiñaz. Aiñ andia da beren biotzetan misterio onenganako sartzen dien gorrotoa, nun bota erazten dien blasfemia ikaragarri au: “Meza Santua da gezurrezko Jaungoikoen adorazio gorrotagarri bat.” Ala dio Heidelberg’ek egiñ zuan kalbinisten dotriñako liburuak.

¡Ai burugabe gaiñuak! ¿Nola esan dezakete beraz, anima bat bakarrik salbatu danik, Jesu-Kristo etorri zanetik? Apostolu eta apaiz guziak eman izan dute Meza’ko Sakrifizio Santua: martiriak eta konfesoreak aditu izan dute deboziorik andienarekiñ. ¿Esango dute benturaz, Jesu-Kristo’reñ ejerzitu guzi au gezurrezko Jaungoikoen adoratzaillea dala, eta beragatik infernua merezi duala? Pentsatu ere eziñ lezake au, arrazoiaren argirik batere duanek. ¡A! zenbat pozgarriagoa dan aditzea San Fulgenzio’k esaten diguna: ⁽¹⁾ “Sinistu ezazute batere dudik gabe, Jaungoikoaren Seme bakar gizon egin zana, eskeintzen

(1) *De fide ad Petrum.*, c , 19.,

zaiola Jaungoikoari Sakrifizioan. Jaungoiko guziz andi oni eskeintzen dio Elizak fede eta karidadean gelditu gabe, ogiaren eta ardoaren sakrifizioa.“

Kontu, gerta eztakigun, erejeai gerta zaiena, bada auei Satanas'ek kendu die Meza Santua. Guri osoro kendu eziñ digunean, egiten du al guzia, ezagutu eztezagun Sakrifizio Santuaren balio neurrigabea, estimatu eztezagun bear bezela, nagitzen gaituala, atera eztatagun artatik, atera genitzaken graziazko frutu ugariak.

Kalte au erremediatzeko, Elizak Trento'ko Batzarre edo Konzilio'aren bitartez ⁽¹⁾ agindu die animen artzaiai, “predika dezatela askotan Sakrifizio Santuaren gañian, aditzen eman ditzatela berak, edo besteai aditzen eman erazi, Meza ematen dan bitartean, onen otoitz eta misterioen gañean zerbait, batez ere igande eta jai egunetan“. Eliza guziaren Batzar onek obligatzen ditu, animak beren kontu dauzkaten apaiz guziak; eta ala ere gutsi dira, lan au artzen dute-

(1) Scss XXII.

nak. Geienak uzten dute alde batera lan au, kalte andi bat Elizari erakarriaz. Jendeak, ezagutzen eztualako Meza'ren balio andia, eztu estimatzen; eztu entzuten astegunetan, eta igande ta jaietan entzuten du nagitasunarekiñ eta debozio gabe, edo bestela uzten du entzun gabe, artarako arrazoirik ez izanik ere, eta eskrupulorik gelditzen etzaiola.

Kalte onen sustrairik andiena da apai-zen iñiltasuna. Berak Jaungoikoari kontu emango diote; bada berak obeituko balikiete Elizaren aginduai, eta itz egingo balute balio aiñ andiko egiteko onen gañian, beñepeñ urtean zenbait aldiz, jendeak estimatuko luke guziz asko tesoro oso andi au, eta erakarriko lukete jende au Mezatara, debozio eta errespeto geiagorekiñ. Eztago, egiaz, ezer ere Meza Santua baño probet̃su andiagoko gauzarik. Eliza katolikoak eztauka misterio miragarri au baño andiagorik, pozgarriagorik eta osasungarriagorik. Egi au ezagutuko balute geienak, ikusiko giñuzke Mezatan kristau asko eta asko, oraindik astegunetan ere.

BIGARREN BURUA

Meza Santuaren anditasuna

Meza Santuaren anditasuna aiñ da miragarria, nun eziñgo luketen bear bezela alabatu Aingeruak berak ere; ala ere, ausartzen naiz itz egitera, asko irabaziko degulako, bere iduri ariñ bat badare egiten badet.

San Franzisko Sales'koak ematen dizka titulo guziz onragarriak ⁽¹⁾. "Religioaren egitaldien artian, esaten du, Sakrifizio guziz santua da, izarren artian eguzkia dana, Kristo'ren religioaren anima egiaz dalako. Da misterio esan eziñ al bezelakoa, Jaungoikoaren karidade guzia beragan daukana, onen bitartez Jaina gurekiñ bat egiñik, eman degizkigun bere anditasunarekiñ batean, bere graziak eta mesedeak."

Denbora asko bearko litzake gauza auek guziak osoro adierazteko. Jinebra'ko obispoak esaten du, Meza Santua

(1) Deboziazko bizitzaren sarreran II zatian XXV garren buruan.

debozior entzutea, dala, egiaz santu egiteko eta Jaungoikoaganako amorioan irazekitzeko bidea.

Osorio jakintsuak dauka religioaren beste misterio guziak baño obetzat. ⁽¹⁾ “Elizako gauza guzien artian, esaten du, Meza da Santuena ta estimagarriena, Aldareko Sakramentu guziz Santua kon-sagratu, eta Jaungoikoari sakrifizioan eskeintzen zaiolako. “Ona emen zer dion Fornerus, Bamberg’o arzobispoak ⁽²⁾: “Mezaren diñidadea Sakramentu guzi-ena baño andiagoa da. Sakramentu guziak miragarriak dira, eta bizientzat dira errukizko iturriak; baño Meza, bizientzat eta illentzat da Jainkozko ugaritasunaren it̃saso ondo gabea.” Erakasle onek, Sakrifizio santu onen diñidadea adierazteko, dakaizkian arrazoiak gañera, beste batzuek jartzera goaz; eta auek obeki goratuko dute Meza Santuaren diñidade ori, elizen eta aldareen konsagrazioan azaltzen dan bezela. Baña nola gut̃si jua oi diran ikuskizun onetara, eta juaten diranetatik batzuek eztituzte

(1) Conc. de Missa.—(2) Conc. de Fass. 65 y 69.

aditzen, edo aditzen badituzte ere, ez dute jakiñ zer esan nai duten orduko otoitzak, emen ipintzera noa otoitz oiek.

§ 1. Katoliken Eliza baten Konsagrazioa

Obispo Jauna jantzitzen da berari dagozkion jantziakiñ, aurreragoko egunian erliki santuak ipini diran lekuan, eta errezatzen ditu Salmo Penitentziazkoak, eta gero juaten da apaizakiñ batian Elizako ate nagusiaren aurrera. Ate au dago itširik, eta diakono bat bakarrik gelditzen da barruan. Obispoak eskatzen du Jaungoikoaren laguntza eliza berriarentzat, eta gero koruak kantatzen ditu letañak itz au etara: “Gaitz guzitik, etc.” eldu arte; eta esandakoan, bedeinkatzen du ura, bustitzen du lenengo bere burua, eta gero an daudenak, esanaz: “Busti nazazu, Jauna, isopoaz, eta garbituko naiz eta elurra baño zuriago geldituko naiz.” Bereala darama prozesioa Elizaz kanpotik beraren inguruan, bere paretiak bustiaz, eta esanaz: “Aitaren † eta Semearen † eta Espiritu Santuaren ize-

nian.“ Bitartian koruak kantatzen du Profezia bat, adierazten duana: “Mesias’ en denboran egingo dala Jaunaren Temploa mendien goienian, eta erri guziak juango dirala tropelka bertara.”⁽¹⁾ Obispo Jauna biurtzen da atera, ta eskatzen du munduaren Jainko Egille eta Jaunaren anparua et̄se orrentzat Jaun bera dalako et̄se orren egillea ere, adorazio garbi, libre eta santu bat beti bertan emateko. Itz oek esatean, urreratzen da atera, eta jotzen du bakuloarekiñ, boz andian esanaz: “Printzipeak, jaso itzatzute zuen ateak, idiki zaitezte betiko ateak, eta sartuko da gloriako Erregea.” “¿Nor da gloriako Errege ori?” — galde-tzen du diakonoak. — Obispoak eta apai-zak erantzuten dute: “Da ejerzituen Jauna, gloriako Erregea dana” eta gañe-ra diote: “Idiki, idiki, idiki itzatzute.” Bereala idikitzen da atea, ta Obispoak egiten du gurutzearen señaleari bakulua-rekin ateburuan, esanaz: “Ona emen Gurutzearen señaleari, eta onen aurretik deabru guziak iges egiten dute.” Elizan

(1) 1s., II, 2.

sartzen danean, esaten du: “Pakea et̄se onetan.” Eta diakonoak erantzuten du: “zure sarreran.” Korua asten da pakezko kanta bat kantatzan, esaten dituala Ebanjelioko itz auek: “Zakeo, jet̄si zaite laster, (eta gañerakoak),” eta bukatzen du onela: “Gaur, salbazioa eldu da et̄se onetara Jaungoikoaren partetik.”

Elizaren erdira eltzen danean, belau-nikatzen da obispoa, eta asten du “*Veni, Creator Spiritus*” deitzen dan imnoa. Ondoren datoz Santuen letañak, auen artean sartzen dirala itz oek: “Bisitatu ezazu leku au, eta bialdu itzatzu onera aingeru zaitzalleak,” eta esaten du iru aldiz: “Be†deinkatu, san†tifikatu eta kon†sagratu itzatzu Eliz au eta aldare au.” Letañak bukatzean, kantatzen da *Benedictus* ⁽¹⁾, bersikulo bakoitzaren ondoren Job Patriarka Santuaren itz auek esanaz: “¡Zeiñ beldurgarria dan leku au! ¡Aūse da, egiaz, Jaungoikoaren et̄sea eta Zeruko atea!” Kantu onek dirauan bitartean, obispoak eskribitzen du bakoiloarekin, ortarako autsez estalirik da-

(1) Luc., I., 68-79.

goan sueloaren gañean, griego eta latinezko abezea gurutzearen eran; gero bedeinkatzen ditu gatzia, autsa eta ardoa urarekiñ nasturik, eta ondoren konsagraten da aldare nagusia.

Obispoak errezatzen ditu lenengo, antifona eta Mezaren asierako salmoa: “Urreratuko naiz nere gaztetasuna pozez betetzen duan Jaungoikoaren aldera. Nere Jaungoikoa, izan zaite nere Juez, eta nere animaren etsaiakgandik anpara nazazu (eta gañerakoak)”.⁽¹⁾ Otoitz auek esaten dituan bitartean, sartzen du bere beatz andia, lenseago bedeinkatutako uretan, eta egiten du gurutze bat arriaren erdian eta lau ertzetan, esanaz: “Aldare au bedeinkatua izan dedilla Jaungoikoaren, Zorioneko Birjiña Maria'ren eta santu guzien gloriarik andienako San N. eta San N.'en izen eta oroipenean, Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenian.” Itz auek esaten dira berriro bost alditaraño. Bereala obispoak, Israel'tarrak Jeriko artzerakoan egiñ zuten bezela, inguratzen du

(1) Ps. XLII.

zazpi aldiz aldarea, ur bedeinkatuarekiñ bustiaz, eta *Miserere* salmoa esanaz.

Gero, salmoak kantatzen diran bitartean, obispoa badabill iru aldiz atzera ta aurrera Eliz barru guzian, paretiak ur bedeinkatuarekiñ bustiaz, goian, erdian eta bian. Egiten ditu berriz ere Gurutzearen señale asko, Elizako sueloaren lau ertzetan. Badijoa aldarera an arria jartzeko bear duan idraulika ur bedeinkatuarekin prestatzera. Juaten dira prozesioan, burnizko ontzi tñiki batean dau den eta sepulkroan ipiñi bear dituzten erlikien billa. Elizan sartzean, obispoak egiten du iru aldiz Gurutzearen señalea krisma santuarekiñ atean, eta esaten die kristauai, Eliz ori Jaungoikoarena baka rrik dala. Prozesioa juaten da aldare nagusiraño. An, obispoak egiten du bost aldiz Gurutzearen señalea sepulkroaren gañean, erlikiak bertan ipiñi baño len.

Kristandadearen lenengo denboretan Meza Santua eman oi zan martirien obi edo sepulturen gañian; emendik dator erlikiak aldareetan ipintzeko obligazioa. Obispoak inzensatzen ditu erlikiak, eta elkartzen du idraulikarekin sepulkroa.

Gantzutzen ⁽¹⁾ du arria eta inzentzitzen du aldarea erditik eta lau ertzetan. Gero ematen dio inzensarioa apaiz bati; eta au dabill aldarea inguratuaz konsagrazioa bukatu arte. Obispoak banatzen ditu oleo eta krisma santuak aldarearen gañean, eta igortzitzen du aldarea bere eskuz. Konsagratu rik gelditzen da aldarea.

Obispoa badijoa Elizaren erdirontz paretietan egiñ dituan amabi gurutzeak krisma santuarekiñ igortzitzera, aietako bakoitza iru aldiz inzentsatuaz. Biurtzen da aldarera, eta bedeinkatzen du an erretzera dijoan intzentsua; onen aleak ipinirik daudela gurutzearen eran, arriak dauzkan bost gurutzeen gañean. Ale oien gañean bost kandela t̄sikit̄so daude, batera erretzen. Kandelat̄so oien garrak dirauan bitartean, obispoa belaunikatzen da, ta kantatzen du: “¡Aleluia! Atoz, Espiritu Santua, bete itzatzu zure serbitzarien biotzak, eta irazeki ezazu oietan zure amorioaren sua.” Ondoren beste orrelako otoitz batzuek kantatzen dira prefazioaren donuan; obispoak eskaizen

(1) Gantzutu—*Ungir*—Larram.

dio Jaungoikoari: “Sendotu ezazu gure artean egiñ dezuna, Jerusalem'en dagoan zure etse santuan. ¡Aleluia!” Koruak kantatzen du orduan 67-garren salmoa, garaipeneko kantua: “¡Jaungoikoa ezagutzera eman dedilla eta bere etsaiak garaituak izan ditezela! ¡Berari gorrotodiotenak iges egin dezatela bera agertzean! (eta gañerakoak).” Aldarea apaindu, ango zapiak eta jantzi edo ornamentuak bedeintzaten diran bitartian, obispoak asten du Meza.

Konsagrazioa ikustera juaten diranak, ikaratzen dira ainbeste zeremoni, gantzutze, bendizio eta otoitzez. ¿Zertako ainbeste neke, ainbeste denbora, eta ainbeste kastu? Dira Sakrifizio miragarria eskeiñi bear dan, Elizaren diñidade geiagorako, eta aldarea bear beziñ garbi egiñ dediñ Jaungoikoaren Bildots, Jauskiñi edo Biktima mantsa gabea artzeko.

Kristauak beti gogoan iduki bear luke Jaungoikoaren etsearen Santutasuna, eta berak eskatzen duan errespetua. Salomon'en tenploa etzan beste gauzarik, gure Elizen iduri bat baño. Eta ala ere, judioak eta jentillak berak ere, erres-

peto aundia zeukakioten. Erregeen irugarren liburuak, zortzigarren kapituluan, eta Paralipomenos'en bigarrenak seigarren eta zazpigarrenetan esaten digute, Salomon'en tenploa konsagratu zanean, ill eta eskeiñi zituala ogeitabi milla idi eta eun milla ardi.

Erregek boz andiaz errezatzen zuan bitartean, su misterioso bat jetși zan zerutik eta irentsi zituan jauskiñi edo biktima guziak; laiñu astun bat zabaldu zan leku artan, eta Jaungoikoak bete zuan tenplo guzia.

Mirari au ikustean Israelgo semeak, beldur santu batez beterik, eroririk lurrrera eta beren aoaz lurra joaz, adoratu zuten Jauna beren biotz guzitik. Salomon'ek deadar egiñ zuan: “¿Sinistu ditke Jaungoikoa egiaz lurrean bizi dala? Baldiñ zerua eta zeruen zeruak asko ezpadira zu beregan idikitzeke, ¿ezta gutșiago izango nik egin dedan etše au?”

Egiaz, tenplo ura zan beneragarri eta arrigarria gizonentzat. Baña alare etzangure elizen iduri bat baizik, eta bere barruan zeuzkan gauzak ziran, arka santua Legeko bi olekin, saski bat manarekiñ,

eta Aaron'en zigor loretua. Jauskiñi edo biktimak etziran beste gauzik, baizik animali illak eta erreak, ogi, ardo, bizkotso eta beste orrelako gauzakiñ eskeiniak.

¡Zenbat andiago ezta kristauen tenploa, olio ta krismaz konsagratua, ur bedeinkatuz erregatua, intzentsuaren usai gozoz lurrundua, Gurutzearen señaleaz santutua, eta Sakrifizio Santua eskeintzeko egiña! Arka Santuaren lekuan daukagu kopoia, eta emen gordetzen da ogi, egiaz zerukoia, Aldareko Sakramentu guziz Santua, Jesu-Kristo'ren Gorputz egiazkoa.

Elizari deitzen zaio *Jaungoikoaren Etsea*; eta ala da egiaz, denbora guzietan Jaungoikoa an bizi dalako. An, aingeru talde andiak bera serbitzen, adoratzten eta alabatzen du, eta ara eramaten dizkio gure otoitzak: ona emen Jakob'en amesean iduritutako misterio gozoa. ⁽¹⁾ Patriarka onek, gau batean kanpoan lo zegoala, ikusi zuan amesetan, lurretik zeruraraño elten zan eskillara bat, Jaun-

(1) Gen. XXVIII, 17, 18.

goikoaren aingeruak an gora ta bera zebiltzala. Mirari au ikustean, beldurrez ikaraturik, deadar egiten du: “¡Ai, zein beldurgarria dan leku au! ¡Egiaz, auñe da Jaungoikoaren etsea eta zeruko atea!” Jarraituan igortzitzen du buru-azpian lo egiteko iduki duan arria, eta aldare biur-tzen du. Au izandu zan, len esan dedan bezela, aurraz egiñ zan kristauen Elizaren iduri bat, bada emen ere aldareko arria olio santuakiñ igortzitzen da; arri au da arri sagradua, eta beragatik esan diteke egiaz: “¡Ai zein beldurgarria dan leku au! ¡Auñe da Jaunaren etsea ta zeruko atea!” An, dabilta aingeruak gora ta bera, gure otoitzak Jaungoikoari eramateko, eta aren graziak guri ekartzeko. Gure Elizak dira, Jaungoikoak aditzera ematen duan leku ura, Isaías Profetaren aoz, esanaz: “Eramango ditut nere mendi santura, eta pozez beteko ditut otoitzeko etsean. Oien jauskiñi edo biktima nere aldarearen gañean desegiñak, nere gogokoak izango dira, eta nere bizilekuari jende guziak deituko diote otoitzeko etsea.”

Esan degun guziak adierazten du,

leku aiñ santuak merezi duan errespetoa. ¡Ai! Fede bizia bagendu, sartuko giñake leku onetan beldurrez, eta animako umilltasunik andienarekiñ, adoratu genduke Gure Jauna Aldareko Sakramentu Santuan, aingeruai ere errespeto andia ekarriaz. Dabid'ek, guziak aditzeko moduan, deadar egiten zuan: "Juango naiz zure etsera, eta adoratu zaitut beldurrarekiñ zure tenplo santuan. Aingeruen aurrean kantatuko ditut zure alabantzak, eta goituko det zure Izen santua." Izketan, barrez edo beste edozeiñ moduz pekatu egiten dutenak eliz-puntzioetan, Jaungoikoari asarratzeko bidea ematen diote eta errugarri (1) egiten dira. Atentzio, eta alperrikako itzik ez esateko ardura guzia, ez litzake izango naikua Elizan, ez bear bezelako debozioarekiñ otoitz egiteko, ez naikua federekin adoratzeko, eta ez pekatuak bear dan umilltasun eta damuarekin konfesatzeko.

(1) Culable. = *Larramendi*.

§ 2. Apaizen Konsagrazioa

Mezaren diñidade andia ezagutzen da Aldareko serbitzariak artzen duten konsagrazioan, bada konsagrazio au gabe eziñ lezakete bete beren serbizioko egin-kizun t̄sikienik ere. Apaiz egiñ bear duan gizonak, igo bear du zazpi mallatan, Bildots mant̄sa gabea eskeintzeko diñatzat juzgatuko badute. Lenengo lau ordenak artu dituztenak, dijoaz, obeki esateko, apaizak aldarean serbitzera, b̄na ezta auetako iñor ere izango kaliza, patena, korporal, eta purifikadore bati ere ukituko dionik; ori egiñ al izateko, artu bear du boskarren ordena, au da epistolakoa, bestela artarako baimen apart bat, edo premia oso estu bat bear du. Moises'en legean Lebitak bakarrik ukitu eta garbitu zitzazketen baso sagra-duak. Eraberean, apaizak, eta ebangelioz eta epistolaz ordenduak bakarrik ukitu ta garbitu ditzakete Meza Santua emateko bearren diran gauzak. Konbeni da, egiaz, oso garbiak izatea Meza Santua emateko bear diran eta Jesu-Kristo Gu-

re Jaunaren Gorputz eta Odol guziz Santuari ukitu bear dioten gauzak.

Lege bereziak obligatzen dituzte apai-
zak, eta ebanjelioz eta epistolaz orden-
duak, gauz auek oso garbi iduki ta gor-
detzera. Kontu estua eman bear ko diote
Jaungoikoari apaizak eta gañerako kris-
tauak, uzten badute Meza Santua ema-
ten alba zikiñaz, kasulla urratuarekiñ,
ta eunezko gauzak edozeiñ modutako
tela mantšadunaz egindakoak dirala; edo
patena eta kaliza ugartuakiñ, edo bear
diran ornamentu gabeko aldare batean.
Lotsagarria da, egiaz, kristaumentzat diruz-
ko Sakrifizio tšiki bat ez egiñ nai izatea,
elizak apaintzeko, ikusirik beste aldetik,
zeiñ errez gaztatzen dan diru guziz asko,
gorputza apaintzeko jantzietan. Utsegite
guziz andia izango litzake, ala erretore
batentzat nola bere parrokiako kristau-
entzat, idukirik beren armarioak arropa
onez beterik edo beren maietan balio
andiko ontziak izanik, ala ere idukitzea
aldarean eun-zapi urratuak eta baso sa-
graduak menasta edo metal merkeaz egi-
ñak. ¡Zer ikusgarri tristea! Onetan adi-
tzen emango litzake, onelako animak

daukaten bizitza negargarria. Baña bestera, alabantza andiak merezi dituzte, emakume on eta birjiña, denboraren libre-uneetan ari ori diranak, aldareen jantzi eta apaingarri it̃surazkoak egiten, edo itz batean esateko, Elizak edertzeko dan guzirako laguntzen. Auek ondo esan lezakete egiaz: “Jauna, amatzen det zure et̃seko edertasuna, eta zure Majestadea dagoan lekua.”

Anditasun au agertzen da batezere apaiz bat ordentzean egiten diran zeremonietan. Ebanjelioz ordendutako bat mezaz ordentzen darian, jantzitzen ditu amitoa, alba, eta estola ezkerreko bizkargañetik trabes jarri ta, eskuiko aldean loturik. Belaunikatzen da, aldarearen ondoko tronuan jarrita dagoan Obispoaren aurrean. Obispoak agertzen dio zeiñ gaitzak diran betetzen artu nai dituan obligazioak, eta galdetzen dio jendeari, artarako diñatzat daukaten. Inork espa edo kejarik ematen ezpadu, belaunikatzen da Obispoa, eta errezatzen ditu guziak aditzeko moduan Santuen letañak, eta bitartean ebanjelioz ordenduak, auspezturik eta arpegiaz lurra jo-

tzen duala, egiten du orazio berarekin batean. Ondorean ipintzen dio eskua buruaren gañean, esaten du otoitz bat eta prefazio luze bat, inguratzen dio lepoa estolarekin eta ipintzen dio kasulla bizkar-gañian.

Konsagrazioa egiaz egiten da, San Ligorio'k eta oraiño teologorik geienak diotenez, eskuak ipintzen zaizkan instantean *Veni Kreator* esatera ordurako, eta au esaten dan bitartean, osatzen ditu ordenazioko zeremoniak. Obispoa bere lekuan jarrita dago, ordendu bear duanak, belaunikaturik, eskuak aurkestent diozka. Obispo Jaunak igortzitzen diozka Olio santuarekiñ, esanaz: "Jauna: igortze auek eta nere bendizioagatik bedeinka itzatzu esku auek." Gañera, gurutzearen señalear egiñaz esaten du gero: "Jesu-Kristo gure Jaunaren izenian, esku auek bedeinkatzen duten guzia, bedeinkatua izan dedilla, eta berak konsagratzen duten guzia konsagratu rik gelditu dedilla." Itz auek esatean, bi eskuak elkarri lotzen dizka eun zati batekiñ, eta gero kaliza, patena eta ostiarekin aurkesten dio, esaten diola: "Artu

ezazu poderea, Jaungoikoari sakrifizioa eskeintzeko, eta biziak eta illak gatik Meza Santua emateko, Jaunaren izenian. Ala izan dedilla.“ Askatzen zaizka eskuak apaiz berriari, garbitzen ditu berak, eta Obispoak jarraitzen du Meza ematen.

Ofertorioan aurkesten da eskeintze edo ofrendara kandela irazeki batekiñ, ematen diola bera Obispoari, eskuan muñ egiñaz. Gero jartzen da belauniko Meza ematen dagoanaren atzean, eta esaten ditu berarekin batean Mezaren itz guziak bat-banaka, mezadun liburu bat irakurriaz.

Comunioan, artzen du Obispoaren eskutik Salbatzaillearen Gorputza, eta *Kredo*a errezatu ondoan, Obispoak jartzen dizkio eskuak buruaren gañean, esanaz: “Artu ezazu Espiritu Santua; pekatuak barkatzen dizkietzunai, barkatuak izango zaizte, eta barkatu gabe uzten dizkietzunai, barkatu gabe geldituko zaizte.“ Azkenik apaizak itz ematen dio, obeitzeko Obispoari, eta onek ematen dio bere bendizioa itz auekiñ: “Jaungoiko Guzieldun Aita, Semea eta Espiritu

Santuaren bendizioa jet̄si dedilla zure gaiñera, bedeinkatua izan zaitean apaizen ordenan ostia osasungarriak eskeintzeko gizonen pekatuakgatik eta Jaungoiko Guzialdunari egiten dizkioten gaiztakeriakgatik; eta berari onra eta gloria emateko sekula guzien sekulatan.“

• Onela Eliza Katolikak konsagratzen ditu apaizak. Ezta gaitz ezagutzen zein beneragarria dan antziñako usario, zere-
moni eder auekin apaizak ordentzekoa. Galdetuko zaigu benturaz: ¿Zergatik ordentzen eztira batera? ¿Zertarako ainbeste prestamen? ¿Zertarako otoitz, gantzutze eta zeremoni oiek? Egiten da ori guzia geienbat, guri erakusteko, zein santua izan bear duan batek, aldarera igo eta Jaungoikoaren Majestade Andiarri Bildost mant̄sa gabea eskeintzeko.

Meza Santuaren goitasunaren beste ezagungarri bat, dira bera emateko bear diran gauzak. Lenengo, meزاز ordendutako apaiz bat, Jesu-Kristo beraren ordezkoa, aldare konsagratua, Kalbario berria, beraren gañian Zeruko Bildotsa sakrifikatzeko, eta apaizak bear dituan jantziak, ondoren esango dan bezela:

Amitoa: au apaizak ipintzen du bere buruaren eta lepoaren gañean, eta aditzen ematen du Judicak Kaifas'en etxean Salbatzalleari arpegia estaltzeko ipini zioten zapia, esaten ziotela burlaz "Kristo, igarri zaiozu, eta esan zaiguzu nork zauritu zaituan."

Alba: onek adierazten digu, Herodes'en etxean ipini zioten soñeko zuria.

Zinguloa: bera lotu zuten soka, gogoratzen diguna da.

Manipuloa: gogoratzen dizkigu bere besoak estutu zituzten lokarriak.

Estola: Adierazten digu, eriotzako sententziaren ondoren lepotik ipini zioten katea.

Kasulla: bizkarrean ipini zioten eskarlatazko mantua gogoratzen digu. Jantzi onen erdiko gurutzeak gogora ekartzen du, bere gañean Jesus jasoan izan zan gurutze ura, eta aurreko pillareak azoteetako pillarea.

Esan dezagun itz bat, sakrifizio Santurako bear diran gauzen gañean.

Kaliza Konsagratuak gogoratzen digu, Jesus'ek ondarretaraño edan zuan samintasunezko kaliza ura, eta bere

Gorputzari eman zioten obi edo sepultura.

Palia: Obi edo sepulturako arri laurkikoa.

Patena: balsamatzeko bear ziran lurrinkaiak zeuskan ontzia.

Korporala: Jesus'en Gorpuz Santua biltzeko ipini zioten izara.

Purifikadorea: Obiratzeko eunak.

Kalizaren *beloa:* Goitik beeraño berez urratu zan belo tenplokoa.

Binajera biak: Jesus'i, egarria illtzeko, eskeiñi zizkioten beasunez eta ospinez betetako bi basoak.

Gañera bear dira beste gauza asko Meza emateko; lami gabeko ogia; Jesus gurutz-iltzatuaren iduri edo imajiña bat tabernakuloaren gañian; ardoa, ura, kandelak bi beren kandelakiñ, mezadun liburu bat, atrill bat, iru zamau aldarea estaltzeko, purifikadore bat, apaizak bere eskuak legortu ditzan, kalizakoa artu ondoan tšiliñtšo bat, eta azkenik laguntzalle bat, aldarean apaizari lagundu, eta jendearen izenian erantzuteko.

Gauza auetako geienak oso bearrak dira, eta meza ematera dijoanak utziko

balitu bere faltaz, gutsi edo asko beti egingo luke pekatu.

Egi onen ezagungarri jarriko degu ejemplo bat: España moroen mendean zegoan denbora batean, Karabaka'ko errege batek zeuzkan katez loturik kristau asko presondegian. Errukiturik noz-paitere doakabe aiezaz, erabaki zuan guziak libratzea. Galdetu zion aietako bakoitzari, zer ofizio zeukan eta utzi zien lan egiten. Aien artian arkitzen zan apaiz bat, eta oni ere galde bera egin zion eta erantzun zion grabetasun guziarekiñ: nere opizioa da Jaungoiko Guzalduna zerutik jetsieraztia. Erregeak, mirari ori ikusteko deseoarekin, agindu zion, egin zezala. Apaizak erantzun zion baietz, baña bakarrik, artarako bear zituan gauza guziak ekarteko kondizioarekin.

Errege moroak agindu zion, eskribitu zezala kristau errietara, bialdu zeizkio-ten. Apaizak ipini zuan lista bat, baña aztu zitzaion Jesus gurutziltzatuaren iduri edo imajiña jartzia. Guzia ekarri ziotenian, eta Meza astera zijoala, gogoratu zitzatzion, gurutzea etzegoala an. Luzeroan geldi egon zan, zer egiñ era-

baki eziñez, jakiñ gabe, Meza eman bear ote zuan edo ez. Erregek uste izan zuan etzekiala ondo bere opizioa, eta galdetu zion, ea zergatik zegoan turbatua. “Prin-tzipea—erantzun zion—gurutzea aztu zait; onek ematen dit kezka andia, eta aldarera igo ala ezean nago.” Burutazio au zerabillela, zeruari laguntza denbora berean eskatuaz, ideki zan arrizko bobeda, eta eguzkiak beziñ argi egiten zuten bi aingeruk, jetñi zuten zurezko gurutze disdiatzalle bat, eta ipini zuten al-darearen gañean. Apaizak au ikustean, asi zuan Meza; baña errege eta salan zeuden moro guziak uste izan zuten, Aingeruak Jaungoikoak zirala eta beldurrez ikaraturik, erori ziran arpegiakiñ lurra jotzeraño, eta etziran jaiki aingeruak ezkutatu ziran arte. ⁽¹⁾ Emendik datorrena da, Karabaka'n benerazio ain andian gordetzen dan gurutze española, jendeari erakusten zaiona bere zerutik jeiñkerako urteak betetzen diran egunetan. Egiazko kondaira onek erakutsiko digu, zeñ premiazkoak diran esan diran

(1) Beyrlinck; CRUX.

gauza guziak ondo eta bear bezela sakrifizio guzien artian andiena dan Meza Santua emateko.

Ezagutzen da azkenik Mezaren anditasuna, bera emateko aginduak dauden zeremonietatik. Bakarrik bearrenak emen gogoratuko ditut. Apaizak egiten du gurutzearen señaleara bere gain amasei bidar; itzultzen da jendiaganuntz sei bidar; zortzi aldiz muñ egiten aldareari; beste ainbestez jasotzen ditu begiak zeruruntz; amar aldiz jotzen du eskuz bere bularra; amar aldiz belaunarekin lurrea jotzen du, berrogeita amalauz eskuak elkartzen ditu; ogeita batez burua markurtzen du, eta zazpi bider gorputza; zortzi aldiz auspezten da eta ogeita amaikaz bedeinkatzen du ofrenda gurutzearen señalearekin; ogeita bederatzi aldiz jartzen ditu bi eskuak aldarearen gainean; amalauz otoitz egiten du berak zabalduaz, eta ogeita amaseiz bilduaz; ezkerreko eskua bakarrik jartzen du zabalik bederatzi aldiz aldarearen gainean, eta amaikaz eramaten du bere bularren gainean; amalau aldiz jasotzen ditu bi eskuak zeruruntz, amaika aldiz otoitz

egiten du iñillik, eta amairuz aditzeko moduan; amar aldiz desestaltzen du kaliza, eta ogeiz lekualdatzen da.

Gañera egiñ bear dítu, agindurik dauden beste gauza asko, eta orregatik bosteuneraño eltzen dira zeremoniak. Auezaz gañera geitu itzatzu rubrikak, eta ikusiko dezu, Eliza Katolika Erromakoak agintzen duan bezela, Meza eman bear duan apaizak, badauzkala bederatzireun obligazio diferente. Auetako bakoitzak badauka bere fundamentua, bere adierazte espiritualala, bere inportantzi berezia, eta auetako bakoitzak berenez lagun egiten du, bear dan fedearakiñ Mezako Sakrifizio guziz santua emateko. Aita Santu Pio boskarrenak agindu zuan konturik andienaz, Kardenal, Arzobispo, Obispo, Dianagusi eta apaiz guziak eman zezatela Meza era onetan, mudantzarik batere egiñ gabe, ez ezer geitu, eta ez kendu egiten zala. Utsegiterik tñikiena, onetan andia izango litzake, ez bakarrik gure religioko egitekorik andien eta santueia dalako, baizik baita Aita Santua'ganako desobedientzi andia izango litzakealako ere.

Eziñ pentsatu diteke esku-mugitze diñagorik, ez gorputzaren ibillera egokiagorik eta ez beste egoera santuagorik, Elizak agintzen dituanak baño. Gañera zeremonia guziak ondo egiñaz ematen dan Meza ura, entzuten da debozio geiagorekin, aietakoren batzuek utziaz ematen dana baño.

Beragatik aitortu bear degu, bere kontzientziako zuzentasun guziarekiñ Meza ematen duan apaiz batek (egiaz, bere eginkizunak ondo betetzen dituan edozeiñ gizonek estimazioa merezi duala gauza jakiña dalarik ere) merezi du gure esker ona, gure debozioari trabarik ez jartzeaz gañera, bera erraztutzen digulako. Berari zor diogu, gure otoitzak indar eta meritu geiago idukitzea, eta Jaungoikoak gure mesederako artzen baditu, onetan ere berak dauka parte andia.

§ 3. Meza Santuko Apaiz nagusia

Oraindaño esan degunetik ezagutu dezakegu, zeñ miragarria dan Mezako sakrifizioaren diñidadia. Baña alare eza-

gutuko degu obeki, gogoratzten badegu,
 nor dan Sakrifizio au eskeintzen duana.
 Eta egiaz; ¿badakizute nor dan, Sakrifi-
 zio Jainkozko au eskeintzen duana?
 ¿Ote da benturaz, apaiz bat, obispo bat,
 Aita Santu bat, aingeru bat, santu bat,
 edo bear bada Santuen Erregiña Maria?
 Ez, egiaz. Ezta besterik baizikan apaizen
 Apaiza, Jaungoikoaren Seme bakar Je-
 su-Kristo, Aita betikoak berak ordendu
 zuana, apaiz betikoa, Melkisedek'en
 ordenaren erara. Bai, bera da Meza
 Santuari anditasun berdin gabea ematen
 diona. Bera da, kristauen Sakrifizioa
 Jaungoikozko obren berdiñera jasotzen
 duana. Jesu-Kristo dala apaiz au, pro-
 batuko det San Juan Krisostomo'ren itz
 auekin: ⁽¹⁾ “Apaizak dira serbitzari
 utsak: Jesu-Kristo da Ogia ta Ardoa
 Gorputz eta Odol biurtu, eta eskein-
 tzen dan Sakrifizioa Santu egiten ditua-
 na. Azkeneko avarian Konsagratu zituan
 ogia ta ardoa, eta orain ere badirau mi-
 lagro ori egiten. Orrengatik jo kristaua!
 ikusten dezunian apaiza konsagratzen

(1) 8 hom. in Matth.

gogora ezazu Sakrifizioa eskeintzen duana eztala apaizaren eskua, baizik Jaungoikoaren esku ikusi eziñ ditekena.“ Erakasle Santu onek erakusten du itzauekin, Jesu-Kristo berbera dala Mezan gauzarik bearren-bearrenak egiten dituana, eta zerutik jeisten dala, ogia ta ardoa bere Gorputz eta Odol biurtzen dituala, eta bera eskeintzen zaiola Jaungoikoari, mundua salbatzeko, eta bitarteko leial bezela, erregutzen duala, erria erredimitzeko. Baliatzen da apaizen boz eta eskuaz, baña Bera da Sakrifizio Santua eskeintzen duana.

Ezpaderitzatzu naikua dala San Juan Krisostomo'k erakusten diguna, ona emen zer dion Trento'ko Batzarre edo Konzilio Santuak ⁽¹⁾: “Gurutzeko Sakrifizioa eta Mezakoa, biak bat, eta berbera dira, bada Gurutzean, Odola iñuriaz, eskeiñi zan ura bera da, apaizen bitartez eskeintzen dana Mezan, Odolik iñuri gabe.“

Eta egiaz, Elizaren dotriña au da: Apaizak dirala bakarrik Kristo'ren ser-

(1) Trid., sess. 32, c. 2.

bitzariak, eta Jesu-Kristo gure Jauna eskeintzen dala aldarean, bera dan bezela eta egiaz, Gurutzeko Arbola Odoleztuaren gañian eskeiñi zan bezela. Onore andia, neurri gabeko grazia eta esan eziñalako tesoroa daukagu Jesus, gure sazerdote eta Bitarteko jarri nai izan zaigun Sakrifizio onetan. San Paulo Apostoluak itz egiten digu guziz argiro egi pozgarri onen gañian. ⁽¹⁾ “Konbeni zanguk idukitzea sazerdote-nagusi, santu, gaitzik gabia, garbia, pekatariak baño geiagoa eta Zeruak baño gorago jaso. Legeak jartzen zituan sazerdote, gizon gaño eta miserien mende zeudenak, baina Jaungoikoaren itz, juramentuaren bian emanak, ipini zuan betiko sazerdote-nagusi, bere Seme, birtute guziak dituana.” San Paulo’k itz eder auekiñ aditzen ematen digu, zeñ andia dan Jaungoikoak daukakigun amorioa, bada eman digu sazerdote ta bitartekotzat, ez gizon argal eta pekatari bat, baizik bere Seme bakarra.

Gogora dezagun oraiñ, zergatik Jesu-

(1) Heb., VII, 26-28.

Kristo gure Jaunak eztuan utzi nai izan bere Sakrifizioa gizonen eskuetan. Geienbat izan da, Sakrifizio onek oso garbia izan bear zualako Malakias profetak aurraz esan zuan bezela ⁽¹⁾. Elizak ere ala dio: ⁽²⁾ “Eziñ zikindu lezakela, eskeintzen dutenen aldetikako diñeztasunek eta ez gaiztakerik.” Egiaz, apaizak balira Sakrifikatzalleak, Meza zikinduko litzake benturaz asko aldiz; edo beñepeiñ, Jaungoikoak ontzat artu ote duan, dudaren bat sortu diteke. Baña Salmistaren itz auek: ⁽³⁾ “Zu zera betiko sazerdote Melkisedek’*en* ordenaren antzerakoa,” aditzen ematen dutenez, Jaungoikoak nai izan du, bere Seme berberak artzea sazerdotearen izena eta izana.

Sazerdoteak Meza ematen badute ere, egia esateko, berak eztira beste gauzarik, Sazerdote andiaren sazerdoteak baño. Nagusi batek bere mirabeari eman-go balio dukat bat, Eliza baten limosna emateko, dukat ark eluke gutsiago balioko mirabearen kontzientzia tñarragatik, au pekatu mortalean dagoalako. Era

(1) Malach., I. 11.—(2) Trid., sees. 22, c. 1.

(3) Ps. CIX 5.

berean sazerdotea, gaiztoa izanagatik, onek Jesu-Kristoren izenian eskeintzen duan sakrifizioak eztu gutsiago balioko.

Jesu-Kristo gure Jaunak eztu utzi nai izan Meza Santua aingeruen eskuetan, ez santuenetan, ezta bere Ama guziz Santarenetan ere. Auek, izanik guziak garbiak eta graziaz beteak, ez bakarrik gaizki tratatu ez, misterio atsegiñgarri au, baizik emango zuketan Meza santua modurik onenean; eta ala ere ¡nolako debozioarekin emana elitzake izango arako San Pedro, San Pablo, Kerubiñ edo Serafiñ batek elkarri lagunduz emango luketen Meza! ¡Nolako poza ta debozioa sumatuko elukete, ikustean mez-emallearen piedadea, errespetoa eta arreta! ¡A! Beren biotzak atsegiñez eta Jaungoikoaren amorez gañez egingo lukete.

Orrelako Mez-ematea izango litzake egiaz, esan eziñalakoa, baña alare elitzake izango urrik ematekore, Jaungoikoaren Santutasunak eskatzen duanari, eta onela emandako Mezak, eluke mereziko Jaungoikoari eskeiñia izaterik ere. Onerako diña dan ofrenda bakarra da Jaun-

goikoaren duiñ dana. Orrengatik Jesu-Kristok eztu utzi Meza santuen eta ez gizonen eskuetan, baizik beretzat bakarrik gordenaiz izandu, bera bakarrik dalako eskeintzen zaion aren duiñ. Emen-dik ikusten dana da, ematen dan Meza bakoitzak, dukala neurri gabeko balioa, Jesu-Kristo bera dala Mez-emallea, eta ematen duala, gizonik jakintsuenari gañez eragiten dion debozio, begirune eta amorioarekiñ. Ona emen zer adierazi zion Kristok Santa Metšilderi: ⁽¹⁾ “Neuk bakarrik, esan zion, ezagutzen det, guziz ondo, nola sakrifikatzen naizen egunero aldarearen gañian gizonak zeruratzeagatik, eta au eziñ iñolare ezagutu lezakete, ez Kerubiñek eta ez zeruko almenek.,” Au onela izanik ¿nola izango degu, onelako sakrifizio baten anditasunaren gañian itz egiteko ausardia? ¡O nere Jesus! Zorionekoa, Meza Santua bear bezela entzuten duan gizona, egite onegatik bakarrik ere merzi dualako beraren birtute eta graziatan parte izatea, izanik auek kriaturarik jakintzuenak ezagutu al baño andiangoak.

(1) Lib. II, 31.

Itz auek ondo ulertzen badituzu nere irakurlea, gogora ezazu zein probet̃sugarria izango zaitzun, Meza santura joatea eta debozior entzutea. Gogora ezazu, Jesu-Kristo gure Jauna, berbera eskeintzen dala zugatik, Bitarteko bezela jartzen dala zure argaltasunaren eta Jaungoikoaren justiziaren artian, geldieraziaz zure pekatuak gatik merezi dezun kastingua. ¡O! Sinistuko baziñuz ondo egi auek, zein sarritan juango ziñakean Sakrifizio santu onetara! ¡Nolako suspirio-akiñ naiko zenduke ondasun andi onetan parte izatea! ¡Nolako debozioaz entzungo zenduke Meza santua, eta nolako atsekabea artuko zenduke zorion au galeraziko balizute! Arriskatuko ziñake lurreko ondasun asko galtzera, Meza uztetik etorri al deizkitzun kalteak sufritzera baño len. Ala ulertu zuten lenengo kristauak; naiago izango zuteken bizia galtzea, Meza uztea baño. Baroniok esaten digu onen gañean, 303-garren urtean gertatu zan gauza bat, ondorean esango deguna. ⁽¹⁾

Dioklesiano eta Maximiano Enpera-

(1) XXXVI, y s. c. q. q.

doreak, Galerok artarako bultzatzen zitu-
tuala, eman zuten agintearen bidez,
Eliza guziak lurrera bota ziran Alluta
zeritzan Afrika'ko uri batean, baña ala
ere kristau askok, gizaseme ta emaku-
mek, entzuten zuten Meza etse batean.
Juezak jakin zuan eta preso arturik,
eraman zituan bere aurrera plaza age-
rian. Jentillak, arturik Meza emateko
liburua eta beste liburu santuak, bota
zituzten sutara. Baña Jaungoikoak ala
nairik, erori zan bat batera euri jasa
andibat suaren gañera, eta itzali zan sua.
Mirari au ikustean, ainbesteraño mugitu
zan Juezaren biotza, nun bialdu zituan
Kartago'ra, Anolino prokonsularen au-
rrera eramateko, ogeita amalau gizase-
meak eta amazapi emakumeak. Pre-
soak juan ziran bide guzian pozez be-
terik salmoak eta beste kanta asko kan-
tatuaz. Eldu ziranean, aiek eramatera
juan zan soldadu nagusiak, aurkestu
zituan, esanaz: "Kristau errukarri auek
arkitu ditugu Alluta'ko etse batean, be-
ren relijioko eginkizunetan ari dirala,
jaramunik egin gabe zure debekoai."
Anolinok erantzierazo zuan Datibo se-

ritzan eta Senadore zan kristau aietako bat, aginduaz, eman zeiotela burpilleko tormentua. Ikustian ori Telika zeritzan beste kristau batek, deadar egiten du: ¿Zergatik ori bakarrik tormentuan jartzzen dezu? ¡O agintari gaiztoa! Guziok gera kristauak, eta orrek bezela Meza entzun degu guk ere. Anolinok aginduzuan bereala erantzitzeko ori ere bere laguna bezela, eta jarraituan iseki eta larrutu zuten. Lan onetan ari zirala, galdetu zioten: “¿Nor izan du zuek bildu zaituztena?,” “Saturnino Apaiza,” erantzun zuan martiri santuak, eta gu guziok elkaturik; baña zuk, doakabe orrek, ostikoperatzen dezu justizia guzia, gu arrazoi onegatik kastigatzean: ez gera gizon illtzalleak, eta ez lapurrak, eta beste gaiztakeririk ere eztegu batere egiñ. Zuk obeitu bear zenien Enperadoreen eta Zesarreen ⁽¹⁾ aginduai, esan zuan prokonsulak, eta utzi alde batera zure erligio gesurrezkoa.—Eztiot obeitzen beste legeri, Jaungoikoarenari baño; erantzun zuan Telikak—eta prest nago beragatik iltzeko. Orduan aitorle leiala

(1) Konstanzio eta Galerioaren.

askatu, eta kartzelara eramán zuten.

Bereala aurkezten da Santa Biktoría' ren anai, gentil bat, eta salatzen du Dabitibo Senadorea, Biktoría Mezatara eramán zualako. Eztala egia, dio santak. “Ez nau iñork ere beartu et̃se orretan sartu eta Meza entzutera. Sartu banaiz, izan da kristaua naizelako, eta Jesu-Kristori obeitu bear diodalako.” Bere anaiak erantzun zion: “Zoraturik zaude, eta burugabe batek bezela itz egiten dezu.” “Ez,—erantzun zuan Santa Biktoriak,— ez nago zoraturik, baizik kristaua naiz.” Prokonsulak, emakume gazte oni itz egiñaz, galdetzen dio: ¿Naidezu biurtu zure anaiaren et̃sera?—“Ez—erantzun zuan gazteak—Kristaua naiz eta ez tet besterik ezagutzen anaitzat, Jesu-Kristogatik sufritzen dutenak bakarrik baño.” “Izan ezazu zure buruaren errukia, esan zion prokonsulak, eta jarraitu ezazu zure anaiaren konsejua.” “Ez naiz, ni alden-duko nere anaiakgandik; aitortzen det, oiekin batean Meza entzun dedala, ta baita Komunio Santua artu ere.” Orduan juezak agindu zuan eramán zezatela berriz kartzelara, eta al guzia egiñ zezatela.

tela, bere sinismenetik ateratzeko, bada zan emakume guziz ederra, ta urian zan familiarik andiskienetakoa. Bere gurasoak alaba au, bere borõndatea ukatue-raziaz, ezkondu nai izan zutenian, iges egin zuan leio batetik bere burua bo-teaz, eta ebaki zuan buruko illea, bere biotza Jaungoikoarentzat gorderik zeu-kalako ezagungarritzat.

Agintari gaiztoa biurtu zan bereala apaizaganuntz eta esan zion: “¿Zu zera enperadoreen eta Zesareen aginduak alde batera utzi ta, giza-mordo ori bildu dezuna?,” “Nik bildu ditut—erantzun zion Saturninok,—Jaunaren aginduz, bere serbizio santua zelebrazteko.,” “¿Zergatik egin dezu ori?” “Meza ematea utzi bear eztegulako.,” “¿Zu zera, beraz, billera ori egiteko lan egin dezuna eta besteak ere ortara erakarri dituzuna?,” “Bai, ta neuk eman det Meza Santua.,”

Orduan Juezak agindu zuan erantzi zezatela eta urratu zezatela burnizko kakoekin aiñ gogor, nun erraiak atera zitzaizkan bere gorputzetik. Tormentu ikaragarri onen ondoren bialdu zuan kartzelara beste lagunekin elkartzera.

Bereala deitu zitzaion Emeritori. Anolinok galdetu zion: “¿Zure etxean eman da Meza?,” “Bai;,” erantzun zion martiriak. “¿Zergatik ausi dituzu enperadorearen aginduak?,” “Ezin obeitu nekazien; bada gizon auek nere anaiak dira ta gu ezin bizi gindezke Meza Santua gabe.”

Ondorean larrutu, eta preso sartu zuten. Agintari gaiztoak esan zien besteai: “Uste det zuek eztiozutela jarraituko doakabe oien ejemploari, eta eztezuela jolasean aĩn errez zuen bizia arriskuan jarri naiko.” Baña martiri santuak erantzun zuten batera; “Kristauak gera, eta kunplituko degu Jesu-Kristoren legea, gure odolaren azkeneko tantoa iñuri arte.”

Anolino biurtzen da auetako Feliz zeritzan bategana, eta esaten dio: “Eztizut galdetzen kristaua zeran, baizik billera orretara joan zeran, eta Mezare entzun dezun.” Felizek erantzuten dio: “¡Itñura gabeko galdeera! ¡Mezarik entzun gabe iñor kristau izan albaledi bezela! Nik esaten dizut, Satanas bel-durgarria, billdu gerala eta Meza Santua

entzun degula., Au aditzean agintari gaiztoak irazeki zan aserre bizian, ainbesteraño, nun bota zuan lurrera aitorle leiala, eta makillatu zuan illtzat üzteraño.

Oso suturik prokonsula, igaro zuan egun guzia, presondegian zeudenai tormentuak ematen, eta gaba eldu zanean, agindu zuan, sartzeko kartzela illun batean, oraindik arnasa zeukatenak, eragotziaz zaitzalleai, aiei ezer jaten edo edaten ematea, esanaz, bizia kenduko zitzaiela, debeku au austen zutenai. Beren senide ta adiskideak iritši zuten presoak ikusteko baimena, eta eramaten zizkieten, beren soñekoen azpian ezkutataturik, janari ta edari batzuek, baña zaitzalleak errejistratzen zituzten kontuz, presoak ikustera zijoazenak, kenduaz zeramatena, eta golpe gogorak emanaz.

Ala ta guziz ere adiskide leial oiek gau ta egun egon ziran kartzelaren aurrean negar eta ulua egiñaz. Onela uste zuten Anolino errukituko zala preso zeuden gaišo aiezaz, baña agintari gaiztoa aiñ zegoan gogorturik gaiztakerian, nun utzi zituan illtzen izugarrizko gose, sufritu erazi zien baten bitartez.

Baroniok itzez-itzez, kanonizazioko prozesotik atera duan kondaira onek, erakusten du argiro, kristandadearen lenengo denporetatik kristauak entzuten zutela Meza, orain egiten dan bezela. Erakusten digu gañera Mezako Sakrifizio Santuagatik zeukaten kontu andia, naiago izaten zutelako martirioa sufritzea, Meza uztea baño. ¿Nundik zetorkien deseo aña bizi au? Bere balio neurrigabekoa ezagutzetik. Guri dagokigu orain aien ejemploari jarraitzea, al deguna egiñaz, Misterio Santu auei debotzio andia idukitzeko.

§ 4. Meza Santuan ezkeintzen dan doai estimagarriaren gañean.

Meza Santuaren anditasunaren gañean asko itz egin badegu ere, oraindik gelditzen zaigu esateko, balio guziz andiko gauza bat; au da, Irutasun edo Trinitade guziz Santuari aurkezten zaion ofrendaren balioa.

San Paulok erakusten digunez, ⁽¹⁾ “Sacerdote guziak izan dira, doai eta jaus-

(1) Heb. VIII, 3.

kiñi edo biktimak eskeintzeko ipiñiak., Beragatik, izanik Kristo, bere Aitak ordendutako Sazerdotea, egiñ bear du eskeiñi edo ofrenda bat. Eta ¿zer ofrenda da au? San Paulok eztu esaten, uste dualako guk gogoratuko degula, eta galde oni erantzuteko, izango da, oraiñ esango deguna.

Berealatik ezagutzen degu, ofrenda au ezin izan ditekela edozein modutako gauza, bada zenbat eta andiagoa dan ofrendatzallea, ainbat eta andiagoa izan bear du ofrendak. Aiñ andia da Jaunaren Majestadea, nun zerua eta lurra utsa diran Beraren aurrean. Aditu dezagun, Jakintsuak esaten diguna ⁽²⁾: “Mundu guzia Beraren aurrean da pisu baten balantza mugitzeko diña eztan ale bat bezela, goizeko intzaren tanto, orritik erortzen danaren antzekoa.” Au onela izanik, ¿nola arkitu diteke munduan, eskeintzeko diña dan gauzik? Zeruan bertan ¿zer arkituko du Jesu-Kristok, Jaungoikoaz ostean? Gauza bat bakarrik—erantzungo det nik.—Bere Gizatasun santu garbi eta zorionekoa; au da

(1) Sap. XI. 23.

bere Gorputza, Odola eta anima. Kristo denbora berean da sazerdote eta ofrenda, dio San Juan Krisostomok: ⁽²⁾ Sazerdote, espirituz; ofrenda, aragiz; berak eskeintzen du eta bera eskeintzen da. Ori bera dio San Agustiñek: “Kristo da denbora berean sazerdote eta ofrenda, berak bere burua eskeñi dualako.”

Bere gizatasuna da Jaungoiko guzialdunaren eskutik atera dan obrarik onena eta estimagarriena. Ala esan zion Ama Birgiñak Santa Brijidari. ⁽²⁾ Jaungoikoaren ondo naiak eman dizka Gizatasun oni ainbeste grazi, aberastasun, birtute, santutasun eta jakinduri, nun andiagorik artu ere eziñ zitzakean, ez, Jaungoikoak geiago eman eziñ lezake-lako, baizik bere neurria beteta dagoalako. Ama Birgiñaren santutasuna guk jakiñ genezaken guziaz gañetik badago ere, eziñ alaše ere konpara dezakegu Ama au Kristoren Gizatasunarekiñ, kandela bāten argia konparatu eziñ ditteken bezela eguzkiaren argiarekin.

Besterik ez bezelako anditasun onegatik, Kristoren Gizatasuna onratzen

(1) Serm. de Cruc. et Sacr.—(2) Lib. III, 13.

zuten, ez bakarrik lurrean gizonak, baik baita aingeruak ere zeruan, eta oraindik gaur ere espiritu zerutar guziak diraute onratzen errespetorik andienarekiñ; auda beste kriatura iñori ere ematen etzaion onra berezia.

Bai: Jaungoikoak eman dizte aingeruai santutasun miragarri eta birtute kontaeziñ ainbat: eman dizte gizon askorigrazia andiak eta birtute arrigarriak; baña au guzia baño geiago egiñ du Ama Birjiña lurrean bizi zanetik, beste iñor ez bezelako pribilejióz betetzean. Ala ere doai auek guziak banaturik bezeladaude santu diferenteen artean; baña Espiritu Santuak guziak pillotu ditu Jesu-Kristogan. Oraindik geiago: Salbatzallearen Gizatasunari eman dizka beste grazi asko, neurrigabeko grazien izena emango nikienak; aberastasun eta tesoro, beste iñungo lekutan arkitzen eztiranak, ezta Ama Birjiñagan ere. Onek adierazten du oso argiro, birtutezko it̃saso au alabantza guziaz gañetik dagoala.

Auñe da Jesu-Kristo, Jaungoikoaren Seme bakar, Sazerdote Andiak egunero Irutasun edo Trinitade guziz Santuari

Mezako Sakrifizioan eskeintzen dion doaia.

Baña eztu doai au bakarrik eskeintzen; eskeintzen du gañera Berak lurrean igaro zituan ogeitamairu urteetan, Jaungoikoaren gloriagatik egiñ zuan guzia: sufritu zituan samintasunak, bere barauak, bere gaubelak, bere otoitzak, Apostolautzako nekeak, ainbeste persekuzio, umillatze, burla ta naigabe; bere azoteak, arantzazko koroia, gurutziltzatzea, bere atsekabeak, bere malkoak; Jesemaniko baratzako izerdi odolezkoa, bere agonia negargarria, bere Odol baliotsu amoriorik andienarekin iñuria: Jesu-Kristok au guzia jartzen du Mezatan Irutasun edo Trinitade guziz Santuaren begien aurrean, ontzat artzeko, al guzia erregutuaz.

Baña, ala ta guziz ere, mirari guzien miraria da, orain esango dana. Gizatasun aiñ oso eta merituz aiñ aberatsa dan au eziñ aldendu diteke Jaungoikoaren Semearen personagandik; auda, Jaungoikoaren Semea, bere Jaungoikotasunean bere, sakrifizioan eskeintzen ezpada ere, eskeintzen da gizatasunean,

onekin batean dagoalako Jaungoikotasuna, gizon egin zan ezkerokoan.

Eziñ aditzera eman diteke onelako doai baten balioa ta anditasuna, jakinduri guziaz gañetik dagoalako.

Beste konsiderazio bat. Kristok eztu eskeintzen bere Gizatasuna orain zeruan daukan itšuran, baizik aldarian artzen duan beste itšura batean. Zeruan aĩn dago gloriáz beterik, nun aingeruak beldurrez ikara daude bere Majestadearen aurrean; baña aldarearen gañean, beeratzen da umilltasun ain geigizkora, nun espiritu garbi aiek dauden lotsaturik bezela. Zuek ikusten dezute ostiaren iduripean, soñeko zakar batez jantzirik bezela; an dago sarturik kartzelan bezela. Sakramentuaren berorde edo espeziatan dago Gizatasun au, eta aiek onekiñ aĩn daude elkaturik, nun aiek alderdi batetik bestera eramatean, eramaten da au ere, eta aiek dirauten bitartean eziñ gizonen indarrek bata besteak gandik aldendu litzake. Era onetan jarririk eta umill, aurkesten da Irutasun edo Trinitade guziz Santuaren aurrean, eta eskeintzen da Bera biotz aĩn errukitsua-

rekin, nun zerutar guziak osoro arriturik begiratzten dioten.

Gizonak eziñ ezagutu lezake zenbaterañoako mugidalda egiten dion Irutasun guziz Santuari, Jesu-Kristoren Gizatasun gloriatsu au aiñ umill ikusteak.

¡Ai nolako onra artzen duan Jaungoikoak bere Semeagandik, ikustean, berari gloria emateagatik bakarrik, orrela ezereztu dala! ¡Zer anditasuna eta zenbat birtute, jainkozko misterio auek egiten diran sakrifizio onetan! ¡Nolako laguntz andiak datozkite gizonai, beren onerako eskeintzen dan sakrifizio onetik! ¡Zer poza, zer laguntza purgatorioko animentzat, aiek andik ateratzeko intenzioarekiñ eskeintzen danean!

Gauza jakiña da sufrikizunezko leku onetan egoten dirala animak denboraren batean, lurretik juatean, pekatu benialen bat edo geiago badituzte, edo pekatu mortal barkatuen zorra oso pagatu ezpate. Berak berenez eziñ lezakete laburtu sufrikizunen denbora.

Erropa batek artzen eztuan bezela lenbizian zuan kolorea, sarritan uretan garbitu eta eguzkitan legortu artian, era

berean Purgatorioko animak eztute iristen Jaungoikoaren erreinuan sartzeko bear duten garbitasuna, kristauen begietatik erortzen diran damuzko malkoen bitartez eta Jesu-Kristoren graziaz baik. Alañe bada justiziazko eguzki onen errañuak sartzen dira bildurik Meza Santuan ispillu eder baten bezela.

Saia zaitezte, Meza maiz eta ondo entzutera, era onetan sokorrituaz zuen anai gaiñoak. Eguneroko Meza da grazia-
ren arma, miseriardiaren indarra; eta Jaungoikoak ezin uka dezakie ezer ere ondo entzuten dutenai. Eman deizkiogun bada, eskerrak Jesus'i, gure biotza-
ren barrunenetik, giza-arrazaren onerako sakrifizio birtute aiñ andiko au jarri dualako; eman deizkiogun eskerrak bere jainkozko errukia guganatzeko bide aiñ segurua jarri digulako.

Meza Santuaren onran esango degu nolako otsandigo edo solemnidadearekin konsagratu zuan Jesu-Kristo berak Einsiedeln'go kapilla. San Meinrado illta larogei urteren buruan, Eberhard zeritzan ermitaño guziz on bat, Prinzipeen etñadi edo familiakoa, joan zitzaion

Konstanziako Obispo, Konradorik, erre-gutuaz, Juan zedilla santuaren kapilla konsagratzera. Juan zan ara Konrado, eta konsagrazioko egunaren aurreko ga-bean, otoitz egitera elizara juatean, adi-tu zuan, nola zeruko aingeruen koru batek kantatzen zituan konsagrazioko antifonak eta erresponsoak. Sartu zan, ikusi zuan Aingeru talde andibat, eta Jesu-Kristo gure Jauna, Obispoen so-ñeko edo ornamentuz jantzirik, Meza ematen. Arritu eta zurkaizturik gelditu zan, baña jarraitu zuan, kontuz begira-tzen. Jesusek enpleatzen zituan, Obis-poen pontifikala deitzen dan liburuak, orrelako konsagraziorako jartzen dituan itz eta zeremoniak. Lau Ebanjelistak an zeuden beti Jesusen atzean. Aingeruak aldarearen inguruan jarririk, inzentsa-tzen zuten urrezko inzensoaioakiñ. San Pedrok, bere Maisuaren urrean, zeukan bakuloa. San Jorjek, zutik bere alboan, zeraman isopoa. San Agustin eta San Anbrosio zituan Jesusek Obispo lagun-tzalleak. San Estebanek zeukan Krisma Santuaren ontzia; San Lorenzok olio santuena. San Miguel zan kantarien

gidari, eta Aingeruak kantatzen zituzten bersikuloak, erresponsoak eta salmoak. Jaungoikoaren Ama, berari donkitu edo dedikatutako aldare ta kapilla onetan, agertzen zan eguzkia baño argiagoa eta argia baño distiatzalleagoa. Konsagrazioa bukatu zanean, Kristök artu zuan kasulla, igo zan aldarera eta asi zuan Meza nagusia. San Estebanek kantatu zuan epistola eta San Lorenzok ebanjelioa, eta Aingeruai aditzen zitzaizten kantu guziz atsegiñak. Ona emen nola kantatu zituzten *Sanctus* eta *Agnus Dei*: “Santua, Santua da Jauna., Jaungoiko Santua, izan ezazu errukia guzaz, Ama Birjiñari konsagratutako Eliz onetan. Zerua eta lurra zure argiz beteta daude ¡*Hosanna!* ¡Gloriatua izan dedilla betiko erreina berea duan, eta Jaunaren izenian etorri dan Mariaren Semea. ¡*Hosanna* goietan! ¡Jaungoikoaren Bildots munduko pekatuak kentzen dituzuna, iduki ezazu zugar sinisten duten bizien errukia! ¡Jaungoikoaren Bildots munduko pekatuak kentzen dituzuna, iduki ezazu illen errukia, eta eman zaiezu, betiko atsedena! ¡Jaungoikoaren Bildots mun-

duko pekatuak zure gain artzen dituzuna, eman zaiezu pakea zure erreinu zorionekoan biziai eta illai., *Dominus vobiscum*'ean, erantzun zuten: “Kerubiñaz gainetik eseririk dagoana ta bere begiratzea infernuraño sartzen duana.,

Meza bukatu zanean, zerutar guziak ezkutatu ziran, eta San Konrado, pozez eta atsegiñez beterik, bakarrik gelditu zan. Kapilla konsagratuan lurra estaltzen zuten autsetan ezagutu zituan Jesu-Kristo gure Jaunaren oñatzak, eta paretietan gantzutze edo untzioen señaleak. Bigaramon goizean apaizak eta gañerako ara jua ziranak, naizuten, Obispoak kapilla konsagratzea. “Ezin egiñ neza-ke, erantzun zuan, Zerua konsagratu du., Baña alare obligatu zuten zeremonia atera. Orduan guziak aditu zuten argiro iru aldiz dei bat, esaten zuana: “Geldi zaite nere anaia, Jaungoikoak berak konsagratu du kapilla au., Utzi zion beragatik konsagrazioa egiteari eta iskribatu zuan Erromara gertatu zan miraria: ⁽¹⁾ eta au da Mezaren diñidade an-

(1) Konsagrazio au egin zan 948 garren urteko Agorraren 14 an, eta gertatu zan guzia jartzen du San Konrado Obispo berac bere liburu «De Secretis» deitzen danean.

diaren testimoniorik indartsuena, Jesu-Kristo gure Jaunak berak Meza eman nai izan zualako. ¡Nor egon al zitekean instante artan Konrado Obispoaren ondoan, berarekin batean gertaera miragarri ura ikusteko! ¡Zeiñ andia izango zan gure begirunea, gure atsegiña, eta gure debozioa! Baña edozeiñ moduz poztu bear degu jakiteaz bakarrik ere, Kristok eman zuala Meza, orain gure artean ematen dan bezela.

IRUGARREN BURUA

Meza Santuaren misterioak.

Meza Santuaren misterio goratu eta askoen gañean itz egitea dagokidan aldi onetan, naita ez deadar egiñ beardet Dabid Profetarekin; “Atozte eta ikusi itzatzute Jaunaren obrak, eta lurraren gañean egiñ dituan mirariak.” (1) Bada Jesu-Kristok egiñ dituan miraki guzien artean andiena da, azkeneko Aparian egiñ zuan sakrifizioa; eta emen arkitzen ditugu baturik bezela, beste mirari gu-

(1) P. XLV. 9.

ziak. San Buenabenturak dio: “It̃sasoan ur tantorik, airean auts pit̃sik eta Zeruan aingerurik ainbat misterio dago Meza Santuan. ⁽¹⁾ Eztakit, Jaungoikoaren eskutik atera ote dan beñere misterio andiagorik.”

Sant̃sez'ek ⁽²⁾ San Buenabenturarekiñ batean esaten du: “Meza Santutik ateratzen ditugu, tesoro aiñ arrigarriak eta doai aiñ estimagarriak bizitza onetarako, eta esperantza aiñ segurua besterako, nun au guzia sinisteko, bear degun fede zerutikako bat.”

Sant̃sez berak dio gañera: “It̃sasotik eta ibaietatik ur asko artu dezazuketen bezela ur asko batere gut̃situ gabe, era berean Mezaren birtutea aiñ da ugaria, nun eziñ dezazuketen agortu eta ez gut̃situ, andik ateratzen dituzuten graziak gatik.”

Dotriña au argiroago adierazteko, ona emen ejemplo bat:

San Agustiñen ordenako erlijioso San Juan Sahagungoak ⁽³⁾ etzuan uzten egunik Meza eman gabe, ta ematen

(1) De Sacram. virtute, libro VI c. 19. — (2) Thesaur. Missæ. c. 1. — (3) Henschen, in Actis Sancti ad XII diem Junii.

zuan guziz goiz, bada ain zan andia, Meza eman eta Gure Jauna artzeko zeukan egarria, nun eziñ zuan it̄sedon luzeroan; baña aiñ geldiro ematen zualako, meza-laguntzalleak uzten zuten askotan bakarrik aldarean, eta eziñ arkitu izaten zuan iñor, erantzuteko. Erregutu zion komentuko nagusiari agindu zegiela argiro anai legoai, berari Meza laguntzeko. Nagusiak erantzun zion: “¿Zergatik aiñ luzaro egoten zera eta orrela mundu guzia aspertzen dezu? Aurrerakoan emango dezu Meza beste apaizak bezela.” Egun batzuetan obeitu zion Juanek aginte oni, gogorra iristen bazion ere. Azkenik auspeztu zitzaion bere nagusiari oñetara, erregutuaz utzi zegiola nai zuena egiteko libertadean. “Eziñ dezaket, erantzun zion, anai legoak geiegi nekatzen dituzulako.” Gizon Santu ark esan zion orduan, bazeuzkala Meza lasterrago ematea eragozten zioten arrazoiak. Nagusiak ezagutu nai izan zituan arrazoi oek, baño erlijioso umillak etziazkan agertu nai izan, konfesioan baizik. Aditu zizkion, eta ondo-rean agindu zien anai legoai, laguntzeko

Meza Aita Juani, begiratu gabe ura ematen igarotzen zuan denborari; baña nola nai zikien aditzen eman etseko guziaz, Aita Juanek konfesioan agertuziona, eskatu eta iritzi zuan beragandik ortarako baimena. “Zaude seguru, esan zion beste erligioso bati, gure anai Juanek Meza aiñ geldiro ematen badu, dala, Jaungoikoak Mezaren misterioak agertzen diozkalako, misterio andi, gizonaren adimentuk ulertu eziñ litza-kenak. Esan dizkidan gauzak aiñ dira miragarriak, nun beldur santu batek arturik, gutsik egiñ duan konorta galdu eztedanian. Sinistu zadazu: Jesu-Kristo agertzen zaio Aita oni gorputzez, itz egiten dio amorioa agertuaz, eta erakusten diozka bere zauriak, eta auetatik ateratzen diran erraiñuak, gizon santu onen gañean zabalduaz, indartzen dute berau, janik eta edanik gabe bizi al izateraño. Aita Juanek ikusten du Jesu-Kristoren Gorputza, eguzki diztiatzalle bat bezela, bere gloria ta edertasun azken gabekoa-kin. Itz batean, ikusten ditu, gizonak ezagutu eta adierazi eziñ ditzaken gauzak. Onek jarri nau, Meza ematean eta

entzutean geregantzen ditugun mesede andien gañean pentsatzen, erabakiaz, ez uztea egunik Meza eman edo entzun gabe, saiatuaz al guzian beste guziaz ere ori bera egiñeraztera.

Misterioen gañean itz egiñ ondoan, ikusi dezagun oraiñ nola kunplitu diran sakrifizio onetan Lege Zarreko señale eta iduriak.

Mezako Sakrifizio Santuaren lenengo iduria izandu zan Abel justuaren sakrifizioa; onek eskeiñi ziozkan Jaungoikoari bildotsik onenak bere Majestade neurri gabea ganako mendetasuna agertzeko. Ofrenda au Jaungoiko Guzialdunaren gogokoa izan zala ezagutzen da, Eskritura Sagraduaren itz auetatik ⁽¹⁾: “Jaunak ipini zituan bere begiak Abelegan eta bere doaietan.” Teodosiok esaten digu gertaera onen gañean: “Jaunak irazeki zuan Abelen sakrifizioa, da esatea, biotz oneko Abelek utzi zuanean bere ofrenda egurrarekiñ batean aldarearen gañean, bere otoitzakiñ Jaunari eskeiñiaz, jetși zala zerutik sua, eta desegiñ zituala jauskaiñi edo biktimen aragiak.” Au

(1) Gen. IV, 4.

bera gertatzen da Mezarekiñ: apaizak eskeintzen duanean ogiaren eta ardoaren ofrenda, eta esaten dituanean konsagrazioko itzak, Espiritu Santua, Jainkozko sua bezela jeisten da zerutik, eta desegiten du ogi eta ardoaren ofrenda, Kristoren egiazko Gorputz eta Odol biurtuaz.

Abelen sakrifizioa izandu zan oso gogokoa Jaungoikoaren begietan, baña kristauen sakrifizioa da askoz gogokoa, bada apaizak jasotzen duanean bere ofrenda, Jaungoikoari aurkezteko, Zeruko Aitak berriztatzen ditu Gure Jaunaren bataioan esan zituan itz aiek: “Au da nere Seme guziz maitea, eta onegandauzkat nere atsegintasun guziak,,.

Jenesisko ⁽¹⁾ liburuaren VIII garren buruan dago beste iduri bat: “Noek jaso zion aldare bat Jaunari, esleitu zituan animalia eta tñori guzien artian garbienak, eta eskeiñi ziozkan sakrifizioan, aldare orren gañean. Jaunak artuzuan gogoz usaia eta esan zuan: Estet geiagobialduko nere madarikaziorik lurraren gañera, gizonen pekatuak gatik,, Noeren

(1) Genesis VIII, 20 eta 21.

sakrifizioa izan bazan Jaungoikoaren begietan bere asarrea palakatzeko aibat gogokoa, eta agindu bazuan berak, etzuala berriz ondatuko lurra ujoldiarekin, ¿nola izango etzaio askoz gogokoagoa Testamentu Berriko sakrifizioa, emen eskeintzaiola bere Seme Bakarra, errugabeko jauskaiñi edo Biktimatzat?

“Kristok maitatu gaitu dio San Paulok, ⁽¹⁾ eta eskeiñi da bera gugatik gozotasun atsegiñezko jauskaiñi edo biktima bat bezela.,” Eta ala esatean itz auek: “*Egiñ ezazute au nere oroipenean,*” agindu zien Apostoluai eta beren ondorengoai, egiñ zezatela, Kristok berak egiñ zuana. Apaizak jauskaiñi aiñ santu au egunero sakrifikatzean, eskeintzen diote Jaungoiko Guzialdunari, gozotasun neurrigabezko sakrifizio bat Jesu-Kristoren birtute eta santutasunaren usai gozoarekiñ.,”

Eskritura Sagraduan arkitzen ditugu Abrahamen sakrifizio batzuek, Meza Santuaren iduriak diranak. Isak eta Jakob egiazko Jaungoikoaren serbitzariak, es-

(1) Eph. V, 2.

keiñi zituzten labaña eta suaz illdako animalien jauskiñiak.

Meza Santuaren beste iduri aurraz adierazia izanduzan, sazerdote ta errege Melkisedek'en sakrifizioa; bada onek Abraham garalle biurtzean, aurkeztu zizkion ejerzitoen Jaungoikoari ogia eta ardoa, eskerrak emateko, zeremoni ta orazio apartakiñ; sakrifizio onen gañean itz egin degu liburu onen lenengo buruan.

Goazen orain, itz egitera, Jaungoikoak berak Moisesen legean agindu zituan sakrifizioen gañean. Arterañoan gizonak eskeintzen zituztez sakrifizioak, bakoitzari bere debozioak gogoan ematen zion bezela. Moisesen legean, Jaungoikoak izendatu zituan iru modutako doaiak: danerrea ⁽¹⁾ sakrifizio iraperagarrria, ⁽²⁾ eta sakrifizio t̄santzallea. ⁽³⁾ Alabatzuek nola besteak, guziak ziran gurutzeko sakrifizioa adierazten zuten iduriak; eta ala auek bukatu ziran Jesu-Kristoren Pasioko denbora eldu zanean, beren ordañaz kristauen danerrea, auda Meza Santua jartzeko.

(1) Holocausto.--(2) Propiciatorio.--(3) Purificatorio.

Kanon'ean aipatzen dira antziñako sakrifizioak, batez ere Abelenak, Abraham' enak eta Melkisedek' enak, eta kongrazioaren ondoren apaizak esaten du: "Guk eskeintzen diogu zure Majestadeari jauskañi † garbi, jauskañi † santu, jauskañi † mantšagabeko baten doaia, azkengabeko † ogi santua eta betiko salbazioaren † kaliza. Begirazaiezu Jauna, arpegi gozo eta paketsuarekin, eta artu ezazu borondate onez Hostia mantšagabe au, zure serbitzari on Abelen doaiak, gure Aita Abrahamen sakrifizioa eta Melkisedek sazerdoteak eskeiñi zizuna, artu zenduzen bezela."

Katoliko askok gaizki ulerzen dute otoitz au, eta gañera otoitz onek ašerre bizian jartzen ditu, katoliko eztiranak. Beren iritzi gezurrezkoan, apaizak eskatzen dio Jaungoikoari, artu dezala Mezako sakrifizioa, Abelen, Abrahamen eta Melkisedeken sakrifizioai ematen zien estimazioa bera emanaz; konparazioren bat jarri albaliteke bezela, Jesu-Kristoren Gorputz guziz Santua ta Odol prezio-tsua eskeintzen diran Sakramentuaren, eta animalia, ogi ta ardoaren ofrendaren

artean. Eta egiaz, apaizak eztio eskatzen Jaungoikoari, eskeintzen dion jauskiñiarentzat barkaziorik, bada au beste kriatura guziak kaño askoz maiteago du; baña bai eskatzen dio, artu dezala sazerdoteari dagokion partea, Abel, Abraham eta Melkisedek'ek, beren sakrifizioak eskeintzean izan zuten piedadea, artu zuan bezela. Jesu-Kristo Gure Jaunaren bizitza eta pasioko gertaerarik andienak Meza Santuan adierazten dira. Ala kantatzen du Dabidek ⁽¹⁾: “Jaunak bere ontasun eta errukian egiñ du bere egite miragarri guzien oroipen bat., Obeki ulertu dezagu bere pentsamentua, esaten du gañera ⁽²⁾: “Zure aldarearen ondoan egongo naiz zure alabantzen boza aditzeko, eta zure mirariak publikatzeko., Au bera esan naidute, Salbatzalleak Apostoluai, Aldareko Sakramentu Santua egiñ ondoan, esan zizkien itzak; *Egiñ ezazute au nere oroitzan*; da esatea; “Eltzera dijoa, zuek gandik ni aldentzeko denbora, redentzioko egitekoaren azkena urreratu dalako; baña, nere Aitagana biurtu baño

(1) Ps. CX. 4.—(2) Ps. XXV, 6, 7.

lenago, ipintzen det Meza Santua, Lege Berriko sakrifizio bakarra izan dedin, eta Sakrifizio onetan jartzen ditut nere bizitzako eta nere sufrikizun guzien misterioak, onela kristauen begien aurrean berrituaz iraun dezaten itsatsirik beren gogoan.»

Itz gutsitán goaz ikustera ala esan nai duala.

Diot lenbizi, Jaungoikoa gizon egitearen edo Enkarnazio'ko misterioa Meza Santuan berriztatzen dala.

Anunziazio'ko egunean Mariak Jaungoikoari eskeñi eta konsagratu zizkion bere anima, bere gorputza, ta batez ere bere sabel garbia, eta Espiritu Santuak egiñ zuan Mariagan Jesu-Kristoren Gorputza; ta Gizatasuna elkartu zuan Jaungoikotasunarekiñ; ala apaizak aurkezten dituanian ogia eta ordoa, ta eskeintzen diozkanean Jaungoikoari, Espiritu Santuak, konsagrazioko itzen birtartez, Jesu-Kristoren egiazko Gorputz eta egiazko Odol biurtzen ditu. Jainkozko Obra oni Enkarnazioaren berriztazio bat deitzean, estet esaten ezer ere dan baño geiago, artzen dualako

sazerdoteak bere eskuetan Jesus, Ama Birgiñak bere sabel garbian artu zuan beziñ egiaz. Sazerdoteak bere buruaz esan dezake San Agustiñekiñ: ⁽¹⁾ “Nere laguntza gabe ni ezerezetik egin ninduana, da nere laguntzarekiñ egin dana; gauza guziak ezerezetik nere laguntza gabe egin dituanak, eman dit eskubidea (ala esateko ausardia izan al banezake,) nik Bera egiteko.” ¿Ezta au misterio eta milagro andi bat, gizon batek bere Egi-
llea bera egitea?

Jaiotzako misterioa berrizatzen da gure begien aurrean Enkarnaziokoa bezela eta argiroago.

Jesu-Kristo jaio zan Maria Birgiñaren gorputz birjindarretik; Meza Santuan jaiotzen da apaizaren bozera. Onek konsagrazioko azkeneko itza esaten duanean, dauka Jesus aurra bere eskuetan, Mariak iduki zuan beziñ egiaz.

Bere fedearen aitormenean, belaunikatzen da, adoratzen du bere Jaungoikoa, jasotzen du bere burua baño gorago, eta erakusten dio erriari. Maria Birjiñak aurkezten du bere Seme jaio

(1) Lib. IV. De Dignit. Sacerdot.

berria, oialetan bildurik, adora dezaten; apaizak ere aurkezten die Kristo aurra kristauai ogiaren iduripian, guziak beren Jaungoikotzat ezagutu dezaten.

Modu onetan Salbatzallea adoratzeko dutenak, agertzen dute birtute bat, arzaiena baño andiagoa, bada auek ikusi zuten egiaz Gure Jaunaren Gizatasuna, eta fede eman zioten bere Jaungoikotasunari; baña guk ogiaren iduria bakarrik daukagu gure begien aurrean, eta ala ere sinisten degu bizi, an dagoala egiaz Jesu-Kristoren persona.

Bai, Mezatan daukagu gure aurrean Jesus bera, bere oñetan Errege Magoak auzpeztu zitzaizkiona, Simeon'ek bere besoetan iduki zuan ura bera, eta Birjiña guziz Santak tenploan Jaungoikoari ezkeiñi ziona. Jarrai diozagun santu auen ejemploari, adora dezagun umillki Gure Jauna, eta saia gaitean gu ere, betiko saria irabazten.

Mezatan, Jesusek predikatzen du Ebangelioa apaizaren aoz, eta erakuste onetatik atera ditzakegu ondasun andiak. Egiten ditu milagroak, ardoa bere Odol jainkozkotan biurtuaz, eta mirari

au da Kanaá'koa baño andiagoa. Ogia biurtzen du, azkeneko aparian bezela, bere egiazko aragitan. Konsagrazioaren ondoren ikusten degu, jasotzen dala, bere ministroaren eskuetan, Gurutzean jasoa izan zan bezela, eta entzuten degu gure biotzean, esaten duala: "Aita, barka zaiezu, eztakitelako zenbateraño ofenditzen zaituzten.", Auetako ezer gure gorputzeko begiakik ikusten ezpadegu ere, ezta orregatik gutsiago gure fedea, eta beragatik, orain emeretzi eundi edo siglo misterio oiek ikusi zituztenen saria baño andiagoa izango da gurea. Jesu-Kristo gure Jaunak esan du argiro: ⁽¹⁾ "Zorionekoak, ikusi ez, eta sinistu dutenak.", Zenbat eta gaitzago diran ulertzen egiak, orduan ta meritu geiago du fedea, eta andiagoa izango da saria. "Ondo entzundako Meza baten balioa, jakiñ bear degu, esaten digu erakusle on batek, ⁽²⁾ dala munduko aberastasun guziena baño andiagoa."

Aldareko Sakramentuan, kunplitzen du Jesu-Kristok Ebangelioan egiten duan promes konsolagarria: "Ona emen

(1) Joan .XX. 29. — (2) Sanchez, Tesauro. Missæ. c. 11.

nun egongo naizen zuekiñ munduaren azkeneraño.,⁽¹⁾ Eztu emen itz egiten bere Jainkotasunaz bakarrik, baizik baita bere Gizatasun, aldarearen gañean eta tabernakuluan dagoanaz ere. Eta oraindik geiago; baldiñ Ostian beiñ konsagratu ondoan, badago beti Jesu-Kristo, guri entzuteko prest, eta baita gure erre-guak geron mesedean aditu, eta gure premietan lagun egiteko ere, Mezatan egiten da gure jauskaiñi edo biktima, gure bitarteko, eta eskeintzen zaio Jaungoikoari, gure pekatuen zorra pagatzeko. Adierazo dezagun au argiroago: Jesu-Kristok egiten ditu Mezatan apai-zaren aldiak, eta beragatik San Pablo Apostoloak dion bezela⁽²⁾ berari dagokio “doaiak eta sakrifizioak erriaren pekatuak gatik eskeintzea.” Eta ala Aldarean eta Gurutzearen gañean, da denbora berean, doai-emallea eta doaia, sakrifizioa eta jauskaiña.

Emendik ikusten da, kustodian dagoan ostiaren eta Mezaren artean arkitzen dan diperentzi andia, batean eta bestean berdiñ arkitzen bada ere Jesu-

(1) Math. XXVIII, 20.—(2) Heb., VII, 3.

Kristo. Kustodian aurkezten zaigu, adora dezagun: Sakrifizio santuan eskeintzen zaio Jaungoikoari apaizaren eskuz. Kustodian da Sakramentua: Mezatan jauskañia. Meza Santuan artzen degu guk komunioaren bitartez; eta Sakrifizio Santuan zeruko Aitak artzen du gure pekatuen ordainsaritzak.

Ezta gauza zalla adieraztia, munduaren azkeneraño gurekin gelditzeko gure Jaunak daukan borondatea. Nai du egon Elizaren, au da kristauen buru izanaz, eta nai du, era berean, auek bere gorputz espiritualala izatea. Jesu-Kristo Elizaren esposo izanik, eta amatzen dualarik bera esan eziñ bezela; ¿nola utzi lezake? San Paulok amorio onezaz itz egitean, esaten digu: ⁽¹⁾ “Gizonak, amaitzatzute zuen emazteak, Kristok Eliza amatzen duan bezela. Kristo entregatu zuen Elizagatik berau santututzeko, bataioko urean garbituaz bizitzazko itzaren bitartez, bere buruari eskeintzeko Eliza gloriatsu bat, santu ta garbia izango zana,,. Kristau guziak dira Elizaren bizikai edo mienbroak, eta bataioaren bi-

(1) Eph. V. 26 27.

tartez beregantzen dute aingeruen edertasuna. Jesu-Kristok, ainbeste amatuaz bere esposa, Eliza, eztu utziko, eta geldituko da berarekin munduaren azkeneraño.

¿Zergatik dago Kristo bere Elizan, ikusi eziñ diteken moduan, bakarrik? Elkartasun au gorputzezkoa ez talako, baizik espirituzkoa bakarrik, bere profeta-
ren aoz esaten digun bezela: ⁽¹⁾ “Esposatuko naiz zurekin betiko, elkartuko naitzatzu justizia, erruki ta miserikordiazko elkartasun baten bitartez. Elkartuko naitzatzu fedean eta jakingo dezuzure Jauna naizela.” Kristo Elizarekin, fedean elkartuta egonik, konbeni zan ezkutuan gelditzea, era onetan kristauak iduki zezaten birtute au agertzeko bidea eta meritu andiagoa. Gañera konbeni zan jainkozko Esposoa bere esposarekin gelditzea, bear zituan jatekoak eta sokorroak emateko, eta mesedeak egiteko. Eta ala Meza Santuan, Komunio sakramentalean edo espiritualean, egiten ditu gauz oiek. An ematen dizka Eleizari egiazko amorioaren ezagunga-

(1) Os, II, 19.

rriak eta begiratzen du bere ondasun lurreko ta zerukoak gatik.

¡O kristauaren anima!; pekatu mortalean bizi bazera, deabruaren esposa zera, baña grazian bizi bazera, zu gozoro maitte zaituan eta zure salbazioaren kontu andia duan Salbatzallearen esposa zera.

Irurogeita amazapi grazi eta frutu Meza

Santua entzuteari dagozkionak.

1. Aita Jaungoikoak bialtzen du bere Semea lurrera, gu salbatzera.

2. Bere Aitari obeitzeagatik, eta guganako amorioagatik, Jesu-Kristo umiltzen da, ogi ta ordoaren iduripian ezkutatzerano.

3. Espiritu Santuak ogia eta ordoa, biurtzen ditu Jesu-Kristoren Gorputz eta Odol.

4. Jesu-Kristo ezereztutzen da aintbesteraño, nun, ostia konsagratuaren zatirik tšikienian ere dagoan egiaz.

5. Jesu-Kristok berriztatzen du angizon egite edo Enkarnazioko misterioa.

6. Jaiotzen da berriro gugatik.

7. Aldarean ematen ditu, lurrean

bizitu zan bitartean gizonai agertu zien amorioaren ezagungarri guziak.

8. Berritzen du bere Pasio samina eta ematen digu parte bere frutuetan.

9. Jesu-Kristo illtzen da espirituz, eta eskeintzen du bere bizia.

10. Eskeintzen dio Bere Odol preziotsua Aita Betikoari gure mesederako.

11. Bustitzen du gure anima Bere Odol adoragarriarekin eta garbitzen du bere mantxatetik.

12. Eskeintzen da gugatik danerre edo olokaustotzat.

13. Ematen badiozute onore au Jesu-Kristorekin batean, ordaindutzen diozute, lenago eman gabe utzi diozuten onore guzia.

14. Jesu-Kristo egiten da zuen sakrifizio alabantzakoa, eta ordaintzen ditu, zuek Jaungoikoari eman nai izan eztiotzuten alabantzak.

15. Jaungoikoaren Semearen alabantzak zeruko Aita Jaungoikoari eskeintzean, ematen diozute Aingeruak berak eman al degikioten baño gloria geiago.

16. Jesu-Kristo eskeintzen da zuegatik esker onezko sakrifizio bezela,

eta ordaintzen du zuen esker tšarra.

17. Esker onezko Sakrifizio au eskeintzetik datozen mesedeak, Jaungoikoarenak dira.

18. Jesu-Kristo eskeintzen da gure pekatuen penitentzian eta palakatzen du Jaungoikoaren asarrea.

19. Barkatzen dizkitzute pekatu benialak, artzen badezute berriz ez egiteko asmo sendoa.

20. Ordaintzen du, egin gabe utzi dezuten ona.

21. Erremediatzen du, gauz onak egiteko izan dezuten nagitasuna.

22. Barkatzen dizkitzute oartu gabe egindako pekatuak, ezagutzen eztituzue-nak eta konfesatzean aztuak.

23. Da zuen sakrifizio satisfaziozkoa, eta pagatzen du, Jaungoikoaren justiziarik daukakiozuten zorraren parte bat.

24. Meza Santua entzunarekin, egiñ zenezakete zuen pekatuen barkaziorako, penitentziarik andienakiñ baño geiago, bada:

25. Jesu-Kristok ematen dizute bere merezimentuen parte bat, zuek denbora

berean eskeiñi degiozuten zuen Aita zerukoari, zuen pekatuak gatik.

26. Jesu-Kristok erregutzen du zuek gatik Meza Santuan, Gurutzean bere etsaiak gatik erregutu zuan beziñ gogoz.

27. Bere Odol preziotsuak eskatzen du misericordia ain beste aldiz, zenbat diran iñuri dituan tantoak.

28. Bere zauri Sagraduak eskatzen dute barkazioa zuentzat.

29. Jesusen erreguak gatik, zuek Mezatan egiten dituzuten erreguak, gogo obeaz adituak izaten dira.

30. Meza bitartean egiten dezuten erreguak, indar andiagoa dauka, bada:

31. Jesusek eskeintzen dio bere Aitari, berak egiten duan erreguarekiñ batean.

32. Zuen abogadu dago, eta zuek salbatzeko alduana egiten du.

33. Aingeru guziak an daude, eta zuek-gatik erregutzen eta ezkatzen dute, eta eskeintzen dizkiote-zuen erreguak beren Jaun eta Jaungoikoari.

34. Meza Santuaren bidez deabrua urrutiratzen da.

35. Apaizak erregutzen du modu

aparteko batian, Meza Santua entzuten dutenak gatik, eta iristen du sakrifizioa aientzat probetŕugarriagoa izateko grazia.

36. Meza Santua entzuten zaudentenian, biurtzen zerate apaiz espiritual, eta Jesu-Kristok ematen dizute zuek-gatik eta gañerako guziak gatik Sakrifizio santua eskeintzeko eskubidea.

37. Meza Santua da Irutasun edo Trinitade guziz Santuari eskeiñ zenikioten erregalorik bere gogokoena.

38. Erregalo au da, zeruak eta lurra baño geiago balio duana.

39. Balio du Jaungoikoak berak adiña.

40. Da Jaungoikoaren gloriarik andiena.

41. Da Trinitade guziz Santuaren alegria.

42. Doai aiñ bikañ au zuena da, Jesu-Kristok eman dizutelako.

43. Meza Santua entzutea da Jaungoikoari eman degikiogun adoraziorik andiena.

44. Meza Santua entzunarekiñ ematen zaizkio omenik andienak Jesu-Kristoren Gizatasunari

45. Onratzen dezute bear bezela Salbatzallearen Pasioa eta aberastutzen zerate beraren frutuakin.

46. Onratzen dezute Jaungoikoaren Ama.

47. Onratzen eta pozten dituzute Aingeru eta Santuak, beste otoitz askorekiñ baño geiago.

48. Da, zuen animak aberasteko, biderik onena.

49. Da obra on bat, beste guziaz gañetikakoa.

50. Da federik bizienerako akto, ordainsari andi bat segurutzen dizutena.

51. Ogi ta ardoaren Iduri Santuen aurrean debozioz eta umilltasunez belaunikatzean, egiten dezute adoraziozko akto guziz andi bat.

52. Fedez beterik Ostia Santuari begiratzen diozuten aldi bakoitzean, irabasten dezute sari aparteko bat zeruan.

53. Zuen pekatuen kontrizioarekin bularrak kolpatzen dituzuten bakoitzean, iritšiko dezute uts-egiteren batzuen barkazioa.

54. Pekatu mortalean, zuen zofigaitzean bazeundete, eta entzuten badezute

debozior Meza Santua, Jaungoikoak eskeiñiko dizute aldi bakoitzean, beragana biurtzeko grazia.

55. Meza Santuak, geitzen du zuegan, Jaungoikoaren adiskide egiten zaituzten grazia, eta iristen dituzute beste laguntz asko.

56. Meza Santua entzunarekiñ artzen dezute Jesu-Kristoren Gorputza eta Odola zuen espirituko alimentutzat.

57. Daukazute, Jesu-Kristo, ogi ta ardoaren Iduri edo Espezie Santuen bian, kontenplatu al izateko grazia berdin gabea.

58. Artzen dezute apaizaren bendizioa, eta Jaungoikoak ematen du ontzat au zeruan.

59. Meza Santua entzuteak erakartzten dizkitzute, lurrean bizitzeko bear dituzuten bendizioak ere.

60. Libratzen zaituzte zorigaitz askotatik.

61. Ematen dizute indarra, tentazioak garaitzeko.

62. Merezi erazitzen dizute, ondo illtzeko grazia.

63. Aingeruen edo santuen onran

entzundako Meza batek erakartzen dizute beren anparu etan laguntza, guziz andia dana.

64. Entzun izan dituzun Mezak, izango saizkitzu, Jaungoikoaren miseri-kordian konfiantza jartzeko, eta pozteko, motibo andia; eriotzako orduan.

65. Lagunduko dizute Juez justua-
ren aurrera, eta eskatuko dute zuen-
tzako grazia.

66. Meza asko ondo entzunak, ali-
biatuko zaituzte purgatorioko su-garre-
tan, bada;

67. Meza bakoitzak gutsitzen du
pekatuen zorra, penitentziarik gogorre-
nak baño geiago.

68. Probet̃sugarriagoa izango da zu-
re animarentzat, bizi zeran artian ondo
entzundako Meza bakar bat, ill ondoan
ateratako asko baño.

69. Meza Santua ganako debozio-
arekiñ irabaziko dezute gloria andi bat
zeruan.

70. Irabazten dezutelako entzuten
dezuten Meza bakoitzareziñ, geroko
gloria zeruan goratzea, eta zuen zorion-
tasun betikoa geitzea.

71. Eztezute arkituko Meza Santua baño bide seguruagorik, zuen adiskideak gatik erregutzeko.

72. Da bide segurua, artutako mesedeak gatik eskerrak emateko.

73. Zori gaiztoak jo dituanak, sufritzen daudenak, gaiñoak eta eriotzako orduan arkitzen diranak, artzen dute sokorro andia.

74. Iristen degu pekatariak zeruko bidera erakartzea.

75. Kristau guziak iristen dituzte bendizio ugariak.

76. Purgatorioko animak alibiatzen dira.

77. Maite dituzten illdakoentzat Mezak ateratzeko alderdirik eztuten pobreak, atera litzakete Purgatorioko sutatik, maite dituzten anima auek, Mezak debozioz entzunaz.

Puntu auek guziak goaz argiro jartzera gure liburu onen orrialdietan. Baña benturaz, eztezute orain berealatik pentsatzen Aita Santsez'ekin, "guk bagenekiki grazia auezaz aprobetŕatzen, ondo entzundako Meza bakar batek egingo ginduzkeala mundu guziak baño aberatsago?"

Elduko baziñateke egun baten irurogeitamazazpi ezkutu galtzera, ¿ezta egia, kolpatuko zenduketela irurogeitamazazpi aldiz zuen burua, galera aiñ andia gogoratzean? Bada, askoz geiago penatu bear zendukete, Meza-bat beiñ bakarrik arduragabez, nagitasunez edo alperrez entzun gabe uztean. ¡O nolako zorakeria eta it̄sumena, tesoro aiñ andi oni ain jaramun gut̄si egitea! Jaungoikoak nai dezala, ondoren jarriko deguna irakurtzeak zuen adimentuak argitzea, eta pentsamentu santuak bialtzea, Sakrifizio Santu au eztimazio andian iduki dezazuten.

LAUGARREN BURUA

Meza Santuan Jesu-Kristok berritzen du bere Gizon-egitea.

Aurreko buruan itz egiñ degu Meza Santuaren misterioen gañean laburkiro eta azalt̄sotik. Goazen oraiñ adieraztera misterio oiek, batzuek besteen ondoren, gizon-egitekotik asita.

Misterio au berritzen dala Meza bakoi-

tzean, ikusieraziko det lenengo, maisu izen andiko baten testimonioz. Esaten digu Martšant'ek: "Meza Santua ezta beste gauzik, baizik Kristoren Gizon-egite, jaiotza, bizitza, Pasio, eriotza eta berak egiñ zuan gizonen erredentzioaren aurkezte bizi eta oso, edo obeki esateko berriztazio bat., Itz auei iritziko diote batzuek ez-egokiak, baña adieraztera noan gauzen ondoren, ikusiko da argiro, egiak dirala.

Jaungoikoaren miseriardiari zor dio gizonak neurrigabeko esker ona, gure salbaziorako Jaungoikoaren Semea zerutik jetši ta Espiritu Santuaren obraz Birgiña guziz Santaren sabel guziz garian gizon egin zan egunetik. Au da apaizak Kredoan: *Et inkarnatus est* esan eta belaunikatzean, adoratzen duan misterioa.

Baña Jesu-Kristorentzat etzan naikoa beiñ bakarrik gizon egitea: bere jakinduri azkengabekoan arkitu du bide ezkutu eta eder bat, berriz ere emateko aldarean egindako Gizon-egite berri baten bitartez, lenago beiñ Aitari eta Espiritu Santuari emandako satisfazioa.

Gizon-egite au aiñ mistikoa dalarik ere, da lenengoa beziñ egiazkoa. Au egia dala ikusierazteko, ona emen Elizaren testimonioa. Pazkoa Espiritu Santukotik bederatzigarren igandean Mezako sekretan, esaten du: “Zenbat aldiz egiten dan Jauskiñi edo biktima onen oroipena, ainbestez egiten da gizonaren erredentzioko obra., Eliza Santak eztu esaten; Gure erredentzioko obra aurkezten da, baizik: “Erredentzioko obra egitenda., Orain ba jakin dezagun, obra au eztala besterik, baizik Kristoren Gizon-egite, jaiotza, Pasio eta eriotza.

San Agustiñek ⁽¹⁾ dio ori bera ondorengo itz auekiñ: “¡Zeiñ andia dan apaizaren diñidadea, bada bere eskuetan Jesu-Kristo berriro gizon egiten da! ¡Zeiñ jainkozkoa dan Aitak, Semeak eta Espiritu-Santuak apaizaren bitartez egiten duten misterioa!., San Juan Damaszenok ⁽²⁾ erakusten du dotriña au, onela: “Galdetzen badu iñork nola ogia Jesu-Kristoren Gorputz biurtzen dan, nik erantzungo diot: Espiritu Santuak estaltzen du apaiza bere itzai arekiñ, eta

(1) Serm. de Sacerd. dignit.—(2) Lib. IV, c. 14.

egiten du, Maria Birjiña Doatsuaren sabelean egin zuana., San Buenabenturak ⁽¹⁾ itz egiten du argiroago, esanaz: “Jaungoikoak, egunero aldarera jeistean, diruri, eztuala gutsiago egiten, gure aragiz jantzi zanian egin zuana baño., Baña aditu diozagun Jesu-Kristori berari: “Nere Ama guziz Santaren sabelean gizon egiñ nintzan bezela, esan zion Rotse'tar Alaini ⁽²⁾, alaše berritzen det nere Gizon-egitea Meza bat ematen dan aldi bakoitzian., Ikusten dezu ba, Jaungoikoaren Semea aragi egiten dala modu diferentean, egiaz, baña emen ere Espiritu Santuaren obraz.

Oraintse San Agustin'ekiñ berriz, deadar egiñ bear degu: ¡O! ¡zeiñ andia dan apaizen diñidadea, bada beren eskuetan Jesu-Kristo berriro gizon egiten da! ¡O kristauen diñidade andia, bada beren salbazioagatik Jaungoikoaren Semea egunero modu miragarri batean Meza Santuan aragiz jantzitzen da! Emen berritu bear da Liburu Santuetan irakurten dana: “Jaungoikoak amatu du

(1) De Inst. novit. part.1, c. II.

(2) Al. de Rup., par. IV. cap., 27.

mundua, bere Seme bakarra ematera-
ño., ¡A zein gozo eta poz-garria dan
gu gizon errukarriontzat, gure Jaungoi-
koak amorio aiñ andiarekin gerok ama-
tzia!

Tomas Kempis piadosoak ematen digu
ondorengo konseju au ⁽¹⁾: “Meza ema-
ten edo entzuten dezutenian, oroi zai-
tezte artzen dezutela parte obra aiñ andi
ta miragarri batean, nun kontu egiñ ze-
nezaketen, egun orretan bertan Jesu-
Kristo zerutik jetširik, gizon egiñ dala
Maria Birjiñaren sabelian., ¡Zeiñ andia
elitzake izango gure zoriona, Jesu-Kristo
gure Jauna etorriko balitz orain berriro
lurrera! ¿Nor geldituko litzake, bereala
juan gabe bera adoratzera eta bere gra-
ziak eskatzera? ¿Zergatik ez gera, ba,
joaten Meza entzutera? Zori gaitzez,
gauza bat bakarrik emen erantzun deza-
kegu: Gure fedea argala da, eta eztegu
ezagutzen ondasun jainkozko au, guziz
gutši baño.

Ikusi dezagun oraiñ, nolako modu
miragarrian Jesu-Kristok egiten duan
misterio au.

(1) Imit. Christ. lib, IV. c. 2.

Fedeak erakusten digu, apaizak artzen duanean Ostia, Konsagrazio aurretik, eztaukala eskuetan ogia baño; baña Konsagrazioko itzak esateaz bat, ogi au, Jaungoikoaren almenaren bidez, biurtzen dala Jesu-Kristoren egiazko Gorputz; eta gañera oni dagokionez, arkitzen dala Odol guziz preziotsua Gorputz Sagradu ontan, gorputz bizi bat Odol gabe egon eziñ ditekelako. ¡Orra zenbat mirari!

¿Ezta egiaz, miraririk andiena ogia Jaungoiko eta ardoa Salbatzallearen Odol biurturik ikustea? ¿Ezta mirari guzien miraria, ez arkitzea an ogirik eta ez ardorik, eta bakarrik oien iduria gelditzea? Bada Ostia santuak eta Odol preziotsuak daukate len ogiak eta ardoak zeukaten kolore, usai ta saborea. ¿Ezta mirari guzien miraria Kristo bere anditasun guziarekin Ostia baten, eta oraindik geiago, Ostiaren zatirik t̄sikienian ere egotia?

Ona emen zer egiten duan Salbatzallearen almenak bere amorioa guri agertzeko. Gogorazio onek uzten zuan Santa Jertrudis, zer esan etzekiala. Egun ba-

ten ⁽¹⁾, dio berak, belaunikaturik umillki Mezabitar-tean, Konsagrazioa baño puška bat lenšeago, esan nion Gure Jaunari: ¡O Jesus maitea! Zu egitera zoazena ain andi eta miragarria dalako, enaiz ni, kriatura errukarria, atrebitzen nere begiak jasotzen. Asko da neretzat nere umilltasunean ondatzea, zure esleitu guziaz bizitza ematen dien Sakrifizio ortan parte ematen didazun bitartean. Kristok erantzun zidan: “Eguizazu zuk al guzia, atsekaberik andienetan ere ni serbitzeko asmo erabakia indukitzeko, bizientzat eta illentzat probetsugarri dan Sakrifizio au egiñ dediñ bere anditasun guziarekin. Onela lagunduko didazu nere lanean.”

Jarraitu zaiozute Santa Jertrudisi, eta Konsagrazioko instantean, gogora ezazute, Jaungoikoak aldarean egiten duan miraria. Deseatu ezazute bizi-ro, Jesusen Sakrifizioa, Trinitade guziz Santuari gloriarik andiena emateko eta kristauak salbatzeko, izatea.

Esan ezazute bada, sarritan asmo onekin, santa ark esaten zuana: ¡O Jesus

(1) Rev. lib. III, cap. 6.

guziz gozoa, oso miragarria da egitera zoazena; eta ezagaturik ez naizela diña, ez naiz atrebitzen begiratzen; ala jeisten naiz nere ezerezaren beerenera, eta antzen nago nere partearen zai, merezi izan ezpadet ere; obra au, esleitu guzi-entzako, birtuterik andienekoa izango dalako! ¡O Jesus gozoa! Jaungoikoak nai dezala nik ere zerbait ortarako egitea, eta ori iristeko, egingo det al guzia, eta atsekaberik gogorrenak igaroko baditut ere, zure ondoan beti egongo naiz, zure Sakrifizioak, bizien eta illen onerako izanik, iritzi dezan osoro berari dago-kiona. Eta Zuk, Jauna, emaiztetzu Meza ematen duanari eta entzuten dutenai, ori irizteko bear dituzten graziak.

Begira, zein andia dan, Jesu-Kristok apaizai konsagratzeko eman dien almena: “Nere Aitaren almena, ain da andia, esan zion Jesu-Kristo gure Jau-nak Rotse’ko Alain Doatsuari, ⁽¹⁾ nun Zerua ta lurra utsetik egin zituan, baña apaizarena eltzen da Jaungoiko beraren Semea Aldareko Sakramentuan jaio-erazitzeraño, eta Sakramentu eta Sakri-

(1) Part. IV, c. 27.

fizio andi onen bitartez, jakinduriaren tesoroa dator gizonen eskuetara., Jau-nak dio gañera: “Da Jaungoikoaren glo-riaren parterik onena; da bere Ama gu-ziz Santaren pozik andiena: dira Zori-onekoen atsegiñak, da bizientzat lagun-tzarik onena ta illentzat konsuelorik andiena., Esango ditugu gañera berriro San Juanen itzak ⁽¹⁾: “Jaungoikoak amatu du mundua, bere Seme bakarra emate-raño, Beragan sinisten duten guziak gal-du eztitezen, baizik betiko bizitza iritši dezaten., Jaungoikoak lenengo aldiz agertu zion munduari bere amorio andia, bere Semea bialdu zionian; egun eta ordu guzietan agertzen dio berriro; Ze-rutik jetšieraziaz, Jaungoikoaren Semea bera, misterio ura bera berritzera. Na-zareten Gizon egitean, Jesu-Kristok be-regandu zuan merituzko tesoro neurri gabe bat; aldarean ematen die parte me-ritu aietan, Meza debozioz entzuten edo ematen dutenai. Ona emen ejemplo eder bat.

Irakurtzen da San Franzisko'ren prai-leen Kondairan, Juan Alberneko Doa-

(1) Joan. III, 16.

tsuak ematen zuala Meza debozio guziz andiarekiñ, sentitzen zituala animako atsegintasun andiak, oso nekaturik gelditzerano. Ama Birjiñaren zeruratzeko fest-egunian, Meza nagusia eman bear zuan, baña aldarera eldu ta bereala, sentitu zituan bere barruan kordegabetze edo arrobamentu aiñ biziak, nun etorri zitzaion Meza bukatu ezingo zualako beldurra. Eta beldur zana, gertatu zitzaion; bada Konsagrazioko instantean, eta gogoratzean, Jesu-Kristo gure aragiz jantzitzeko zerutik jeistera betikotasun guzitik mugitu zuan amorio neurrigabea, eta denbora berean amorio onek jarri zuala Gizon-egite au beti berriztazera Meza Santuan, Doatsu ark sentitu zuan, biotza zatitzen zitzaiola, eta Konsagrazioko itzak esateko, indarrik gabe gelditzen zala. Azkenik esan zuan: "*Hoc est... Hoc est enim...*", bukatzera eldu gabe. Oarturik Aita Guardianana eta beste praile bat, juan zitzaizkion laguntzera.

Auek uste izan zuten lenbizian, ondoezen bat egiñ zitzaiola Meza ematen zegoanari. Baña ala ere, onek esan zituan azkeneko bi itz auek: "*Corpus me-*

um., Bereala ikusi zuan Ostia aur t̄siki biurturik, eta ezagutu zuan, aur ura zala Jesus. Salbatzalleak ezagutzera eman zion, gizon egitera, eta Mezatan Gizon-egite au berriztatzera beartu zuan umilltasun andia. Au ezagutzean gelditu zan erligioso ura indarrik gabe, eta erori zan lurrera ezaguera galdurik. Baña Guardianak eta beste prailleak eutsi, eta gatzen batzuen lurruna artuerazorik, etorri zan konortera. Ala ta guziz ere egon zan indar gabe, bere bizikai edo mienbroak mugitu eziñ zituala, eta Gurutzearen señailea egiteko eskuak jaso eziñ zituala. Azkenik bukatu zuan Sakrifizio Santua, bere nagusiak lagunduta, eta ondorean bereala galdu zuan ezaguera bigarren aldiz, eta besoetan eraman bear izan zuten sakristira. Illa zirudian, bere gorputza izozturik zegoan, eskuko beatzak kuzkurtuak, luzatu eziñ zituala. Orduren batzuetan oso gaizki egon zan eta bere inguruan zebiltzanak beldurtu ziran, illko ote zan. Ezaguerara biurtu zanean, erregutu zioten, esan zezaiela, zer gertatu zitzaion, eta zer ikusi zuan adimentuaz, zentzugabeturik egon zanean. Az-

kenik, egiñ zizkioten erreguai erantzun-
zien: Konsagrazioko instantean ekarri-
det nere gogora, Jesu-Kristo gure Jauna
gizon egitera, eta Gizon-egite au Meza
bakoitzean berriztatzera erakarri zuan
amorio neurrigabea; orduan sumatu nu-
an, biotza zatitzen zitzaidala, eta iduri-
tzen zitzaidan, nere aragiak etzutela ezu-
rrik. Eziñ zutik egon nintzan, eta eziñ
esan nituan Konsagrazioko itzak. Alegiñ
andiak egin, eta azkenik iritși nuanian
esatia, ikusi nuan nere eskuetan, Ostia
Santuaren lekuan, Jesus, Aur ederra,
eta bere begirunea sartzen zitzaidan nere
animaren barruneneraño, eta kentzen
zion nere gorputzari, gelditzen zitzaion
indar apurra. Erori nintzan kordegabe-
turik, bañu Aur onenganako amorioz
irazekirik nengoan. Juan Doatsuak esan
zituan, kordegabeturik egondu zan bi-
tartian gertatu zitzaizkion beste gauza
bätzuek ere, eta azaldu zien bere itzke-
tako lagun onai, Sakrifizio Santuan Je-
susek agertzen digun amorio neurriga-
bea. Alberneko Juanek izan zituan kon-
suelo berak izan dituzte Santu askok,
eta zuk ere izango ziñuzke, bear beze-

lako debozionarekin Meza entzuteko oitura artuko bazendu.

BOSGARREN BURUA

Jesu-Kristok Meza Santuan berritzen du bere Jaiotza.

Eliza Katolikak lurbira guzian kantatzen du bere Salbatzallearen jaiotzako misterio gozoa itz auekiñ: “Egun onetan gozotasuna jarioko da mendietatik, eta mendiskak emango dute ezta.” Eta egiaz, Eguerri egunian gozotasun guziaren iturria dan Ark, gozatu zituan gauza guziak; ekarri zuan Zerutik egiazko poza, adierazi zien pakea borondate oneko gizonai, poztu zituan atsekabetuak, eta itz batean esateko, bere zorioneko etorrerarekiñ mundu guzia bendizioz bete zuan.

¡Nolakoa etzan izango gau artan Aita Betikoaren poza, ekustean Maria Birjinagandik jaiotzen bere Seme guziz maite, sekula guzien aurretik berak sortu zuana! ¡Zer atsegiñtasunak Semearentzat, Ama bat lurrean idukitzean, denbora

berean Aita bat Zeruan zuala! Zer atse-
giña Espiritu Santuarentzat ikustian ara-
ko Aita Jaungoikoarekiñ amoriozko lo-
karriaz betikotasun guzitik berak elkartu
zuan ura, zala bere laguntzaz aragiz jan-
tzitzen zana, eta persona bategan Jaun-
goikoaren eta gizonaren naturaleza el-
kartzen zituana! ¡Nolako gozotasunez
betea etziñan arkituko Zerori, ¡o Maria!
Jesusi begira, gogoratzean ez bakarrik
zala zure Semea, baizik baita Jaungoi-
koana ere! ¡Zeiñ zorionekoak izan ziran
denbora artan bizitu ziran gizon, beren
begiakiñ bendiziozko Aur au ikusi zu-
tenak! ¡Nolako atsegiñtasun neurriga-
beak etzituzten izan aingeruak gandik
onen jaiotzaren berri izan zuten artzaiak!
¡Nolako biotzeko suaz etziran juango
Belen'era, Bera adoratzera! ¿Nork adi-
erazi lezake israeltar on guzien poz
andia, ikustean eldu zitzaie la berak ain-
besteraño deseo izan zuten eguna, eta
Simeon eta Anak adierazten zietela, kun-
plitu zala, ainbeste denboran zai egon
zitzaizkion promes ura?

Aien zorientasuna anditzat badau-
kagu ere, ezagutu dezagun, eztala t̄sikia-

goa gurea, Jesus Aur maitea fedearen begiakñ beti ikusten gauden ezkerro, era onetan beraren Jaiotzako pozaz beti gozaten gaudela. Esaten digu Aita Santu batek: ⁽¹⁾ “Ebanjelioaren itzak eta Profeta Santuenak irazekitzen gaituzte ainstesteraño, nun obeki iduritzen zaigun, onratzen degula Salbatzallearen jaiotza, ez gertaera igaro bat bezela, baizik oraingo gauza baten modura, aditzen degula guk ere Aingeruak artzaiai esan ziena: “Ona emen nun dakarkitzuedan poz andi bat; gaur jaio zaitzute Salbatzalle bat., Eta egiaz, egunero juan gindezke jaiotz bedeinkatu ontara. Asko degu ontarako, Meza entzutera juatea, emen beti berriztaten dalako jaiotz au. Aditu diozagun Santa Hildegardari: ⁽²⁾ “Egun baten, Konsagrazio ondorian, Ogi ta Ardoaren Iduri Santuetan pentsatzen nengoala, agertu zitzaidan Salbatzallearen jaiotza, ispillu baten bezela., Emen ikusten da, guk esan deguna egia dala, eta berak erakusten digu argiro, Zeruak artzen duala parte gertaera miragarri onetan, oraiñ milla ta bederatzieun urte,

(1) Leo Mag. De Nativ.—(2) Lib. II vis. VI.

egiñ zuan beziñ bizi. ¿Nai dezute ja-
kiñ, norgandik eta nola jaiotzen dan
Jesu-Kristo? Adi zaiozute San Jeroni-
mofi⁽¹⁾: “Apaizak deitzen diote Jesu-Kris-
tori bizitzara, beren ezpaiñ konsagratu-
en bitartez., Erakasle Santu onek esan-
go balu bezela: Jesu-Kristo jaiotzen da
apaizaren ezpañetatik, onek Konsagra-
zioko itzak esaten dituanian. Aita Santu
Gregorio amairugarrenak erakusten digu
ori bera, apaizai konseju ematen dienian
aldarera igotzean, esan dezatela: Nik nai
det Meza Santua ematea ta Jesu-Kristo
Gure Jaunaren Gorputza ta Odola egi-
tea.

Ori bera da, gañera, Elizak gogoratzen
diguna, aingeruak Jesus jaio zan gabean
kantatu zutena, kantatzeko, guri agin-
tzean: “Gloria Zeruan Jaungoikoari eta
paquea lurrean borondate oneko gizo-
nari.” ¿Etzaitzute iduritzen, orduan ar-
tzen dezutela, artzaiak bezela, zerutar
espiritu aien albista? “Adierazten dizu-
tet poz andi bat, gaur jaio zaitzute Sal-
batzalle bat. Arkituko dezute Aurra oial
zart̃so batzuetan bildurik, eta aska baten

(1) Epist. ad Heliod.

etzanik., Egiñ ezazu kontu Aingeru Guardakoak esaten dizula: Poztu zaite nere semea, bada Salbatzallea zure salbaziorako berriro jaiotzera dijoa, eta ikusiko dezu Ostia Santuaren iduripean. Zuen Aingeru Guardakoak onela itz egingo ezpalizute ere, fedeak erakusten dizute, esan dan guzia, egiaz ala gertatzen dala. ¡O zer atsegiña zuentzat, fede biaz ala sinisten badezute! ¡zer poz oraindik andiagoa, begiratu albade-giozute animako begiakin, eta egiten badezute Jesus Aurrarekin, gorputzeko begiz ikusteko diña izan ziran aiek egiñ zutena!

Eremutarren Bizitzan irakurten da, Plegus zeritzan apaiz batek zeukala gogo oso bizia, jakiteko, nola Jesu-Kristo arkitzen zan egiaz ogiaren eta ardoaren iduripian; ez dudaz eta ikusmiraz, baizik Gure Jaunari zion amorio andiagatik. Meza Santua ematen zegoan egun baten, aiñ bizirotorri zitzaion gogoa, nun erori zan belauniko, deadar egiñaz: "Artarako diña ezpanaiz ere, nik erregutzen dizut nere Jaungoikoa, erakutsi zadazula misterio onetan Jesu-

Kristoren Gorputza, Simeonek bezela nere eskuz ukitu degiodan., Agertu zizaion aingeru bat, eta esan zion: “Jaiki zaite laster, Jesu-Kristo ikusi nai badezu; emen dago egiaz, Maria guziz Santak bere besoetan eraman zuan bezelaše.,”

Jaso zituan Apaizak ikaraturik bere begiak, eta ikusi zuan korporalaren gañean Jaungoikoaren Semea, Aur eder bat bezela, eta besoak atsegiñez luzatzen zizkiola. Plegus etzan atrebitu ikutzen, eta aingeruak esan zion: “Ona emen Jesus, gizon bezela, eta instante bat lenšeago ogi ta ardoaren iduripean ikusi dezuna. Etzaite ikaratu, artu ezazu beldur gabe zure eskuetan, eta poztu zaite Jaungoiko ta Salbatzalle ikustean.,” Itz auekiñ animaturik, apaizak artu zuan Jesus Aurra bere besoetan, eta estutu zuan bere biotzaren gañean, gozoro balakatuaz. Bere egarri irazekia ase zan. Malko ugariak iñuriaz, ipiñi zuan Aur Jaungoikoa korporalaren gañean, erre gutuaz berari, biur zedilla lengo erara, komunioaren bitartez bere biotzean artu, ta Sakrifizio Santua bukatu zezan.

Agertuzan berriro Ostia Santua ta apaiz zorionekoa komulgatu zan.

Jesu-Kristok ez bakarrik kristau onai, baizik baita judio ta jentill batzuei ere erakutsi die, nola egiaz dagoan Sakramentu Santuan.

Alberto Krantz'ek dio; Karlomagnok egin ziela gerra urte batzuetan sajontarrai; gezurrezko Jaungoikoak adoratzeko zituan relijiotik atera nai zituala. Biotz gogorreko gizon auek, garaitu eta bataiatu ondorean ere, beren Duke Wittikind'ek zirikatzen zituan, relijio egiazkoa utzi zezaten. Enperadorea juan zan Sajoniara tropa askorekiñ amabigarren aldiz. Garizumako denbora zan, eta Paskoa eldu zanean, agindu zion ezertu guziari presta zedilla Sakramentu Santuak bear bezela artzeko. Festa egiñ zan Enperadorearen mendekoen artean. Wittikin'dek zeukan kristauen relijioko pesten edertasuna ikusteko gogo andia; eta au iristeko, kendu zituan bere jantzi ederrak, eta estalirik bere gorputza erropa zar batzuekiñ, juan zan bera bakarrik kristauen artera eta eskale pobre bat bezela, asi zan limosna eskatzen.

Onela ikusi zuan, nola Ostiral Santu egunean Enperadoreak eta soldaduak, argiro damaturik, barau egiazkoa egin eta debozio andiaz errugutzen zuten. Gero ikusi zituan, nola konfesatu ziran, eta baita prestatu ere komuniorako.

Pazkoa egunian, Meza emateko denboran, konsagraziora eltzean, ikusi zuan Wittikind'ek aur guziz eder bat apaizaren eskuetan. Mirari ori ikustean, berak ezagutzen etzuan gozotasun batek artu zion biotz guzia. Meza bitartean etzituan aldendu bere begiak Meza ematen zuan apaizagandik, eta soldaduak komulgatzera juan ziranean, oso arrituzan, ikustean, Aur ura bera ematen zitzaiola bakoitzari, eta guziak bat-banaka artu eta jaten zutela, guziak modu berdinean egiten ezpazuten ere. Aur maitagarria zijoan batzuekgana poz andia azalduaz, baña etzuan juan nai eta alegiña egiten zuan ez juateko beste batzuekgana, juatera bearturik bazegoan ere. Mirari, beñere aditure etzan bezelako onek ipiñi zuan Dukea arriturik, nun zegoan etzekiala. Meza ondorian, ateratzen da Elizatik, sartzen da eskaleen artean, eta

asten da, auek bezela, limosna eske. Enperadoreak ematen die limosna aietako bakoitzari; baña Wittikindi aldia eldu zitzaionean, serbitzarietako batek, adirazi zion ura nor zan, bere beatz okerean Dukia ezagutu zualako. ¿Zergatik, -esaten dio Karlos'ek-Sajontarren buruzagia, eskale jantziaz estalzen da? Wittikind'ek, beldurturik, iñpizat salatuko ote zuten, erantzun zion: Jauna, etzezazu artu gaizkitzat, nik egin dedana: ez tet beste gauzogatik egiñ, baizik bakarrik, kristauen elizpuntziora ezeren traba gabe etortzeogatik. ¿Zer ikusi dezu?—galdetu zion Enperadoreak.—Mirari bat, bere antzekorik dan gutšienian ere aditu eztedan bezelakoa, eta oraiñdik ere nola dan, eztakidana. Orduan esan zion, zer ikusi zuan Ostiral eta Zapatu Santuz, eta gañera egun artan Mezatan ikusi zuana, galdetzen ziola mirari andi ark zer esan nai ote zuan. Enperadoreak, arriturik Jaungoikoak biotz gogorreko jentili bati Jesus Aurra Ostian irakusteaz (izanik grazi andi au beste askori, santuak izantare, egiñ eztienea) azaldu zion, Ostiral Santuko tristura, barauak, konfesio

ta komunioak zergatik ziran. Iritsi zuan Wittikind'en biotza biguntzea, utzi zuan onek bere erlijio gezurrezkoa, eta artu zuan bataio santua, artarako bear zana aurraz ikasirik. Etzan onenbesterekin kontentatu, baizik eraman zituan berekiñ apaiz batzuek, eta auek poliki poliki erakarri zituzten Kristoren legera Sajoniako Dukearen mendeko guziak.

Kondaira au egokia da, Jesu-Kristo aldareko Sakramentuan egiaz arkitzen dala, fede biaz sinistu dezagun. Kristok ezkututzen die bere edertasunagure begi pekatariai, baña ez Jaungoikoanai eta zeruko aingeruenai. Meza bakoitzean agertzen da edertasun andiarekiñ, neurri gabeko gloria, Irutasun edo Trinitade guziz Santuari, eta esan eziñ alako atsegiña Maria Birjiña Doatsuari, aingeru ta santuai emanaz, Rotse'tar Alaini Jesussek berak aditzen eman zion bezela.

Aingeruak ikusten dutenian, Jesus Ostian jaiotzen, belaunikatzen dira beraren aurrean eta adoratzen dute errespetoz, askaren oñean egin zuten bezela, kunplituaz bigarren aldiz, San Paulok ⁽¹⁾

(1) Heb. I, 6.

Jesusen jaiotzaren misterioa adieraztean dion profezia ura: “Jaungoikoak bere Semea lurrera bialdu zuanian, esan zuan: Aiñgeru guziak adora dezatela:., Espiritu zerutar auek, Elizak prefazioan kantatzen duan bezela, beldur santu batez beterik, elkartzen dira poz aldi batean Jaungoikoa alabatu eta goratzeko. Elkartu gaitean oiekin eta alaba dezagun Jesus, Meza bakoitzean misterio au berritzen duana, onetan parte geiago guri emateko.

Eztago lurrean egi aiñ andi au bear bezela adierazi lezakean jakinduririk; onetarako aingeruen jakinduria bearko litzake, adimentu argi auek bakarrik ikusten dutelako, eta dakitelako, Meza bat ematean, zeruak artzen dituan atsegintasun andiak. Trinitade guziz Santua arkitzen da bere Santutasun guzian, bere iru persona banakakoetan naturaleza baten elkaturik. Espiritu Santuak dio, asiera gabeko Jakinduriagatik, au da Jaungoikoaren Semea gatik: “Betiko argiaren bristada, Jainkozko Majestadearen ispillu mant̃sa gabea, bere ontasunaren imajiña da:., Ispillu au betikota-

sun guzitik dago Aitaren begien aurrean; onetan begiratzen da, ta emen arkitzen du neurrigabeko zoriontasun bat; an ikusten du, Jaun andi gloriatsu, jakintsu, guzieldun, eder, aberatsa, eta au guzia mallarik goienian dala, ta aurrera ere, ala izango dala. Bere imajiña egiazkoa ikusten beti egotea, da Beretzat atsegiñ guziz gozo ta osoa, ta berak bakarrik zoriontasun guzia egiten duana.

Mantša gabeko ispillu au bera ipiñi zan berriro bere begien aurrean Kristoren jaiotzarekiñ, Kristo gizonaren naturalezarik ederrenaz jantzia, ta birtute guziaz ornitua izan zalako. Ala Aita Betikoak, Semea jaiorik ikustean, artu zituan, gure esateko moduan, atsegintasun berriak eta zerutar guziaz parte artu erazi zien oietan. Orrengatik aingeruak, Jesus jaio zan gabea, beren boz gozoarekiñ kantatu zuten, mundua pozez bete eta artzai onak ezin ta geiago alaitu zituan kantu zoragarri ura. Orrengatik espiritu zerutar oiek juan ziran presaka Belenera, eta auspeztu ziran jaio-berriaren aurrean, kantatuaz: *Gloria in excelsis*.

Eta ala, begiz ikusteko moduan beñ

gertatu zana, berritzen da egunero al-
darian: emen Jaungoikoaren Seme ba-
karra jaiotzen da apaizaren itz batetik
eta berriro gizon egiten da. Egiaz, ezta
sortzen Kristo berri bat, baizik Kristo
bera aurkezten da leku askotan. Ogi ta
ardoak Kristoren Gorputz eta Odol biur-
tzearen birtutez, an dago bere Gizata-
suna, len etzegoan lekuan, eta an geldi-
tzen da, egiaz, Ostiaren iduripean, onek
ondo irauten duan denbora guzian. Diot
gelditzen dala iduripen onek ondo irau-
ten duan denbora guzian, bada au dese-
giten dan beziñ laster aldentzen da Gure
Jauna.

Eta ala, Jaungoikoaren Seme Gizon
egiña jaiotzen bada berriro apaizaren
itzaren bitartez, justiziazko ispillu au
apaizaren eskuak jasotzen badute ta
Meza ematen duanak Jaungoikoari es-
keintzen badio, izer poz eta atsegiñak
eztitu artuko zeruko Aitak! Egiaz, ez-
tira izango Jaiotzako gabea artu zituan
baño t̃ikiagoak; bada ala batean nola
bestean dauka begien aurrean ondoren-
go itz auezaz; ⁽¹⁾ “Auşe da nere Seme

(1) Matth. III, 17.

maite, nere atsegiñ guziak beragan dauzkanā, aditzen eman zana; beste diferentzirik gabe, baizik Kristo orduan aragi illkorraz jantzirik egotea, eta orain Ostia Santuan gorputz illezkorraz, bere zauri sagraduaz, bost perla ederrez bezela apaindurik. Orduan gorputzez bakarrik jaio zan, eta oraiñ espirituz eta gorputzez.

Atsegintasun auek andiangoak dira aingeruen alabantzakiñ, santuen adorazioakin eta gizonen obra onakin Jaungoikoari ematen zaizkionak baño; bada bakarrik Kristoren Gizatasun Santua, Jaungoikotasunarekin elkaturik, da Irutasun edo Trinitade guziz Santua onratu, ta amorio neurrigabeaz amatu dezakeena. Au guzia egiten du Salbatzalleak aiñ gozoro, nun ez Kerubiñak eta ez Serafiñak dakiten, zenbaterañokoa dan gozotasun au. Zeruak ikusten du atsegiñik andienarekiñ, baña eziñ neurri lezake jainkozko gozotasun orren anditasuna. Eta nola au berritzen dan egunero, milaka ematen diran Mezatan, ¿nork adierazo lezake, Meza oiek Irutasun edo Trinitade guziz Santuari ematen dioten zorion aiñ andia?

¡O nere Jaungoikoa! zure zorionak zoraturik uzten nau: eta bizi-
ro nai nukena da, zoriontasun au ez illuntzea,
Sakrifizio Santura datozenen oztasunak.
Erregutzen dizut nere Jesus, lagundu
zaiozula nere ezer-ezari, Irutasun guziz
Santua Meza bakoitzean onratu deza-
dan lenago agertu eztiodan amorioa, ta
eman bear nion onra oraiñ geiagorekiñ
ordaindu ditzadan.

Ikusi ditzagun, pekatariak Gure Jau-
naren jaiotz berri ontatik ateratzen di-
tuzten frutu osasungarriak. Isaias Pro-
fetak aurriz adierazo zuan Salbatzallea-
ren etorrera onela: ⁽¹⁾ “Aur bat jaio da
guretzat, seme bat eman zaigu., Au bera
esan dezaket Konsagrazio bakoitzaren
ondorean. Orainñtše bertan eman zaigu
aur bat. ¡Zer erregalo ederra! ¡Zer doai
andia! Aur au da Aita Guzialdunaren
Seme bera. Zeruko Paraisotik dator,
ugaria atsegintasunetan; berarekin da-
kartzki, aberastasun andiak, grazia ta
Jaungoikoaren errukitasuna, eriotz on
baten mesedea, zeruko gloria geitzea,
bizitz ontako janari pekatutik eta eskan-

(1) Isai. IX, 6.

dalotik urrutiratuko gaituan sendagai ziuirra; itz baten esateko, Jaungoikoaren bedeinkazio guziak. Eta ala prest dago, Meza entzuten duten guziaz ondasun aukerak emateko.

Gogora dezagun orain obeki Isaias'en esana, eta arkituko degu an beste erakusgai bat. Profetak esaten digu argiro "aur bat jaio eta seme bat eman zaigula." Itz aukerak Jesusen Sakramentuko jaiotzaz artzen dirala, aditzen ematen dute Jesusen egiten gaituala beraren, bera dan, berak daukan eta berak aldarean egiten duan guziaren jabe. Eta ala onorea, eskerrak ematea, satisfakzioak eta Irutasun guziz Santuari eskeintzen dizkion errespetoak, guziak dira gureak. ¡Ai zein atsegin andia dan Meza entzuten duan gizonarentzat, jakitea, ez bakarrik Sakrifizio Santua, baizik Kristo bera ere berea duala! ¡Ai! Jesus jaio zan gabean Belen'go estalpean egon baziña, artuko zenduan zure besoetan Jesus Aurra eta eskeiñko zion bere Aitari, erregutuaz, begira zegizula errukizko begiak, ain maite zuan Seme onenganako amodioagatik. ¿Duda dezakezu bere graziaz be-

teko etzinduzenik? Beragatik egizazu ori bera Mezatan, batez ere Abenduan, eta eguerrietan; zuaz aldarera zure espirituz; arzazu Jesus zure besoetan eta eskeñi zaiozu zure Aitari.

Buru ontan itz egiñ bear degu beste gauza kontuz jakin bear dan baten ganiñan, eta da; Salbatzallea aldarean ez bakarrik espirituz jaiotzen dala, baizik baita zerua ta lurra arritzeko diñako modu umillean ere. San Paulok ⁽¹⁾ adierazten dizkigu erabakiro bere lenengo Gizon-egitea eta bere lenengo Jaiotza, esaten digula: "Nere anaiak, Jesu-Kristok pentsatu duana, pentsatu bear dezute. Onek Jaungoikoaren itšuran zegoala etzuan lapurretatzat artu berarekiñ berdiñ izatea, eta ala ere ezereztu zan mirabe baten itšura artuaz, gizonen antzeko egiñaz, eta aintzakotzat zeukatela kanpotik agertzen zanez. Umilldu da illtzeraño, eta gurutzean illtzeraño."

Beragatik Salbatzallearen aldareko jaiotza gogoratzen duan edozeñek, arkitzen du an umilltasun bat oraindik andiangoa; bada Belenen zan beste aurren

(1) Philip. II. 5-8.

antzekoa, edo obeki esateko, aurrik ederrrena; baña emen ezereztutzen da ogia-
ren iduripean.

¿Nork aditu du beñere onelako umill-
tasunik? Eta alare, zeñ gutsi diran,
emen bera adoratzen dutenak. ¿Nun da
bere gloria? ¿Nun bere guziasuna?
¿Nun zerua ikaratzen duan bere Majes-
tade andia? ¡An ezkututzen du au guzia!
Aingeruak berengan iduki eziñ dutena,
dago ostia zuri baten barruan: Aitaren
eskuitik gloriáz disdiatzen duan ura
dago, aldarean etzanik, sakrifizioko bil-
dotsa bezela. ¡O umilltasunezko it̃aso
ondo gabea! ¡O gizonen maitatzallerik
leialenaren amorio berdingabea!

Baña badago oraindik gauza bat arri-
garriagoa. Obeitzen dio apaiz guzien
borondateari, naiz izan apaiz onak, naiz
fede gabeak, edo fede otzekoak, uzten
dala oien eskuetan, berak nai dutena
egĩñ dezaten. Eta San Paulok esaten badu
ere: ⁽¹⁾ “Bendizioa artzen duana izan
bedi ematen duana baño gutsiago,,” ontzat
artzen du apaizen bendizioa. ¿Nola Je-
su-Kristok, izanik apaiza baño esan

(1) Heb. VII, 7.

eziñ adiña andiagoa, ontzat artzen du onen bendizioa? Ala ta guziz ere, alañe da; apaizak bedeinkatzen du ogia, ez bakarrik Konsagratu aurretik baizik baita Salbatzallearen Gorputz eta Odol biurtu ondoan ere, eta au amabost alditaraño.

Jesus Joane^oganuntz joan zanean Jordango ibaiaren ertzean, Juan etzan atrebitu Jesus bataiatzen: ⁽¹⁾ “Zuk ni bataiatu bearrean, ¿Zu zatoz nik bataiatu zaitzadan?, „ esan zion. ¡Ikuskizun andi ta bel-durgarria apaizentzat! Auek esan bear liokete Salbatzalleari: “Jauna, ni naiz Zuk bedeinkatu bear ninduzukena, ¿eta Zu zera pekatari bategandik bedeinkazioa artu nai dezuna? Egiaz, apaizak eztu gizon bezela egiten Ostia Santuaren gañean gurutzearen señailea; ez; Aita Jaungoikoaren bendizioa da berak ematen duana. Arrigarria da, Jaungoikoa baliatzea gizon batez, Sakrifiziorik andiena bedeinkatzeko.

¿Zergatik umilltzen da Salbatzallea ainbesteraño? Geienbat Jaungoikoaren asarrea palakatzeko, eta gizonagandik kastigua aldentzeko. Gure etsaiak pala-

(1) Matth, III, 14.

katzeko alderdirik onena da, barkazioa eskatuaz, beren aurrean umiltzea. Akab gaiztoaren kondairan arkitzen degu ejemplo eder bat. ⁽¹⁾ Elias Profetak adierazi zionean Errege oni, beraren eta bere familiako gaiztakerien bengatzalle zuzen Jaungoikoak kastigatuko zuala, bere emazte eta umeak bezela, gizonen eskuzko eriotzarekiñ, eta etzitzaiola bati ere lurrik emango, eta beleak eta t̄sakurrak jango zituztela beren gorputzak; Akab'ek urratu zituan bere erregetzako soñekoak, estali zan zilizioz, jantzi zuan saku latz bat eta alde egiñ zuan, bere burua makurtuta. Jaungoikoak esan zion orduan Eliasi: ¿Ikusi dezu nola umilldu dan nere aurrean Akab? Bai,—erantzun zion Profetak.—Nere aurrean umilldu dan ezkerro, eztizkiot bialduko, bialtzeko ustian neuzkan kastiguak, esan zion Jaunak.

Baldin Akab'ek, Eskritura Santuak dionez, gaiztakerian berdiñik gabea izanik ere, irit̄si bazuan Jaungoiko Guzialdunaren aserr̄ea palakatzea bere umilltasunarekiñ, ¿zer eztu irit̄siko zeruko

(1) Reg. III, c. 21.

Aitagandik Jesu-Kristoren umilltasunak aldarean? Beren gaiztakeri ta arrotasunagatik, Aitaren kastigua merezi izan duten pekatariagatik, aldarean daukan egoerak, ¿eztu milla aldiz Akab'ek baño obeki bigunduko Aitaren biotza? Begira zaiozu; kentzen du gloriako bere jantzia, Ostia Santuaren iduripean ezkutatuz. Ez bakarrik makurtzen du burua, baizik an dago etzanik danerre edo olokausto bat bezela, bere Aitari guretzako barkazioa ta errukia eskatzen.

Eta gauza jakiña da, Jaungoikoak kastigatzen ezpadu pekataria bere gaiztakeriai dagokien neurrian, mesede auzor diola pekatariak Meza Santuari, emen pekatariaren alde Jaunak egiten dualako, bere ordeztuaz eta Jaungoikoaren justiziaren beso bengatzalleari eutsiaz.

Izan gaitezen guziok, Bitarteko benegarri onenganako esker onekoak, eta esan degiogun gure biotzaren barrunetik:

Onore ta alabantzak ematen dizkitzugu, Jesus guziz maitea, Meza bakoitzean zerutik jeistera beartzen zaituan

amorioagatik. Meza Santuan ogia ta ardoa biurtzen dira zure Gorputz eta Odol, eskutatzen zera ezerezko iduri oien azpian, palakatzen dezu zure Aitarren aserrea, eta iristen diguzu merezi izan ditugun kastiguen barkazioa. Biotz guztik ematen dizkitzugu eskerrak mesede berdin gabe onegatik, eta alabatzen, bedeinkatzen eta gloriatzen zaitugu gure alegin guziarekiñ. Eskatzen diegu zeruko aingeruai, berak gure orde z eman degizkitzutela eskerrak. ¡O Jesus!; iguzu mesede, gure begiak idikitzeaz, Meza Santuko misterioen ezagueran egunero aurreratuz, onratu dezagun bear bezela, gure salbaziorako entzunaz.

SEIGARREN BURUA

Meza Santuan, berritzen du Jesu-Kristok bere Bizitza.

Gure begiak eta belarriak geien berengantzen dituan gauza da, gertaera igaroak biziro gogoratzea. Gizonak arkitzen dute onetan atsegiñ andia, eta oiezaz gozatzeko enpleatzen dituzte ga-

bak eta egunak, edozeiñ sakrifizio egiñaz. Mezako misterio andiak ondo gogoratuko bagiñuz, ulertuko bagendu zerbait, Jesu-Kristok bere bizitzako gertaera guziak berritzeko, jaiko soñekoz jantzirik bezela, agertzen zaigun sakrifizio miragarri orretan, kanpaiaren lenengo otsean juango giñake lasterka Elizara, kontu aiñ andia daukakigun ikusgarrira. Eta alare, ¡gauza arrigarria! Emango degu dirua teatrorako, juango gera kontuz an egiten dana, edo obeki esateagatik, komedigille aien zorakeriak ikustera, gure denbora eta diruaren ardurarik gabe, eta aldenduko gera Meza Santutik, dirurik eman gabe, Jesu-Kristoren merituakiñ emen oso aberastu gindezkelarik ere, bada onetarako etzaiagu beste gauzarik eskatzen, debozioz entzutea baño.

Esango didazute benturaz: ¿Zergatik arritzen zera, buru gutšiko jendeak Mezatara baño komediara lasterrago jua-teaz? Komedian jolasa arkitzen da, baña Sakrifizio Santuan ez belarriak alaitzen dira, ezta begirik argiture. ¡Ai zeñ itšuaak diran, erantzungo dizuet, gorputzeko

begiak iñ bakarrik ikusten dutenak, eta beren adimentuko begiak aiñ illundurik dauzkatena! Fedearen begiak balituzte, arkituko lituzkete Sakrifizio miragarri onetan atsegintasun guziz andiak eta askuak, Jesus'en bizitza osoa eta bere misterio guziak Mezatan laburkiro berritzen diralako. Eztira emen, komedietan bezela, aurkezten gertaerak idurimenez apainduak, baizik Jesu-Kristok lurrean egiñ eta sufritu duan guzia berritzen da egiaz zuzentasun guzian.

Eta ala, Meza Santuan daukagu gure aurrean, artzaiak arkitu, Errege Magoak adoratu ta Simeonek bere besoetan iduki zuan Aurra. An dago bizirik, guk ematen dizkiogun debozio ta amorioaren ezagungarriak ontzat artzeko. Ebanjelioan, Jesus'ek erakusten du berriro bere dotriña apaizaren aoz, eta fededun animak iristen dituan grazia ta mesedeak, dira, Jesu-Kristo Gure Jaunak berak erakutsita, iritšiko lituzkean beziñ andiak.

Ardoa Odol biurtzea, Kana'ko milagroa baño oraindik andiagoa da; ogia bere Gorputz biurtzean, berritzen du Afariaren misterio miragarria.

Aldarean ezta sakrifikatzen borreroen eskuz, baña apaizak eskeintzen dio Aita Betikoari gure pekatuen zorra pagatzeko jauskañi edo biktima bezela. Santsez'ek esaten digu: ⁽¹⁾ “Meza Santutik probetsu ateratzen dakianak, iritši litzake pekatuen barkazioa ta grazi ugariak, Salbatzallea lurrean bizi zala misterio oietan arkitu balitz bezela.” Dionisio Kartujanok ez-tigu gutsiago esaten; ⁽²⁾ “Kristoren bizi-tsa guzia, esaten du, ezta izan, Meza-emate jarraitu bat baño, Bera aldare, tenplo, apaiz eta jauskañi dala.”

Jesu-Kristok jantzi zuan apaiz-soñe-koa, amaren sabeleko tenploan; emen gure aragia artzean; onekin jantzi zan gure naturaleza illkorraz. Jaiotzako gau zorionekoan atera zan tenplo onetatik, eta munduan sartzean asi zan *Introitoa* kantatzen. *Kirie eleison'a* kantatu zuan, bere eskutsoak askan luzetu zituanean, sokorro-eske bezela. *Gloria in excel-sis'a* kantatu zuten aingeruak artzaiai agertu zitzaiztenian, Aur jaio-berria ze-goan alderuntz auek eramanez. Jesus'ek

(1) In Thes. Missæ, c. 12.

(2) De vita curat., art. 16.

esan zuan *Colecta*, Jaungoikoaren errukia guretzat iristeko, gabak orazioan igarotzen zituania. Irakurri zuan *Epistola*, Moises eta Profeten esanak argiratu zituania. *Ebangelioa* erakutsi zuan, Judean barruna, berri ona banatzen ibillizanean. *Ofertorioa*, gizonen salbazioagatik Aita Jaungoikoari eskeñi zitzaien, artzen zituala onek ontzat Semearen sufrikizun guziak. *Præfazioa* kantatu zuan, gure ordeztu gelditure gabe, Jaungoikoa alabatzean, bere mesedeagatik eskerrak emanaz. *Sanctus'a* kantatu zuten ebreotarrak Erramu egunean, Jesus·Jerusalenen sartzean, deadar egin zutenean, esanaz: “¡Bedeinkatua izan dedilla Jaunaren izenian datorrena! ¡Osana Dabid'en Semeari! Salbatzalleak egin zuan *Konsagrazioa*, azkeneko Afarian, ogia ta ardoa bere Gorputz eta Odol biurtu zituanean. *Ostia ta kaliza jasotzea*, egin zan mundu guziak ikusteko, gurutzean josia eta airean jaso izan zanean. *Pater noster-a* esan zuan, gurutzean zazpi itzak esatean. *Ostia zatitzea* egin zan, bere Anima guziz Santua bere Gorputz beneragarritik aldendu

zanean. *Agnus Dei*'an ezagutuko dezute Zenturionen aitortzea, bere bularra joaz esan zuanean; Gizon au zan, egiaz, Jaungoikoaren Semea. *Komunioa*, da balsamatzea ta obiratzea. *Bendizioa* izan zan Jesus'ek jendea bedeinkatu zuanean, eskuak luzaturik bere ikasleen gain, Olibeteko mendiaren gainean, zerura igotzera zijoanean. ¡Zeiñ andi ta ederra dan Salbatzalleak lur onetan eman zuan Meza! Apaizak egunero, laburkiroago badare, ematen duten Meza bera da. Jesu-Kristo'ren denboran bizi ziranak baño zori obekoak gera gu. Aiek entzun zuten Meza bat, guziz luzea, baño bat bakarra; guk egunero entzun ditzakegu bat baño geiago, baita neke gutsierekin Salbatzallearen bizi guziko frutuak iritsi ere. Egi au obeki ulertzen laguntzeko, ona emen gertaera miragarri bat.

Santo Domingo'ren ordenako, Tomas Kantinprato zeritzan Obispo Olandatar batek dio, 1267 garren urteko Pazkoan, Douai'ko San Amado'ren Elizan, komunioa ematen zegoalarik, Meza bitartean, Ostia bat erori zitzaiola. Gertaera onekiñ beldurturik, nola gerta al zitzaikion

ezagutu eziñ zuala, erremediatzeko eta Ostia santua artzeko, belaunikatu zan; baña iges egiten dio eskuetatik, eta ikusten du, nola airean barruna igo ta dabilen. Korporal bat zeukan bakarrik eta onen gañean kopoa; artu zuan purifikadore bat eta zabaldu zuan Ostiaren azpiko aldean, eta Ostia etorri zan berez purifikadorera. Eraman zuan alderera, eta umillki belaunikaturik, eskatu zion bere errespeto gutsiaren barkazioa. Instante artan bertan Ostia santuari begira zegoala, mirari andiaz ikusi zuan, Ostia aur eder biurtzen zala. Mirari aiñ andia ikustian, bere biotza oso bigundurik, asi zan zotinga, negarez. Kanonigoak joan zitzaizkion laguntzaren bat egiñ naian, eta auek ere ikusi zuten jainkozko Aurra. Badijoa jendea ere miraria ikustera. Baña jo beste mirari berria! Kanonigoak ikusten zuten aur bat, eta jendeak gizon bat, Jaungoikoari dagokion anditasun eta edertasun guziarekin. Eziñ beñere kendu izan zuten jendeak beren biotzetatik, gertaera onek egiñ zien mugidalda, ezta onen oroipena ere. Batzuetan beeratzen zituz-

ten beren begiak errespeto andiarekiñ, eta besteetan goratzen zituzten, berriro begiratzeko. Agertaldiak iraun zuan ordu bete osoa. ¡Nork adierazi al litzakian biotz oiek izan zituzten atsegintasunak! Jendea geituaz inguratu zan, eta apaizak Sakramentu guziz Santua tabernakuluan sartu zuan beziñ laster, jendea atera zan Elizatik, ikusi zuten miraria guziaz esanaz. Kartinprato Obispoa izandu zan lenengo jakiñ zuenetako bat. Bereala juan zan, San Amando'ko Deanari galdetzera, egia al zan, Gure Jaunaren agertaldiaren gañian aditu zuana. Apaiz onek erantzun zion: “Egia da Jesu-Kristo bere gizatasunean askok ikusi dutela.” “Orduan, dio Obispoak, etorri zitzaidan Ostia Santua ikusteko egarri bizi bat. Apaizak eraman ninduan Elizara, jende askok jarraitzen zigula, berriro beren Maišua ikusteko esperantzarekiñ. Deanak idiki zuan *tabernakuloa*, beldurren batekiñ, atera zuan Sakramentu guziz Santua eta eman zuan bendizioa. Jendeak eman zion negarrari. “¡O Jesus! ¡O Jesus!”, deadar egiñaz. Galdetu nuan, zer esan naituzten deadar eta negar oiek, eta eran-

tzun zidaten: “Gure Jaungoiko Salbantzalleari begira gaude.” Ala ere nik ez nuan ikusten, Ostia beti bezela baizik; eta artzen nuan naigabe andia, nere pekatuak Jauna ikustea eragosten ote zidaten beldurrez. Esamiñatu nuan kontuguziaz nere kontzientzia, eta kezka emateko gauzarik arkitzen ez nuala, erregutunon negarrez Jesus’i, erakutsi zegidala bere arpegia. Denbora guziz gutširen buruan nere erregu irazekiak adituak izan ziran, eta izan nuan nere begi, merezi etzutenakin, ikusteko atsegiña; ez aur bat bezela, baizik persona azibatzen antzera. Bere begiak atsegiñak ziran, bepuruak arkuertatuak, illia bizkarrean beera zinzillik, bizarra luzetsoa, bekokia zabala, matrallak oriak, eta burua puškabat makurtua. Ni, Jauna ikustean, ikaraturik nengoan, nere biotza atsegiñ eta amorio geiegiz zatitzen sentitzeraño.

“Andik denboraren une, zerbait luzetso baten buruan bere arpegia mudatuzan, bere Pasioan arkitu zan bezela jarriaz. Ikusi nuan arantzaz koroaturik, odolez beterik. Sentitzen nuan nere be-

kokiaren gañian, garunak urratzen zizkidaten arantzen zorroztasuna. Guziak ikusten zuten Jesus agertaldi onetan bakoitzak beren erara; batzuek aur jaioberri bat zirudiala, besteak gazte bat bezela, beste batzuek gizonaren antzera, eta azkenik beste batzuek, Pasioko sufrikizun izugarrien erdian bezela. Utzirik alde batera zorioneko kristau aien biotzmugidak adierazitzea, nik nainuke, anima onak berak pentsatzea nolakoak izango ziran biotz mugida oiek.,,

Zure gorputzean ikusteko zorionik izan ezpadet ere jo Jesus! sinisten det fede bizi batekiñ, egiaz Sakramentu guziz Santuan zaudena eta eskeintzen zaitzakiot zure Aitari, nere begiakiñ ikusita beziñ debozio andiarekiñ. Badakit zeñ erreza dan zure guziasunarentzat gorputzez agertzea, baña badakit ori premiazkoa eztana ere, eta nere fedearen begia ona, bada, ikusiko zaitudala, edo zure glorian, edota zure Pasioan, zure atsegiñakiñ edo zure atsekabeakin elkartzen naizen erara. Etzera zu agertzen nere begirune illkorretara, baña ipiñi didazu betiko bide bat, espirituz ikusi

ditzadan zure bizitza ta sufrikizunak, eta eskeñi degizkiedan auek Aitari ta Espiritu Santuari, Zure Ama Doatsu, aingeruzko koru guzien eta esleituen gloriarik andienerako.

Jesu-Kristok berriztatzen du Sakrifizio bakoitzean bere bizitza neketsua, neurrigabeko merituduna, berriro aurkezten du bera, bere Aitaren aurrean, guretzat barkazioa iristeko, eta onekiñ ematen digu datozkigun kastiguak aldentzeko bidea.

Gogoratu dezagun maiz, kristauak, Sakrifizio Santuaren probet̃sua, bada emen ematen digu Jesu-Kristok, bere bizitza guziz santu, pasio ta eriotzaren merezimentu neurrigabeen parte. Emaizkiotzute eskerrak, ainbeste lan, neke ta penakiñ irabazitako tesoro aiñ andia eman dizutelako. Eztezazutela utzi Meza Santua, eta irit̃si itzatzute onen bidez neke aiñ gut̃sirekiñ irabazi aiñ andiak. ¡Ai! aberastu albazindezkete lurreko ondasunez, animako ondasunez beziñ errez, etzendukete galduko denborarik gut̃siena ere, eta etziñateke geldituko al guzia egin gabe.

Beraz, ¿nola izan zindezkete aiñ arduragabeak betiko aberastasunak irabazten?

ZAZPIGARREN BURUA

Meza Santuan berriztatzen du Jesu-Kristok bere Otoitza.

San Juan, ikasle aiñ maiteak, esaten du: “Daukagu Aitaren urrean anparatzalletzat Jesu-Kristo, Justurik bikañena, eta Bera da gure pekatuagatik eskeintzen dan jauskiñi edo biktima Jaungoikoaren asarrea palakatzeko.”⁽¹⁾ ¿Ezta egi pozgarri bat gu zeruratzeko, Jaungoikoaren Seme bera, illen ta bizien jueza, izatea gure anparatzallea?

Baña, ¿nun eta noiz anparatzen gaitu Gure Jaunak? Elizak erakusten digunez, ez bakarrik zeruan, baizik lurrean ere bai. “Sakrifizio Santua eskeintzen dan bakoitzean, dio Suarez jakintsuak, erregutzen du gure Jaunak Meza ematen duanagatik, eta emateko agintzen duanagatik.”

(1) I Ep. II. 1, 2.

Erregutzen du apaizagatik, Meza entzuten dutenakgatik, eta apaizak eta mezentzuleak beren erreguetan gomendatzen dituzten aiekgatik. Ona emen zer esaten digun San Lorenzo Justinianok erregu onen gañean: ⁽¹⁾ “Kristo aldean sakrifikatzeko danean, eskatzen du Aitarenean errukia, eta erakusten diozka bere zauri sagraduak gizonak infernutik aldentzeko.”

Jesus'en Biotz Sagraduak, gu zeruratzeko daukan egarria, aditzen ematen digu San Lukas'ek: ⁽²⁾ “Jesus jua zan mendira otoitz egitera, eta an igaro zuan gau osoa.” Beste leku baten esaten digu: Egunaz erakusten zuan temploan, eta gabaz juaten zan Oliboetakoa deitzen zan mendira.” ⁽³⁾

Gañera esaten du: “Jua zan, oitzen zuan bezela, Oliboetako mendira, bertan orazio egitera.” ⁽⁴⁾

Ziñalben edo testimonio auekiñ daukazute bear dan argia, ezagutzeko, Salbatzalleak zeukala, mendi artara gaba otoitzean igarotzera juateko oitura. Eta

(1) Serm. de Corp. Christi. (2) Luc. c. 6, 12.

(3) Luc. c. XXI. v. 37. (4) Luc. c. XXII. v. 39.

begira orain; ¿norgatik otoitz egiten zuan? San Ambrosiok erantzuten du: ⁽¹⁾
“Gure Jaunak etzuan otoitz egiten Bera-
gatik, baizik gugatik., Ala bada, zuek-
gatik, nigatik eta gizon guziakgatik egiñ
zituan gaubela oiek. Ikusten zuan aurraz,
anima asko galduko zirala, berakgatik
eriotzarik gogorrena igarotzea erabakia
zeukalarik ere, eta gogorazio orrek atera-
tzen zizkan malkoak begietatik eta sus-
piruak bere biotz errukitsutik. Eskaera
sutsu oiek baturik bezela, berritzen ditu
Salbatzalleak Meza bakoitzean. Denbora
berean erakusten dizka bere Aitari, iñuri
dituan malkoak, eta esaten dizka bere
Biotzetik atera diran suspiruak, eta onela
igaro dituan gabak. Au guzia eskeintzen
dio mundu guziagatik, baña batez ere
Meza Santua entzuten daudenakgatik.
¡Zenbaterañoakoa izango ezta onelako bi-
tartekotasuna, Santuen Santua danaren
ezpañetan! ¡Zenbat eztute esperatu bear
animak, beren mesedean Jaungoikoa ga-
naño eltzen dan bitartekotasun oneta-
tik!

Jesusen otoitzaren indarra geitzen du,

(1) Lib. III, ln Luc.

bere birtutea sakrifizioanarekiñ elkarturik egoteak.

Jaungoikoak Santa Jertrudis'i agertu ziozkan gauzen artean, irakurten da, Ostia Santua goratzean, ikusi zuala Santak Jesu-Kristo gure Jauna, bere eskuaikiñ goratzen zuala bere biotza, Jaungoikoari eskeintzen zion urrezko kaliza baten iduripian. Santa berak ikusi zuan, nola Jauna sakrifikatzen zan, adimentuk ulertu eziñ lezaken eran. Eta egi au obeki erakusteko, Jaunak esan zion Santa Jertrudis'en aizpa, Santa Mechtilde'ri: ⁽¹⁾ "Neuk bakarrik dakit eta neuk bakarrik ulertzen det osoro, nola sakrifikatzen naizen aldarean kristauak zeruratzeagatik, eta ez kerubiñak ez serafiñak eta ez beste zerutarrek ulertu lezakete au osoro."

Begira, gañera, Jesu-Kristo gure Jauna eztala aldarean eskeintzen zeruan daukan anditasunarekiñ, baizik umilltasun berdiñ gabe batekiñ. An dago egiaz, ez bakarrik Ostia osoan, baizik baita zatirik tšikienian ere; eta nola dagoan ezkutuan, badiruri eztuala merezi aten-

(1) Lib. II, c. 31.

tzio ta errespatorik, eta Beragatik esan ditezkela Dabid'en itz auek: "Ez naiz gizona, baizik lurreko ar bat, eta gizonen begietan burlagarri naizen gauza bat.,⁽¹⁾ Kristaumentzat betiko lotsagarri, Dabid'en esan au betetzen da osoro bear baño geiagotan: Jesus'i egiten zaizka desprezioak; eztiogu ematen bere Jaungoikotasunari zor zaion onra, eta gutsi-tan ikusten dan gauza da, bere amorezko Sakramentuan ezagutua eta adoratua izatea.

Bere umilltasun neurrigabearen barrunenetik, bere boza eltzen da zerura añ indartsu, nun igarorik odeiak eta aireak, igotzen duan errukizko jargoiraño.

Jonas'ek esan zionean Ninibe'ko Erregeri, bere uria ondatua izango zala berrogei egun igarota, Erregek erantzizituan berari zegozkion jantziak, ipiñi zuan autsa bere buruan, estali zan saku batekin, eta agindu zuan, erri guziak eskatu zezala Jaungoikoaren errukia. Bere umilltasun eta penitentziarekiñ iri-tsi zuan uria ez ondatzea, baizik barka-

(1) Ps. 21, 7.

tzea uri orri. Baldiñ fedegabeko Errege orrek irit̃si bazuan orrela uri guziarentzat barkazioa, ¿zenbat geiago eztu irit̃siko Jesu-Kristok Meza Santuan, ainbeste umilltzen dala, bada bere gloriako jargoia utzirik, estalitzen da ogi ta ardoaren iduri ezerezakiñ Jaungoikoaren errukia eskatzeko? “Nere Aita; begira zenbateraño umilldu naizen, zure errukia iristeagatik. Pekatariak jaiki dira zure kontra arrokeriz beterik; ni umilltzen naiz zure aurrean; berak irazeki zaituzte aserre bizian beren gaiztakeriakiñ, nik nai zaitut palakatu umilltasunaren indarrez. Berak merezi dute zuk arrazoiak kastigatzea, eta nere erreguak aldendu bear dute kastigu ori. Niganako amorioatik, errukitu zaite aiezaz, eta ez itzatzu kastigatu beren gaiztakeriak merezi duten bezela. Ezeizkatzu eman Satanás'i, nereak dirata, eta nere odolaren kostuz erosi ditudan ezkerro, ez itzatzu utzi galtzen. ¡O Aita guziz Santua!, guziaz gaiñ eskatzen det zure errukia emen dauden pekatariantzat. Berakgatik eskeintzen dizkitzut orant̃se bertan nere sufrikizunak, eta nere bizia. Odol eta

eriotza onegatik gorde itzatzu betiko eriotzatik.,,

¡O Jesus gure Salbatzallea! ¿Nola erantzun degikiogu obeki, gure animai diezun amorioari, Meza Santua egiazko debozioaz entzunta baño? Jesu-Kristo gure Jauna gurutzean zinzilik zegoala, gomendatu zizkion bere Aitari gurutzearen oñean zeuden bere jarraitzalleak, eta eman zizkien modu guziz berezi batean bere Pasioaren frutuak. Mezatan ere erregutzen du au entzuten daudenakgatik, batez ere bere bitartekotasuna eskatzen diotenakgatik. Erregutzen du auekgatik, illtzerakoan bere etsaiakgatik erregutu zuan beziñ gogoz. ¡Ai zeñ indartsua dan bere erregua! eta ¡nola sendotzen duan gure esperantza bizitza zorionekorako; artzen duan ezkerro, ikusten degunez, Jaungoikoaren Seme berak bere eskuz gu zeruratzea!

Birgiña guziz Santa agertu balitzaitzu esanaz: “Nere semea, ez ezazu ezeren beldurrik iduki; ez naiz geldituko erregutzen zugatik nere Semeari, zu zeruratzea beragandik segurutu arte:,, pozaren pozaz, deadar egingo zenduke zure bio-

tzaren barrunenetik: Oraintse nago pozez beterik; salbatzea segurutu det. Egiaz arrazoia izango zenduke Mariaren aginduan konfiantza idukitzean; baña ¿zergatik eztezu idukiko konfiantza oraindik andiagoa, Jaungoikoaren Semearen birtartekotasun indar andikoan, bada onek ez bakarrik agintzen dizute bere laguntza, baizik erregutu ere egiten du zuegatik, entzuten dezuten Meza bakoitzean moduren baten Jaungoikoaren justizia palakatuaz, eta zuen pekatuakgatik merezi dezuten kastigua aldenduaz? Bere erreguarekiñ batean dijoaz bere malkoak, bere zauriak, bere odola, eta bere suspiruak, au da, grazia eta bendiziozko ibaien beste ainbeste iturri, beñere agortu eziñ ditezkenak.

Errenkuratzen zerate askotan zuen erreguak debozio gutsiarekiñ egiten dituzutelako. Zuazte Meza Santura. Jesu-Kristok zuekgatik an erregutzen du, eta osatuko ditu zuen erreguen utsuneak. Begira nolako amorioarekiñ deitzen dizuten: “Atozte nigana nekaturik eta kargaturik zaudeten guziak, nik arinduko

dizkitzuet zuen atsekabeak.,⁽¹⁾ Da esatea; atozte nigana, debozios erregutu eziñ dezuten guziok, eta nik erregutukodet zuekgatik. ¿Zergatik eztezute egiten, Jesus'ek nai duana? ¿Zergatik eztezute ardura geiago jartzen, Meza entzutera juateko? Zuen atsekabeetan juaten zerate zuen adiskideetara, esaten dizkiotzute zuen penak, eskatzen diezute otoitz bat, eta jartzen dezute konfiantza aren bitartekotasunean, au, Jesu-Kristoren bitartekotasun guzialdunaren ondoan utsa izanik ere. Arkitzen zera estutasun larribaten eta betiko kondenatzeko arrisku andian, eta galdetzen diozu Maiñuari: “Jauna, ¿nork salbatuko gaitu?”, Jesusek erantzuten du: “Gizonak eziñ dezaketena, Jaungoikoak badezake.”

Salbatzallearen ao beretik dakizuten ezkerro, badauzkala salbazioa zuei segurutzeko alderdiak, erregutu zaiozute, segurutu degizutela. Baña, esango didazute; ni bezelako kriatura gaiño batek eztitu merezi Jesus'en erreguak. Bota ezazute zuekgandik gogorazio triste ori, eta guziz bestera, zaudete seguru, Bera-

(1) Matth. XI, v. 28.

gana bazuazte, Bera izango dala zuen bitarteko. Geiago esango det; oriñe da bere egitekoa, San Pablok ⁽¹⁾ adierazten duan bezela itz auekin: “Apaiz nagusi guziak, animentzat jarriak izan dira, Jaungoikoarekiko gauzetan, gizonen pekatuakgatik doai eta sakrifizioak eskeintzeko.” Jesu-Kristo Apaiz nagusia da, eta Meza Santuan egiten ditu apaizlanak; eta ala, bere egitekoa da, gizonakgatik erregutu eta sakrifizioak eskeintzea. Ez bakarrik eskeintzen du guziakgatik batera, baizik baita bakoitza gatik bere ere; eta guziakgatik eta bakoitzagatik sufritu zuan bezela, alañe begiratzten du Elizaren bizikai edo mienbro guziak gatik, Eliza guziagatik bezela.

Oraiñtñe ezagutuko dezute Jesusen erreguak aldarean daukan indarra. Elkartu itzatzute zuen erreguak arenakin, ala izango dira indar guziz andikoak. Ara zer esaten digun erakuste on batek. “Sakrifizio santuarekiñ elkaturik dijoazen erreguak oso atzera uzten dituzte naiz ordu luze, eta oraindik *extasis* edo *kordegabekoetan* irauten dutenak ere,

(1) Heb., c. VI. v. 15, V. v. I.

Jesu-Kristoren Pasioaren merituakgatik, auek Meza Santuan ematen diralako, grazi ugariak mirariz iñuriaz., Ala esaten digu Fornerok, ⁽¹⁾ eta obeki adierazteko, jartzen digu iduri au: Burua gorputzaren beste alderdiak baño geiago dan bezela diñidadean, ala Salbatzallearen erreguak, izanik au gure burua, dauka beste kristau guzien erreguak baño indar andiagoa, bada kristauak, eztira beste gauzarik, baizik aren gorputzaren bizikai edo mienbroak. Kobrezko diru bat erortzen bada urtutzen dagoan urretara, balio andia idukiko du, eta alañe gizon baten erreguak Jesu-Kristorenarekin elkarturik, balio guziz andia dauka. Edo obeki esateko, Meza bitartean egiten dan erregu batek debozio gutsitšorekiñ egiten badare, andik kanpora debozio andiaz egiten dan erreguak baño geiago balio du. Meza entzun lezaketela, aren lekuan beste gauz on batzuek egitea naiago dutenak, kalte andia egiten diote beren buruai Salbatzallearen sakrifizio ta erregutik urrutiratuaz, grazi eta meritu guziz asko berengandu gabe gelditzen diralako.

(1) Fornerus. In mis. conc. 83, n.º 10.

ZORTZIGARREN BURUA

Meza Santuan Jesu-Kristok berritzen
du bere Pasioa

Jesu-Kristo gure Jaunaren misterioen artian gure errespetua geien merezi duana, eta meditatzeko probet̃ugarriena, bere Pasio samiña da, onen bitartez deabruaren mendetik atera gaitualako. Elizako Gurasoak iñilldu gabe itz egiten dute Pasio onen gañean, eta Jaungoikoaren izenian agintzen diete sari guziz andia, onetan meditatzen duten animai. Pasioa onratzeko bide asko daude, baña onena uste det, Meza Santua debozio andiaz entzutea dala, Jaunaren Pasio ta eriotza aldarean berritzen diran ezkeror.

Eziñ ikusi dezakegu gure begiak Kristoren sufrikizunen berritzea, baña sufrikizun auek guziak gogoratzen zaizkigu, eta ikusten degu bere Pasioaren iduria. Señalerik agiriena gurutzea da, eta alde guzietan ageri da. Bost aldiz otallatua arkitzen det arri sagraduan; an dago ipiñirik aldarearen gañean, zi-

martu edo dibujatua Meza emateko liburuan Kanonaren aurreko orrialdean, bordatua amituan, manipuloan, Kasullan eta gañera zizelatua patenan. Apaizak egiten du amasei aldiz beregan, eta ogeita bederatziz ofrendaren gañean. ¡Gurutzeko sakrifizioaren berriztazioaren beste ainbeste iduri!

Jesu-Kristo gure Jaunak azkeneko Aparian esan bazuan ere: “Egiñ ezazute au nere oroipenean,„ ⁽¹⁾ Mezako Sakrifizioa ezta, oroipen uts bat, baizik Pasioaren berriztazio bat. Trento'ko Konzilio Santuak ⁽²⁾ erakusten digu ondorengo itz oekin: “Iñork esaten badu, Mezako Sakrifizioa ez tala Gurutzeko Sakrifizioaren oroipen bat baizik, eskumikatua izan bedi.,” Eta gañera dio, ⁽³⁾ Meza Santuan an dago egiaz, eta Sakrifikaturik odol išurtze gabe Gurutzeko aldarian odola išuriaz beiñ eskeiñi zan Kristo bera., Testimonio auezaz gañera besterik ezpagendukare, auek naikua ditugu, Elizak erakusten digun guzia eztabairik gabe sinistu bear degulako.

(1) Luc., XXII, 19. (2) Sess. 22, c. 3.

(3) Sess. 22, c. 2

Konzilio Santuak esaten du gañe-
ra: “Apaizaren bitartez ezkeintzen dan
jauskiñi edo biktima, da, egun batean
Gurutzearen gañean eskeiñi zana bera;
dagoan diferentzi bakarra arkitzen da
eskeiñitzeko moduan.” Kalbarioan Jesu-
Kristo ill zuten borreroen esku sakrile-
goak, eta aldarean sakrifikatzen da apai-
zen bitartez.

Elizak maiz usatzen du itz “*inmo-
lare.*”⁽¹⁾ Onezaz, San Agustiñ’ek ere
bai: “Jesu-Kristo izan da sakrifikatu
beñ, odola iñuriaz Gurutzean, eta orain
sakrifikatzen da egunero sakramentalki
gizonen osasunagatik.”⁽²⁾ Itz au, *inmo-
lare*, (sakrifikatu) da gogoangarria. Es-
kritura Santuan ere maiz arkitzen da
animalien sakrifizioa adierazteko. Elizak
usatzen badu itz onezaz, Mezaren ga-
ñian itz egitean, onekiñ erakutsi nai digu,
Meza Santua eztagoala konsagrazioko
itzak esatean, ezta ogi ta ardo konsagra-
tuak goratzean ere, baizik Jaungoikoaren
Bildotza egiaz, modu espiritual baten

(1) Abrildu: Abre-ildu (Nob. eta Salz.) baña guk
errezago adierazteagatik esango degu «Sakrifikatu.»
(Itzulari euskaldunak). (2) Epist. 98, ad Bonif.

badare, sakrifikatzean. “Kristoren Pasioa, San Ziprianok dionez, ⁽¹⁾ guk eskeintzen degun Sakrifizioa bera da., Da esatea, Meza Santua ematean, berri-tzen ditugula, Salbatzallearen Pasioan gertatu ziran gauza guziak. San Gregoriok ⁽²⁾ itz egiten du oraindik argiroago, esanaz: “Salbatzallea ezta berriro illtzen, baña alare sufritzen du gugatik modu ezkutu batean., Teodorek’ek oraindik argiroago itz egiten du: ⁽³⁾ “Guk eztegu eskeintzen beste Sakrifiziorik, Gurutzean eskeiñi zana baño.

Ekarri nitzake beste askoren testimo-nioak; baña laburtzeagatik, Elizarena ba-karrik jarriko det, eta au da utsik egiñ eziñ lezakena. Paskua Espiritu Santuko-tik urrengo igandeko Sekretan irakurten degu: “Erregutzen dizugu Jauna, utzi degiguzula bear bezela Sakrifizio au egi-ten, bada egiten dan bakoitzean, gure errendentzioko obra egiten da.,”

Egia da, Salbatzallea eztala sakrifika-tzen Mezatan, odola iñuriaz eta miñez, baña alare aurkezten zaio bere Aitari,

(1) Epist. 63 ad Cœcil. (2) Homel 137.

(3) In Hebr. cap. VIII.

azotatzean, arantzaz koroatzean, eta Gurutzean jostean izan zituan sufrikizunak gogoratuaz, orain berriz sufrikizun gogoraiak egiaz berrituko balira beziñ biziro. Lanziziok ⁽¹⁾ dio gai onetan: “Meza Santua Jesu-Kristoren Pasio ta eriotzaren aurkezte bat da, ez bakarrik itzetan, komedietan bezela, baizik baita egiaz ere. Arrazoi onegatik, Elizako Gurasoak deitzen diote Salbatzallearen Pasio-berritze bat, eta esaten dute, Kristo illtzen dala berriro modu espirituzko batean.”

Beste ejemplo bat esatera nijoakizute.

Eremuko Aiten Bizitzan irakurten degu, bakardadean bizi zan zar giñajobatek, eziñ ulerturik, nola arki zitekean egiaz Jesu-Kristo gure Jauna Aldareko Sakramentu Santuan, beregana urrerratzten ziran guziaz esan oi ziela: “Sakramentu guziaz Santuan eztago Salbatzallearen Gorputza. Ezta iduribat baño.” Bakardadean bizi ziran beste bik jakiñ zutenian, joan zitzaizkion bera zegoan lekura, bere sinismen gezurrezkotik ateratzera. Nola egingo otezuten gogoratuaz, esan zioten: Aita, fedegabeko batek

(1) De Mis., núm. 223.

dio, dirudienez, Komunio Santuan ar-
tzen degun ogia, eztala Kristo'ren Gor-
putza. Erori zan kontuan, eta erantzun
zien: Ori esan duana ni naiz. Aita, esan
zioten, eztezazula ori sinistu, baizik
Elizak erakusten duana, guk sinisten
degun bezela. Orduan berak erakutsi
zioten argiro Eliza Katolikaren dotriña,
ezagungarriak Eskritura Sagraduko leku
askotatik emanaz. Zuek ni baño jakin-
tsuagoak zerate, erantzun zien bakartar
zarrak, eta orregatik aiñ ondo itz egiten
dezute, baño eziñ ontzat eman nezake
zuen iritzia, nik neronek, nerez pro-
gatu eta aintzakotzat eman arte. Orduan
erantzun zioten: Ondo da, eta Jaungoi-
koari erregutzera goaz aste ontan gu-
zian, adimentua argituko dizulako kon-
fiantza sendo batekiñ. Irurak erregutu
zuten debozio andiarekiñ, eta urrengo
igandean joan ziran elkarrekin Elizara.
Belaunikatu ziran aldarearen aurrean eta
jarraitu zuten erregutzen debozio an-
diaz. Mez-emalleak konsagrazioko itzak
esan beziñ laster, ikusi zuten, korpora-
laren gañean, Ostiaren lekuan, Aur gu-
ziz eder bat zegoala. Atsegiñez, pozez

beterik eta arriturik egon ziran berari begira. Komunioko unean fedegabeko bakartarra, oso ikaraturik urreratu zan aldarera; Sakramentu guziz Santua aurkeztu ziotenian, aragi odoldua bakarrik ikusten zuan. Oso beldurturik, eziñ begiratu zion Ostiari, eta eziñ zan beregana urreratu ere. ¡O nere Jesus! dea-
dar egiñ zuan, bere biotz guzia ikaraz zeukala, aitortzen det nere utsegitea eta damudet nere it̃sumena. Orain sinisten det bizi-
ro, ogi konsagratua zure egiazko Gorputza dala, eta kalizan zure Odola dagoala. Biurtu ezazu, Jauna, Gorputz Sagradu au Sakramentu Santuan dago-
kion egitura edo forma artzera, nik nere animaren salbaziorako artu dezadan. Adituak izan ziran bere erreguak, eta ko-
mulgatu zan debozio andiarekin. Eman zizten eskerrak Jaungoikoari ta egiaren ezaguerara erakarri zuten Aitai, eta aitor-
tu zion mundu guziari, zer gertatu zan, eta Mezatan zer ikusi zuan.

Erakutsi degu oraingo, Jesu-Kristo Gure Jaunak Meza Santuan bere Pasioa berritzen duala. Esan ditzagun orain onetara bera mugitzen duten arrazoiak.

Aita Señerik ⁽¹⁾ jartzen dizkigu gogorazio guziz ederrak gai onetan, esaten digula: “Jesu-Kristo lurrean bizitu zan denboran, bere Jainkozko begiakin ikusten zuan, pekatari milloiak infernurako ziralara, berak Pasio aiñ samiña sufrituta ere. Berai zien erruki andiagatik naiagoko zukean azken juiziora arte Gurutzean zinzillik gelditzea, anima gaiño auei infernutik aldentzeko bidea jartzeagatik.”

Bere betiko jakindurian arkitu zuan bide bat, bere eriotzaren ondoren lurrean gelditu, bere Pasioan jarraitu, eta gelditure gabe erregutzeko, Gurutzean egiñ zuan bezela. Bide au da Mezako Sakrifizio Santua.

Bolandistak diote, Santa Koleta'k entzuten zuala Meza egunero debozio andiarekiñ. Bere konfesoreak ematen zuan Meza entzuten zegoan aldi batean, apaiza konsagrazioko itzetara eltzean, deadar egiñ zuan: “¡O nere Jaungoikoa! ¡O Jesus! ¡Jesus! ¡O zuek, Aingeru eta Santuak, eta zuek gizon eta pekariak, ikusi eta aditu ezazute!”, Deadar auek jarraitu

(1) Hom. Christ. disc. 12.

zuten instanteren batzuetan, an zeude-
nak arriturik gelditzen zirala. Mezaren
ondorean apaizak galdetu zion, zergatik
era artan deadar eta negar egiñ zuan,
eta erantzun zion: “Nik ikusi eta aditu
ditudan gauza aiñ arrigarriak, zuk ikusi
baziñuz, benturaz nik baño gogorrago
deadar egingo zenduan.” ¿Zer ikusi
dezu? “Mirari auek dira andiak eta
Jainkozkoak eta iñork adierazi ezin di-
tzakenak, baño alare esango dizut, gizo-
naren arrazoiak ulertu lezakena. Sakra-
mentu Santua goratu dezunean, ikusi
det Kristo bere zauriekin, odola da-
riela, Gurutzean zintzilik. Eta orrela ze-
goala, erregutzen zion Jaungoikoari, esa-
naz: Nere Aita, begira ezazu, Gurutzean
zer gertatu dan, begira nola sufritu dedan
munduagatik. Kontuan artu itzazu nere
zauriak, iñuri dedan odola; ¡nere Pa-
sioak eta eriotzak errukira mugi zaitza-
tela! ¡Au guzia pekatariakgatik sufritu
det! ¿Izan diteke Satanas oien jabe egi-
tea? ¿Zertarako dira orduan nere sufri-
kizunak? Galtzen badira, niganako ezker
onik ez izanaz, gañera madarikatuko
dute nere izena betikotasun guzian.

Salbatzen badira berriz, bedeinkatu egingo naute. Neri daukakidazun amorioagatik errugutzen dizut bada, nere Aita, erruki zaiteala aiezaz, eta gorde ditzaizula infernura erori ez titezen.

Onela Jesus'ek eskatzen du Mezatan Aitaren errukia, eta onela jarraitzen du egitea, Gurutzean egiñ zuana, deadar egin zuanian: "Nere Aita, barka zaiezu, zer egiten duen ez takitelako." Bere jauskiñi edo biktimaren izateko modu berri onetan eskatzen du pekatari guziakgatik, diferenzia batekiñ, au da; bere boza eztagoala argal eta ez nekatua, baizik sendoa eta guzialduna. "Jesu-Kristo ill, piztu eta Aitaren eskuitik eñerita dagoanak, dio San Paulok, ⁽¹⁾ erregutzen du gugatik." Erregutzen du zeruan, baña geienbat aldarean, bere apaiz lanak emen egiten ditualako. San Lorenzo Justinianok, esaten digu: ⁽²⁾ Jesu-Kristo aldarean eskeintzen danian, erakusten dizkio bere Aitari bere zauriak, bere erruki jainkozkoa eskatuaz, eta gizonak infernuko penatetik aldentzeko erregutuaz." Egia da, gu guziokgatik erregutzen duala, baña

(1) Rom., VIII, 34. (2) Serm. de Corp. Christi.

batez ere Meza entzuten daudenakgatik. ¡Zenbat aldiz erriak eta gizonak lur joko etzuten, Gure Jaunak berak gatik erre-gutu ezpalu! ¡Zenbat milla zeruan daudenetatik egongo ziran gaur infernuan, Jesu-Kristok bere erregu guzieldunakin andik aldendu ezpalitu! Pizkortu zaite, jainkozko erregu onen frutuaz aprobe-t̃atzeko, gorputzeko ta animako gaitzak aldendu eta irit̃si dezazun, zuk zerez irit̃si ezin dezuna.

Da bada gauza jakiña, Jesu-Kristok daukan arrazoirik andiena bere Pasioa aldarean berritzeko, dala gugatik erre-gutzea eta Aitaren biotza biguntzea. Ba-ña ezta au bakarrik, bada Mezako sakri-fizioaren bitartez, Jesusek gure alde jartzen ditu Kalbarioko Sakrifizioaren merituak.

Egi au obeki ulertzeko, gauza bearra da jakitea, Jesu-Kristo gure Jaunak emen bizitu zan bitartean, eta batez ere Gurutzean, irabazi zuala merituzko te-soro neurrigabe bat; guziz gut̃sik or-duan bereala parte izan zuten meritu auetan, baña oraiñ aldi guziz askotan, eta batez ere Mezatan, ematen dizte ugari

gizonai. San Juan Damaszenok dio: (1)
“Gurutzean egiñ zana zan erospen edo
Erredentzioko Sakrifizio bat, eta Meza
Santuan da jabetasunezkoa: onen bitar-
tez gizon guziak Gurutzeko Sakrifizioa-
ren merituen eta birtutearen jabe egiten
diralako.” Beste modu baten esateko:
Meza entzutera juaten bagera beardan
prestaerarekin, Jesu-Kristoren Pasioa-
ren balioa ematen zaigu bakoitzari be-
reñ.

Gauza jakiña da, zuek aldarearen
aurrean aurkeztean, Kalbarioko Sakrifi-
ziora juan baziñaten beziñ ainbatean
Jaungoikoaren borondatea egiñ, eta ain-
bat meritu irabaziko dezutela, bear be-
zelako debozioarekin juaten bazerate.
¡Zer mesede estimagarria dan Jesu-Kris-
toren Pasioaren testigu izatea, eta bera-
ren frutuak artzea! ¡Zer zoriona gure-
tzat Jesu-Kristo Gurutzean amorioz laz-
tandu al izatea, gure premiak berari
agertzea, sokorro ta pozaren esperantza-
rekiñ, beste denbora baten Maria, Juan
eta Maria Magdalenak egiñ zuten be-
zela!

(1) Pœlog. Christ., II, 8.

¡O kristauak! Estimatu itzatzute merezi duten bezela grazi miragarri auek, eta artu ezazute parte egunero Salbatzalleak eman nai digun tesoro onetatik.

BEDERATZIGARREN BURUA

Meza Santuan Jesu-Kristok berritzen du bere eriotza.

San Juanen amabostgarren buru edo kapituloan (1) irakurtzen dira itz auek: "Eztago amorio andiagorik, bere adiskideak gatik bizia ematen duanarena baño., Nola bizia dan gizonak geien estimatzen duan ondasuna, au bestegatik ematea, da gizonak egiñ dezaken sakrifiziorik andiena. Jesu-Kristoren gizonak ganako amorioa da neurri guziaz gañetikakoa, bere bizia, izan diteken onena eta santuena eman dualako, ez bakarrik adiskideak gatik baizik baita bere etsairik gaiztoenak gatik ere.

Begira bere esateko modu apartari: eztu esaten Jesu-Kristok, nik emango

(1) Joan., XV, 13.

det edo eman det, baizik dio: “Ematen det nere bizia nere ardiak gatik,, beñe-re gelditu gabe bere bizia ematen ari baltz bezela. Esateko modu argi ta biguñā; bada, Meza Santuari eskerrak, beti dago bere bizia ematen.

Zesareo Eisterbach'koak eskribitzen du: “Bagenduan gure komentuan Godstšalk Volmenstein'goa deitzen zan apaiz bat. Orain sei urte, Gabon gau batean, Meza ematen zegoan alboko aldare batean. Erregutzen zuan debozio andiaz, malko ugariak išuriaz. Konsagrazioko instantean, ikusi zuan bere eskuetan, ogi ta ardoaren idurien lekuan, aingeruak adoratzen zuten Aur eder bat. Arturik bere besoetan, laztandu zuan atsegiñtasun esan eziñalako batekiñ. Andik bereala, Aurra ezkutatu zan eta Apaizak bukatu zuan Meza debozio andiarekiñ. Baña andik laster gañotu zan. Eriotzako orduan esan zion bere nagusiari, ikusi zuan guzia. Onek esan zion berriz Adolfo Dieberen'go zeritzanari, eta onek suspiruak egiñaz erantzun zion: ¿Zergatik Jaungoikoak onelako gauzak agertzen dizte fedean sendo

dauden santuai? Onelako mesedeak egiñ bear litzaizkite, ni bezelako pekatari, Jesu-Kristo Sakramentuan ote dagoan, maiz dudatzen dutenai. Denboraren bat igaro ondoan, apaiz buru-ariñtso au Meza ematen zegoan. *Agnus Dei*'ra eldu zan, eta Ostia zatitzean, onen lekuan ikusi zuan Aur bat, ederrez berdiñik gabea, barre piska bat egiten zio-la. Lenengo ikaraldia igaro zitzaionean, pozik egon zan Aurrari begira; gero Ostiaren beste alderdian zer ote zegoan jakíñ nai izan zuan, eta giratu zuan, eta ikusi zuan Jesu-Kristo Gure Jauna Gurutzean, burua makurturik, illtzeko instantean bazegokian bezela. Andia izan zan Adolfo Dieberen'goren biotz mugida, eta gutsiगतिक lurra jo etzuan. Malkoak ugari iñuri zituan. Luzaroan iduki zuan bere begien aurrian Salbatzalle, Gurutzean illtzen zegoanaren iduria, eta etzekian zer egiñ, Meza utzi ala aurrera jarraitu. Etzuan iñork ere ulertzen, zer gertatzen zan. Azkenik Jesus'en arpegi agoniakoa ezkutatu zan, Ostia biurtu zan lengo egitura edo formara eta apai-zak Meza bukatu zuan. Meza entzuten

zeudenak jakin nai izan zuten, Mezaren luzapena eta ainbeste malko izurtzea zergatik izan ziran. Adolfo'k igo zuan pulpitora, bata-bestearen ondoren ikusi zituan agerkerak adierazteko, baña bere biotza aiñ zeukan biguñ eta ainbeste suspiru egiten zituan, nun aditzalleak eziñ ulertu izan zuten, zer esan nai zuan. Aldendu zan zotinga, eta igarozituan egunen batzuek, bere pekatuak gatik negar egiñ eta Jesus'en Pasioa meditatzen. Aurrerakoan bere bizitza guzian mesede onen oroipena oso it̄sāt̄sirik gelditu zitzaion bere biotzean, eta beragatik, bere oiturak ondu zituan, egin zuan bere pekatuen penitentzia ta ejemplo eman zien bere eliztarrai.

Agerkera auek erakusten digute, zer moduz Salbatzalleak bere Aitaren, Espiritu Santuaren eta zerutar guzien begien aurrian ipintzen duan bere eriotza gogorra, gogora ekarriaz berai, mundua salbatzeagatik bere bizia ematera beartu zuan amorioaren anditasuna.

¡O! ¡Adolfo Dieberen'goak artu zuan mesedea, guk artuko bagendu! ¡Ikusi albagenezake Ostia Santuan gure Salba-

tzallea illtzeko zorian, nolako gogoaz Meza entzutera juango giñakean! ¡Nolako debozioarekiñ entzungo gendukean! Baña gorputzeko begiak ikusten ezpate, fedearen begiak ikusten dute ziurtasun guziarekiñ. Oraindik aurreragounua; uste det era onetan Jaungoikoari onra andiagoa ematen diogula, fedearen bitartez sari andiagoa irabazten degulako. Jesu-Kristok Meza Santuari eman zizkan bere eriotzaren ezagungarri ageribatziek, adiraziko degun bezela.

Sakramentu au azkeneko aparian egiñ zuanian, etzuan egiñ nai izan ogiarekiñ bakarrik, ez eta ardoarekin bakarrik ere, baizik biakin, eta bi alditan. Ogia konsagratzean, esan zezakean: Au da nere gorputza eta nere odola, eta ogia biurtuko zan egiaz eta denbora berean, (biurtu zan bezela) bere gorputz eta odol. Baña konsagratio bakar au etzan izango bere eriotza adicrazteko bear beziñ egokia. Beragatik konsagratu nai izan zituan bereñi, lenengo ogia bakarrik, bere Gorputz sagradu biurtuaz, eta gero ardoa, onela emateko bere ikasleai bere eriotzaren iduri biziagoa.

Eta ala Gorputzaren ta Odolaren bereškuntza au bakarrik da iduripenezkoa; bada egiaz, ala Ostian nola kalizan *dago Jesu-Kristo guzia*, bere gorputz, anima ta Jaungoikotasunarekiñ.

Jesu-Kristok Mezako sakrifizioan agertzen dio bere Aita zerukoari, Gurutzean illtzean agertu zuan obedientzia bera, eta au aiñ izandu zan Jaungoikoaren gogokoa, nun jaso zuan oso gora, eta “Jaungoikoak eman zion izen bat beste izen guzien gañetikakoa,” (1). Meza bitartean, Salbatzalleak eskeintzen dio bere Aitari obedientzia oso au, bere Pasioan agertu zituan birtute miragarriakiñ, eta Gurutzean sufritu zituan oñaze samiñakiñ, bere agonia ikaragarria, bere atsekabe, ta Biotz sagradua erdibitu zion lantzadarekiñ. Au guzia agertzen du oso biziro, eta sortzen du berriro Jaungoikoaren biotzean neurri gabeko errukitasun bat oraiñ milla ta bederatzireun urte egiñ zuan bezela, ikustean, Seme au sakrifikatzen zala Aitaren amorioz eta bere gloriarik andie-

(1) Philip., C. II, V. 2.

nagatik. Aitaren asarrea palakatu, bere errukia pekatariakgana jetși eta lurra zeruarekiñ paketzen jakiñ zuan Jesus ark berak, egiten du oraiñ ere ori bera egunero Mezatan, eta onela darama aurrrera salbazioko lanbidea.

Ikusi dezagun oraiñ, Erakusleak diotenez, sakrifizio onek dakarkigun probetșu andia; San Gregoriok esaten du: "Sakrifizio onek aldentzen du anima infernutik, Jaungoikoaren Semearen eriotza berrituaz.", Berri pozgarria, arako beren pekatuak gatik infernuaren beldur diran aientzat, bada Aita Santu onek aditzen ematen du argiro, Salbatzallearen eriotza, aldarean berritzen danak, daukala animak infernutik aldentzeko birtutea. ¿Nai dezute ondamen dirik andien onetan ez erortzeko anparua? Iraun ezazute Meza entzuteko oituran, onratu ezazute Jesus'en eriotza, Aita Jaungoikoari eskeintzen diozutela.

Mansi jakintsuak (1) dio: "Jaungoikoaren Semea eskeñi zan Gurutzeko aldarean odolezko jauskiñi edo biktima

(1) In ver. Eccl. I. I, cap. 6.

bat bezela; Meza Santuan eskeintzen da berriro; beragatik Meza batek eztu balio gure Salbatzallearen eriotzak baño gutsiago..”

Osio kardenalak esaten digu: (1) “Mezatan iltzen ezpada ere gorputzez Jesu-Kristo bigarren aldiz, alaše illko balitz bezela, bere eriotzaren merituak guganatzten ditugu, eta gañera nik diot, danik eta espirituzkoena izanta ere eriotza au, odolezkoak beziñ frutu andiak ematen dizkigula..” Itz eder auen ondoren kardenalak oraindik dirau esaten: “Bai, Jesu-Kristoren eriotza eta eriotz onen frutuak guganatzten zaizkigu, Jesús egiaz illko balitz bezela..” Deuz’ko Abad Rupertok esaten digu: (2) “Kristok Gurutzean gure pekatuen barkazioa iritši zuan beziñ seguru, grazi ori bera egiten digu ogi ta ardo konşagratuen bitartez..”

Aita Señerik dio: (3) “Gurutzeko Sakrifizioa izan da pekatuak guziaz barkatzeko arrazoia: aldareko sakrifizioa da,

(1) De Euchar, cap. 41.

(2) In Joan cap. 6.

(3) In Hom. Christ. disc. XII, cap. 9.

Jaungoikoaren Odolaren frutuak guri emateko arrazoi aparta.

Salbatzallearen Pasio, sufrikizun eta eriotzak egiten dute, Mezatan idikita partitzen dan tesoroa. Jesu-Kristo Gure Jaunaren eriotza da neurrigabeko tesoro aberatsa, eta Meza Santua da tesoroa idikitzeko giltza. Arako merituen premian dauden aiei egiñ litzaikien deirik onena da, juan ditezela meritu oiek Jesusen Biotzetik ateratzera, Meza Santua entzunaz.

“Artu ezazute ondo gogoan, dio Aita Señerik, zer dan Meza esatea edo entzutea. Ezta beste gauzarik, baizik, Jesu-Kristo, len gizon guziak gatik ill zana, berriro nigatik, zugatik eta Meza entzuten dagoan edozeñegatik illtzea, bakoitzagatik apartean bere bizia emango balu bezela.”

Birjiña guziz Santak esan zion egun batean bere serbitzari Alain'i: (1) “Nere Semeak oso asko maite ditu Meza Santua entzuten dutenak, eta ala bear balitz illko litzake auetako bakoitzagatik, Me-

(1) Alan. de Rupe. 2 p. VII. 26.

zarik entzuten duten ainbat aldiz. Baña Kalbarioko merituak dira naikua guzientzat.,,

Itz pozgarri auek agertzen dute Salbatzallearen amorio neurrigabekoa, egunero, ez beiñ bakarrik, baizik milloika aldiz pekatari gaiñoak gatik sakrifikatzera beartzen duana. Zoazte bada goizero Mezatarara; egizute kontu, Jesusi Gurutzean josia izatean lagun egiten diozutela, bere Pasio ta eriotzaren testigu zera-tela, eta ala baziñate bezela, entzun ezazute bear dan debozioarekin., Meza ematen edo entzuten zaudetenian, dio Imitazio'ko liburuaren eguille onak, (1) gogoan iduki bear dezute, ain dala andia, berria eta maitagarria, nola izango litzakean Salbatzallea egun ortan, Ama-Birjiñaren sabelean gizon egitera jetși eta gurutzean zinzillik munduaren salbazioagatik sufritu ta illtzea.,,

¡O Jaungoikoa! ¡zer mesedea eta nolako amorio andia! Jesu-Kristo egiaz mundu guziagatik illtzan bezela, Meza entzuten dutenakgatik iltzen da iduriz-

(2) De Imit. lib. IV, c. 2.

ko eriotzarekiñ. ¡Ai zer osasunazko iturri eta graziazko aberastasun ugaria, auezaz aprobet̃satzen dakitenentzat! Baldiñ Kalbarioan eskeñi izan bazenizkio-ten Aita Jaungoikoari bere Semearen oñaze gogorrak, ¿eztezute uste, barkatuko zizkitzuetela zuen pekatu guziak? ¡Ah! dudarik batere gabe; miserikordien Aitak, zuen damuari begiraturik, eta batez ere Jesu-Kristoren sakrifizioa-gatik barkatuko zizkitzuten zuen pekatu guziak. Au bera gertatzen da bada Mezatan. Emen arkitzen da Jesu-Kristo bera gorputzez eta iltzen dan idurizko eriotzarekiñ.

AMARGARREN BURUA

Meza Santuan Jesu-Kristok berritzen du bere Odol-isurtzea.

Lege zarrean zegoan oitura bat, zan, sakrifizioan eskeñitako animalien odolarekin jendea uriztatu edo bustitzea. Oitura onen gañean esaten digu San Paulok', (1) Hebreotarrai eskribitu zien

(1) Heb. XI. 19-22.

eskutitzean: "Moises'ek, Legeko Aginteak erri guziaren aurrean publikatu ondoan, artu zuan beigaien eta akerren odola, ura, eskarlatatan bustitako illea, eta isopoa, eta uriztatu edo busti zuan liburua eta erri guzia, esanaz: auñe da, Jaungoikoak gurekin egiñ duan batzunde edo aliantzaren odola. Uriztatu edo odolez busti zituan tabernakuloa ta Jaungoikoaren serbizioarako zeuden baso guziak. Gauzarik geienak garbitzen dira odola iñuriaz, au gabe barkaziorik eztagoalako.", Jauskiñi edo biktimen odol-iñurtze eta odolez bustitze au ziran Jesu-Kristo Gure Jaunaren Odolaren beste ainbeste imagiña, Profeetak aurraz egiñak, eta odol onetan bear genduan izan garbituak bañu batean bezela; ala esaten digu San Pablok: (1) "Baldiñ akerren eta zezenen odolak, eta bigai baten austerreaz nastutako uraz bustitzeak, santu egiten baditu zikinduak izan diranak, kanpotikako garbitasun bat emanaz, ¿nola obeki garbituko eztu Kristoren Odolak gure kontzientzia,

(1) Heb. IX. 13-14.

gure pekatuak erakarri dizkioten mantzatatik, Jaungoiko biziari adorazio osoago bat emateko zorian jartzen dituala?

Esan lezake norbaitek tristeturik: Jesu-Kristok iñuri zuan bere Odola bere Pasioan, orduan bizi ziranak odol orrezaz bustiaz: baña, ¿zer? Arteraño jaio ez giñanok ¿eztegu parterik grazi aĩñ andian? Poztu zaitezte jo kristauak! Salbatzallearen Odola' zuekgatik ere denbora aietako kristauak gatik bezela iñuria izan da. San Paulok esaten du au argiro: Kristok erredimitu gaitu *guziok*, ill da *guziok*gatik: bere denborako kristauak gatik, zuekgatik, nigatik, eta gure ondoren biziko diranagatik. Gañera Jesu-Kristok arkitu du beste bide bat, bere Odola egunero iñurtzeko, eta gure animak berarekiñ busti eta garbitzeko. Bide au da Meza Santua eta ona emen nola.

San Agustiñ'ek (1) esaten digu: "Meza Santuan iñurtzen da Kristoren Odola pekatariakgatik., Itz auek aĩñ argiak dira, nun eztuten bear geigarririk. San

(1) Ser:m. 11.

Juan Krisostomo'k oraindik argiroago esaten digu:„ (1) “Jaungoikoaren Biltotsa gugatik sakrifikutzen da; bere Odola ateratzen da Salbatzallearen saietetik, iñurtzen da iduriz aldarean, eta botatzen da kalizara, gu garbitzeko.„ Aita Kisselik dionez, ara zer esan naiduten itz oiek: (2) “Kristok beiñ bakarrik iñuri du bere Odola, begiak iñ ikusteko moduan eta saminkiro. Mezatan iñurtze au egiten da ikusi ezin diteken moduan eta era berean egiten da Salbatzailearen eskuak zauritzea, bere oñak zulatzea eta bere biotza idikitzea. Dudarik batere gabe geregandu ditzakegu bere neurri-gabeko merituak, gure deseo irazekien eta Komunio Santuaren bidez, baña batez ere Meza entzunaz, bada Konsagrazioko itzen bitartez, iñurtzen da an Jesusen Odol Jainkozkoa, gure pekatuen barkaziorako, gure animak garbitu ta santu egiteko.„

Errez izango litzakit beste testimonio batzuek ere emen ekartzea, baña naikoa

(1) De Euchari.

(2) Alv. 2, conc. 36.

izango zait Pedro Noel'ena bakarrik ekartzea: "Salbatzallearen saietsetik atera zan Odola, dio onek, dago kalizan, eta dago, aldi batez geiago eskeiñi dedin pekatuen barkaziorako, konsagrazioko itzak adierazten duten bezela." Pedro Noel'ek adierazi nai dituan konsagrazioko itzak dira auek: "Ause da zuekgatik eta beste askogatik pekatuen barkaziorako isuria izan dan nere Odolaren kaliza." Apaizak esaten ditu itz oiek, Salbatzalle beraren aginduz, ez Jesussek kalizaren gain esan zuana guri kontatu naian bezela, baizik ardoa egiaz Jesu-Kristoren Odol preziotsu, gizonen erredentziorako isuri zan artan biurtzeko, eta ori berriro adierazteko.

Apaizak eztu esaten bakarrik: "Ause da nere Odolaren kaliza", baizik, "zuekgatik eta beste askogatik pekatuen barkaziorako isuria izan dan nere Odolaren kaliza." Eta lenengo itz aiek oso kunplitu diran bezela, besteak ere kunplituko dira: "zuekgatik eta beste askogatik;" au da, zuek Meza entzuten zaudentenokgatik, emen eztaudenakgatik, Meza emateko agintzen dutenakgatik, en-

tzutera al balute etorriko liraken, baña gaitzak, presondegiak edo eginkizun andiren batek eragozten dien aiek gatik, baldiñ beren gogoa Meza Santuan jartzzen badute, edo artara gomendatzen badira. ¡Zeiñ andia dan misterio au! ¡Zeiñ arrigarria pekatari gaiñoak ganako amorioa! Jesusek bere azkeneko Odol tantoa iñuri ta gero ere, nai du berriro iñuri gugatik egunero eta egunaren ordu guzietan. ¡Zeiñ ondasun andia dan Meza Santua, debozioz entzuten dutenentzat! San Ambrosiok esaten digu: “Jesu-Kristoren Odola iñurtzen da pekatuen barkaziorako.”

Ona emen, fedeko artikulu onen sendogarri, gertaera miragarriren batzuek.

Heisterbach'ko Zesareo'k esaten digu, milla berreun eta ogeigarren urtean Kolonia'ko Obispaduan arkitzen zala emakume, bere etsetik irten gabe bizi zan bat. Eliza baten ondoan, berak aginduta egindako etsetso batean bizi zan. Asko ziran denbora artan orrela bizi ziran emakumeak. Onak egiten zituan penitentzi izugarriak. Meza Santuari zeukakion debozio andia, eta entzuten zuan

bere gelako leio batetik. Gure salbazio-ko etsaiak eziñ beste tentazioz garaitu zuan, eta jarri zion burutan, kaliz kon-sagratuan etzegoala Odol preziotsurik. Burutazio au, aiñ gogor jarri zitzaion, nun, ez bakarrik berak sinistu, baizik gañera zabaldu zuan pozoia berarekin itz egiten zutenen animetan ere; baña Jaungoikoak izan zuan bere serbitzaria-ren errukia, atereaz deabruaren atzaparretatik milagro ageri baten bitartez. Egun batean Eliz artako apaizak, Meza ematean, jo ta bota zuan kaliz konsa-gratua ardura gabez, edo obeki esateko Jaungoikoak ala nai izan zualako. Ikara-turik orduan sumatu zuan bere beldurra geituaz zijoala, ikustean kalizatik iñuri zanak, odolaren kolorea ta itñura zeuz-kala. Kristau on guziak ezagutu dezake-te ondo, nolako penarekin Meza jarrai-tuko zuan. Amaitu beziñ laster, artu zuan ardo beroa eta bereala garbitu zuan korporala. Au bera egiñ zuan bes-te asko aldiz ere, baña, odola etzan ken-tzen. Ori bera egiñ zuan berriro egun

askotan, baña alperrik. Elizak eman alzegizkion kastiguak (1) baño geiago beldurtzen zuten Jaungoikoak eman zegizkionak. Aste betean egiñ zuan gizonak egiñ alzezakean guzia; negar samiñak egiñ zituan, erregutu zion Gure Jaunari, egiñ zegiola mesede odolezko mantša ura kentzeaz; baña beñere iritši gabe. Eldu zan igandea, igo zan kulputura, eta erakutsi zien Odolez bustitako euna, esanaz, gertatu zitzaion zorigaitza. Au ikustian, an zeuden guziak, gelditu ziran ikaraturik. Eskatu zien, erregutu zezatela berarekin batean, mantša ura kentzeko grazia Jaungoikoagandik iristeko. Jarri ziran guziak orazioan eta apaizak garbitu zuan korporala, baña alperrik izan zan. Ezaguturik azkenik, au Jaungoikoaren gauzaren bat zala, juan

(1) Kastigu auek, Si per negligentiam (dist. 22. can. XXVI. De Consec.), deitzen dan kanonean ipiniak, oso andiak dira. Odol preziotzua lurreraño erortzen bada, bere arduragabetasunez, onen errua duan apaizak, egingo du penitentzia berrogei egunez; aldrearen gañera erortzen bada, iru egunez, bigarren zapiraño igarotzen bada, lau egunez; irugarreneraño igarotzen bada, bederatzi egunez; langarrenera eltzen bada ogei egunez; panitentzi au zan, baran egitea eta Sakramenturik ez artzea. (Gloss h. 1.) Oarpide au jartzen du liburu au prantzez itzkuntzara itzuli zuanak.

zan Kolonia'ra, Rodolfo zeritzan teologo eta erakusle sonatu batekin itz egitera; esan zion nola kaliza jo ta bota zuan, erakutsi zion korporala, eta esan zion, nola alperrikakoak izan ziran, egiñ zitian alegiñ guziak, garbitzeko. Erakusle onek, ikustean Odol preziotsua, belaunikaturik umillki, muñ egiñ zion debozio andiarekiñ, eta egon zan geldi denboraren baten.

Gero esan zuan bere iritzia era onetan: Jaungoikoak nai du argiro, Sakramentu guziz Santuaganako fedean argal daudenak sendotutzea: ¿ote dago benturaz zure parrokian norbait, misterio adoragarri au sinisten eztuanik? Apaiak erantzun zuan: Badago emakume itñian bizi dan bat, Odol guziz prezio-tsua Sakramentu onetan ote dagoan dudatzen duana, eta beste asko ere duda onetan jarririk dauzkana. Eztegu beste esplikazioren bearrik, esan zuan Rodolfok: Jesusek nai izan ditu agertu korporalaren gañian bere Odolaren ezagun garriak, emakume onen sinismen okerra kentzeagatik. Zuaz beragana, erakutsi zaiozu euna, esaiozu zer gertatu

dan, eta eztezala geiago dudarik izan. Apaiza pozik gelditu zan konseju onekiñ, eta galde egiñ zion emakumeari misterio onetan zeukan fedearen gañian. Erantzun zuan berak, ezer estali gabe: Nik sinisten det, Salbatzallearen gorputza Ostia santuan dagoala, baña eziñ sinistu det, bere odola kalizan dagoanik, Jesus'ek bere gorputzetik kanpora odolik eztaukalako. Orduan apaizak erakutsi zion, Jesu-Kristo Gure Jaunaren Odola dagoala kalizan konsagrazioko itzen bitartez, baña nola Odol au eziñ egon diteken bizirik bere gorputzetik kanpora, gorputza dagokiola elkaturik. ¡Alperrik esaten dio! Emakume doakabeak jarraitzen zuan bere sinismen okerrekoan gogorturik. Apaizak azkenik erakutsi zion korporal odolez bustia, esanaz gertatu zan miraria. Gertaera au aditzean, beldurtu zan bizi, ta erori zan lurrera, negarmalko goriak iñuriaz, eta an zeudenai barkazioa eskatuaz; gero deadar egin zuan; Sinisten det bizi kalizan dagoala Salbatzalleak gurutzean iñuri zuan Odol egiazko ura bera, eta sinismen onetan nai det bizi eta ill. Or-

duan apaizak garbitu zuan uretan korporala eta odola osoro ezkutatu zan.

San Jeronimo'ren Ordenako Aita Pedro Labagnelas'ek zeukan duda bat oso besterakoa, eta denbora askoan samindu zion osoro bere barrua, eta ara nola zan: ¿Odol preziotsua ote dago Ostian ere? Egun baten Meza ematen ari zala, eltzean konsagrazioaren ondorengo itz *Supplices te rogamus* auetara; guk erregutzen dizugu, Jaungoiko guziz altsua, agindu dezazula, doai auek zure aldare miragarrira eramatea, zure Majestade Jainkozkoa'ren aurrean, zure Aingeru Santuaren eskuz, etc.; mezako liburuak agintzen duan bezela, makurtu zan osoro, eta orduan arkitu zan inguraturik batbatera, kaliza ta Ostia ezkututzen ziozkan odei lodi batez. Oso beldurturik arkitzen zan, etzekialarik zer esan nai zuan orrek, eztare zer gertatzen zan. Andik laster odeia desegiñ zan eta ikusi zuan, kalizarik eta Ostiarik etzala ageri. Bere beldurra geituaz zi joan, pentsatuaz, benturaz Jaungoikoak etzeukala bera Meza emateko diñatzat, eta emendik mugitu zan bere biotza

bere pekatuaz damutzera. Eskatu zion Jaunari lagundu zegiola. Negar malko eta suspiru askoren buruan, bere erre-guak adituak izan ziran, eta ikusi zuan, nola agertu zan kaliza bere Odol pre-ziotsuarekin, Ostia bere parian gañetik airean berez zebillela. Bere malko sa-miñak atsegiñetan biurtu ziran. Debo-zio guziarekin begiratzen zion bitartean airean zegoan Ostiari, ikusi zuan Erli-jiosoak, nola Ostia onetatik erortzen ziran odol tantoak. Bereala ezagutu zuan, milagro orrek zer esan nai zuan; bere dudak kendu ziran, fede sendo bat oien lekuan gelditzen zitzaiola, eta si-nistu zuan osoro eta betiko, Ostian egiazko Odol preziotsua zegoala.

Bi gertaera auek erakusten digute, Salbatzallearen Gizatasuna dagoala gu-zia osorik eta denbora berean, ogi ta ardo konsagratuan, konsagrazioko itzen bitartez Gorputza Ostian eta Odola ka-lizan badago ere.

Emen gogoratu bear degu, zeñ andia dan egiten zaigun grazia, Jesu-Kristoren Odola aldare gañian gure aurrian dau-kagunian. Eztago ezer ere Odol Jain-

kozko onekin konpara ditekenik. Onen tantotso batek bakarrik balio du lurreko ta zeruko tesoro guziak baño geiago. Esan dezagun geiago: Jesu-Kristoren Odola ez bakarrik dago gure aurrean, baizik gañera gerea da, eta gera bere jabe, artutako doai baten bezela.

Guazen orain adieraztera zertan dagoan isurtze au.

Jesu-Kristoren Odola isurtzen dala Sakrifizio Santuan, ain da egia, nola dan isurtzen dala modu espiritual batean Meza entzuten duten guzien eta Purgatorioko animen gain.

Testamentu Zarrean daukagu onen iduri eder bat. San Paulok, ebreoei eskribitu zien kartan, esaten die itz auekiñ: (1) “Moises'ek artu zuan beigaien eta akerren odola eta busti zuan berekin erri guzia, esanaz: Auñe da Jaungoikoak zuekiñ egin duan elkartasunaren odola.”

Oiek berak ziran iya Gure Jaunak afarian kalizaren gain esan zituan itzak:

(1) Heb. IX. 19, 20.

“Au da nere Odola, elkartasun berriaren Odola.”

Mart̄sant teologo ospatsuak esaten digu: “Odol preziotsua iñurtzen da Mezatan, eta entzuten dauden kristauak bustitzen dira berarekin modu espiritual batean.” San Joanek esaten digu oraindik argiroago; (2) “Salbatzalleak amatu gaitu, ta garbiture bai gure pekatuetatik bere Odolarekin.” Au bera erakusten du San Paulok ere: (3) “Urreratu zerate elkartasun berriaren Bitarteko Jesus gana eta Abel'en odolak baño obeki itz egiten duan Odol batez bustiak izatera.” Galdetzen bazaitzute: ¿Noiz urreratzen gera gure Bitarteko Jesus gana? Erantzungo dezute: Komunio Santuan. Bai, egiaz; Komunio Santuan urreratzen zerate asko Beragana, zuen biotzean artzen dezuten ezker, baño beragatik zuazte argana, obeki zuen animaren janari billa bezela, zuen Bitartekoaren ondoren bezela baño; baño Mezatan urreratzen zerate Bera-

(2) Apoc., 1, 5.

(3) Heb., XII, 24.

gana, zuen Bitartekoagana bezela, bada Jesus'ek an Sazerdote andiaren eginkizunak egiten ditu, eta berari dagokion bezela erregutzen du erri guziagatik.

Gure Bitartekoagana urreratzean, urreratzen gera Odol preziotsuagana, zabaltzen dala au modu espiritual batean aldarearen gañean, eta aldaretik gure animetara. Jesus'ek bere Pasioan iñurizuan bere Odol Jainkozkoa, baña Odol ori iñurizuan orduan borraroen, lurraren eta arkaitzen gañera. Meza Santuan Odol ura bera iñurtzen da, baña dijoa Meza entzuten daudenen animen gañera. Apaizak bustitzen ditu kristauak ur bedeinkatuarekin, Moises'ek jauskiñi edo biktimen odolarekin judioak bustitzen zituan bezela: alañe Salbatzalleak bustitzen ditu animak bere Odol preziotsuarekiñ.

Bustitze espiritual au da, urezko bustitzea baño askoz indar andiagokoa, Jesus'en inguruan zeuden borrarota judioak iduki zituzten beren esku ta arpegiak Odol preziotsutan bustiak, baña alare, garbitu ta Jaungoikoagana biurtu bearrean, gaitzean gogorturik gelditu zi-

ran; Salbatzalleak aien animak busti balitu, auek Jaunagana biurtuko ziran. Baldiñ Meza Santuan gure gorputza bustiko balitz egiaz Jesus'en Odolarekin, modu espiritualean bustita baño probet̃su gut̃siago aterako genduke, bada onela gure animak garbitzen dira, santutu eta edertzen dira miragarrizko moduan.

Santa Maria Magdalena Pazis'koak, (1) esaten digu onen gañian: "Jesu-Kristoren Odola artzen duan anima, gelditzen da jantzi eder batez estalita beziñ apaindua. Aiñ andia da bere edertasuna, nun ikusiko bazendukete, Jaungoikoa bera dala usteko zendukete, aren imagiña izanik. ¡Zorionekoa alako edertasunarekiñ apaindua dagoan anima! ¡Zorionekoa bera ikusteko diña dan begia!,"

¡A irakurle biotzekoa! Zoaz Meza Santura, gure Erredentoreak eman degion zure animari graziaren jantzi au, merezi dezazun, sartzea apari andi artako salan, aingeru ta santuakiñ betikotasun guzian gozatzeko.

(1) In Monitis vitæ suæ annexis, c. IV. n.º 14.

Aita Santu Urbano laugarrenaren bizitzan irakurtzen da ondorengo gertakera au: 1263 garren urtean Bolsena'ko uri Orbieta'ko Obispadu, Italian dagoanian, Apaiz bat, konsagrazioko itzak ogiaren gain esan ondoan, Satanas'en burutazioai leku emanaz, asi zan dudatzen, ogi konsagratua Jesu-Kristoren Gorputz biurtu ote zan. Gizon doakabe onek esaten zion bere buruari: ¡Eztet ezer sentitzen, eztet ikusten mudantzaren ezagungarririk t̄sikienik! Ezta egia, Jesu-Kristo ogiaren iduripean dagoala. Duda onetan aurrera joatea asko etzala, eldu zan oso sinisterra, etzegoala an egiaz Jesu-Kristo Gure Jauna, erortzen zala onela egiazko erejia baten. Ala ta guziz ere jarraitu zuan Meza ematen eta konsagratzen. Egun baten Ostia, konsagratu ondoan, goratzean, erori zan Odo-la, odeietatik erortzen dan euria bezela. Jakiña da, nolakoa izango zan apaizaren ikara, mirari ura ikustean; gelditu zan zurkaizturik, eta ikusi zan, euri miragarri au Ostiatik zetorrela. Jendeak ikusten zuan milagro au, eta deadar egiten zuan. ¡O Odol preziotsua! ¡O Odol Jainkoz-

koa! ¿Zergatik iñurtzen zera? ¡O euri sagradua, atoz gure animetara, garbitu gaitzatzu gure pekatuetatik! Batzuek beren bularrak jotzen zituzten eta besteak negar malko sutsuak iñurtzen zituzten.

Jendearen deadarrak aditzean, konaturatu zan apaiza, beeratu zuan Ostia, eta korporalaren gañian ipini nai izan zuan, baña korporala zegoan guzia bustia, eta etzuan arkitu une bat ere legorrik, Ostia an jartzeko. Au guzia ikustean, idiki ziran bere animako begiak, ezagutu zuan bere utsegitea, damutu zan egiaz bere fedegabetasunaz, eta jarraitu zuan Meza ematen, malko ugariak iñuriaz, askotan orazioak esan eziñez gelditzen zala. Komunioaren ondoren bildu zuan korporala, al zuan ondoen, mirari ura ezkutatzeko; baña Meza bukatzean, entzuten egon ziranak jua zitzaizkan, ziur jakitea gatik, galdetzera ia egia zan, ikusi zutena. Apaiza arkitu zan korporala erakusteko premian, eta au ikustean, an zeudenak belaunikatu ziran, beren bularrak joaz, eta Jaungoikoari errukia eskatuaz. Gertaera miragarri onek ekarri zuan ikusmiratsu asko

Bolsenara. Aita Santu Urbano IV garrenak jakin zuan, eta agindu zuan Meza eman zuan apaiza juan zedilla korporalarekin, bera zegoan uri, Orbietora. Apaiz doakabea juan zan, beldurrez beterik, belaunikatu zan, Aita Santuaren aurrean, eskatu zion barkazioa, esan zizkan bere duda igaroak, Odol prezio-tsuaaren isurtzea, eta erakutsi zizkan, sinisterazteko, korporalen gañeko ezagun garriak. Aita Santua, oso ikaraturik, belaunikatu zan eta muñ egin zion korporal milagrosoari. Geroagoan Aita Santu Urbano IV-garrenak egiñerazo zuan Bolsenan Eliz eder bat Odol prezio-tsuaaren onran, eta agindu zuan egiñ zedilla urian prozesio bat, mirari ura gertatu zanetik urtebetetzean. Korporal milagroso ura ikusten da oraindik gaur ere Orbieto'ko katedralean. Gertaera miragarri au izandu zan, Aita Santu andi onek iduki zuan arrazoirik andien bat, Sakramentu guziz Santuari jarritako festari indar geiago emateko. Orain eundi edo sigloren batzuek dirala, Bolsena'n gertatu zana, berritzen da egunero Meza Santua ematen dan Eliz guzietan.

Apaizak Ostia ta Kaliza goratzean, Odol preziotsua erortzen da batetik eta bestetik euria odeietatik erortzen dan bezela. Ezta egiaz erortzen lurraren eta gizonen buruen gañera, baizik biotzeta-
ra eta animetara. Garbitzen ditu kris-
tauak, ematen die parte bere meritue-
tan, laguntzen die beren argaltasunetan,
indartzen ditu beren tentazioetan, eta
bakoitzaren prestaerari dagokion be-
zela, eragiten dizte beste gauzak. Egiten
du alegiña gaiztoak ontzeko, mugitzen
ditu arduragabeak, eta biurtzen ditu be-
ragana biotz gogordunak; Salbatzallea-
ren etsaiari eskeintzen die grazia ta Jaun-
goikoaren adiskidetasuna, eta pekataria
balego gogortua, pekatuan irauteko as-
mo sendoarekiñ, eskatzen du errukia
beretzat eta eusten dio Jaungoikoaren
Justiziaren beso kastigatzalleari.

Ezagutu ezazute, bada, zein probetsu-
garria dan guzientzat, bat ere bereñi ga-
be, Meza Santua maiz entzutea; bada,
diogu berriz ere, antse Jesu-Kristoren
Odolak garbitzen gaitu pekatu guzitik,
antse prestatzen dira gaiztoak ondutze-
ko. ¡A! Kalbarioan arkitu izan baziñate,

Jesus gurutzilltatzean, eta bere zañetik iñurtzen zan Odolaz busti izan bazinaten, ¿etzenduten artuko au mesede bereñi bat bezela? Orain bada gauza ziurra da, entzuten badezute Meza Santua, Kalbarioan idukiko zenduten pretaerarekin, Gure Jaunaren Odolaz egiten dan bustitze espiritualala, izango zaitzutela Kalbarioko mendian bazeundete beziñ probetšugarria.

Meza Santua entzuten dutenak artzen duten graziarik andien bat da, kalizan iñurtzen dan eta Zeruaren miserikordia eskatzen duan Jainkozko Odolaren dea-darra. ¡O! ¡Zeiñ probetšugarria zaien pekatariai Odol onezaz baliatzea! ¡Zein indar andia duan Jaungoikoaren aserrea palakatzeko!

Egiten ditugun gaiztakeri guziak erakartzen dute gure gañera zeruaren aserrea Eskritura Santuan (1) ikusten degun bezela: "Sodoma ta Gomorraren dea-darra egunetik egunera geituaz dijoa, ta pekatua eldu da goienera; beragatik jetšiko

(1) Gen., XVIII. 20, 21.

naiz eta ikusiko det gizonen obrak deadar oni dagozkionak ote diran,„.

Beragatik, pekatuak deadar egiten dio Jaungoikoari, ta irazekitzen du bere asarre justua. “Zuen kampo-lanak egiñ dituzten langilleai kendu diezuten alaberak deadar egiten du, bengantza eskatuaz, dio Santiago Apostoluak (1), eta deadar onek igo du ejerzituen Jaungoikoaren belarrietaraño,„. Jaungoikoak, Isaias'en aoz deitzen dio deadarra pekatuari: “Nere erria ipini det dio Profeta onek (2), mendiskaren gañean jarritako matsti bat bezela, ta uste nuan zuzentasunean biziko zala, baña ez tet entzuten pekatuen deadarra baizik,„. ¿Nork palakatuko du Jaungoikoaren asarrea? ¿Nork paketuko du bere bengantza ikeragarria? ¿Nork Jesu-Kristo Gure Jaiurenaren Odol preziotsua ez izanik? Gure gaiztakerien deadarrak igotzen du zerruen goieneraño, baña gorago igotzen du Jesusen Odolaren boz erregutzalleak, eta neurrigabea ta guzialduna izanik, ez

(1) Epist., V, 4.

(2) Isai., V, 7.

bakarrik igarotzen ditu aireak, baizikan eltzen da Zerura ta sartzen da zeruko Aitaren biotzeraño. Boz onen gozatasun indar aiñ andikoaren aurrean desegiten da gure gaiztakeri askoak Jaungoikoari arrerazi zioten gorrotoa.

Galdetuko didazute, ¿nola Odol preziotsuak zerura deadar egiten du, lurrean ezer aditzen ezpada? Nik denbora berean galdetzen dizuet: ¿nola deadar egiten zuan Abel'en odolak, Abel illta gero. Eta alare Jaungoikoak esaten dio Kain'i: zure anaiaren odolak deadar egiten dit. Deadar au etzan aoz egiña, baizik espirituz, eta alare aiñ zorrotza izan du zan, nun eldu zan Aitaren biotzeraño ta iritsi zuan illtzallearentzako kastigua.

Era berean Odol preziotsuaren deadarra oso espirituzkoa da, baña bere indarra aiñ da andia, nun beartzen duan Jaungoikoa guzaz errukitzera. Ona emen zer esaten digun San Paulok (1): “Urreratu zerate Testamentu Berriko, ta Abel'en odolak baño obeki itzegiten

(1) Heb., XII, 24.

duan odol baten Bitarteko dan Jesus'gana,,.

Meza Santuan urreratzen gera gure Bitarteko Jesus'gana, bere Odolaz bustiak izateko. Eta Odol onek bustitzen gaituan une edo instante artan deadar egiten dio Jaungoikoari. Egiaz, begirazer dion San Paulok. Apostolu andi onek eztu esaten, deadar egiten duan odola dala, baizik *Odolaren bustitzea*. Da esatea: Jesus'en Odolak, bere Gorputzaren barruan egondu zan bitartean, etzuan deirik adierazi, baña bai beiñ Pasio samiñean išuri zanean, bada instante artan igo zan bere deia indar guzieldunarekiñ, pekatariantzat Jaungoikoaren errukia ta barkazioa iristera.

Ona emen nola dei ori bera zuzentzen zaion Meza Santuan Zeruko Aitari, iñork galerazi eziñ dezakion indarrarekin: Begira ezazu, nere Jaungoikoa, nolako oñaze ta atsekabeen bitartez, nolako ugaltasun eta amorioaz izan naizen išuria, ni, zure Seme bakarraren Odol sagradua. Begira ezazu nolako lotsariaz eta gogortasunaz izan naizen burlatua, saldua, ta ostikoperatua. Au guzia sufritu

det pazientziarik andienarekin, pekatar-
riak garbitzeko, ta berai Zeruko atea idi-
kitzeko. Baña Zu, jo Juez zorrotza! ¿zu
zuaz oiek infernura botatzera ta beti-be-
tiko kondenatzera? ¿Nork emango diz-
kit eskerrak ainbeste sufrikizunegatik?
Eztizkidate emango kondenatuak, bada
auek madarikatuko naute deabruzko
amorrutarekin, nik salbatu ditudanak,
zeruan bedeinkatu ta alabatuko nauten
bitartean. ¡O misericordien Jaungoikoa!
Entzun ezazu gogo onez nere erregua,
ta nere amorez eman zaiezu grazi uga-
ria, pekatariak zugana biurtzeko ta on-
dutzeko; eta justuai, santutasunean eta
birtuteetan aurreratzeke, ta azkeneraño
irauteke.

Odol preziotsuak alako indarrarekin
deadar egiten duanean, ¿nola egon diteke
gorturik Jaungoikoa? ¡A! Abel erruga-
bearen odolaren deadarra igotzen zan
lurretik zerura, justizia iristeko, Kris-
to'ren Odol beneragarriak errukia es-
katzen duan bitartean; eta gañera Jaun-
goikoak naiago du barkatzea, kastigatzea
baño, Elizak kantatzen duan bezela: “¡O
beti errukitzea ta barkatzea dagokizun

Jaungoikoa!., Ara zer esaten digun San Pedrok (1): “Jaungoikoak pazientziarekiñ itsodoten dizute, iñor galtzerik nai eztuala, baizik guziak beragana biurtzea penitentziaren bidez,,. Odol preziotsuak eskatu zuan gugatik zirkunzizioan, Oliber’eko baratzen, azoteetan, arantzazko koroatzean, eta Salbatzallearen gurutziltzatze gogorrean. Iritsi zuan barkazioa guretzat, San Paulo’k erakusten duan bezela (2): “Kristo’k egin ditu pakeak munduaren eta Jaungoikoaren artean,,.

Meza Santuan Jainkozko Odol onek eztu eskatzen dei batekiñ, baizikan iñurtzen dituan ainbat tantorekiñ. Eskatzen du, barruraño sartzen dan eta iñork atzeratu ezin dezaken moduko eskaerarekiñ; Gizatasun Santuaren eta Jainkotasunaren indar guziarekiñ: eskatzen du Salbatzallearen zauri guziakiñ, eskatzen du Jesus’en Biotzarekiñ eta onek sufritu dituan samintasun guziakiñ, eskatzen du azkenik Jesus’en aoakiñ, eta ad beneragarri onetatik atera diran

(1) II Epist., III, 9.

(2) II Cor., V. 19.

suspiru guziakiñ. ¿Gerta diteke Jaungoikoaren Semearen zaurietako odole-
tik, animatik, biotzetik eta ezpañetatik
ateratako erregu batek ez biguntzea Aita
Betikoaren biotza, gure pekatuen gaiz-
takeriagatik guziz aserre balego ere? ¡A!
guzaz errukirik, batere ez izatea erabaki
balu ere, bere justiziaren zuzentasunak
eskatzen duan bezela, kastigatzeko us-
tean balego ere, Jesus'en Odolaren dea-
dar tristeak aztu eraziko lioke bere as-
moa. Ona emen gai onetan ondo dator-
kigun mirari bat.

Maguntzia'ko antziñako arzobispa-
duari dagokion Odenwald'en Walldürn
deitzen dan uri tšikian 1330 garren
urtian, Otto apaiza Meza ematen zegoa-
la, erori zitzaion, oartu gabe, kaliza ardo
konsagratuarekiñ, išuriaz Odol preziosoa
korporalaren gañera. Bereala agertu zan
eunaren gañean Kristo'ren imajiña, Gu-
rutzetik zinzilik, eta Kristo gurutziltza-
tuaren inguruan Salbatzallearen burua
amaika lekutan, arantzaz koroatua ta
odolez bustia Beronika'ren zapian es-
tanpaturik gelditu zan bezela. Imagiña
auek egiazkoak ziran, eta aiñ ondo egi-

ñak, nun etzan pintatzallerik aien berdi-
ñeko beste imajinarik egiñ zezakianik.
Mirari au ikustean, ikaratu zan apaiza,
beldur zitzaiola Jaungoikoaren aserrear-
ta bere arzobispoarenari. Sakrifizio San-
tua bukatu zuanean, ezkutatu zuan kor-
poral odoldua aldareko arri baten azpian.
Igaro ziran urteren batzuek, apaiz peka-
tariak iñori agertu gabe, Odol preziotsua
egiaz an arkitzen zala, adierazten zuan
miraria; baña bere kontzientziako pake-
rik ere eziñ arkitu izan zuan, ez ta ins-
tante batian ere. Bere atsekabe andiak
erakarri zion laster, sendatu eziñ zite-
kian gaitz bat. Gorputzeko ta animako
atsekabeakin, Ottok uste izan zuan, las-
ter ill bear zuala, baña zirudianaz beste-
ra, beste sufrikizun, esan eziñ bezelakoak,
luzatu ziran, ez ill eta ez sendatu egiten
zala. Ezagutu zuan azkenik, bere utse-
gitearen kastigua zuala, korporal mira-
garria ezkutatu zualako, ta beragatik
deitu zion auzoko apaiz bati, esan zion
bere isillikako edo sekretoa, ta ill zan.

Juan ziran egia jakitera; jaso zan arria,
ta korporala arkitu zan Ottok esan be-
zela. Milagro asko gertatu ziran leku ar-

tan, eta Aita Santu Urbano bosgarrenak eman zuan indulgentzia bat, eliz ori bisitatzan zutenentzat.

Odol preziotsuak igotzen badu zerura indar guzizko erregu baten antzera, da, era berean, usai gozoko intsentsu bat. Testamentu Zarrean artzen zuan Jaungoikoak gogo onez danerre edo olokaustoen usaia, zer eztu iritšiko aldarean išturtzen dan eta Meza Santuan eskeintzen dan Jesu-Kristo'ren Odol jainkozkoaren usai gozoak?

Kaliza eskeintzean, esaten du apaizak: "Eskeintzen dizugu Jauna, salbazioko kaliza, eskatuaz zure miserikordiari, igo dedilla usai gozoarekiñ zure Majestadearen aurrera, gure ta mundu guziaren salbaziorako,,". San Paulok (1) dio: "Jesu-Kristok amatu gaitu ta Berbera eskeiñi zaio Jaunari jauskiñi edo biktima gogo onezko estimagarri bat bezela,,". Salbatzallearen danerre edo olokaustoa Gurutzean eskeiñi zanean, banatu zan usai bat, bere gozotasunarekiñ kendu zituana gezurrezko Jaungoikoen sakrifi-

(1) Ephes., V, 2.

zio gorrotagarrien usteltasuna ta gizonen pekatuak; bada munduko gaiztakeri guziak, Jaungoikoa aserretzeko izan zuten indarra baño andiagoa izandu zan, bera palakatzeko iduki zuana Jesusen erioztzak, eta onen odol isurtzeak. Era berean gaur, erru gabeko Bildotsa aldarearen gañean gugatik sakrifikatu ta jainkozko Odola isurtzen danean, gozotasunean berdiñik eztuan usai bat igotzen da Jaungoikoa ganuntz, eta palakatzen du gure pekatuak piztutzen dioten aserrea.

Kristo'ren Odolaren usai jainkozkoa aingeru ta zerutar guziak bizi poztuaz zeruak betetzen dituana.

AMAIKAGARREN BURUA

Meza Santua da danerre edo olokaustorik andiena.

Lege zarrean lau modutako sakrifizioak zeuden: danerre edo olokaustoa, au da Jaungoikoari bakarrik dagokion adorazio-emallea, bere bitartez adierazten zala Jaungoikoaren Majestade guziz andia. Alabantzazko sakrifizioa, onen bi-

tartez Jaunari eskerrak emateko, berak egindako mesedeakgatik. Sakrifizio iritsgarria, bere laguntza eskatzeko. Sakrifizio garbitzallea, onetan Jaungoikoa onratzen zan Juez bezela, eskeintzen zan pekatuaren barkazioagatik, eta errua garbitzeko. Sakrifizio auetako bakoitzak zeukan bere zeremoni bereña.

Mundua egiñ zanetik Moises mundura etorri bitartian, danerre edo olokausto guziz asko eskeintzen zitzaizkan Jaunari, ta Eskritura Santuak esaten digu Jaungoikoak gogo onez artzen zituala. Moises'en legeak agintzen zien judioai betiko sakrifizioa, au da goizeko ta arratsaldeko sakrifizioa, ta egiten zan bildots bat sakrifikatuaz. Zapatuan beste egunetan bezelako bi. Illargi berri bakoitzian sakrifikaten zituzten zazpi bildots, bi beigai ta aker bat. Au bera egiten zan Pazkoaren ondorengo zazpi egunetan, eta Pentekostes'ko zortziurren guzian. Tabernakuloen festan eskeiñi bear izaten zituzten amalau bildots, bi beigai ta aker bat zortzi egun aietako bakoitzian. Auezaz ostean bakoitzak eman oi zuan bere debozioaz edo al-iza-

tez zegokiona, au da, idiak, beigaiak, ardiak, bildotsak, aariak, usuak, intsent sua, ogia, gatza, ta olioeko bizkotsoak; eta doai bakoitzarentzat zeuden zere moni bereñak.

Au guzia aiñ ziara ipintzen det, ikusi dezazuten, zeñ garestiak eta penagarrak ziran antziñako patriarka ta apai zai jarritako sakrifizioak, ta zenbaterañako oarpide tñikienetakoz ere beteak zeuden, Jaungoikoari ala ta guziz ere onore gutsiago ematen ziotela eta sari gutsiago iristen zutela. Baña au ala izanik ere, Jaunak gogo onez begiratzen zien, Jesu-Kristo'ren odolezko sakrifizioaren iduria ziralako. Konpara dezagun gure danerre edo olokaustoa, eskeintzen aiñ erreza, ta kostu gutsiakoa; eta ala ere Jaungoikoak gogo, esan eziñ ainbat obeaz ikusten duana; da iturribat, zeruarentzat pozezkoa, munduarentzat osasunazkoa ta purgatorioarentzat konsuelozkoa.

Egiñ dezagun kontu, gizon batek bakarrik sakrifikatu izan dituala munduaren asieratik Jesu-Kristo munduratu ar terañoko jauskiñi edo biktima guziak.

Dudarik gabeko gauza da, onore andia Jaungoikoari emango ziola, ta baita esan eziñ alako satisfazio bat ere. Baña ala ere, adorazio au utsa izango litzake, konparatzen bada, Meza ematen duan apaiz batek, Meza enkargatzen duan, edo entzuten duan kristau batek ematen dion adorazioarekiñ.

Ona emen nola adierazten duan Aki-no'ko Santo Tomas'ek, zer dan eta zertarako dan gure danerre edo olokaustoa (1): "Sakrifizio Santuaren bitartez guk aitortzen degu, Jaungoikoa dala kriatura guzien egillea, esker on guzia agertu bear diogun Jauna, gauza guzien jabe bakarra, ta guk gure mendetasun eta adorazioaren ezagungarritzat eskeintzen diogula, ikusten dan sakrifizio bat, bere Majestade andiari dagokiona,,. Sakrifizioa, bakarrik Jaungoikoari eskeiñi diozakegu, ta Jaungoikoak agindu du berarentzat bakarrik izateko. Isaias profetak au erakusten digu (2): "Ni naiz Jauna, au da neri dagokidan izena, ta

(1) 2. 2, qu. 85, a. 1.

(2) XLVIII, 8.

eztioak utziko iñorire nere gloria, ezta idoloai ere, neri bakarrik dagokidan omenik,,. Sakrifizio au eziñ eskeiñi dezakiogu Santu bati, ez aingeru bati, ez eta Jaungoikoaren Amari ere, zeagigurta edo idolatria gorrotagarri baten erori gabe. Santuak alabatzea, onratzea, berai deitzea, beren aurrean belaunikatzea, intzentsua erretzea, argiontzi edo lanparak eta kandelak beren onran piztutzea, itz batean, barru ta kampotik adorazio ematea, egiñ dezakegu. Baña eziñ beñere eskeiñi degikiegu Meza Santua. Onen gañian eztigu uzten dudarik t̄sikienik Trento'ko Konzilio Santuak (1): "Santuen onran eta oroipenean Meza emateko oitura badu ere Elizak, ala ta guziz ere, eztu erakusten aiei Sakrifizioa eskeintzen zaienik, baizik bakarrik, aiek koroatu dituan Jaungoikoari,,. Apaizak eztu esaten: O San Pedro, o San Paulo, nik eskeintzen dizut Meza Santua. ¿Zer egiten du Elizak? Eskerrak ematen dizka Jaungoikoari Santuen bitoriakgatik eta eskatzen du beren laguntza, "erregu-

(1) Sess. 22, c. 3.

tu dezaten gugatik zeruan, guk beren oroipena lurrean onratzen degun bitartean,,. Au onela izanik, zizango du inork ausardirik, esateko, Elizak agintzen duala, Santuai Meza eskeintzeko?

Ikusi dezagun orain danerre edo olokaustoaren izatea edo naturaleza, onela ezagutzeko bere anditasuna.

Judioen zeremonietan jauskiñi edo biktima osoa erretzen zuan suak. Beste sakrifizioetan, zati bat bakarrik erretzen zan, eta gañerakoa gelditzen zan apaizentzat eta sakrifizioa eskeiñi izan zutenentzat. Danerre edo olokaustoan guzia erretzen zuan su-garrak, aditzen emateko, guzia zala Jaungoikoarena ta berari adorazio emateko konsagratu bear zana. Jaungoikoak eskatu lezaioke oraindik arrazoi guziarekiñ gizonari bere biziaren sakrifizioa, Abraani bere seme Isak sakrifikatzeko agindu zion bezela, patriarka onen obedientzi lasterrarekin bakarrik kontentatu bazan ere. Lege zarrean agindua zeukan, seme-nagusi guziak berari eskintzea, uzten ziela alare amai, atzera semeak berenganatzen temploan aurkestutzen zituzten egunean. Maria-

ren Seme Jesus ere jarri zan lege onen mendean. Bere Ama bedeinkatuak eraman zuan templora, eta atzera berengandu zuan, uso biren bitartez, bada au zan pobreen prezioa; baña Jaungoikoak etzuan nai izan prezio aiñ umill ori. Ondo ezagutu zuan Ama gaiñoak, atsekabez beterik, Jesus Gurutzean ill zanean, gu gure pekatuetatik eta betiko eriotzatic libratzeagatik. San Paulok (1) esaten digu: "Jesu-Kristo ill zan guziatic, bizi diranak, bizi eztitezen geiago berentzat, baizik berakgatic, ill eta piztu zan Arentzat,.". Eta ala, izanik Jesu-Kristo'ren bizia gizon guziena elkartuta bañore ohea, bere eriotzare izandu zan Jaungoikoaren begietan, gizon guziena izan ziteken baño ohea ta meritu geiagokoa. Eta nola Jesu-Kristok berritzen duan Meza bakoitzean bere eriotza, ematen dio beragatic Sakrifizio onen bidez, gizon guziak danerre edo olokaustoan emango balitzaioz, emango lioketen baño onore ta gloria geiago.

Marchant'ek (2) esaten digu: "Meza

(1) II Cor., v, 15.

(2) Candel. myst., t. IV, lect. 19.

da eguneroko bialkinde edo enbajada bat, Trinitade guziz Santuari eskeintzen zaiona, balio andiko omen bat bere oñetan jartzeko, ezagutzeko onen bitartez bere nagusitasuna, ta agertzeko gure obedientzia. Salbatzallearen bizitza ta eriotza eskeintzen zaizka egunero. Da lurreko kristauak ematen dioten eguneroko kotitz edo tributua zerutarren laguntzarekin. Da bere podere andia jakinñduria ta ontasuna onratzeko, kria-tura guziak ematen dioten omena,,.

Aiñ da bearra, Meza, danerre edo olokaustotzat idukitzea, nun eziñ bear ainbat esango degun, erakutsi bear zaiela kristauai gai onetan jakinñ bear dutena.

Zeruak eta lurrak elkarri laguntzen diote aldarean, obeki agertzeko Jaungoikoari beren esker ona ta zor zaizkan omenak. Apaizak Meza ematen duan bitartean, Aingeruak eramaten diote ta eskeintzen dute Sakrifizioa. Egi onen ezagungarri bat da ondorengo gertaera au. Sabien'go komentuan apaiz batek ikusi zituan egun baten konsagrazioko instantean espiritu zerutar asko, adora-

zioan zeudenak errespetorik andienarekin. Apaiza makurtu zanean Mezatako liburuaren rubrikak agintzen duan bezela, ta esatean: "Jaungoiko guzialduna, erregutzen dizugu umillki, agindu dezazula, doai auek, zure Aingeru santuaren eskuz eramateko, zure aldare andira zure jainkozko Majestadearen aurrean,, ikusi zuan orduan, Espiritu oietako, besteak baño ederrago zan batek, artu zuala Ostia konsagratua, ta eramanzuala Jaungoikoaren aurrera.

Apaizak, zerura begira jarririk, kordegabeturik bezela, ikusten zuan arriturik, ikusgarri andi au, aingeruakiñ eta zerutar guziakin batera poztuaz. Andik laster beeratu zituan begiak korporalaren gañera, Ostia bere lekuratu zan ikusteko, ta ikaratu zan an arkitzean. Pozez beterik bukatu zuan Meza konsuelo ta debozio andiaz. Geroago esan zien bere lagun batzuei, zer gertatu zitzaien, eta deitu zien, berari lagundu zegioten, Jaungoikoa alabatzen. ¡Ai! gertaera au aditzean, geituko balitz zuen debozioa, ta atentzio geiago jarriko

bagenie Mezaren itzai; emen aiñ egoki agertzen zaigun ezkerro, aingeruen eta Santuen laguntasuna.

¡O kristuak! ¿Izan diteke ez sentitzea zuen biotzetan deseo guziz biziak, goizero eskeintzeko gure Jaunari ta gure Aitari doairik estimagarriena? ¿Zer aitza-ki aterako dezute juizioko egunean, zuen nagitasuna estaltzeko?

AMABIGARREN BURUA

Meza Santua da alabantzazko Sakrifiziorik andiena.

Ez Aingeruak eta ez gizonak eziñ adierazi dezakete Jaungoikoa zer dan. Bere izatea, bere santutasuna, bere gloria ta bere aberastasuna neurrigabeak dira. Da justiziarik zuzenena, errukitasunik gozoena, edertasunik miragarriena; itz batean obetande edo perfekzio guziak beragan dituana. Aingeru ta santu guziak beren biotz guzitik maitatzen badute ere, ikaraz daude beraren aurrean, eta auspezturik, adoratzen dute

errespetorik andienarekiñ. Alabatzen, goratzen eta bedeinkatzen dituzte bere obetande edo perfekzio neurrigabeak, beñere aspertu eziñ dirala. Jaungoikoak nai du oien gandik alabantz au artzea, ala zor zaiolako.

Lenbizian, mundua egiñ baño len, Jaungoikoak iru personatan alabatzen zuan bere burua. Aitak alabatzen zuan Semearen jakinduri ondogabea; Semeak alabatzen zuan Espiritu Santuaren ontasun guziz gozoa, ta Espiritu Santuak alabatzen zuan Aitaren guziasuna. Jesu-Kristok esaten zion Santa Matilde'ri; Alabatu ta gloriatu nai banazu, alabatu ta gloriatu nazazu Aitak eta Espiritu Santuak betikotasun guzitik gloriatu nauten anditasun guzizko arekiñ batean. Elkartu zaite nerekiñ, bada nik, nere jakinduri neurrigabekoarekiñ, gloria-tzen ditut Aita ta Espiritu Santua. Elkartu zaite Espiritu Santuarekiñ, bada onek bere ontasun betikoarekiñ gloria-tzen gaitu Aita ta ni.

Jaungoikoak, bera alabatua izan dediñ, egiñ ditu zerua, lurra, aingeruak, kria-tura arrazoidunak eta arrazoigabeak:

“Jaungoikoak egin du guzia bereztako (1).

Aingeruak alabatu dute, egiñ zituan lenengo instantetik. Berak alabatu dute, alabatzen dute oraiñ, eta alabatuko dute beti.

Gauza jakiña da, kriatura guziak Jaungoikoa alabatu bear dutela. Au one-la bada, ezta gizona arrazoi geiagorekiñ egongo beartua, au egitera, onetarako anima arrazoidun batekiñ egiña izanik? Dabid'ek ala ezagutu zuan modu miragarri batean eta kanta sutuakiñ deitu zion erriari, bere buruari, ta sortitz edo naturaleza guziari Jaungoikoa alabatzera, uzten zigula alabantzaren ejemplorik ederrena. Deitzen die lurrari, zeruari, arrazoidun eta arrazoi gabeko kriaturai, berarekiñ batean bedeinkatzera bere ta oien Jauna, ta ondorengo gizaldiak jarraitu zezaten Jaun orri gloria ematen, utzi zizten sazerdote ta lebitai eun ta berrogeitamar salmo, egunero kantatzeko aginduaz. Iru gazteak jarraitzen ziztuzten labean bere konsejuak, su-garren

(1) Proverb., cap. XVI, v. 6.

erdian deitzen zietenian kriatura guziaz, Jauna bedeinkatzera: “Bedeinka ezazute Jauna, jaunaren kriaturak, alabatu ta goitu ezazute bera beti-beti. Jaunaren aingeruak, bedeinkatu ezazute Jauna; Zeruak, bedeinkatu ezazute Jauna,, (eta ala aurrera). Testamentu zarreko Santuak eta ebreotarrak alabatu bazuten zeru-lurren Jauna, ¿zenbat andiagoa ezta izango guk, Jaungoikoaren semeok, daukagun arrazoia, au bera egiteko? ¿Aztuko gera, benturaz, San Paulok esaten digunaz (1): “Jaunak bere semeztat autatu ginduanian bere graziaren alabantza ta gloria zan gogoan zeukana?,,

Beste itz batzuekin esateko, Jaungoikoak beretzat artu gaitu, bere grazia ta doaiak alabatu ta goitu ditzagun; obligazio estu onetatik eziñ aldendu gindezke, pekatu larririk egin gabe. Obligazio au ondo ezaguturik, Enperadore, errege santu ta prinzipe on askok jaso dituzte eliz ederrak, eta egiñ dituzte kometuak, Jauna onratua izan dedin, koruko

(1) Eph., I, 5. 6.

errezuen kantuarekiñ. Gure Eliza kato-likak egi au ondo ezagaturik, beartzen ditu bere ministroak, epistolaz orden-tzen diran beziñ laster, egunero beren errezo jakiñak egitera, ill arteraño, ta au da lege bat, komentuetan dauden guzie-tara eltzen dana. Eta guziak egiten dute agindu au pozik, eta alabatzen dute beren Egillea beñere utzi gabe ta debo-zioz.

Dabid'ek (1) deadar egiten zuan: "Alabatu ezazute Jauna bere etse san-tuan, alaba ezazute bere guzialtasunare tronu sendoaren gañian, alaba ezazute bere anditasunari dagokion ainbatean,,.

Baña, ¿nork beteko du eginkizun au, izanik Jaungoikoa neurri gabe andia, ta aingeruen eta gizonen adimentu guziaz gañetik dagoana?

Orrengatik Jesu-Kristo'k ipini zuan Meza Santua, "alabantzazko Sakrifizioa,, arrazoi andiaz deitzen dana.

Izen onekin Elizak eskeintzen dio Jaungoikoari sakrifizio au egunero, ta egunaren ordu guzietan. Gogoan artu

(1) Ps. CL, I, 2.

itzatzute Mezaren parte diferentiak. ¡Zer kantu ederra dan *Gloria in excelsis: laudamus te*; guk alabatzen zaitugu; *benedicimus te*; bedeinkatzen zaitugu; *adoramus te*; adoratzen zaitugu; *glorificamus te*; gloriatzen zaitugu! ¡Zeiñ ederrak diran *Prefacio ta Sanctus*; “Santua, Santua, Santua da Jauna, ejerzitoen Jaungoikoa; zeruak eta lurrazure Majestadeaz beteak daude; ¡hosanna! Bedeinkatua izan dedilla Jaunaren izenian datorrena, hosanna zeruen goienian,„. Isaias’ek, korde gabe geldituzan aldi batean, aditu zuan, nola aingeruen koruak kantatzen zuten aldizka kantu au, ta pozezko hosanna atera zan judioen biotzetatik, Jesus Jerusalemene sartu zanean, bere Pasioa baño sei egun lenago. Meza Santuan gure boz argalak elkartzean zeruko kantu auekiñ, ematen diogu Jaungoikoari zeruan eta lurrean eman dezaioken gloriarik andiena.

San Lorenzo Justiniano’k esaten du: “Jaungoikoa alabatzeko biderik onena da, Salbatzalleak artarako ipini duan aldareko Sakrifizio santua eskeintzia. Jesu-Kristo’k aldarean onratzen du Jaun-

goikotasuna bear ainbatean, eta au eziñ egiñ dezakete, ez Aingeruak, ez Santuak eta gutsiago gizonak „.

Santa Irene'k dio, birjiña batek Jaungoikoa alabatzeko deseorik bizienarekiñ, suspiruz isilldu gabe esaten zuala: Eun miñgaiñ banitu, eziñ alabatuko nuke Jaungoikoa, bear ainbat; nere mende baneuzba gizon guziak, eziñ irazekiko nuke beren zeloa. ¡Ai, zeru berri bat egiñ eta serafiñez bete albaneza!

¡Ai nere Jaungoikoa, gorputzean eta animan baneuka bear ainbat indar, alabatzeko, goitutzeko ta adoratzeko neronek bakarrik, santuen ejerzituak eta aingeruen koruak elkaturik egiten duten bezela! ¡Zeiñ zorionekotzat idutiko nukean nere burua! Egun batian besteetan baño irazekiago arkitzen zala deseo santu auekiñ, aditu zuan zeruko boz bat, esaten ziola: Jakiñ ezazu nere alaba, Meza bakar batek, ez bakarrik ematen didala zuk opa didazun alabantza guzia, baizik baita askoz geiago ere.

Ikusten dezute beragatik, anima onak, zer dan eta zenbat balio duan Mezako Sakrifizio Santuak. Eman deizkagun es-

kerrak Jesu-Kristo'ri; Jaungoikoaren anditasun eta poderio guzia onratzeko bide aiñ erreza ipiñi digulako.

Norbait alabatzeko, lenengo bear dana da, ezagutzea, zer dan persona orren gan, alabantza merezi duana. Nik baldin badakit beregan arkitzen dirala gauz on asko, errez esan al izango det. Ori bera gertatzen da, Jaungoikoaz itz egiten darian. Aingeruak eta Santuak ezagutzen dituzte, esan eziñ al bezela, Jaungoikoaren obetande edo perfekzio guziak, baña ez osoro, arpegiz-arpegi ikusten dutelarik ere. Alabantz andiak ematen badizkate ere, beti izango dira ark merezi baño askoz gutsiago. Jaungoikoaren Seme gizon egiñak bakarrik ezagutzen du Jaungoikoaren anditasuna, ta Berak bakarrik onra dezake bear bezela, bere Aita. Baña onra au etzaio ematen iñolare Meza Santuan beziñ osoro.

Jesus'en alabantza eskeintzen da Meza-entzuleen izenian, ordainduaz ugartitasun guziarekiñ beren utsegiteak, eta entzule auei deitzen die Jesus'ek, berak eskeiñi dezaten, beren ondasun bät baltiz bezela. Gizon batek, dotriña pozga-

rri oni leial erantzunik, biotz guzitik esaten duanean: Nere Jaungoikoa, nik eskeintzen dizut zure Semeak aldarean ematen dizun alabantza; gizon onek ematen ditka Jaungoikoari, Aingeruak eta Santuak ematen dizkaten baño omen andiagoak.

Aita Juan Aingeruenak eskribitzen du: "Mezaren misterio andietan pentsatzen dedanean, iduritzen zait Jaungoikoak bere Semearen bitartez artzen duan ofrenda, dala, Santuak eta Aingeruak eman al dezakiotena baño andiagoa. Pensa ezazu, aurkeztean apaizak Aita Betikoari bere Seme gizon egiña, ta Jauskiñi edo biktima santu onen alabantza, berak eta Meza entzuten daudenak eskeintzen diotela Jaungoiko bera, dan guzia, dudarik gabe doai neurri gabe andia,,.

Ara zer irakurten degun Santa Briji-
da'ren errebelazioetan (1): "Meza entzuten nengoan egun batian, iduritu zitzaidan konsagrazioaren ondorian, eguzkia, illargia, izar guziak, eta zeru guziak kantatzen zutela beren mugimentuetan

(1) Lib. VIII, c. 56.

boz gozo ta zoliarekin. Auekiñ elkar-tzen ziran konta eziñ ainbat musikalari zerutar, eta beren kantua zeñ atsegiña zan eziñ esan dezaket, eta ez noa esatera. Aingeruen koruak jeisten ziran eta jartzen ziran belauniko errespeto guziarekin apaizari begira, deabruak ikaraturik, igesi zijoazen bitartean. Anima santa asko zeuden bertan eta alabatzen zuten Jaungoikoa espiritu garbi aiekiñ batean, eta ematen zioten Jaungoikoaren Bildotsari, zor zaion onorea,,.

Aingeruak eta santuak an daude bada Meza Santua ematen danian, eta beren bozak elkartzen dituzte sortitz edo naturaleza guziarenarekin. Aien erdian zaudete zuek, anima onak, eta laguntzen diezute Jaungoikoa alabatzen. Baña alare ezta omen au Mezari bere podere neurrigabea ematen diona. "Sakrifizio au aiñ da andia, aiñ Jaungoikoaren gogokoa, esaten digu erakusle on batek (1), nun eziñ konparatu ditezken berarekin birtute guziak, bedeinkazio guziak, eta

(1) Lor. Just.: In pedagog. Christ., p. II, cap. IV, art. 3.

zeru-lurretako gloriatze guziak. Izanik Jesus jauskiñi edo biktima ta apaiza, iturri onetatik datozen alabantza ta gloria, kriatura guzienak baño andiagoak dira„.

Ala Meza Santua da, egunero Jaungoikoaren kontra egiten diran blasfemien ordaiñsaria. Meza gabe, munduak ez luke iraungo. Isaias'ek esaten digu zenbateraño irazekitzen duten Jaungoikoaren asarrea gure pekatuak, eta aditzen ematen digu ondorengo itz auekiñ (1): „¿Ze egingo nuke denbora geiagoan emen, nere izena beti ofenditzen dan leku onetan?„ Ondorena: aldenduko nintzake mundu onetatik, utziko nuke berau etsaiaren eskuetan, desegingo nuke ta bere bizioakin batera botako nukẽ infernura.

Jaungoikoak izango zituan motibo ugariak kastigu au egiteko. Pekatu larri bakar bat, blasfemia bakar bat litzake naikua ta geiegi. ¿Zergatik, bada, pazientzi au? ¿Zer da Jaunari eusten diona? Erantzun dezagun berealatik bakarrik

(1) Is., LII, 5.

Sakrifizio Santua dala; bada gaiztoak Jaungoikoa ofenditzen beti ari badira ere, Salbatzallea beti ari da bera onratzen ark merezi bezela. Kristo'ren eta apaizen omenak estaltzen dituzte gaiztakeri guziak.

Bedeinkatua izen zaiteala bada betikotasun guzian ¡o Jesus ona! neurrigabeko mesede onegatik. Baña ¿nola agertu neizuke nere esker ona beste modutan, Meza Santua entzutera, maiz etorrita zedorrengandik artu degun doai oso au zuri eskeñiaz baño?

¡O kristauak! ¡sartu albanitzake zuen adimentu ta biotzetan egi auek! Atoz zu, Jesus, neri lagun egitera; sartu ezazu guzian biotzetan debozio egiazko bat, gure zeloa gero ta geiago geitu dediñ eta egunetik egunera eskeñi dezagun debozio geiagorekiñ jainkozko Sakrifizio au.

AMAIRUGARREN BURUA

Meza Santua da eskerrak emateko Sakrifizioa.

Jaungoikoak egiten dizkigun mese-deak ain dira ugariak, aiñ andiak nun

ezingo genitukean jakin, ez esan eta ez ezagutu bear bezela beren balioa. Jaungoikoak egin gaitu gure sentiduak eta bizikai edo mienbro asko emañaz, bere antzera egindako anima bat ere ematen digula. Anima au Bataioaren bitartez santutu du, autatu du bere esposatzat, eta bere aingeruetako bat eman dio zaitzalletzat. Zaitzen du, guraso batek semeak bezela. Konfesioan barkatzen dizkugu gure pekatuak, eta Komunio santuan ematen digu bere aragia janaritzat eta odola edaritzat. Eramaten ditu pazientzian gure gaiztakeriak eta bialtzen dizkigu asmo osasungarriak, Jaungoikoagana biurtzera gure biotza mugitu dediñ. Bere graziarekin prestatzen gaitu, predikatzalleen bitartez erakusten digu, gaitz askotatik aldentzen gaitu, gure erregu umillak aditzen ditu, gure atsekabeak gozaten ditu, tentazioetan sendotzen gaitu, gure obra onak ontzat artzen ditu, ta egiten dizkigu beste esan eziñ ainbat mesede.

Mesede auek asko ezpalira bezela, egiten digu beste bat, guzietan andiena; bere semetzat artzen gaitu. San Juan'ek

esaten digu mesede aiñ andi onen gañean (1). “Artu ezazute ondo gogoan, nolako amorioa agertu digun Aita Jaungoikoak, bere semeen izenarekiñ gu deitzea ta egiaz ala izatea nai izan duanean.” Eta San Paulo’k dio (2): “Jaungoikoaren semeak geralako gera bere guruzkui edo erederoak ere.” ¿Ezta benturaz ondatsun geiegizko bat, eskale beartsu batzuek gu izanik, Jaun Guzialdunaren egiazko seme ta guruzkui edo eredero egitea?

Baña eztira emen amaitzen Jaungoikoak egiñ dizkigun mesedeak, badaude oraindik beste batzuek andiangoak. Erori izan giñan Satanas’en mendean. Jaungoikoak atera ginduan aren mendetik, bere Semearen bitartez. “Ainbesteraño maitatu du Jaungoikoak mundua, dio San Juan’ek, nun eman dion bere Seme bakarra,” (3). Eta eman digu, ez bakarrik gizon egiñik, baizik eriotzarik saminenarekiñ illtzeko. Onezaz gañera etzan Jaungoikoa kontentatu, mesede aiñ andi

(1) Epist., III, 1.

(2) Rom., VIII, 17.

(3) Joan, III, 17.

auetan bere adiskedeai bakarrik parte emanik, baizik nai izan du eman bere etsaiai ere.

Jaungoikoak beste grazirik egiñ ezpailigu ere, ¿nola bear aiñbat esker eman-go genizkan onelako mesede bategatik? ¿Nola emango dizkiogu eskerrak gure Salbatzalle Jesus'i, bere gizon-egite, bizitza ta eriotzagatik?

Osorio'k esaten digu (1): “Norbaite-gandik asko artu badegu, esker on andiaz erantzun bear diogu; bestela esker-gabekotzat idukiko gaituzte. Jaungoikoak mesedez bete gaituan ezkerro, naita naiez galdetu bear diegu Dabid'ekin (2) geron buruai: “¿Nola erantzungo diot nik Jaungoikoari, egiñ dizkidan mesede ain andiakgatik?,” Baita Mikeas Profeta-rekiñ ere (3): “¿Zer eskeiñi nezakio Jaungoikoari bere diñako gauzarik?,” Edo Tobias gazteak esaten zuan bezela (4): “¿Zer emango diogu bere serbizioen berdiñik?,”.

(1) Conc. de Missa.

(2) Ps. CXV, 12.

(3) Mich., VI, 6.

(4) Tob., XII, 2.

Aditu ezazute zer erantzuten duan Dabid'ek (1): “Eskeiñi zaiozute zuen Jaungoikoari alabantzazko Sakrifizio bat eta zuzendu zaizkiotzute zuen erregu ta promesak zeru-lurren Jaunari,,. ¿Zein da Meza Santua ezpada, alabantzazko Sakrifizio au? Eta ¿nola emango dizkio-gu obeki eskerrak Meza Santua debo-zioz entzunaz baño? Meza Santua San Irineo'k (2) dionez, da, Jaungoikoari gure esker ona agertzeko jarri zaigun bi-de bat. Erakusle santuak esan nai du, guk geronez ezpadegu ezer zeruari es-keintzeko diña danik, Jesu-Kristo'k utzi digula Meza Santuan gure zorra paga-tzeko duiñeko doai bat.

Meza emateko liburuko itzak ere era-kusten digute, Meza Santua dala, eske-rrak emateko Sakrifizio bat. Eta ala apai-zak esaten du *Glorian*: “Alabatzen, be-deinkatzen, adoratzen, gloriatzen zaitu-gu, ematen dizkitzugu eskerrak zure gloria neurrigabekoagatik, Jaun eta Jaun-goikoa, zeruko Errege, Aita Guzialdu-

(1) Ps., XLIV, 14.

(2) Contra Haer., lib. IV, cap. XXII.

na„. *Prefazioan* dio: “Eman deizkagun eskerrak gure Jaungoiko Jaunari... Egiaz, gauza merezia, justu ta arrazoizkoa ta osasungarria da, guk zuri eskerrak ematea denbora ta leku guzian jo! Jaun Santu, Aita Guzialdun eta Jaungoiko Betikoa, Jesu-Kristo gure Jauna gatik...” Itz auetan adierazten dan alabantza aĩn da andia, nun gure ezpañak eziñ adieraziko luketen andiagorik.

Gogoan artu itzatzute ondo konsagrazioaren aurreneko itzak: “Artu zuan ogia bere esku santu ta beneragarrietan, eta begiak Zerura jasoaz, eman zituan eskerrak„. ¡O nere Jesus'en begi-jasotze gozoa, esker onezko ezagungarri eder eta berdiñik gabea! Zeiñ ederki ematen dizkiotzun gure ordañaz, guk eman eziñ geneizkion eskerrak! Jesu-Kristo gure Jaunak berritzen du Meza bakoitzean, Ostegun Santuz egiñ zuana. Jainkozko persona baten esker-emate au naita nai ez, neurri gabe andia da, berari jatorria ematen dion arena bezela. Asko degu esatea, Jaungoikoak arkitzen duala esker-emate onetan, neurri-gabeko satisfazio bat.

Zuen aldetik, Meza entzuten dezuten bakoitzean, zuen biotza ta borondatea elkartu itzatzute Jesu-Kristo'ren borondate ta Biotzarekiñ, emaizkiotzute eskerrak Jaungoikoari zuen indar guziakin, eta zuen esker onak diñidade andia goa izan dezan, eskeiñi itzatzute jauskiñi edo Biktima santuaren sentimenduak.

Zuen umetasunetik gaur arteraño beste gauzarik egiñ ezpazenuke, Jaungoikoak egin dizkitzuten mesedeakgatik berari eskerrak ematea baño, alare debozioz entzundako Meza bakar batekiñ baño gutsiago egingo zenduten. Oraindik aurrerago nua. Deituko bazeniete anima guziaz zuekiñ elkartzera, ta anima auek beren bizi guzian, emango baliozkate eskerrak Jaungoikoari zuen izenian, ez aien eta ez zuen esker onak balioko lukete Meza bat emateak adiña. ¿Zer diot? Zeruko aingeru ta santu guzien esker-ematea-re izango litzake askoz gutsiago, konparaziorik gabe.

¿Nai dezute jakin zergatik au oneladan? Gogora ezazute arako esaera jakikiñ ura; azkendunak eztuala konpara-

ziorik azken gabearekiñ, au neurri-gabe geiago dalako.

¡A nere Jaungoikoa, zeñ zorionekotzat idukiko ginduzkean geron buruak, ezagutu albageneza ondo, utzi diguzun tesoroa! San Paulo'k Korintioarrai itz egitean (1) eta zearka gizon guziai, esaten zuan: “Zuen izenian, eta denbora guzian ematen dizkat eskerrak Jaungoikoari Jesu-Kristo gandik artu dituzuten grazi guziakgatik; bada Beragatik zerate aberatsak gauza guzietan, eta etzaitzute falta doairik batere,,.

Meza santuarekiñ geregandu degu fortuna andi au, zeruko ondasun guziak emendik ateratzen ditugulako. Buru au bukatu baño len, esaten dizkitzuet Aita Señeri'ren itz auek: “Begira kristaua, zenbat zor diogun Meza Santuari, Jaungoikoari daukakiogun neurri gabeko zor guzia kitatzeko bidea berak eskuratu digulako. Sakrifizio Santuan Salbatzalleak bere jabe egiten gaitu, uzten dizkigu bere meritu azkengabeak, berarekiñ batean

(1) Cor., I, 4, 5.

eskeiñi, ta gure gain dagoan zor guzia pagatu dezaiogun,.

¡Izan zaite beti alabatua, nere Jesus ona, ni ta kriatura guziak gandik! Zure bitartez eskeintzen diozkat Irutasun guziz Santuari, gaur aldarean artzen dituzun alabantza ta esker-emateak eta munduaren azkeneraño artuko dituzunak. Erregutzen diet zeruko aingeru ta zori-
onekoai, beren esker-ona gurearekin elkartu dezatela, goitu, alabatu ta bedein-
katu zaitzagun bêtikotasun guzian.

AMALAU GARREN BURUA

Meza Santua da, mesedeak iristeko indarririk andieneko Sakrifizioa.

Jaungoikoak Moises'en legean ez bakarrik agindu zien Judioai, danerre edo olokaustoak eskeintzeko bere gloriarako, baizikan gañera agindu zien, eskeiñi zitzatela, lurreko ondasunak iristeko ta gaitzak aldentzeko, pakezko sakrifizioak. Pakezko edo erreguzko sakrifizioauek ziran indar guziz andikoak. Auen

bitartez Israel'ek iristen zituan bedein-
kazio ugariak eta grazi guziz estima-
garriak.

Eskritura Sagraduan (1) irakurtzen
degu, Filistindarrak meat̄satu edo ame-
nazatu zituztenian Israldarrak, ondatuko
zituztela esanaz, auek eskatu ziotela Sa-
muel'i, berakgatik erregutu zezala. Onek
sakrifikatu zuan bildots bat, eta eskatu
zuan Jaunaren laguntza. Berala zurkai-
tza sartu zitzaien etsaiari, igesari eman
zioten, eta ondatu ziran. Jaungoikoak
ebreotar erri berau izurriaz zauritu zua-
nian, Dabid'ek eskeiñi zuan sakrifizio
bat eta izurria ezkutatu zan. Liburu san-
tuetan arkitzen ditugu millaka beste ora-
ziozko ejemplo asko erakusten digutē-
nak, nola Jaungoikoak sakrifizio auen
bitartez, aditu izan dituan gizonen onēan,
egiñ zaizkan orazioak. Jaungoikoak ju-
dioari eman bazien indar aiñ andiko al-
derdi bat, ¿nola dudatu diteke, kristauak
artuko ez otezuten beste bat, oraindik
indar andiagokoa, animako ta gorputze-
ko ondasunak iristeko ta mundu oneta-

(1) I, Reg., VII, 7 - 11.

ko ta besteko atsekabeak aldentzeko? Bildots bat eskeintzen zioten aiei mesede aĩn ugariak egin bazizten, ¿nola eztingu egingo guri edozeĩn mesede, gugatik sakrifikatu zan mant̃sa gabeko jauskiĩi edo Biktima, jainkozko Bildotsa, eskeintzen badiogu?

Lege zarrean sakrifizioak askoak ziran, eta aietako bakoitzak zeukan bere rito edo zeremoni aparta. Eleizak bat bakarra dauka, eskeintzen du bera ingurune edo zirkunstantzia guzietan, eta bere idurian aĩn pobrea dalarik ere, iristen ditu, judioak beren andianta edo ponpa guziarekiĩi iristen zituzten baĩo mesede andiagoak.

Trento'ko Konzilio Santuak (1) erakusten digu Meza Santua eskeiĩi ditekela intentzio askotarako: "Norbaitek esango balu, Meza Santua dala bakarrik alabantzazko edo eskerrak emateko sakrifizio bat, edo Gurutzeko sakrifizioaren iduri uts bat, eta ez iraper edo propiziazioko sakrifizio bat, edo ta esango balu, bakarrik on egiten diola komulga-

(1) I. Sess. 22, can. 3.

tzen danari, edo eziñ eskeiñi ditekela biziak eta illakgatik, pekatuakgatik, penakgatik, satisfaziotzat, eta beste premiakgatik, eskumikatua edo exkomulgatua izan dedilla,,. Itz auek dira fedeko artikulo bat. Beragatik dudarik gabeko gauza da, Meza eman ditekela gauz askotarako, ta bere bitartez iristen ditugula modu askotako mesede ugari. Entzun edo atera nezake, Jaungoikoaren gloriandiagorako, Birjiña guziz Santaren atsegiñ andiagorako, aingeru ta santuen onran, nere salbaziorako, nere osasuna gordetzeko edo iristeko, gaitzetik aldentzeko, nere pekatuen barkazioa, bizitza ontzea, ta eriotza on bat iristeko. Au guzia eskatu nezake kristau guziakgatik batera, ta baita nere senide ta adiskideakgatik ere; baita purgatorioko animak andik ateratzeagatik ere.

Erakusleak agertzen digute, Sakrifizio onek daukan balioa, pekatuen barkazioa iristeko. "Da, esan diteken eragilleena, dio Mart̃ant'ek (1) Jauskiñi edo Biktimaren diñidadeagatik; eta asko izanaga-

(1) Candel. myst., 2-4, lect. 5, prop. 3.

tik, grazia ta mesedeen eske dijoazenak, Jaungoikoak guziaz ematen die eskatzen dutena. Guziak irit̃siko dute eskatzen duten bezela, bada izanik Jesus sakrifikatzaile nagusia, bere eskeintza edo ofrenda, da, Aita Jaungoikoaren guziz gogokoa, ta eskeiñitako merituak dira neurrigabeak, bere Pasio, Odol eta zauriak neurrigabeko birtutea daukatelako.

San Lorenzo Justiniano'k esaten digu ori bera (1): “Eztago Mezako sakrifizioa beziñ probet̃sugarri, andi ta Jaunaren gogoko dan Sakrifiziorik, bada emen eskeintzen zaizka berriro gure Bitartekoaren merituak. Meza ematen duan apaiak eta entzuten dutenak, jartzen badute bere begien aurrean Pasio ta eriotza samĩn au, beren erreguak nai-ta nai-ez entzungo dira,,.

Meza Santuaren bitartez ematen degu artu aldeakeguna baño geiago. Beraz eztegu izan bear, gure erregua ontzat artu etzaigun beldurrik. Eskatzen badegu gauza egiñen bat, eskeintzen degu Jauskiñi edo Biktima jainkozko bat.

(1) Serm. de Corp. Christi.

Izanik Jaungoiko gure Jauna, beragatik ematen dan baso ura ere sari gabe uzten eztuana, ¿nola aiñ prestua izanik, ontzat eta gure alde artuko eztitu gure erre-guak, debozio andiaz aurkezten diogun-ean, bere Semearen Odolarekin, jain-kozko Odol, guretzat grazia ta errukia eskatzen duan orrezaz betetako kaliza?

Azkeneko afarian esan zuan gure Maisuak (1): “Egi-egiaz esaten dizuet: nere Aitari nere izenian eskatzen diozu-ten guzia, emango zaitzute,,. Semearen izenian eskatzeko instanterik egokiena da, Jesus gugatik illtzen dala, Aitaren begien aurrean aurkezten danekoa.

Sakrifizio Santuaren indarra agertze-ko, San Buenabentura’k esaten digu: “Printzipe bat prisiondegian dagoenian, diru asko eman bear du andik aterako bada. Egiñ dezagun al guzia Salbatzalleak utzi ez gaitzan, guk berari pekatuen bar-kazioa ta zeruan sartzea eskatu gabe,,. Emen berritu bear ditugu Jakob’k ain-geruari esan ziozkan itzak (2): “Ezti-

(1) Joan., c. 16, v. 23.

(2) Gen. XXXII, 26.

zut utziko juaten bedeinkatu nazazun arte„.

Meza bitartean konfiantzaz egiten dan erregu batekin zenbat iritši ditekcan, erakusten digu ondorengo gertaera onek:

Kaputšino'en Kondairan irakurtzen danez, 1582 garren urtean, bazegoan Spello'n emakume on bat, eta bere senarrak itzez eta egiñez ematen zion bizimodu oso tšarra. Bizimodu negargarri onetan urte batzuek igaro ta gero, bere anima arkitzen zan desesperazio bat egiteko zorian. Egun batian bi kaputšino, Laktanzio ta Franzisko Murzia'tar anaiak, eldu ziran bere etšera limosna eskatzera. Emakume gaišoak, negar egiñaz, esan zien bere zorigaitza. Erljio-soak egiñ zuten al-guzia emakume ura konsolatzeko, ta esan zioten entzun zezala Meza egunero bere atsekabeak elkartuaz beragatik ill zan Salbatzallearenakiñ; eta senar gaiztoa ziur onduko zala. Estimatu zien emakumeak, esan ziotena ta baita agindure ala egingo zuala; eman zien limosna, ta juan ziran. Baña senarrak etzion utzi Mezatara juaten aste gu-

zian. Naigabe andia artu zuan emazteak kaput̃sino on aien konsejuak ezin jarraitu izateaz. Denboraren baten buruan senarrak juan bear izan zuan bidaje luze batera, ta bitartean bere eskuan zeukan Meza entzutea, nai zukean bezela. Entzun zuan debozio andiaz beragatik eta bere senarraren biotz gogor ura bigundu zediñ, Jaunari erregutuaz. Goiz batean, ustez-uste gabe, senarra et̃sera biurtu zan, eta galdetu zuan; ¿nun da nere emaztea? Elizan, erantzun zion neska-meak, eta egunero juaten da Meza entzutera. Au aditzean, sutu zan asarre bizian. Emaztea biurtu zanean, esan zion ill egiñ bear zuala, ta esan eta egiñ, oratu zion lepotik itotzeko ustean. Estutasun larri onetan emazte gaiñoak eskatu zion laguntza Jaungoikoari Meza Santuaren merituagatik. Ordu bertan Jaungoikoak bialdu zion biotz gogorreko senar ari perlesizko gaitza, ta eziñ izan zuan eraman aurrera bere asmo t̃sarra, ta ezta aldendu ere bere eskua emaztearen lepotik. Bere eziñak geitu zuan bere sua, sorginkerizko gauzak zirala

uste zuala, ta geitu zituan bere gaizki-
esateak ere. Alare bere bizikai edo mien-
broak gero ta gogorrago jartzen zijoazen,
eta bearturik ikusi zan gertaera aiñ apart
onetan ezagutzera, au zala zeruko zigo-
rrada bat. Azkenik damutu zan bere pe-
katuaz, eta itz eman zion bere emazteari,
zuzenduko zala, berak osasuna iristen
bazion. Lenbizian dudatzen zuan, ziñez
ote zebillen, pentsatuaz, obe zukiala idu-
kitzia, perlesidun senar bat, biotz gogo-
rreko borrero bat baño. Baña egiaz da-
mutua zegoala ezagutu zuanean, elkartu
zituan bere erreguak senarrarenakiñ eta
Jaungoikoak ontzat artu zituan, kastigu
gogor onek ekarri zituan ondoren onak,
bada egiñ zuan bizitza berri bat, ez ba-
karrik bere emaztearentzat ona izaten
zala, baizik baita andik aurrera oni Eli-
zara, maiz lagundu, ta Meza entzutera
joaten zalare.

“Jaungoikoaren aiñ gogoko ta abera-
tsa dan Meza Santuaren bitartez, iritși
dezake gizonak Jaungoikoagandik, Bir-
jiña guziz Santagandik eta Santu guziak-
gandik salbatzeko bear duan guzia. Ez-

tago ezer ere au baño oberik,, dio Molina'k. Eta onenbesterekiñ uste degu azaldu degula oso argiro egi au.

Meza Santuan eztegu guk bakarrik erregutzen, baizikan gurekin eta gugatik erregutzen dute apaizak, aingeruak eta Salbatzalle berak ere. Orain bada emen aditzen ezpazaigu, ¿noiz, nola ta nun adituko zaigu? ¿Nola ezte Jaungoikoak aditzen beti Meza Santua eskeintzen diotenai? Santa Jertrudis'en galde oni erantzun zion Jesu-Kristok: “Aldiren batzuetan aditzen ezpaditut zure erre-guak, au gertatzen da, probet̃sugarriago zaitzun beste gauzaren bat ematen dizudalako, bada zure argaltasunagatik eziñ jakin eta ez ezagutu zenezake, zer dan ondoen dagokizuna,, (1).

Beste aldi batean santa onek berak esaten zion Salbatzalleari: “¿Zer balioko diote nere adiskideai nere erre-guak, fruturik batere iristen ezpadek? (2). Jaunak erantzun zion: “Etzaite arritu zure erre-guaren frutuak ez ikusteaz, bada nik zu-

(1) Lib. III, Rev. 33.

(2) Lib. III, Rev. 3, c. 3, § 15.

zentzen det guzia, jakiñduri ulertu ezin diteken baten bidez; ala ta guziz ere zaudete ziur, zenbat eta geiago eskatzen duan batek, ainbat eta zori obekoa izango dala bera, bada *ondo* egindako erregurik ezta geldituko batere frutu gabe, ta nere graziaren bidea da bide ezkutu bat,,. ¡Eranztute pozgarria! Salbatzalleak esaten badigu, ez tala izango alperrik, deboziaz egindako erregurik, obeki esango degu, ez tala izango alperrikako Mezarik, aundalako erregu danien artian onena. Baña begira kontuz, Jesu-Kristok esaten digunari: "*Egiazko* erregurik ezta bat ere geldituko frutu gabe,,. Egiazko erreguada, konfiantzaz egiten dana. Konfiantza gabe erregutzen duanak, gutsi iritšikodu, edo baterez, ondorengo gertaera onetan argiro ikusiko degun bezela.

Surio'k esaten digunez, Kotull'ko gazteluaren inguruetan erori ziran larrapote edo langosta pilla andiak, kosetsatan eta arboletan kalte andiak egiñaz. Erri guzia juan zan Seberino abad santuagana, erregutuaz, eska zezaiola Jaungoikoari, azoteura gelditzeko. Errukiturik erlijiosoa, bildu zuan erria Elizañ, eta egiñ zien.

itzaldi bat, aginduaz penitentzia ta otoitz egiteko. Bere itzaldia bukatzean, esan zien: “Eztet ezagutzen Meza Santua bano otoitz oberik. Zuen intentziora ematera noa. Zuek ere nerekiñ batean eskeiñi ezazute Sakrifizio santua, zuen konfiantza guzia beragan ipiñiaz„. Erri guziak jarraitu zuan konsejua, gizon bat bakarrik gelditzen zala jarraitu gabe! Onek esan zuan burlaz: “¡A gizajo buru gabeak!; munduko Meza guziak entzun eta egun guzian otoitzian bazaudetere eztezute iritsiko lurrapote edo langosta bakar bat ere aldentzerik„. Beste lagun guziak an utzirik, juan zan bere lanera. Gañerakoak, apaizarekiñ debozio andian elkaturik, eskatzen zioten Jaunari, aldendu zezala azote ura. Meza bukatzean, guziak juan ziran beren lurretara. ¡O zer milagroa! Larrapote edo langosta guziak egatu ziran. Gizon sinismen gabea oso ikara-ikaraturik, ikustean aireak barruna zijoazela, etzekian, zer kastigu izango zuan berak; bano laster jakiñ zuan. Kristau on auek Jaungoikoari eskerrak ematen ziozkaten bitartian, larrapote edo langosta pilla on-

datzallea erortzen zan bere lurren gañera. Ezaguturik orduan bere ondamendia ta urreratzen zitzaion miseria, deitu zion zeruari, baña alperrik. Mamurru gaizto aiek etziran aldendu kosetsa guzia ondatu arte.

Gertaera onek bi gauza erakusten dizkigu: Meza Santuaren indarra ta ura despreziatu ta arzaz burlatzen diranentzako kastigua. Fedegabeari jarraitzea utzi, ta jarrai diozagun fedegun erri ari, ta iduki dezagun konfiantza osoa Sakrifizio santuan.

Aditu ditzagun San Paulo Apostoloak egiten dizkigun dei andiak (1): “Zoazte lasterka, konfiantzaz beterik, graziaren tronuaren aurrera, errukia an artu, ta laguntza iritși dezazuten zuen premietan.”. ¿Zeiñ da graziaren tronu au? Ezta zerua, bada eziñ igo gindezke arañõ; ezta testamentu zarreko kutša edo aliantzako arkare, bada au zan bakarrik iduri bat: da aldarea, onen gañean Jaungoikoaren Bildotsa sakrifikatzen dalako; aldarea, onen gañean Berak bere bizia eskein-

(1) Heb., c. IV, v. 16.

tzen dualako, grazia ta errukia iristeko. Eztezagun utzi egunik, bear ditugun laguntzen billa graziaren tronu onetara juan gabe. Baña ezgaitezen urreratu konfiantzaz beterikako debozio andi bat gabe, gogoratuaz, eztañ justiziaren lekua, baizik errukiarena. Esan dezaiogun Jaungoikoari: “Ona emen ni, jo Aita guziz ona! Meza Santua ematen dan bitartean, nator zure graziaren tronura barkazioa ta laguntza eskatzera. Sakrifizio Santu onetan dauzkat nik esperantza askoak Jauskiñi edo Biktimaren balioa neurrigabea dalako. Uste det egingo didazula eskatzen dedan mesede au, zure gloria ta nere salbaziorako ondo datorren mesedea dalako,,.

AMABOSGARREN BURUA

Meza Santua da Sakrifiziorik altsuena Jaungoikoarekiñ pakeak egiñ eta pekatuen zorra pagatzeko.

Arrazoiak erakusten digu, bere gaiztakeriagatik pekatua aiñ griñaturik dagoan gizonak, pekatuen zorra pagatzeko

sakrifizioak eskeiñi bear dituala. Patriarkak ezagutu zuten egi au, Moises'en legea baño askoz lenago. Eskritura Sagraduan (1) ikusten degu, Job santuak asteero deitzen ziela beragana bere semeai, ta garbitzen edo purifikatzen zituala, dannerre edo olokaustoak berakgatik eskeiñiaz. “¿Nork daki, esaten zuan, nere semeak utsegiteren bat egiñ ote duten, edo beren biotzen barruan Jaungoikoa ofenditu ote duten?,” Antziñako patriarkagan oitura bat zana, biurtu zan lege Moises'en agintepean (2): “Pekaturik iñork egiñ badu, eskeiñi dezala ardi bat edo auntz bat, eta sazerdoteak erregutu dezala beragatik eta bere pekatuagatik. Ardi edo auntzik eskeiñi eziñ badu, usatortolatso edo usakume bi eskeiñi ditzala, bat pekatuagatik, eta bestea, dannerre edo olokaustoagatik... Sazerdoteak erregutuko du gizon onegatik eta bere pekatuagatik, eta pekatua barkatuko zaio.”. Ala agindu izan zuan Jaunak.

Testamentu zarrak, Berriaren itzala

(1) Job., I, 5.

(2) Lev., v. 6, 7.

baño ez izanik ere, onelako sakrifizio bat bazuan, arrazoi geiagorekin Elizak idukiko du berea Israel'goa baño ohea, Kristo'ren legea Judioena baño ohea dan bezela. Gurutzeko sakrifizio odoleztuak dauka dudikgabe neurrigabeko birtutea, pekatuak barkatzeko. Da munduaren erdian eta denboraren azkenetaraño jaiotzen dan barkaziozko iturri bat, eta bakoitzak atera dezan, edo obeki esateko, bakoitzak iduki dezan, berea balu bezela, Jaunak ipiñi zuan sakrifizio berri bat, Trento'ko Konzilio Santuak argiro erakusten duan bezela (1): "Gurutzeko aldarean Jesu-Kristo bere Aita Jaungoikoari eskeiñi bazitzaion ere, sufritu zuan eriotzaren bitartez, denbora guzietako gizonak erredimitzeko, (nola bere eriotzarekin etzan amaitzen bere sazerdozioa) azkeneko Aparian saldua izan zan gau artan bertan, bere Esposa Eliza Santuari utzi nai izan zion, ikusi ziteken sakrifizio bat, Gurutzean beiñ eskeintzera zijoan sakrifizio odoleztuaren oroipenean, eta egiñ zuan modua,

(1) Sess. XXII, c. 1.

oroipen au denboren azkenetaraño luzatzeko, ematen ziola oni, egunero egiten ditugun pekatuak barkatzeko birtute osasungarria, aitortuaz, egiten zala Bera sazerdote Melkisedek'en ordenaz bat, betikotasun guzirako: eskeiñi zizkion bere Aitari ogiaren eta ardoaren iduripean bere Gorputza ta Odola; janari ta edari auen iduripean eman zitzaien bere Apostoloai, egiñaz berak orduan Testamentu Berriko sazerdote, ta agindu zien aiei, ta aien ondorengo sazerdoteai, egiñ zezatela sakrifizio ori bera, esaten ziela: "Egiñ ezazute au nere oroipenean," eta ala egiñ izan du beti Eliza katolikak,,. Kontzilio Santuak esaten du, Jesu-Kristo Gure Jau-nak iduki zuan motiboa, zala, uztea bere Esposa Elizari begien bistako sakrifizio bat, onen bitartez jarraitu zezan ark, Gurutzeko sakrifizioa eskeintzen, eta onen kidez gizonak iritzi zezaten eguneroko beren utsegiteen barkazioa. Mezaren erregu ta zeremonieak erakusten dute argiro, Meza pekatuen barkaziorako dala. Asieran esaten du apaizak *Confiteor*, iru aldiz bularra joaz; gero Meza-

laguntzalleak erriaren izenian egiten du ori bera. Bereala apaizak esaten die Meza entzuten daudenai: “Jaungoiko Guzialdunak iduki dezala zuen errukia, barkatu deizkitzutela zuen pekatuak, eta eraman zaitzatela betiko bizitzara„. Bereala egiten du beregain Gurutzearen señailea, esanaz: “Jaungoiko Guzialdun eta errukitsuak pekatuetatik libratu gaitzala ta barkatu deizkigula„. Bigarren aldiz eskatzen du Jaungoikoaren errukia, *Kirie eleison* esanaz. Eta, *Agnus Dei* esatean ere eskatzen dio Jaungoiko justu ta errukitsuari gure pekatuen barkazioa. Eziñ azaldu diteke argiroago, Meza Santua dala pakeak egiteko sakrifizio bat.

Jesu-Kristo gure Jaunak artu zituan bere gain mundu guziaren pekatuak, eta “guk jartzen ditugu bere gañean Mart̃ant’ek guziz ederki dion bezela (1), sakrifizatzerá daramaten jauskiñi edo biktima baten gañean bezela, gure pekatuen karga, oien zorra gure ordañez berak pagatu dezan„. Arrazoi onengatik

(1) Candel. myst., tract. IV, lec. 15, § 4.

Mezaren asieran apaiza aurkezten zaio Aita Betikoari, gizonen zor guziakgatik erantzun bear duanari dagokion umilltasunarekiñ. Oso makurturik, da Jetsemaniko baratza santuan, auspezturik, arpegiaz lurra jotzen duala, odolezko izerdiz bustirik, gure gaiztekeriaz esturirik, oien barkazioa eskatzen dagoan Jesu-Kristo'ren iduri bat. Onela erre gutzen du apaizak Jesu-Kristo'ren lekuan, guretzat barkazioa eskatzen duan denboran, bere utsegiteena ere eskatzea baizik beste diferentzia gabe. Artu itzatzu ondo gogoan, pekataria, itz auek, batez ere Meza Santuan, bada emen ikusten dezu, zure pekatuak zure Jaungoikoaren Odolarekiñ barkatzen dirala.

Utsi degiegun oraiñ Santuai itz egiten. Santiago Apostoluak bere mezatako zuzende edo liturjian esan erazitzen dio apaizari Mezan otoitz au: "Guk eskeintzen dizugu, o Jauna, sakrifizio odol-işurtzegabeko au gure pekatuakgatik eta erriaren jakiñeztasunakgatik,,. Au da zearka esatea, egiten ditugula, gure animaren argaltasunak ezagutzea ta aitortzea eragozten digun utsegiteak, eta ala-

re oiekgatik eman bear degula ordaiñsaria, ta kontu artuko zaigula. Dabid'ek dio (1): “Etzaité, Jauna, oroitu nere pekatuaz eta nere gaztetako jakiñeztasunaz,,. Beste leku baten esaten digu (2): “¿Nor da bere utsegiteak ezagutzen dituana? Garbi nazazu, neronek ezagutzen eztitudanetatik eta gorde ezazu zure serbitzaria gaiztakerizko pekatuetatik,,. ¡Guziz andia da Meza entzuteko daukagun premia, arkitu ez gaitezen ustezuste gabe ta samiñkiro, neurrigabeko zorrez beterik Jaungoikoaren aurrean! Ona emen Martšant'ek zer erakusten digun (3): “Meza Santuak, dio Erakusle onek, mugitzen gaitu geienbat, ezagutzen eztitugun pekatuen damutasunera,,. “Justuak eztauka, ezagutzen dituan pekatuen beldurrik, konfesatu ta kendu ditualako,, esaten digu San Gregorio'k; “ikara ematen diotenak, dira, ezagutzen eztituan utsegiteak; auen gañian itz egi ten die San Paulo'k Korintoarrai (4):

(1) Ps. XXIV, 7.

(2) Ps. XVIII, 13.

(3) Candel. myst., t. IV, lect. 13, pr. 4.

(4) I Cor., c. IV, v. 4.

Nere kontzientziak eztit ezer ere arpe-
gira ematen, baña ala ere eznago ondu-
rik, bada nere Jueza da, illunbetan ez-
kutaturik dagoanare argitaratzen duan
Jauna, ta argitaratuko ditu biotzen pen-
tsamentu iñillikakoak,„.

Juizioaren beldur au arindu dezakegu
Mezako Sakrifizio Santuaren bitartez,
bada aitortuaz emen Jaungoikoari apai-
zarekiñ batean, konfesioan aitortu eziñ
izan ditugun desleialtasunak, iristen de-
gu barkazioa. Eziñ utzi dezakizuet ager-
tu gabe Elizaren egiazko dotriña (1):
“Mezako sakrifizioa da egiaz Jaungoikoa
gure alde jartzeko sakrifizio bat, eta onen
bitartez iritšiko degu errukia ta bear di-
tugun laguntzak, eskatzen badizkiogu
Jaungoikoari biotz zuzen eta egiazko fe-
dearekiñ, beldur eta errespetoarekiñ,
kontrizio ta damuarekiñ. Paketurik egiaz
sakrifizio onen bidez, Jaunak ematen du
grazia, ta penitenziako doaia, ta barka-
tzen ditu pekaturik andienak ere,„.

Benturaz, pentsatuko dezute: ¿Zerta-
ko da pakeak egiteko sakrifizio bat, kon-

(1) Trid. sess. XXII, cap. 2.

triziozko damu egiazkoaren bidez Jaungoikoarekin pakeak egiñ al baditzakegu? Kontriziozko damuak egiaz Jaungoikoaren grazian jartzen gaitu. Baña ¿nola artzen du pekatariak damu au? Illdako bat bere borondatez piztu eziñ diteken bezela, ala pekatariak ere berez eziñ irit̃si dezake Jaungoikoaren grazia. Jakiñ bedi, sermoi on batek edo irakurtze on batek anima mugitu badezake, mugitze au dala grazia bereš bat, Jaungoiko aserratuak, bakarrik eman oi duana, arreta andiaz eskatzen zaionean. Bere grazien tesoroa idikitzeko, eztago aldareko Sakrifizio Santua baño giltz oberik. Aitarren justizia zorrotza amore ta erruki biurtzen da.

Ezagutuko dezute, zein erreza dan Meza Santuaren bidez barkazioa iristea, gogoan artzen badituzute, Jesu-Kristo Gure Jaunak Santa Jertrudis'i esan ziozkan itzak (1): Ostegun Santu zan laudeetan ondorengo itzak kantatzen diran eguna: "Bera izan da eskeiñia, alaše nai izan dualako,," "Zuk sinisten badezu,

(1) Lib. IV, c. XXV.

esan zion Jaunak bere serbitzari leialari, nai dedalako izan naizala Gurutzean eskeiñia, sinistu ezazu modu berean, oraintse ere nai dedala nik nerau, pekatari bakoitzagatik nere Aita Jaungoikoari eskeintzea, orduan gizonen salbazioagatik eskeiñi nintzan amorio berarekiñ. Ala, eztago pekataririk, danik eta andienik ere, barkazioa iritshi eziñ lezakeanik, eskeintzen badizka nere Aita Betikoari nere Pasioa ta eriotza, onela iritshiko duala, sinisten badu, .

Beste aldi batean esan zion Jesus'ek Santa Mechtilde'ri: "Nere alaba; alako mantsotasunarekiñ etortzen naiz Mezara, nun eztagoan Meza entzuleen artean pekatari bakar bat, danik eta gaiztoena bada ere, nik gogo onez barkatuko eztiodanik, . Ikusten dezute nola Jesu-Kristok eztuan beragandik botatzen pekataria, bere etsaia izanik ere, baizik guziz bestera, begiratzen diola gozoro, ta luzatzen dizkala bere besoak; eta bere damuzko lenengo suspiruan bereala barkatzen diola.

Antziñako Aiten bizitza deitzen dan liburuak erakusten digu Jesus'en biotz

sagradu amodiotsuak pekatariakiñ egiten duana, ondorengo ejemplo onetan: San Paulo eremutarrak izan zuan Jaungoikoagandik, gizonen pentsamenturik ezkutatuena ere ezagutzeko grazia. Igandetan jartzen zan Elizako atian, eta bakartarrak bere aurrean igarotzen ziranian, ikusten bazuan aietakoren bat pekatuz zikindurik, aditzen ematen zion, eta erregutzen zion, penitentzia egiñ zezala. Egun batean, oitzen zuan lekuan zegoala, eldu zan gizon bat, arpegia ta gorputza beltzak zituana; deabru bazuek laguntzen zioten, eta katez loturik arrastaka zeramaten ala alde batera nola bestera. Bere aingeru guardakoak jarraitzen zion urrutitik eta oso triste. Gauza ain beldurgarria ikustean, Paulo asi zan negar egiten samintasun andiaz, Jaungoikoak adierazirik, estadu artan ikusi zuan gizon gaiño arganako errukiz. Elizakoa egiñ eta jendea ateratzean, juan zan arretaz pekatariaren billa, eta arkitu zuan, argi egiten zion arpegiaz, aingeru guardakoa guziz urrean zuala, ta deabruak urrutitik jarraitzen ziotela. ¡O zeñ andia dan Jaungoikoaren ontasuna! deadar

egiñ zuan Paulok, beregandik irtenik, jo Jaungoikoaren errukiaren misterio ondogabea! Atozte Jaungoikoaren ontasunaz arritzera; atozte nere anaiak, eta esango dizuet zer gertatu dan. Ona emen gizon bat, elizan sartzean beltz, eta deabruz inguraturik ikusi dedana, eta oraiñ, ateratzean, beste bat egiñik eta guziz ederturik, aingeru guardakoaren babes edo anparuan dagoana. Gero arrotzagana biurturik esaten dio: Emaiozu gloria Jaungoikoari ta esan zaiguzu zure kondaira. Denbora askoan loikerian bizitu naizen errukarri bat naiz, erantzun zuan gizon ark. Oraiñ instante bat len̄seago, Epistolari, Isais profetaren itzak biotzean ukitu didate (1): “Garbitu zaitezte, alden du ezazute nere begietatik zuen pentsamentuen gaiztakeria; utziozute gaizki egiteari... Zuen pekatuak besuteoa edo eskarlata bezelakoak balirare, elurra beziñ zuri biurtuko dira,, eta suspiru egiñaz, esan nion Jaungoikoari: ¡O nere Salbatzallea! Pekatariak salbatzera mundura etorri zeran ezkerro, kunplitu eza-

(1) Is. XVI, 18.

zu agindu dezuna, aldendu nazazu gaitzetik, salba nazazu. Pentsamentu au ta beste onelako asko etziran aldendu nere burutik Meza guzian. Agindu nion Jau-nari, onduko nintzala, ta erregutu nion, egiñ zegidala mesede barkatzeaz, eta ordu orretatik bere semetzat artzeaz.

Gendeak, au aditzean, deadar egiñ zuan: ¡Jauna, zure obrak arrigarriak dira! Mezako Sakrifizio santuaren bitartez biurtzen dituzu pekatariak zugana, ta graziaz betetzen dituzu. Guk ere esan dezakegu: ¡O Meza Santua, zeñ andia dan zure indarra! Zenbat gaizkille alden-du dituzu infernuko bidetik! ¡Zeñ esker ona agertu bear diogun birtute aiñ andiko Sakrifizioa, utzi digun gure Salbatzalle onari! ¡Zeñ utsunedunak ziran lege zarrekoak! Eziñ garbitu zezaketen anima pekatuaren mantsa batetik ere, bada “eziñ diteken gauza da, San Paulo Apostoluak dionez (1) zezenen eta akerrren odolaz pekatuak kentzea,,.

Ikusi dezagun oraiñ nola Meza Santuak pekatari gogortuak Jaungoikoagana

(1) Heb. X. 4.

biurtzen dituan. Santo Tomas'ek erakusten digu (1), Meza Santuak Jaungoikoarekin adiskide egiten gaituala: "Meza Santuari dagokion ondorena da Jaungoikoarekin gu adiskidetzea,,. Eta au adierazteko jartzen du berdiñkuntza edo konparazio bat. "Gizonak barkatzen du, egiñ zaion gaizkia, gaizkilliak egiten badio zerbait, bera onratzeko, edo beste mesede andiren bat. Era berean Jaungoikoak barkatzen digu. Meza Santura juatean ematen diogun onragatik, eta Jesu-Kristo Gure Jaunaren Gorputza ta Odola eskeintzian, ematen diogun doai miragarriagatik,,. Dotriña au oso ondodator Eskritura Sagraduak erakusten degunarekin. Jakob'k bere anai Esau'ren beldurrez, oni semenagusitasuna ta aitarren bedeinkazioa kendu zizkiolako, esaten zion bere buruari (2): "Bialduko dizkat erregaloak eta ustedet, barkatuko didala,,. Eta egiaz, bialdu zizkan ganbeluak, astuak, idiak, beiak, eta orrela palakatu zuan bere asarrea. ¡O kristaua!

(1) Part. 3.^a, q. 49, art. 4.

(2) Gen. XXXII, v. 20.

Mezatan eskeintzen badizkatzu, arrazoiz zurekin asarraturik dagoan Jaungoikoari, bere Semearen birtute, pasio ta eriotzaren merituak, ¿nola eztezu mugitukoaren biotza, Jakob'k bere anaiarena mugitu zuan baño askoz obeki, zure doaiak balio badute beste kriatura guziak baño geiago? Zure pekatuak bengantza eskatzen badute, Jesus'en odolak errukia eskatzen du. "Asarre ta irain guzia ezkutatzen da, eskeintzen diran doai oien aurrean,, dio Alberto andiak.

Aurrera jarraitu baño len, erantzungo diogu ondorengo galdeera oni. Meza Santuaren birtutez, pekatari damutu gabeko bat, ¿gelditzen alda Jaungoikoaren adiskide egiñik? Beste modu baten esateko: Pekatu larri edo mortalian dagoan persona bat, Meza entzuten, edo ateratzen duala, onekiñ bakarrik ¿jarriko litzake Jaungoikoaren grazian? Ez; egiazko damuarekin bakarrik grazia iristen dalako.

Ori orrela bada, galdetuko didazute: ¿zer frutu ateratzen du pekatariak Meza Santutik? Guziz probetŕugarri zaio, ala gorputzerako nola animarako, esan eziñ

al ainbat gaitzetatik aldendu, ta milla bendizio beragana erakartzen dizkalako. Baso bat ur utsaz aztutzen eztan Jaungoikoak, ¿utziko du sari gabe bere Semearen sakrifizioa?

Onelakoan eztu gizonak irit̃siko graziazko saririk, bere prestaera t̃sarragatik merezi eztualako, baña Jaungoikoak bere ontasun andiagatik egingo dizka mesedeak lurreko gauzatan, eta aldenduko ditu beragandik, etorri bear litzaizkion gaitz asko.

Baña alare askoz probet̃sugarriago zaio animako gauzetarako. Teologoak erakusten digute, erakartzen duala animara bere pekatuak ezagutu ta gorrotatzeko bear duan grazia; prestatzen du damu ta penitentziarako, grazi onek guzietan indar berdiña ezpadure Aita Rhodes'koak esaten digun bezela (1), grazia onek egiten duana ezta gizon guzietan berdiñ azaltzen. Bat onduko da laster, bestea nekez, graziari bakoitzak erantzuten dion leialtasunari dagokion ainbatean.

(1) Disp. I de Missa, part. 3.^a, lect. 1.^a

Alata guziz ere, pekatariak bere libertadeaz gaizki usatuaz graziari atzera eragiten badio ere, eziñ eragotzi lezake, Meza Santua berez pakezko sakrifizio bat izatea. Eliza Ama Santak erakusten digu argiro (1): “Norbaitek esango balu, Mezako Sakrifizio santua ez tala irapergarri edo propiziatorioa, exkomulgatua izan dedilla,,. Adiskidetzeko sakrifizioa deitzen zaio, Jesu-Kristo Gure Jaunaren merituagatik laguntzen diolako pekatariari, bere pekatuak ezagutu ta aiezaz damutzen. Laguntza au egiten die, Meza entzuten dutenai; ori gabe, bere al-izate edo poderea, elitzake izango persona on batek, pekatari baten salbazioagatik eskeñiko lukean edozeiñ obra on batena baño geiago. Gañera, berealatik ontzen ezpadu ere, kentzen dizka ondutzeko eragozpenak, Mediku batek gaiñoarekin egiten duan bezela, emanaz, sendagai, osasuna berealatik ezpadare, poliki poliki erakarriko diotenak, Kristok Gurutzearen gañean prestatu zigun sendagai estimagarri au, bere sufrikizun malako ta

(1) Trid. Sess. XXII. can. 3.

odolaz egindako balsamo osasungarri au, gure zauri illkorren gañian jarri ta oiek sendatzeko. Pekatariak usatzen badu sendagai onezaz, seguru sendatuko da, baña bere deabruzko gaiztakerian, kentzen badu zauritik, betiko eriotza izango da onen ondorena. Gizonen gaiztakeriak eztio kentzen Sakrifizio santuari onek adiskidetzeko daukan birtutea: kalbarioan arkitu ziran pekatarien artetik, batzuek bakarrik Jaungoikoagana biurtu ziran, beren bularrak jo ta esanaz: "Gizon au Jaungoikoaren Semea zan egiaz.". Besteak, gogorturik beren gaiztakerian, etzioten utzi sartzen beren biotzetan gure Jesus guziz maitearen Biotzetik irtezen ziran argi ta errukizko errañuai, baña alare Espiritu Santua apostoluetara jetși zan egunian, San Pedro'ren sermoiaren ondorean, beren animak prestatu rik zeudenak, biurtu ziran Jaunagana, ta iru milla persona sartu ziran egiazko fedean, Salbatzallearen ikasle egiten zira la.

Nik jakiten dedanean, pekatari bat bide onean sartu dala, uste izaten det beti, berak entzun edo atera, edo bestek

beragatik entzun edo atera dituan Mezen birtutez gertatu zaiola ori. “Meza Santuak, eskribitzen du Martšant’ek, mugitzen gaitu damutasunera edo sortzen du gugan damutasunaren deseoa. Au gertatzen da batzuetan, Meza ematen dan bitartean; beste batzuetan beranduago. Pekatari asko bideonerátzen dira grazi aparteko baten bidez, berak ezagutire gabe, grazi au aldareko Sakrifizioari zor diotenik. Besteak gelditzen dira damutu gabe, ta beren biotzeko gogortasunagatik eztira aprobetšatzen grazi onezaz, edo beraz gaizki usatzen dute, baña guziak grazia artzen dute,,. Arrazoi geiagorekiñ bere kateetatik irten nairik suspiruz dagoan anima batek iritšiko du Mezaren bitartez bizitza osoro ontzea, bada Elizak erakusten du: “Mezatarabagoaz kontrizio egiazkoaz edo beraren deseoz, Jaungoikoa adiskidetuko dala gurekin, emango digula damutzeko grazia, ta barkatuko dizkigula gure gaizakeriak danik eta andienak izan badira ere. Zoazte Meza entzūtera, jo pekataria!, eta esaiozute Jaungoikoari: “Jau-na, Sakrifizio andi onegatik paketu zaite,

eta zereganatu ezazu nere borondate biurri au,,. Jaungoikoak adituko du zuen erregua, ta aldarearen gañean sakrifikatutako bere Semeaganako amorioagatik beteko du zuen anima graziatzko euriz.

Zuek erantzungo didazute Eskritura Santuarekiñ (1): “Legiari begiak it̄sitzen diozkan aren erregua, gorrotagarria da Jaungoikoaren begietan,,. Santo Tomas Akino'koak erantzuten dio oni: “Eskritura Santuak leku askotan esaten badigu ere, pekatu larri edo mortalean dagoanaren erregua ez tala Jaungoikoaren gogokoa, Jaungoikoak ez tu gaizki artzen biotz on batek egiten duan erregua,,.

Ikusten da sarritan, persona onak eskeintzen dutela Meza gizon gaizto bategatik; nolakoa da orduan, Meza Santuaren frutua? Santa Brijida'ren errebelazioetan irakurten da, gai onetan argi egingo digun gertaera bat: Santa onek erregutzen zion egun batian Jaunari pekatarien salbazioagatik, eta laster eldu zediñ, oiek Jaungoikoagana biurtzeko ordua. Gogo geiagoz eskatzen zuan pe-

(1) Prov. XXI, 14.

kataririk andienakgatik, aiekgatik erruki guziz andia sentitzen zualako; denbora berean beldur zan Jaungoikoak entzungo ez ote zion. Salbatzalléak esan zion: “Nere Gorputz mantšagabe ta Odol preziosuaren doaiak, ¿ez aldu merezi bizitz on bat egitera biurtzia infernuko bidean daudenak? Arriturik Santa itz pozgarri auek aditzean, deadar egin zuan pozez beterik: “Nere Jesus maitea, zure Gorputz guziz garbi ta Odol beneragarraren aurrean eskatzen dizut, zure jainkozko grazia, infernuan erortzeko arriskuan dauden anima aientzat. Nere eskaria aditu dezazun, eskeintzen dizut eta eskeiñtzen diot Irutasun guziz Santuari Mezako Sakrifizio Santua munduaren salbazioagatik,,. Jaungoikoak aditu zuan bere serbitzari leialaren eskaera, ta agindu zion, barkatuko ziela, bere eskaeran izendatzen zituan doakabe aieta-ko askori.

¡O kristauak! eta batez ere zuek, emazte ta amak zeratenak, etzaitezte beñere desanimatu, zuen erreguak, eskaerak, zuen ejemplo onak gelditzen badira, dirurianeaz, fruktu gabe, zuen alegiñ gu-

zien buruan ere zuen mendean dauden animak ezpadute egiñ, bear zutena, ta ezpadute urreratu nai sakramentu santuetara, zuazte Meza Santura, entzun bera, atera Mezak, bide galdutik dabil-tzan ardi oiekgatik, eta grazia garallearen ordua elduko da, bai, elduko da, ainbat eta lasterrago, zenbat eta osoagoa dan zuen konfiantza.

Sakrifizio onen beste frutu bat da, pekatu benialen barkazioa; pekatu auekiñ ofenditzen da Jaungoikoa, geienian uste izan oi dan baño geiago. San Basiliok adierazten du pekatu onen gaizakeria konparazio onekiñ: Gizon batek zeukan seme bat, atsekabe asko ematen ziona. Zan alperra, lanaren baño jokoaren za-leagoa, ta aitaren diruak ondatzen zitua-na, onen arrazoiari jaramonik egin gabe. Aita kejatzen zan semearen buru gabe-keriaz, baña semeak barre egiten zien aitaren errietari. ¿Zertaz kejatzen da nere aita?, esaten zuan. ¿Jo det benturaz?; edo ¿bizia kendu nai izan diot?

Auñe da Jaungoikoaren eta gure ar-tean gertatzen dana. Eztiogu bere bizia kendu nai; au da, eztegu egiten pekatu

larri edo mortalik, baña ala ere, izenbat atsekabe eztizkagu emateñ egunero; ta nolako it̃sumenarekiñ eztegu piztuzten bere asarrea! Eguneroko desleialtasun auek pekatu benialak baño ezpada ere, pagatu egiñ bear ditugu; bestela Jaungoikoak botako gaitu beregandik, bere semeak izatea merezi eztegun bezela.

Arrisku au kentzeko, Jesus'ek eratzten digu Meza Santuan bere Aita gure alde jarriko duan sakrifizio indar andiko bat.

Trento'ko Konzilio Santuak esaten du argiro (1): "Jesu-Kristok azkeneko Afarian egiñ zuan Meza Santua, Sakrifizio osasungarri onen birtutez izan zediñ eguneroko gure utsegiteak barkatzeko,,. Itz auek eztute bear argigarrik. Konzilio Santuak adierazten ditu emen argiro gure pekatu benialak. San Paskual'ek itz egiñ zuan guziz argiro gai onetan (2): "Sakrifizio santua eskeintzen da egunero, egunero pekatu egiten degulako, ta

(1) Trid , sess. XXII, c. I.

(2) De corp. et sang. Christi, c. 9.

gure naturaleza argalari dagozkion utsegiteak egiten ditugulako,,. Egia da, Jaungoikoak, eguneroko utsegite auen erremediorako, eman dizkigula beste alderdi asko, nola diran, orazioa, baraua, limosna, Elizaren bedeinkazioak eta gañerakoak, baña ezta bat ere, Mezak ainbat indar duanik.

Ona emen zer esaten digun Suarez teologo andiak (1): "Sinistubear da, beren pekatu benialen barkaziorako Mezako Sakrifizio Santua eskeintzen dutenak, ziur adituak izango dirala,,. Aita Gobat'ek oraindik geiago esaten du (2): Onak dionez, "Meza entzuten dutenak ez beren barkazioa iristeko asmoaz, baizik beste asmoren batekiñ, kontrizioa ta bizitza ontzeko asmo sendoa badaramate, biurtuko dira osoro libratuak,,.

"Sakrifizio santuaren birtutez, dio Osorio'k (3), pekatu benialak kentzen dira, ta zorra barkatzen da,,.

"Bai, esaten digu, Aita Stratus'ek, Mezaren birtutea aiñ da andia, nun ema-

(1) Disp. 69, sect. 5.

(2) In Alphab. sacr., aud. n.º 528.

(3) 4, Conc. de Missa.

ten dizkigun Jesu-Kristo'ren merituen eta satisfazioaren aberastasun neurrigabeak. Pekatu benialak aldarean urtutzen dira, argizagia sutan bezela, ta merezi ditugun penarik geienak barkatzen zaizkigu. Erlizioso santu onek dioana, da guziz arrazoizkoa; pekatu benialak egiaz auts egiten ditu Jaungoikoaren amorioaren suak, eta oien ondorena izan bear luken penak, utsera biurtzen dira. Mezaren asieran esan zaiozu Jaungoikoari: ¡O Jaungoiko justua! Konfiantza sendoaz eta biotz damutuarekiñ jartzen ditut aldare santuaren gañean nere bizitza gaiztoko utsegite guziak, zure amorio santuak an auts biurtu, ta Jesu-Kristo'ren Odolak garbitu ditzan, eta nere Salbatzallearen meritu azkengabeakgatik nere zorra oso kitaturik gelditu dediñ. Mart̃ant'ek dio: "Mezak kentzen ditu pekatu benialak, bada ikustean Jesu-Kristok, gure naturaleza, bere argaltasunez, eta jatorrizko pekatuaren bidez beti gaitzera grinaturik dagoala, utzi digu eguneroko Sakrifizio onetan salbazioko bide bat.

Jarraitu ezazute Santa Jertrudis'en

ejenploa. Onek eskeintzen zuan apaizarekiñ batean jainkozko Jauskiñi edo Biktima, apaizak berak sakrifikatzen zuana. Aita Jaungoikoak begiratzen zion gogo onez eskeiñi oni, ta artzen zuan bere biotzaren gañean eskeiñtzallearen anima ona. Eta beste aldeez nola Jertrudis'ek etzuan egiñ izan bere bizi guzian pekatu larri bat ere, barkatzen zitzaizkan pekatuak, ziran bakarrik pekatu ariñak. Ostia jasotzeko denboran esan oi zuan: Aita guziz santua, eskeintzen dizut Ostia bedeinkatu au, nere desleialtasun guzien barkazioa iristeko, ta itz auekiñ bakarrik iristen zuan barkazio osua, ta baita Jaungoikoak beregan artzea ere. San Benito'ren ordenako Birjiña argidotar onen antzera, Ostia goratzean esan ezazute alik eta federik bizenarekiñ: Zeruko Aita, apaizaren eskuz eskeintzen dizut zure Semearen Gorputz eta Odolaren. Sakrifizio beneragarria, nere pekatu larri ta ariñ guzien mantñatetik garbi gelditu nadiñ. ¡O Aita guziz ona! Jauskiñi edo Biktima aiñ Santuak errukira mugitu zaitzala; ta barka zaizkidatzu nere argaltasunez egindako

zor guziak. Zenbat eta leialago zeraten gauz auek egiten, ainbat eta geiago garbituko zerate.

Sakrifizio Santuak ez bakarrik kentzen ditu animatik pekatu ariñak, baizik baita pekatuaren kutsurik tšikienak ere. San Juan Damaszeno'k erakusten digu: "Mezako Sakrifizio guziz garbi ta ezodoltsua da kalte guzieren ordaiñsaria ta mantša guzieren garbitzea„. Jesu-Kristo gure Jaunak berak esan zuan Ezekiel profetaren aoz (1): "Išuriko det zuen gañera ur garbi bat eta zuen mantša guziak kenduko dira„. Ur garbitzalle onek izan zuan bere jatorria Jesus'en Biotz Santutik; andik atera zan Zenturion'ek eman zion lantzadaren bitartez, Zakarias profetak aurraz esan zituan itz oek diotenez: "Dabid'en etšean idikiko da iturri bat, pekatariaren mantšak garbitzeko„. Iturri santu onetatik ateratzen da Meza-tan Odol preziotsua, ur miragarria; onetara guziak urreratu ditezke beren egarria asetzeko, ta garbitu ditezten. ¡Zeiñ zori onekoak geran, agortu eziñ diteken

(1) Ezech., XXXVI, 25.

ugaltsun orrezaz ateratzen danean eta guziok bertara eldu al izatean! Apokalipsis'ko liburuan (1) esaten du San Juan'ek: "Atozte egarriak zaudetenak, eta edan ezazute, ta zuek, pobre bizi zeratzenok ere atozte, beste guziak bezela, edatera,,.

Profetak eta Apostoluak bazekiten zein errez grazia berriro iristen zuten, ur, egiaz miragarria dan, onetan bustitzen diran animak, bere tanto bakar bat asko dalarik, gu garbiturik uzteko, ta zerrurako bidean jartzeko. ¿Gelditu gindezke irabazi aia andiak geregantzera berealatik asi gabe?

AMASEIGARREN BURUA

Meza Santua da pekatuen ordaña emateko Sakrifiziorik andien eta osoena.

Obeki ikasteko esatera goazena, gauza bearra da, aurraz jakitea, edozein pekatutan bi gaitz daudela, erruarena ta

(1) Apocalip., XXII, v. 17.

kastiguarena. Jaungoikoa galera-
zun errua, barkatzen zaigu Penitentzia-
ko sakramentuan; kastiguare barkatu de-
gikigu osoro konfesioan, baña geienian
etzaigu barkatzen, gure damua osoa izan
ez oi dalako. Jaungoikoak erabaki du
pakezko sakramentuak gu libratzea be-
tiko kastigutik, baña gelditzen zaigu den-
boraren batez sufritzeko kastigua, luzea
edo laburra gure damu andiari edo t̄si-
kiari, gure asmo onen sendotasunari, ta
pekatuen ordañari dagokion ainbatean.
Geienian konfesatu oi gera damu guziz
gut̄sirekiñ, eta pekatuen zorra pagatzeko
egiten deguna ere ezta izan oi naikua;
da esatea, gure zorraren zati t̄siki bat
bakarrik barkatzen zaigula. Gañerakoa
ordaindu bear degu erregu, bijili ta ba-
rau ta maiz komulgatuarekiñ, Meza san-
tua entzunarekiñ eta batez ere al ditugun
barkamen edo induljenziak irabazteare-
kiñ. Gure naturaleza ezta penitentzien
zalea, ta guziak arindu nai lituzke. Iltzen
bagera garbitu gabe, ordaindu gabe, pur-
gatoria jua bear degu, an garbitze-
ra. ¿Ezta arkituko bideren bat, purgato-
rioko su-garretara gabe igarotzeko, edo

besterik ezpada, aien iraupena laburtzeko, ta indarra gutšitzeko?

Bai; bada bat Jesu-Kristo Gure Jau-nak berak erakusten digun Ebanjelioko iduri edo parabola onekiñ (1): Zeruetako erreinua da, bere serbitzariakin kontuak garbitu nai dituan Errege baten antzera. Arkitzen da bat, amar milla talentu zor dizkiona, ta nola eztaukan dirurik pagatzeko, bere nagusiak agintzen du, saldu ditzatela bera, emaztea, umeak eta dauzkan gauza guziak. Serbitzariak bere oñetara etzanik, erregutzen dio, esanaz: Artu zadazu pazientzia ta guzia pagatuko dizut. Errukiturik nagusia serbitzari onezaz, utzi zion joaten, eta barkatu zion guzia. Ala ta guziz ere, gauza jakiña da, eun urtean bizitare, eziñ bilduko zuala zor zuan guzia.

¿Bearko det, benturaz, iduri au argiroago jarri? Zorduna da, gaiztakeriz betetako pekataria; zu zera jo kristaua!; zuzaz esaten du Jesu-Kristok (2): “Ezta-kizu, kristaua, zein beartsua, zein

(1) Matth. XVIII.

(2) Apoc. III, 17.

doakabea zein errukarria, it̃sua ta larru-
gorrikoa zerañ,,. ¿Nola nai zinuzke pa-
gatu amar milla talentu zure obra on
gut̃siakin, zure denbora guzian talentu
bakar bat irabazi eziñ izan badezu? Pe-
kату illkor edo mortal bati dagokion
kastigua aiñ da andia, nun zure indarraz
ordaindu bear bazendu, elitzakizun nai-
kua izango zure bizitza guzia. Eta alare
badago bide erraz bat, kastigu ori alden-
tzeko. Etzan zaite Ebanjelioko gizon ura
bezela, zorra daukakiozun zeruko Jaun
orren oñetara, ta esaiozu: Jauna, artu
ezazu pazientzia, eman zadazu asti piška
bat, eta nik pagatuko dizut guzia, entzun
eta aterako dedan Meza Santuaren bi-
tarte. Sant̃sez'ek ematen digu konseju
au bera: "Meza entzuten dezutenian (1)
dio, oroitu zaitezte, zerok zeratela Me-
zaren jabeak,,. Apaizak esaten dizute:
"Erregutu ezazute, nere anaiak, nere ta
zuen Sakrifizio au Aita Jaungoiko Gu-
zialdunaren gogokoa izan dediñ,,. Ezagu-
turik zuen tesoroaren balioa, galde zaio-
zute zuen Maisu maiteari: Jauna, ¿zen-

(1) In Thesaur, Missa, c. IX.

bat zor dizugu? ¿Eun, milla, amar milla talentu? Ezagutzen det nere zorra, ta ordaindu nai dizut, ez nik nerez, baizik aldare onen gañian dagoan zure Semearen merituakiñ. Eskeintzen dizut, zuk eman didazun tesoroa. ¡Zeiñ pozgarria dan pekatariarentzat gogorazio au!

Teologoak ere ori bera diote: “Mezako Sakrifizio Santuak, dio Fornerus’ek (1), dauka, *berez* (2), pekatuen zorra ordaintzeko birtute miragarria,,. Auñe da Erakasle guziak erakusten digutena. Esaten digute oso argiro, Mezak kentzen duala, ematen, ateratzen eta entzuten dutenen zorra, egiazko damua badaukate.

Uste degu ondo izango dala, adieraztia emen, zer esan nai degun *berez* (ex opere operato) esatean. Esaera orrek adierazi nai du, nola Meza Santuak berez, au da, berari dagokionez beste gabedaukan bere indarra, Mezaren birtutea eziñ geitu ditekeala, Meza ematen duan apaizaren jaiera edo debozioagatik,

(1) Conc. 69 in Pass.

(2) Ex opere operato.

ezta gut̃situ ere bere gaiztotasunagatik. Berak berez ematen du esan degun frutua; ta au bera gertatzen da egiaz beste sakramentuetan, konturako bataioan ere. Aurra eztu bataiatuko obeki apaiz on batek, ez eta ere gaizkiago gaizto batek. Bear dana da itzak eta zeremoni premiazkoak ondo esatea, ta egitea, edo beste itz batzuetan esateko, sakramentua bear bezela eman edo egitea.

Ala ta guziz ere, Mezatan ezta asko, gorputzez an egotea; bear da animaren prestaera, barkazioaren iturri bezela, edo gut̃sienez beñepeiñ, Sakrifizio Santuak frutu egiñ degigun.

Jesu-Kristok bere bizitza, Pasio, ta batez ere bere eriotzarekiñ bildu duan merituzko tesoroa aiñ da andia, nun emango balie oraingo ta ondorengo pekatari guziai, bakoitzak bear duana bere pekatuen zorra pagatzeko, geldituko litzakio oraindik beste konta-eziñ ainbat mundu erredim̃tzeko adiña. Salbatzaileak idekitzen digu tesoro ori era askotan; Bataioan, konfesioan, eta Meza Santuan; baña eztingu iñun ere ematen Meza Santuan beziñ ugari; bada Tren-

to'ko Konzilio Santuak erakusten digunez (1), "odola iñuriaz Gurutzean eskeiñi zan Sakrifizioaren frutuak ematen zaizkigu odol-iñurtze gabe eskeintzen dan Sakrifizioaren bitartez, ugaltasunik andienarekiñ,,.

Begira Jesusi aldaretik jetñi, urreratu gizonai ta zeruko urre ori, beren debozioaren sari bezela ematen dienian. Beste guziaz ematen zaie; bakarrik pekatu mortalean daudenai, edo itzketan, burla egiñaz, beren ingurura errespeto gabe begira, edo lo daudenai etzaie ematen. Gañerako guziaz ematen zaie, bakoitzaren debozioari dagokion neurrian bada-re. Pekatari gaiño guziak, pekatu egiten duten beziñ laster, juan ditezela lasterka Elizara, ta eskeiñi degiotela Meza Santua Aita Jaungoikoari. Laster mudatuko zaie anima ta errezago iritñiko dute bar-kazioa. ¡Ai! ¡Zeiñ ejemplo ederra izango litzakean guretzat, onela bide oneratu diran guziak ezagutu albagenitza! Baña eziñ ezagutu genezake aiñ urretik, Jaungoikopak pekatariari laguntzera etortzeko

(1) Trid., sess. XXII, cap. II.

daukan bide bedeinkatua. Guk egiñ bear deguna da, bakarrik, idiki gure preşon-degi illun onetan lejo tşiki bat, emendik salbe egiteko zerura dijoan bideari.

Ala ta guziz ere gauza bearra da uler-tzea ondo esan dan guzia, ta eztezazula esan: Mezaren balioak neurririk eztuan ezkerro, ta bide aiñ erraza ta erosoia izanik, Jaungoikoaren Justiziari pekatuen zorra pagatzeko, entzungo det Meza aldedan ondoen, eta ala, gañerako penitentziak alperrikakoak izango dira. Au izango litzake norperak bere burua engañatu nai izatea, bada pekatuen zorra barkatzen zaigu, biotzeko damu ta umiltasunaren bidez, barkazioa merezitzen degunian; ala bada, biotzeko samintasun eta damu egiazkoak eramango zaituzte beti modu askotako penitentziak egitera.

Meza Santuak ez bakarrik alperrikako egiten eztitu obra auek, baizik geitzen die askoz beren balioa, prestatzen dutelako anima, oietatik frutu geiago ateratzeko. Ona emen Aita Arjentan'ek esaten duana: "Penitentziazko obrak eztira beñere alperrikakoak, baizik guziz bearrak, bada berak laguntzen digute, gure

utsegiteak osatzeko, ta bizitza ontzeko,,. Gañera, dotriñako liburuak eztigu dudarik tšikienik uzten gai onetan: "Penitentziak aldentzen gaituzte pekatutik, jartzen gaituzte geron buruen zelatan, egiten gaituzte arrazoezkoagoak, kontuzkoagoak, eta aldentzen gaituzte oitura tšarretatik, beren kontrako birtuteak obraz azaldu eraziaz,,.

Esan dezagun oraiñ zerbait, Meza Santuak Purgatorioko animen penak arintzeko daukan birtutearen gañean.

Jaungoikoak, bere jakinduri neurrigabea, ezitu gauza beartzat iduki, Elizari agertzea, zein andia dan onelako edo alako pekaturi dagokion pena; baña gogoratzen badegu "eztala sartzen zeruan zikiñ tšikienik ere,, ta Purgatorioko presondegitik eztala irtetzen, oso garbi gelditu, ta azkenerañoko ardita pagatu arte, ta beste aldetik kontuan badaugaku, zein gogorak eta luzeak ziran antziñako denboretan Elizak jartzen zituan penitentziak, emendik ezagutu bear degu, anima gaišo auek oso luzaro egon bearko dutela Purgatorioan; baña nola eztakigun, noiz arte egon bearko duten egiñ oi dira

urteeroko elizkizunak, eta gizaldi osoetan egiten ere jarraitu diteke. Oso ziurdakiguna da, "guk arindu ditzakegula Purgatorioko animen penak erreguarekiñ, eta geienbat aldareko Sakrifizio Santuarekiñ,,. Beragatik maite baditugu anima gaiño aukeratu, atera dezagun berakgatik Meza, ta entzun ere bai oien onerako.

Teologorik geienak uste dute, Purgatorioko animak ateratzen dutela Meza Santutik frutu geiago edo gutsiago, berak lurtean bizi ziranean, Meza entzutean izan oi zuten debozio andiago edo tsi-kiagoari dagokion neurrian. ¡Kristauak! Izan zaitezte jakintsuak eta laburtu zaiozute zuen anima gaiñoai al guzian berak garbitzeko jarririk dagoan su-gar bizia-ren iraupena. Egiñ ezazute kontu, gaiz-takeri andi bat egiñ ondorian, kondena-tzen zaituztela, sutan goriturik dagoan parrill baten etzanta ordu-erdi baten egotera, edo bestela, Meza bat entzute-ra. Gauza jakiña da, zalantzan egon ga-be, bereala juango ziñatekeala Elizara, ez Meza bat bakarrik, baizik baita eun ere, entzutera, suzko kastigu orretara jarri baño len. Pensa dezazukete, erio-

tzako ordua eltzean, zuen anima eztala beriaratik zerura juango. Ango atsegiñaz gozatu baño len, Purgatorioko penetan garbitu bearko du, ta ala, esaten dizuet berriz ere, eztezazutela utzi erraz, su-gar oiek gozatu, laburtu ta itzali egiten dituan Meza Santua.

Oraindik ere jakiñ nai badezute obeki zenbateraño dan zuen animagatik ateraerazitzen dezuten Meza baten frutua, erantzungo dizuet: Mezako Sakrifizio Santua ateraerazitzen duanak, geiago iristendu bere pekatuen barkaziorako, Meza entzutea bakarrik egiten duanak baño, Meza santuaren frutuen parte andibat berari zuzenbidean tokatzen zaiolako. Jaungoikoak eztigu azaldu zenbateraño barkatzen zaion. Mart̃sant'ek esaten digu: Meza Santua aterazitzea asko eztala, gañera bera entzuten duanak, ateratzen du entzun gabe aterako lukean baño frutu geiago, bada onela, bakarrik beraganduko lituke apaizak aplikatuko lizkion frutuak, baña elituzke bereganduko beste merituak.

Oraindaño esan danetik agertzenda balio andiko egi bat, geienak jakiñ ez oi

dutena, edo ta kontuan artzen eztutena. Meza bat aterazitzen dezutenian, Santuren bat onratzeko, osasuna edo beste graziaren bat iristeko, izendatu gabe no-rentzat izango dan, Meza ark pekatuen zorra barkatzeko duan birtutea juango da Elizaren tesorora, Jaungoikoak, zuen jakiñeztasun, geienian borondatezkoa izan oieztanaz, errukiturik, Mezaren birtute au ezarten ezpadizute.

Aurrerakoan etzaitezte aztu zuen borondate argiro erabakitzeaz, esanaz Jaungoikoari: Nai det, Meza au Birgiña guziz santaren edo onelako Santuren onran, edo onelako edo alako mesede iristeko ateratzea, ta eskatzen dizut, izan dedilla neretzat, pekatuen zorra pagatzeko orrek daukan birtutea. Onela aterako dezu frutu geiago, bada orregatik etzera geldituko irit̄sigabe, eskatzen dezuna, ondo badatorkizu zerua irabazteko.

Egi auek gogoratzea, guziz ona da, Meza Santuaganako amorioa gugan irazekitzeko, ta al bada, entzun dezagun egunero, ta igande ta jaietan bat baño geiago.

Batez ere pekatu asko ta larriak egiñ,

eta penitentzia egiñ eztutenak, artu. bezate oitura osasungarri au. Jaungoikoari etzaio aztutzen gure falta bakar bat ere: *Aut poenitendum, aut ardendum*; edo penitentzia egiñ, edo sutan erre; au gauza ziurra da. Obe da emen lurrean zorra pagatzea, Juez nagusiaren aurrean zorrez beterik agertzea baño. Santu andiak egiñ dituzten penitentzi ikaragarriak, beldurtzen bazaituzte, artu ezazu alderdi askoz errezagoa, au da, Meza Santua debozior entzutea.

AMAZAZPIGARREN BURUA

Meza Santua da Espiritu Santuak egiñ duan gauzik andiena.

Oraiñ artian aritu gera itz egiten Meza Santuak Aita-Jaungoiko ta Seme-Jaungoikoarekiñ duan zer-ikusiarren gañean. Ikusi dezagun ardura santu batez Sakrifizio Santu onetan Espiritu Santuak egiten duana.

Espiritu Santuagandik datozkigun ondasunak konta eziñ ainbat dira. Eziñ ezagutu ditzakegu ta oraindik gutsiago

adierazi. Espiritu Santua guzia amorioa ta errukia da, palakatzen du justizia ta aldentzen ditu pekatari gaiñoak betiko infernutik. Berak asi, Berak jarraitu ta Berak amaitu du, gu zeruratzeko lanbidia. Maria'ren sabel mantsa gabian asizuan, Birjiña guziz garbi onen odoletik Jesu-Kristo'ren gorputza egiñaz. Jaungoiko-Gizona Jordan'go uretan bataiatu zanean jarraitu zuan. Eta azkeñik amaitu zuan Pentekostes egunean, ematen zitzaiela Bera Apostoluai suzko mingañekiñ auek kiskalduaz. Salbatzallearen zauri ta Pasioak bigundu etzituzten biotz gogorrak, egun onetan Espiritu Santuak, oiekgan išuririk, Jaungoikoagana biurtu zitan.

Espiritu Santua bizi da kristau leial egiazkoetan, eta ezta osoro aldentzen beren biotzeko atea itsitzen diotenetatik ere; ta beti dagokie deika berriro biotz oietan sartzeko.

Dударik gabeko gauza da, izan zuala parte guziz andia gure berteroste edo Errendenzioan, eta Meza Santua dala berak egin duan gauzarik miragarriena. Teologo guziak argiro erakusten dute,

Jaungoikoaren esku guzialdunetik atera dan miraririk andiena dala Jaungoikoaren Semea gizon egitea, au da, Jaungoikoa ta gizona persona baten elkartzen dituan misterioa. Bera da mirari ori egiñ duana, ta ala ezagutzen du Elizak, Kredo-artikulu "Espiritu Santuaren obraz konzebitu izan zana," esaten duan onetan. Ala ta guziz ere aldarean egiten dan miraria, lenengo ori baño andiagoa da, umiltzen dalako Jaungoiko-Gizona Ostiaren zatirik tsikienian ere leku arkitzeraño.

Santiagoren araude edo liturjiak dienez, mirarien mirari au Espiritu Santuak egiten du. Konsagrazioko itzak esaterakoan, auen aurretik irakurtzen dira beste oek: "Erregutzen dizugu Jauna, bialdu dezazula zure Espiritua, gloriáz beteta etorririk, santutu ditzan gure doaiak, ogia zure Gorputz, eta kaliz onetako ardoa zure Odol preziotsu biurtu ditzan,,.

Erregu ori bera arkitzen da San Klemente Aita Santu ta martiriaren araude edo liturjian, esaten dala bertan: "Bedeinka zazu, Jauna, ogi au. Zure Kristoren Gorputz beneragarri biurtu ezazu.

Bedeinka zazu kaliza santua, ta berak daukan ardoa, biurtu ezazu Kristoren Gorputz preziotsu Espiritu Santuaren bitartez,,. Meza emateko lenengo liburuetan irakurtzen danez, Espiritu Santua da beti ogia Kristoren Gorputz eta ardoa beraren Odol biurtzen dituana, ta berari deitzen zaio au egiteko, Jaungoikoaren Semea aragiz jantzitzean, egiñ zuan bezela San Gabriel Goiaingeruaren itzak aditzera ematen dutenez: “Espiritu Santua jetsiko da zugana, ta Jaungoikoaren birtuteak estali ta itzal egingo dizu,, (1).

Apaizak egi au bera azaltzen du ogiaren eta ardoaren gañean gurutzearen siñalea egiñaz, Espiritu Santuari erregutzen dionean, jetsi dedilla, doai oiek bedeinkatzeko: “Atoz, esaten du, Santuzalle Guzialdun, Jaungoiko Betikoa, ta bedeinka zazu, zure Izen Santua onratzeko prestatu dan Sakrifizio au,,.

Santa Ildegarda’k esaten digu bere errebelazioetan (2), nola Espiritu Santua

(1) Luc., cap. 1, v. 35.

(2) Rev. I, II, c. VI.

jeisten dan eta nola ogia ta ardoa Jesu-Kristo'ren Gorputz eta Odol biurtzen dituan. "Apaiza Meza emateko jantziz jantzirik zijoanian Meza ematera, ikusi nuan zerutik jeisten, Meza bitartian al-darea argitu zuan argitasun andi bat. Santusean su-gar bat igaro zan ogian eta ardoan alde batetik bestera, eguzkiaren erraiñuak leiar edo kristalean igarotzen diran bezela. Su-gar onek jaso zituan zerurano ogia ta ardoa, baita bereala atzera ekarri ere, korporalaren gañean utziaz. Une artatik etzegoan aragi ta Odol egiazkoak baño, ezer ere mudatu zanic ezpazirudian ere. Ikusgarri oni begira nengoan bitartian, ikusi nituan, ispillu batean bezela Jaungoikoaren Semearen Gizon egite, Jaiotz, Pasio ta Eriotza, lurrean gertatu ziran bezela,„

Mesede berezi baten bitartez Santa onek ikusi zuan miraria, egunero berri-tzen da Meza Santuan, gure begiak ikusi eziñ izaten badute ere.

Testamentu zarrean arkitzen ditugu misterio onen bi iduri eder. Lenengoa Aaron'en sakrifizioan: "Jaungoikoaren gloria, esaten da Lebitiko'aren libu-

ruan (1), agertu zan bildurik zegoan erri guziaren aurrean, eta sua jet̃si zan zerutik aldare gañian zegoan danerrea desegitera. Au ikustean, erria auspeztu zan, arpegiaz lurra jotzeraño ta alabatu zuan Jaungoikoa,„.

Onen antzekoa da Tenploaren kon-sagrazioan gertatu zana (2): “Salomon'ek bere erregua amaitu zuanean, jet̃si zan sua zerutik, desegiñ zituan danerre ta jauskiñak, eta Jaungoikoaren Majestadeak bete zuan Tenploaren barrunbea, Israel'go seme guziak ikusi zuten zerutik jet̃si zan sua, ta baita beondaztu ere (3) Tenploan Jaungoikoaren Majestadea. Auspeztu ziran beren arpegiaz lurra jotzeraño, ta adoratu ta alabatu zuten Jaungoikoa, esanaz: “¡Zeiñ andia dan Jauna! ¡Bere errukia betikoa da!„. Auek dira Mezako Sakrifizio Santuaren iduri arrigarriak, eta Sakrifizio onen gañera jeisten da Zerutik Espiritu Santuaren sua, ogia ta ardoa desegiñ eta Jesu-Kristo'ren Gorputz eta Odol biurtzera.

(1) Lev., IX, 23, 24.

(2) Paralip, II, 7.

(3) (Contemplar. Larr.)

Nola geran pekatari merezi eztegunak, gure begi ezgarbiak eztute ikusten, gauz oek nola gertatzen diran, eta alare beiñ baño geiagotan ikusi du emen bian lurrean gizonaren begiak Espiritu Santuaren su sagradua.

Ona emen zer esaten duan Metafrastek San Klemente Aita Santu ta martiriaren bizitzako kondairan: Dioklesiano ta Maximiano Enperadoreak erbestetuzuten Aita Santu au. Rodas'ko ugarte edo islara eltzean, emengo Obispo San Fotino'k erregutu zion, Meza eman zezala; ala egiñ zuan, eta konsagrazioko itzak esatean, ogia, ikatz irazeki biurturik agertu zan. Bereala jetși ziran zerutik konta eziñ ainbat aingeru, ta eraman zuten Ostia Santua airean barruna, amorio ta pozezko ezagungarri andi ta miragarriak azalduaz. Meza entzuten zudenak, eziñ sufritu izan zuten argitasun ura guzia, ta auspezturik egon ziran komuniora arte, ta orduan biurtu zan Ostia Santua beti bezela gelditzera ta San Klemente komulgatu zan.

Gertaera auek adierazten dute gure biotzak bigunduaz, Espiritu Santuak

konsagrazioan artzen duan partia. Eta ala, suak gogorazitzen digu jainkozko irugarren Persona, Pentekostes'ko festegunean suaren iduripian agertu zana; su onek adierazten duala betiko amorio bere bitartez Espiritu Santuak Semea Aitarekiñ elkartu zuana.

San Jose Kupertino'k sumatzen zituan beregan, konsagrazioko unean, estuasun guziz andiak, doidoian itz aiek esaten zituala. Une ura igarotakoan, bere beldurra desegiten zan eta itz egiten zuan beste edozeiñek bezela. Egun batian galdetu zion bere komentuko Nagusiak ea zergatik alako estuasunak izaten zituan. Santuak erantzun zion: Itz errespeta-garri auek nere ezpañetan ikatz irazekiak bezela dira. Auek esatean, gertatzen zait, irakiten dagoan janari bat artzen duanari, gertatzen zaiona, irentsi eziñ izaten duala, alderdi danetara iraulka ibilli arte; ta au gertatzen da, konsagrazioko itzak beren barruan zeruko sua daukatelako; obratzen dute Jaungoikoaren al edo podere guziarekiñ, eta onen indarrez Jaungoikoa berriro aragiz jantzitzen da gizonaren eskuen artian. Jaungoikoak eguz-

kia utsetik ateratzeko esan zuan *Fiat-ek* aĩñ indar andia bazuan, andiagoa daukate oraindik konsagrazioko itzak, Egille berari izaera berri bat ematen diotelako.

Obeki adierazteko, Ogi ta ardoa Jesu-Kristo'ren Gorputz eta Odol biurtzean Espiritu Santuak daukan parte, esango dizuet, Baronio'k erakusten duan beste gertaera bat: 536 garren urtean Erroma'tik urtean dagoan uri, Fornello deritzanean, arkitzen zan Obispo Jaun birtutetsu, bere zeregiñ guziak arreta andiaz egiten zituan bat, eta batez ere Meza Santua debozio andiaz ematen zuana. Ala ta guziz ere, norbaitek arkitu zuan bera salatzeke bidea Aita Santu Agapito'ren aurrean, aldareko ontziak, bere jan-edanetan zerabiltzkiala esanaz. Aita Santuak deitu zion eta preso sartu zuan. Bigaramonian igandea zan, eta eguna argitzean, agertu zitzaion Aita Santuari gizon arrigarri bat, esaten ziola: Gaur, ez zuk, eta ez beste iñork, eztu emango Mezarik, baizik preso sartu dezun Obispo ark bakarrik. Esnatu zan Agapito gertatu zitzaiona gogoan zuala,

ta galdetzen zion bere buruari, nola igo zezakean aldarera gaiztakeri aiñ andia egin zualakoz salaturik zegoan gizon bateg. Aditu zuan berriro, esaten zitzaiola: Esan dizut, presondegian dagoanak bakarrik eman bear duala gaur Meza. Nola oraindik ere zalantzan zegoan, aditu zuan lena bera irugarren aldiz. Beldur turik Aita Santua, deitu zion Fornello'ko Obispoari, ta esan zion: ¿Nolakoa da zure bizitza ta zer da egiñ dezuna?—Ni pekatari bat naiz.—¿Eztezu jan aldareko ontzietan?—Ni pekataria naiz.—Beste gauzarik aterazi eziñ zionian, agindu zion, eman zezala Meza egun artan bertan bere aurrean. Obispo umill ark obeitu bear izan zion Aita Santuaren borondateari. Apaiz askoz inguraturik, asi zan Meza Santua ematen. Eldu zanean, ogiaren eta kalizaren gañean egiten dan lenengo gurutzearen siñalea egitera, esan zuan Mezako liburuak agintzen duan bezela: “Atoz santifikatzalle Guzialduna, Jaungoiko Betikoa, ta bedeinka ezazu, zure Izen Santua onratzeko egiten dan Sakrifizio au, . Iru aldiz egiñ zuan erregu au, aurrera jarraitzen beldur ba-

zitekean bezela. Meza entzuten zeudenai luze zijoakien. Azkenik galdetu zion Agapito'k, ea zer gertatzen zitzaion, eta erantzun zion: Barkatu bezait; nik berriztatzen det nere erregua, Espiritu Santua sakrifizioaren gain jeisten ikusten eztedalako; baña eskatzen diot bedorren Mesedeari, agindu degiola, aldentzeko, nere urrean dagoan diakonoari, bada beldur naiz ni, ori agintzen. Egiñ zuan Aita Santuak, Obispoak eskatu ziona, ta biak ikusi zuten, nola Espiritu Santua jetsi zan. Jakiña da Aita Santuak ezagutu zuala Obispo santuak errurik etzuala. Fornello'ko Obispoak bere gorputzeko begiekin ikusi zuan milagroa gertatzen da Meza bakoitzean, esan degun erregu ura egiten dan une bertan.

Espiritu Santuak ez bakarrik ogi-ar-doak Gorputz-Odoletan biurtzen ditu, baizik gañera bedeinkatzen du Sakrifizioa. Aita Mansi'k esaten du: "Odol-itsurtze gabeko Sakrifizioa aiñ benegarri ta santua da, nun Espiritu Santua jeisten dan Zerutik eta bedeinkatzen duan, aingeruak atsegiñ andiaz denbora berean ikusten dutela,,.

¡Ai zein andia dan Mezaren Santutasuna! ¡Zein andia santutasun Guziaren Egille berak prestatu duan zeruko ogionen indarra ta gozotasuna! Espiritu Santuak prestatzen du ogi au, ez bakarrik animen janari izateko, baizik geienbat, Sakrifizioa gure gorputzen eta animen onerako izan dedin. Berak gure animaz daukan ardurak eztu neurrik; ala erakusten digu San Paulo'k: "Espiritua dator gure argaltasunari laguntzera, ezta kigulako beti, eskatzen gure erregetan, baina Espiritu berak eskatzen du gugatik, eta biotzen barruko berri ondodakian Ark, ezagutzen ditu Espirituaren deseoa, eta badaki, Jaungoikoak naiduana eskatzen duala," (1).

Gauza jakina da jainkozko persona batek eztiola eskatzen besteari, bada irurak dira berdinak almen eta prestutasunean: Irutasun Santuan ezta goalako bat bestea bano geiago ta ez gutsiago izaterik. Baina nola esan oi dan Aitarena dala justizia, Semearena jakinduria ta Espiritu Santuarena errukia, esaten da Aitari,

(1) Rom., c. XVIII, 26, 27.

eskatzen diola pekatariari barkatzeko, ta auek salbatzeko. Auñe da San Paulo'ren pentsamentua. Baña, ¿noiz erregutzen du gugatik Espiritu Santuak? Beti, beñere gelditu gabe, baña batez ere Meza Santuan.

San Juan Krisostomo'k (1) esaten du: "Meza bitartian eztegu guk bakarrik erregutzen, bada aingeruak ere belaunikatzen dira ta goiaingeruakiñ batian gugatik erregutzen dute,,.

Zerutarrak, beste gauza guziaz aurretik Meza Santuko denbora aukeratzen badute gugatik erregutzeko, au egiten dute, Espiritu Santuak egiten duana egiteagatik, bada onek, aldarean sakrifikatzen dan Jesu-Kristorekin alkaturik, egiten du al guzia Jaungoikoaren justizia gure alde jartzeko.

Ikusten dezute zein andia dan Espiritu Santuaren ontasun neurrigabea ta bere alegiña, bere betiko erreguekin gu salbatzeko. Ipiñi ezazute zuen konfiantza ta amorio guzia adiskide ain leial bategan; eta nola Meza Santuan geienbat

(1) Homel. 31. De incomp. Dei natur.

zuekgatik erregutzen duan, entzun ezazute, zenbait aldiz bera onratzeko, ta beragandik artutako mesede guziak gatik eskerrak emateko.

EMEZORTZIGARREN BURUA

Meza Santua da Jaungoikoaren Amaren eta Santuen pozik andiena

Etzuan beñere izan Erregiña Esterr'ek poz andiagorik, Asuero'k, bere eskuz koroatu ta bere jargoian jartzeko, bere Erreinuko donzella guzien artian bera aukeratu zuanian baño. Era berean artzen det ausardia, esateko, Jaungoikoaren Amak pozik andiena izan zuala, bere Semeak zeruko gloriara deitu, aingeru guziaz gañetik jaso, ta zeru-lurretako Erregiñatzat koroatua izan zanian baño. Zein garbi ta goia dan zoriontasun au, eziñ antzik ere eman degikiogu lurreko bizitz onetan, eztakigulako nolakoak diran zerutikako biotz-mugidak, eta bera-gatik ulertu ezin ditzakegulako. Jakiña da Maria'rentzat izan zala zorionik osoena. Baña alare, ziurtzat daukat, Meza

Santuak ematen diola oraindik gloria geiago. Asiko gera gogora ekarriaz Alain de la Roche deitzen zan Maria'ren serbitzari leial bati, Jesu-Kristo gure Jaunak esan zizkan itzak (1).

“Jangoikoaren Jakinduriak, Birjiña guzien artian bat aukeratu duan bezela, beragandik jaio dediñ munduaren Salbatzallea, alañe jarri det sazerdozioa ere, mundu guzian zabaltzeko Meza Santuaren bitartez berteroste edo Errendentzioko tesoroak. Tesoro auek zabaltzea ta auetatik parte ematea, da, pozik andiena nere Amarentzat, atsegiñezko iturri bat santuentzat, laguntzarik ziurrena bizientzat, eta konsuelorik andiena Purgatorioko animentzat.”

Agindu zion Jesu-Kristo gure Jaunak gizon doatsuari, eskribitu ta predika zezala orduan aditu zuana. Au aiñ argiro azaldutako erakutsiak eztu uzten dudarik t̄sikienik guk irakutsi degunaz. Alata guziz ere Jesu-Kristoren itz auek adierazi bearrian arkitzen naiz, obeki ulertu ditzatzuten.

(1) Alants Rediv., p. 4, c. 27.

Jaungoikoaren Amak, beste santu guziak bezela, dauka bi modutako zoriontasuna, berezkoa, ta berezkoa ezтана. Lenengoa da Jaungoikoa ikusi, ezagutu, ta beragantzean dagoana, ta au ezta Santu guzietan berdiña, baizikan zerutar bakoitzak iritși duan santutasunaren mallari dagokiona. Bere neurria eziñ diteke geitu, ezta gutșiitu ere, beti batean dago bakoitzagan. Berezkoa eztan zoriontasuna dago, aldi batzuetan gizonak zerutarrai ematen dizkioten onore berezietan. Egiñ dezagun kontu, beren festegunetan, izaten dute zoriontasun berezi bat, beren onran egiten ditugun erregu ta lan onak aingeruak aurkezten dizkiotelako, ta beren biotzai atsegiñ bereziago bat eman bear diotelako.

Ebangelioak adierazten du onelako zoriontasuna, Jesu-Kristo Gure Jaunaren itz auekiñ: “Egiaz esaten dizuet, pozaldi andi bat izaten dala zeruan, pekatari batek penitentzia egiten duanian, (1). Pozaldi au berritzen da Jesu-Kristoren Gizatasunagan, aingeru ta

(1) Luc., XV, v. 10.

zerutar guziakgan pekatari bat Jaungoikoagana biurtzen dan aldi bakoitzean; baña esan det, da geitu edo gutñitu ditekna ta kentzen da, pekataria berriro pekatuetara biurtzen danian.

Au laburkiro azaldurik, argiro ikusten da, zer dan, Jesu-Kristo Gure Jaunak bere Amaren serbitzari leial Alain'i adierazi nai izan ziona. Meza Santua da Salbatzallearen Amaren pozik andiena; bada modu askotan gloriatu albadezakegu ere, Meza Santuaren bitartez ematen zaion zoriontasuna, beste guziaz gañez eragiten diena da. Errezatzen badezute Errosarioa, Eliz-errezoa, Letañak, eta bitartian entzuten badu beste batek debozioz Meza, ¿nork eskeiñiko dio doai ohea? Dudarik gabe bere sabel garbian iduki zuan Seme guziz maitea, bere begien aurrean ipintzen duanak.

Gañera Meza Santua aiñ atsegiña Mariaren begietan izatea, dator Birjiña bedeinkatuak Jaungoikoaren gloria ta animen salbazioa nai izatetik; eta Meza santuan ematen diogu Irutasun guziz Santuari gloriarik andiena, alabatzen degu bera, bere Anditasunari dagokion erarik

onenean, eta eskeintzen diogu doairik estimagarriena. Atera ditzakegu emendik, iturri batetik bezela, grazirik eragilleenak. ¿Nola izan diteke beste gauzarik, Jesu-Kristo sinismen guziaz adoratu, bere aurrean umill auspeztu, gure bularrak damu egiazkoaz jo, gure pekatuen barkazioa eskatu ta Aita Jaungoikoaren begien aurrean Salbatzallearen Pasio gogorra ipintzen badegu? ¿Nun arkituko ditugu, emen baño ziurrago, salbatzeko bear ditugun gauza guziak? Pentsa dezagun zein ugaria izango dan Maria'k emango dien saria, onelako zoriontasuna ingiratzen diotenai. Aditu ezazute Santo Domingo'ren bizitzan irakurten dan gertaera au (1): Ama Birjiñaren festegun baten Santo Domingo'k Meza eman zuan Londres'en Errege, Erregiña ta beste lagun askoren aurrean. Bizien Mementuan, gelditu zan kordegabeturik. Bere arpegia irazekirik zegoan, bekokia izerditua, ta bere gorputza gogortua. Beldur santu batek artu zituan guziak. Azkenik Erregek, luze iritzirik onetan zi-

(1) Alanus Rediv., par. 3, cap. 22.

joan denborari, bialdu zuan bere ofizia-
letako bat, Santua konortera ekarri ze-
zan. ¡Guzia alperrik! Santuagana urre-
ratzean beldurrez ikaratu zan, eta etzan
atrebitu obeitzen. Andik laster bialdu
zuan beste ofiziale bat, linguari agindu
ziona bera egitera, baña onek ere etzuan
izan besteak baño ausardi geiago. Itse-
don bear izan zioten Jaungoikoaren ser-
bitzariari, bere konortera berez etorri
arte. Jarraitu zuan Meza Santuak, debo-
zio andiaz guziak entzuten zutela, baña
Ostia jasotzera eltzean, Errege, Erregi-
ña, ta beste ia irureun lagunek ikusi zu-
ten santuaren eskuetan, Ogiaren lekuan,
miragarrizko ume eder bat, eta ainbes-
teraño arritu ziran aietako asko, nun asi
ziran deadarka. Mirari onen ondoren
laster ikusi zuten beste bat. Jaungoikoa-
ren Ama agertu zan argi ederrez ingu-
ratua, amabi izarrez koroatua, besoetan
bere Seme maitea zeukala, ta onen es-
kuiko esku jasoari eusten ziola. Esku
onekiñ egiñ zuan Amak Gurutzearen
señalea jendearen gaiñ, eta guziak beren
biotzak bigundu, ta negar egiten zuten.
Kaliza jasotzean, ikusi zuten nola ageri

zan kaliz onetan Gurutze bat, bere gañian zinzilik Jesu-Kristo Gure Jauna zegoala, kalbarioan egon zan bezela. Odol preziotsua bazijoan irriuan bost zaurietatik oso ugari, kaliza bete-bete egiteraño, ta Jaungoikoaren Amak artzen zuan bere eskuakin Odol au, ta zabal-tzen zuan jendearen gain. Busti aldi onen ondoren Meza entzuten zeuden guziak iduki zuten beren pekatuen eza-guera aiñ argia, nun gelditu ziran oso ikaraturik. Beren damua izan zan andie-netakoa, batzuek beren bularrak gogor jotzeraño. Meza amaitzean, igo zuan Santo Domingo'k kulpitora, ta bere ser-moiaren itz gaitzat artu zituan 97-garren salmoko itz auek: "Kanta zaiozute Jau-nari kanta berri bat, gauza miragarriak egin ditu ta,,. Ikusi dituzute zuen be-giakin, jarraitu zuan esaten, eta zuen biotzak bigundu dira, Gure Jaunak al-darean oraiñ egin dituan mirariakiñ. Ezagutu dezute, nola munduaren Salba-tzallea berriro jaio dan, eta nola zuek-gatik gurutziltzatua izan dan. Jaungoi-koak agertu dizute gertari ori Mezako misterio andi ta ikaragarrian. Mirari onek

izan ditu, an arkitzen ziran lagunik aibat testigu. Sentitzen badezute bada zuen biotzetan Jesu-Kristo ganako amorioaren berotasun edo garrik t̄sikienik, emaizkatzute eskerrak Jaunari, kantaizkatzute bere alabantzak, eta otsandetu itzatzute bere anditasun eta al-izatea. Domingo'k adierazi zien an zeuden guziaz, zer esan nai zuan, Maria'ren bitartez Jaunak egin zien mesedeak.

Jakiñ dezagun, Jaungoikoaren Amak egin zuala orduan agerian, sarritan, eta batez bere festegunetan, ikusten ezuala, bere onran Meza entzuten duten kristauakgatik egiten duana ta bera. Ezpade-gu artzen gure animetan Jesus aurraren bendizio bera, ezpaditu bustitzen gure animak Jesusen Odol preziotsuak, esan degun mirari aren testigu zorionekoen gorputzak busti zituan bezela, gure gogortasunak, nagitasun eta epeltasunak dauka onen errua. 998-garren urtean (1), Frantzia'ko Errege Roberto'k, gudan sartzean, setiatu zuan Borgoña'n, San Jerman'go gaztelua. Barruan zeudenak

(1) Baron., An. 998, num. VI.

egiñ zuten al guzia, eziñ geiagoraño, gaztelua gordetzen, eta ill ziran Erregeren soldauetik asko. Seigarren egunean, oso mindurik Erregea, agindu zuan asaltuan sartzeko, eta barrukoak, ikustean kanpokoan prestamenak gaztelua artzeko, juan ziran beldurrez beterik San Benito'ren ordenako praille Jislebert doatsua gana. Onak esan zien, ipintzeko konfiantza guzia Maria'gan, eta berak eman-go zuala Meza bat Ama Birjiñaren aldean. Guziak erregutzen zeuden bitartean, lañu lodi batek estali zituan gaztelua ta bere inguruak. Kanpokoak eziñ erauntsi ziozaketen, eta barrukuak doreen goienetik ikusten zituzten kanpokoan joanetorriak, soldadu asko berai illaz. Erregek, bere soldaduak gutsituaz zijoazela ikustean, artu bere soldaduak eta bereala andik urrutiratu zan.

Egia da eztiela beti Maria'k erantzuten guk estutasunetan egiten dizkagan diadarrari onelako mirari ikaragarriakiñ, baña etzaio beñere alperrik deitzen. Jaungoikoaren Ama dalako, beste santu guziak baño Irutasun guziz Santuaren urrago arkitzen da. Maria'ren erreguen

indarra zenbaterañokoa dan, Berak aditzera eman zion Alain doatsuari. Ona emen erlijioso santu onek zer utzi zuan eskribiturik:

1.º Maria'k Jaungoikoari eskatzen diona, beti iristen du.

2.º Jaungoikoak erabaki du, Mariak anparatzen dituan guziaz errukitzea.

3.º Bere bitartekotasunak indar andia dauka gizonen juanetorrietan.

4.º Gizon batek bestea maita lezakean baño geiago maitatzen ditu Maria'k pekatariak.

5.º Ainbesteraño nai du gizonak zeruratzea, nun prest egongo litzakean, Jaungoikoak utziko balikio, eman al dituzteken pena guziak sufritzeko, gizon guziak Jaungoikoari dioten zorra ordaintzeagatik.

6.º Beraren onran egiten dan gauzarik tšikienak, *Ave-Mari* bat erreztzea baño besterik ezpadare, beste santu guziaz ematen zaien adorazioak baño indar andiagoa dauka.

7.º Debozios erreztatzen dan *Ave Mari* bat bakarria artzen du berak doairik estimagarriena bezela.

8.º Mariak Jaungoikoari ematen dion omenak pozez betetzen ditu santu guziak.

9.º Maria'ri ematen diogun omena santuai ematen diegunaren ondoan, zillarra urrearen ondoan bezela da.

10. Maria'k zeruratzen ditu egunero pekatari asko.

11. Maria'k ateratzen ditu Purgatoriotik egunero anima asko.

12. Zenbat eta zerua dan izar ta beste gau-argiak baño andiagoa, ainbat Mariak pekatariak daukakierrukia da andiagoa, beste santu guziak daukakiertena baño.

Amabi gallaldi edo pribilejio auek dira, San Juan'ek Maria guziz Santaren buruaren gañian ikusi zuan amabi izarrezko koroia ura bezela. Agindu edo promesa auek ondoren, ¿nork ezta sentituko bere biotzean Erregiñ andi onenganantz daraman indar atzeratu eziñ ditaken bat? ¿Nork ezta errezatuko *Abe-Mari* bat, jakiñik, erregu labur onek, berak bakarrik balio duala lurreko ondasun guziak baño geiago? Ipiñi ezazute zuen alegiñ eta arreta guzia Birjiña guziz

Santari gogoa betetzen eta bera onratzen geienbat Meza Santua beti entzunaz. Iduki ezazute gogoan, Jesus, Meza bakoitzean berriro jaiotzen dala, ta Jaungoikoaren Amaren diñidadeak artzen duala edertasun berri bat.

Mezak Jaungoikoaren Amari ematen dion atsegiña ta onra ikusi ondoan, azaldu bear degu, zer egiten dien Santuai. Zoriontasun berezkoa eztana geitu ditakela, adierazi degu, ta geitasun onen sustrai guziak azalduko ezpaditugu ere, ipiñiko ditugu emen santuai gure omenak naierazitzen dizkiotenak; au da, gure zoriontasuna egiñaz gañera, aiena geitzen dutenak. Asi gaitean erakutsiaz, Jaungoikoak nai duala ikusi, bere serbitzari leialak onratuak dirala, ta Bera da aurrengo onratzen dituana Apokalipsis'ko liburuan ikusten degunez (1): "Berak lagunduko didate zuriz jantzita, artarako diña diralako,". Testamentu zarrean orduko esana zeukan (2): "Nik gloriatuko det neri gloria ematen didana;

(1) Apoc., III, 4.

(2) Reg., II, 30.

baña ni aukezten edo despreziatzen nautenak eroriko dira denbora berean nere aukezan,,. Santuak, bizi izan diran bitartean, iges egiñ izan dute munduaren onretatik; pazientziaz eraman dituzte gaiztoen iseka, eraso ta persekuzioak. Beragatik Jaungoikoak argiro erakusten du aien gaitzgabetasuna ta birtutea, ta nai du kristau guziak aiek adoratzeara.

Jaungoikoak emen egiten duanaren ispillu eder bat daukagu Mardokeo'ren kondairan (1): Au zan gizon andizkieta-ko bat, Aman arroak gorrotoz persegitzen zuana, ta ondatzeko al guzia egiñ zuana. Jaungoikoak eragotzi zion gizon gaizto oni bere asmoak betetzea, baita egiñ ere, erri guziak bere serbitzaria gloriatzea. Galdetu zionian Asuero'k Aman'i: ¿Zer egiñ bear zaio, Erregek onratu nai duan gizon bati? Aman'ek erantzun zuan: Erregek onratu nai duan gizon bati egiñ bear zaiona da, jantzi Erregeren soñekoz, jarri Erregeren zaldietako baten, ipiñi bere buruaren gainean Erregeren koroia, Erregeren ingu-

(1) Reg., II, 30.

ruko printzipeen arteko lenengo ta andienak eraman dezala zaldia bridetatik arturik, urian barruna, deadar egiñaz: Onelañe onratua izango da Erregek onratu nai duana. Asuero'k erantzun zion: Zabiltz azkar, artu itzatzu soñeko bat eta zaldi bat, eta egiñ ezazu esan dezun guzia, jauregiko atean dagoan Mardokeo judioarekiñ.

Baldiñ fedegabeko Errege onek orrela sariatu bazuan berari mesede egiñ zion bat, ¿nolakoa ezta izango, Jaungoikoak bere serbitzariantzat daukan gloria?

Elizak, Espiritu Santuaren erakutsiz, badaki Santuak onratu bear dirala erreguakiñ, sermoiekiñ, alabantzakiñ eta bidago edo peregrinazioakiñ, baña batez ere Mezako Sakrifizio santuarekiñ. "Onelañe onratua izango da Erregek onratu nai duana,".

Bai; onra au ematen zaie santuai, beste edozeiñ lekutan baño obeki, Meza Santuan, baldiñ au ematean edo entzutean, eskeintzen bada beren gloria ta zoriona geitzeko asmoarekiñ. Printzipe bat onratzeko, egiten da askotan, lenago gertatutako gauza arrigarriren baten oroi-

mena. Ura egitean ezta aitatzan Prin-
tzipearean izenik, eta alare onek atsegiñez
artzen du egiten zaion onra, ta oso on-
tzat ematen du. Eta ala Meza Santuak
aurkezten badizkigu ere Salbatzallearen
bizitza ta eriotza, Santuai ematen die
gloria, ta auek sentitzen dute zorion be-
rezi bat, mirari bizi au beren onran es-
keintzen dalako.

Apaizak esaten ditu beren izenak, eta,
San Juan Krisostomo'k (1) dionez, Eli-
zaren atentzio au zaie guziz atsegiña.
“Errege baten gallaldi edo triunfuaren
pest andien erdian, esaten du, aipatzen
dira Errege aren lagun gudarien izenak,
eta baita gudan gogor egin dutenenak
ere. Era berean Santuentzat onra berezi
bat da, beren Maisuaren aurrean aien
izenak esatea, bere Pasio ta eriotzaren
oroimena andizkiro egitean, eta baita in-
fernuko etsaia garaitzeko egin dituzten
azañen alabantzak aditzea ere.”

Santa Jertrudis'ek ala egiñ oi zuan,
baita bere ordenako mojai erakutsi ere,
ta asko aldiz ezagutu zuan debozio onen

(1) Hom. 21.

indar andia. Bere *Errevelazioetan* irakurten da ondorengo gertaera au (1): Mezatan zegoala santa au San Migel egunian, eskeiñi zuan Sakramentu guziz Santua esanaz: Eskeintzen dizut, Jauna, Sakramentu guziz Santua zure printzipe andiaren onran. Eskeintzen dizut Esleitu guzien alabantzan, beren atsegiña geitzeko, ta aingeru guzien gloria ta zoriontasun andiagorako. Gero ikusi zuan, nola Jaungoikoak ontzat artzen zuan, eskeiñi zitzaion doaia. Aingeruak izan zituzten esan eziñ ainbateko atsegiñak; beste batzuek zirala ziruditen, eta etorri zitzaizkan berari eskerrak ematera bakoitza beren koruetan.

Gauza arrigarria iduritzen zaigu, Meza bakar baten bidez Aingeruai alako zoriontasuna geitzea, ta alare auñe gertatzen da, aien onran Meza Santua Jaungoikoari eskeintzen diogun aldi bakoitzian.

Begira ondo, Santa Jertrudis'ek eztiola eskeintzen Sakramento guziz Santua, San Migeli, ezta aingeruai ere, bai-
zik Aita Jaungoikoari. Eztezute arkituko

(1) Lib. IV, c. 35.

liburu onen iñungo lekutan, Sakrifizio Santu au eskeiñi degikiola Maria guziz Santari, ez aingeruai, ta ez Santuai. Beti eskeintzen zaio Irutasun Santuari, ta zerutar doatsuen izena, aitatu bakarrik egiten da. San Agustiñ'ek esaten du: "Aldareak eztiztegu egiten Martiriai, baizik Martirien *oroipenean*. ¿Bada apaiz iñoiz ere esan duanik, santuen erlikiak dauden aldarean: San Pedro, San Paulo, edo San Zipriano, zuei eskeintzen dizugu Sakrifizioa? Trento'ko Konzilioak ere era berean dio: "Elizak, santuen onran Meza ematea oitzen badu ere, ezte orregatik ere berai eskeintzen, baizik aiek koroatu dituan Jaungoikoari. Apaizak eztu esaten: eskeintzen dizut jo San Pedro, o San Paulo! Sakrifizio au, baizik bakarrik, eskerrak ematen dizkiogula Jaungoikoari, garaipena onelako edo alako santuri eman ziolako. Lurrean festa egiten diegun santu aiei, eskatzen die gugatik zeruan erregutu dezatela,,. Eta gañera Elizak dio: "Iñork esaten badu eztala ondo Meza ematea santuen onran, beren bitartekotasuna iristeko, eskumikatua izan dedilla,,.

Egi au argiroago jartzeko, ipiniko di-
zuet, Santa Jertrudis'en Errebelazioeta-
ko beste ejemplo bat (1): "Sajonian, Hel-
fede'ko Komentuan, ill zan moja bat,
eta bere lagun bat zegoan argatik Meza
entzuten; Ostia goratzean, esan zuan:
Zeruko Aita; eskeintzen dizkizut Jesu-
Kristo Gure Jaunaren Gorputza ta
Odola, gure aizpagatik, eta Ostia Santu
onekiñ batean, Jesus'en Biotz gozoak
denbora guzietan agertu digun amorioa.
Jaungoikoak ideki zizkion orduan mo-
jari animako begiak, eta onek ikusi zuan,
illdakoa arkitzen zala bere bizitza san-
tuaren saria gozaten, baña berak eskei-
ñi zuan sakrifizioaren bitartez, artu zua-
la diñidade andiagoa, arkitzen zala jan-
tzia soñeko ederragoaz, ta onore andia-
goz inguratua,,.

Ona emen beste kondaira arrigarriago
bat. Españiako Errege San Fernando'ren
bizitzan irakurtzen degu (2): 1332 ga-
rren urtian, Sebilla'ko itsas-gizon batek,
portugaltarrai gudan egin zizten onda-

(1) Lib. V, c. 4.

(2) Papebroch, ad diem 30 Maji, in gloria posth,
Sancti Ferd., c. 1.^o

mendi andiak, baña gero erori zan bere etsaien eskuetan, eta auek sartu zuten presondegi illun eta estu batean, Lisboa'n. Bere emazteak jakitean, juan zan bereala San Fernando'ren kapillara, erregutu zion sinismen bizi az ogeitamar Meza aterako zituala aginduaz, Meza bakoitzako ogi bat, neurri bat ardo ta kandela bat eramanez. Lenengo Meza eman zan egunean, Meza amaitzeaz batera, esku ezezagun batek zeraman it̃sagizona, gosiaz ia illa zegoan presondegira, kandela irazeki bat, eta ipintzen zituan bere aurrean ogia ta ardoa. Gizon au gelditu zan ikaraturik; eta Jaungoikoari laguntza eskaturik, egiñ zuan gurutzearen señailea, bere ta ogi ta ardoaren gañean, eta artu zituan. Bigaramonian beste ainbeste gertatu zan, eta baita aste betean ere.

Zortzigarren egunian presondegi artako zaitzallea eldu zan ara, zertara etzekiala, ta ikustean kandela irazekia ta ogi ta ardoa, uste izan zuan presondegian zegoanak sorginkeriz ingiratu zituala gauza aiek, eta esan zion, kastigatuko zuala egia aitortzen ezpazion. Alperrik

izango da ni kastigatzia, erantzun zion it̄sas-gizonak, guzia aitortuko det. Badira zortzi egun, esku ezkutuko batek jartzen dizkidala aurrean ogi bat eta neurri bat ardo. ¿Nork ekartzen dizkit gauz oiek? ¿Nundik datoz? Eziñ bururatu zait, eziñ eldu naiz jakitera. Zaitzalleak esan zion Erregeri gertatu zana, ta onek, deiturik bere aurrera it̄sas-gizonari, esan zion; Juramentu egiten badidazu Jaungoikoaren izenian, biurtuko zerala onera, utziko dizut zure et̄sera juaten, jakin dezazun zer obra on egin diran zure onerako. Gizon onek itz eman zion, ala egingo zuala, etorri zan Españiara ta eldu zan Sebilla'ra. Bere emaztea zegoan ordu artant̄se ogeita bat garren Meza entzuten. Et̄seratu zanean, arkitu zuan senarra osasun onean. Esan zioten elkarri, ala batak nola besteak, zer egin zuten; biak ezagutu zuten, San Fernando'k egiñ zien milagro andia, ta bereala juan ziran bere kapillara, beren bitarteko altsuari esker-rak ematera. It̄saz-gizonak atsedean zuan egun batzuetan, eta Portugal'era biurturik, esan zion Erregeri zer gertatu zan. Illtzeko epaia emanik zegokion, baña

ala ere Erregek agindu zuan, bizirik utzi ta prisiondegitik ateratzeko.

Onelako gertaera asko arkitzen ditugu Padua'ko San Antonio'ren kondairan, eta baita beste Santuenetan ere, ta berak aditzen ematen digute, nola santuak etortzen zaizkigun lagun egitera, auen onran Mezak ateratzen ditugunean. Eskeiñi degiogun bada Jaungoikoari Sakrifizio santua asmo onekin: aldarean dagoan Jesus'ek adituko ditu aien erre-guak. Ondorengo ejemploak adieraziko digu nolako esker onez artzen duten beren gloriagatik egiten deguna.

Siena'ko erlijiosa, Pasidea zeritzan batek, gaisotegi bat ikustera juanik, arkitu zuan bertan, agonian zegoan emakume gazte bat. Iltzen zegoalarik ere, idiki zituan begiak, zeruruntz biurtu zituan, eta irriparre egin zuan. Irriparre arrigarri orrek zerbait esan naidu, esan zion Pasidea'k, berari lagun egiten zion apaizari. Eskatu degiogun Jaungoikoari adierazi degigula. Pasidea belaunikatu zan beziñ laster, gaisoa bat batean etorri zan bere ezaguerara. Galdetu zioten, ia nundik zetorkion pozaldi miragarri ura,

ta erantzun zien: Santu askoren fest-egunetan Errosarioa errezzatzeko oitura izan det, eta nik onela onratu ditudan santuak, etorri zaizkit oraiñ, lagun egitera. Irriparre egiten nuan nere zorionaz, berakin batean zerura juateko prest nengualako, ta onetan zuen erreguekin geldierazi, ta beartu nazute agertzera, iñork jakin bear etzidana (1).

Oraiñ esan danarekiñ daukagu Santuak beren debotoak ganako daukaten esker on guziz andiaren ezagungarri bat. Errosarioa errezzatzearekiñ mesede aiñ andiak iristen badira, ¿zer esango degu, beraz, iritšiko degula, Meza bakar bat entzunarekiñ? Utzi zadazute gai onetan konseju bat ematen: elizarako irten baño len begira zaiozute zuen egunari edo pronostikoari, ta Meza bitartean esan zaiozute egun artan festa egiten zaion santuari: Zure onran Meza entzuten det.

Konsagrazioko denboran ere esaiozute Jaungoikoari: Jauna: eskeintzen dizut Ostia santu au, zure serbitzari U. doa-

(1) Pasidee Groggi. Los Bolandistas hacen mención de ella el 13 de Mayo.

tsuaren gloria ta zoriontasunik andiene-
rako. Zuen eriotzako orduan jakingo
dezute, zenbat irabazi dezuten oitura
onekiñ.

EMERETZIGARREN BURUA

**Meza Santua da kristáuk daukaten tesororik
andiena.**

Meza Santuak dakartzkigun mese-
deen gañian itz egitean, gelditzen naiz,
zer esan eztakidala, gai au oso ugaria
dalako, bada izanik aiñ asko gogora da-
tozkidan gauzak, eztakit nundik asi.
Animen Aita ta erakusleak oso asko iz-
kribatu dute gai onetan, eta eziñ egin
diteke guzien oroimen bat. Alare jarriko
ditut oien esamen batzuek: San Lorenzo
Justiniano'k dio (1): "Eztago gizonen
miñgañik, Meza Santuko Sakrifizioa es-
keintzetik datozen grazia ta bendiziozko
frutuak adierazi ditzakeanik. Pekatariak
egiten ditu an Jaungoikoarekin pakeak;
ona obetutzen da, an pekatuak barka-

(1). Lib. de Obed., c. 24,

tzen dira, oitura tšarrak itotzen dira, merituak geitu, ta deabruaren sareak urratzen dira„.

Aita Antonio Molina, praille kartujo españiatarrak, *Apaizai dagokien diñidadearen gañian* itz egiten duan liburuan, utzi dizkigu pentsamentu ta sentimendu batzuek, Meza Santuaganako amorioan biotza sutu dezaketenak: “Eztago ezer ere gizonarentzat mesedegarriagorik ez eta Purgatorioko animentzat probetšugarriagorik ere, Mezako Sakrifizioa baño. Gañerako egite on guziak eta birtuterik goienak eztute ezer ere balio Meza Santuaren ondoan„. Erakusgai onek gañez eragiten dio adimentuari. ¿Nola ontzat eman diteke, jaiera egiazkoaz, eten gabeko atentzioaz, umiltasun sakonaz, asmorik garbien eta zuzenenaz mundu guzian egindako gauz on guziak, Meza bakar batek baño gutšiago balio dutela? Eta alare ezta ikaratu bear, gogoratzen badira buru onen aurrekoan jarri diran egiak.

Ona emen zer esaten digun Fornerrus'ek: “Bere kontzientzian pekatu larriarik eztuala, Meza jaierez entzuten dua-

nak, meritu geiago irabazten du, Jaungoikoaren amorez gauzarik penagarrienak egiten dituanak baño„. Au gauza jakina da, bada relijioaren egite guziak ateratzen dute beren meritua, egiten dan gauzatik. ¿Eta bada benturaz, gauza andi eder eta jainkozkoagorik Meza santua baño? Izan eziñ diteken gauza diruri, arkitzea, ainbeste meritu irabazi ta Jaungoikoari onore aiñ andia eskeintzeko arretarik eztuten kristau asko. Urrutiko Eliz ospatsu batera juateagatik Meza utziko lukeana izango litzake it̃su bat bezela, bada juaera orretan irabaziko litukean merituak elituzkete berdinduko Meza bakar bat entzun gabe uztearekin galduko lirakenak.

Mart̃sant'ek aditzen ematen du Meza Santuaren probet̃sua ondorengo itz auekiñ: “Eliza katolikoak eziñ egiñ dezake ezer ere santuagorik, edo obeki esateko, Jaungoikoaren diñago, Maria'ren eta Aingeruen gogokoago, justu ta pekatarientzat probet̃sugarriago, ta Purgatorio-ko animentzat osasungarriagorik, Meza Santua eskeintzea baño„.

Meza emateko liburuaren itz-aurrean

Elizak esaten dio apaizari “iduki dezala Meza Santua gauza guziz anditzat, ezagutu dezala argiro, Meza bakar bategatik ematen zaiola Jaungoiko guziz Altsuari, birtutezko obra guziak egiñ eta atsekabe guziak eramanta bañore omen andiagoa,„. Itz arrigarri auek ematen dute aditzera ondoen, Sakrifizio Santuaren balio neurrigabea.

¿Nai dezute jakiñ kristauak, zergatik Meza Santua dagoan obra onik andienen eta martirioaren ere gañetik? Au gertatzen da, Salbatzalleak aldarean birtutezko obra on guziak egiten ditularik, bere meritu guzi neurrigabekoak bere Aitari eskeintzen dizkiolako. Gertatzen da gañera, Meza bitartean Jesus'en Biotzetik datozen alabantza, amore, adorazio ta ezker ona, santu ta aingeruen egite guziak baño, neurri gabe andiagoak diralako; ainbesteraño, nun, norbaitek eskeñiko balizka Irutasun guziz Santuari, apostoluen, martirien, konfesoreen eta birjiñen penitentzi, erregu ta birtute guziak, au guzia izango litzake, apaizik umillenak emandako Meza bakar batek baño gutsiago balioko lukeana.

Azkeneko ezagungarritzat esango det gañera, Elizak Trento'ko Konzilioan erakusten diguna (1) 1562-garren urteko Agorra'ren 17-ian: "Beartuak gaude ezagutzera, kristauak eziñ egiñ lezaketela, misterio jainkozko auek baño gauza santuago ta jainkozkoagorik; auetan Jauskiñi edo Biktima bizierazleak pake-tzen gaitu Aita Jaungoikoarekin, eta Bera sakrifikatzen da egun guzietan aldarean, apaizaren bitartez,,. Beste erakuslerik ezpagendu ere, au naikua izan bear litzakigu, egunero Meza entzuteko asmo erabaki ta sendo bat artzeko.

Pensa ezazute kristauak, Elizak ematen digun ikaskizun onetan, eta ezteza-zutela uste izan, onela itz egitean, esan nai diela apaiz ta gañerako kristauai, beste egite onak uzteko. Ez; Elizak, ez-tu ori esan nai, baizik erakutsi nai digu, apaizak egiñ eziñ badezakete Meza ematea baño gauza jainkozkoagorik, kristauak eziñ egin lezaketela Meza entzutea, laguntzea, emanerazteko alegiña,

(1) Sess. XXII, In decreto de observ, in Missa.

ta apaizarekiñ batean eskeintzea baño gauza santuagorik.

Idiki itzatzu ba begiak, anima ona, idiki itzatzu belarriak ere; idiki ezazu batez ere zure biotza, aditu ezazu zure Amak erakusten dizuna, ta jarraitu erakutsi oni. Iduki ezazu beti gogoan, egiñ ditzatzukela gauza guziz on asko Jaungoikoaren gloriarik andienerako, baña eziñ eskeiñi degikiozula Mezako Sakrifizio Santua baño gogokoago zaion ezer ere. Eguzkiak izar guziak baño indar eta edertasun geiago izanik gañera, lurrari berak bakarrik beste zeru-argi guziak baño on geiago egiten dion bezela, era berean Meza Santuak geiago balio du, zuk irabazi al ditzatzukean beste meritu guziak baño. Urre zatitso batek berun puska andi batek baño geiago balio duan bezela, alaşe Meza Santua ondo entzuteak, erregu ta penitentzi guziak egiteak baño geiago balio du. Au onela izanik, zer esango degu gure nagitasunaz, Mezak aiñ erraz uzteaz, ta onetarako jartzen ditugun aitzaki ezerezak?

San Franzisko Sales'koak estimazio guziz andia ematen dio Meza San-

tuari, ta erregua baño obetzat dauka. Komentu bat jartzeko agiñdu zion bere ordenako erlijiosa bati eskribitzean, esaten zion (1): “Nere alaba maitea, erregutzen dizut, alik lasterren jarri dezazula elizatso bat, egunero Meza entzuteko, baño zeron etsean egin eziñ bazenuke, etzaitezte gelditu beñere, modesti guziaz juan gabe Elizarik urrenera, Meza Santua entzutera, bada Misterio Santu aue-tan egiaz dagoan Salbatzalleagana goize-ro urreratzen bazerate, au izango zaitzue indar andiko laguntza, egunaren gañerakoan,,. Andik laster erlijiosa onek, au da, Juana Franziska Fremiot, Baronesa de Tšantal'ek, galdetzen zion bere animaren aita oni: “¿Bearko det benturaz, utzi aste barruan orazioa, Meza entzuteagatik, ala utziko ote det Meza, orazio egiteagatik?,. Santuak erantzun zion: “*Askoz obe* dezu egunero Meza entzutea, orazio egiteko aitzakiarekin entzun gabe etsean gelditzea baño, bada Salbatzallearen Gizatasunaren aurkez-tasun gorputzakikoa ordaintzeko ezta as-

(1) 11 g. esk.

ko espirituzko aurkezetasuna; ona emen zergatik Elizak gomendatzen dien kristau guziaz alako alegin eta arretarekin, egunero Meza entzutea,.

Ala Fornerus'ek nola San Franzisko Sales'koak, naiago dute Meza, orazioa baño, oraindik an Jesu-Kristo'ren bizitza ta Pasio'aren gañian bada ere. Lenengoak dio: "Deboziaz Meza entzuten duan kristauaren otoitza beste otoitz guziaz baño ohea da; luzeenak eta oraindik zeruko gauzen gania egina baño ohea, Jesu-Kristo Gure Jaunaren merezimentuak neurrigabeak diralako; emendik datoz konta eziñ ainbat grazi, bada zeruko ondasunezko ibai egiazko bat, da,."

¿Naiago dezute, ala guziz ere, Jesu-Kristoren bizitza ta Pasioa gogartatu edo meditatzea? Ondo da. Baña ¿zergatik eztezute naiago gogarte edo meditazio auetarako, Mezako ordua, au da, misterio andi auek zuen begien aurrean aurkezten diran ordua? ¿Atsegiñ zaitzu, Jesu-Kristorekin zaudela kontu egiñ, eta berarekin itz egitea? Gogoratu ezazu, aldarean dagoala egiaz bere Jaun-

goikotasun eta Gizatasunarekiñ. Apaiza ikusteak eztizu galeraziko zu debozior egotea, baizik guziz bestera, zure animari lagunduko dio, apaizak egiten duanari jarraitzen, eta kontuz egoten, arka egiten dituan zeremoniak, zer esan naituten, ulertzeko.

Buru au amaitzeko, esango dizuet Lukas Pinelli'k dioan gertaera bat (1): Langille beartsu batek zeukakion Meza Santuari jaiera guziz andia, ta etzan beñere entzun gabe gelditzen. Egun batian, guziz goiz jaiki, ta jua zan salerosi edo merkatuko plazara, beti, oitura zan bezela, langilleak zai egon oi ziran lekura, norbaitek lanera eramane zitzan. Aditzen du Mezatarako jotzen duten eskilla, badijua lasterka; entzuten du Meza Santua debozio andiaz, ta Meza amaitu ondorean ere, an ari da denbora puška batean, eguneroko ogia Jaungoikoari eskatzen. Biurtu zaneke, langille guziak lanera juanak ziran. Luzero zai egon eta gero, etšera zijoan arpegi tristearekiñ, eta arkitzen du bidean zaldun aberats bat, eta

(1) Lib. II de Missa, cap. III.

jakitean onek zergatik langille ura triste zijoan, esaten dio: Ez estutu, baizik zuaz, nik nai dedanerako Meza entzute-ra; nik emango dizut zure alobera. Juan zan langillea elizara, au da, komentu bateko elizatšora, ta entzun zituan goiz artan an eman ziran Meza guziak, eta gero juan zan zaldun aren etšera, ta onek eman zizkan bazkari on bat eta zillarrezko diru bat. Agertu zion al ainbatean bere esker ona, ta guziz pozik artu zuan bere etšerako bidea. Bat-batean aurkezten zaio gizon arrotz itsura on eta atsegiñ garrizko bat, eta galdetzen dio, zerk ematen dion pozaldi ura. Langilleak esaten dio, zer gertatu zaion, alabatuaz bera esku zabalaz sariatu zuan ura. Baña gizon arrotz ari etzitzaion iduritzen langilleari beziñ ondo, ta esan zion langilleari: Aberats orrek gutši eman dizu ainbeste Mezagatik; zuazkio esatera, ezpadu zugatik geiago egiten, damutuko zaiola. Obeitu zion, eta esan zion bere ongilleari, zana zan bezela, gizon ez ezagun, itsura on eta beneragarrizko ark esan ziona. Zaldunari gogoan jarri zitzaion, santuren bat izango zala, ta eman

zizkan langilleari bost ezkutu, esanaz beragatik otoiz egin zezala. Langilleak, irten beziñ laster, arkitu zuan gizon ezezagun ura, bera, ta onek egiñ zion lenagoko aldian egiñ zion galde bera: ¿Zenbat eman dizu? Emen lenago bezela alabatu zuan aberats aren ugaltasuna. Biurtu zaite berriz zaldun orrengana, ta esaiozu, eun ezkutu ematen ezpadizkitzu, bigar eztala biziko. Langille gizajoari gauza gogorra iduritzen zitzaion geiago eskatzea, baña gizon arrotzak bearturik, jarri zan artara. Aberats ura beldurtu zan, bada zan pekatari andi bat, beñere ondo konfesatu etzana, ta naiago izan zuan eun ezkutuak ematea, eriotza bat-baterakoarekin illtzeko arriskuan jartzea baño. Urrengo gabea, amesetan zegoa-la agertu zitzaion Jesu-Kristo, ta esan zion: Nik bialdu dizut bi aldiz langille ura. Nere justizia zorrotzari zure kontra bengantza eskatzen zion deabruak, artarako eskubidea ematen ziola, esanaz, beñere konfesatu eztezun pekatu larri batek, eta argatik bialdu dizut. Zorionean zuretzat, gizon onek entzun du Meza Santua, zuk esan bezela, alako de-

bozioarekin, nun atzeratu dedan nere epaia, damutu ta penitentzia egiteko denbora izan dezazun. Konfesatu itzatzu zure pekatuak, ondu ezazu bizitza, ta izan zaite esku zabalekoa beartsuentzat. Alañe egiñ zuan. Andik aurrera, Meza santua maiz entzun zuan, eta Sakrifizio andi au bere aberastasun guziak baño mesedegarriagoa izan zitzaion, bada onela aldendu zan bere gorputzeko ta animako eriotzatic.

Benturaz galdetuko didazute: ¿Meza bat saldu al diteke? Beñere ez; au izango litzake Judas'ek, bere Salbatzallea saltzean, egin zuana berritzea. Ori orrela dalarik, ¿zergatik apaizak artzen dute dirua? San Paulo'k dio (1): "Aldarea serbitzen duanak, aldaretik bizi bear du,; ta orregatik artu dezakete.

Elizaren lenengo eundietan, kristauak eramaten zituzten Mezatarako ez bakarrik ogia ta ardoa, baizik baita iriña, olioia, frutak eta beste orrelako gauzak ere, apaizak eta beartsuak jan-edana izan zezaten. Amaikagarren eundian

(1) I Cor., e. IX, v. 13.

doai oien ordañaz asi ziran limosnak dirutan eramaten. Emendik dator Mezakgatik limosnak emateko oitura. Orrengatik apaizari eramaten diozuten limosna, Meza eman dezan, edo beste berari dagokion lanen bat egiñ dezan, egin bear dezute kontu, limosna dala, baña beñerez animarentzako mesedeen prezioa. Animako ondasunak saldu edo erostea, izango litzake simonia deitzen dan pekatu izugarria (1).

Egiñ dezagun kontu, emakume bear-tsu batek esaten diola andre aberats bati: "jaten eman nai badidazu, utziko dizkizut gaur entzun dedan Mezaren fruituak"; emakume onek egingo luke guziz gaizki, animako ondasunak lurrekoak-gatik saldu naiko litukialako; gañera eziñ saldu litezke, bada Mezaren meritua be-realatik Jaunak artzen du, entzuleen onerako, edo ematen duanak edo entzuten dutenak nai dutenerako. Une artan bertan ezpadezu eskeintzen zere bu-

(1) Pekatu onen izena dator Simon Mago gandik. An San Pedro'k madarikatu zuan, Apostoluai Espiritu Santuaren doaiak erosi nai izan ziztelako.

ruagatik, edo lagun urkoagatik, meritu ori sartuko da Elizaren tesoroan eta onen giltzik iñork ere eztauka. Baña aurriz erabaki zenezake, Meza santuaren frutuak norentzat izatea nai dezun, izentatuaz norgatik Meza atera edo entzun nai dezun, eta onela au beste gauza bat izango litzake. Egiñ ezazu kontu eskale batek esaten diola aberats bati: “Jaten eman nai badidazu, gaur edo bigar Meza Santua éntzungo det, zuk nai dezunerako,„. Onek esan naiko luke: Zure limosnaganako esker onez utzi nai dizut, neri dagokidan animako saria, zure onerako izan dediñ. Jakiña da, au egin ditekela, baña beti, eskaliak utzi dion ondasuna neurrigabe andiagoa izango litzake eman al litzaizkion limosna guziak baño, Jesu-Kristo gure Jau-naren merituen parte ematen diolako, Meza Santuaren balioaren bidez.

Zuek, lurreko ondasun asko dituzutenak, saia zaitezte, beartsuak era onetan lagundu degizuten: berak dira Jesus'en Biotz Sagraduak maiteen dituanak, eta onela ordainduko diozute, Jaungoikoaren justiziarri daukakiozuten

zorra, ta geituko dezute geroko gloria zeruan.

OGEIGARREN BURUA

Meza Santua da biderik seguruenen, grazia ta zeruko gloria gudan geitzeko.

Uri ta errietan badira merkatuak eta auetan gauz asko saldu oi da. Elizak eta zeruak ere badauzkate beren merkatuak. ¿Zer da oietan saltzen dana? Jaungoikoaren grazia ta zeruko gloria. Baña gauza eder eta garestiak dira. ¿Nun arkitu dirua oiek erosteko? Etzaitezte ez-tutu, duan irit̃si ditezket.

Merkatu onetara deitzen digu Isaias Igarleak, esaten digunean (1): “Zuek, dirua daukazutenak, erosi ta jan ezazute; atozte, erosi ezazute dirunik gabe ta pagatu gabe.”. Dabid’ek ere esaten du, gauz oiek duan erosten dirala (2): “Jau-nak emango du grazia ta gloria.”. Egiaz, maiz ematen ditu, baña oso guts̃itan.

(1) Is., LV, 1.

(2) Ps. LXXXIII, 12.

Meza Santuan beziñ ugari, buru onetan adieraziko degun bezela. Azaldu dezagun lenengo, grazia zer dan.

Grazia da, gizona Jaungoikoaren gogoko ta zeruaren diña egiten duan doai bat. Grazia elkartzen da animarekiñ eta berarekiñ irauten du beti, pekatu larriren baten bidez andik botatzen ezpada. Grazia bi modutakoa da; bata, anima eriotzatik atera ta bizitzara daramana, ta pekataria justu egiten duana; ta bestia justua santutasunean aurrera daramana.

Santo Tomas'ek erakusten digu, zeñ estimagarria dan grazia: "Graziarik tñikienak, dio, lurbira guziko urriak baño geiago balio du,,. Egi miragarria baña iñolare ukatu ezin diteken egia. Anima santu egiten duan grazia daukan gizona, mallarik beenekoan badauka ere, bere Egillearen adiskidea da, ta orrela iltzen bada, zeruko ondasunaz ta Jaungoikoaz gozatzeko zorian dago, Abraan'i Jaunak agindu zionez: "Zure anparua naiz, ta zure saria izango da neurritz gañekoa,,. Nola lurbirako ondasun guziak Jaungoikoagandik datozen, eta nola beste aldetik Jaungoikoaren Izateak, zeruan

eta lurrean dauden ondasun guziak baño neurri gabe geiago balio duan, gauza jakina da, grazian dagoan gizona, mundu guzia irabazita baño neurri gabe aberatsago dala.

Zorion berdiñgabe au geitzen degu, ez bakarrik egite arrigarriakin, baizik baita zerurako meritua duten guziakin, au da gogorazio on eta erregu laburtsoakin ere. Meritu auek bi ta eun aldiz ere geitzen dira guban, bizi geran artian, eta geituko digute zoriona ill ondoan. Ona emen Salbatzaillearen itzak (1): "Nere ize-nian emandako baso bat ur ezta geldituko sari gabe,". Ezagutuko dezuen bezela, Jaungoikoak bere biotza oso azaltzen dio grazian dagoanari, ta onek ere obeki ezagutzen du Bera, osoro Jaunaz gozatu, ta suturik maitatu dezan. Baña ikusi dezagun obeki, au nola gertatzen dan.

Lenbizi, inguratzen du anima edertasun aiñ andiaz, nun, eguzki ta illargiaren argiak eta loreen edertasunak eztuan zer ikusirik. Geiago esango dizuet; ikusi

(1) Matth., X, 42.

albazenezakete ikuskizun zoragarri ori, zeru lurretako edertasun guziak ezerez-turik geldituko lirake zuen begientzat. Gauza miragarria, graziak berez egiten duana, geiagoa edo gutsiagoa bere osotasunean, graziaren ugaritasuna geiago edo gutsiago dan bezela. Santa Katalina Sena'koak, merezi izan zuan, grazian zegoan anima bat ikusteko mesedea. Santa Katalina'k zerutikako mesede onezaz gozatu ondorean, laztanez estaltzen zituan, pekatari gaiñoak graziara ekartzen lan egiten zuten misiolarien oñatzak, eta osoro arriturik, esaten zion bere konfesoriarri: "Nere Aita; ikusi al izan bazendu edertasun orren argia, emango zenduke milla aldiz zure bizia, anima bakar bat Jaungoikoarentzat irabazteagatik,,. Esaten zion gure Jaunak Santa Brigida'ri, anima santa bat ikusiko bazukean, "itšutu, kukulldu, ta kordegabeturik lurrera eroriko zitzakeala,,.

Grazia da, karidadezko edo Jaungoikoaren eta gizonaren arteko amoriozko lokarri bat. Bere bitartez Jaungoikoa ta gizona eltzen dira alkarren adiskide maite egitera, Jesu-Kristo'ren itz auek

dioten bezela (1): “Emendik aurrera eztizutet deituko nere serbitzariak, baik nere adiskideak,„. Eta ¿badago gauza andi ta ederragorik, Jesu-Kristoren adiskidea deitzea, ta egiaz izatea baño? Diñidade au gizarraza guzia baño geiago da. Diran gauza guziak Jauna serbitzen dute ta eztago ezer ere bere aginpidearen mendean eztagoanik. Jaungoikoak bere serbitzariak jasotzen ditu, berezko diñidadeaz gain, bere adiskideak deituz, ta aintzakotzat artuz. Adiskidetasun onek elkartzen gaitu Jaungoikoarekin ainbesteraño, nun nolabait ere esateko, gerokgan Bera arkitzen digun, alaitzen gaituala bere buruari daukakion bezelako maitetasunarekin. Gure desleialtasunez edo pekatuaren bidez urratzen degunean adiskidetasun atsegin onen lokarri au, Jaungoikoa ezta osoro aldentzen; gelditzen da zutik animaren ate-aurrean, jotzen du atea polit-poliki, ta nai du sartu (2): “Begira ate ondoan nagoala ta deitzen dedala; nere deia

(1) Joan, e. XVI, 14.

(2) Apoc. III, 20.

iñork aditu ta atea idikitzen badit, sartuko naiz bere etxean, jango det bere maian, eta berak nerean„.

Adiskidetasun onen bidez Jaungoikoak ematen dizka animari bere ondasun guziak. Ematen dizka debozioa, pozaldiak, naiera onak; eta barruko pozak anparatu, sendotu ta giatzen du. Itz batean, elkartzen da osoro animarekin, Eskritura Santuak dion bezela (2): “Berak eman dizkigu agindu zizkigun ondasun guziz andi ta guziz baliotsuak, jainkozko naturalezan parte izan dezagun„. ¡A! Ainbesteraño maite izaten baditugu lurreko ondasunak, ¡zenbat geiago ez genduke geregandu nai izan bear, esan eziñ ainbat aberastutzen gaituan grazia!

Anima santutua igotzen da Jaungoikoaren alaba izatera eltzeraño. ¡Zer onra dan eskale batentzat, errege batek semetzat artzea, ta milla biderrez andiagoa, errege guzien Erregea bada!

San Juan'ek, beragandik irten da be-

(2) Epist. Petr. I, 4.

zela deadar egiten du (1): “Begira zein andia dan Aitak agertzen digun ondonaia, gu Jaungoikoaren semeak deitzea, ta egiaz ala izatea nai duanian„. San Paulo’k dio (2): “Jaungoikoaren semeak bagera, bere guruzkai edo erederuak ere bagera„. ¡Jaungoikoaren guruzkai izatea, zer gloria berdiñik gabekoa! Jakiñ eziñ badezakegu, zer dan jainkozko Izatea, era berean eziñ neurtu genezake, Jaungoikoak bere semetzat artzean, ematen digun diñidatea. Azalde edo esplikazio auek erakutsiko dizute ezagutzen, aĩn argiro ezpadare, graziaren balio neurrigabea.

Oraĩn agertuko dizuet ezin ta argiroa-go, Mezak geitzen duala grazia miragarriko moduan, gero dagokigun gloria geitzen duan bezela, ta gañera itz egingo dizuet batez ere, gogozko Komunioaren gañian, au dalako Meza Santuaren parte guziz egoki bat, gure anima grazi guziz berriz aberasteko.

Azaldu dezagun erakutsgai au. Esaten

(1) Epist. III, I.

(2) Rom. VIII.

digu erakusle on batek (1): “Ez bakarrik apaizak, baizik baita Meza ateratzeko agintzen dutenak eta entzuten dutenak ere, merezi lezakete grazia ta gloria geitzea, ta grazi au segurutzen zaie, Mezari *berez dagokionetik*, beren laguntzaz eskeintzen dan Sakrifizio Santuaren bidez,,. Lenbiziko aprobetsatzen dana apaiza da. Zenbat eta andiagoa dan Meza ematean daukan debozio ta intenzioaren santutasuna, ainbat eta andiagoa izango da ateratzen duan probetsua. Berengatik edo besteengatik Meza ateratzen dutenai ere geitzen zaie grazia, pekatu larriren bat ezpadute.

Itz batean, Meza entzun bakarrik egiten dutenak ere, badaukate beren partea, ez bakarrik berak aldarera daramazkian debozioagatik, baizik baita azaltzen dituzten birtute askoen ordaiñsari bezela ere; bada bularra jotzen duten bakoitzian, berritzen dute beren biotzian, egindako pekatuen damua; gañera agertzen dute beren fedea, ezagutuaz, Ostia santuan dagoan Jesu-Kristo, eskeintzen dala be-

(1) Gervas.. De Missa.

rakgatik, eta au da katolikoak daukagun sinismenaren artikulu zimendarietako bat. Fedearaz gañera egiten dituzte barru ta kanpotikako adorazioak; eta zor bat bada ere gugan, Jesu-Kristo Gure Jaunaganako sentimentu auek idukitzea, ala ta guziz ere Gure Maisu onak artzen ditu atsegiñ berezi batekiñ.

Grazien iturria dator ugariago, Ostia ta kaliza jasotzean lurreko gogorazio guziak alde batera uzten badituzu, biotza zerura jasotzeko, Aita Betikoari bere Semearen Gorputza ta Odola eskeiñiaz; Jaungoikoaganako agertzen dezun amorioa lagun urkoari agertzen diozunaz elkartzen badezu, erregutuaz Jaunari, Meza Santuaren merituak izan ditezela zure anai bizi ta illentzat, batez ere zuk obligazio bereziren bat diezun aientzat; eta azkenik gogozko Komunioa, apaizak Meza santuan egiten duan komunioaz batera egiten badezu.

Nola erejiak despreziatzen duten Meza Santua, idolatria, au da, gezurrezko Jaungoikoai ematen zaien adorazio bat balitz bezela, Jaungoikoak begiratzen die amorioz, desprezio auen ordañaz

Meza Santua debozior entzuten dutenai. Elizako Gurasoak adierazten dizkigute onelako kristauai Jaungoikoak ematen dizten sari bereziak.

San Zimlo'k esaten digu (1): "Animako doaiak emango zaizte ugaltasun andian Meza Santua prestaera onaz entzuten dutenai,,. Aita Santu Inozenzio'k dio: "Meza Santuaren indarrez birtute guziak geitzen dirala gudan eta Sakrifizio Santu onen frutuak ematen zaizkigula oso ugari,,. San Maximo'k esaten digu: "Kristauak ez tute beñere utzi bear Meza, bada emen Espiritu Santuak graziaz betetzen ditu,,. Fornerus'ek esaten digu argiroago (2): "Pasioaren merituak ematen zaizkigu ugari Meza Santuan, eta onen bitartez artzen ditugu zeruko ondasunezko ibaiak,,.

Amaitu dezagun Osorio'k esaten digunarekin (3): "Aita batek ematen badizka bere semeari amar milla talentu salerosirako, onek ardura apur batekin irabazi andiak egin litzake. Baña iduki

(1) Sess. XXII, in decret. de obs. in Missa.

(2) Fornerus, com. 83, in Miserere.

(3) Conc. de Missa.

ezazute ondo gogoan, Meza Santuan ematen zaitzutela diru oso asko, Ebanjelioko perla-eroslea bezela, oso aberastu zaitezten; bada gogoratu bear da, ematen dizuela bere Seme bakarra, ta onengan dagoala Gizatasunarekiñ alkarturik Jaungoikotasun guzia, ta beragan daudela bildurik zeruko Jakinduriaren tesoro guziak.

“Seme au ematean, esaten digu San Paulo’k, ¿eztigu eman benturaz guzia? Eman dizkigu aberastasun guziak, Salbatzalle beneragarri onen meritu ta zor danen ordaiñgarri guziak. Eman dizkigu bere aragi ta bere odola, bere gorputz ta anima. ¡Orra zenbat ondasun! Egiaz gure anima beartsu arkitzen bada, au zor dio, barkaziorik merezi eztuan gure zabarkeriari, edo gure animako nagitasunari.

Gañera gogoratzen baditugu, irugarren buruan jarri ditugun irurogeitamazazpi ondasun bereziak, aitortuko dezute, eztagoala munduan Meza Santua ematearekiñ edo entzutearekiñ konpara ditekengauzarik.

Meza Santuak geitzen du gure gloria

ere zeruan. Zeruko gloria da ondasun bat, esan eziñalakoa, gure egiñal eta naiera guziaz iristera saiatu bear deguna. San Paulo Apostoluak dio (1): “Ez gizonaren begik ikusi du, ez bere belarrik aditu, ta ez bere biotzek sumatu du Jaungoikoak bere maitatzalleentzat gorderik daukana,,. Ala bada, gloriaren zatirik t̄sikiena aiñ estimagarria bada, ¿nolakoa izango da glori onen mallarik goienean daudenen zoriontasuna? Elizak erakusten du, egite onak geitzen dutela gugan azia, grazia geitzen dutelako; baña ezti-gu esaten zenbateraño geitzen diguten. Naikua izan bitez guretzat Jesu-Kristo gure Jaunak Santa Jertrudis'i ezan zizkan itzak (2): “Kristauak geitzen ditu zerurako bere merituak Meza Santua jaieraz entzuten duan aldi bakoitzian,,.

Bai, egiaz; Mezatan irabazten degu gloriarako malla berri bat. Sakrifizio Santua da zerurako eskallara bat bezela; kristauak jaieraz entzuten duan aldi bakoitzian, igotzen du malla bat; jaiera

(1) Cor. I, c. 2, v. 9.

(2) Revel., lib. II, c. 18, 53.

geiagoz entzuten badu, igoko ditu bi, iru, lau, ta baita geiago ere. Zenbat eta geiago igotzen dan eskallara miragarri orretan, orduan ta geiago urreratzen da Jaungoikoagana, ezagutzen da Jauna geiago, maitatzen da geiago, ta geiago gozatzen da Beraz. Malla bakoitzak jartzten du anima ederrago, argiago, gloriatsuago ta santuen begietan atsegiñago. Meza entzuten dezutenian, zuek egiten dezutena eskribitzen da zeruan, irabazten dezute an goian sari seguru bat pekatu larri batek bakarrik galeraziko dituzutena, baña damutasun egiazko batekiñ eta konfesio umillarekin atzera oso biur-tuko zaitzutena. ¡Zenbat aberastasun eta nolako zoriona dagozkizute ba zeruan betikotasun guzirako, zuen bizitzan egu-nero leialak izan bazerate lanbide onetan!

Adizazute zer esaten dizuten San Paulo'k (1): "Oraingo sufrikizunak, naigabeetan daramagun denboraren laburtasunak irabazten digu betiko gloria eder eta neurrigabea,,. It̄sat̄si itzatzute zuen biotzetan itz auek, eta zaudete ziur, San

(1) II Cor., IV, 17.

Paulok agintzen badu sari aiñ andia sufrikizun aiñ laburrakgatik, Jaungoikoak andiagoa daukala, Meza Santua entzuten dutenentzat, bada Meza entzuteko artu bear dira beste neke ta sufrikizun t̄siki asko. Zuek ondo dakizute: eliza urruti dago zuen et̄setik, goizean goiz jaiki bear da; bidea t̄sarra dago, benturaz arrisku-tsua; neguan otz gogorra ta udan eguzki beroa; batzuetan elizkizun luzia ta probet̄suzko lanen bat eta erabazia utzi bear gogaitgarria, ta onezaz gañera debozio gut̄sia. ¡Zenbat traba Jaungoikoa serbitzeko!; baña gauza bat bakarrik esan bear da: ¡Aurrera, beldurgabe! ¡Gloriarako beste ainbeste bide, ta zerurako beste ainbeste tesoro izango dira!

Oraiñ ondorean esango dizutedanak, ezagutu erazoko dizkitzute obeki egi auek. Baserritar batek zion jaiera andia Meza Santuari, ta egunero entzuten zuan. Nekazaritzako lanetan zebillenian, aditu beziñ laster beren elizako ezkillaren Mezatarako otsa, utzi lan guziak, eta lasterka juaten zan elizara. Guziz gazte zanetik zeukan oitura santu au, ta zartutare onetan irauten zuan. Egun baten,

bazijoan nekez elizara, egualdi tšarras,
igarore ia eziñ ziteken bide batetik, eta
esan zuan bere artean; zartu naiz ta oraiñ
eziñ egiñ dezaket gaztetan egiten nuana.
Beragatik eztet-uste Jaungoikoa asarra-
tuko danik, aurrerakoan gelditzen ba-
naiz Mezatara gabe bide aiñ luzeak ez
igarotzeagatik. Etšean nagoanian, juango
naiz Meza entzutera, baña kanpuan ar-
kitzen naizenian, eskeiñiko diot gogoaz
Meza Santua Jaungoikoari, ta jarraituko
det lanian. Gogorazio onetan zegoala,
aditu zuan oiñ-otsa bere atzean, biurtu
zuan burua, ta ikusi zuan aingeru bere
zaitzallea, larros asko zeramazkiala. Aiñ
ederra zan Aingerua, nun uste izan zuan
Jaungoikoa bera zala. ¡O nere Jaungoi-
koa! esan zuan, belauniko jarriaz, ¿nun-
dik datorkit neri, niganaño Zu jeisteko
onore aiñ andia? Eta aingeruak erantzun
zion: Ez naiz Jaungoikoa, baizik aingeru
zaitzallea. ¡O anparatzalle maitea! ¿Zer
adierazten du agertze onek? Jaungoi-
koak agindu dit, zuri jarraitzeko, Meza
entzutera juateagatik kanpo-lanak uzten
dituzun aldi bakoitzean. ¿Eta zertako?
Ematen dezun pauso bakoitzean, larrosa

bat erortzen da zure oñetan, biltzen ditut lore auek guziak, eta eramaten ditut Zerura. Ona emen gaur zure bidean arkitu ditudanak, eta beragatik esaten dizut, obe dezula ez egitea zure gogoan erabaki dezuna, baizik bestera, jarraitu dezazula, Meza entzuten. Irauten badezu, larros auekiñ koroatuko zaitut zure eriotzako orduan, eta lore auekiñ beraikiñ apainduko det zure jargoia zeruan. Itz auen ondoren, aingerua aldendu zan eta baserritarrak, begiak malkoz beterik, laztandu zuan aingerua ikusi zuan lekua, Jaungoikoari eskerrak emanaz, beñere aztu ezingo zitzaion mesede onengatik.

Aingeruaren edertasunak, larrosen usai gozoak, itz batean, agerkera zerutar artan ikusi zuan guziak mugitu zuan bere biotza, lurreko gauza guziak uzteraño, zeruko en egarri andiarekiñ gelditzen zala. Andik laster ill zan, gaitzaren indarrez baño geiago zeruaren egarriz. Elizara juateko artzen zituan nekeak aiñ gogokoak baziran Jaungoikoaren begietan, ¿zenbat etzuan irabazi ta irit̃siko Meza ondo entzunaz? Eziñ neurriko degu bere sariaren anditasuna, baña leia-

lak bagera Meza santua jaierez entzuten, izango degu, ark bezela, santuen atsegina gozatzeko zoriona.

Meza Santua ondo entzuteak dakartzkitzun mesede guziaz gañera, bear dizugu gogoratu beste bat, eta da, gogoz Komulgatzea; bada Komunio au, graziaz ta beragatik gloriáz ugaria, leku ta bizitzako ingurune guzietan, Elizan, kalean, bidean, zeron etxean, besterenean, ibilliaz, zutik, eñerita, belauniko, egiñ baditeke ere; ala ta guziz ere, inun ere eziñ egiñ diteke Meza santuan beziñ egoki.

Gauza jakiña da, Jesus'ek, lurrean bizitu zan bitartean, sendaketa asko egin zituala bere eskuz ukituaz edo beste moduren batez: baña gañera osasuna biurtu zien gaiño askori, beren etxean beñere sartu gabe; askoren artean bat, izandu zan emakume kanantarra, ta bestea Zenturion'en morroia. Meza maiz entzuten dutenai egiten dizten mesede ugariak eztiote eragozten beste ainbeste egitea, bere bisitaren egarriz daudenai. "Ni naiz bizitzaren ogia (1), esaten du;

1) Joan., VI, 35.

nigana datorrenak eztu geiago goserik izango, ta nigan sinisten duanak eztu geiago egarririk izango. Da esatea: Gogozko Komunioak, dauka animai jan-edana emateko ta asetseko indarra, bada gogoz Komulgatzea da *Jesus'gana jua-tea*, fede, esperantza, ta, batez ere, amorioaren bidez.

Salbatzalleak eztió lotu bere grazia Sakramentu guziz Santuari, emendik kanpora iñori eman eziñ legikion moduan. Gañera aldi batzuetan ematen dizte zenbait animai grazi ugariagoak gogozko komunioan, beste batzuei Sakramentu Santua artuaz komulgatzen diranean ematen dieten baño, auek baño aiek deseo irazekiagoak badauzkate, bada gogozko Komunioan ematen diran graziak, komulgatzen danaren debozioari dagozkion ainbatean ematen dira.

Baña, benturaz galdetuko didazute: ¿Nola egin bearda gogozko Komunio au? “Fede biziz Meza entzuten duten guziak, erantzungo dizuet, Fornerrus'ekiñ (1), artzen dute parte espirituz

(1) Comm. 83, in Miserere.

Jesu-Kristo'ren Gorputzean. Egiaz Sakrifizio santuaren indarra da guziz andia, ta asko da batek bere gogoa apaizarenarekiñ elkartzea, bere frutuak artzeko,, Auñe da egiñaz ikasten dan egi guziz pozgarria. Gogozko Komunioa egiñ nai, ta ezpadakizute nola egiñ, asko dezute, Obispo jakintsu onek dionez, zuen baitan esatea: Nere gogoa elkartzen det Meza ematen duanarenakiñ, eta nai det berarekin batean komulgatzean, (gogoz) Sakrifizio Santuan parte artzea. Gure bizikai edo miembroak jaten ezpadutere, dio Fornerus'ek, indartzen dira aok jaten duanetik: era berean Meza Santua entzuten dutenak indartzen dira gogoz, apaizaren bitartekotasunez, berak komulgatzen ezpadirare, ta nola eziñ pensa diteken, Erregeren maian jaten duana gosiaz jaikiko dala maitik, ala eziñ pensa diteke Meza entzuten duanak ere animaren janariren bat artuko eztuanik.

Au adierazteko, Surio'k esaten digu ondorengo gertaera au: Bertrande Karmara zan emakume kristau egiazkoa, ta ezagutzen zuten guziaz ejemplo ematen ziena. Komunio Santua artzera urrera-

tzeko prestatzen zegoala, oartu zan apaizak etzituala konsagratu kristauai emateko bear zituan ostia t̄sikiak. Onek pena andia ematen bazion ere, jarraitu zuan Meza entzuten debozio andiarekiñ. Komunioko unea eldu zanean, ikusi zuan nola aingeru batek artzen zuan aldaretik Ostiaren zatit̄so bat, eta eman zion berari komulgatu zediñ. Bere animak artu zuan atsegiñ oso andia mirarizko gertaera onekiñ. Apaizak ezagutu zuanean ostiaren zatit̄so bat ezkutatu zala, ibillizan billa alde guzietan, alperrik izan bazan ere, ta etzan paketu, Beltrande'k esan zion arte, modu aiñ miragarrian berari egiñ zitzaion mesedea.

Gogozko Komunioaren bitartez Jesu-Kristorekiñ elkartu naia, da naiera santu ta osasungarri bat. Ara Elizak zer erakusten digun: “Zeruko ogi orren de-seoaz bazkatzen diranak, ezagutzen dute berakgan frutu ta probet̄sua, karidadeak ugaritzen duan fede bizi orren bitartez.”.

Beragatik, anima fedetsuak, aldiren batzuetan artu eziñ badezute Sakramentu Santuan Jesu-Kristoren Gorputza, ta bere Odola, etzaitezte tristetu, komulga

zaitezte gogoz, ta Jesus'en Biotz Sagra-
duak irazekiko du zuen biotza beraga-
nako amorioan.

OGEITA BAT GARREN BURUA

Meza Santua da, illtzen daudenen esperantza.

Illtzen dan unean bakarrik jakiñ dite-
ke, zeñ gauza garratza dan eriotza, baña
alare ezagutu dezake batek, zer izango
dan, illtzen dagoanaren oiaren ondoan
arkitzean, edo bere mukerkeri, atsekabe
ta suspiruak ikusi ta aditzean. "Gauza-
rik beldurgarrienen guzien artian eztago
bat ere eriotza baño t̄sarragorik," dio
Aristoteles'ek. Au egia da, ez bakarrik
eriotzak anima gorputzetik aldentzen
dualako, baizik geienbat eriotza betiko-
tasunarako atea dalako, ta Jaungoiko zu-
zenaren aurrean jartzen gaitualako. Bi
gauza beldurgarri auek biziro gogora-
tzeak jartzen du illtzera dijoana atseka-
berik andienian, bere biotza beldurrez
ikara ipini ta burua izerdi otzez estal-
tzen diola.

¿Zer egiñ lezake larritasun artan?
¿Nola aldenduko du desesperazioa?
¿Nundik aterako du indarra atzera eragiteko deabruak ipiniko dizkan gogorzio galgarriai? ¡A! Illtzera dijoana bota dedilla Jaungoikoaren errukiaren besoe-tara, ta ezta izango alperrikakoa bere esperantza. San Gregorio'k esaten digu oso erabaki (1): “Leiala izan danak iduki bear du konfiantza Jaungoikoaren errukitasunean,,. Baña ¿nun arkituko da, graziari beti leialki erantzun dion anima ori? ¿Millaren artean bat arkituko da? Guziok, batzuek geiago, besteak gutsiago, egiaz nai izan bagendu, ¿ez ote genduan egiñ deguna baño geiago egiñ al izango?

¿Zer idukiko du, ba, bere alde illtzen dagoanak ordu beldurgarri artan? “Meza Santua,, baldiñ bere bizitzan beti entzun izan badu debozio andiaz. Ezagutu eraziko dizuet egi au lenbizi Dabid'en itzakiñ (2): “Eskeiñi ezazute justiziazko sakrifizioa, ta espera ezazute Jaunagan,,.

(1) Mor., lib. II, cap. 9.

(2) Ps., IV, v. 8.

Justiziazko sakrifizio au ezta besterik Meza Santua baño; onen bitartez kentzen da pekatua ta barkatzen da zorra, osoro edo zati bat. Lege zarreko danerre edo olokaustoak etzeukaten birtute au, ta eziñ deitu zitezken egiaz “justiziazko sakrifizioak„. Fornerus’ek dio Miserere’aren azkeneko berso aren ganiñan: “Zuek artuko dezute ontzat orduan justiziazko sakrifizioa„. Beragatik Dabid’ek ez tie itz egiten judioai, baizikan guri, esaten digunean; “Eskeiñi ezazute justiziazko sakrifizio bat, eta espera ezazute Jaunagan„; itz egiten die kristau guziaz ere, ta geienbat Meza ematen duten apaizai, Jaungoikoaren aserrea palakatu ta pekatariak merezi duan kastigua kentzeko. Era berean kontu egiñ bear da, esaten duala, laugarren salmoko berso onek: “Gariarekin, ardoarekiñ eta olioarekiñ aberastu dira„. Apaizak ordenatzen diranean olio santuaz igortziak izaten dira; aldarean gariaren eta mastiaren ekarriak edo frutuak eskeintzen dituzte ta auek, konsagrazioaren bitartez, biurtzen dira jauskiñi edo biktima Jaungoikoaren guziz gogokotan, eta eskeiñi

onekiñ apaizak geitzen dituzte beren merituak. Dabid'ek esaten digu gañera: "Lo egingo det eta atsedenduko naiz pakean jo Jauna! sendotu nazulako esperantzan miragarrizko moduan„. Era onetan itz egiten du illtzen dagoan kristauaren izenian, eta agertzen digu, zer izango degun ordurik estuen artan. Ori da esan nai duana Elizak dionez, illdakoen eliz-errezoan itz oek ipintzean, eta aiñ sarritan esatean berso au: *¡Requiescant in pace! In pace requiescam*, atsedenduko naiz pakean, esan zuan Dabid'ek. Elizak egiten du eskaera ori bera kristau guziakgatik, *¡Requiescant in pace!* da esatea: Jauna, eman zaiezu atsedena. Dabid'en esana jarraituaz, bere bizitzan egunero Jaungoikoari apaizarekiñ batean justiziazko sakrifizioa eskeiñi dion gizonak, esperantza andia izan lezake Jaungoikoaren errukitasunean, eta esan ere bai Errege igarlearekiñ; Lo egingo det pakean eta atsedenduko naiz nere obian, azken-juizioko egunera arte; eztiot beldurrik izango betiko erioztari, sendotu nazulako Zuk, Jauna, esperanza andiarekiñ. Ez; eziñ sinistu det

infernura juango naizenik, aiñ sarritan justiziazko sakrifizioa eskeiñi dedan ezkerro, izanik au zuri guzien artian gogokoen zaitzun danerre edo olokaustoa. Onen bidez ingiratu dizut neurri-gabe-ko zorion bat, onore eziñ andiagoa; eman dizut zure diñako adorazio bat, eta kendu det osoro nere pekatuagatik merezi izan dedan kastigua. Ona emen nere konfiantzaren zimendua. Onen besterekiñ soseguz lo egingo det eta ez-tet beldurrik izango, zure tribunal zo-rrotzaren aurre ara agertzeko.

Illtzen dauden guziak aldendu dezakete onela desesperazioa, Jaungoikoaren eta Elizaren aginteak ondo gordeaz gañera, Mezako Sakrifizio Santua entzute-ko debozioa izan badute.

Pinelus'ek esaten du, gizon bat izan zala guziz zintzua bere bizitza guzian Meza Santua entzuten, eta azkeneko ordua eldu zitzaionean jarri zuala bere konfiantza guzia, izan zuan oitura on orretan, eta bere anima eman zuala Jaungoikoaren eskuetan pake andian. Bere erretoria oso triste gelditu zan bere eliztar kristau aiñ ona ill zitzaiolako, ta aren

onerako egiñ zituan bere otoitz guziak. Denboraren baten buruan, illdako ori agertu zitzaion argi ederrez dizdiatzen zuala. ¿Nor zera?, galdetu zion Erretoreak. “Ni naiz zure erregu aiñ sutsuekiñ mesede egiñ didazuna. Jaungoikoaren graziaz zerutarren arteko naiñ, ta zure erreguen bearrik ezpanuan ere, ematen dizkitzut eskerrak biotz guzitik,,. Jakiñ nairik Erretoriak zer birtuteren bidez aberastu izan zuan bere bizitza illzanak, eta zer birtute izandu zitzaion probetšugarrien eta Jaungoikoaren gogokoena, galde ori, egin zion. “Egunero Meza Santua entzutea, erantzun zion, eta onentšegatik izan det eriotza pake-tsua ta juizio errukitsua,,.

¡Anima beldurtiak; Ez beldurtu! Guziz errez jarraitu dezazukete kristau on onen ejenploa; batez ere goizero ordu berešetan Mezak ematen diran erriren baten bizi bazerate, aukeratu dezazukete ondoen datorkizuen garaia zuen bizipideko eginkizunai dagokien eran. Borondate ona izanik ere, elizara juan nai, ta eziñ diranai, egiazko eragozpenen bat dutelako, emango diet konseju on bat,

eta da beren etsetik elkartu dezatela beren asmo edo intenzioa apaizarenarekin, errezatuaz Mezako otoitzak, eta Jaungoikoak artuko dizte kontu onean beren deseoa onak.

Fedeko egia da Jesu-Kristoren Pasioa eriotzaren merituak dirala gure esperantzaren zimendurik egiazkoena. Mezatan meritu auek izaten dira Jaungoikoaren grazian Meza entzuten duten guzientzat; beragatik Mezatan bere konfiantza guzia jartzea, da Salbatzallearen meritu beretan jartzea.

Etzadazute esan jainkozko meritu oiek, Mezatan bezela, konfesioan eta komunioan ere guretzat dirala, bada desberdintasun andia dago, Sakramentu Santuak artzen eta Meza entzuten dutenen artian. Lenengoak artu beardu damua ta pekaturik ez egiteko asmo sendoa, bestela sakrilejio bat egingo du, baina bigarrenak pekatu larri edo mortalean Meza entzuten badu ere, ezta lenbano gaizkiago geldituko, baizik obeki, bada Sakrifizio Santuak erakartzen dio beragana bizitz-ontzeko grazia, berak trabaren bat jartzen ezpadio.

Benturaz esango didazute, illtzen dagoan edozeñek beregandu litzakeala Kristo'ren merituak. ¿Eztu benturaz eman Jesus'ek gure pekatu guzien ordaiñsari edo satisfazioa? ¿Ez gaitu benturaz berak aldendu betiko surtatik? Izan bedi. Baña gañera gauza bearra da, Salbatzallearen Pasio ta eriotzaren birtutea, gure animaganatzea, ta au gabe alperrikakoa da gure esperantza. Elizak erakusten du, "Gurutzeko sakrifizio odoleztuaren frutuak guganatzen dirala sakrifizio odoleztu-gabearen bitartez," (1): "Ikusi diteken Sakrifizioa izan da ipiñia, Gurutzeko Sakrifizio otsangarriaren birtutea guganatzeko, eguneroko gure utsegiteak barkatu ditzaizkigun," (2).

Bere denbora guzian Meza entzun izan duan gizon batek, izan bear du eriotzako orduan poz guziz andia. ¿Gerta diteke, esango du bere artean, Jaungoikoa nerekin aserre izatea, aiñ sarritan onratu, ta erregalo danen artian andiena egiñ diodan ondorian? ¿Izan diteke

(1) Trid., sess. XXII, c. 2.

(2) Ibid, c. 1.

orañdik gogoratzea berak nere pekatuak, nik egunero aien barkazioa umilliki eskatuta gero ere? ¿Baliteke ez barkatzea oien kastigua, beren ordañaz bere Semearen merituak nik eskeiñi ondorean? ¿Baliteke nere erreguak ez aditzea, Jesus'ek nerekiñ batean erreguturik, berriro nigatik bere Odola išurita ere?

Onela esperatzen duan kristauak, ez-tu jartzen esperantz au bere buruagan, ezta bere merituetan ere, baizik Jaungoikoaren meritu neurrigabeak bere alde idukitzean; auetan parte ematen diotela jainkozko Misterioak. Bere alde dauzka Jaungoikoaren Ontasunari apaizaren eskuz eskeiñitako doaiak; bere alde dauka azkenik Jaungoikoaren Semeak bera zeruratzeke egiñ duan otoitza. Guk begiratu dezakiegu begiratu nai diegu ta begiratu bear diegu arrazoi atsegiñ auei, gure esperantzaren zimenduai bezela; esperantza miragarri au artuko genduke utskeritzat, Jaungoikoaren erakutsiak eta fedearen grazia an ezpaleude gure duda guziak kentzeko. Eta egiaz; ¿nola arrazoiaren argiaz bakarrik sinistu gene-

zake, Jaungoikoak ipini duala gizonen onerako alako iturri errukizkoa? Onela pentsatu izan dute Elizako Gurasoak, eta ala prestatu dira berak ere eriotzarako, Meza Santua debozioz emanaz.

San Teodoro Estudita, fedearen aparatzalle sendoa bederatzigarren eundi edo sigloan (1), gaisotu zan gaitz gogor batekin. Illtzeko unean zegoala, erregutu zion Jaungoikoari, egiñ zezaiola azkeneko aldiz Meza Santua emateko grazia, indartzeko onela, etsaiak azkenengo orduan egingo zizkan alegiñ galgarriai atzera eragiteko. Eskaera au egiñ beziñ laster indartu zan, jaiki, ta Meza eman zuan, entzun zuten guziak negar egiten zutela, ikustean aren debozio andia. Au izandu zan bere prestaerarik onena, ta aldaretik jetși zan beziñ laster, biurtu zan oera ta an etzan zan, Jaunagan guziz gozoro lo egiteko.

Konstantinopla'ko Patriarka San Tasio ere izandu zan guziz leiala jaiera (debozio) onetan, menderatzen zituan bere gorputzeko oñazeak, eta berritzen

(1) Baron. an. 826, núm. XLIV.

zitian bere indar ezereztuak, Gure Jau-
nari zion amorio sutsuarekiñ. Zutik egon
eziñ izaten zanian, bere bularra aldarea-
ri arrimatzen zion, eta ala Meza eman
izan zuan azkeneko egunera arte, ta or-
duan igozan bere anima zerura, bere
mingañarekiñ aiñ sarritan eta alako de-
boziaz zerutik jetsi erazo zuan Arzaz
gozatzera.

Apaiz santu askok daukate oraindik
gaur ere debozio au bera, dakitelako
ziur, eztagola eguneroko Meza baño
prestaera oberik eriotzarako.

¡Zorionekoak beren etseko erreza-
kuan Meza eman erazoteko baimena
daukatenak, eta baita oraindik beren-
gelan ere, gaiño diralarik, elizara jua
eziñ diranean! ¡Zorionekoak oitura san-
tu onetan azkeneraño irauten dutenak,
sakrifizio miragarri onen birtute zeru-
koiáz indartuko diralako, demonioaren
erasoaldiai atzera eragiteko! San Grego-
rio Aita Santuak (1), esaten du, “Me-
zako Sakrifizio Santuak aldentzen di-
tuala animak infernutik,”. San Rafael

(1) Dial. I. IV, c. XXXVIII.

Goiangeruak esan zion Tobias'i: "Limosnak (1) aldentzen du anima eriotzatik, garbitzen du ta arkierazten dio errukia ta betiko bizitza„. Aditu itzatzute Gure Jaunak Santa Mektilde'ri (2) esan zizkan itzak: "Eriotzako orduan lagunduko diot Meza Santua zintzo ta debozioz entzun izan duanari; bialduko dizkat estutasun ikaragarri artan lagun egiteko, entzun dituan Mezak ainbat santu„.

O Jesus, egiñ ezazu nere alde ere emen egintzen dezuna, ta illtzen nagoan, esango ditut Dabid'en itz auek (3): "Jauna da nere bizitzaren anparua, ¿zeren beldur izan nindeke?„. Bai; nere pozgarri bialtzen badizkidatzu, entzun ditudan Mezak ainbat santu, ez naiz ikaratuko Satanas'en deabru-talde guziaren aurrean, santu bakar batek daukalako naikua eskubide, infernuko deabru guziaz iges eragiteko. Oroitu zaite Jesus, agindu dizkigutzun gauzaz, ta ez ditza dala jaso alperrik nere begiak zure mendi santuetara.

(1) Tob., XII, IX.

(2) Revel., I, III, c. XIX.

(3) Ps. XXVI, I.

Pozturik era onetan Meza Santuaren oroipenarekiñ, mundu au uzten duan anima, eltzen da konfiantzaz beterik Jaungoikoaren tribunalaren aurrera. ¡Arkitzea Juez justuaren aurrean! Gizon arruak, ¿badakizute nolako prestaerarekiñ arkituko dan zuen anima ordu ikaragarri orretan? Esatera dijoakizuenak ondo daki: da ill ondoan pistu dan praille bat, eta oni gertatu zitzaiona esaten digu San Bonifazio, Magunzia'ko Obispoak, bere arrebari egiñ zion eskutiz batian (1). 716-garren urtian Milburgo'ko komentu batian zegoan, ill ondan piztu izan zan praille bat, eta onek esan zidan gertatu izan zitzaiona, itz auekiñ: Jaungoikoaren juiziora deitua izan nintzarian, egiñ nituan pekatu guziak etorri zitzazkidan nere aurrera, beste ainbeste gauza bizi ta beldurgarri bezela. Aueta-ko batek esaten zidan: Ni naiz zuk lagun urkoa menderatzeko izan dezun arrokeria. Besteak esaten zidan: Ni naiz zuk esan dezun gezurra. Besteak esaten zuten: Gu gera zuk esan dituzun alpe-

(1) Baron an. 716, núm. XXIII.

rrikako itzak. Gera gauza eragotziaz zuzendu ditzetzun begiruneak. Gu gera Elizan eta beste lekuetan izan dituzun oarkabe ta gogorazio tsarrak. Deabruak salatzen ninduten, deadar izugarriakin, izendatuaz noiz, nun eta zer inguruntan izan ziran nere utsegiteak. Gero agertu ziran egin nituan gauz onak ere, zer ziran adierazi nian. Naiz zure nagusiakganako iduki dezun obedientzia; ni naiz zure gorputza illduratu edo mortifikatzeko egin dituzun barauak; naiz, esan zuan beste batek, zuk egin izan dituzun otoitzak. Gauz on egin auek postu ninduten. An zeuden aingeruak, nere alde zeuden nik egindako gauz on gutsi guzia alabatuaz.

Praille on orri gertatu zitzaiona gertatuko zaitzu, zuri ere dudarik batere gabe, irakurle maitea, baita neri ta gañerako gizon guziaz ere. Gure pekatuak aurkeztuko zaizkigu, gauzik beldurgarrienak bezela, baña egin ditugun gauz onak ere agertuko dira, guri indar emateko; ta Meza asko entzuteko oitura zorionekoa iduki badegu, auek beste guziaz gain agertuko dira birjiña ederrak

bezela, zerurako daukagun tokamena eskatuaz, ta kenduko dituzte gure beldurak esanaz: Gu gera zuk entzun dituzun Mezak, eta gatoz zuri Juez justuaren tribunalera lagun egitera, esatera nolako debozioaz Meza santua entzun izan dezun, aitortuaz zenbat pekatu barkatu zaizkitzun eta zenbat zor pagatu dezun oitura santu onen bidez. Izan ezazu bada balorea; palakatuko degu Juez nagusiaren asarrea ta iritšiko degu zuretzat grazia.

¡Zer poza zuen anima atsekabetuentzat, ordu aiñ beldurgarrian bitarteko aiñ altsuak arkitzea!

Ona emen, San Reinaldo'k dionez, zer gertatu zitzaion 1241-garren urtean San Nantier, Breslau'ko Obispoari. Jaun onek zion debozio aiñ andia Meza Santuari, nun etzan aspertzen, bat bakarrik entzuteaz, baizik entzuten zituan bere Eliz nagusi edo katedralian ematen ziran guziak. Bera illtzean emakume on batek aditu zituan aingeruen kantu aiñ atsegiñak, nun uste izan zuan, zerura eramana izandu zala emakume bera. Zer gertatzen zan jakiñ nairik, aditu zuan,

aots edo boz zerukoi batek esaten ziola: Nantier'ko Obispoaren anima, oraiñtse gorputzetik aldentzen dana, zerura eramatera dijoaz aingeruak. Galdetu zuan orduan, ia nola ta zergatik merezitu zuan mesede aiñ andia. Meza Santuari zion jaiera edo debozioagatik, erantzun zion aotsak. ¡Ai zenbat poztu bear giñaken ejemplo onekiñ! Obispo santua eldu zan zerura, onorez beterik, Meza Santuari izan zion amorioaren esker onez. Benturaz ezingo dituzute entzun Meza asko ark bezela, baña eztizute ezerk ere eragotziko, Meza asko entzuteko deseoa idukitzea. Eta entzuteko zoriona dezentenian, ark entzuten zituan bezelako debozioarekiñ entzuten saiatu zaitezketete. Jaungoiko gure Jaunak idukiko du go-goan zuen borondate ona, ta zuen azkeneko orduan izango du zuen errukia.

OGEITA BIGARREN BURUA

Meza Santua da illdakoentzat obeago edo alibiorik andiena.

Eziñ gogoratu dezakegu Purgatorioko su-garraren anditashunaren antzeko gau-

zarik, ezta animak an dauzkaten sufrikizunen antzekorik ere. Sufritzeak bakarrik erakutziko digu. Arterañoan ona emen Elizako Gurasoak erakusten digutena.

Auen artian zartasunez ta jakinduriz lenengoetakoa dan, San Agustin (1) bateg, dio: “Garbitua ta esleituen artian sartua izateko, zikindurik arkitzen dana, sartzen dute, ikusi, sentidu, ta gogoratu al diteken baño su biziago batera,,.

Beste sinisgarririk ezpagenduka ere, au naikua izan bear litzakigu, oso izutzeko. Baña Erakasle Santu orrek oraindik gogorrago itz egiten du (2): “Su onek salbatu bear baditu ere, bera sufritzen dutenak, ala ta guziz ere gauza ziurra da, gizon batek mundu onetan sufritu litzakian oñaze guziak baño ikaragarriagoa izango dala su au, sufritzen dutenentzat,,.

Alejandria'ko San Zirilo'k dio: “Obede sufritzea munduaren azkeneraño eman ditezken oñaze guziak, égun ba-

(1) Serm. 41.

(2) In Psalm. XXXVII.

kar bat Purgatorioan igaro baño„. “Su onen erreunerik t̄sikiena, dio Santo Tomas'ek (1), bizitzako gaitz guziak baño gogorragoa da„. ¡Ikaragarritzko itzak! ¿Zer egingo degu, su-gar kiškatzalle aietara botatzen bagaituzte? Nere Jaungoikoa; ant̄sen dago guretzako lekua izendaturik, bada su-gar aietatik aldenitzeko, bear beziñ onak ez izanaz gañera, gaude naiera t̄sarrez beterik eta konta eziñ ainbat utsegitez estalirik.

Esan nitzake Elizako Gurasoak erakusten dizkiguten gertaera asko, baña bakarrik esango dizuet oraiñ San Bernardo ta Paziz'ko Santa Maria Magdalena'k diotena. “Mundu onetako berezko suaren eta Purgatoriokoaren artean dagoan aldea, egiazko suaren eta bere iduriaren artean dagoan beziñ alde andia da„. San Bernardo'k dionez (2), Paziz'ko Santa Maria Magdalena'k ikusten zuan maiz Purgatorioa, ta beiñ batian ant̄sen ezagutu zuan bere anaia, Santa onek dio; “lurreko sua, angoaren

(1) In 4 sent. dist. 20, 9, c. 2.

(2) Serm. 15.

ondoan, loretegi atsegiñ bat dala„. Eztet iñun ere arkitu au baño konparazio obेरिक, gure pekatuen zorra munduan pagatzeko daukagun premia argiro adierazteko, beste munduan, neurrigabeko gogortasunaz pagatu nai ezpadegu. Egi auek guziz egokiak dira, presondegi artara gure aurretik dijoazenakganako erruki guziz andi bat gugan piztutzeko.

Badaude alderdi guziz egokiak anima atsekabetu aiei lagundu, beren sufrikizunak arindu, ta baita oraindik aiek andik ateratzeko ere, baña guzien artian egokiena ta osasun garriena da Mezako Sakrifizio santua, Elizak Trento'ko Konzilio'aren bitartez erakusten digun bezela (1): “Purgatorioko animai laguntzen zaie kristauen obra onen bitartez, baña geienbat aldareko Sakrifizio balio andikoaren bidez„. Berreun urtez aurretik au bera erakutsi zuan Akino'ko Santo Tomas'ek (2) esanaz: “Sakrifizio auñe da biderik onena Purgatorioko animak andik bereala ateratzeko„. Mezan gertatzen

(1) Sess. XXV. Decret. de Purgat.

(2) 4 sent., quest. 45.

dana da, ez bakarrik apaizak eta mezentzuleak eskatzen diotela Jaungoikoari anima aientzako grazia, baizik gañera eskeintzen diotela aiek andik ateratzeko balio andiko tesoro bat. Zorrak pagatu eziñ dituan bat, sartzen badute presondegian Juezaren aginduz, ta esku zabalako adiskide batek pagatzen badu zorura, au izango da milla aldiz egokiagoa eskari guziak baño. Purgatorioko animak eztaude Jaungoikoaren etsai, bada damuaren bidez bere adiskide egin dira ta atsekabezko leku onetan daude, beren zikiñ uneetatik garbitzeko. Ala, bada, aiekganako errukiz otoitz egiten badezute, utziaz zuen merituak ere aientzat, pagatzen dezute aien zorra ta laburtzen dituzute aien oñaze ikaragarriak. “Izan ezazute ardura, dio Jesus'ek, zuen buruak presondegi artan jartzeko biderik egin ez dezazuten, bada egiaz, ez dezute andik irtengo azkeneko ardita pagatu arte,, (1).

Begira ondo zeñ zorrotza dan Salbantzallearen epaia, barkatu nai eztiola ar-

(1) Matth., v. 26.

dit bat ere, berari milla talentu zor dizkan animari; baña alare, entzuten badezute Meza bat anima doakabe orrengatik, pagatzen dezute bere zorraren zati andi bat.

Santo Domingo Guzman'goaren Ordenako Enrike Suzo'k, Kolonian ikasten zebillenan, egiñ zuan tratu bat bere adiskide batekiñ, bien artian lenengo illtzen zanagatik, bizirik gelditzen zanak emateko Meza batzuek. Bere ikazkizunak amaiturik, Suzo gelditu zan Kolonian bertan, eta bestea bialdu zuten Suabia'ra ta emen, andik laster ill zan. Enrike oroitu zan bere lagunari agindu izan zionaz; baña ordurako bere Mezak beste bategatik emateko agindurik zegoan, eta oen orde z egiñ zituan otoiz, barau ta beste ildura edo mortifikazio batzuek. Denboraren baten buruan agertu zitzaion bere laguna, itšura errukarri batean, eta negarrez esan zion: “¿Orrela betetzen dezu zure itza, adiskide desleiala?,” Zurbildu zan Aita Enrike ta beldur-ikaraz erantzun zion: “Nere adiskide maitea, etzaite asarre egon nigatik; zugatik Meza santua emateko eragozpena izan det,

baña onen ordez erregutu det, eta penitentzi asko egiñ ditut zugatik,,. “Ori ezta naikua, erantzun zuan anima errukarriak, zure otoitzak eztauka bear ainbat indar ni oñaze auetatik ateratzeko; Jesu-Kristoren Odola bear det, Meza-tan eskeintzen dan Odol ori; egiñ izan bazendu agindu zenidana, irtengo nuan oraiñ baño len suzko presondegi onetatik, eta oraindik erretzen banago, zurea da errua,,. Ezagutuko da nolakoa izango zan Suzo doatsuaren atsekabea, ta bere beldur-ikara igaro ta konturatu zanean, juan zan bere nagusiari esatera zer gertatu zitzaion. Nagusiak agindu zion ematen ari zan Meza aien ordez beste zerbait egiteko, ta emateko bere adiskideari agindu izan zizkanak. Ala egiñ zuan eta andik laster agertu zitzaion berriz adiskide illzan ori, esaten ziola, atera zala Purgatoriotik, eta bere bitarteko izango zala zeruan.

Artu itzatzute ondo goguan itz auek: “zure otoitzak eztauka bear ainbat indar ni oñaze auetatik ateratzeko,,. Suzo'ren otoitza ezpazan naikua izan, zer esango degu gure otoitz aiñ epel eta aiñ otzaz?

Elkartu dezagun bada otoitz au Meza Santuan Jesus'en eta apaizaren otoitzarekin, eta izango da ipar otzarogillea bezala, negarrezko leku artan dauden anima gaisoentzat. Eztakigu zenbateraño barkatzen diran Purgatorioko penak Meza santuaren bitartez. Jaungoikoak eztigu agertu: baña egia da, norperak eman edo entzuten duan Meza batek, geiago balio duala, ill ondoan zure onerako eskeintzen danak baño. Ona emen San Ambrosio'k (1) erakusten duana: "Batek bere bizitzan entzuten duan Meza batek, dio, balio du ill ondoan bereztat ematen diran askok baño geiago." Grazian bazaude geitzen zaitzu gloria zeruan, eta pekatu illkor edo mortalian bazaude, uste izan bear dezu, Jaungoikoak egiaz damutzeko mesedea egingo dizula.

Azkenik, entzun edo ateratzen dituzuen Mezak it̃sedoten dizuete obi edo sepulturaz aruztik ere beste ainbeste aparatzalle balira bezela, zuen barkazioa eskatzeko Jaungoikoaren tribunalean.

(1) Forn., serm. 8, 3, in Miserere.

Purgatoriotik osoro aldentzen ezpazaituzte ere, beñepeñ laburtuko dute bere iraupena, ta gutschituko dute sufrikizunen indarra.

Sakrifizio santua eskeintzeko ematen dezun limosna da beste alderdi berri bat, Jaungoikoa mugitzeko zugarako erruki ugaria izatera, ta diru ori zure premiren bat estaltzeko edo atsegiñen batzuetarako ematearen orde, Mezatarako emateak miñ ematen badizu, gogoratu ezazu, ill ondoan sariatuko zaitzula askoz geiagorekiñ.

Gogoan iduki ezazu, bizitza onetako denbora errukiarena dala, ta beste bizitzakoa, justiziarena; ta ala emendik kontura zaitezte, zuek mundu onetan entzuten dezuten Meza bakar batek, geiago balio duala zuen animak zeruratzeko, zuek ill ondoan, zuen anaiak entzundako Mezaren-batzuek baño. Beragatik eziñ beñere aspertuko naiz zuei esaten, atera edo entzun ditzatzutela, al ainbat Meza, ez zuen buruakgatik bakarrik, baizik baita Purgatorioan ainbeste sufritzen duten animakgatik ere.

Esatera noakizue Santo Domingo'ren

Ordenako gertaera gogoan-garrien artian arkitzen diranetako bat. San Luis Beltran'en aitak artu izan zuan kastidadea gorde ta Kartujuen komentuan sartzeko asmoa. San Bruno ta San Bizente agertu zitzaizkan bi aldiz, ta agindu zioten ezkondu zedilla. Obeitu zuan, eta eskontza onetatik jaio zan Luis, eta amazaspi urte zituanian, sartu zan praille Santo Domingo'ren ordenan, bere senideak atzerapen asko egiñ izan bazioten ere. Andik urte batzuetara, gaiñotu zan bere aita, oso gaizki arkitzeraño; santua zegokion bere ondoan, federik bizienerekiñ, ondo illtzen laguntzen, eta nola bere prestaera zan oso ona, uste zuan, zuzen-zuzen Zerura juango zala. Eta ala, ¿nolakoa etzan izango bere naigabea, ikustean espirituz, Purgatorioan, berari laguntz-eske zegokiola? Anima maite orren espa edo keja ta itšura negargarria, an zeuzkan beti aurkezturik bere gogoan, eta bere atsekabearen anditasunaz gaiñotu zan. Ura andik ateratzeko egin zituan penitentzi guziz gogorrak; egunero barautzen zan ogia ta ura bakarrik artuaz; gabero artzen zuan dis-

ziplina, ta, al zuan beziñ maiz, Meza ematen zuan. Bere anaiak ere elkartzen zitzai zkan aita gatik egiten zituan erreguetan eta bere naigabietan, eta bera etzan beñere gelditzen, biotz guzitik Jaungoikoari erregutzen, onen justizia palakatzea iriñten ezpazuan ere. Igaro ziran ia zortzi urte, illdakoia sufritzen zegoala, ta agertu zitzaion berriro, baña orduko Purgatorioetik kanpora zegoala. Eman zizkan eskerrak egin zizkan mesedeagatik, eta aitortu zion, berak lagundu ezpalio, oraindik askoz geiago sufritu bearko zuala. Gertaera onek adierazten digu, zerutikako agerkerakin onratua izateraño, birtutetsua izan dan gizon bat, egon dala alare sufritzen ainbeste denboran Purgatorioan, eta geiagoan egongo zala bere semearen illdura edo mortifikaziok gabe. Gertaera onek eman bear digu beldur andi bat, beste bizitzan zer izango ote degun gogoratzean. Deitu bear digu, gure illdakoakgatik arduraz otoitz egitera, ta ez errez poztutzera, zeruan egongo diralako uste gezurrezkoaz. Meza atera eziñ badezazuke, entzun ezazu beñepeñ, eta erregutu ta deitu ere bai

zure adiskideari; entzuten dezaten zuk
nai zendukean aien onerako. Ona emen
Tanburino'k ematen zion konsejua, be-
re aurrean kejatzen zitzaion emakume
bati, bere senarrarentzat Meza bat ze-
rekin atera etzeukalako; Entzun itzatzu,
bada, Meza asko, ta erraz gerta litekeke,
zure senarrak artzea frutu geiago zuk
entzundako Mezatatik, zedorrek entzun
gabe, ateracraziko zendukean batetik
baño. Gobat'ek ontzat ematen du kon-
seju au, ta nik denbora berean ematen
diet, emakume ari bezela Meza atera-
tzea gaitz egiten zaien guziaz. Meza ate-
ratzeko agintzean graziazko tesoro guziz
andi bat inguratzen badezute ere, aiñ
egia da, Meza ondo entzun eta erregu-
tzearekin iritzi dezazutekela zuen illda-
koentzat laguntza andia, ta baita Purga-
toriotik ateratzea ere. ¡A! Ikusi albage-
nitzake aldarean gañez egiñik isurtzen
diran grazi ugariak, ez giñake arrituko
ainbesteraño, zabaltzeaz, ta aiñ indar
andikoak izateaz. Purgatorioaren gaiñ
itzaltsua idikiko balitz gure begien au-
rrean, grazi oiek intza bezela anima pe-
natu oien gañera erortzen diran bitar-

tean, ezagutuko genduke zenbat poz-
tutzen dituan guk aiezaz degun ardurak,
eta ikusiko genduke nolako atsegiñaz
ateratzen diran sufrikizunezko leku ar-
tatik, betiko bizitza zorionekoan sartze-
ko. Oroi zaitezte, zuen ardurari edo ar-
dura gabetasunari dagokion ainbatean,
geitu edo gutsituko dezutela, Purgato-
rioko su-garretan anima aiek zuekgandik
iristea uste duten laguntza.

Ondorengo gertaera onek argiratuko
dizute, zein probetŕugarria dan Meza
Santua, ala guretzat nola Purgatorioko
animentzat. Maria zeritzan emakume
gazte, jostun birtutetsu batek, atera oi
zuan ill guzietan Meza bat Purgatoriotik
irtetzeko urren zegoan animagatik. Jaun-
goikoak bialtzen dizte sufrikizunak mai-
te dituanai, ta Maria'ri bialdu zizkan su-
frikizun asko. Gaitz tŕsar batek ezarri
zuan oian urte bete osoan, eta aldendu
zitzaizkan, lana ematen zioten guziak.
Osasunan obetu zanean, billatu bear
izan zuan neskametzako leku bat. Bere
lenengo irteera izandu zan Elizara. Ba-
zijoan bidean burutazio ta tristuraz be-
terik, eta bat-batera oroitu zan, gaiŕorik

egon zan bitartian etzuala egiñ, anima gaiñoai agindu izan ziena. ¿Zer egiñ zezakian? Gaitzak aitu zizkan aurratu izan zituan diru apurrak, zillarrezko diru bat bakarrik gelditzen zitzaion; Meza bat ateratzeko duiñ bakarrik; baña baita ogi zati bat erosteko duiñ bakarrik ere. Maria etzan egon zalantzan, bada Purgatorioko su-garrak, gose apur bat igarotzea baño ikaragarriagoak dira; erabaki zuan, Meza ateratzea, bere buruaren kontua Jaungoikoaren probidentziaren eskuetan osoro jartzen zuala. Elizara eltzean, ikusi zuan apaiz bat, Meza emateko prestatzen zegoala. Galdetu zion ia Meza bere naierara eman zezakean, eta baietz erantzun zion, eta Maria'k eman zion bere ofrendatsoa. Meza entzun zuan eta komulgatu zan, lenagore egiñ oi zuan bezela Purgatoriotik irtetzeko urren zegoan animagatik. Elizatik ateratzean, abiatu zan adiskide baten etsera, baña kalean zijuala gizaseme gazte, zaldun itzurako batek agur egiñ eta esan zion: “Bizipide billa zabilta noski; ¿ezta ala? Bai Jauna; baña ¿nola jakiñ al izan du bedorrek nik iñorekiñ ere itzik egiñ ez-

padet nere asmo onen gañean, eta gañera bedori ezagutzen ezpadet? Eztio ardura esan zuan ez ezagunak, onezko irriparre bat egiñaz; zuaz onelako kalentara onenbeste garren etšera; an arkituko dezu andre bat, mirabetzat artuko zaituana, ta bere ondoan izango zera zorionekoa„. Au esanik, ezkutatu zan. Juan zan bereala Maria esan zitzaion lekura; etšea itšura ederrekoa zan; andre errespetoko batek idiki zion atea. Gazteak esan ziona aditu ondoan, erantzun zion etšekoandreak; “Egia da, nekame baten billa nabillela, ta oraintše nijuan ortarakoše etšetik ateratzera. Baña ¿nola jakin dezu? Atzo bertan bialdu nuan nere neskatša, erkai edo motiboguziz andiakgatik, baña iñork ere eztaki. Eziñ iñolare bururatu zait, norgandik jakin zenezakean daukadan estutasuna„. Maria’k eziñ garaitu izan zuan zeukan grina, esateko nola arkitu zuan, alako konfianza eman zion gizaseme gazte ura. Etšekoandre berriaren bizilekuan sartzean, Maria’ren begiak itšatšiziran iduri edo erretratu eder baten; eta ikaraturik deadar egiñ zuan: “Etše-

koandrea, etsekoandrea; ona emen bedorren etserako bidia eman didan zalduna, bere edertasun aingeruzkoaz bereñere aztuko ez naizana. Etsekoandrea zurbildu zan eta erori zan korde gabe sillatzar batean. Konorta etorri zitzaionean esan zuan: “¿Baña zer da esaten dezuna? ¡Orain lau urte ill zan nere semearena da iduri au!,” Maria’k ezagutu zuan, zein modu mirragarriz onean, Jaungoikoak bera zaitu zuan. Belaunikatu, negarrez ler egiten zegoan ama gaiñoaren aurrean, eta esan zion bere kondaira, ziara agertuaz bere gaiñoan sufritu zuan guzia, nola diru bakar bat gelditu zitzaion, eta berarekiñ atera zuan Meza bat, Purgatoriotik irtetzeko aren faltan egon zitekean anima bate gatik, eta nola azkenik utzi zuan bere buruaren kontua Jaungoikoaren eskuetan. Orduan etsekoandreak besartean estutu bat emanaz, esan zion: “Nere alaba maittea; ¡zuri zor dizut nere semearen zoriontasuna! Nola eriotza aiñ ona egiñ zuan, uste izan nuan, denbora asko izango zala, zerura juan zala. Zu izan ezpaña, oraindik Purgatorian egongo zan.

Berak bialdu zaitu onera. ¡Bedeinkatua izan dedilla Jaungoikoa! Zu geldituko zera betiko nerekin, ez neskame bezela, baizik adiskide bat edo aizpa bat bezela,,.

Biotzik gogorrena bigundu lezakean gertaera au, esan digu, Mariaren aotik aditu duan apaiz beneragarri batek.

¿Badago iñor aita edo ama bat, arreba edo anairen bat, adiskide edo ongilleren bat, ill etzaionik? ¿Izan diteke, anima oiei laguntzeko asmo erabaki bat guk ez artzea? Persona on batzuek badute debozioa, Meza Santua eskeintzeko, Purgatorioan mundukoakgandik geien azturik dagoan eta luzaroen an egon bear duan animagatik. Beste batzuek eskeintzen dute, Ama Birjiñari debozio geien izan dion animagatik. Anima orri egiten zaion mesedeaz gañera, ezagutu dezazukete, zein gogokoa izango zaion Jaungoikoaren Amari, onetan egiten zaion menekio edo obsekioa.

Ikusiko bagendu beartsu bat, oñaze asko ta gañera gose ta egarria sufritzen, ¿ez genduke benturaz sokorrituko? Bada zaudete jakiñian, anima doakabe oiek

guk gogoratu al guzia baño geiago sufri-
tzen dutela, ta bakarrik arrizko biotza
dutenak geldi litezkela oiei lagun egite-
ko asmo sendo bat artu gabe. Eskeiñi
ditzagun barauak, penitentziak, illdura
edo mortifikazioak, otoitzak, erregu-la-
bur edo jakulatoriak, eta azkenik Meza
Santua, Purgatorioko anima gaiño oiek-
gatik; eta aiei egiten diegun mesedeaz
gañera, izango dira beste ainbeste teso-
ro, gerontzat aurratzen ditugunak, ill
ondoan oien saria artzeko.

OGEITAIRUGARREN BURUA

Meza entzuten daudenakgatik apaizak egiten
dituan otoitzak.

Kejatzan zerate maiz zuen deboziorik
ezaz, ta beti oarkabetzen edo distraitzen
zeratelako utskerizko gogorazioakin.
Eman degikizuedan konsejurik onena
da, juan zaitez tala Mezatara ta elkartu
ditzatzutela zuen otoitzak, Salbatzalleare-
nakiñ eta apaizarenakiñ. Kobreak, urrea-
rekiñ nastuta, bere balioa geitzen duan
bezela, era berean zuen otoitza, berez

otza ta nolabatekoa bada ere, biurtzen da otoitz bero ta egiazkoan. “Apaizarekin elkaturik Mezatan egiten dan ototza, dio Fornerus’ek, da beste guziaz gañetikakoa ta aiek baño indar andiagokoa, aiek luzeak eta sutsuak izango badirare,,. Adierazoko det emen, nola dan dotriña pozgarri au.

Apaizak aldarean ototz egiten du, Meza entzuten dauden guziakgatik. Naita naiez ala egiñ bear du, bada esan bear dituan itzak, jarriak daude Meza emateko liburuan, eta eziñ iñolare esan gabe utzi litzake. Konturako, asierako ototz *kolekta* deitzen dana; ofertorioaren ondorengo *Sekreta* ta *Postkomunio* deitzen diranak, esaten dira an bildurik daudenakgatik; baita zuekgatik ere an parte artzen badezute, ta elizan zuek eta apaiza bakarrik bazeundete beziñ probetšugarri izango zaizkitzute. Baña jakin dezazuten, zeñ ototzetan daukazuten parte jakiñekoa, guazen ototz oiek sallean jartzera.

Asieran, laguntzalleak erriaren ize-nian esaten du *Konfiteor Deo*, ta apaizak erriaren gaiñ esaten du ototz au:

“Jaungoiko Jaun Guzialdunak izan dezala zuzaz errukia, barkatu degizkitzula zure pekatuak eta eraman zaitzala betiko bizitzara,,. *Ala izan dedilla*, erantzuten du laguntzalleak. Apaizak dio berriz: “Jaun Guzialdun eta Errukitsuak eman degigula gure pekatuen askatura ta barkazioa,,. *Ala izan dedilla*, erantzuten du berriz ere laguntzalleak.

Apaizak aldarera igotzean, otoitz egiten du beragatik, eta Meza entzuten daudenakgatik, era onetan: “Erregutzen dizugu Jauna, aldendu ditzatzula gugandik gure gaiztakeriak, zu zauden leku santu ortara, biotzeko ta animako garbitasun andiaz eldu gaitezene,,.

Kyrie eleison'a da Irutasun guziz Santuari zuzentzen zaion atsekabezko deadar bat. *Gloria in excelsis*-ean eta *Kolektan*, itz egiten du bere ta zuen izenian. Aldarearen inguruan bildurik dauzkanai esaten die: *Dominus vobiscum*; agur guziz ona, aingeruak eta gizonak antziñako denboretan egiten zutena, Ruth eta Judit'en kondairetan ikusten degun bezela. Itz auekiñ apaizak opa dio erriari, Jaungoikoarekiñ egotea, ta

erriak erantzuten dio era berean: *Et cum spiritu tuo*. Eta beragatik apaiza ta erria daude Jaungoikoarekin elkaturik, bata besteagandik aldendu eziñ ditezke-
la, ta *Dominus vobiscum* esaten duan bakoitzian, otoitz egiten du berakgatik eta berakin.

Kredo-an, bere ta erriaren izenian aitortzen du, guk bizitzan eta eriotzan iduki naidegun fede katolikoa.

Ogia eskeintzean, esaten du: “Artu ezazu, Aita Santu, Jaungoiko Guzialdun eta Betikoa, nik merezi ezagatik ere zuri, Jaungoiko bizi ta egiazko orri, eskeintzen dizudan Ostia mantña gabe au, izan dediñ nere konta eziñalako pekatu, gaitzki egite, ta nagikeri guzien ordaiñsaria; eskeiñtzen dizut, Meza Santu au entzuten dauden guziakgatik, baitare kristau ill eta biziakgatik, neretzat eta aientzat izan dediñ betiko salbazioaren segurantzaz. Ala izan dedilla,,.

Ardoa ta ura kalizara botatzean esaten du: “¡O Jaungoiko, zure eskubide miragarriaren bidez gizona bizitza aiñ ederrean egiñ, eta modu oraindik miragarriagoan bere lenengo diñidadera biur-

tu zenduana!; ura ta ardoa nasitze onek aurkezten duan misterioagatik iguzu, gure gizatasunaz jantzi zan zure Seme Jesu-Kristo, Jaungoikoa dalarik, Zurekin eta Espiritu Santuarekiñ elkaturik sekula guzien sekuletan bizi dan aren jainkotasunean parte izateko grazia. Ala izan dedilla,,.

Kaliza eskeintzean, esaten du: “Eskeintzen dizugu Jauna, kaliz osasungarria, erregutuaz zure ontasunari, egiñ dezala mesede jasotzeaz berau usai gozoko lurrun bat bezela, zure Majestade jainkozkoaren jargoiraño, ni ta gizon guziak zeruratzeko. Ala izan dedilla,,.

Lavabo'ren ondoren: “Artu ezazu, jo Irutasun Santua! ofrenda au. Eskeintzen dizugu Jesu-Kristo gure Jaunaren Pasio, Piztuera, ta zerura Igotzearen oroipeanean, zorioneko ta beti Birjiña dan Mariaren, San Juan Bautista doatsuaren, Apostolu Santu Pedro ta Paulo ta aldare onen azpian beren erlikiak dauzkaten eta beste santu guzien onrarako, aien gloriarako ta gure salbaziorako izan dediñ, eta lurrean onratzen ditugun santu oiek, gure bitarteko izan ditezen zeruan.

Jesu-Kristo gure Jaun beragatik. Ala izan dedilla„.

Bereala dator *Sekreta* deritzan otoitz misterioetsua, apaizak iñillt̃orik esaten duana. Asteko egun santu festagabekoe-tan, eta festa *simple* edo *semidobleak* deitzen diranetan, iru izaten dira, ta batzuetan bost. *Dobleak* deitzen diran festetan ezta izaten bat baizik. *Prefazioak* izaten dira beiñ bat eta beiñ bestea, denborari ta elizpuntzioai dagokien ainbatean, eta apaizak alabatzen du aue-tan Jaungoikoa, bere ta erri guziaren ize-nian, aots edo boza jasoaz. Kantu onek adierazten du entzun diteken alabantza-rik goiena, soñu eder eta atsegiñ batekin elkarturik. Ona emen zer esaten dan: Apaizak: “Jauna zuekiñ izan dedilla„. Laguntzalleak: “Eta zure espirituarekiñ„. Apaizak: “Jaso itzatzute zuen biotzak„. Laguntz. “Jaunaganontz jasua dauzka-gu„. Apaiz. “Jaungoiko gure Jaunari es-kerrek eman deizkagun„.

Laguntz: “Merezia ta bidezkoa da„. Apaizak: “Merezia ta bidezkoa da egiaz, arrazoezkoa ta osasungarria, guk zuri eskerrak ematea, denbora ta leku guzie-

tan, jo Jaun Santu, Aita Guzialdun eta Betiko Jaungoikoa!, Jesu-Kristo gure Jaunagatik. Onengatik aingeruak alabatzen dute zure Majestadea, adoratzendute Dominazioak eta bere aurrean Potestadeak ikaraz daude. Zeruak eta zeruetako birtuteak eta Serafiñ zorionekoak festa egiten diote pozaldi andiakiñ. Eskatzen dizugu, Jauna, ontzat artu ditzatzula gure aotzak eta elkartu ditzatzula aienakiñ, eta guk umillki aitortuaz, esan degizugula: Santua, Santua, Santua, da ejerzituen Jaungoikoa; zeruak eta lurra zure gloriáz beteak daude. Osana goietan. Bedeinkatua izan dedilla Jaunaren izenian datorrena. Osana goietan,,.

Orduan asten da *Kanon*'a. Mezaren zati au iñilltñorik esaten da; onetatik, bizien *Memento*'aren izenaz adierazten diran itzak bakarrik, emen jarriko ditut: "Oroitu zaite, Jauna, zure serbitzari U. ta B.'ezaz (emen otoitz egiten du bi-ziakgatik geldiune bat egiñaz, Meza ura norgatik eskeintzen duan gogoratuaz) emen, beren fede ta debozioa zuk eza- gutzen diezula arkitzen diran guziezaz

berakgatik eskeintzen dizugu ta berak ere eskeintzen dizute alabantzazko Sakrifizio au, berakgatik eta beren guziakgatik, beren animen erredentzioagatik, berak zeruratzeko ta grazian irauteko esperantzagatik, eta Zu, Betiko Jaungoiko, bizi ta egiazkoa onratzen zaituztenagatik,,.

Itz auekiñ bear dezute poztu zuek, pobre zeratelako Mezarik atera eziñ dezutenak, entzuten dezuten Meza, apaizak zuek nai dezutenerako eskeintzen dualako. Apaizak eskeintzen ditu zuek-gatik eta zuenakgatik Sakrifizioaren merituak zuen fedearen eta deseoen neurrian.

Memento'ren ondoren dio apaizak: "Mesede oietan parte-artuaz ta onratuaz lenbizi Gure Jaungoiko ta Jaun Jesu-Kristoren Ama, Birjina Maria gloria-tsuaren oroipena, ta gero zure apostolu ta martiri doatsu Pedro, Paulo... eta beste Santu guziena, eskatzen dizugu, iguzula zure laguntza gure gauza guzietan, gure Jaun Jesu-Kristo beragatik. Ala izan dedilla,,.

Ofrendaren gañian eskuak zabalik di-

tuala, esaten du apaizak: “Eskatzen dizugu Jauna, artu dezazula onez zure serbitzarien eta zure familiarena ere dan ofrenda au, ta iguzula mesede, gure bitzita guzian pakea izateko, betiko infernutik aldenduaz, ta konta gaitzatzula zure esleituen artean, Jesu-Kristo gure Jaunagatik. Amen,,.

Kaliza jaso ta gero, esaten du: “Beragatik, gogoratuaz, Jauna, guk zure serbitzariak eta zure erri santua geranok, Jesu-Kristo gure Jaunaren Pasioa, bere Piztutzea, ta bere zerura igotze gloria-tsua, eskeintzen dizkagu zure Majestade berdiñik gabeari, eman dizkigutzun doaiak Ostia † Santu au, Ostia † garbi au, Ostia † mantña gabe au, betiko bitzitzako † Ogia, ta betiko salbazioko † Kaliza.

Begira zaiguzu ¡Jauna! arpegi alai ta paketsuaz, ta artu itzatzu ontzat doai auek, zure serbitzari on Abel'en doiak Abraan, gure Aitalenaren sakrifizioa ta Melkisedek, zure Sazerdote Nagusiak eskeiñi zizuna bezela,,.

Bereala, oso makurturik, esaten du: “Eskatzen dizugu umillki, jo Jaungoiko

Guzialduna! agindu dezazula, doai auek zure Aingeru Santuaren eskuz eramateko zure aldare andiaren aurrera, zure Majestade jainkozkoaren aurrera, guziok parte izaten degula zure Sakrifizioan eta zure Semearen Gorputz † guziz Santua † ta Odola arturik, zeruko bendizio ta grazia guziaz bete gaitean. Jesu-Kristo gure Jaun beragatik. Ala izan dedilla,„.

Illen *Memento*'an gogoratu, norgatik Meza ematen duan eta aiekgatik otoitz egiten du, baita beste gomendatu zaizkion guziak gatik ere, ta gero jarraitzen du: “Eta guri, zure serbitzari, zure errukitasun andian esperatzen degunoi ere, iguzu grazia, parte izan dezagun, zure Apostolu Santu ta Martiriakiñ, Juan, Esteban, Matias'ekin... eta zure Santu guziakiñ, eskatzen dizugula, oiekiñ bation, artu gaitzatzula, ez guk merezi degulako, baizik zure errukitasun andiaren bidez. Jesu-Kristo Gure Jaunagatik,„.

Gero ondorian dator *Pater*, eta esaten du kristau guziakgatik, eta gañera dio: “Eskatzen dizugu, Jauna, aldendu

gaitzatzula lengo, oraingo, ta geroko gaitz guzietatik, eta beti Birjiña gloriatsu ta doatsu dan Maria, Jaungoikoaren Ama, ta zure Apostolu doatsu Pedro, Paulo, Andres eta santu guzien bitartekotasunagatik, iguzu gogo onez pakea bizitza onetan, zure errukitasunaz laguntzen diguzula, pekatuaren mende bein ere egon ez gaitezen, eta barrungo pakerik beñere galdu eztezagun. Jesu-Kristo Gure Jaun beragatik,.

Iru aldiz esaten du *Agnus Dei*: “Munduko pekatuak kentzen dituzun Bildotsa, errukitu zaite guzaz, . Ondo-rengo otoitza egiten du beragatik, baña azkeneko *Kolekta* deitzen dana da beragatik eta an dauden guziakgatik, eta esaten du: “Artu ezazu gogo onez jo Iru-tasun Santua! nik, serbitzari bezela, ematen dizudan omena, ta indazu, nik, merezi eztedalarik ere, orain eskeini dizudan Sakrifizioa zure gogokoa izateko grazia, ta zure errukiaren bidez begira zaiguzu begi onez neri ta Meza au eskeintzean gomendatu dizkitzudan guziaz. Jesu-Kristo gure Jaunagatik, . Mezaren azkenean ematen die bendizioa

an daudenai ta irakurten du San Juanen Ebanjelioa.

Amairu garren Leon Aita Santuak, ikustean Elizari egiten zaion guda andia (1), ta gogoan arturik, zein negargarriak diran oraingo denbora auek, agindu zuan, Meza errezatuen ondoren, esateko iru *Ave Maria* ta *Salve* bat, ta ondorengo otoitz eder oek:

“¡O gure igesleku ta indarra zeran Jaungoikoa! begira zaiozu gogo onez, Zuri deika dagokizun erriari ta Jaungoikoaren Ama dan, Birjiña gloriatsu ta mantña gabeko Mariaren, onen esposo José Zorionekoaren, Pedro ta Paulo apostolu Santuen eta Santu guzien bitartekotasunagatik, entzun itzaitzu zuzentzen dizkitzugin otoitzak, pekatariak bide onera ditezen, eta Eliza libratu ta goitu dediñ. Jesu-Kristo Gure Jaunagatik. Ala izan dedilla.”

“San Miguel Goiaingerua, izan zaite gure alde gudan, anpara gaitzatzu dea-

(1) Oarra. Itzultzalleari ondo iduritzen zaio, kristanai gogora eraztea, Amairu garren Leon Aita Santuak Meza ondorean esateko agindu zituan otoitzak emen jartzea.

bruaren gaiztakeri ta sareetan erori ez gaitezen, Jaungoikoak azaldu dezala onen gain daukan al edo poderea; au da guk umillki egiten dizugun eskaria, jo zeruko aingerutaldeen Nagusia! Jaungoikoak eman dizun eskubideaz bota itzatzu infernura Satanas eta gañerako espiritu gaizto, animak ondatzeko, munduan dabiltzanak. Ala izan dedilla„.

Amargarren Pio Aita Santuak, 1904-garren urteko Bagillaren 17-ian, aginduzuan, bere aurrekoak agindutako otoitz oien ondoren esan dedilla iru aldiz (1) ondorengo erregu laburtso au: *Cor Jesu Sacratissimum, miserere nobis*. Zazpi urte ta zazpi berrogeitako barkamenak irabazten dira, illdakoentzat izan ditezkenak, egunian bein baño geiagotan, au da, Mezaren azkenean esaten diran aldi bakoitzean.

Begira ondo, otoitz eder auen itzak zer esan nai duten, eta ezagutuko dezute, Espiritu Santuak adieraziak dirala.

(1) Argitaratu zan aginte artan bertan eztu esaten iru aldiz egiteko erregu laburtso ori, baña bai **Aeta S. Sedis**, deitzen dan, eta Aita Santuaren aginte ta beste berriak azaltzen dituan paper edo errebistan, 1904-garren urteko Orrillaren 23-ean.

Guziok dakizkigu Elizaren atsekabeak, eta ezagutzen degu, katoliko guziok bear ditugula elkartu geron otoitzak, Jaungoikoak egiñ degigun, Erljioa garalle ateratzeko grazia. Baña alare gutsi dira Aita Santuaren agindua egiten dutenak. Ez bakarrik ez dituzte esaten otoitz oiek, baizik beren asmo edo intentzioa apaizarenarekin elkartzetik ere ez tute egiten, apaizak otoitz oiek esaten dituanen; bada geienak ateratzen dira Elizatik, apaiza otoitz oiek Jaungoikoari zuzentzeko aldarearen oñean jartzen dan beziñ laster, izanik otoitz oiek, katolikotzat gauden guzion biotzetatik irten bear luketenak. Utzi zadazute oraiñ zuei erregutzen, eztitzatzutela utzi errezatu gabe, gogoratzen dizuedala, Eliza Santuagure Ama dala, ta bere seme leialak geranok beraren premiakgatik erregutu bear degula.

Goazen oraiñ atzera, Meza zer dan adierazten jarraitzera.

Andi ta neurrigabeak dira Meza entzutean irabazten dituzun ondasunak. Sakrifizio Santu onek dauzkan otoitzak errazak dirurite, baña indar miragarria

daukate, bada Espiritu Santuak adieraziak, Apostolu ta Guraso Santuak antolatuak, eta Elizak ontzat aitortuak eta aginduak dira. Apaizak ez ditu esaten bere izenian, baizikan Jesu-Kristoren eta kristau guzienian, bera oien lekuan dagoalako.

Apaiza aldarera eltzen danean, jartzen da Jaungoikoaren begien aurrean, eta onek eztu ikusten orduan argan pekatarri gaiño bat; baizik Elizak biältzen dion bere ordezeko Jaun altsu bat. Begiratzen dio, bere Semea argan ikusiko balu bezela, bada onen jantziak daramazki ta beronen izenian esaten ditu konsagrazioko itz oek: "Au da nere Gorputza; au da nere Odola,,. Jaungoikoaren begietan otoitz onek badu, Jesus gure Salbatzalle berak esanik, izango lukean ainbat indar. Gañera apaizak eztu bakarrik otoitz egiten, baizik esan eziñ alako balioa duan joia batek ainbat balio duan doai bat eskeintzen du; Jesu-Kristoren Gorputza ta Odola. Aita Jaungoikoak eziñ utzi dezake artu gabe balio aiñ andiko doai au, ezta entzun gabere, eskeintzallearen alde, onen otoitza. Bera-

gatik zuen otoitzaren diñidadea ta edertasuna geitzeko biderik onena, da, zuen otoitz ori apaizarenarekiñ elkartzea; bada onekiñ irit̃siko dezute, zuek zeronez benturaz irit̃siko etzenduketena.

Apaizak ez bakarrik zuekgatik otoitz egiten du, baizik baita zuen gaiñ ere; da esatea, aren otoitzak bendizioen al edo poderea daukatela berenez; bendizioak berez indar aiñ andia badu, ¿zenbat andi goa eztu idukiko Sakrifizio Santuarekiñ elkaturik? Orazioren batzuek eta bi Ebanjelio esaten dira zuzenean zuen gaiñ. Mezaren azkenean apaizak jasotzen du eskua azkeneko aldiz zuek bedeinkatzeko, gaitz guzietatik aldendu zaitezten eta zeruak grazi mueta guziaz bete zaitzaten.

Norbaitek egiñ lezake galde au: ¿Meza guziak dira berdiñak ontasunean? Oni erantzun baño len, ikusi dezagun, batetik Sakrifizioa berez dana, ta bestetik Sakrifizioa eskeintzen duanaren jaiera edo debozioa. ¿Galdetzen didazute berdiñak diran apaiz on batek eskeintzen duan Sakrifizioa ta gaizto batek eskeintzen duana? Erantzungo det: Bai.

Bataioa bezelañe. Au ere ona ta egiazkoa da, bataitzallea pekatuan badago ere, beñepeñ bataiatzeko borondatea badauka, ta Elizak agintzen duan bezela bataiatzen badu. Era berean Aldareko Sakrifizioa da berdiñ santu ta osasungarria, itzak ondo esan eta bear bearrak diran zeremoniak ondo egiten baditu. ¿Nai dezute Mezaren bat ateratzea? Eztezute bada, egon bear dan gutšiena ere zeñ apaizi aginduko ote diezuten erabaki eziñez, guziak eskeiñiko dute Sakrifizio bat bera, berdiña santutasunian eta birtutean, eta apaizik onenak ematen duan Meza, ezta izango gaiztoenak ematen duana baño ohea. Onen gañean itz egiñ degu lenago, latiñezko esaera; *Ex opere operato*; onezaz baliatuaz.

¿Galdetzen didazute Sakrifizioaren eskeintzea beti berdiña dan bere ontasunean eta ejemplo ematean? Erantzungo dizuet: Ez. Au apaizak ondo daki. Gaur egongo da debozios, ta bigar debozio gabe. Egun baten idurituko zaio laburrregia Meza, ta otoitz guziak izango dira atsegiñak bere biotzarentzat, eta bigaramonean esango ditu debozio gabe. Arra-

zoi onengatik, *Orate, frates* esatean, eskatzen die kristauai, lagundu degiotela beren otoitzakiñ, bere Sakrifizioa Jaungoiko Guzialdunaren gogokoa izan dedin; ara onek zer esan nai duan: Nere anai ta arrebak, esaten du, mez-entzuleakgana biurtuaz, nere indarrentzat geigi dan lan bat egiñ bear degu. Eskatzen dizuet guziori lagundu degidazutela nere ta zuena dan Sakrifizio au eskeintzen.

Eztu apaizak bakarrik gugatik otoitz egiten; aingeruak ere egiten dute apaizarekiñ batean.

Gauza jakiña da, aingeruak an dau dela, Meza ematen danean. Ala dio Elizak, baita Dabid'ek ere itz auetan (1): "Agintzen die bere aingeruai, gorde zaitzatela zure bide guzietan, . Leku guzietan laguntzen digute zeruko espiritu auek; estaltzen gaituzte beren anparuarakiñ, eta mesedez betetzen gaituzte. Baña Jaunaren aldareruntz goazenian, izeiñ gozoro ta atsegiñez betetzen duten beren egiñkizuna, gure jaiera turbatu

(1) Ps. CXXXVII, v. 2.

nai diguten espiritu gaiztoak aienatuaz, ta oarkabetzen al guzia egiten duan deabruaren asmo galgarrietatik gordetzen gaituztela!

Mezatan badaude gutšienaz gizonik ainbat aingeru, bada gizon bakoitzak dauka berea. Erregutu zaiozute zuenai, juan dedilla zuekiñ eta zuekgatik Sakrifizio Santura, adoratu dezala, eskatu degiola, ta bere erregu sutsuak ordainduko ditu zuenaren utsuneak.

Apaizak konsagrazioaren ondoren esaten du: “Erregutzen dizugu, o Jaungoiko Guzialduna, agindu dezazula, zure Aingeru Santuaren eskuz eramán dedilla ofrenda au zure Majestade andia-
ren aurrera,,. Aingeruen Errege berbera an dagoanean, eta aldare gañean egiten duanean bere Guzialtasunak egiñ lezakian gauzarik andiena, ezagutuko dezute, an daudela bere ministroak ere, ta omen egiten diotela.

Egi onen ezagungarrizat, jarriko ditut San Paulo'ren itzak (1): “Urreratu zerate Sion'go mendira... ta lege berriko

(1) Heb., XII, 22.

Bitarteko Jesus'gana,,. Au Mezagatik ondo esantzat artzen da, bada Salbatza- lleak emen betetzen du bere Bitarteko- tzari dagokion eginkizunik andiena. Egiaz esan dezazukete Dabid'ekiñ (1): "Aingeruen aurrean kantatuko ditut zu- re alabantzak; jo nere Jaungoikoa!; ado- ratuko zaitut zure tenpluan eta goituko det zure Izen santua,,. Espiritu garbi oien erdian belaunikaturik zaudete; oiek arkitzen dira zuen inguruan; zuekiñ dau- de Meza entzuten, eta zuekgatik erre- gutzen dute erregu irazekiakiñ. Kerubi- ñen eta Serafiñen erdian zaudete. Zuen ajolgabetasunaz ez itzatzute oiek tristu- raz bete, baizik atsegiñ emaiozute zuen jaiera andiarekiñ.

San Juan Krisostomo'k erakusten di- gu argiro, aingeruak gugatik erregutzen dutela (2): "Apaizak Mezako Sakrifizio guziz andia ematen duanian, aingeruak an daude lagun egiten, espiritu zeruta- rrezko koruak kantatzen dute alaban- tzazko kantu bat, sakrifikatzen dan Aren

(1) Ps. CXXXVII, 12.

(2) De Sacerd., lib. VI.

alabantzan. Une artan bertan ez bakarrik gizonak, baizik aingeru ta goiainguruak ere belaunikaturik daude Jaungoikoaren aurrian. Auñe da guretzat denborarik onena; Sakrifizio Santua zeruko espiritu altsu oien eskuetan dago; badakite ori berak eta gugatik erregutzen dute, esanaz: "Jauna, eskatzen dizugu, zure Semeak Gurutzean iltzeraño maitatu ta bere Gorputza ta Odola eman dizkie-nakgatik,,.

Oien erreguak gureak baño indar andiagoa du; Jaungoikoaganako amorioan kiskaltzen daude; arpegiz arpegi bera ikusten dute, ta guk baño milla aldiz geiago iristen dute. Baña alare, gure erreguak aienakiñ Meza Santuan elkartzen baditugu, geron etñean bakarrean egindako erreguak baño obeki adituak izango dira.

Aingeruak ez bakarrik daude aurkesturik aldarean, baizik eskeñire egiten diozkate Jaungoiko Guzialdunari Sakrifizio Santua ta gure erreguak. San Juanek ikusi ditu aingeru auek Jaungoikoak egiñ dizkan erakutsaldi miragarrietan(1):

(1) Apoc. VIII, 3-4.

“Aingeru bat zegoan tenploko aldarearen urrean urrezko intsentsu-ontzi bat eskuan zuala. Eman zitzaizkan usaigozoko lurriñgai asko, santu guzien erreguakiñ batean eskeiñi zitzan Jaungoikoaren jargoiaren aurrean dagoan aldarearen gañian, eta usai gozoko lurriñak santuen erreguekiñ nasturik aingeruen eskuz, igo zuan Jaungoikoagaño.”.

Orrengatik, bada, Aingeruak biltzen dituzte zuen erreguak, eta eskeintzen dizkate Jaungoikoari, usai gozoko lurriña bezela. ¿Zertako egongo litzake aingerua aldarearen aurrean Jauskiñi edo Biktima ez sakrifikatzeotan? ¿Zertako ipiñiko zituan aldarearen gañean erreguak, Mezarekiñ batean ez eskeintzeotan?

Amaitu dezagun: Mezatan egiten dan erreguak beste edozeiñ erreguk baño indar andiagoa du. Beragatik egiñ dezagun al guzia, egunero Meza santua entzuteko; elkartu gaitezen aingeruekiñ, espiritu garbi auei erregutuaz, ordaindu dezatela beren debozio irazekiarekiñ gure ajolgabetasuna ta eraman ditzatela gure erreguak Zerura.

OGEITALAUGARREN BURUA

Meza Santuak eztió egiten kalterik lanari, baizik bestera, mesede egiten dio.

Geienian gizonak uste izaten dute, galduak dirala lanean igarotzen eztiran orduak, eta batez ere Meza santua entzuten edo erlijioko beste edozeiñ zeregiñetan igarotzen diranak. Erakustera noakizute engañatzen dirala ta oso kaltegarria dala, onela uste izatea. Arkitzen badezute adiskide bat zuen lanetara zuaztenian, gozoro gelditzen zerate berarekin itzketan, ematen dizkatzute eguneko berriak, igarotzen zaitzute onetan ordu erdi bat, eta eztezute gogoan aritzen galdu dezuten denbora. Baña Mezatarako asmorik sortzen bazaitzute, miñberatzen zerate zuen lanaren kaltean dalakoan. ¡Deabruzko engañua!

Ez; eta milla bidar ez; Meza entzute-tik eztatorkie kalterik langilleai; baizik guziz bestera, ondasun asko datortzkie; beren lana atzeratu bearrean, aurreratu egiten da. Emen gogoratu bear ditugu

Salbatzallearen itz oek (1): “Gauza guzien artean aurrena billa ezazute Jaungoikoaren erreinua, ta bere zuzentasuna, ta gañerako guzia emango zaitzute geigarritzat,,. Esan nai zaigu: Etzaitezte estutu gorputzarentzako janariaren arduraz, ta lurreko zuen egiñkizunetan asi baño len, entzun ezazute ondo Meza Santua. Ala emango diozute gloria Jaungoikoari, ta onek ordainsaritzat estaliko ditu zuen premiak. Meza Santua entzunaz ematen diozute zuen Jaungoikoari omen neurri gabea, atsegiñ andienetakoa, ta lurreko gauza guziak baño geiago balio duan doai bai. ¿Utzi lezake sariatu gabe ofrenda ain aberatsa? Zuek eman diozuten onore orri esker onaz erantzuteko, ¿eztu zuen ardura idukiko? Obra onik t̄siekienak sariatzen dituan Maisu andiak, ¿utziko du azturik au? Utziko balu, esango zenikiote azken juizioko egunian: Jauna, zuri gloria emateko Meza entzun det, eta eztezu kontuan iduki. Zu serbitzeagatik, irabazi bearrean, galdu egiñ det. Ez; Jaungoikoak eztu me-

(1) Matth. VI, 33.

reziko onelako erriertarik, bada ez bakarrik zeruan zariatzen ditu betiko gloriarekin, baizik munduan ere bedeinkatzen ditu modu oso berezian, Meza Santua entzuteko oitura dutenak, orain ikusiko degun bezela.

San Juan limosnagilleak esaten digu, Alejandria'ko kale baten bizi ziralako bi zapatagille. Auetako bat zan ezkondua, famili guziz andia zeukana, ta egunero entzuten zuten Meza Santua. Beartsu bizi bazan ere, laster igaro zan egokitasun guziaz bizitzera, ta ezkondu zanetik urte bete garrengo bere irabaziakin aurratu zuan diruren bat. Beste zapatagillea, ezkondua; baña umerik etzuana zan, eta astegunian etzan beñere Elizara juaten: gau ta egun lan egiten zuan, baña beti beartsu bizi zan. Egun baten bere lagunagana joan eta esan zion: ¿Nola zuk ainbesteko familiarekin, nik bañodenbora gutsiagotan lan egiñ ta, ondo irabazten dezu, ni umerik gabe, beñere atsedean gabe, beti beartsu ta gosez iltzen nagoan bitartean? Arkitu det tesoro bat esan zion besteak, eta goizero juaten naiz tesoro onetatik nere ondasunak

ateratzera. Erakutsi zadazu tesoro ori nun dagoan, eta utzi zadazu neri ere tesoro ortara juaten.—Bai, ta oso pozik alare. Lagundu zadazu bigar, bera dagoan lekura; uri guzia aberasteko naikua da tesoro au. Bigaramonian zapatagille beartsua juan zitzaion zintzo besteari, esan bezela. Onek esan zion; asi gaitean Meza entzutetik, eta gero juango gera esan genduan lekura. Meza amaitu zanean, esan zion, bigaramonian ere beste ainbeste egiñ bear zutela. Bigarren egunian ere lenengoan esan ziona bera esan zion, baita luzakizun berare. Irugarren egunian, pazientziarik gabe, ta ernegaturik, esan zion bere lagunari; Gaizki egiñ dezu nizaz orrela burlatzea. Etzaite aserratu, erantzun zion bestiak; enaiz zuzaz burlatu, baizik guziz bestera, erakutsi dizut tesoroa nun dagoan; ura dagoan lekua Eliza da, ta tesoroa Meza. Egiñ ezazu nik egiten dedana, ta Jaungoikoa-gandik artuko dituzu mesede, nereen berdiñak. Egia esan dizudala, ezagutzeko, aditu ezazu Salbatzallearen konsejua: “Gauza guzietan lenengo billa ezazute Jaungoikoaren erreinua ta bere

zuzentasuna, ta gañerakoa emango zaitzue geigarrizat,,. Ezkondu nintzan beziñ laster, billatu det erreinu ori, egunero Meza entzunaz, ta bere bitartez irit̄si det lurreko gauzetan bear dedan guzia. Zuri, guziz bestera, egiñak erakutsi dizu, zein kaltegarria dan arretaz gaizki baliatzea, miseria bakarrik irit̄si dezulako. Itzaldi au sartu zitzaion zuzenean biotzeraño gizon gaiñoari, ta arrazkeroan, egunero Meza entzuten zuan, argiro ikusiaz zenbat bendizio bialdu zizkan Jaungoikoak.

Gertari au esaten digunaren izena da ezagungarririk onena, egiazkoa dala adierazteko. Langille on ark arrazoia zuan Meza Santuari tesoroa deitzean, bada alaše da egiaz, balio guziz andikoa; onentzat esanak dirudite jakintsuaren itz oek (1): “Au da gizontzat neurri gabeko tesoro bat. Onezaz baliatzen diranak, Jaungoikoaren adiskidetasunean parte daukate,,. Bai; miatze bat da, ta bertatik ateratzen da zeruko ta lurreko urrea. Onera grazian datorre-

(1) Sap., VII, 14, 17.

nak, artzen du Aita Betikoaren bendizioa; Isak'ek Jakob'i eman ziona baño askoz ohea, bada ura zan "zeruko intza, lurreko koipea, ta gari ta ardo ugari iristeko," (1). Bendizio au zan lurrerako bakarrik, baña bestea da animarako, ta denbora berean gorputzerako ere bai. Eta egiaz, konsagrazioaren ondoren, apaizak esaten du: "Erregutzen dizugu, jo Jaungoiko Guzialduna! agindu dezazula eramateko doai auek zure Aingeru Santuaren eskuz zure aldare santuraño, zure Majestade jainkozkoaren aurrera, emen aurkezturik gauden, eta Sakrifizio Santu onetan parte artzen degun guziok, zeruko bendizio ta grazi guziaz bete gaitzen, zure Semearen Gorputza ta Odola artuta,". Erregu onen bidez ta Misterio jainkozkoen indarrez bedeinkatzen zerate zuen gorputzetan eta zuen animetan, zuen lan eta eginkizunetan, ala lurreko gauzatan nola zerukoetan. "Bedeinkatzen zerate, diote Liburu Santuak, sartzean eta irtetzean; bedeinkatuak zerate zuen etxean eta zuen kanpoetan, eta

(1) Gen. XXVII, 28.

zuen eskuetako lan guziak izango dira bedeinkatuak,.

“Ezer ere eziñ egiñ diteke Jaungoikoaren bendizio gabe,,” dio langille ta nekazariak ezagutzen duten antziñako esaera batek. Danik eta andiena badare baten alegiña ta naia lanean, Jaungoikoak bedeinkatzen ezpadu, eztu fruturik emango, ta ez dago bide obe ta seguruagorik mesede au iristeko, Meza Santua entzutea baño; bada ezta bakarrik apaiza bedeinkatzen duana, baizik baita Jesu-Kristo bera ere, Santa Brijidak bere zorionez ikusi zuan bezela. Ostia jasotzean ikusi zuan Gure Jauna, eskuiko eskuarekiñ Gurutzearen siñalea erriaren gaiñ egiten zuala, ta denbora berean esaten zituala itz oek: “Bedeinkatzen zaituztet, nigan sinisten dezuten guziok,,” Gogora ezazute oraiñ zenbat kalte egiten diozuten zuen lanari, Meza Santua entzun gabe gelditzen zeratenian, eta ez bota errurik besteren lepora, baizik zuenera, eginkizunen batzuek gaizki ateratzen zaizkitzutenian.

Eneas Silbio’k (1) esaten du, Istria’n

(1) In Descript. Europæ. cap. 21.

bazala zaldun, bizitza gaiztoa egiten ezpazuan ere, Mezatara juaten etzan bat, eta bere ardura gabetasunez erori zala miserian. Nola urian eziñ bizi ziteken, bere etseari zegokion itšuran, juan zan kanpoan bizitzera, baña pazientzian eraman eziñik bere sufrikizunak, makaltasunetik igaro zan desetseden edo desesperatzera. Onela arkitzen zala, deabruak jarri zion burutan, bere burua illtzea. Burutazio au oso aurrera zijoakion, zaldunak atzera eragiteko indarrik ere etzuala. Azkenik bi apaizek esan zioten, goizero Meza entzun zezala, ta Jaungoikoari eska zegiola burutazio ura kentzeko laguntza; ta egon zedilla ziur, etzegoala arma oberik deabruaren erasoaldietatik ondo irtetzeko, ez ta bide oberik ere Jaungoikoaren bendizioak iristeko. Egin zuan zaldunak aien esana, iritši zuan pakea, ta bere etšera ere biurtu zan zorion andia. Erabaki zuan, ainbeste mesede erakarri zizkan Mezako Sakrifizio Santua egunero entzutea, ta agindu zion apaiz bati, juan zedilla egunero Meza ematera zaldun onek zedukan otoiztegi edo oratorioan. Eziñ adie-

razi diteke zenbat ondasun, ala animarako nola gorputzerako irabazi zituan jaiera edo debozio onen bitartez.

Goizean Meza entzun duanak, esaten du erakusle on batek, irtengo du obeki bere eginkizunetan, bere artu-emanetan eta bere juan-etorri edo bidajeetan. Jau-nak indartuko du bere anima ta gorputza; aingeruak zaituko dute bera kontu geiagorekiñ, eta egun artan illtzen bada, Kristo'k lagunduko dio, bere azkeneko orduan, entzun duan Mezaren sarian.

Bai; Meza entzutea da mesedegarri lanarentzat. Gogoratzera noakizute San Isidro, lugiñ-nekazari espagnolaren bizitzako gertaera bat. Santu onek lan egingen zuan jaun aberats baten lurretan, alegiñ andiaz, baña bere jaierazko eginkizunak beñere utzi gabe. Bere leialtasuna aiñ Jaungoikoaren gogokoa zalako, bialdu zizkan aingeru batzuek soloko lanetan laguntzera. Bere emazteak bazkaria eramaten zionean, maiz ikusten zituan bi aingeru, bakoitzak idi pare bat zeramatela, berarekiñ batean lanean. Isidro'k etzitian ikusten, eta emazteak etzion esaten, arrotuko zalako beldurrez.

Baña alare, Jaun beraren mendeko langille, beren lagun oni gaizki nai zioten batzuek, errenkuratu zitzaizkan nagusiarri, esanaz: Jauna, bedorrek eztaki nunbait, Isidro'k, Mezak entzuten Elizan igarotzen dituala goizak, eta dirudienez, eztuala gure erdirik ere lanik egiten, kontuan jartzen degu bedorren ondasunetan kalterik izan eztezan. Aserraturik nagusia, deitu zion Isidro'ri, ta erriertan eman zion bere murrontzan zeukan aradura gabetasunagatik. Bedorren mendean banagore, erantzun zion santuak osu biguñ, Errege guzien Erregeren mendean ere banago, ta eziñ utzi nitza-ke Onenganako dauzkadan eginkizunak. Kalteren bat egiten diodala uste badu, besteak baño beranduago lanean asten naizelako, paketu bedi, ta nik ordainduko diot kaltea, uzta nenbiltzea edo kosetsaren denbora eltzen danean. Erantzuera umill onek palakatu zuan nagusia, ta aurrerakoan etzion geiago ezer esan bere obra onakgatik, baño ikusi nai izan zuan bere begiz, zer ordutan lanean asten zan. Egun batean, goizean goiz jaikirik, juan zan bere lurretara: ezkuta-

tu zan arkaitz baten ostean, eta egiaz ikusi zuan, berandu eltzen zala. Aserraturik badijoakio errietan ematera, ta orra nun bat-batera ikusten dituan, nekazari onaren uztar idiaren albo banatan, beste uztar idi zuri bana. Au ikustean, ikaraturik gelditzen da. Baña eziñ geiagoraño ikaratu zan, ikustean, urreratu beziñ laster, ezkutatu zirala uzta-riak, idiak eta nekazariak. Agur egiten dio Isidro'ri arpegi alaiatz, ta galdetzen dio, nor diran lanian laguntzen dioten gizonak. Santuak irriparre egiñ zion, zer erantzun etzekiala. Nagusiak berriz esan zion: Nik esaten dizut, beste bi nekazari ikusi ditudala, ta ni eltzeaz bat, ezkutatu dirala. Jaungoikoa da testigu, esan zion Isidro'k, eztiodala deitu beste iñori baizik Berari bakarrik. Itz auek aditzean, ezagutu zuan zaldunak, bi langille ez-
ezagun ezkutatu ziranak, aingeruak zirala, ta oso pozik gelditu zan ikustean gizon aiñ birtutetsua zeukala serbitzari.

Ona emen beste ejemplo bat. Izandu zan Españian Fernando Antolino zerritzan zaldun bat (1). Meza Santuari jaie-

(1) Mariana, Hist. Hisp., VIII, 9.

ra guziz andia zion, eta etzan beñere gelditzen entzun gabe, lan asko izaten bazuan ere. Denbora artan Afrika'ko moroak España geienaren jabe ziran eta oso gogor artzen zituzten emen bizi ziranak. 982-garren urtian Fernando jarri zan soldadu guzien buru, ondamendi andiak egiñaz bere etsaiari. Auek beren espi edo salarien bitartez jakin zuten jeneral orrek Meza entzuten zuala goize-ro beñere utzi gabe, ta aprobetsatu ziran une onezaz soldaduai erasoteko. Berea-la abisatu zioten ofizialiak zeukaten arriskua, erregutuaz juan zedilla beriala. Beldurtu bazan ere aditzian, ematen zioten berri, aiñ arrisku andikua, erantzun zien español noble onek, eziñ atera zitekela Meza amaitu baño len. Ofizialiak biurtu ziran Elizara ta esan zioten, arte-rañoan zenbat jende galdu zuten, eta gañera jakiñ zezala, juaten ezpazan laguntzera, ejerzitu guzia osoro ondatua izango zala. Ez izan beldurrik erantzun zien: nik serbitzen dedan Jaungoikoak gordeko gaitu; ez naiz ni aldenduko leku onetatik Meza Santua amaitu arte. Ofizialiak atera ziran Elizatik, guzia gal-

du zalako ustean. ¡Nolakoa etzan izango beren arritasuna, gudan ari ziran lekura eldu, ta ikustean, jeneralaren antz oso andia zuen gudari bat, bere zaldietako baten gañian jarririk, bere armak zermazkiala, bere soldaduen aurretik igaroaz, ta berai gogor deadar egiñaz! Sartzten da gudari au etsai taldeen artian, eta zauritzen ditu esker eta eskuira, guziak lur jo eraziaz. Soldaduak jarraitzen diote beren agintari azkarrari, ta ondantzen dituzte moroak. Denbora gutšian kristauak iristen dute bitoria oso andi bat. Gloria guzia ematen zaio Fernando'ri. Ejerzitu guziak nai dio agertu bere esker ona. Uste dute Elizara biurtu dala Jaungoikoari eskerrak ematera iritši dan bitoriagatik, eta badijoaz bere billa. Gauza arrigarria; eztakiala diruri bere bitoria, ta ordu ta une artantše aldentzen da aldaretik, gudara juateko. An ziran berarentzako deadar eta alabantzak, iritšizan bitoria aiñ andiagatik, baña berak etzekian zer esan nai zioten. Eztakik, esan zien bere ofizialiai, benetan itz egi ten didazuten. ¡Nola ez! ¿Eztegu benturaz ikusi zure baloria? ¿Ezta arrazoiz-

koa izango zu alabatzea, zedorrek bakarririk bitori aiñ andia irabazita? Ejerzitu guzia ondatua izango zan, zu aurkezturik, gudak zeraman itšura mudatu ezpazendu.—Siñistu zadazute; ez naiz eldu nere czpata bere lekutik ateratzera, bada ez naiz atera Elizatik Meza amaitu dan arte.—¡Baña gerok ikusi bazaitugu, nola moroak ondatu dituzun!—Egia esaten baididazute, esan zien Fernando'k oso arriturik, zuen esker ona ez didazute agertu bear neri. Une onetan eldu zan soldadu bat jeneralaren zaldiarekiñ, bada kanpuan laisterka zijoala arkitu zuan, gañean iñor etzeramala. Mundu guzia gelditu zan ikaraturik, ikustean zaldia oraindik arnasaz ase eziñez, aparrez estalia, ta nagusiaren arma, odola zeriotenak, gañian zeramazkiala. Juramentu egiten det, esan zuan Fernando'k, eztedala nik ibilli gaur nere zaldia; nere Aingeru gordetzallea da nere iduria arturik guda egiñ duana, nik, zuekgatik otoitz egiñaz, Meza entzuten nuan birtartian. Ikusten dezute, zeñ Jaungoikoaren gogokoa dan Meza entzutea, ta zenbat mesede erakartzten dizten gizonai.

Nik utzi izan banu Eliza, zuek nai zentuten bezela, aingerua etzan etorriko guri laguntzera, ta guda ez genduan irabaziko.

Ezagutu bear dezute, jeneral argidotarrak bezela, Meza entzuteak, gure egitekoai kalterik ez egiñaz gañera, Jaungoikoaren bendizioa ekartzen duala, ala lurreko nola zerurako gauzatarako.

OGEITA BOSKARREN BURUA

Meza Santua nola eskeiñi bear dan, eta nolakoa dan eskeiñi onen balioa.

Buru au irakurtzen dezun anima ona, it̃sat̃si ezazu berau zure oroimenian bada atera ditzatzuke mesede andiak emen dauden ikaskizunetatik.

Lenbizi, gogora ezazu, Meza dala kristauak daukaten Sakrifizio bakarra, ta Jaungoiko Betikoari eskeintzen zaiola. "Meza, dio Aita Gobat'ek (1), ezta otoiz bat bakarrik, baizik da adorazio emateko modu bakarra, Jaungoikoaren diña dan

(1) Alphas. sacr. aud.

eskeiñgarri bakarra, sakrifikutzen dan jauskiñi edo biktima jainkozkoa dalako: Kristo da Burunagusi ta Mez-emalle egiazkoa. Onen urrena dator apaiza bere lanabes edo instrumentu dana, gero mez-entzuleak. Zenbait aldiz elizgizon eztiranak, egiten dute apaizak bañore anima garbiagoaz. Laugarren lekuan jartzen ditut artarako limosna, edo bear diran gauzen batzuek, kaliza, kasulla edo beste zerbait ematen dutenak, eta azkenik, beste, beren eginkizun edo gaitzak eragozten dielarik, ala ta guziz ere beren gogoaz aldarearen aurrean daudenak. Guziakgana eltzen da Mezaren frutua,,. Gogoan erabilli itzatzute itz auek, bada ederra ta pozgarria da oiek erakusten digutena.

¿Ezta egiaz, mesede miragarri bat Jaungoikoak kristau guziaz, ala giza-semenola emakume, zar, gazte, ta edozeiñ bizipide ta modukoai egiñ diena, Sakrifizio andi au bere Majestadeari eskeintzeko eskubidea ematean? Judioak etzuten izan onelako pribilejio edo gallaldirik. Lege zarrak agintzen zuanez, sazedoteak bakarrik ill zitzaketen jauskiñi

edo biktimak, eta baita intsentsua tenpluan erre ere. Erriak eramaten zuan intsentsua danerre edo olokaustoentzat, baita pakezko sakrifizioentzat ere, baña eragotzia zegokion intsentsua irazekitzea baita erretzea ere, ta eragotzi au austen zuanak, egiten zuan pekatu andi bat.

Onen gañean Eskritura Santuak erakusten digu, nola sazerdoteak etzioten utzi nai Osias erregeari, bere naiera arriskutsuak egiten (1). ¡O errege, esan zioten, etzaitzu tokatzen zuri intsentsua erretzea, baizik bakarrik Aaron'en seme, eginkizun orretarako konsagraturik daudenai. Atera zaite bada leku santutik, aditu itzatzu gure konsejuak, bada bear eztan bezela egitera zoazena, gure Jaun eta Jaungoikoak t̄sartzat botako dizu. Osias'ek au aditzean, asarre bizian irazekirik, esaten ditu itz kein edo amenazatzalleak, eta artzen du intsentsu-ontzia, baña une artan bertan Jaungoikoak kastigatzen du leprarekiñ.

Eliza Katolikan ez bakarrik intzentsatzen uzten zaie eliz-gizon eztiranai,

(1) II Paral., XXVI, 18.

baizik Jesu-Kristo'ren Gorputz ta Odolaren danerre edo olokaustoa eskeiñi dezakete, ta eskeiñi bear dute. Aditu ezazute nola San Pedro'k adierazten duan kristauaren diñidatea (1): "Arraza autatua zerate, sazerdote-erregeen ordena, erreinu santua, erri irabazia, illuntasunetik argi arrigarrira deitu dizuten Aren anditasunak guziaz adierazteko,,.

San Pedro Apostoluak dionez, kristau guziaz, ala gizasemeak nola emakumeak, dira moduren baten Mezatan sazerdotea bezela. ¡O kristaua! Orra nolako gallaldi edo pribilejioa dan Jaungoikoari aiñ errez eskeiñi al izatia Jesu-Kristoren Gorputza ta Odola. Aprobe-tsa zaitezte maiz zuen al edo podere santu onezaz; izan zaitezte leialak eskeintze onetan, eta pillotuko dituzute aberastasun andiak. Sakrifizio jainkozko au eskeintzen ezpadezute, eztezute bear bezela Meza entzungo. Ona emen Aita Antonio Spire'koak dioana: "Meza entzutea, ezta bakarrik artara juatea, bai-

(1) I Epist., II, 9.

zik da gauza bearra apaizarekiñ batean Sakrifizioa eskeintzea.

Egiaz, Meza entzuteko gauza bearra da bera Jaungoikoari eskeintzea, gure naia apaizarenarekiñ elkartuaz. Bear edo premi au dator Meza beraren izatetik, sakrifizio dalako. Beragatik an erregutu bakarrik egiten dutenak, egiten dute bai Elizaren agindua, baña eztituzte ateratzen eskeiñiari dagokion graziak.

Ezta alperrikakoa izango egiaz, nik zuei adieraztia oso argiro, nola eskeiñi bear diozuten Jaungoikoari Sakrifizio santua.

Egizute kontu batek errezatzen dituala debozioz errosarioak, Jesus eta bere Ama guziz Santari eskeiñiaz; ta bitartian beste batek Meza bat bakarra entzuten duala, bera Jaungoikoari eskeiñiaz. Bi auen artean ¿nork geiago eman du? ¿Nork izango du sari andiagoa? Dударik gabe, bigarrenak. Lenenguak eskeiñi du otoitz guziz santua, baña edozeiñ moduz ere, egiñ duanaren deboziotik ateratzen du bere balioa, baña besteak eskeintzen du Mezatan lurreko gauza guziaz gañetik dagoan doai bat, guziz osoa,

guziz andia, jainkozkoa, gutšienaz ere Jesu-Kristoren Gorputza ta Odola, bere negar malkoak, bere eriotza ta bere meritu guziak.

Esango dezute benturaz, lenengoak ematen duala berea duan doai bat, eta eziñ esan ditekela beste orrenbeste bigarrenaz, Sakrifizio santuaren merituak Jesu-Kristorenak diralako.

Esaten dizuet berriro bigarren aldiz, Meza eskeintzen duanak, berea duana ematen duala, Salbatzallearen merituak bereak egiaz ditualako. Bai; aldarean geregantzen degu Jesus'ek bere Pasio, Odol preziotsu ta eriotzaren bitartez irabazi duan guzia. Obeki ezagutu dezazuten itz pozgarri auek esan nai dutena, aditu zazute Elizak esaten duana: "Odol iñurtze gabeko Sakrifizioa, Trento'ko Konzilioak dionez (1), da Odol-iñurtzedun Sakrifizioaren merituak ekartzan dizkigun bidea,,. Onela iristen dezutena, aiñ da zuena, nola dan ere zuena, zuen nekeakiñ irabazten dezutena, ta beragatik Meza bitartean daukazute

(1) Sess. XXXII, cap. 2.

eskubidea, eskeintzeko Jaungoikoari Jesu-Kristoren merituak, zeronak balira bezela.

Begira ondo oraiñ, Salbatzalleak egiten dizuten mesedearen anditasuna, zerok apaiztat jartzean, modu espiritual batean, ematen dizutela Jaungoikoari Sakrifizio aiñ andi au eskeintzeko eskubidea apaiz batek egiñ lezaken bezela, da esatea, ez bakarrik zerongatik, baizik baita besteakgatik ere. “Ez da Mez-emalea bakarrik, dio Fornerus’ek, aldareko Jauskiñi edo Biktima eskeintzen duana, baizik zuek eta kristau guziak ere egiñ dezazukete ori berarekiñ batera,,. Au da, gañera, esan nai dutena Elizak *Sanc-tus*’aren ondoren apaizaren aoran jartzen dituan itz auek: “Oroitu zaite, Jauna, zure serbitzari gizaseme ta emakumeaz, ta emen aurkezturik dauden kristau guziezaz, bada oiekgatik eskeintzen dizugu, *edo oiek berak eskeintzen dizute alabantzazko Sakrifizio au, berakgatik eta beren senideakgatik; beren adiskide ta ongille bizi ta illakgatik,,.*

Kristauen laguntza adierazten da apaizak *Sekreta*’ren aurretik egiten

duan otoitzean, esaten duanean: *Orate, fratres*. Erregutu ezazute nere anaiak, nere *ta zuen* Sakrifizio au, Aita Jaungoiko Guzialdunaren gogokoa izan de-diñ,,. Eskaera au egiten die an dauden guziaz, esango balu bezela: Nik egiten dedana, nerea ainbat da zuena ere; nere Sakrifizioa, neri bezela dagokizute zuei ere; beragatik lagundu bear didazute be-
ra eskeintzen.

Kaliza jaso ondorean, esaten du apaizak: “¡O Jauna, gu zure serbitzariok eta zure erri santuak eskeintzen diogu zure jainkozko Majestadeari, Ostia garbi bat, Ostia Santu bat, Ostia mantša gabe bat!,,

Zuen laguntza eskeintze onetan da, bada, guziz egiazkoa, ta apaizak aintzakotzak dauka. Ezpadezue ontzat artzen bere deia, ta elkartzen zuen biotza aren egiñarekin, uts ematen diozute zuek-gandik espero zuanian, eta kalte andia egiten diozute zuen buruai, eskeintze onen mesedeaz ez aprobetšatzean. “Izan ezazute, bada, ardura, ondasun aiñ andia ez galtzeko, dio Fornerus’ek; ez aztu apaitza espirituzko onetan lan egiteaz zerongatik eta zuenakgatik,,.

Gallaldi edo pribilejio miragarria, baña eztira aprobetsatzen onezaz Meza entzutera juaten eztiranak, ezta atentziogabe. Meza entzuten dutenak, eta denbora onetan beste otoitzen batzuek egiten dituztenak ere. Esan dizute dan eskeintze ori, da besterik ez bezela, egin dezazuketen gauzarik onena, ta zenbat eta geiago egiten dezuten, orduan eta geiago Jaungoikoari atsegiñ emango dizute, obeki zuen pekatuen zorra pagatu ta zeruan sari andiagoa izango dezute. Esateak Jaungoikoari Mezatan: *nik eskeintzen dizut*, esan nai du: pagatzen dizut; pagatzen dizut Jesu-Kristoren merituen urrearekin, nere pekatuetatik ateratzea; pagatzen dizut zeruko ondusunak iristea; pagatzen dizut Purgatorioko animak andik ateratzea.

Egiaz, Mezatik kanpora ere esan ditteke probetsuz: Jauna, eskeintzen dizut zure Seme maitea; eskeintzen dizut bere Pasioa, bere eriotza; eskeintzen dizkitzut bere birtuteak eta merituak. Ala ta guziz ere, eskeintze au gogozkoa da, baña Mezatan egiten dana egiazkoa, Jesus aldarean dagoalako, ta baita berare-

kin batean, bere merituak eta birtuteak ere. An berritzen ditu bere Pasio ta eriotza; andik ematen dizkigu bere tesoroak, eta ematen zaigu berbera, guk bere zeruko Aitari eskeiñi degiogun. Itz auekiñ egindako eskeiñia ain indar andikoa bada, nun Jesu-Kristok Santa Jertrudis'i esan zion (1): “Danik eta pekaririk andiena badare gizon bat, barkazioa espera izateko, naikoa izango zaio, eskeintzea nere Aitari nere sufrikizun berak merezi ez dituanak,, ¿zenbat indar andiagoa eztu izango Salbatzallearen meritu, aldarean egiaz gure egiten diranak, onela eskeintzeak?

Santa Mektilde (2) egun batean Meza entzuten zegola, Jesu-Kristo'k esan zion: “Ematen dizkizut nere Gorputz jainkozkoa, ta nere Pasio garratza, zuk denbora berean eskeiñi degizkidatzun zere ondasun bat bezela. Eman zaizkidatzu doai auek; nik atzera biurtuko dizkitzut gero: eskeiñi zaizkidatzu berri, ta aldi bakoitzean zure meritu gei-

(1) Lib. IV, c. XXV.

(2) Lib. I. c. XIV.

tuko da, bada gizonak lurrean egiten duana, eun aldiz geiago izango da betikotasunean,.

Jesu-Kristo gure Jaunak eztizka Santa Mektilde'ri bakarrik uzten bere merituak, baizik baita gu guziori ere. Jarraitu diozagun bada oraiñ aditu degun konsejuari, ta egiñ dezagun berak dioana.

Oraiñ azaldu dezagun nolakoa dan Meza eskeiñiaren balioa.

“Mezako otoitz guzien artian, dio Santsez'ek, pozgarriena da kaliza goratu ondoan egiten dana, apaizak Zeruko Aitari Bildots mantša gabea eskeintzen dionean, esanaz: Jauna, guk, zure serbitzariok eta zure erri santuak eskeintzen diogu zure Majestade andiari Ostia garbi bat, Ostia Santu bat, Ostia mantša gabe bat, (eta gañerakoak). Erri santua, Meza entzuten eta bere bitartez santututzen daudenak dira. Ala adierazten dute Jesus'en itz oek (1): “Berakgatik ni santututzen naiz, berak egian santutu ditezen,.” Santututzen dira San

(1) Joan., XVII, 19.

Paulo'k dionez, "jainkozko Odolaz bustita,,.

¡Ai zeñ balio andikoa dan, Jesu-Kristoren Gorputz guziz garbia, Anima Guziz Santua ta Odol mantšarik gabea, egiaz dan Ostia au! Eta ala, ¿zer eskeintzen diozute Jaungoikoari? Berdiñik gabeko doai bat Jaungoikoaren Majestade andiaren oso diña, bera bakarrik dana.

Doai miragarri au ezta atzera biurtzeko ematen zaiguna, baizik gu gera bere jabe. Zerutik artu degu, baña Meza bakoitzean egiten gera bere jabe, len esan ditugun itzen bidez ikusten dan bezela; auek diotenez, Jesu-Kristoren Gorputz ta Odolaren Sakrifizioa apaizarena ta erriarena da egiaz. Aita Santsez'ek dio (1): "Jaungoikoak egiñ dituan ondasun guziakiñ baño aberatsago egiten da gizona Meza Santuaren bitartez, au ondo entzuten badaki,,.

Santsez'enzak, beste Erakasle guzientzat bezela, Meza entzutea da Aita Betikoari bere Seme guziz maitea eskeintzea.

Erraz izango zaitzute au egitea, ondo

(1) Thes. Miss., 24.

ezagutzen badezute zuen pentsamentua, Meza ematen duanarekiñ elkartua dagoala. Esan ezazute bada: Eztet merezi aldarera igo, ta nere esku, konsagratu gabe daudenakiñ nere Jesus maitearen Gorputza artzia; baña jartzen naiz nere gogoaz apaizaren urrean, eta laguntzen diot, Ostia ta kaliza goratzen. Reinaldo'k dio, Inlaterra'ko Errege Enrike irugarrenak, entzuten zituala egunero iru Meza, aldarearen oñean be-launikaturik. Konsagrazia eltzean urreratzen zan Meza ematen zegoanagana, ta eusten zien aren besoai, Ostia ta kaliza goratzen zituan bitartean. Lan au zan guziz pozgarria Errege on arentzat. Oraindik gaur ere balirau oitura onek, atsegiñ guziz andiaz egingo lukete. Au onela izanik, nai badezute egiñ ori bera, oraiñ ere, Jaungoikoak gogoan artuko dizute: esaiozute biotz guzitik: Jauna, eskeintzen dizut zure Seme maitea apaizaren eskuz. Zeruko Aitak ezagutuko du zuen itzak zer esan nai duten, eta atsegiñ andia izango du zuen naia ezagutzean.

Ostia santuarekiñ batean eskeiñi bear

da Odol preziotsua ere. Eztago ezer ere, zeruaren asarrea palakatzeko, indar geiago duanik, eta animak zeruratzekore bide guziz ederra da. Ala azaldu zion Jesu-Kristo gure Jaunak, Pazzis'ko Santa Maria Magdalena'ri, ezagutu eraziaz zein egokia zan Odol preziotsua eskeintzea, Jaungoikoaren asarrea palakatzeko. Salbatzallea errenkuratu zitzaion berari, gutsi ziralako, bere Aitaren justizia palakutzen saiatzen diranak, eta erregutzen zion santari ala egin zezala. Ordutik aurrera eskeini izan zuan bi-ziakgatik eta illakgatik Odol preziotsua egunian berrogeitamar aldiz, ta bere zeruko Esposoak erakutsi izan zizkan maiz, bere erreguen bitartez emen lurrean Jaungoikoagana biurtu zituan animak, eta baita era berean Purgatoriotik atera zituanak ere. "Beldur izateko da, esaten zuan maiz Santak, pekatu mortalean iltzen dirala gutsi edo asko, gure nagitasunaren neurrian; bada oien onerako eskeiniko bagendu Jesu-Kristoren Odola, Jaungoikoa adiskidetuko litzake berakin eta ez likie utziko infernuan erortzen,,.

Odol preziotsuaren eskeiñia egiñ ditke edozein denbora ta lekutan, baña iñoiz ere ez, ta iñun ere Mezatan baño obeki, Odol au, egi-egiaz an dagoalako. “Jauna, eskeintzen dizut Odol jainkozko au apaizaren eskuz, Mezatan esaten duanak, eskeintzen du egiaz apaizak kalizan daukan Odola. “Gizon batek eskeintzen badio, esaten digu Pazzis’ko Santa Magdalena’k, Aita Jaungoikoari Jesu-Kristoren Odola, ematen dio doai aiñ andia, nun Jaungoikoak artzen duan, eta egiten dan bera gizona ganako zordun,.”

Neurririk eztuan Jaungoikoaz ostean, eztago ezer ere, ez zeruan eta ez lurrian, Odol au bere balioan berdiñdu lezakianik; onen tanto bakar batek geiago baliodu martirien odolaz egindako it̄saso batek baño.

Egiñ ezazute aldarearen oñean, Gurutzearen oñean egiñ izango zendutena. Bildu ezazute Jesus’en zaurietatik ateratzen dan Odola, ta eskeiñi zaiozute Jaungoikoari. Neurri gabe andiak izango dira, eskeiñi onen ordañez emango zaizkigun grazi ta barkaziozko tesoroak.

Zaudete ziur, ala egiten badezute, ezte-
zutela izango Jesus gurutziltzatzen ikusi
zutenen enbidirik.

OGEITASEIGARREN BURUA

**Zeiñ ona dan Meza askotara norpera
gomendatzea.**

Bear ez bezela gauzak ulertzeko arris-
kua aldentzeagatik, gauza gaitz bati eran-
tzunaz, asten naiz.

¿Zer egiñ bear dezute, Meza bi edo
geiago batera ematen badira Eliza bateko
aldareetan?

Batzuek uste dute, au gertatzean, ira-
bazten dituztela, beste ain beste Meza
elkarren ondoren entzunda bezela. Au
ezta egia. San Alfonso Ligorio, Santo
Tomas, Layman eta Erakaslerik geienak
bi gauza eskatzen dituzte Elizaren agin-
dua betetzeko: 1.º Egiñ dedilla guziro
egiteko agintzen dana. 2.º Gogoa jarri
dedilla, gutñienaz artarako asmoz asita,
Jaungoikoagan edo Sakrifizioko miste-
rioetan, Meza ematen duanak esaten,
edo egiten dituan gauzatan. Ala, bada,

iñolare eziñ ditezke bi Meza batera entzun, eziñ ditezken bezela iñolare egiñ edo entzun batera bi sermoe. ¿Nola egon diteke bat bere atentzioa bi edo iru gauzatan batera jarririk, batek bakarrik gure almen guziak lotzen baditu?

Teologoak erakusten dute, eziñ entzun ditekela Meza, zatika. Bi erdik oso bat egiten dutelako esaera, eziñ emen ipiñi diteke. Bi apaiz Meza ematen dauden Eliza baten sartzen dan gizonak, bat *Pater Noster*'ean eta bestea Meza-ren asieran daudela, bigarren Meza azkeneraño entzuten ezpadu, eztu agindua betetzen. Au egiten ezpadu, irabazten ditu bai merituak, bizitzako liburuan urrezko letrakiñ itzkribatuko diralako, Jaungoikoaren onran igaro dituan uneak; baña eztu Mezarik entzuten, Sakrifizioa zatitu eziñ ditekkelako.

Au onela erabakirik, galdetuko didazute, ez ote dan obe, Meza asko batera entzutea, bat bakarra baño. Berezi ditza-gun. Jaungoikoari ematen zaion adorazioari begiratzen badiogu, berdiñ da, zeñ bat bakarra, edo ta zeñ asko batera entzun, sakrifizio bat baño geiago aldi

bakoitzian batek eskeiñi eziñ ditza-
kelako. Zuen probet̃suari begiratzen ba-
diozute dudarik gabe esango dizuet,
baietz, obe dala, bada apaiz bakoitzak
zuenganatuko ditu zuen jainkozko Bi-
tarteakoaren merituak. Baña gauza bea-
rra da, otsarekiñ atentzioa ez galtzea,
geienetan gerta oi dan bezela, onelako
ingurunetan. Baldiñ edozeiñ mugitze
uztegabekok atentzioa galerazten badi-
zu, aukeratu ezazu Meza bat baño geia-
go ematen eztan Eliza bat. Adieraziko
det bi itzetan. Ogeita irugarren buruan
agertu dedan bezela, apaiz guziak erre-
gutzen dute ta eskeintzen dute Sakrifi-
zio Santua, entzuten dutenak nai dute-
nerako. Beragatik, apaiz bat baño bes-
terik ezpadago Meza ematen, eztezute
izango erregu bat baño, ta beiñ bakarrik
zuenganatuko dituzute Jesus'en meri-
tuak; baña bi iru edo oraindik geiago ere
badaude, beste ainbeste geituko da zuen
probet̃sua.

Aingeruak an daude Meza guzietan
eta zuekgatik erregutzen dute. Beraga-
tik, zenbat eta geiago diran Mezak, ain-
bat eta geiago izango dira zuen bitarte-

koak. Itz baten esateko, apaiz nagusia Jesu-Kristo da, ta mundu guziagatik be-
ra sakrifikatzean, eskeintzen da Meza
entzuten dagoan bakoitzagatik. Eta ala,
Meza batera bakarrik bazoazte, aldare
batean bakarrik erregutzen du Jesu-
Kristo'k zuekgatik, baña geiagotara ba-
zuazte, Jesus'ek erregutzen du zuekga-
tik, aldare bat baño geiagotan. Erregutu
bañore geiago egiten du; ematen dizki-
tzute bere merituak, geitzen du zuekgan
grazia, egiten dizkitzute mesede asko ta
andiak, ainbat eta ugariago zenbat eta
geiago diran entzuten dituzuen Me-
zak.

Ona emen gertaera miragarri bat,
Portugal'ko Erregiña Santa Isabel'en bi-
zitzatik aterea, ta erakusten diguna, nola-
ko ugaritasunarekiñ sariatzen duan Jaun-
goikoak debozio au. Gorteko jaun ba-
tek, eriotzako orduan esan zion bere
semeari: Uzten det lurbira edo mundu
au, Jaungoikoaren errukitasunean espe-
rantza guzia jarririk, eta uzten zaitut
nere ondasun guzien jabegai bakarra, ta
beste gauza guziaz gañetik agintzen di-
zut, entzun dezazula egunero Meza san-

tua, ta izan zaiteala leiala Erregeganako. Aita ill eta gero gazte au jarri zan gortean bertan Erregiñaren serbitzari edo onorezko paje, ta Erregiñak estimatzen zuan aiñ ona zalako bere serbitzari gaztea, ta askotan onen bitartez bere limosnak egiten zituan. Bazuan Erregiñak beste serbitzari edo paje bat ere, bere gogokoa etzuana, au gaiztoa zalako. Onek gorroto bizia zion bere lagunari, ta zelo ta inbiriz itšututa zegoan. Beste biderik arkitu eziñ zuanean gazte birtutetsua galtzeko, salatu zuan Erregeren aurrean, esanaz, trata bide tšarrak zeuzkala erregeiñarekiñ eta maiz sartzen zala onen gellan. Ikusirik salatzalle gezurtiak, Errege dudan gelditzen zala, eraman zuan Errege beste serbitzaria Erregiñaren bizi-lekutik irtetzen zan unean erakutsi zion lekura. Au ikusirik, Erregek, oso aseraturik juramentu egiñ zuan kastigatuko zuala gazte ura. Uriaren inguruan pasiatzen zebillela egun batian, karobi sutu baten ondotik igaro zan; deitu zion jabeari, ta esan zion: Bigar goizean goiz bialduko dizut gizaseme gazte bat, eta galdetuko dizu, nere agindua egiñ de-

zun; esaten duana esan dezala, artu ta
bota ezazu bera karobira; ala egiten ez-
padezu, aginduko det, aren lekuan zu
botatzeko. Jabeak agindu zion ala egingo
zuala, gogorra bazanere agintzen zitzaio-
na. Bigaramonian, goizian guziz goiz,
esan zion Erregek serbitzariari: Zuaz
lasterka uritik kanpora karobia sutan da-
kan gizonagana, galde zaiozu nere agin-
dua egin duan, eta etorri zaite ark eran-
tzuten dizuna neri esatera. Juan zan be-
reala gazte au, baña oso naigabetua
egun artan Mezarik eziñ entzun izan
zualako. Leku artara zijoala, igaro zan
Eliza baten aurretik, eta une artan jo-
tzen zan konsagrazioa adierazten zuan
ezkilla. Sartzen da bereala, adoratzten du
Salbatzallea, ta eskeintzen dio au bere
Aita Betikoari, bere salbaziorako, ta bi-
zitza onetan anpara zezan. Zerbait ere
ase zan bere deseo ona, besterik ezpa-
zan ere, beñepeñ Mezaren zatirik bea-
rrena badare entzun zualako. Bazijoan
aurrera bere bidean, eta berriz ere beste
Eliza batetik igarotzean, aditzen du kon-
sagrazioko ezkilla. Sartzen da lenagoko
aldian bezela, baña ateratzen da bereala,

erregeren agindua egitera. Baña presakua bazan ere bere eginkizuna, aditzen du irugarren aldiz beste Eliza baten jotzen duten ezkillak, konsagrazioa adierazten duana, ta bere buruari atzera eragiñ eziñik, sartzen da berriz ere, bere Maisu ta Jaungoikoa adoratzera, bertan geldituaz Meza bukatu artean.

Bitartean errege arkitzen zan bere agindua egiñ ote zan jakiteko egarriz, ta bialdu zuan beste serbitzaria ori jabitera. Baze-kian serbitzari onek, erregek zertarako bialtzen zuan, eta aiñ lasterka jua zan, nun eldu zan lenengo bialdu zuan serbitzaria baño len. ¿Egiñ da erregek agindua? —galdetu zuan bereala.—Oraiñdik ez, baña laster egingo da. Doakabe ari lotu zizkioten oñak eta eskuak, eta al guzia egin bazuan ere mingañez ta indarrez bota etzezaten, artu ta bota zuten sutan zegoan karobira. Au egiñ zan beziñ laster, eldu zan beste serbitzari karobira bota bear zana. Etorri izan baziña puškatšo bat lenago ikusiko zenduan, esan zion karobiaren jabeak, nola surtara bota degun zure laguna, segurutzen bazigun ere, etzalla bera baizik zu ziñala, bizirik erre bear

ziñana. Serbitzari au biurtu zan jauregira oso beldurturik, gogoratu eziñik zertan uts egiñ ote zuan, bere nagusia ainbesteraño aserratzeko. ¿Egin dezu nik agindu dizudana? galdetu zion erregek, arri-turik bera ikustean. Aditzian gazteak itz oiek, ezagutu zuan zer gertatzen zan, jarri zan belauniko bere nagusiaren aurrarian, esan zion bere aitari agindu ziona eriotzako orduan, eta nola iru Meza entzuteko era izan zuan, etzuala uste izan ezertan utsik egiten zuala, irurak entzutean. Onela adierazi zion zergatik izan zan berandu biurtzea, ta beragatik salbatu zala. Dionisio'k ezagutu zuan gaztearen gaitzik-eza, eraman zuan bere emaztearen aurrera, ta onek jakiñ erazo zion, serbitzariari uzten bazion bere bi-zi-lekuan sartzen, au egiten zuala, onen bitartez Lisboa'ko pobreaki limosnak bialtzeko.

Egiñ ezazute alegiña, serbitzari au bezela onak izaten, eta emaiozkatzute zuen Salbatzalleari zor zaizkan omenak. Gomen- da zaitezte Meza santuan gazte ura bezela, ta jakiñ ezazute, zintzo ta irau-

penez ori egiten badezute, probetſu andiak aterako dituzutela.

Eziñgo dezute beñere Meza bat baño geiago batera entzun, eun Meza ematen badira ere Eliza batean, baña eztizu ezerk ere galeraziko, guzietara gomen-datzea, ta zuen gogo edo asmoaz guzietara juatea. Era onetan, apaiz batekiñ Sakrifizio Santua eskeintzen dezuten birtartean, gañerako, era batera Meza ematen duten guziak, zuekgatik erregutukodute. Eztizuet beñere biar ainbat erregutuko, eska degiozutela *Memento* bat, ondo datorkizuen apaiz guziaz.

Eliza baten Meza ematen duten apaizen artean antziñatikako oitura da, elkar gomendatzea; egizute beste ainbeste, bada maiz juaten bazerate ere Sakrifizio Santura, etzaudete Jaungoikoaren aiñ urrean. An zaudetela edo ez, iduki ezazute oitura au, ta onekiñ irabaziko dituzute grazi asko, onela adierazten eta agertzen dizkiotzutelako Jaungoikoari Sakrifizio santuetara juateko dauzkazuten deseoa, eta Berak gogoa izango ditu. “¡Zeiñ andia dan, dio Santa Jer-

trudis'ek (1), bide aiñ errez onetatik iristen dan tesoroa,,. Dakizutenian one-lako edo alako ordutan Meza Santua nunbaiten ematen dala, zuek jua eziñ baziñate, etzaitezte egon zalantzan; zuazte ara zuen gogoaz ta biotzaz; apaizak, dijoazen guziagatik erregutzen duan ezkerro, zuekgatik ere egingo du, gogoaz aurkezturik bazaudete.

Au da motibo guziz andia pozez betetzeko, komentuetan itšian egonik, ainbeste Meza entzun eziñ litzaketen personak, munduan bizi diran eta Meza bat bakarrik entzuten dutenak, beren gaišo edo eginkizunakgatik iñolare entzun ezin dutenak, eta azkenik, presondegian daudenak.

Esan diran gauz auetakoren bategatik Elizara jua eziñ bazerate, irakurri itzartzute beñepeñ Mezatako otoitzak, ordu bertan Meza ematen duten apaiz guzien intenzioaz zuena elkartuaz, ta eskeiñi ezazute Jesu-Kristo, aurkezturik dagoan aldare guzietan.

Ala ta guziz ere, askoz obe da norpe-

(1) Lib. IV, c. XV.

ra Meza entzutera juatea, bada Meza bat baño geiago eskeiñi eziñ bazenukeite ere onela, badaukazute beste obeasun bat, eta da, Meza ematen duten apaiz guziakiñ elkartzea, ta daukazute parte Meza entzuten dutenakgatik egiten dituzten otoitzetan.

OGEITA ZAZPIGARREN BURUA

Egunero Meza entzuteko dei zoli bat.

Liburu au arretaz irakurri badezute, ta gañera gogoan zerbait erabilli, sumatu bear izan dezute, zuen biotzetan sortu dala Mezaganako debozio andi bat, eta eztezute beste deiren bearrik, egunero entzuteko. Baña aiare jarriko ditut beste gogorazio batzuek, zuen debozioa sendotzeko.

Esan dezagun lenengo, eztagoala egunak dituan orduen artian, Meza entzuten dezuten ordu ura baño ederragorik. Gañerako orduak orren onduan, menasta edo metalik tšarrena, urrerik onenaren ondoan bezela dira, bada lurreko

ondasunak, animakoak baño neurri gabe askoz balio gutšiagokoak dira. Benturaz esango dizute: neretzat lana bearragoa da Meza entzutea baño, nere etšekoen-tzat ogia irabazteko. Ez, irakurle maitea, Meza entzuteak lanak baño geiago balio du, bada Meza gabe eziñ egiaz zorione-ko izan zindezke. Etzaitut nik iñolare lanetik aldendu nai. Bakarrik esaten di-zut, egunero artu dezazukela ordu erdi bat, Jaunari emateko. Onela zure lana ugarituko da Jaungoikoaren bendizioare-kiñ eta mesedegarri izango zaitzu. Baña bestela, ardura gabez, edo lurreko on-dasun bati begiraturik, uzten badezu Meza, urrezko ordua, berunezko ordu biurtzen dezu; erakartzen diozu zure buruari lurreko kalteakin berdiñik ez-tuan kalte bat; egun oso bateko lanare-kin irabazi al zenikezun guzia baño geia-go galtzen dezu. Egi au ikusi erazoko di-zut Maisuaren itzakiñ: “¿Zertako du gizonak mundu guzia irabaztea, bere anima galtzen badu?”

¡Ai! Au ondo gogoan artuko bazendu, etziñake beñere geldituko Meza Santua entzun gabe. ¿Zenbat irabazten du, ordu

erdi baten soluan lan egiten duan neka-
zariak edo bere jostorrazarekiñ lan egi-
ten duan jostunak? ¿Arditen batzuek?
¡A, burugabeak! Meza bakar batekiñ
irabazi lezakete, zerua irabazteko bear
dana, ta ala ere au guzia uzten da bi edo
iru kobre zatirekiñ pagatzen zaitzuen lan
bategatik. Esan dezagun geiago: guzia
izango litzake mesede; bada Jaungoikoa
esku zabalekua izanik, sariatuko du bere
onran igaro duten ordu-erdi ori, ondo-
rengo beren lana probet̃ugarriago egi-
ñaz.

Ona emen gogorazio bat oraindik
obeki erakutsiko dizutena, zein arrazoi
gabia dan, ardura-gabekeri au. Odeieta-
tik urrea eroriko balitz, ¿etziñuzkete
utziko benturaz, zuen eginkizunak?
¿Etziñateke lasterka juango bera biltze-
ra? Jakiñ ezazute bada, Meza bakoitzean
erortzen dala zerutik, balio andiko
urrea. Urre au da, Jaungoikoaren grazia,
birtuteak, merituak eta Zeruko gloria
geitzea; da poza ta ontasuna; da lurreko
eginkizunetarako Jaungoikoaren anpa-
rua, pekatuen barkazioa, ta auekgatik
merezi izan ditugun penak ere barkatzea;

da itz batean, Jesu-Kristoren merituetan parte izatea. Urre au da, zoriontasuna, grazia ta errukia, ta gañera gauz auek guziak neurri gabeko balioa dutenak dira. Zuen eskuan dago, oien jabe egitea. Baña bestela, neke apurt̃so bat ez arzteagatik, edo irabazi t̃siki bat ez galtzeagatik, uzten badezute Meza asteko egunen batean, zuen zorakeria izango litzake urrezko euria biltzera lasterka jua bearran, bere lanean jarraituko lukeanarena baño andiagoa.

Aditu ezazute Elijiok (1) esaten duana: "Meza Santua da debozio guzien artean onena; Meza uzten duanari, laster legortuko zaizka beregan ontasunaren iturri guziak. Eguzkiak landare guziaz bizia ematen dien bezela, alaše Mezak ematen die meritu geiago egite guziaz. Eguzkia berez, illargi ta izar guziak bat egiñik baño argiagoa da, ta baita lurra-
rentzat probet̃sugarriagoare; era berean Meza Santua da Jaungoikoaren gogokoagoa, zuentzat ohea, munduarentzat osasungarriagoa ta Purgatorioko animen-

(1) Lib. XXXIV, c. XXII.

tzat mesedegarriagoa, zuen eguneko beste meritu guziak baño. Meza santuan ematen diozute egiaz Jaungoikoari bere diñako omen bat, eta berdiñik gabeko atsegiñ bat,„

Jaungoikoak egiñ zaituzte Bera serbitzeko; Meza da Jaungoikoari eman degikiogun adoraziorik andiena. Eman bear dizkiotzute eskerrak, animarako ta gorputzerako egiñ dizkitzuten mesedeakgatik; meza da eskerrak emateko daukagun Sakrifiziorik osoena; Jaungoikoa alabatzeko gaude lurrean; meza santua da alabantzazko Sakrifiziorik onena, Jaungoikoaganako zor andi bat daukazute; meza da pekatuen zorra pagatzeko Sakrifiziorik osoena; beti zaude te pekatuan erortzeko arriskuan; meza da Jaungoikoa gure alde ipintzeko daukagun Sakrifiziorik indartzuena; eriotza ta deabrua zai dabiltzkitzute, bizia kendu ta infernura botatzeko; meza da gaitz guzietatik gordetzen gaituana. Zuen azkeneko orduan izango dezute santuen laguntzaren premi andia. Laguntz au iristeko eztegu meza Santua baño bide oberik. Oroituko zeraten bezela, ala

esan zion Jesu-Kristo Gure Jaunak Santa Mektilde'ri: bialduko zituala, zuei eriotzako orduan laguntzeko, entzundako Mezarik ainbat santu.

¿Entzun diteke Meza bestegatik? Dударik gabe, bada Meza ezta komunioa bezela. Bestegatik komulgatzea, da moduren batian bestegatik jatea, ¿ta nola eman degikio besteri, batek jaten duana? Esan diteke: Eskeintzen det komunio au zugatik edo purgatorioko animakgatik; da esatea bezela, sakramentu onen parte artzean, igo naiz graziaren malla guziz goi batera ta onezaz baliatzen naiz debozio ta konfianza geiagorekiñ erregutzeko, kristauak nai dutenerako. Auñe da egiaz itz oiekin adierazten dana.

Meza Santua ezta ipiñi Jesu-Kristok bera entzuten duten eta eskeintzen dutenentzat bakarrik. Ala Meza ematen duanak nola entzuten dutenak, sakrifikatu lezakete Jesu-Kristo, an eztaudenakgatik. Eta egiaz ala esaten du apaizak bizien *Mementoan*, eta Meza entzuten dutenak eskeintzen dute berakgatik eta gañerako guziakgatik. Gañera utzi diteke

beste batentzat, ateratzen dituzten merituen, eta pekatuen zorra pagatzeko irabazten dituzten aberastasunen parte bat. Arrazoi onengatik uste det, lagunurkoarentzat obe dala Meza entzutea beragatik komulgatzea baño. Ezpadaukazute mesede au egin naiko dizuten adiskiderik, esango dizuet berriz ere, lenago esan dizuedana; gomenda zaitzakitete apaiz bati edo zuazte zuen gogoaz leku ta ordu jakiñean ematen dan Meza batera. Era onetan danik eta beartsuenak, eta eragozpenik geienak dituanak ere, parte izan lezake Sakrifizio santuaren frutuetan.

“Itzak mugikidatu egiten dute, baña ejemploak gogoan jotzen dute,,. Nere itzaldi guziak ezpazaituzte oraindik artara jarri, gogoratuko dizuet santuen ejemploa; auek beren lan asko ta andien buruan ere, Mezari ematen zioten lenengo lekua beren eginkizun guzien artian.

San Agustin'ek esaten digu bere zorioneko Ama Monika'gatik, etzuala uzten egun bat ere Mezarik entzun gabe. Estimazio guziz andian zeukan Sakrifi-

zio santuaren balioa, bada onen birtute osasungarriak kentzen du gure utsegi-teen oñ-atzerañokoa. Eriotza urrean zuala ezagutzean, esaten zion bere semeari, ez egiteko ill ondoan, progu edo elizpuntzio otsandikorik, baña oroitu zedilla egunero bere amaz aldarean.

Santa Edubijis, Polonia'ko Dukearen emazteak, goizero entzuten zituan Mezaren batzuek, eta nai ainbat apaiz etše-ko kapillan etzeuzkanian, deitzen zien beste batzuei, bere debozioa asetzeko.

Frantzia'ko Errege San Luis'ek entzuten zituan beti bi Meza ta batzuetan lau. Bere serbitzarien arteko batzuek mormoretaren batzuek bazebiltzkiten, esanaz, etzala ondo, Errege bat goiz guzian Elizan egotia, obeki zitzakeala Erreinuko eginkizunai begiratzea, Meza apaizentzat utzita. Aditurik au Erregek, esan zien: ¡Ai, zenbat arritzen naizen zuen ezpa edo kejak aditzeaz! Eliket iñork ere arpegira emango, jokoan edo eizean Meza entzuten bear dan bezelako bi denbora igaroko banitu. Erantzute ederra, ez bakarrik Luis bederatzi-garrenaren mendekoentzat, baizik baita gu gu-

ziontzat ere, ondo datorrena. Astearen barruan Meza bat edo bi entzuten ditugunean, ¿uste dezute denbora asko galdu degula? Ala ta guziz ere kezkarik t̄sikienik gabe igarotzen ditugu ordu osoak, berriketan, jokoan, edanean, janean eta lotan. ¡Zer it̄sumena!

Esan degu len, Inlaterra'ko errege, Enrike lenengoak, Erreinuko lanetan zeregiñ astunak izaten bazituan ere, etzuala beñere uzten egunik bi Meza entzun gabe. Frantzia'ko Erregerekin iduki zuan ikustaldi batian itz egiñ zuten biak erligioko gauzen gañean, eta Frantzia'koak esan zion: “uste det obe dala sermoe bat entzutea, Meza baño„. Nik naiago det, esan zuan Enrike'k, “nere adiskidea ikustea, bere alabantzik andienak aditzea baño„. Erlijioaren gañeko Erakutsaldiak ezeretzat bota gabe, askoz geiago da Mezaren bitartez irabazten dana, erakutsaldi auen bidez egiten dana baño.

Estronkonio'tar Antonio (1) zorioneko anaia aritzen zan Meza laguntzen ala-

(1) Bollad., VII feb.

ko debozioarekiñ, eta denbora orretan aiñ pozaldi andiak izaten zituan, nun az-tutzen zitzaion jatea ta edatea. Egun gu-zian Mezak eman izan balira, etzuan etsetik irtengo. Zartu ta nekez mugitu oi zanean, juaten zan alare Mezatara. Oraindik illtzerakoan ere, nai izan zuan oia utzi, Meza entzutera juateagatik. Beste erlijiosoak esaten zioten beiñ ta berriz, utzi zitzala asmo aiek, artarako egiñ bear zuan indarrak bere bizia amai-tuko zion beldurrez; baña berak eran-tzun zien: ¡Ai! Entzendukete orrela itz egingo, zenbat mesede artzen duan ani-mak Mezatan bazenekite.

Boemia'ko Duke San Benzeslao'ren bizitzan irakurtzen degu, Worms'en Jaun andiak billera egin zuten denboran, Otto'n Enperadoreak adierazo ziela, Printzipe ta Jaunai egun batian goizean goiz bildu bear zutela. Beste guziak juan ziran oso zuzen, baña ez Benzeslao, ba-da beste gauza guziak baño len juan zan Meza entzutera. Denboraren baten itse-don ondoan, Enperadoreak, egoarririk gabe, esan zien an bildurik zeudenai: Asi dezagun gure lana, ta Benzeslao da-

torrenean, ez bedi iñor ere jaiki, berari leku egiteko. Meza eman zan beziñ laster, eldu zan jauregira Benzeslao. Enperadoreak ikusi zuan, bi aingeru lagun zituala sartzen zala. Bereala, jetși bere jargoi edo tronutik, badijoa bere bidera, ta besarkatzen du amorio guziarekiñ. Enperadorearen lagunak arritu ziran, ikustian, Enperadoreak austen zuala berak emandako agintea. Ikusi ditut, Dukiari laguntzen zioten aingeru bi, esan zuan oso arriturik, ¿nola enizkan emango tokatzen zitzaizkan onoreak? Emen-dik egun batzuetara Benzeslao koroatu zuten Boemia'ko Erregetzat, tokatzen zitzaizkan eskubide guziak emanaz.

Baldiñ Errege ta gizon andizki, beren eginkizunez beterik bizi diranak, entzun badituzte debozioz, ez Meza bat bakarrik, baizik baita geiago ere, ¿zer esango degu, Jaungoikoaren aurrean gure zabarkeria estaltzeko, ainbeste aldiz utzezko aitzakiz gelditzen bagera Meza entzun gabe? Beldur naiz Juez nagusiak esango ote duan (1) guzaz arrazoi an-

(1) Matth., XXV, 30.

diarekiñ: “Artu ezazute alperrikako mirabe ori, lotu bere eskuak eta oñak eta bota ezazute negar eta ortzetako ikara arkituko dan su illun artara,,.

Eztezazula beñere esan: Jaungoikoak ez nau infernura botako astegunian Mezarik entzun eztedalako, bada igandeta beste jaiegunetan bakarrik nago onera beartua. Egia da etzaituala orrengatik bakarrik kastigatuko, baña bai bera serbitzen zabarra izan zeralako, ta eman dizun talentuari irabazi erazo eztiozulako. Su-illunera botatua izandu zan mirabe nagiak etzuan gastatu ta ez galdu jokuan bere nagusiak idukitzeko eman ziona: biurtu zion atzera oso-osorik, bere utsegitea izandu zan, irabazi erazoten ez jakitea.

Meza entzun gabe uzten degunean, gogoratu bear ditugu, ez bakarrik bere bitartez irabazi genitzakean merituak, baizik baita Jaungoikoari emango genion onra ere. Ona emen onen gañian *Pedagogico cristiano* deitzen dan liburuak esaten diguna: “Jaungoikoaren grazian dagoan apaiz bat gelditzen bada Meza eman gabe, artarako egiazko eragozpe-

nik eztuala, bakarrik zabarkeriz, kentzen dio alabantza ta gloria Irutasun edo Trinitade guziz Santuari, atsegiña aingeruai, barkazioa pekatariai, sokorrua justuai, atsedena Purgatorioko animai, animen ondasun andi bat Elizari, ta aldentzen du norperagandik sendagai osasungarri bat. Kristau batek arrazoi justu bat gabe Meza uztean, egiten duan utsegitea, da moduren baten apaiz onena bezelakoa,, (1).

Serbitzari batek serbituko baziñuzte alako nagitasunarekiñ nola ta zuek Jaungoikoa serbitzen dezuten ainbeste utsegiterekiñ, ¿etzendukete bereala zuekgandik aldenduko? Gogora ezazute bada, beldur izateko dala, Jaungoikoak era berean zuek beragandik aldentzea, bear bezela serbitu eztezutelako, bada kastigatzen du zorrotztasun andiarekiñ, debozio-gabetasun au, ta graziari ez erantzutea, apaizen aldareko zabarkeria bezela. Esango dizuet onen gañean, 1570-garren urtean Erroma'ko inguruan gertatu zan gauza bat.

(1) De præp. ad Miss., c. 5.

Gubbio'ko iru tratalari jua ziran Zisterno'ko peri batera, ta elkarrekiñ bildu ziran gostatuan. Irabazi zuten diru asko, ta peria amaitzean, oien arteko bik esan zioten irugarrenari: Gauza bearra da bigar goizean guziz goiz juatea, illunerako etsera eldu gaitezten. Ezta ori nere iritzia, erantzun zuan besteak; bigar igandia da, ta gure lenengo eginbearra da, elizara jua eta Meza entzutea, ta gero jarrikogera bidean Jaungoikoaren anparupean. Baña alare etzuten utzi bere asmoa, ta bigaramon goizean egunsentian, jarri ziran beren zaldi gañetan. ¿Meza entzun gabe zuazte igandean? esaten die beren lagunak.—Beste egun baten entzungo degu; Jaungoikoa ezta asarratuko gurekiñ, motibo aiñ andiagatik gaur entzun gabe geldituagatik. Irugarrenaren esanai jaramonik egin gabe, asten dira bidean, eta au dijoa Elizara Meza entzutera. Jaungoikoaren justiziak itšedoten zien, Zisterno'tik legua batera baño len. Gañez egiñik zijoan ibai bat; eta aren gañeko zurezko zubi bat igarotzen zijoazela, bat-batera ondatu zan zubia beren oñen azpian. Zaldiak atera zi-

ran igeri egiñaz urtatik, baña bi gizonak beren diruakiñ ondoratu ta ito ziran. Andik ordu betera eldu zan irugarren tratalaria, ta ibetondoan bizi ziranak, esan zioten gertatu zan guzia, irakutsiaz leku artan bertan, urtatik atera berri ziran gorputz itoak. Oso izuturik, ezagutu zuan Jaungoikoaren justizia zorrotza, ta eman zizkan eskerrak zeruari, eriotz aiñ beldurgarritik aldendu zualako.

Ojala kastigu onen bidez ezagutuko bazendu, eztala beñere utzi bear Meza jai-egunetan, lurreko utskeri bat irabazteagatik, tratalari askok egiten duten bezela, egiten duten pekatu larriaz kezkatu gabe. Beldur izan bear dute, naien dituzten erosleak, igande ta jai egunetan egiten dituztenak ere. ¡Zenbat aldiz ez-tira ikusten baserritar talde osoak, Mezatara juan bearrean uriko merkatura juaten, eta beren erosaldiak egiteagatik uzten Sakrifizio Santuaren parterik bearingen bat, uskeri batzuekgatik infernuko surtan erortzeko arriskuan jartzen dirala!

Beren umeai Meza entzutea eragozten dieten gurasoak, aditu bezate Santa Jenobeba'rekiñ gertatu zana, bere ama

Jerontzia'k beartu nai izan zuanian etsean gelditzera, Meza utzi eraziaz, artarako bear ainbat arrazoirik etzuala. Santak esan zion, bere urteai zegokion baño zorrotasun andiagoarekiñ: Ama maitea, nere kontzientzian eziñ utzi nezake gaur Meza. Naiago det zu atsekabetzea, Jaungoikoari ez obeitzea baño. Jerontzia asarratu zan, bere alaba matrallan jotzeraño, errietan emanaz obeitu etziolako. Gaizki-egiñ oni etorri zitzaion bereala ondo-
ren kastigua, bada bereala gelditu zan itsuturik biotz gogorreko ama au, ta etzan argitu urte bi igaro arte, ta orduan ere Jenobeba'ren erreguen bidez.

Gurasoak bialdu bear dituzte Meza-tara beren seme-alaba ta mirabiak, baita gañera zaitu ere, nola egoten diran Elizan, esanaz iduki degiotela amorio ta errespeto andia Sakramentu guziz Santuari. San Paulo apostoluak esaten digu argiro (1): "Norbaitek ezpadauka bereen ardurarik, batez ere berarekin bizi diranenik, uzten du bere fedea, bada fedegabeko bat baño tšarrago da,,. San Juan

(1) Timot., c. V, v. 3.

Krisostomo'k (1), itz auek esan nai dutena azalduaz, dio: "*Arduraren* itz au ez da gorputzaren osasunaz bakarrik dioana, baizik bai ta animarenaz ere,,. Eta egiaz, bere umeai ta gañerako etsekoai jana ta jantzia emateko ardura eztuana, Jaungoikoaren begietan fedegabe bat baño tsarrago bada, ¿nola ez du zorroztasun andiagoarekiñ juzgatuko, salbatzeko bear dutenaz ardurarik eztuana?

Gubbio'ko Obispo Sperelli Jaunak dionez, izanik eguneroko Meza, zerua irabazteko daukagun biderik onena, etsetako buru guziak beartu biar lituzkete beren mendekoak, Meza entzutera al duten guzian.

Bere semeari edo mirabeari Meza entzutea galerazten dion gizonak, diruri esaten diola: Ezta Jaungoikoa zuk serbitu bear dezuna, baizik ni. Eta egiaz orrelako kristauak, jentillak baño tsarragoak dira, ta eriotzako orduan ezagutuko dute beren pekatuaren anditasuna.

(1) Hom. 14.

OGEITA ZORTZIGARREN BURUA

Meza debozios entzuteko deia.

¡Zeiñ negargarria dan katoliko askoren egoera ta debozio gutšia Meza ematen dan bitartean! Geienak obeki begiratzen diote beren inguruan gertatzen danari, sartzen eta ateratzen diranak ikusiaz, ta ezpañaz erregutuaz, baña zer esaten duten ere ia eztakitela, ta beragatik biotzak parterik artzen eztuala. Oarkagabeturik bezela daude, eñeritzen dira konsagraziotik bereala, ta beren gogoa lurreko gauzetan jarririk, adierazten dute argiro, eztutela ezagutzen aldarearen gañean egiten dan mirariaren anditasuna. Ikustean onela arkitzen dirala Jaungoiko neurrigabe santu danaren aurrean, galdetu dezake batek: anima oien fedea osoro itzali ote dan, eta merezi ote duten oraindik kristauen izena. ¡O nola nere biotza atsekabetzen dan ikusgarri onekiñ, eta nola arrazoi onengatik arkitzen naizen, animak, ardura gabetasun

onetatik ateratzeko bidea, azaltzeko premian!

Meza Santuari beti izan bear diogun errespetua irakusten digu Elizak ondorengo itz auekiñ: “Kristauak eziñ egiñ lezaketela misterio miragarri au baño gauza santuago ta jainkozkoagorik ezagutzea, da ezagutzea ere, beñere eztala izango geiegizkoa onetan ipini genezakean ardura ta arreta, biotzeko garbitasunaz ta ejemplo onaz gañera,, (1). Etzaitzute eskatzen onetarako zuen indar eta inguruneekin ondo eztatoren piedade bat; iduki ezazute bakarrik gogoz ta debozioz Meza Santua entzuteko borondatea. Piedadea da animako berotasun bat, eta ez sentiduetako atsegiñ bat. Au dago Jaungoikoa serbitzean, Bera gano ko leialtasun eta iraupenean, Berak barrungo atsegiñik batere ematen eztigularik ere; da esatea, etzaituztela atzeratu bear, ez zuen borondatezkoak eztiran distrazioak, eta ez zuen erreguetan izaten dituzuten oztasunak. Oroitu zaitzte bakarrik etzeratela artarako diña, ta egiñ

(1) Trid. sess. XXII, decr. de observ. in Miss. c. 9.

ezazute al guzia zuen ardura-gabetasuna astintzeko, ta jarraitu ezazute Meza gogoz entzuten. Ipinia ezazute borondatea zuen aldetik, eta Jaungoikoak bedeinkatuko zaituzte ta lagunduko dizute zuen zabarkeria garaitzen. Bestela, ezpadezute alegiñik egiten ori iristeko, geldituko zerate meritu andi bat irabazi gabe.

Jaungoikoak animai arpegira ematen diena ezta piedaderik-eza, baizik piedadera eltzeko arduragabetasun borondatezkoa. ¡Ai! zenbat kristauk merezi duten, au arpegira ematea. ¡Ai! zenbat diran, borondatezko oztasun bategatik animako atsegiñ guzia, ta Jaungoikoak, Bera leialki serbitu nai dutenai, ematen dizten grazi ugariak gabe gelditzen diranak. Ala aditzen ematen du ondorengo gertari onek.

Egun baten Santa Jertrudis koruan zegoala, al guzia egiten zuan bere kantuko itz bakoitzari intentzio bereziren bat elkartzen, baña aldi onetan eta berezko argaltasunez, eziñ iritși izan zuan, al guzia egiñaren buruan ere. ¡A! esan zion bere buruari: ¿Zer frutu atera nezake onela jardutetik, mudaldi aiñ an-

dien mendean nagoala? Naiago det uztea; ta au esanik, bazijoan irtetzera oso tristeturik, baña Jaunak etzuan ikusi nai bere serbitzaria triste; ta jarri zion begien aurrean bere Biotza, lanpara irazeki bat bezela, esaten ziola: Ona emen, nola nik aurkezten diedan zure animako begiai, nere Biotz ongillea, Irutasun guziz Santuaganako bitartekoa, konfiantzaz eskatu degiozun, egiñ dezala zugatik, zuk zure indarrez iritși eziñ dezuna. Era onetan ez tet arkituko ezer ere osoro ona ez tanik, bada mirabe bat, bere nagusiaren borondatia egiteko, beti prest dagoan bezela, ala nere Biotza egongo da beti prest, zure zabartasunaren utsegiñak osatzeko.

¡Ai! ¡Zenbat alaitu bear gaituan ejemplo pozgarri onek! ¿Oarkabeturik zaudete Mezatan eta eztezute sumatzen deboziorik batere? Esaiozute Jesus'i: Gogorkiro sufritzen nago aiñ oarkabetua arkitzen naizelako, ta eskatzen diot zure Biotz jainkozkoari, ordaindu dezala nere nagitasuna. Eskaera umill onek eztezute eragotziko, beste bideren batzuek jartzeare. Ona emen zuen buruz baka-

rrik ere jarri ditzatzuketen batzuek. Mezatarara jua baño ien, gogoratu ondo zer egitera zoazten. Etzaitezte sartu elizan fariseoak edo publikanoak bezela, otoitz egitera. Sartu zaitezte Dabid'ek salmoe-tan azaltzen duan asmoarekin, esaten duanean: "Nik, borondate onaz, Sakrifizioa eskeiñiko dizut,,. "Zure serbitzaria naiz, jo Jauna! ta orrengatik eskeiñiko dizut alabantzazko sakrifizio bat, eta deituko diot zure Izen Santuari,,. Egiaz, Jaungoikoari onorerik andiena ematera, ta neurrigabeko balioa duan Sakrifizio bat eskeintzera zoazte. Ara zer dion Aita Gobat'ek: "Meza entzutea, ezta, egia esateko, otoitz bat; da adorazio ematea; da mez-entzuleak, bear bezela prestatu-rik badaude, apaizarekiñ batean egiten duten jainkozko sakrifizio eskeintze bat,,.

Jaun onek berak azaltzen du bereala, zer dan sakrifizioa; "Sakrifikatzea da, gauzarik bikañena egitea; da birtute gu-ziak obraz jartzea. Sakrifikatzean eza-gutzen degu, zor diogula Jaungoikoari neurrigabeko alabantza ta gloria, aitor-tzen degula bere mendean osoro gau-dela, berak egiñ gaitualako. Beragatik

erlijioak dituan egite guzien artean, sakrifizioa da Jaungoikoarentzat bere gogokoena, ta gizonarentzat probetſugarriena.

Apaiza aldarera eltzen dan unetik artu ezazute, Meza gogoz ta debozioroz entzuteko asmo erabakia. Erregu batzuek besteak baño naiago badituzute, egiñ itzatzute aiek, konsagraziora eldu arte. Une gogoangarri onetatik aurrera egiñ bear dezutena, da bakarrik, adoratu Jesu-Kristo gure Jauna ta eskeiñi Bera mez-emalearekiñ batean.

Benturaz esan albazenidakete, kezkarren bat daukazutela, zuen eguneroko otoitzak Mezatakoakgatik uzteko, esango nizukete argiro, zuen otoitzak Sakrifizio santuaren ondoan, eztirala oraindik kobrea urrearen ondoan dan ainbat ere. Gañera eztizute ezerk eragozten, egunaren beste ordu bat artzea aiek egiteko, ta egiñ gabe utzi bear baziñuzkete ere, aiek uztea elitzakitzute izango aiñ kaltegarria, nola Mezatakoak uztea.

Konfiteor'ean jo itzatzute iru aldiz zuen bularrak penitentziaren ezagunarriztat, eta esnatu ezazute zuekgan, zuen

utsegiteen egiazko damu bat. Ori iristeko gogora ezazute Jesu-Kristo gure Jaunak zuen pekatuakgatik negar egiñaz, auspezturik Olibet'eko baratzen sufritu zuan guzia. Jarraitu itzatzute apaizaren egite ta erreguak, baña guziaz gaiñ jarri ezazute zuen gogo guzia, ogia ta ardoa eskeintzean, eskeiñiaz zuek ere fede irazeki ta umilltasunaz, ta eskeiñi egiozkatzute zeruko Aitari zuen buruak zuen asmoakiñ.

Sanctus'ean auspeztu zaitezte umillki Irutasun guziz santua adoratzeko, zerruan alabantza eder ori kantatzen duten Serafiñekiñ elkaturik.

Sanctus'en ondoren dator *Kanon*'a. Apaizak esaten du iñillt̃sorik, dauzkan misterio andiai dagokien errespetoa galdu eztakien.

Baña urreratzen da konsagrazioko unea, ta emen utzi bear dira otoitz guziak, zuen gogoan eztezute beste gauzarik izan bear, baizik bakarrik Jesu-Kristo egiaz aurkeztera dijoala, ikusi eziñ ditekela badare, aldarearen gañean, eta zuek ere ori bera bizirotz nai izan bear dezute.

“Une orretan, dio Santiago Aposto-
loak bere liturjian, gizon guziak iñillik
egon bear dute, ikaratu kordebagetuz,
ta aztu lurreko gauzaz, Erregeen Erre-
gea ta Jaunen Jauna sakrifikatzera ta gi-
zonen janaritzat ematen dijoalako. Be-
raren aurretik datoz aingeruen koruak,
kanta oso pozgarriak kantatuaz,„

¡Ai! Jaungoikoak idikiko balitu gure
begiak, mirari andi ori ikusteko, ¡zeiñ
andia izango litzakean gure mireztasuna,
ikustean zeru guzia datorrela milagrorik
andiena ospatzen laguntzera! Orduan
ezagutuko genduke osoro egi au, ta bai-
tare zeñ argalak geran, errespetorik,
amteriorik, eta oraindik deboziorik ere
gabe, pekatari merezi eztegunak, miste-
rio andi onetara etortzeko ausardia de-
gunian.

Misterio beneragarri au egiten dan
une bertan, idikitzen dira zeruko ateak,
eta Jaungoikoaren Semea edertasun eta
majestadez beterik jeisten da aldarearen
gañera, gure berteroste edo errenden-
tzioko misterioa berritzera. Santa Ma-
tilde'k bere zorionean aditu zuan Je-
sus'en aotik, esan eziñ alako mirari au

nola gertatzen dan: “Nator aiñ umill, esan zion Jesus’ek, nun animarik despreziagarrieganare jeisten naizen, berak nai badu. Nator alako pazientziarekiñ, nun, sufritzen ditudan nere etsairik gogorrenen gaizkiak ere, pakeak berakiñ egiñaz, berak egiaz nai badute. Nator alako amorioarekin, nun eztagoan, nik bigundu ezingo dedan ainbateko biotz gogorrik, nere esanak borondate onaz aditzen baditu. Nator esku aiñ zabalaz, nun beartsuenak ere aberastu ditezken nere graziaren tesoroaz. Nator janari aiñ onarekiñ, nun animarik argalenare sendoturik geldituko dan. Nator argiz disdiatzen, kontzientziarik illunenak argitzeko. Nator azkenik, grazia ta santutasunez beterik animarik nagien eta zabarrenak esnatzera,,.

Arritu zaitezte ikustean Jesus’ek duan egarria, umillak goitutzeko, etsaiari barkatzeko, biotz gogorrek biguntzeko, beartsuak ondasunez aberasteko, sinismengabeak argitzeko ta zabarrak mugitzeko. Emen gertatzen da ondorengo itz auek diotena: “Gizonaren semea etorri da, galdurik zegoana billatzera ta salbatze-

ra„. “Jaungoikoak eztu bialdu bere Semea mundura kondenatzera, baizik salbatzera. Ezta jeisten aldarearen gañera pekatariak mengatzeko, baizik bestera, idikitzen die bere biotza ta eskeintzen die bere errukia„. ¡Ai pekatariak! zuazte lasterka Meza entzutera; an arkituko dezute bitarteko bat, eta ez juez bat. Zuen zori errukarria obetuko da, ta arkituko dezute gañera biderik onena graziako bizitzarako prestatzeko.

Biurtu gaitezen atzera konsagrazioko ergai edo instante miragarrira. San Franzisko Sales'koak dio: “Gizonak bear da laborritu, munduak ikaratu, ta Zerua oso poztu bear da, Jaungoikoaren Semea apaiaren eskuetara jeisten danian. ¡O ontasun arrigarria! ¡Jaungoikoaren Semea, gauza guzien Jauna, umilltzen da gizon guziak zeruratzeagatik, ogiaren iduripean ezkutatzeraño!„ Baña guk gure begiaz ikusten eztegulako an dagoala, eztegu Beragan pentsatzen; eta bitartean bera ikusten dauden aingeruak, “bere aurrean ikaritzen dira„, Prefazioan esaten dan bezela, ta iges egiten dute izaturik deabruak. Ala adierazi zion Jesu-Kristo

berak Santa Brijida'ri (1): “Arako; ¡Ni naiz! esanarekiñ bakarrik, nere etsaiak beldurturik lurrera erori ziran bezela, alañe: *Au da nere Gorputza*, konsagrazioan esatean, iges egiten dute deabruak,,.

Aingeru ta santuen antzera saia gaitean gu ere aldarearen gañean Jauna gloria-tzen eta Sakrifizio beneragarri onetatik parte izaten.

Ostia ta kaliza goratzeko ergai edo instante miragarrian, utzi ezazute otoitz egite guzia: eraman itzatzute zuen begiak aldareruntz, begira un-une batean Ostia Sagradua, bere jainkozko graziaren argi-erraiñu bat zuen biotzetan artzeko egarritz, ta auspeztu zaitezte bereala, zuen anima pizkortuaz, adorazio oso baterako beñere aztu gabe, Jesus'en aurrean zaudetela egiaz, ta bere merituak eskeintzen dizkiotzutela bere Aita Jaungoikoari. Zaudete gogorazio eder onetan, eta utziozute zuen animari, zuen fede ta karidadetik sortzen zaizkitzuen sentimenduak azaltzen, Jesu-Kristo aldarea-

(1) Lib. IV, c. LVIII.

ren gañean aurkezturik dagoan bitartean; au da, Komunio osterano.

Zorigaitzez katolikorik geienak eztute egiten esan diran gauz oietakorik batere. Jarduten dute beren betiko otoitzak egiten, beren jaiera oiturutzezkoarekiñ, Jesu-Kristo gure Jauna an ezpalego bezela. Iduri tñiki batekin azalduko degu zein gaizki egiten duten onelakoak.

Badezu, bere etñera jua zaiteala maiz, esan dizun adiskide bat. Berarekiñ pakeak egiñ eta zure egiazko adiskidetasunaren ezagungarriak agertu nai dizkiotzu. Beraren erreguz erabakitzen dezu bera ikustera juatia. Zu eltzean, eztizu ematen, zure bisitak eman biar lioken atsegintasunaren ezagungarririk. Osta agur egiten badizu, eztizu itzik egiten, eta uzten zaitu zutik, ezagutzen etzaituan bat baziña bezela. ¿Orrelako arrera batek elizuke benturaz atsekabe bat emango? ¿Etzenduke damu izango bera ikustera jua izatea?

Meza guzietan Jesus jeisten da zerutik, zuek ikusi, poztu ta mesedez betetzeko. Zuen aurrean dago aldarean. Amorioz beterik begiratzen dizute, zuek

berari itz egiteko zai dago, zuen ongie-
torria nai du, ta alare, ozta salbe egiten
diazute. Berari zor zaion errespeto ta
adorazica agertu bearrean, jarduten de-
zute, Meza Santuarekiñ benturaz zer-
ikusirik eztuten otoitzak egiten.

Mesedez, esaten dizuet jo kristauak!
eztezazutela geiago orrela egiñ. Une go-
goangarri artan egiñ ezazute apaizak egi-
ten duana, belaunika zaitezte fede ta
amorioz beterik eta adora ezazute, zuek-
gana borondate aiñ onaz datorrena ta
zuen begien aurrean ogi ta arduaren idu-
ripien agertzen dana.

OGEITA BEDERATZIGARREN BURUA

Ostia ta kaliza goratzean agertu bear dan
jaieraren gañean.

Ogi ta ardoa Jesu-Kristoren Gorputz
ta Odol biurtzea da Mezaren parterik
geien balio duana ta bearrena. Eta orre-
gatik Elizak agindu du, ogiaren eta ar-
doaren iduripean ezkutaturik dagoan
Jesus'en Gorputza, goratu dedilla, jen-

deak ikusten duala, konsagratu ondorian bereala.

Une onetan, Zeru guzia pozez betetzen da; osasun eta graziako iturriak iñurtzen dira lurarren gañera, Purgatorioko su-garrak palakatzen dira, ta deabruak ikaraz betetzen dira. Eta egiaz etzaio beñere eskeiñi Jaunari bere biotza biguntzeko doai aiñ egokirik, eta aiñ estimagarririk.

Ona emen beste mirari bat. Jesu-Kristoren Gizatasun au Irutasun guziz Santuaren ispillu guziz garbia, lurreko tesoro guziak baño askoz geiago balio duan joia, apaizak Jaungoikoari aurkezten dio, ez era batera baizik askotara. Bere eskuen artian Jaungoikoaren Semea berriro gizon egiten da, jaiotzen da, ta eskeintzen dizka bere Pasio samiñ eta eriotzaren merituak, Jaungoikoaren santutasun eta mundu errudunaren artean pakeak egiteko, Juez justu ta pekatari gaiñoaren Bitarteko bezela.

Ezta apaiza bakarrik, Jesu-Kristo Jaungoikoaren begien aurrean jartzen duana. Santa Jertrudis'en argiketa edo

errebelazioetan (1) irakurtzen degu, Salbatzalleak eskeintzen duala bere burua, inork ulertu edo entenditu eziñ lezaken bezela. ¿Nola azaldu Jaungoikoaren sentimentuak, onelako sakrifizio baten aurrean? ¿Nola pentsature diteke? Aitak esaten ditu, dudarik gabe, Semearen bataioan esan zituan itz oek: “Auñe da nere atsegiñ guziak egiten dituan nere Seme guziz maitea,,. San Buenabentura’k (2) deitzen die apaizari ta erriari istante auetan, Zeruko Aitari esatera: Begira zaiozu jo Aita Betikoa! Zure Seme bakarrari: mundu guzian kabitu eziñ dan Seme onek nai izan du, gure artera jetñi. Zuk ala nairik, ez gaitzala utzi, debozio guziaz eskatzen dizuguna iritsi arte, gure pekatuen barkazioa, grazia geituztea, birtutean gu aurreratzea ta betiko bizitzaz gozatzea. Gañera apaizak esan lezakio erriari: Ona emen jo kristauak! zuen Salbatzallea, zuek santu egiten zaituztena, zuen Berterosle edo Errendentorea. Begira zaiozute fede biziaz nola

(1) Revel., lib. IV, c. 62.

(2) In Expos. Miss.

dagoan Ostia Santuan, eta idiki zaiozute zuen biotza. Zorionekoak, estalita egonagatik ere, an egiaz dagoala fede biziaren sinisten dutenak. “Ikusi det nere Jauna arpegiz-arpegi ta nere anima salbatua izan da,, esan dezakete berak Jakob Aitalenarekiñ (1), eta oraindik Jakob’k baño arrazoi geiagorekiñ, bada onek Jaungoikoak bialdutako aingeru bat bakarrik ikusi zuan, baño guk daukagu gure begien aurrean gure. Salbatzalle Jaungoikoa, bera dan bezela.

Ostia ta Kaliza goratzean, jende guziak biurtu bear ditu bere begiak aldareara, ta begiratu debozio ta amorez Sakramentu guziz Santuari. Jesu-Kristo adierazi zion Santa Jertrudis’i (2) zein Jaungoikoaren gogokoa, ta gizonarentzat ongarria, zan onela egitea. Santa argidotar onen bizitzan irakurten degu: “Ostia konsagratuari begiratzen zaion aldi guzietan, geitzen dira zerurako meritua, eta betiko bizitzako gozamena izango da, Jesu-Kristo gure Jaunaren

(1) Gen. XXXII, 30.

(2) Rev. I, IV, c. XXV.

Gorputz preziotsuari begiratzean, emen lurrean iduki diogun amorioari dagokion ainbateakoa,,. Eztezazutela galdu zuen zabarkeriz, promes aiñ pozgarri baten diña izateko zoria. Eztezazutela egiñ, instante auetan, geiegi auspeztuaz, Salbatzallea ikusi eziñ dutela jartzen diran kristauak, egiten dutena. Rubrikak agintzen duanez apaizak iduki bear ditu Ostia ta kaliza goraturik, bere buruaz gaiñ, ergai edo momenturen batzuetan, kristauak ikusi ditzaten. Meza emateko liburuak dio gañera, Odol preziotsuaren gañean: "Adoratu onduan, apaiza zuzentzen da, artzen du kaliza bere eskuetan, jasotzen du, ta erakusten dio erriari,,. Au da Elizaren borondatea. Erregela au gordetzen eztuana, au da, Ostia ta kaliza goratzen eztituana, edo goratu ondoan, aldarearen gañera lasterregi jeisten dituana, egiten da erru edo kulpadun, galerazen dualako mez-entzuleak Salbatzalleari onorea ematea.

Eskritura Sagraduak erakusten digu profezia batean zenbat balio duan onela egiteak. Israeltarrak mormorretan jardun ziran Jauna ta Moises'gatik, eta

Jaunak bialdu zizten, beren aginkadaz suak bezela erretzen zituzten sugastarrak. Batzuek izan ziran illak edo zaurituak. Erria juan zitzaion Moises'i ta esan zion: "¡Pekatu egiñ degu! Eska zaiozu Jaunari, sugastar auek gugandik aldendu ditzala,,. Moises'ek (1) otoitz egiñ zuan eta Jaunak esan zion: "Egiñ ezazu bronzezko sugastar bat eta ipiñi ezazu ezagungarri izan dediñ. Zauriturik dagoan edozeiñ, orri begiratzan badio, sendatuko da,,. Moises'ek, egiaz, bronzesko sugastarra egiñ zuan, ipiñi ezagungarritzat, eta zaurituak sendatu ziran. Eluke iñork ere dudatu bear, onetan Kristoren iduri bat ikusi bear degula, San Juan'ek (2) aditzen ematen duanez itz auetan: "Moises'ek eremuan sugastar bat jaso zuan bezela, alaše gizonaren Semea ere jaso izan bear da Gurutzean,,. Salbatzallearen iduri uts batek izan bazuan Israel'tarrak sendatu ta eriotzatic aldentzeko indarra; ¿zenbat indar andiagoarekiñ eztitu sendatuko Jesus'en Gorputzaren beondazte

(1) Num. XXI, 8.

(2) Joan, III, 14.

edo kontenplazio fedetzuak, pekatuaren pozoi ikaragarriaz zauritutako animak?

Beondazte edo kontenplazio onek dirauan bitartean bizitu ezazute maiz zuen fedea, Ostia Santuan egiaz dagoan Jesu-Kristoren aurrean, eta eskeiñi zaiozute jainkozko Salbatzalle au, bere Aita Jaungoikoari, zuen salbazioagatik. Fedea onela maiz bizitutzearekiñ irabaziko dezute sari guziz andi bat, onkai edo meritu andia dalako sinistea, begiak ikusten ez, aoak gustatzen ez, eta adimentuak ezagutzen eztuana. Egiaz gizonaren arrazoiak, ezeren laguntza gabe, eziñ sinistuko luke bost itzen indarrez, ogia Jaungoiko, ta ardoa Kristoren Odol biurtzen dirala; ta arrazoi onegatik protestanteak eta fedegabeak esaten digute burugabeak generala. Baña alare iraun dezagun guk sendo gure fedean, eta artu ditzagun pazientziaz burla guziak Jaungoikoaren amorez. “Zorionekoak, esaten digu Jesus’ek (1), ikusi gabe sinistudutenak,,. Da esatea, zorionekoak iduripen guzien buruan ere, biziro sinisten

(1) Joan, XX, 29.

dutenak, ni Sakramentu guziz Santuan nagoala; auei emango diet betiko bizitza.

Jesus'en itz oiek ori esan nai dutela, adierazten du, San Biktor Ugo'tarraren bizitzan irakurtzen danak. Abade santu onek eskatzen zuan maiz, Jesu-Kristo Meza Santuan ikusteko mesedea. Egun baten, Mezako Sakrifizio Santua eskeintzea, agertu zitzaion Jesus-Aurra, korporalaren gañean zegoala. Ergai edo instante batzuen ondoren, esan zion jainkozko Aurrak: "Ugo; galdu dezu onkai edo meritu andi bat, zure gorputzeko begiaz ikusi nai izan nazulako,„. Ezkutu zan, apaiza naikua triste utzirik. Ejenplo au da guziz egokia tentazioai atzera eragiteko sendotu gaitezen; emendik ezagutzen da, onkai edo meritu guziz andi bat irabazten degula, gure fede sendoaren ezagungarri bezela, Ostia Santuari begiratzen diogun bakoitzean.

Franzia'ko Errege San Luis'ek ala egiten zuan, artarako era zuan guzian. Egun baten juan zizaizkan esatera, Paris'tik urrean, abade bat Meza ematen zegoalarik, Jesu-Kristo agertzen zala, bere gorputza ikusten zala, jende asko

zijoala milagroa ikustera, ta berari ere deitzen ziotela, ikustera juan nai bazuan. Errege Santuak erantzun zuan: Dijoazela sinisten eztutenak, ikustera gorputzeko begiaz Jesu-Kristo gure Jauna; nik sinisten det fede biaz Sakramentu guziz Santuan egiaz dagoana, ta emen gelditzen naiz.

Gauza jakiña da San Luis'ek beste edozeiñek bezin nai izango zuala mirari ura ikustera juatia, lurrean izan diteken atsegiñik andiena badalako Jaungoikoaren Semea arpegiz-arpegi ikustea; baña alare, fedearen onkai edo meritua gabe gelditzea baño, naiago izan zuan mirari andi ura ez ikustea. Guziz andia badare zuen naia Jauna Ostia Santuan ikusteko, erakidatu edo konformatu zaitezte San Luis'en ejemploa jarraituaz, begiratzten diozutela fedearen begiakiñ, eta zaudete ziur, zeruan sariatuak izango zeratela.

Ogi ta ardo konsagratuai kontu andiaz begiratzeko jaiera, guziz bizia bear zuan izan San Franzisko'ren ordenako praille anai lego, San Paskual Bailon'goagan, bada bere progu edo entierroko

Mezan, bere gorputza Elizan arpegia es-
talita ipiñirik zegoala, idiki zituan bi al-
diz begiak, ogi ta ardo konsagratuak go-
ratzeko ergai edo instantean, Ostiari
begira jartzen zituala, amorio ta atsegi-
ñik andienen ezagungarriak emanaz (1).
Meza entzuten zeuden mirari onen ta-
latz edo testigu askoak, gelditu ziran fe-
dean oso sendoturik.

Arrigarriagoa da oraindik Monfort'eko
Simon bulardetsuaz Fornerus'ek esa-
ten diguna. Egunero entzun oi zuan
onek Meza; pozez ikaratzen zan Ostia
konsagratuaren aurrean, eta maiz esan
oi zuan Simeon'ek bezela: "Eta orain,
Jauna, utzi zaiozu zure serbitzariari pa-
kean juaten, bada nere begiak ikusi dute
nere Salbatzallea,,. Amabi urtez peleatu
zan Albitar erejiekkin, frantzesak eta ale-
manak laguntzen ziotela. Jakiñik bere
etsaiak onen oitura santuaren berri, sar-
tu zan egun baten supituan bere kanpa-
mentuan, izulaborria ereiñaz. Simon'en
ofizialiak adierazi zioten bereala berari
nolako arriskuan arkitzen ziran soldadu

(1) Brev. Rom., 17 maii.

guziak, erregutuaz, Eliza utzi ta Juan zedilla askar soldadu aiei laguntzera. Utzi zadazute, erantzun zien dukeak, Jaungoikoaren lanak egin ditzadan lenbizi, lurrekoak baño len, onratuaz aurrengo nere Salbatzallea. Laster eldu ziran beste berri larriago bat zerkarten batzuek. Soldaduak asi ziran etsaien mendean jartzeko asmoetan. Jeneralak dio berriz ere: Ez naiz emendik aterako ñere Jesus ikusi ta adoratu arte. Bereala Jesus'i erregutuaz, eskatzen dio, salba dezala bere erria Meza Santuaren bidez. Ostia ta kaliza goratzean ematen dio bere biotza, adoratzeko du umillki, ta eskeintzen dio Zeruko Aitari: Azkenik kaliza aldarearen gañean ipiñi zanean, esaten die bizi-bizi bere ingurukoai: Goazen oraintse ta ill gaitezen, Jaungoikoaren borondatea bada, gugatik Gurutzean ill nai izan zuanagatik. Au esanik artzen ditu bere armak, iru errenkada oñezko eta zortzireun gizon zaldizkoren aurrean, erasoten dio Irutasun guziz Santuaren izenian, Tolosa'ko konde ta bere koñatu Aragoiko Pedro'ren mendean dijoan erejeen diande edo

ejerzitu beldurgarriari. Simon'en tropa umantak eraso zion gogor etsaiari; ill zizkan ogei milla gizon eta beartu zuan iges egitera. Bitoria uste izan zan Simon Monfort'ekoari zor zitzaiola, baña bere balentia ta gūzi ere, etzuan garaituko, bere milla ta seireun gudalariko tropa aiñ t̄ikiarekiñ, Meza Santuaren bidez eskatu zuan zeruko laguntza gabe.

Frantzia'ko Errege Roberto lenengoak, ersitu edo inguratu zuan Melun'go uria, menderatzea irit̄si gabe, bada Melun'tarrak gordetzi edo defenditzen zuten egiñ al guzian. Egun batian, Ostia goratzeko garaian, eskatu zion oso gogoz, eman zezaiola bitoria, ta bereala erori ziran murallak, berez, antziñako denboran Jeriko'koak erori ziran bezela, Erregeri sartzen utziaz ezeren eragozpen gabe.

Ostia adonatu beziñ laster eskeiñi zaiozute bera zeruko Aitari. Esan degu, zeñ ona dan au egitea; esango ditugu gañera Santa Jertrudis'en itz gogoangarriak: "Ostia Santua eskeintzeak (1),

(1) Lib. III, 18.

dio bere *Rebelazioetan*, kentzen ditu utsegite guziak,,. Beste modu batera esateko, eztago bide obe ta seguruagorik Jaungoikoarekin pakeak egiteko. Go-goan ondo artu itzatzute itz auek jo pekatariak! eta Ostia goratzean edo ondorian bereala, eskeiñi zaiozute zuen indar guziaz Ostia konsagratua, zuen barkazioa iristeko. Konseju au ezta pekatarientzat bakarrik, baizik mundu guzientzat.

Ostia goratu ondorean, goratzen da kaliza, ta bigarren zeremoni au ere balio guziz andikoa da. Une auetan Jesu-Kristo'ren Odol balio andikoa iñurtzen da modu espiritual batean, mez-entzuleen gain, Santiago apostoluak, bere Mezako liburuan jartzen duan Ebanjelioaren adierazten duten bezela: "Auñe da nere Odola, lege berriko Odola, zuegatik eta beste askogatik iñuria pekatuen barkaziorako,,. Ergai edo momentu onetan artzen dezute grazia bat, biotz damutuarekin kalbarioko mendian, Gurutzearen oñean egon eta Jesus'en Odolaz ugandituta artuko zenduten beziñ andia.

Testamentu zarrean (1), Jaungoikoak esan zien Ebreotarrak: “Israel’go semeak illko dute bildots bat, eta odol onekiñ marrestu edo siñalatuko dituzte beren atetako goialdeak, eta aingeru ondatzallea zuen etšera eldu, ta ezagungarri au ikusten duanian, ezta geldituko, eta etzaitzute elduko Ejipto kastigatzeko bialduko ditudan plagatatik bat ere,,. Paskoako bildotsaren odolak aldendu bazituan Israel’tarrak aingeru ondatzallearen golpeetatik, ¿zenbat obeki gordeko ez gaitu mantšagabeko Bildotsaren Odolak, “leoi amorratu bat bezela gure inguruan norbait irentsitzeko billa dabilen,, deabruaren erasoaldietatik? (2).

Baña ¿zer egingo dute Mezatara juan eziñ ditezkenak? Arritu zaitezte gure Ama Elizak duan kontu andiaz; bere seme-alaba, Mezatan eztaudenak, aprobetšatu ditezen ergai edo momentu aiñ miragarri artako frutuaz, Ostia ta kalizaren goratzea, adierazten du ezkillaren ots batekiñ. Au aditzen dezutenian, o

(1) Exod., XII, v. 22-23.

(2) I. Epist. S. Pet. c. V, v. 8.

kristauak, naiz kanpuan arkitu, naiz zuen etsean, biurtu zaitezte Elizaruntz, ta adoratatu ezazute apaizaren eskuak goratzen duten Jesus. Oraindik gaur ere leku batzuetan gordetzen da leialki oitura on au. Beste batzuetan, zori gaitzez, etsaie egiten kristauai mesede andi au.

Gabriel Biel, teologo andiak, esaten du, emakume gaiño batek zeukala senar gozakaitz, errukirik gabe emazte gajoa jo ta iraiñez betetzen zuana. Denbora askoan sufritu zuan išillik, gizon gaiztoa onduko zalako ustean, baña gaitza geituz jua zan, eta emakumea erori zan tristura andi baten ondoren, desesperazioan. ¡Ai!, esaten zuan, ezin uste izan nezake nik senarra ontzerik, denborak eztu egiten beste gauzarik, nere atseka-beak geitzea baño, ta auetatik aldentzeko, etzait gelditzen beste biderik, bizia amaitzea baño. Au esanik, artzen du soka bat, eta lotzen dio berak lo egiten zuan gelako abe bati, igotzen du silla batera, ta inguratzen du bere lepoa lazada negargarriaz. Bere oñen azpian zeukan silla bultzatzera dijoala, aditzen du, andik urrian zegoan eliza bateko eskillaren

otsa, Ostia goratzen zala aditzen ematen zuana. Emakume gaiñoak zeukan belau-nikatzeko oitura Salbatzallea umillki adoratzeko, ezkill ori aditzen zuan guzian. Etzuan utzi nai izan debozio au eriotzako orduan, eta jartzen da belau-niko, esanaz: Apaizak goratzen zaituan nere Jesus; zure errukia eskatzen det azkeneko aldiz. Nere bizitzako egun guzietan adoratu zaitut eta oraiñ ere adoratu ta zure Aitari eskeintzen zaitut. Itz auek esateaz batean, ausi zan abea, ta erori zan bere eskuetatik soka. Beldurrez ikara, etzekian zer pentsatu, ta orra nun aditzen duan aots bat, esaten diona: Adoratu ezpazendu zure Jaungoikoa al-darean, gaur infernuan egongo ziñan. Beldurrik andienarekiñ ezagutu zuan nolako arriskuan egon zan infernuratze-ko, ta bere asmo gaiztoaz damuturik eskatu zion barkazioa Jaungoikoari, ta eman zizkan eskerrak, modu aiñ miragarrian salbatu zualako. Juan zan bere senarragana, ta bizitasun guziarekiñ errietan emanaz esan zion: ¡Biotz gogorreko gizona! Aiñ andia izan da desesperatzeko eman didazun bidea, nun,

nere buruari bizia kentzera nijoan, bana aditzean Ostia goratzeko ezkillaren otsa, belaunikatu naiz; nere burua urkatzeko soka loturik neukakion abea erori da, ta aditu diot Satanas'i, nola esaten zidan: Adoratu ezpazendu zure Jaungoikoa aldarean, gaur infernuan egongo zian. Ezagutu ezazu bada egiten dezun gaizkia ta jakiñ ezazu, erantzun bear dezula nere pekatuagatik Jaungoikoaren aurrean. Itz auekiñ ikaratu ta graziak ukiturik, aiñ gaiztoa izan zan gizon au, ondu zan, Mezari jaiera andia artu zion, eta guziai ejemplo eman zien bere bizitza onaz.

Elizan eziñ egon bazera Mezatako denboran, esaten dizuet berriro, belaunikatu zaitezte, emakume au bezela, naiz zuen etsean, naiz beste edozeiñ lekutan, Ostia goratzeko eskillaren entzutean; eztezazutela egiñ au ezkutuka, baizik guzien aurrean, biurtu zaitezte Elizaruntz, adora ezazute Jesu-Kristo apaizaren eskuetan eta eskeiñi egiozute bera, Jaungoikoari. Etzaitezte minberatu gaiztoen burlakgatik eta gogoratu ezazute Jesu-Kristok

diona (1): “Gizonen aurrean ni aitortzen nauan ura, nik ere aitortuko det bere nere Aitaren aurrean”, eta era berean (2): “Nizaz ta nere itzaz lotsatzen dan arzaz, gizonaren Semea lotsatuko da beraren, bere Aitaren eta bere Aingeru santuen edertasun eta Majestadean datorrenian.

Ona emen Kaputšišnoen kondaira edo analetan arkitzen dan beste gertaera eder bat (3): Buenabentura anaiak Meza laguntzen zuan errespeto ta fede biziaz. Sukaldeko eginkizunak Mezatara juatea galagazten zioten egun baten, Ostia goratzeko ezkillak aditzean, belaunikatu ta adoratu zuan Jesu-Kristo gure Jauna. Au egitean, ainbesterañoko atsegiña eman zion Jaungoikoari, nun, sariatu zuan milagro batekiñ, bada sukaldearen eta Elizaren bitarteko ormak idiki ziran eta erlijioso onak ikusi zuan aldarea. Pensa dezazukete, nolako sinismen biziaz adoratuko zituan Jesu-

(1) Matth., X, 32.

(2) Luc., IX, 26.

(3) An. 1715.

Kristoren Gorputza ta Odola. Bere otoitza amaitu zuanian, ormak berriro it̄si ziran, beren idiki aldiaren ezagungarrik ikusten etzala; baña Buenabentura anaiagan barrundatu zuten debozio ainsutsua, non igarri zioten, gauza arrigarriren bat gertatu zitzaiola. Bere nagusiak beartu zuan, guzia zan bezela esatera, ta ala gu eldu giñan jakitera.

Ikusi dezagun oraiñ, zer egiñ bear degun Ostia ta kaliza goratu ondorean. Batzuek bost *Aita-gure ta Abe-mari*, bost zaurien onran, errezatzeko oitura daukate. Oitura au oso ona da, baña emen iñolare eztator ondo. Beste batzuek errezatu oi dituzte beste beren debozioren batzuek. Ikusi ditut eskola maisu batzuek, beren umeai kanta erazten, baña au da Elizak nai eztuan oitura bat, bada onek agintzen du, *Sanctus*-etik eta *Pater noster*-eraño gorde dedilla iñilltasun errespetagarri bat, Meza entzuten daudenak Misterio auetan bakarrik beren gogo guzia jarri dezaten. Kantak dakarte gaitz andi bat eta da, mez-entzuleen gogo aldentzea, beren pentsamentu guziak beřagandu biar li-

tukean gauza bakarretik. Animen artzaiak eztitezela aztu onezaz, ta alduen guziaz saiatu ondoan, beren eliztarrak pentsamentu santu auetan egon ditezen, agindu aiñ jakintsu ta errazoezkoa gordeaz, erregutu degietela al aiñ batean, beren gogorazioak eta beren biotzak iduki ditzaten it̃sut̃sirik aldarean aurkes dagoan Jesu-Kristo'gan.

Beragatik; konsagrazioaren ondorean egiñ ezazute apaizak egiten duana. Sakrifizio santua berea ainbat da zuena ere. Apaizak eskeiñi dio sarritan Meza Jaungoikoari konsagrazio aurretik, eta ori bera egiten du gero ere. Kaliza aldarearen gañean uztean, esaten du: “Gu, zure serbitzariok, eta zure erri santuak, eskeintzen diogu zure Majestade andiari Sakrifizio † garbi, Sakrifizio † santu, Sakrifizio † mant̃sa gabe bat betiko bizitzako † ogi santua ta betiko osasunazko † kaliza,,. “Meza guzian, dio Sant̃sez'ek (1), apaizak eztu esaten itz ederragorik, eta ez ark eta ez guk egiñ dezakegu gauza oberik, Jaungoikoari Sa-

(1) In Thesaur. Miss., cap. 24.

krifizio andi au eskeintzea baño„. Ala, Ostia ta kaliza goratu ondorean, ontzat badauzkatzute zuen otoitz gaiño ta legorrak, eta gelditzen bazerate elkartu gabe apaizak egiten duanarekin, kalte andia egiten diozute zuen buruai.

¡Pekatarri errukarri batzuek gera, ta ala eztaukagula diruri ezer ere Jaungoikoari eskeintzeko! Baña aiñ beartsuak bagera ere, badaukagu gure eskuetan zeru-lurrak aberasteko diña dan tesoro bat. Eztigu beiñ bakarrik eman Jaungoikoak tesoro andi au, baizik berriztatzen du Meza bakoitzean, liburu onetan sarritan esan degun bezela. Uzten dizkigu denbora berean bere ondasun guziak, guk eskeiñi degizkagun gure zorra kitatzeko. ¿Nai dezute bada aberastutzea? Eskeiñi zaiozute maiz Meza Santua Aita Jaungoikoari. Onetarako, zer egiñ bear dan dakitenak, arkituko dituzte modu guziz egokiak; eta eztakitenak, egiñ dezakete ondorengo otoitz au: Nere Jaungoikoa, eskeintzen dizut zure Seme maitea, bere Gizon-egitea, bere Jaiotza, bere Pasio samiña; eskeintzen dizkitzut bere odolezko izerdia, bere arantzazko

koroa, bere umillazioak, bere sufrikizunak, bere gurutziltzatzea, bere Eriotza gogorra, bere Odol balio andikoa; eskeintzen dizut zure gloriarik andienerakota nere anima zeruratzeko zure Seme maiteak egiñ duan eta sufritu duan guzia, itz batean eskeintzen dizkitzut aldarean egiten diran misterio guziak. Otoitz auda guziz erraza, baña indar guziz andikoa, ta kristau guziak buruz ikasi dezakete.

Jakitunai ta ezjakiñai, guziai erregutzen diet onela egiñ dezatela, ta errosarioa errezatzea baño probetšugarriagoa izango zaie. Otoitz onezaz gañera, erregutu zaiozute Jesu-Kristo gure Jaunari, aurkeztu dezaiola gure eskeiñia Zeruko Aitari. Jesu-Kristo gure Jaunak Santa Matilde'ri azaldu zionak, osoro ezagutu erazoko dizute zenbat balio duan ala egiteak. Egun baten zegoan Santa au, bederatzi *Aita-gure* errezatzen aingeruzko bederatzi koroen onran, eta eskatzen zion bere Aingeru Guardakoari, eraman zitzaizkala erregu auek Jaungoikoari, ta Jesus'ek esan zion: Utzi ezazu nere kontura zure eskaria, bada nere

kontura uzten dan eskeiñi guzia, edertzen da eziñ geiagoraño nere eskuetan. Egizute kontu au bera zuei esaten zaitzutela, ta esaiozute Jesus'i: Nere Jesus, Sakrifizio andi au eskeintzeko diña ez naizen eskero, erregutzen dizut, egin dezazula mesede aurkezteaz berau nere orde zeruko zure Aitari.

Azkenik, izan ezazute ardura andia, errespeto guziaz egoteko, barrerik eta itzik egiñ gabe, ta alegiñaz eñeri gabe konsagraziotik komuniora bitartean, egiazko premia bat gabe, ta ez egon konfianza geiegizko batekiñ bezela, zenbait, bear ez bezela, egon oi diran moduan, gure amorio ta errespeto guzia zor diogun Aren aurrean.

Meza bitartean egiten diran pekatuak gaiztakeri berezi bat daukate, sakrilejio apart bat bezela diralako. Erru guziz andia dute beren umeen ardura gabetasuna kastigatzen eztuten gurasoak, bada umetatik irakutsi bear diete, nolako errespeto ta debozioarekin egon bear duten beti Jaungoikoaren etñean.

OGEITA AMARGARREN BURUA

Nolako errespetoarekin entzun bear dan
Meza Santua.

Trento'ko Konzilio Santuak dio: "Nola kristauak eziñ egiñ dezaketen Sakrifizio adoragarri au baño gauza santuagorik eta jainkozkoagorik, bada emen sakrifikatzen du egunero apaizak Jauskiñi edo Biktima biziarezlea, gauza jakiña da, asmorik garbienaz ta deboziorik andienaz eskeiñi bear dala,,. Itz auek ez bakarrik mez-entzuleai, baizik baita mez-emalleari ere zuzendurik dijoaz.

Jose'kondaira zaleak dio, zazpireun sazerdote ta lebita aritzen zirala egunero jauskiñi edo biktimak ill, garbitu ta al-darearen gañean erretzen, eta au egiten zala iñilltasun eta errespetorik andienaz. Eta alare sakrifizio auek etziran irudi bat baño. ¡Zenbat debozio, iñilltasun eta ardura andiagoaz juan bearko eztegu egiazko sakrifiziora!

Lenengo kristauak utzi dizkigute ejemplo miragarriak gai onetan. San Juan

Krisostomo'k dionez (1): "Elizan sar-
tzean muñ egiten zieten umillki atean, eta
Meza bitartean egoten ziran eremu ba-
ten bazeuden bezela aiñ berakgandu-
rik,,. Gordetzen zuten guziz zintzo len
esan dan Santiagoren agindua: "Erre-
geen Errege Jesu-Kristo Gure Jauna,
bera sakrifikatza ta kristauai janari-
tzat ematera datorrenian, guziak egon
bear dute iñillik, beldurrez, berakgandu-
rik, eta lurreko gauzaz oso azturik,,. Au-
guzia kontu andiaz egiten zuan San
Martiñ'ek. Elizan etzan beñere jartzen,
baizik beti egoten zan belauniko edo
zutik, eta otoitz egiten zuan, beldur san-
tu batez beterik. Norbaitek galdetu zion,
zergatik ala egiten zuan, eta erantzun
zion: ¿Nola ez naiz bildur izango, Jaun-
naren aurrean banago? "Onek bezela
pentsatzen zualarik, Dabid'ek (2) dea-
dar egiten zuan: "Zuganako beldur san-
tu batez beterik, adoratzan zaitut zure
etse santuan,,.

Jaungoikoak esan dezakiguke, beste

(1) Hom. 3, in II Corint.

(2) Ps. V, v. 8.

denbora baten Moises'i bezela: "Kendu itzatzute zuen oñetakoak, oñazpian daukazuten lurra santua data," (1). ¡Zenbat santuago eztira izango alako edertasun, igortzaldi ta otoitzaz konsagratutako, ta egunero Sakrifizio santua eskeiñiaz santututako gure elizak! Jaungoikoaren esleitu Dabid, ikaraz beterik, urreratzen zan lege zarreko kut̃sa santura. Guk ere beldur santu batez beterik sartu bear degu Sakrifizio santua eskeintzen dan Elizan. Jaungoikoak esan du (2): "Ikaratu zaitezte nere et̃sean eta nere leku santuan agertzean,". Gogora ezazute Jakob'en deadarra ere (3): "¡Zeiñ beldurgarria dan leku au! Jaungoikoaren et̃sea ta Zeruko atea da egiaz,".

Pensa ezazute bada, nolako pekatua egiten duten, kalian eta beren et̃seetan beziñ errespeto gut̃sirekin elizan eta Meza bitartean egoten diran kristauak. Ainbesterañokoa izaten da zenbaitzuen arduragabetasuna, nun, aingeruak auspezturik beren Jauna adoratzten duten

(1) Exod., c. III, v. 5.

(2) Levit. XXVI, 2.

(3) Gen. XXVIII, v. 17.

bitartian, aiek dabiltzan alde batera ta bestera begira, sarizen eta irtetzen diranak ikusten, pentsatzen eta itzketan lotzarik eta premiari gabe. Jesu-Kristok esan lezake Jerusalemgo tenploko salerosleai bezela: “Nere etsea orazioko etsea da, ta zuek biurtu dezute lapurren arzulo,„. Kornelio a Lapidek dio: “Kristauen elizak Jaungoikoaren etsea dira egiaz, Jesu-Kristo an dagoalako korputz ta guzi Sakramentu guziz Santuan,„. Baldiñ Jesus'ek berak bota bazituan latigoz salerosle eztondetzalle edo profanadoreak, ¿zer egingo die kristauak ez-tiruditen oiei? Guziok, bat berare berezi gabe, egiñ bear degu indar andia gure pentsamentua Sakrifizio santutik ez aldentzeko. ¿Zer izango da bada al guzia egiten ezpadegu, gure begiak ez aldentzeko? Au izango litzake egiaz oarkabe edo distrazioen billa ibiltzea, ta benturaz, pekatu andi biurtzea, utsegite tñiki bat litzakeana.

Baldiñ ikusmira utsa bera bada utsegite bat, ¿zer esango degu alperrikako itzaz, errezago bada, begiak baño mingaña gordetzea? Jaungoikoari egiten

zaion gaizkiaz gañera, lagun-urkoari eskandalo ematen dio jardun orrek, eta baita otoitz ondo egiten eragotzi ere. Benturaz esango dezu, norbaitek galderen bat egiten badu, erantzun egiñ bear zaiola. Ezta eragozten galde on bati erantzutea, ezta itz bearrekoren bat esatea ere; eragozten dana da, alperrikako itzak esatea, mormorretan aritzea, lagun urkoaren gañean oarpideak egitea, kallean balegoke bezela, agur egitea, ta itz batean, errespetogabetasun guzia. Jau-nak au gogoratzen digu era onetan (1): “Azken juizioko egunian gizonak eman-go dute alperrikako itz guzien kontu.”. Bai, egiaz; itz on guziak zuen merituen liburuan eskribiturik dauden bezela, alaşe zuen alperrikako itzak ere egongo dira zuen pekatuen liburuan eskribiturik.

San Juan limosnagilleak eziñ sufritu izaten zuan iñork ere Elizan itz egitea. Bein batian ikusi zuan bat Elizan itzketan, eta eramane atera, esan zion: “Jaungoikoagatik etorri bazera onera,

(1) Matth. XXII, 36.

zure biotz ta mingañaz otoitz egiñ ezazu, baña berriketan jardutera etorri bazera, jakiñ ezazu “nere Aitaren et̃sea orazio-ko et̃sea dala, ta zuk eztezu biurtu bear et̃se au, itzketako leku,,.

Belauniko ta errespetorik andienarekin Meza entzun bear da. San Paulok esaten digu bere eskutitz ospatsu baten (1): “Jesus'en izenian guziak belaunikatu bitez zeruan, lurrean eta infernuan,,. Egiñ dezagun al guzia, egoera umill orrezaz egotera, batez ere Salbatzallea, egiaz aurkezturik aldarean dagoanian, eta geienbat konsagraziotik komunio osterañõ. Gizon askok dute Meza guzian zutik egoteko oitura; Ostia ta kaliza goratzean makurtzen badira edo ezpadira, baña bereala zutintzen dirala, Jesus an ezpalego bezela. Meza bitartean belaunikatu eziñ baditezke, diot berriz, belaunikatu bitez, gut̃sienaz konsagraziotik komunio osterañõ. Berrirõre esaten badet, da zuen biotzetan ondo it̃sasteak kontu andia daukakizutelako. Uri andiren batzuetan emakumeak jartzen dira kaliza

(1) Philip., c. II, v. 10.

beeratu beziñ laster. Lurreko andizkien aurrean edo emengo billeraren baten baleude izango lukete alare indarra, belauniko baño era nekagarriagoan egoteko, ta elitzakie luze idurituko ala egotia. Biotz oneko enperatriz Leonor, Leopoldo lenengoaren emazteak, beti belauniko Meza entzuten zuan. Esaten bazioten on bearrez, bere osasunagatik begiratu zezala, ta eñeri zedilla silla andi batean, erantzuten zuan: “Pekatarari gaiño bat naiz elarik ere, guziak makurtzen dira nere aurrean, ni inguratzen nautenen arteko bat bera ere ezta atrebitzen nere aurrean eñertzen; çizan nezake nik nere Jaungoiko ta Egillearen aurrean eñertzeko ausardia?”

Ume tñikiak dauzkaten amak, eztituzte eraman bear auek Mezatarara, bada beren negarrakin eta ateratzen dituzten otsakiñ oarkabetzen edo distraitzen dituzte apaizak aldarean eta Meza entzuten daudenak; baña ume zerbait azitñoak eramatea, ondo da, erakusteko ume diranetik, Elizan iduki dear duten errespeto ta debozioa.

Tñakurrak elizara eramaten dituzte-

nai eziñ esango diet bear ainbat, zeñ gaizki egiten duten, au dalako, ez baka- rrik ondo eztana, baizik errieta andiak merezi dituana.

Lotsagarria da katolikoentzat egotea beren Elizetan, ez protestantiak, ez ju- dioak, eta ezta oraindik jentillak ere, berenetan egongo eliraken bezela. Lo- tsagarria da, diot, ikustea, emakume ez- konduak eta gazteak ere bai, Elizara joaten, dantzaleku edo teatro batera ba- lijoaz bezela.

San Juan Krisostomo'k errietan ema- ten zion gazte auetako bati onela: “¿Ez- kontzera zoazen gazteren bat zera, ala zure edertasun eta jantzi apaiñak era- kustera zuaz? Jaungoikoari barkazioa eskatzera bazatoz, ¿zertako dezu ainbes- te apainduri? Leku santu onetara baza- toz errukia eskatzera, ¿zertako da luju ori?„

T̄sorakeria ta apainduri geiegizkoa ez- tatoz ondo, gazte bategan beti arkitu bear dan kontu ta pentsamentu garbia- kiñ. Argia pasatzen zaien jantziak era- matea, oraindik gaizki andiagoa da, bada persona onai ere pentsamentu t̄sarrak

erakarten badizkate, begira, zer kalte eztuten egingo biotz ariñ eta ez garbietan. Persona apainduegiak kaltegarri izaten dira beti Elizan berenganatzen dituztelako ikusmiraleen begiruneak, enbidizko pentsamentuak sortu, ta gizonen atentzioa galerazten dutelako, berai begira ipiniaz, beren pentsamentu ta atentzio guzia egon bear lukean aldare-ra begiratu bearrean.

Pekaturako bidea ematen duanak, egiten duanak ainbat erru badu, ta oni ematen zaion kastiguaren antzekoa ematen zaio ari ere.

Baña batez ere Meza Santuak dirauan bitartean, bear da kontu iduki, begirune ikusmiratsu ta ausarditsurik ez egiteko; bada an pekatua askoz andia-goa da, leku santuan egiten dalako, ta Jaungoikoari bakarrik dagozkion denboraren une aiñ estimagarriak aiñ gaizki igarotzen diralako, oroitu gabe, berari eman bear zaion utsegite oien kontu estuaz.

Amaituko det animai ainbeste mesede egiten dien liburu au, beren eskuetan daukaten guziaz erregutuaz, eztezatela

utzi, baizik guziz bestera, maiz irakurri dezatela. Onela ezagutuko dute, geitzen zaiela Meza Santuaganako debozioa, ta naiko dute entzun maizago ta sinismen biziagoaz. Ikusi dute zein atsegiña dan Meza entzutea ta zein andia bere saria, baña oraindik obeki ikusiko dute erioztako orduan eta betikotasunian; orduan sinismen gabeak, eta sinismen otz-dunak ezagutuko dute, beren buruai egiñ dioten kaltea, beren damutasun berandukoarekin erremediatu ezingo dutena. Erregutzen diot Jaungoikoari, bere Seme Jesu-Kristo gure Jaunagatik eta Espiritu Santuaren birtuteagatik, nere irakurleen adimentua argitu ta borondatea sutu dezan, nere lana beren onerako izan dediñ eta egin dezaten, ni pekatari gaiño onek, beren otoitzetan parte izateko bidea.

Denbora berean liburu au itzkuntza batetik bestera itzuli duanak, egiten dizute eskari ori bera. Oroitu zaitezte arazaz ta bereezaz, iñoiz edo beste, Meza Santuan, eta ala pagatuko diozute ondo, artu duan lana zuei ezagutu erazoteko gauza aiñ on eta pozgarria.



Jaungoikoak mundua maitatu du, bere Seme bakarra berari emateraño, Argan sinisten duten guziak galdu etzitezen, baizik iduki zezaten betiko bizitza.

(SAN JUANEK, III, 16).



**Meza Santua entzuteko lenengo modua
apaizaren otoitzakin elkartuaz.**

Aita Betikoa, eskeintzen dizut zure Seme guziz maite Jesus'ek, gurutzean illaz, eskeini zizun Sakrifizio oraiñ ere aldarearen gañian berriztatzera dijoana. Eskeintzen dizut Zuri dagokizun adorazioa ta onorea azaltzeko, ta bear bezela eskerrak emateko, egiñ dizkigutzun esan eziñ ainbat mesedegatik. Eskeintzen dizut, zure asarre miña palakatzeko, zorraren ordaiñ on bat bezela, ta azkenik Eliza Santagatik, nigatik, mundu guziagatik eta Purgatorioan sufritzen dauden animakgatik zuri erregutzeko.

Mezaren asieran.

Apaiza aldarearen oñean dagoanian.

¿Izango det io nere Jaungoikoa! aursardia, zure aurrera agertzeko ta zure Majestade jainkozkoari eskeiñiko zaion

Sakrifizio andi ta guziz garbian parte izateko? Ez naiz autsa ta utsa, miseria ta ezereza baizik; baña guzietan t̄sarrena da, nere zorigaitzean, atsekabetu zaitudala Zu, Jaungoiko neurrigabea, pekatu asko ta andiak egiñaz. Nere anima pekatu askoz zikindua dago; zure zuzentasunak gogor kastigatu bear banau, zure errukitasun neurrigabekoagana nator, bada onek Jesu-Kristo'ren Odolaren bitartez garbitu lezake, ta nai ere badu garbitzea, ni bezelako pekatari bat. Emen naukazu, umillki auspezturik zure aurrean, nere utsegiteen damurik andiena badaukat, auek atsekabetu zaituztelako Zu, nere Juez zorrotza, nere Aita maitagarria, nere Ongille esku zabalekoa, nere On guzia, osoa, ta obeki maitatua izatea merezi dezuna. Bai, Zure aurrean jo, Jaungoiko betiko ta neurrigabea! Birjiña Maria guziz Santaren aurrean, San Migel Goiaingeru, San Juan Bautista, San Pedro ta San Paulo Apostolu, Aingeru ta Santu guzien aurrean, aitortzen det nere errua, nere erru guziz andia. Maria Birjiña guziz Santaren eta zeruko Aingeru ta santuen bitarte-

kotasunez barka zadazu Jesu-Kristo'gatik nere biotz pozez beteaz eskeiñi degizudan apaizarekin batean Sakrifizio miragarri au. Oraintse bertan artzen det asmo sendo bat, ill arteraño zuri leialtasuna gordetzeko, ta zure jainkozko graziaren laguntza eskatuaz, erabakitzen det pekaturik ez egitea.

Esan ezazu apaizarekiñ:

Kyrie eleison (iru aldiz)

Christe eleison (iru aldiz)

Kyrie eleison (iru aldiz)

Glorian.

Gloria Jaungoikoari Zeruan eta pakea lurrean burondate oneko gizonari. Aingeruen koru guziakiñ batera alabatzen zaitugu, bedeinkatzen zaitugu, Jau-na, zure gloria ta podere andiagatik. Adorazioa, esker ona, gloria Zuri, betikoa ta neurrigabea zeran orri, zugaran dauzkatzun argitasun eta zoriontasun azken gabek gatik. Guk adoraten zaitugu ta eskerrak ematen dizkitzugu, Aita Betikoa, gugaranako izan dezun erruki ta amorioagatik, zure Seme bakarra ematean,

gu zeruratzeagatik. Guk adoratzten zaitugu, ta eskerrak ematen dizkitzugu, jo Jesu-Kristo gure salbatzallea, Jaungoikoaren Semea!; gizon egitera, bizitu ta sufritzera, ta orain bertan gure berterozte edo errendenzioko misterioa berritzera jartzen zaituan amorio neurrigabekoagatik. Guk adoratzten zaitugu jo Espiritu Santua! Jesu-Kristo'ren merituakgatik Eliza katolikan eta bere semeetan bizitzean, eta beti lan egitean, zugar dauzkatzun grazia ugariagatik. Disdiatu ezazu gure animan ere zure graziaren indarra, egin ezazu gure anima, santu, garbi ta gloriako koro bat Jesu-Kristo gure Jaunari egiteko diña, izan gaitezen bere onra, bere garaitondo edo triunfo betikoa, Berarekin, aingeruak eta Santuak lagun ditugula, kanta degizkiogun Jaungoikoari alabantzak.

Ala izan dedilla.

Kolektan.

Jaungoiko Guzialdun eta betikoa; zure serbitzariai egin diezu grazia, egiazko sinismenaren aitortzean, Irutasun

Santuaren misterioa ezagutzeko, ta bere podere ta majestadean zatitu eziñ ditek Batasuna adoratzeko. Guk eskatzen dizugu sinismen onen sendotasunagatik, gaitz guzitik aldendu gaitzatzula, Jesu-Kristo gure Jaunagatik.

Jesu-Kristo gure Jaun, Maria ta Jose'ren mende egon nai izan dezuna, ta zure birtute berdingabeaz, etseko bizi-tza santutu dezuna, iguzu grazia, zure gurasoen bitartekotasunean gure ustea jarririk, Famili Santuaren ejemploa jarraitzeko, berarekin batean betikotasun guzian goza dezagun. Zuk, sekula guzian sekuletan bizi zeran eta erreinatzen dezun orrek.


Ala izan dedilla.

Epistola.

(San Pedro Apostoloaren lenengo eskutitzeko 3-garren burutik artua).

Nere anai guziz maiteak: Iraun ezazute otoitzian guziok era batean: izan zaitezte errukitsuak, anaiakganako karityadearen maitatzalleak, umillak, gaitza gaitzagatik, eta madarikazioa ma-

darikazioagatik biurtu gabe, baizik bestera, guziak bedeinkatuaz, bendizioaren jabegai izatera deituak gauden ezkerro. Bizitzaz gozatu nai duanak bada, egun onak ikusiaz, lotu dezala bere mingaña, gauza t̄sarrik esan eztezan, baita bere ezpañak ere gezurren bat esan eztezaten. Utzi gauza t̄sarrak eta egiñ onak, billatu pakia ta jarraitu berari, bada Jaunak dauzka bere begiak, justueganian jarriak, eta belarriak aien otoi-tzak aditzeko idikiak, baña Jaunaren arpegia azaltzen da asarratua, gaizki egiten dutenen gaiñ. ¿Eta nor da kalterik egiñ degikizuenena, ona egiten saiatzen bazerate?; baña zuzentasunagatik atsekaberen batzuek eramaten badituzute ere, zorionekoak zuek. Gañerakoan etzaitezte ikaratu gaiztoen irañagatik, eta ez bedi beldurra zuen jabe egiñ, baizik guziz bestera, alabatu ezazute Jesu-Kristo gure Jauna zuen biotzetan.



Ebanjelioan.

Itz egiñ ezazu, Jauna, zure serbitzariak aditzen dizuta. ¿Norgana juango giñake, betiko bizitzako itzak daukatzun zugana ez izanik? Baña, jo Jauna! garbitu ezazu nere biotza, argitu nere adimentua, ta pizkortu nere borondatea, zure itz jainkozkoa izan dediñ azi bat, nere biotzean erne, ta birtute ta santutasunezko frutuak emango dituana, Zu onratu ta ni zeruratzekeo.

Ebanjelioa.

Umea amabi urtekoa zala, igo zuten Jerusalem'era, pesta artan oitura zuten bezela: egun aiek amaitu ta atzera biurtean. Jesus Aurra Jerusalem'en geldituzan, gurasoak oartu gabe; baizik uste izan zuten, talde artako lagun bategin zatorrela, ta egutaldi guzian, billa ibilliziran, senide ta ezagunen artean. Baña ez arkitzean, biurtu ziran atzera Jerusalem'era, bere billa. Iru egunen buruan arkitu zuten tenploan, jakintsuen erdian

jarririk, aiei entzunaz batzuetan, eta galdetuaz besteetan; eta berari entzuten ziotenak, ikaraturik gelditzen ziran onen jakinduri ta erantzuteaz. Ikuzi zutenian gurasoak, arriturik gelditu ziran, eta bere Amak esan zion: Seme; zergatik orrela egin diguzu. Begira, zure aita ta ni atsekabez beterik ibilli generala zure billa. Eta Berak erantzun zien: ¿Etzenekiten, nik nere Aitaren gauzetan jardun bear dedala? Baña berak etzuten ulertzen, zer esan nai zien. Bereala juan zan berakin Nazaret'era, ta beren mende egon zan. Eta bere Amak gordetzen zituan gauz auek guziak bere biotzean. Bitartean, Jesus aziaz zijoan jakindurian, urteetan eta grazian Jaungoikoaren eta gizonen aurrean.

Kredua.

Apaizak kredoa esaten duanian esan ezazu zuk ere gogo guziaz ta sinismen biziak.



Ofertorioan.

Egiguzu, Jauna, mesede artutzeaz, apai-
zaren eskuetatik eskeintzen dizkizugun
ogia ta ardoa, zure Seme guziz maite gu-
re Jaun eta Salbatzalle Jesu-Kristo'k nai
duan eran. Orain bereala ogi ta ardo au
bere egiazko Gorputz ta Odol biurtuko
dira, Jaungoikoari eskeintzeko diña be-
ra bakarrik izatera eltzeko. Artu izatzu
gure onerako ere gure eskutik, gure pe-
katu ta zabarkeri konta eziñalak kentze-
ko, ta izan bitez zuganaño igoko dan
usai gozoko lurrun bat bezela, ta zure
graziazko jargoitik jetși bedi ondasun
andiakiñ, gu ta mundu guzia zerura-
tzeko.

Ofrenda onekiñ batean, jartzen gera
gerok ere aldare onen gañean, zure Se-
mearekin batera. Garbitu ta santutu gai-
tzatzu, ta egiñ ezazu guzaz ta gure on-
dasunaz, zuk nai dezuna.

Trabajuak, atsekabeak, gurutzeak, su-
frikizunak, gorputzeko gaitzak eta erio-
tza bera ere ontzat artuko degu, Aita,
zure eskutik, zuk nai dezun bezela, on-

do ezagutzen degulako, zuk egiten dezun guzia dala gure onik andienerako ta gu betiko zeruratzeko, ta probatzen edo kastigatzen gaituzunian ere, gure onagatik egiten dezula. Iguzu pazientzia ta zure borondate santua ganako leialtasuna, ta baita ill arterañoako iraupenan, Zure serbitzu santuan ere.

Ordu gogoangarri onetan nai degu lurreko naikunde ta gogorazio guziak alde batera uztea. Oraindiñe nai degu igotzaz zerura ta ango Aingeru ta Santu talde zorioneko aren artian jartzea. Aiekin eta aiekgatik eskatzen dizugu, egiñ dezazula mesede, artzeaz Sakrifizio au, gure esker onaren ezagungarri bat bezela, beragatik aberasteko meritu ta birtutez ornitu dituzulako, ta esan eziñ alako gloria ta zoriontasuna beren primeza edo erentziatzat izentatu diezulako. Iguzu Jauna, grazia, Santu guziak eta batez ere, gaur beren oroipena onratzeko Elizak pesta egiten dienak, eta beren erlikiaz aldare au santutu ta beren izenean donekidatu edo konsagratu erazo dutenak, izan ditezen gure birtartekoak zure jargoiazen oñean, aien

onran egiten deguna, izan dediñ guk zerua irabazteko, ta gure saria bezela. Jesu-Kristo gure Jaunagatik.

Prefazioan.

Berriro Jauna, jasotzen ditugu Zuganontz gure biotzak, eta berriro ematen dizkitzugu eskerrak, gauza zuzena, arrazoezkoa, merezia ta osasungarria dalako, denbora ta leku guzian guk Zuri eskerrak ematea. Beti ta leku guzietan artzen ditugu Zugandik mesede ugariak; beti ta leku guzietan begiratzen diguzu, Zure graziaren aberastasunaz bete nai gaituzula, ta baita zure Seme bakarraren merituen tesoro neurrigabe guzia eman nai diguzula ere. Iguzu grazia, biziro ezagutu dezagun zeñ andia dan, Zuk gure onagatik daukazun ardura, leku guzietan arkitzen zerala, zaitzen gaituzula, zure almenean bizi ta mugitzen gerala, ta gaudela. Iguzu grazia, emen lurrean beti Zu alabatzeko ta bedeinkatzeko, ta egun baten zeruko doatsu guziakin beti kantatzen jarraitzeko, beñere gelditu ga-

be kantatzen dizuten alabantzazko kanta au; Santua, Santua, Santua, zera Zu, ejerzituén Jaun eta Jaungoikoa. Zeruak eta lurra zure gloriáz beterik daude. Bedeinkatua izan dedilla Jaunaren izenian datorren Ura. Osanna zeruen goienian.

Kanon

Edo iñillik egiten dan otoitzaren asieran.

Ogiaren eta ardoaren iduripian zure Seme maitea leku onetara jeisteko une zorionekoa, urreratuaz datorren bezela, nai det, apaizarekiñ elkaturik, nere biotzeko errespeto ta debozio andiarekiñ, nere biotzak Zuri nere eskari ta premi guziak agertzea.

Zure Seme Jesu-Kristo gure Jaunaren meritu azkengabeakgatik, eskatzen dizugu jo Aita guziz ona! begira degiozula zure Eliza Santari; anparatu, geitu, giatu ezazu; bedeinkatu ta anparatu ezazu, lurrean bere buru dan Aita Santu U. gure Apaizpiku B., eta azkenik bere seme guziak. Batez ere errukitu zaite guzaz ta emen daudenaz, gure ezagun

eta adiskideaz, guk zorren bat diegun eta berakgatik erregutzea nai degun aiezaz, ta geienbat U. eta B.-z. Aldendu gaitzatzu gaitz guzietatik. Iguzu gauz onak egiteko laguntza, ta guziaz aurretik, iguzu zure grazia santua, zure amorea ta ill arterañoko iraupena zure grazian.

Oroitu zaite ¡o Jauna! zure Semearen atsekabe ta eriotza samiñaz, Maria Birjiñaren, Apostolu Santuen, Martirien birtute ta merituz ta lurreko jorraute edo peregrinazioak iraun zien bitartian, zu serbitzen eta amatzen, beren bizitza eman zutenaz. Entzun itzatzu errukiz, zeruan dauden eta gure bitarteko diran anai auen eskariak. Bai, nere Jaungoikoa; beren bitartekotasunez, ta Jesu-Kristo'ren Odolagatik, aldenduak izan gaiteala betiko ondamenditik, eta egun baten izan dezagula glorian, zure esleituen artean arkitzeko zoriona. Santuak berterosi edo erredimitu ta zerura eramán zituan Salbatzalle bera illtzan era berean gugatik. Orain bertan berritzen du Berak gure begien aurrean, odol-iñurtze gabe kalbarioko Sakrifizio palaka-

garria. Begira zaiozu ¡o Aita! zure Se-
mearen arpegiari, begira bere zauri ta
odolari, ta iguzu, bear dan denboran,
grazia arkitzeko bidea.

¡O Jesus ona! etzaite izan nere Jueza,
baizik nere Salbatzallea.

(50 eguneko barkamenak).

Konsagrazioa da Mezako zatirik itzal eta
nagusiena. Oraintse Meza-emalleak, arturik
bere eskuetan ogi apur bat, esango du Jesu-
Kristo'ren izenean: **Auxe da nere Gorputza**; ta
beste gabe geratuko da ogia, Jesu-Kristo gure
Jaunaren Gorputz bizi biurtuta. Arritu zaitez
apaiz jaunaren eskubideaz; ziñestu utsik ezin
eman leikean Jaungoikoaren itza, ta gurtu Je-
su-Kristo, oso-osorik, ostitsu aren iduripean,
esanaz: **¡Nere Jauna ta nere Jaungoikoa!** (1).

(1) Aita Santu Pio X'ak Sto. Tomas sines gogorra-
ren itz oek Ostia Donsua jasotzian, berari begiratuaz
esanda, eman ditu zazpi urte ta zazpi berrogeiko bar-
kapenak: eta osua, astean bein.



**Konsagrazio ta Ostia Santua goratzen
dan bitartean.**

Jesus, Zuretzat nere bizitza.
Jesus, Zuretzat nere eriotza.
Jesus, Zurea izan nai det bizitzan eta
eriotzan.

Kaliza goratzean.

Jesus, izan zaite nere alde.
Jesus, errukitu zaite nizaz.
Jesus, indazu nere pekatuen barka-
zioa ta betiko bizitza.

Konsagrazioaren ondorean.

Zure Seme bakar, gure Jaunaren
aginduari obeituaz, oraiñ gogoratzen di-
tugu bere Pasio samiña, Piztutze ta ze-
ruratze gloriatsua, ta eskeintzen dizugu,
ogi ta ardoaren iduripian ezkutaturik
badare, zure Seme Jesu-Kristo, lege
berriko jauskiñi edo Biktima bezela.
Begira zaiozu Berari, ta jauskiñi guziz
santu onegatik begira zaiguzu Zure Se-

me, ala izatea merezi estegunoi ere, zure serbitzari on Abel, sinismenez betetako Patriarka Abraan, eta sazerdote andi Melkisedek zure iduri zanaren sakrifizioetan egiñ zenduan bezela.

Iguzu mesede, gure biotzak zeruko zure jargoia ren oñera eramateaz, Sakrifizio santu onekiñ batera, an artu gaitzatzun zure Seme maitearekiñ batera, zure biotz aitakoian, eta betetzeaz be deinkazio mota guziaz, Jesu-Kristo'gatik, bada onek egiñ gaitu bere anai ta Elizaren bizikai edo mienbro. Oroitu zaite, jo Jauna! Elizarekiñ pakean eta beraren alkartasunean ill diran kristauen animaz ere, batez ere U. ta B.-az. Zure Seme Jesu-Kristoren merituakgatik eman zaiezu laguntza beren atsekabeetan eta jua n ditezela zure glori az gozatzera.

Era berean, gu pekatariak bagera ere, zure serbitzariak geranok, zure Martiri ta Santu guzien bitartekotasunaz eraman gaitzatzu egun baten zure zoriontasunian parte izatera. Artu gaitzatzu, ez gure merituai begiraturik, baizik zure ontasun eta errukiari dagokion bezela. Utzi zaiguzu, Jesu-Kristo gure Jaunarekin

batean Zu onratzen eta gloriatzen bizi-
tza onetan eta betikotasun guzian.

Bai; bere agindu ta legeai jarraituaz,
ausartzen gera, seme baten konfiantza-
rekiñ esatera: Aita gurea, zeruetan zau-
dena, santifikatua izan bedi zure izena,
betor gugana zure erreinua, egin bedi
zure borondatea, zeruan bezela lurtean
ere.

Gure eguneroko ogia gaur eman zai-
guzu; ta barkatu gure zorrak, guk gure
zordunai barkatzen diztegun bezela; ta
ez utzi tentazioan erortzen; baizik gor-
de-gaitzatzu gaitzetik. Amen.

Agnus Dei'an.

Jaungoikoaren Bildots, munduko pe-
katuak kentzen dituzuna, errukitu zaite
guzaz.

Jaungoikoaren Bildots, munduko pe-
katuak kentzen dituzuna, entzun itzatzu
gure otoitzak.

Jaungoikoaren Bildots, munduko
pekatuak kentzen dituzuna, iguzu pa-
kea.

Komunio aurrean.

(Komulgatu eziñ bazindezke, iduki itzatzu, alik lasterren eta ondoen komulgatzeko deseo biziak, eta eskatu ezazu grazi au).

Nere Jaungoiko ta Salbatzallea, agindu diguzu, etorri gaitezela zure Gorputz ta Odolaren Sakramentu guziz Santu au artzera, an egiñ gabez zeruko gloria galdu eztezagun; ala esan zeniguzun: “Ezpadezute jaten Gizonaren Semearen aragia, ta edaten bere Odola, eztezute bizitzarik zuekgan idukiko,,. Baña baita San Paulo'ren bitartez ere erakutsi diguzu: “Bear ez bezela ogi au jaten, edo Jaunaren kaliza edaten duana, Jaunaren Gorputz ta Odolaren errudun egiten dala ta bere ondamendia jaten eta edaten duala,,. Eztakizula nai, nere Salbatzalle maitea, ni zure karidadetik alden-tzea, zure amorezko Sakramentu guziz Santuan sakrilejio bat egitera ausartze-raño. Indazu indar andiko grazia bat, zure Gorputz ta Odolaren zeruko apari orretan arkitu nadiñ, garbiturik beti egiazko penitentzia ta damuaz, ta zure

sazerdotearen asoluzioaren bitartez paketurik eldu nadiñ Sakramentu onen bitartez, grazia ta santutasunezko frutu ugariak iristera.

Apaiza komulgatzean.

Jesu-Kristo nere Jauna; ez naiz ni diña ta eztet merezi ere, Zu nere etse pobre onetan sartzea, baña esan ezazu itz bat bakarra, ta nere anima geldituko da sendatua, salbatua ta barkatua.

Nola oraiñ ez naizen arkitzen, Zu egiaz Sakramentu guziz Santu onetan, nere animaren janaritzat artzeko eran, nai nuke artu beñepeñ parte nere go-goaz Sakramentu miragarri onetan eta bere jainkozko frutuetan.

Ona emen nun naukazun, zure aurrean umillki auzpezturik; sinisten det sinismen sendo iraunkorrenarekiñ, aldareko Sakramentu Santuan, ogiaren iduripian, zaudela egi-egiaz, zure aragi ta odol, gorputz ta animarekiñ, eta or zaudela, bizirik gloriáz beterik eta illezkor. Sinisten det zure itz, engañatu ezin lezakeanagatik, eta Zuk, Egi betikoa iza-

nik, esan eta agindu dezulako, sinistu dezadala.

Eta, ¿nor naiz ni Zugana urreratzen atrebitzeko? Ni, beartsua, kriatura argala, pekatari errukarria, Zu Jaungoiko betikoa, ain sarritan atsekabetu zaitudana.

Aitu dezu, nolabaitere esateko, zure almen guzia, zure jakinduria ta zure amorioa, ni mesedez betetzeko, baña nik eztet iduki Zuganako esker-gabekeriak besterik, baña oraiñ damu ditut biotz guzitik nere sentimentu lotsagarri guziak, eta nere pekatu konta-eziñalak, oiekiñ atsekabetu zaitudalako, Zu, Aita nerea, ontasunez betea, Zu, Ontasun andi, neurrigabea ta osoa zerana. Nik amatzen zaitut nere Jaungoikoa; beñepeiñ oraindiñe amatu nai zaitut gauza guzien gañean, eta artzen det asmo egiazkoa, zuganako amoriotik ez aldenitzeko, ta Zu ez atsekabetzeko. ¡Ai! ¡zuganako amorio au oraiñ bertan sillatu albanezake, Zu mai santu onetan artuaz! Suspiruz nago noiz elduko ote dan, Sakramentu Santuan zu artzeko mesedea egingo didazun instante zorionekoa. Ba-

ña oraiñ bertatik, utzi zadazu beñepeñ,
Zugana gogoaz urreratzen, nigatik artu
zenduzen zauriak laztantzen, eta nere
anima zure biotzean ezkutatzeko, onela ez
bakarrik bizi nadin zure jainkozko me-
rituakgatik, baizik gañera zuretzat baka-
rrik bizi nadiñ zure seme ta zure anai
bezela; bai, zu Buru zaituan gorputz,
Elizaren bizikai edo miembro bezela.
Zure ontasun andiak eta alizate, zure
dei maitagarri ta zure promes seguruak-
gatik uste det, eztituzula bete gabe utzi-
ko nere deseoa, baizik artuko dituzula
ontzat, eta aberastuko nazula zure gra-
zia ta amorioarekiñ.

Apaiza komulgatu ondorengo

Otoitza.

Eskatzen dizugu gure Jaun eta Jaun-
goikoa, egiñ ditzatzula zure Biotz jain-
kozko orren antzeko, zure aragi ta odo-
lezko apari orretan parte artzera deitu
dituzun guziak; egiñ gaitzatzu biotz otsan
eta umillekoak, eta iguzu lurreko utske-
rien desprezio andi bat.

Iguzu jo Jauna! Sakramentu guziz

Santu onen birtutia gure anima ta gorputzean sartzeko grazia, gaurtik aurrera zure graziaren indarra bakarrik izan dituzen gure egiñen gidari, ta ez gure biotzaren mugida, borondatezkoak ez tiranak; eta mesede jainkozko onen bidez iraun dezagula betiko esker ona agertzeko sentiera auetan.

Ite Missa est eta Bendizioan.

¡O Irutasun guziz Santua! artu ezazu nere onez Sakrifizio au. Ez begiratu nere ezerezari, baizik Kristo'ren merituai; ta bere bitartez iguzu zure adiskidetasuna ta grazi ugaria. Aita Jaungoiko Guzialdun, Aita, Seme ta Espiritu Santuak, bedeinka gaitzala, gu inguratzen gaituan, eta gurea dan guziarekin batean.

Jesus'en Biotz gozoa, izan zaite nere amorio guzia. (300 eguneko barkamenak).



Azkeneko ebanjelioan eta Meza amaitzeko.

Aita Betikoa; eskerrak ematen dizkitzut egin didazulako grazia Sakrifizio andi onetara etortzeko; zure Majestade jainkozkoari dagokion adorazio bakarra azaltzeko bidea eman didazulako; egiñ dizkidatzun mesede konta eziñ-alagatik zuri bear bezela eskerrak emateko, ta nere pekātu askoakgatik eta mundu guzianakgatik satisfazio guziz ugaria emateko. Baña zure graziaz ta niganako ondonaiagatik bakarrik etorri naiz Meza-tara. Eskerrak ematen dizkizut nere biotz guzitik. Esker onez artzen ditut, nere animaren onean, Sakrifizio Santu onen bidez artu, ta artuko ditudan doai ta grazia guziakgatik ere, nola ta nereai ta nere otoitzetan izendatu dizkitzudan guziai egiñ eta egingo diztetzun mese-deagatik ere. Barkazaizkidatzu Misterio Santu auetan egon naizen bitartean izan ditudan utsegiteak. Eztezagula galdu beñere zugarako amorioa, baizik guziz bestera, geitu dedilla gelditure gabe gugaran; eta gure atsekabe ta nekeak elkartu

ditzagula zure Seme bakarrarenarekiñ
eta jarri gaiteala bere borondate santua-
ren mendean.

Aita Betikoa, eskeintzen dizut Jesu-
Kristo gure Jaunaren Odol guziz garbia,
nere pekatuen ordaiñsaritzat eta Eliza
Santuaren premiakgatik.

(100 eguneko barkamenak).

GURKERAK (ERREBERENTZIAK)

Gure Jaunik ez dagon altaran, **burua** beste-
rik ez makurtu.

Gure Jauna **dagon** altaran, **eskuiko belauna**
bakarrik makurtu, baña lurra joarte. Berdin
Mezatan, gure Jauna altaragañean dagon bi-
tarteanean.

Gure Jauna agirian dagonean, **belaun biak**,
eta gañera **burua** makurtu.



MEZA SANTUA ENTZUTEKO BIGARREN MODUA

Sakrifizio Santuko misteriorik andienak
gogoratuaz

Intentzio zuzen eta garbi bat jartzeko
otoitz laburra.

Nere Jaungoikoa, Meza au entzun
nai det:

- 1.º Zu adoratu, alabatu ta maitatze-
ko emen dauden aingeruekin batean.
- 2.º Egiñ dizkidatzun mesede gu-
ziakgatik eskerrak emateko.
- 3.º Gure pekatu guzien ordainsaria
Zuri emateko.
- 4.º Nere animarentzat eta gorpu-
tzarentzat bear ditudan grazia guziak
Zuri eskatzeko, ta maite ditudan eta
ondo nai diedan guziakgatik erregu-
tzeko.

**Beste otoitz luzeago bat, denbora badago
esan ditekena.**

Jaungoiko ta Jaun Guzialdun eta zeruko Aita betikoa. Nik, Zure kriatura izatea merezi eztedan onek, umilltasunik andienarekin eta ameriorik irazekienarekin eskeintzen dizut zure Seme Jaungoikoa, apaizaren eskuz eskeintzera dijoakizun Sakrifizioa. Eskeintzen dizut, Jesu-Kristo'k azkeneko Aparian, eta geroago Gurutzeko aldarean ainbeste oñaze ta odolezko malko iñuriaz eskeiñi zizun sakrifizioarekin batean.

Eskeintzen dizut zure gloriarik andienerako, zure santutasun neurrigabearen alabantza bat bezela, ta zeru ta lurra-
ren gañean daukazun aginpedia onratzeko. Eskeintzen dizut, Zuri ezagutzen emateko nere obedientzia, ta katoliko bezela daukadan sinismena agerian airtortzeko, ta baita Jesu-Kristo'ren pasio samiña ta eriotza eskeintzeko ere.

Eskeintzen dizut, eskerrak emateko aldareko Sakramentu guziz Santua egiñ zendulako, ta neri ta gizon guziaz egin-

dako mesedeakgatik. Eskeintzen dizut, nere ta bizien eta iildako guzien pekatuen ordaiñsaritzat. Eskeintzen dizut, Eliza Santu Katolikoa goratua izan dedin, pakeak iraun dezan, eta ereje, jentill eta pekatari guziak Jaungoikoagana biurtu ditezen. Eskeintzen dizut Elizako agintari guziakgatik, katoliko guziakgatik, nere adiskide, senide ta ongilleakgatik, nere otoitzetara gomendatzen diranakgatik, baita erregutzeko obligazioren bat diedanakgatik, nere etsaiakgatik eta guda egiten didatenakgatik ere. Azkenik, eskeintzen dizut, pekatari biotz gogordunakgatik, eta Purgatorioan sufritzen dauden anima gaiñoakgatik ere bai.

¡O ontasunez betetako Jaungoikoa! Meza onen eta beste gaur ematen diranen birtutez ta zure Odol guziz Santuaren balio neurrigabekoagatik, indazu:

1.º Meza onetara etortzean, eskatu nai izan dedan grazia.

2.º Poza, laguntza, bedeinkazioa ta grazia, bizitza onetan eta bestean.

3.º Nere animaren osasunarako ondoen datorkidana.

4.º Bizitza guziz on bat eta eriotza santu bat. Azkenik, eman zaitzakigu Zuzedorri, zeruko primeza edo erentzia bezela, gure betiko atsegiñ eta zoriontasunerako.

Aldarearen oñean egiteko

Otoitza.

¡O Jaungoiko justu ta errukitsua! ona emen nun naukazun beartsu ta errukarri; nere pekatu neurrigabeai begiraturik, ikaratzen naiz Zure aurrean agertu, ta nere ao gaiztakeriz zikindua zabal-tzean, zure alabantzak kantatzeko, daki-dalako, pekataria ta bere pekatuak gorrotagarriak dirala zure begien aurrean. Orregatik, ¡o Jaungoiko guzia dakizun eta guzia dezazukena! Zure aurrean, Zorioneko Maria Birjinaren, nere aingeru zaitzallearen, eta baita zerutar guzien aurrean ere aitortzen det, maiz pekatu egiñ dedala ta pekatu andiak izan dirala.

Ezagutzen ditudan eta eztitudan pekatu auek guziak ematen didate neurrigabeko samintasun andi bat, damu det

auék egiñ izana, ez ainbeste bizitza onetako ta besterako kastiguak irabazi izan ditudalako, nola ta atsekabetu zaitudalako Zu, nere Jaungoikoa, nere ongillerik onen eta andiena, gauza guzien gañean maite zaitudana. Artzen det asmo erabakia, nere pekatuakin Zu beñere ez atsekabetzeko ta beti-beti maitatzeko. Au aitortu ondorean konfiantzaz beterik urreratzen naiz zure aldarera, ta apaizarekin batean egiten dizkitzut eskaera auk:

V. Biurtu itzatzu, Jauna, guganontz zure begiak, eta iguzu bizitza berri bat.

R. Eta zure erria Zugan poztuko da.

V. Jauna, iguzu zure errukiaren fruituak gugan sentitzeko grazia.

R. Eta bialdu zaiguzu Salbatzallea.

V. Egin zaiguzu mesede gure erregua entzuteaz.

R. Eta nere deadarra eldu dedilla Zuganaño, bada Zuk eztezu despreziatzen biotz damutu bat, eta ezta umillen otoitza ere.

Glorian.

O Irutasun guziz Santu Jaungoiko bakar bat zerana, zure Majestade andiaganako errespeto guziarekin alabatzen eta gloriatzen det zure Jaungoikotasun betikoa. Maitatzen zaitut zeruan eta lurrean arkitzen dan guzia baño geiago. Poztutzen naiz, Zu, guziaz gañetikako Jaungoiko, neurrigabe andi, altsu, jakintsu, santu, on, errukitsu ta zuzena izateaz. Nere biotz guzitik nai nuke, gizon guziak Zu ezagutu, maitatu ta alabatzea betikotasun guzian. Prest nago edozeiñ gauza egiñ eta sufritzeko baita nere odola išurtzeko ere, Zu ez atsekabetzeagatik, o Jaungoiko andia, baizik alabatua ta gloriatua izan zaitean merezi dezun bezela.

Eskerrak ematen dizkizut, jo Jaungoiko on eta emalle ugaria! nik aldezedan ainbatean, oraiñ artean, nere Aita zeran orren eskutik, artu ditudan mesede guziakgatik. Ematen dizkitzut nere gorputza ta nere anima, ta eskeintzen dizut nere oraiñ arteko bizitzan, egiñ

dedan eta aurrerakoan egingo dedan on guzia, ta baita zure amorez sufritu ta sufrituko dedan guzia ere. Baña nola eskeiñi au dan t̄sikiégia, eskeintzen dizkitzut nere esker onaren ezagungarritzat, lurreko justu guziak, zeruko santu danak eta batez ere Maria Birjiña guziz Santak, zure amorez egiñ eta sufritu duten guzia, ta beren merituak. Azkenik, eskeintzen dizut, alabantza ta esker onezko sakrifizio, dudik gabe ontzat artuko dezun, eta Zure diñako dan bat bezela, Jesu-Kristok gugatik egiñ eta sufritu zuan guzia.

Denbora berean eskatzen dizut umilliki, artu dezazula alde onez tesoro neurrigabe au Zure Semearen eskutik, Jesu-Kristo, gure Bitartekoaren bidez, zure jargoiaren urrean nik Zuri esker-rak eman, zu alabatu ta gloriatzeko bear dan bezela. Ala izan dedilla.

Ebanjelioan.

Nere Jaungoiko ta Jauna, zure juzgu ta legeetan neurrigabe jakintsua ta utsik eziñ dezazukena, ta zure itzetan egiaz-

koa zerana: Zu, jakinduri betikoa ta egi bera zerana. Ontzat artu ta billaukindu gabe, sinisten ditut Eliza Santa katolikoak erakusten dizkidan gauza guziak. Aitortzen eta gogarpetzen edo protestatzen det mundu guziaren eta zerutarren aurrean, Elizak sinisteko agintzen didan guzia, egia dala.

Egi auek guziak ulertzeko adiña ezpanaiz ere, ontzat artzen ditut, osoro aintzakotzat nagoala, Zuk nere Jaungoiko utsik egiñ eziñ eta gezurrik erakutsire eziñ dezazuken orrek, ala agindu dezulako, ta jo nere Jaungoikoa! nere sinismen au beñere ez uzteko, ta Eliza Santa katolika utzi baño lenago bizitza bera galtzeko artu dedan asmo sendo onen fiantzatzat, zure Majestade Jainkozkoaren aurrean, eta Ebanjelio santuaren gainean, agintzen det, zure Elizaren sinismenean ill arteraño irautea. Egi guzia Zurekin dago, esan dezun bezela: "Asieran zan Berboa (1), ta Berboa zegoan Jaungoikoan eta Berboa zan Jaungoikoa,, (Joan, I, 1).

(1) Erderazko itz «Berbo» au eztet ipintzen euskeraz, utsen bat ez egiteagatik. Itzulariak.

Erregutzen dizut, jo nere Jaungoikoa! egiñ zadazula mesede, sinismen au nigan gorde, sendotu ta geitzeaz, ta kontrako tentazio guziak nigandik urrutiratzaz; nere askeneko komunioa ta Jesus gurutziltzatuari ematen diodan azkeneko laztana, nik aitortzen dedan egiazko sinismen onen berriztaziotzat Zuk artzeaz, ta azkenik, zure agindu ta sinismen onegatik betiko gloria emateaz.

Ofertorioan.

O Aita Santu, Jaungoiko Guzialdun eta betikoa. Artu ezazu, nere Jaungoiko bizi ta egiazkoa zeran orri, apaizaren eskuz eskeintzen zaitzun Ostia santu au. Eskeintzen dizut nere pekatu ta utsegite askoren zorraren ordaiñsaritzat, eta kristau bizi ta ill guzien onerako.

Zeruko Aita, eskatzen dizut argitu ta santutu ditzatzula nere adimentua ta oroimena, bada auek ere eskeintzen dizkitzut, ezagutu ta pentsature eztezadan beste gauzarik, zure gogokoak diranak bakarrik baizik. Ematen dizut nere borondatea, ta zurearekiñ elkartzen det

aiñ osoro, nun eztedan billatuko ezer ere zuzaz kanpora, ezta Zu baño geiago maite dedanik ere; eztedala naiko Zuk nai dezuna baño, Zuk nai dezun eran eta Zuk nai dezunean baizik.

Ematen dizut nere gorputza, nere anima, naizan guzia ta daukadan dana. Bai, nere Jaungoikoa; ni izan nadilla guziro zurea; ta Zu bizi zaiteala beti nigan. Zurea naiz bizitzan eta eriotzan. ¡Ai! Etzadazu utzi betiko zoriontasuna eman gabe.

Prefazioan.

Jaungoiko betikoa, Guzialduna, zerruko Aita; begira zaiezu zure neurrigabeko errukiaren begiakin, gure ondamenti, gure ezerez ta gure penai. Izan ezazu kristau guziakganako errukia, bada auekgatik, zure Seme bakar gure Salbatzalle maite Jesu-Kristok nai izan zuan gelditu bere borondatez pekatarien eskuartean, eta iñuri zuan bere Odol preziotsua Gurutze santuaren osartegi edo patibuloan.

Ontasun bera zeran Aita, Jesu-Kristo

gure Jaunagatik aldendu itzatzu gugandik; merezi izan ditugun penak, oraingo ta geroko arriskuak, bakerik-ez kaltegarriak, guda, garestitasuna, gorputzeko ta animako gaitzak, atsekabezko ta naspillazko egunak. Argitu ta sendotu itzatzu elizako agintariak, baita errietakoak ere, auek egiñ dezaten al guzia, zure gloria-rako, gu zeruratzeko ta kristau guzien onerako.

Iguzu jo pakezko Jaungoikoa! egiazko sinismenean elkaturik, banakatu gabe ta elkarrengandik aldendu gabe egoteko grazia.

Biurtu itzatzu gure biotzak egiazko penitentziara, ta gure bizitza guzia igaro dezagula birtutezko lanetan. Irazeki ezazu gugan zугanako amorioaren sua. Iguzu justiziaren gosea ta egarria, zure seme leialak izatera eldu ta bizitzan eta eriotzan elkaturik egon gaitean.

Erregutzen dizugu gure adiskide ta etsaiakgatik ere, ala osasunaz daudenakgatik nola gaiñoakgatik, kristau atsekabetu guziakgatik, sufritzen duten guziakgatik, biziak eta illakgatik.

Zuretzat izan ditezela beti jo Jauna!

gure lan, egiñkizun eta juan-etorri guziak, gure bizitza ta gure eriotza.

Iguzu emen lurrean zure graziaren atsegiñtasunak gozatzeko mesedea, goza dezagun gero egunen baten glorian, zure esleituakin batian, poz ta zorion azken gabe bat, Zu alabatu, onratu ta be-deinkatuaz. Iguzu au guzia ¡o Aita zerrukoa! zure Seme Jesu-Kristo, gure Jaun eta Salbatzalle, Zurekin eta Espiritu Santuarekin, Jaungoiko bera izanik, sekula guzien sekuletan bizi danagatik. Ala izan dedilla.

Konsagrazioan.

¡O Aita errukiz ta amorez beteal; ni ez naiz pekatari gaiño bat baño; eztet merezi Zuk nere erreguak aditzeare, baña eskatzen dizut, begira degiozula zure Seme Jesus, gure pekatuak bere gaiñ artu dituan Ari, bada au Zure ta nere artean bitarteko dala, emen dago aldare onen gañian, bere Jaungoikotasun eta gizatasunarekin, bere gorputz ta animarekiñ, bere aragi ta odolarekiñ.

Begira zaiozu ¡o Aita guziz gozoa!

aragi ta odol onen balio neurrigabeari, ta tesoro esan eziñ alako onegatik barka-zaiguzu gure pekatuen errua, ta baita oien bidez irabazi degun kastigua ere, ta eman zaizkigutzu ugari zure jainkozko doaiak eta zure graziazko tesoroak.

Begira zaiezu era berean jo Aita guziz ona! purgatorioan ainbeste sufritzen duten animai ere.

(Emen eskatu degikiozute Jaungoikoari zuek geien zor diezuten, eta geien nai diezuten animakgatik).

Begira zaiezu errukiz, Zuk, zure Semeak eta bere Ama guziz Santak maitteen dituzuten animai, ta beren pekatuen zorra kitatzeko artu ezazu zure Seme, Gurutzean agoniarik mingarrienarekiñ illtzanaren, satisfazio oso ugaria, bota zaiezu bere Odolaren tanta bakar bat, eta sartu itzatzu betiko zoriontasunean. Amen.

Mariaren Biotz guziz gozoa, izan zaite nere salbazioa. (300 eguneko barkamenak).

Aita-gurean.

¡O erruki ta poz guzizko Aita! Onore, alabantza, amore ta obedientzi guzia merezi dezun Aita. Errukitu ta barkatzen dakizuna. Zeruetan eta lurrean zauden Aita; zeruetan, gloria ta edertasun guzian; lurrean, ontasunez ta justiziaz beterik. Zuganontz jazotzen ditugu, gure begiak, gure eskuak eta gure biotzak. Errukitu zaite negarrezko leku onetan negarrez dauden zure seme auezaz. Aita, zure izena santutu dezagula nik eta gizon guziak, ala justuak nola pekatariak, naiz fededunak, naiz fedegabeak. Zure izena santutu dezagula gure pentsamentu, itz ta obra guzietan, sufritzen eta egiten degun guzia izan dediñ Zure ta zure Seme guziz Santuaren izenian.

Aita; betor gugana zure erreinua. Zu zera gure jabe nagusia, gure errege ta gure biotzen Jauna. Aldendu itzatzu gugandik aragiaren eta griña tšar guzien deseoak. Zaude ta erreina ezazu gugan, zuk nai dezun bezela; eraman gaitzatzu zure eginteen bideetatik, zure erreinu betikora.

Aita, egin bedi zure borondatea, naiz izan guk nai deguna, naiz ezteguna, naiz dakarkigula zoriona, naiz zorigaitza, naiz bizitza ta naiz eriotza. Aita, egiñ dedilla zure borondatea, aiñ osoro gugan, nola zeruan, eta borondate orren mendera egon gaiteala, zure Seme Jaungoikoa egon zan bezela, Gurutzeko eriotzaraño obeituaz.

Aita, eman zaiguzu, gure eguneroko ogia. Zure eskutik, Aita zeran bezela, gure gorputz ta animarako bear degun guzia, iristeko ustean gaude iñuri itzatzu gure gaiñ zure doaiak, bedeinkatu gure lana, ta iguzu, gure eginkizun lurrekoak dirala bide zerukoetan ez zabartzeko grazia.

Aita, barka zaizkigutzu gure pekatu andi ta izugarriak, zугanako amorioz gorrotatzen ditugunak. Barkazaizkigutzu gure eguneroko utsegiteak, egiñ ondoan Zugana gatozen aldi bakoitzean. Aita, barkatu zaiguzu gure pekatuen zorra, batez ere bizitza onetatik irtetzean; barka zaiguzu guk gure gaizkilleai barkatzen diegun bezela.

Aita, ez gaitzatzu utzi tentazioan eror-

tzen. Ez gaitzala azpiratu tentazio batek ere, baizik guziz bestera, lagun zaiguzu; zure grazia indartsuarekin tentazio guziaz guda egiten. Gure Aingeru gordezalle santuak lagundu ta anpara gaitzala.

Aita, aldendu gaitzatzu gaitz guzitik. Animako, gorputzeko, oraingo, gerokota betikotik. Zure errukitasun azkengabekora gatoz. Eskatzen dizugu eman degizkigutzula gauz on guziak eta libra gaitzatzula gaitz guzietatik. Jesu-Kristo gure Jaunagatik. Ala izan dedilla.

Jesus'en Biotz guziz Santua, errukitu zaite guzaz. (100 eguneko barkamenak).

Komunioan.

Artu ezazute gogozko komunioa, emen ondorean esaten dan bezela:

Adoratzen zaitut, Jesus nere Jauna, aldare ortan bertan, egiazko Jaungoiko bezela, ogiaren eta ardoaren iduripean ezkutaturik zaudena. Errespatorik andienaz auspezten naiz Zure aurrean, eta damutzen naiz egiaz, atsekabetu zaitudalako Zu, nere Jaungoikoa, nere on neurrigabea. Uzten det pekatu dan gu-

zia. Nere borondatea da, uztea nere griña t̄sar guziak, jartzeko nere biotzean, mant̄sa guzitik bera garbitu ondoan, zure diñako bizi-leku bat.

Baña nola oraiñ ez naizen zure Odo-la ta aragia Sakramentu Santuan artzeko dina, eskatzen dizut, zuzendu dezazula Ostiaren barrutik nigana zure begiratze errukitsu bat, eta etorri zaiteala gogoz nere animara. ¡O nere Jesus, maitagarri ta atsegiña!, atoz nigana zure amorio ta zure ontasunaz, zure grazia ta doai zerukoak, eta apaiñdu ezazu onela nere anima.

¡O Jesus, nere biotzaren amorioa! Zure karidadearen suak irentsi dezala, nigan arkitzen dan mundukoi ta lurrekoi guzia. ¡O Jesus, nere animaren amorio gozoa! sendotu nazazu kristautasunezko bizitza batez, ta iraun dezadala zure grazian eriotzara arteraño.

¡O Jesus, nere animaren jabea! Sartu zaite nere biotzean, bada Zuretzat idirik dago. Zuk ondo ezagutzen dituzu nere gurutzeak, nere atsekabe ta sufrikizunak, nere agindu, naiera ta premiak. Zure eskuan jartzen ditut nere ta nik

maite ditudanen, ondasun, ala gorputze-koak nola animakoak. Azkenik ematen dizut naizan eta daukadan guzia.

Egiñ ezazu nizaz Zuk nai dezuna; ez-tet beste gauzarik nai, baizik zure bo-rondatea egitea, nigan, nereakgan, gauza guzietan, eta denbora ta leku guzian.

Nere Jesus; etzaiguzu utzi pekatu larririk beñere egiten, ez neri ta ez nik maite dedan iñorire. Iguzu grazia, kris-tauari dagokion birtutezko bizitza egite-ko; egiten eta sufritzen degun guzia izan dedilla zure amorioz, egiña ta sufritua, eztezagula Zuzaz ostian ezer ere billatu, ta ez gaitezela bizi, Zuretzat baño, betiko zoriontasuna iristera eldu arte.

Ala izan dedilla.

Bendizioan.

¡Aita Jaungoikoak bedeinka gaitzala!
¡Seme Jaungoikoak anpara gaitzala! ¡Es-
piritu Santu Jaungoikoak argitu gaitzala!
Jesu-Kristoren pasio samiñak indartu
gaitzala on guzian, eta pekatu ta gaitz
guzietatik aldendu gaitzala Santu guzien
bitartekotasunagatik. Ala izan dedilla.



MEZA SANTUA ENTZUTEKO IRUGARREN MODUA

Jesu-Kristo'ren Pasio samiñaren onran

Nai det Meza Santu au gogo onez entzun, eta apaizarekiñ batean Jaungoikoari eskeintzea:

- 1.º Nere Salbatzallearen pasioaren oroipenean, eta berari eskerrak emateko.
- 2.º Nere konta eziñai ainbat pekatoren ordainsaritzat.
- 3.º Jesus gurutziltzatuaganako amorio andi bat eskatzeko.
- 4.º Pazientzia ta mendaroa edo re-

signazioa gurutze ta sufrikizunetan eskatzeko.

5.º Nere Jaungoiko Salbatzallearen besoetan eta biotzean eriotza santu bat eskatzeko.

Aldarearen oñean

Otoitza.

Jarri ezazu zure gogoa otoitzian, Jesemani'ko baratzen, Jesus'en tristura ta odolezko izerdian.

1.º Nere Jesus, zure biotz atsekabetuaren estutasun eta oñazeakgatik, eriotzara arte triste zaudena, indazu arrisku guzietan anparatu ta pekatu larriko tentazioetatik aldenduko nauan, Jaungoikoaren beldur osasungarri bat. Lagun zadazu nere azkeneko orduan, beldur eta ikarak nere anima gaiñoa estutzen dutenian.

2.º Nere pekatuakgatik ainbeste umillatze artu dezun nere Jesus. Damu det biotz guzitik Zu atsekabetua, izanik Zu nere Jaungoikoa, On guzia, ta nere amorio guzia merezi dezuna. Eskeiñi zaiozu, nere Jesus, zure Aita zerukoari, nere pekatuen ordaiñsaritzat, Jesema-

ni'ko baratzen egiñ zenduan otoitza, ta indazu beñere berriz pekaturik ez egi-teko grazia.

3.º Odolez guziro estalirik zauden nere Jesus, utzi zadazu, zure gorputz guziz garbitik ateratzen dan odolotan, nere pekatu ta utsegite guziak jartzen.

Jesus, pelikano maitea, garbi nazazu zure odolotan; apaindu nazazu odol orrezaz, bera izan dediñ nere eztai-jantzia, egun batean bera jantzita zure aurrean agertu nadiñ, Zuk ezagutu nazazun zure serbitzarietako bat bezela, ta artu nazazun zure autatuen artian. Ala izan dedilla.

Gloria Otoitz ta Epistolari.

Begira nola Jesus: 1.º daramaten gaizkille bat bezela, erri guzian barruna; 2.º nola golpeka, azotez ta matrellakoz tratu tšarra ematen dioten; 3.º nola gizonen burlagarri egiñik dagoan sazerdote nagusiaren aurrian.

1.º Nere Jesus, zure borondatez, preso artzen, lotu, ta Zedron'go errekarren beste aldera eramaten eta Jerusalem'go kaleetan arrastaka erabilten utzi

zerana: debozio guziaz laztandu ta begiratzen diet lokarri ta kate oiei, ta nai nuke, San Paulok bezela, Jesu-Kristoren prisionero izatea. Beñepeñ lotu zaizkidatzu zure amorioaren kateakiñ, eskuak eta oñak, eta baita nere gorputzeko ta animako almen guziak ere. Lotu nazakizula Zuri, ezerk ere Zugandik alden du ezingo nauan bezela.

2.º ¡O Jesus, pazientziaz betea! Nigatik artu zenituan golpe, azote ta matrallekoakgatik aldendu nazazu oraingo ta betiko pena guzietatik, eta nere pekatuetatik, baña alare zure borondatea bada, nik emen sufritzea, indartu nazazu zure graziaz, esan al izateraño: “bizitza onetan erre ta zauritu nazazu, baña indazu betikotasunean Zuzaz gozatzeko mesedea,,.

3.º ¡O Jesus, pazientziaz betea! Zure arpegi jainkozkoa it̃susu zuten t̃sistu zikiñ eta matrallekoakgatik, eta Kai-fas'en et̃sean, gaisto aiengandik ĩsillik eta pazientzia miragarriaz eramán zinduzan burla, blasfemia ta tratu t̃sarrakgatik, barka zaizkidatzu nere pekatu ageriko ta ezkutuko guziak; kendu ezazu nigan-

dik iraña, gorrotoa ta bengantza. Azkenik; indazu bear dedan indarra iñillik eta pazientziaz eramateko egiten zaizkidan burla ta lotsagabekeri guziak.

Ebanjelio ta Kredoan.

Begira nola Jesus izandu zan: 1.º, Gezurrez salatua; 2.º, desonratua; 3.º, eriotzara kondenatua.

1.º ¡O Jesus!, aiñ errurik gabe, aiñ garbi ta aiñ urruti pekatutik beti izan zerana; alare izan zera gezurrez salatua. Nere pekatuak neronen kontra jaikitzen dira, ta zure zuzentasun jainkozkoaren aurrean salatzen naute. ¡Ai zeñ doakabe ta errukarria naizen! Galdua naiz zure niganako errukia nere alde ezpador. Orregatik auspezten naiz damuturik zure oñetan, eta esaten dizut; nere Jaungoikoa; errukitu zaite nizaz. Bai nere Jesus, errukitu zaite nizaz, zure errukitasunari dagokion ainbatean.

2.º ¡O nere Jesus, onore ta adorazio guzia merezi dezuna! Zu izan zera despreziatua ta madarikatua, zure etsaien tribunalean, eta alare zure zeruko Aita-

ren onra billatu ta anparatzen zenduan. Indazu bear dedan indarra, ez uzteko ta ez sufritzeko nere aurrean iñolako inguruetan ere, madarikaziorik iñork esaten, baizik saia nadiñ al dezakedan aintbatean, Jaungoikoari gloria ematen erabide ta denbora guzietan.

3.º ¡O Jesus errurik t̄sikienik ere gabea! Zu izan ziñan eriotzara kondenatua aiñ arrazoirik gabe, ta nik irabazidet nere pekatu ugariakgatik betiko eriotza. ¡O Jesus, guziz errukitsua! ez nazazu juzgatu nere gaiztakeriai dagokien bezela. Jartzen ditut nere alde Maria, zure Ama guziz Santa, nereare dana, nere Aingeru gordetzallea, ta jaiera diedan Santuak, nere bitarteko izan, eta nere ondamendiko epaitik aldendu nazaten.

Ofertorian.

Gogora ezazu, nola Jesus izandu zan: 1.º, azotatua; 2.º, arantzaz koroatua; 3.º, eriotzara kondenatua.

1.º ¡O Jesus guziz kasto ta garbia!
¡Ai zeñ gogor azotatua izan zeran! Bu-

rutik oñetaraño etzan gelditu zure gorputz bigun orretan, zauririk gabeko une bakar bat ere. ¡Ai! ¡Ni naiz azote oiek nere gaiztakeriakgatik merezi izan ditudana, ta Zu, Jesus errurik t̄sikienik ere eztezuna, Zu zera nere ordeztu aiñ gogor zauritua izan zerana! ¡O zeruko Aita! begira zaiezu zure Seme guziz maite, nere Salbatzalle atsegiñaren zauriai ta artu ezazu bere Odol balio guziz andikoa, nere pekatuen ordañaz. O nere Jesus, zauri ta odolez estalia. Eman zadazu biotz kasto ta espiritu garbi bat. Etzadazu utzi aurrerakoan, ez egiten eta ez sufritzen, nere bizitzari dagokionez, kastidadearen kontrako gauzarik t̄sikienik.

2.º ¡O Jesus, nere biotzeko erregea! Zuri dagokizu gloriako koroa, ta neri, nere arrokeri ta utskeriagatik, arantzazkoa. ¡O Jesus amorezko ta samintasunezko erregea! ipiñi ezazu zure koroia, nere buru gaizkille ta ariñaren gañian, eta indazu, zure ejemploari jarraiturik, biotz otsan eta umillekoa izateko grazia.

3.º ¡O Jesus, errurik t̄sikienik ere gabe, eriotzara kondenatua izan ziñana!

¿Nola izango det nik ausardia, ill ondoan nere betikotasun guziko zori ona edo t̄arra erabakiko duan epaia entzuteko? Erregutzen dizut nere Jesus zure odol balio andikoagatik, zure zauri sagraduakgatik, zure errugabetasun osoagatik, eta Maria'ren biotz guziz garbiagatik, indazula nik zure tribunalean ondorengo itz auek aditzeko mesedea: "Atoz nere Aitaren bedeinkatua, atoz ta sartu zaite zure Jaunaren atsegintasunean,,. Ala izan dedilla.

Prefazio ta Kanon'ean.

Begira Jesusi; 1.º, bere bizkarrean Gurutzea eraman zuanean; 2.º, Kalbarioko mendira zijoanian; 3.º Gurutzean josi zutenian.

1.º Agur egiten dizut Gurutze bikaiñ eta ederra, nere Jesus'en bizikai edo mienbro ta odoletik zure edertasun eta balioa artu zenduana. Adoratzen zaitut umillki ta amorioz laztantzen zaitut, eta nere bizkarrean gozoro artzen zaitut. Nere Jesus, bialdu zaizkidatzu pobreza, miseria, gaitzak, ta nai dezun guzia. Zu lagun zaitudala gurutzea eraman

ezkero, uste det eramango dedala erio-
tzaraño, ez bakarrik pazientziaz, baizik
baita pozez ere.

2.º ¡O Gurutze milagrosoa! agur egiñ,
besarkatu ta milla laztan ematen dizki-
tzut, Zu izango zera nere salbazioko
etsai ageri ta eskutukoai guda egiteko
arma. O Gurutze atsegiña, bizitzako ar-
bola izango zera neretzat, eta zure itzal-
pera etorriko naiz nere tristuraldi ta nai-
gabeetan, zure fruta gozoakiñ alaituko
det nere biotz atsekabetua. O Gurutze,
graziatan ugaria; izan zakidaz zerura igo-
tzeko nere eskallera; eta iltzen naizen
istantean, juango naiz zure malla odolez
bustietara, oietatik zerura igotzeko.

3.º ¡O nere Jesus! josi nazaiozu zu-
re gurutzeari, Jaungoikoaren beldur eta
amorioaren iltzeaz. Sillatu ezazu nere
biotza zure gurutze odolez beteaz. Nere
egarri bizia ta nere azkeneko eskaera
da, indazula, gurutziltzaturik zurekin
illtzeko, ta zure besoetan nere azkeneko
arnasa emateko grazia.

Konsagrazioan.

Begira zaiozu Jesus'i gurutzean, eta esaiozu:

¡O Jesus, nere Jaungoiko ta Salbatzalle, aldarean egiaz zaudena!; sinisten det zure itz argi ta ziurrean, zu zerala Jaungoikoaren Seme bera, ta gizonak zeruratzeagatik gurutzetik zinzilik egon ziñala. ¡O! ¡zuganatu nazazu mundu errukarri onetatik, estutu nazazu zure amorioaren besoartean; ezkutatu nazazu zure zauri sagraduetan, apaindu zure birtuteaz ta sendotu zure graziarekiñ! ¡O nere Jesus guziz gozoa!; entzun itzatzu, nere alde, nere otoitzak, eta ez nadilla beñere Zugandik aldendu.

Begira nola, Jesus'en odola išuri zan gurutzean goitik beera, ta esan ezazu:

¡O Jesus! Auñe da, zure gorputza, gurutzean josirik egon zanean, gorputz sagradu orren zaurietatik išuri zan odol bera. ¡O Jesus maitea! Eztedilla izan nerezat alperrik išuria, baizik bestera, izan dedilla nere ta bizien eta illdako guzien onerako. Ala izan dedilla.

Jesus'en Biotza izan dedilla lurbira guzian maitatua. (100 eguneko barkamena).

Konsagrazioaren ondorean.

Gogora ezazu, Jesus'ek, gurutzean zinzilik egon zan iru orduetan sufritu zuana, ta esan ezazu:

1.º Jesu-Kristo nere Jauna: zure animak sufritu zituan atsekabe samiñak-gatik, Gurutze santatik zinzilik egon zinan, batez ere eriotzarekiñ burrukaturtzean, izan ezazu nere errukia nere anima gorputzetik aldentzen dan instantean.

2.º ¡O Jesus, gurutzean ainbeste sufritu zenduana! Zure pasio ta eriotzaren meritu berak bakarrik mundu guziko pekatuak ordaintzeko adiña ziranakgatik, barka zaizkidatzu nere pekatu ta gaiztakeri guziak, eta aldendu nazazu pekatutik eta nere utsegiteai dagozkien penatatik, ipiniaz nere alde, neurrigabeko ordainsari au.

3.º ¡O nere Jesus, agoniarik gogorenean utzia! nere uste ta konfiantza guzia daude zure pasio ta eriotzaren

gaiñ. Zure gurutzea da nere gorde lekua, ta ortik uste det iristia zerua ta bizitza. Ez naute beldurtzen nere pekatu ugarriak, zure iru orduko agonia gogoratzean. Egiaz; ¿zergatik egon ziñan gurutzetik zinzillik eta sufritu ainbeste atsekabe, ta martirio ikaragarri, ni zorigaitzean ill ez nediñ, eta betiko galdu ez nediñ baño? ¡O Jesus!; zure gurutzea, zure zauriak, eta zure odola dauzkat, eta beragatik eziñ nezake, ta nai ere eztet, desesperatzerik. Zure gurutzearekiñ aldenduko ditut nere animaren etsai guziak. Zure tribunalaren aurrean arkitzen naizenian, juango naiz zure zaurietara, ta zure odol, baliorik andienekoa dan tesoro orrekiñ erosiko det zerua. Ala izan dedilla.

Pater noster'ean.

Gogora itzatzu Jesus'ek gurutzean esan zitan zazpi itzak, eta esan ezazu:

1.^o O Jesus errukitsua, gurutzean esan dezuna: "Aita, barka zaiezu,,. Barka zaizkidatzu nere pekatuak eta eman zadazu biotz pakezale bat; Zure amorez barkatu degiedan nere gaitzkille guziai.

2.º ¡O Jesus ona!, lapur damutuari esan ziñona: “Gaur nerekin izango zera zeruan,„. Indazu grazia bizitzeko, eriotzako orduan, zure gurutzeari begiratzean, nere biotzean ondorengo itz pozgarri auek aditzeko moduan: “Gaur nerekin izango zera zeruan,„.

3.º Jesus amodiotsu, zure Amari esan ziñona: “Emakumea, orra or zure semea,„ ta ikaslea’ri: “Orra or zure Ama,„. Eskatzen dizut seme bati dagokion konfiantzarekiñ; eman zadazula amatzat, zure Ama atsekabez betea, ta bere bitartez aldendu nazazula gaitz guzitik, sendotu nazazula zure grazian, eta eman zadazula eriotza on bat.

4.º O Jesus, guziakgandik utzia izan ziñanean esan zenduana: “Nere Jaungoikoa, nere Jaungoikoa; ¿zergatik utzi nazu?„ ¡Eskatzen dizut, utziera ikaragarri orrengatik lagun zadazula nere premia guzietan, batez ere nere eriotzako orduan.

5.º O Jesus atsekabetu, deadar egin zenduana: “Egarri naiz,„. Nik ere, zure saiets guziz santu orretatik atera zan ur bizizko iturri orren egarria daukat. ¡O

Jesus! egiñ zadazu, zure Aragi ta Odol beneragarri oien Sakramentuan nere penen alibio ta aringarri guzia arkitzeko mesedea.

6.º O Jesus, esan zenduana: “Guzia amaitu da,,: indazu kristau on bati dagozkion eginkizun guziak beteaz bizi ta iltzeko grazia.

7.º O Jesus, agonian egondua, ta deadar garratzaz esan zenduana: “Aita, zure eskuetan uzten det nere espiritua,., Erregutzen dizut biotz guzitik, eta al dedan sinismenik bizienarekiñ, indazula mesede, nere azkeneko otoitza izan dedin onela: ¡O Jesus! Zuretzat nere bizi: ¡o Jesus! Zuretzat nere eriotza; Zurea naiz bizitzan eta eriotzan. Jesus, Jose ta Maria, ematen dizuet nere biotza ta anima. O Jesus, guziz maitea; Zure eskuetan uzten det nere espiritua. Ala izan dedilla.

Jesus, biotz otsan eta umillekoa; egiñ ezazu nere biotza zurearen antzeko.

(300 eguneko barkamena).

Komunioan.

Jarri zaite Maria ta Juan'ekin batean, gurutzearen oñean, eta esan ezazu:

¡O nere Jesus gurutziltzatua; zein amodiotsu ta itñura onekoa dan zure gurutzeko egoera! Zure arpegia makurtua dago ni iaztantzeko; Zure besoak zabalik ni besarkatzeko; Zure oñak iltzez josiak, neri itñedoteko, Zure biotza idikirik, ni maitatzeko, ta zure gorputz guzia urratua, ni berterosi edo erredimitzeko, ta Zure zauri bakoitza, denbora berean da aots bat, deitzen eta esaten diguna: Atozte nigana, neke ta atsekabez zaudeten guziok.

Emen naukazu nere biotzeko Jesus guziz maitea; Zugana nator Magdalena damutua bezela, zure oñetan auspezten naiz, nere pekatuaz damuturik, negar egiten det zугanako amorioz, ta zure ontasun neurrigabe ta santutasunari esker gaiztoz erantzun diodalako. Nator Tomas bezela, sinistuaz, zure esku oñ eta jainkozko biotzaren zaurietara urreratzeko, ta Zuri deitzen dizut: nere Jaungoiko ta Erakaslea, nere Salbatzalle

ta Berterosle edo erredimitzallea, zure zaurietan ezkututzen naiz; gorde nazazu zure zaurietan; bazkatu nazazu zure zauriaz; zure zauri oien bidez santu egiñ nazazu; indazu zure zaurietan illtzeko mesedea, ta oiekgatik eman zadazu betiko zoriona.

Nator, azkenik, zure ikasle guziz maitate Juan'ekiñ, eta ez bakarrik ipintzen det nere burua zure bularraren gañean, baizik sartzen det nere biotza zure Biotz amorioz betearen barruan. ¡O nere Salbatzalle Jesus! utzi zadazu bada, nere biotz izoztua, zure biotzaren amorezko karobi orretan berotu ta irazekitzen. Bai, nere komunio bakoitzian elkartu dedilla zurearekin, berarekiñ bat egiteraño; biziko naiz, baña ez geiago neretzat, baizik zuretzat bakarrik, edo obeki esateko, Zu biziko zera nigan, zure amorioan ill, eta Zugan bakarrik bizi, Zu maitatu, zu alabatu, ta zuri gloria betiraunde guzietan ematen.

Ala izan dedilla.

¡Nere Jesus, misericordia!

(100 eguneko barkamena).

Mezaren azkenean.

Begira zaiozue, Ama guziz Santaren belau-
netan dagoan Jesus'en gorputz illari, ta deitu
Maria'ri.

¡O Maria, Ama atsekabe ta naigabez
betia! Erregutzen dizut zure zazpi dolo-
reakgatik, eta batez ere zure Seme Jesus
illa gurutzetik jetși ta zure belaunen ga-
ñean ipini zizutenian, zure biotza erdi-
bitu zuan sufrikizunezko ezpata argatik,
elkartu dezazula Meza au ta baita nere
jaiera umilla ere, zure negar malkoakiñ,
eta zure biotzaren oñaze ta sufrikizuna-
kiñ: eskeiñi zaiozula guzia zure Seme
guziz maiteari, ta zure bitartekotasunaz,
iritși zadazula, Jesus'ek nere onerako,
nere eskariak Zuk aditzea. Ala izan de-
dilla.

ADVENIAT REGNUM TUUM



Meza Santua entzuteko laugarren modua

Purgatorioko animen onerako.

¡O Jesus, Jaun guziz ona! biziak eta illak zeruratzeko Mezako Sakrifizio Santua ipini dezuna: Eskeintzen dizut Meza au, ta baita bera ematen dan bitartean egiten diran erreguak ere U. ta B.-ren animakgatik eta purgatorioko oñazeak sufritzen dauden beste illdakoakgatik. Eskatzen dizut, nere Jesus ona, aurkeztu degiozula zure zeruko Aitari Sakrifizio au, nere jaiera umill, eta oraiñ bitarteko ipintzen ditudan santu guzien erreguakiñ batean, oien bidez ta indarrez, guk bereški gomendatzen dizkitzugun, animak eta sufritzen dauden guziak, artu

dezaten zure esku altsutik beren penen aringarria.

Introitoan.

Jarri zaite zere gogoaz, purgatorioan sufritzen dauden guziakin batera Irutasun guziz Santuaren aurrean, eta Aita, Semea ta Espiritu Santuari egiñ zaiztetzu ondorengo otoitzak.

Aita Jaungoikoari Otoitza.

¡O Aita errukitsu ta poz guziaren Jaungoikoa! Egiñ ezazu mesede, zure errukia purgatorioraño luzatzeaz, bada au da negar eta miseriazko lekua. ¡O Aita guziz ona! begira zaiezu, an negarrez dauden anima aiei; Zuk egiñ dituzu zerorren antzera. Oroitu zaite, zure Seme maite Jesus'ek eskeiñi zizula, bere zaurietatik atera zan odol guziz prezio-tsuaaren balio neurrigabea, aiek egin zituzten pekatuen ordaiñsaritzat. Entzun itzatzu onez gure erreguak, Aita maitea, ta errukitu zaite zure errukitasun andiaren neurrian, purgatorioko anima guziezaz, batez ere U. ta B.-enaz.

Seme Jaungoikoari Otoitza.

¡O Jesus, ontasun eta errukizko iturria! ¿Nola izan diteke Zu luzaroan egoitea, begiratu bat egiñ gabe, ainbeste sufritzen dauden anima desanparatu aiei? ¡O Jesus guziz gozoa! Oroitu zaite, anima oiekgatik ere gizon egiñ ziñala, sufritu dituzula gaiztondo andiak eta gurutzeko osartegi edo patibuloan illzerala. ¡O Jesus, animen adiskide amodiotsua! Egiñ ezazu, U. ta B.-ren animak, eta garbi-leku izugarri artan sufritzen dauden illdakoak, zure Gurutze ta Pasio'aren frutuz sariatzeko modua.

Ala izan dedilla.

Espiritu Santu Jaungoikoari Otoitza.

¡O Espiritu Santu, amorio ta pozezko Jaungoikoa! ¡Zeiñ asko diran purgatorioan sufritzen dauden animak! ¡O bear-tsuen Aita! aditu itzatzu gure eskariak, eta ezeren anparu gabe dauden anima gaiño aien deadar negargarriak, eta zoaz beren premi andi artan laguntzera. ¡O Espiritu Santu adiskide atsegiñ, eta poz-

emallerik onena! Oroitu zaite, nola bataio santu, fede, ta karidadearen bidez, oien animak egiñ ziran zure esposa, ta zureak dirala zeruan. Alaitu itzatzu graziaren zeruko intz tanto batez, atera itzatzu laster presondegi artatik, eramán itzatzu zure jargoia ren aurrera, ta eman zaiezu gloriako koroia. Ala izan dedilla.

Epistolán.

Deitu zaiezu Maria guziz santari, aingeru zaitzalle santuai, ta santu guziaz, anima gaisoen bitarteko izan ditezen.

O Maria, errukizko Ama: entzun ezazu, nola zure Seme guziz maiteak, bere Odol guziz balio andikoaz berterosi edo erredimitu zituan zure serbitzarien animak egiten dizkitzuten beren prisiondegitik, beren deadar eta eskariak.

¡O Maria, Ama guziz atsekabetua! begira zaiezu aien negar-malko goriaz, entzun itzatzu beren negar samiak, eta erregutu zaiozu berakgatik eskatzen diotun guzia ematen dizun zure Seme Jaungoikoari. ¡O Maria Birjiña, gozo, on eta biguña! Atera itzatzu leku onetatik ain-

beste sufritzen dauden, baña Zuk asko maite dituzun animak, eta eramán itzazu, Jesus, zure sabeleko frutu-bedeinkatuaz gozatzera. Ala izan dedilla.

¡O zuek, anima oien Aingeru zaitzailleak izan zeratenak! Gizonai zerurako bidean lagun egiteko ipiñiak izan zerate. Begira ara, zuen kontura ipiñiak izan ziran anima oiei: ¿Nork esan lezake zenbat erregu ta suspiru zuzentzen dizueten zerura? ¡Zein irazekia dan zuekiñ elkartzera juateko daukaten egarria! Erregutu zaiozute Jaungoikoari, barkatu deiztela oraindik zor dituzten penak. Poztu, sendotu, ta alaitu itzazu, ta iritñi ezazu betiko gozatzera eramatea. Ala izan dedilla.

¡O Zuek, Jaungoikoaren adiskide ta autatuak! Begira zaiezute, amorioz betetako begiz, Jesu-Kristo'gan zuen anai ta arrebak diranen eta aiñ asko sufritzen dauden anima aiei. Aien lekua zuen ondoan dago zeruetako erreñuan. Aurkeztu zaitezte bada iru Personatan Jaungoiko bat danaren jargoiarene aurrian, eta eskeiñi zaizkatzute zuen merituak, zuen martirioak eta zuen eriotza, Jesu-

Kristo'ren Pasio ta eriotzaren meritu azkengabeaz batean. Eskatu ta deadar egiñ, zuen bitartekotasunaz iriñsi arte, anima oiek presondegi orretatik atera, ta zuen zorientasunera zerura eramatea. Ala izan dedilla.

Ofertorian.

Zuazte purgatorioko animakiñ batean Kalbariora, ta aurkeztu ezazute Aita Betikoaren begien aurrean, aiekgatik Jesu-Kristo'k sufritu zuan guzia.

Artu ezazu, o zeruko Aita, zure onran eta bizien eta illen onerako Apaizak aldarean eskeintzen duan ogiaren eta ardoaren Sakrifizio Santu au. Gañera eskeintzen dizut U. ta B-ren animakgatik, eta beste oraindik purgatorioan dauden guziakgatik ere. Beren oñaze ta erregu guziak, beren suspiruak, beren malko gorituak, beren negar eta miñezko deadarrak, zerurako daukaten egarria, sentimentu auek guziak ipintzen ditut nere gogoaz aldarearen gañian, Jesu-Kristoren odolaz, ta sufrikizunaz nasturik, pekatuen urdañezko sakrifizio bat bezela, zuri eskeiñiak izan ditezen.

Oroitu zaite, o Aita biguñia, nola zure Seme bakarra izandu zan nigatik aiñ gogor oñazetua, ta aiñ desonragarri gurutziltzatua, ta errukitu zaite, Meza au entzutean gomendatzen ditudan anima aiezaz ta baita beste purgatorioan sufritzen dauden guziezaz ere, ta batez ere, andik lenen irtetzeko zorian daudenaz.

Aita ontasunez betea, zure Seme, arantzaz koroiturik, bere begiak itzalirik, bere arpegia illa bezela, bere matralla ta aoa odola zeriela iduki zituanakgatik, iduki ezazu, nere erruz sufritzen dauden anima gaiñoen errukia. Begira zaiezu bere beso zabalduai, bere esku ta oiñ iltzez josiai, bere bular andituari ta bere biotz idikiari, ta errukitu zaite geien sufritzen duten eta luzaroen beren zorra ordaintzen egon bear duten anima aiezaz.

¡O Aita guziz ona! begira nola sufritu zituan zure Semeak bere gorputz ta anima oñazerik gogorrenak, nola naigabez burlaz ta blasfemiaz bete zuten, zeruak, lurak, aingeruak, gizonak eta Zuk zedorrek ere alde batera uzten zendutela; ta errukitu zaite, gizonak konturik gutñien daukakioten anima aiezaz. Begira

denbora berean sufritzen dituzten eta umilltasunik andienaz eskeintzen dizkitzuten martirio, oñaze esan eziñalakoak; eta zure Seme Jaungoikoaren intentzio, obedientzia ta amorioaz batean eskatzen dizute biotz guzitik, barkatzeko ta ateratzeko beren pena guzietatik. Aia izan dedilla.

Konsagrazioan.

Erregutu zaiozute Jesus'i, bere odol-isurtze samiñagatik, etorri dedilla purgatorioko animai laguntzera.

Ostia Santua goratzean.

¡O Jesus, nere Jaungoiko ta Salbatzallea! Sinisten det, or, aldarearen gainean, Ostia santuan egiaz zaudela, zure Jaungoikotasun eta gizatasun, zure aragi ta zure odolarekiñ. Adoratzen det, gu zeruratzeagatik, azkeneko tantoraño iñuri dezun odol adoragarri ori, ta eskatzen dizut, utzi degiezula orren frutua purgatorioko animai, andik atera dituzten.

Kaliza goratzean.

¡O nere Salbatzalle ona! Adoratzen det oraiñ kalizan dagoan jainkozko odol ori; tanto bat bakarra asko litzake purgatorioko gar guziak itzaltzeko. Iguzu jo Jesus maitea! zure odol! beneragarri orren birtutez, anima gaiño oiek beren penatetik ateratzeko grazia.

Konsagrazio Ondorean.

Nik adoratzen zaitut nere Salbatzallearen Odol preziatsua. Olibo'etako baratzen Jesus agonian zegoala, bere zañetatik atera zan Odol uraşe bera zera. Busti itzatzu, nere Berteroslea, zure odolezko izardiaz ta garbitu itzatzu illdakoen animak. Pilatus'en etşean azotatua izan ziñanian, işuri zenduan Odol ura bera da, jo nere Berteroslea! Eskeiñi zaiozu, nere Jesus, zure Aita zerukoari, odol orren tanto bakar bat purgatorioko animak sufritzen dituzten pena guzien ordañaz.

Da ainbeste arantzak nere Salbatzallearen buru bedeinkatutik aterazi zuten

Odola bera. ¡O Jesu-Kristo, nere Errege koroatua! Eman zaiezu, purgatorioan sufritzen dauden anima oietako bakoitzari odol orren tanto bat, zerua erosi dezaten. Nere Salbatzalle gurutziltzatuaren esku, oñ eta saietsetik ateratako Odol ura bera da. ¡O nere Jesus guziz maitea! Iñuri dedilla purgatorioan, zure zaurietatik ateratzen dan Odol au, ango sua itzali, animak beren oñazeetatik atera ta Jaungoikoaz beti-betiko gozatzera jua ditezten. Ala izan dedilla.

Komunioan.

Gomenda zaizkietzute purgatorioko animak Jesusen bost zauriai.

¡O nere Jesus, gurutziltzatua! Adoratzeten det umillki zure eskuiko eskuko zauria, ta zauri orretan ipintzen ditut, nere aita, ama, anai, arreba, senide, ongille, adiskide ta etsaien animak. Zauri onetatik atera zan odolagatik errukitu zaite anima auezaz ta barka zaiezu.

¡O nere Jesus ona! Debozio guziaz adoratzeten det zure ezkerreko eskuko zauria ta emen ipintzen ditut, zure la-

guntzaren premiarik andiena daukaten animak. Zauri onetatik atera zan odolagatik eta eramán zĩñuzan oñazeakgatik, estali itzatzu zure esku atsegiñaz, ta arĩndu zaiztetzu beren pena aĩñ luzeak.

¡O Jesus, guziz errukitsua! Debozio guziaz adoratzén det zure eskuiko oñeko zauria, ta emen ipintzen ditut, nik nere erreguetan gomendatzea nai dezun animak. Emendik atera zan odolagatik eta sufritu zĩñuzen oñazekgatik, esaiztetzu ondorengo itz pozgarri auek: “Gaur nerekin izango zerate paradisuan, .

¡O Jesus, pazientzia guziz andikoa! Debozio guziaz adoratzén det zure ezkerreko oñeko zauria, ta emen ipintzen ditut zure Pasio samiñari ta zure Ama guziz atsekabetuari jaierarik geien izan dioten animak. Zauri onetatik atera zan odolagatik eta sufritu zĩñuzen oñazeagatik, barka zaiztetzu borondate osoaz beren penak.

¡O Jesus guziz errukitsua! Biotz guziaz adoratzén det zure saietseko zauri guziz sagradua, ta emen ipintzen ditut Meza au entzutean gomendatu nai izan ditudan animak. Ortik atera zan ur eta

odolagatik, eta gurutzean iru orduan sufritu zenduan martirio izugarriagatik, zure Ama atsekabetuaren bitartekotasunaz itzalerazi ezazu anima oiek erretzen dituan karobi sutsua, ta artu itzatzu berak zure glorian. Amen.

Komunio ondorean.

Sartu itzatzute purgatorioko animak Jesus'en Biotz idikian, eta erregutu ezazute, zeruetako erreinuan sartzen Jaunak utzi dezaienu.

¡O Jesus guziz gozoa! Ainbesteraño maitatu gaituzu, nun ez bakarrik gelditu zeran amorezko Sakramentuan, zure Biotza gurearekiñ elkartzeko, baizik gañera ill ondoan, utzi dezu osoro idikia, illdako kristau guzientzat izan dedin, zerura eramango dituan atea: Zure biotz erdibituaren amorio neurrigabeagatik eskatzen dizut, idiki zaiezula purgatorioko animai zeruko ate ori, ta eraman ditzatzula ortik zure erreiñura. Aditu ezazu, nola zure Biotzaren atean deadar egiten duten: “¡Idiki zaiguzu Jauna, idiki zaiguzu zure Biotza! Jesus

guziz errukitsua, suzko leize onen barrunenetik deitzen dizugu Zuri, aditu ditzatzun gure eskariak eta entzun gure onean, gure erreguak, bada zure urrean bakarrik arkitzen da pakea ta berteroste edo errendentzio ugaria,,.

Jesus guziz errukitsua, eztezazula luzaruago iduki itširik zure Biotz amorez zauritua. Zure Biotzak zure Pasio'an, eta batez ere gurutzean sufritu zituan estutasun, atsekabe, laguntzikez, ta agonia larriagatik, eta gurutzetik jeistean bere gañian iduki zinduzan, Maria'ren Biotzaren zazpi atsekabeakgatik, eskatzen dizut, idiki dezazula zure Biotz guziz maitagarriaren ate zerurakoa, emendik sartu ditezen zeruan, nik nere otoitze-tan berezkiro gomendatu ditudan animak, eta baita berakin batean purgatorioan garbitzen dauden guziak ere. Anima auen bitartekotasunagatik indazu, kristau on bat bezela bizi, ta eriotza on bat egiteko grazia; ez nadilla juan Purgatoriora, baizik zure Biotz jainkozkoaren atetik sartu nadilla betiko zorientasunaz gozatzera. Ala izan dedilla.

De profundis. (129 garren Salmoa).

Eroriçik nagoan nere miseriazko leize sakonetik deadar egiten dizut, Jau-na, Zuri; entzun ezazu nere deia, jo nere Jaungoikoa!

Entzun itzatzu, zure errukia baño beste anparurik eztuan doakabe baten erreguak.

Badakit, nere Jaungoikoa, zure begietan gaitzkille andia naizana; baña gure gaiztakeriak zorroztasunaz billersi edo examiñatzen badituzu, ¿nork sufritu al izango ditu zure juzgoak?

Pekatuak bakarrik arkitzen badituzu gugan, Zugan arkituko dituzu gu zeruratzeko arrazoiak; gure negar malkoai atzera ez eragiteko legea jarri ziñon zere buruari, ta onetšek beartzen nau, nere esperantza zure ontasunean jartzera.

Ez naiz beñere aztu, nere atsekaberik gogorrenetan alaitu izan nauten Jau-naren aginduaz: Beragan beti esperatu izan det.

Ala, goizetik gaberaño, ez beza beñere utzi Israel'ek Jaunagan esperatzea.

Gure gaitzen sendagaia, bere inda-

rraren tesoroetan arkitzen dakian Jau-
naren errukia, neurrigabekoa dalako.

Eta agindu zuan ateratzea bere erria
bere miseri ta kezka guzietatik.

V. Eman zaiezu, Jauna, betiko atse-
dena.

R). Eta betiko argiak argi egin de-
zaiela.

V. Inpernuko atetik.

R). Kendu itzatzu, Jauna.

V. Pakean atsedeen bezate.

R). Ala izan dedilla.

V. Entzun ezazu, Jauna, nere otoi-
tza.

R). Nere deadarra eldu bedi zugana.

V. Jaungoikoa izan dedilla gurekiñ.

R). Eta zure espirituarekin.

50-eguneko barkamena, egunian iru aldiz, salmo au-
biur-satsoakiñ errezatuta. (Leon XIII-garrenak 1888-ko
Otsaillaren 2-an).



KONFESATZEKO EGIN BEAR DANA

CONFESIO AURRETIK

Penitentzia egiazko baten grazia iristeko
Otoitza.

(Sinmaringen'go San Fidel'ena).

¡O Jesu-Kristo nere Jauna, nere Jaungoiko ta nere guzia! Zu zera anima santuen adiskidea. Eman zadazu zure amorioa ta zure jainkozko grazia, damu egiazko bat irit̃si dezadan. Eman zaiozu bada nere biotzari egiazko onez-damua-
ren iturri ta sustraya dan zure amorioa-
ren deseo garbi ta irazeki bat. Argitu ezazu nere adimentua, ezagutu dezan pekatu guziak ematen dizuten izu-laborrria. Lagun zaiozu nere oroizkiñ edo memoriari gogoratzeko nere pekatu guziak eta oien gaiztakeria geitzen duten inguruneak. Indazu Zu atsekabetu zaitudalako damu egiazkoa sentitzeko grazia. Kendu zadazu nere arrokeria ta

eman zaizkidatzu ontasun, gogo bero ta jaierazko sentierak. Ikusi zaitzadala amorio ta esker onezko begiak, eta ezagutu dezadala zure anditasun eta amorio neurrigabea. Nere bizitza guzia eman dezadala Zu amaten, onratzen, zuri atsegin ematen eta Zu serbitzen, eta Zuk nai dezun guzia ontzat artzen. Ikus-erazi zadazu nere ezereza ta Zuganako iduki dedan desleialtasuna, esker gaizto ta arrazoirik-eza, ta gogorazio auek eman degidatela nere buruaganako urruñ edo desprezio andi bat, eta Zuri ordaña emateko ardura.

Nere Jesus; itñatsi ezazu nere biotzean asmo erabaki bat, aurrerakoan Zugatik, eta zure graziaren laguntzaz, aldendu nadiñ ardura andiaz pekatutik eta Zu atsekabetzeko bide guzietatik, eta naiago izan dezadala illtzea, Zuri aurreraz pentsatu ta ezagueraz naigaberik ematea baño. Nere Jesus, indazu penitentzia egiteko, ta Zuri egin dizkitzudan gaiztakeri askoak onez ordaintzeko grazia, ta aurrerakoan onra zaitzadala egiazko kristauari dagokion bizitza batekin, atsekabetu zaitudan neurrian.

Gure utsegiteen ezaguera eskatzeko,
Otoitza Espiritu Santuari.

(San Pedro Damiano'rena).

¡O Espiritu Santu Jaungoiko Guzial-
dun Aita ta Semea'rekin izate bera dezu-
na!, eskatzen dizut jetși zaiteala nere
biotzera, ta kendu ditzatzula ¡o Argi mi-
ragarria! nere anima inguratzen duten
illuntasunak, oso argiro ikusi dezadan
nere gaiztakeri guzia, senti dezadan
egiazko damua, ta egiñ nere pekatu gu-
zien aitortze edo konfesio egiazko bat.

Jetși zaite nere animara, ¡o betiko Bi-
ziarazlea!, ta irazeki ezazu nere biotz otza
zure amoriozko garrarekin. Bai, bigun-
du ezazu nere arrizko biotza, atoz ta bete
nazazu zure Espirituz. ¡Doakabea ni,
pekatari errukarri, egunero gauza negar-
garri asko egin eta alare negarrik egiten
eztakidana! Jetšierazo ezazu Jauna niga-
na zure graziaren intza, ta nere anima
gelditu dedilla birtute guziaz jantzia.
Nere biotzak espero du egarri bizi-
az, juzga dezazula, Zu artzeko diñatzat.

(Examiniatu oraiñ zure kontzientzia).

Kontriziozko aktoa.

(San Bernardo'rena).

Sinisten det, badakit, eta ezagutzen det, Zu zerala nere Jaungoiko ta Jauna, ta atsekabetu dedala zure Majestade jainkozkoa maiz ta astunkiro, nere esan eziñ ainbat pekaturekiñ. Ala ta guziz ere, zure erruki azkengabekora nator, nere pekatuen samintasun eta damuarekiñ, Zu Espiritu Santua, atsekabetu zaitudalako, ta zure idurira egindako nere anima zikindu dedalako. Nai nuke nere bitza t̄sarra uztea, ta artu det asmo erabakia, zure borondateari ezertan ere atzera ez eragiteko. Eskatzen dizut, ez nazazula zugandik bota, eztaukadalako nora joanik, gauza guziak baño geiago maite zaitudan Zu gana baño. Ez nazazu kastigatu nere gaiztakerien anditasunari dagokion bezela, baizik artu nazazu nere konfiantzaren zimendua dan zure erruki neurrigabeari dagokion bezela.

Proposituak.

(Sales'ko San Franzisko'renak).

Nere Jaungoiko ta Jauna, zure graziaz lagundurik, eztet aurrerakoan pekaturik egitera biurtu nai, ta egiñ ditudan utsegiteen izua daukat. Zure besoetan etzaten naiz, jo Aita errukitsua! Zugatik eta zuretzat bakarrik nai det bizi ta ill. Nere lengo bizitzako pekatuak kentzeko, oraiñ nua aitortzera penitentziako tribunalean. Nere indar guziak nai ditut ipini, nere animatik ateratzeko sustrai ta guzi, gaitzerako griñarik t̄sikienerañokoak, eta batez ere ez erortzeko lenago geien eta errezen egiñ oi ditudan pekatuetan. Nai ditut ipini iraupenaz, nere onerako esaten dizkidaten eta nik alditzakedan alderdi guziak, nere amorioa zuri agertzeko ta zerua iristeko.

KONFESIO ONDOREAN

Aita Jaungoikoari.

Nere Jaungoiko ta Aita. ¡Zein andia dan zure niganako ontasuna! Jesu-Kristo'ren merituakgatik eta zure ordeko dan apaizaren aoz askatu dizkidatzu nere

pekatuen loturak. Orain uste izan nezake, zure seme maiteen artean artuko nazula.

Ezaguera, alabantza, bedeinkazio ta esker-emateak, Zuri, Aita errukitsu orri, neri, zure kriatura izatea merezi eztedan oni, egiñ didazun mesede guziz andi onegatik. Ez naiz beñere onezaz aztuko, ta egingo det al dedan guzia pekatuan berriz ez erortzeko. Bedeinka ezazu Jauna, nere asmo erabakia, ta eman zadazu indarra, eriotzara arteraño Zuri leialki erantzuteko. Mesede auek eskatzen dizkitzut, nigatik iñuritako Jesu-Kristo'ren odolagatik, nere Ama guziz Santa, Maria, graziaz betearen eta Santu guzien merituakgatik. Ala izan dedilla.

Seme Jaungoikoari.

¡Nere Jaun eta Salbatzalle maite Jesu-Kristo! ¡Zeiñ andia izan bear duan nere Zuganako esker onak! Zure odol bene-ragarriaren merituakgatik, uste det, konfiantzaz beterik, nere pekatuen barkazioa iritñi dedala. Biotz guziaz ematen dizkitzut eskerrak, eta uste det, bedeinkatuko dedala zure errukitasuna zeruan

betikotasun guzian. ¡O nere Jaungoikoa!
lenago aiñ maiz ta astunkiro atsekabetu
bazaitut, etzaitut berriz atsekabetu nai.
Artu det asmo erabaki bat, nere bizitza
tšarra uzteko. Nere amorio guzia merezi
dezuna zera, ta nik nai dedana da, Zu
biotz guziaz amatzea, ta Zugandik pe-
katuaren bidez beñere ez aldentzea.
Oraiñ aurretšoan agindu dizudana bera
berrirore agintzen det: lenago ill, berriro
pekatu egiñ baño. Baña nere Jesus, Zuk
ezagutzen dezu nere argaltasuna. Indazu
grazia, eriotzaraño Zuri leialki erantzuz-
teko ta nere tentazioetan Zugana jua-
teko.

Espiritu Santo Jaungoikoari.

¡O Espiritu Santua! Sinisten det, Zu,
Jaungoiko egiazkoa zerala, ta Jaungoiko
bat bakarra Aita ta Semearekin. Adora-
tzen eta ezagutzen zaitut, nere argi gu-
zien emalle bezela; argi oiek ikus-erazi
didate, zeñ gaizki egiñ dedan Zu atse-
kabetzean, eta zeñ bearturik nagoan, Zu
maitatzera. Eskerrak ematen dizkitzut
eta daukat damu andi bat Zure kontra
pekatu egin dedalako. Betiko illuntasu-

netan bildua izatea merezi nuan, eta ori egiñ bearrean, utzi didazu Zugana urreratzen, pakeak egiteko. Aurrerakoan argitu nazazu, jo Espiritu Santua!: ezagutu dezadala zure ontasun neurrigabea, ta serbitu zaitzadala nere almen guziakin eta nere izate guziarekiñ. Iñuri itzatzu nere gaiñ, gero baño geiago zure grazi ugariak, Zu bakarrik maita zaitzadan. Jesu-Kristo'ren merituakgatik eskatzen dizut, zure bendizioz bete nazazula. Bai, zure amorioaren suan irazeki nazazu, jo nere Onik andiena, ta neurrigabea; nere burua baño geiago maite zaitut eta osoro zurea betiko izatea nai det. Artu nazazu, ta egin zaite nere jabe ta etzadazu utzi, Zugandik beñere aldentzen. Ala izan dedilla.

Azkena.

Nere konfesio ta penitentziako egite utsunez ain bete au, uzten diot jo nere Jesus! Zure Biotz guziz gozoari; ta zure amorio guziz Santuaren osotasunagatik ezkatzen dizut, bete ditzatzula nere kontrizio ta penitentziako espirituaren utsuneak.

¡Maria, gure Berterosle edo Erredentorearen Ama: Zu beti izan zera aiñ atsegiña Jaungoikoaren begietan!... Zure eskuetan, amarenetan bezela, ipintzen det oraiñ egiñ dedan guzia, ta erregutzen dizut, Zure Seme guziz maitearen merituakin batean, eskeiñi zaiozula sakrifizioan nik egiñ dedana, gure Jaungoiko ta Aita errukitsuari. Eskatu ezazu neretzat penitentziari dagozkion frutuak biltzeko grazia, nere bizi guzian leiala izan nadiñ Jaungoikoaren eta Elizaren aginteak betetzen, eta eztehadala egiñ beste gauzarik, Jaungoikoaren gogokoa, lagun urkoari ejenplo ematekoa, ta nerau zeruratzekoa izango dana baño.

Aita Jaungoiko, Seme Jaungoiko ta Espiritu Santu Jaungoiko, iru personatan Jaungoiko bat danaren bendizioa izan dedilla nerekiñ. Ala izan dedilla. ¡Bere grazia nigan bizi dediilla! ¡Maria Birjiña doatsuak artu nazala bere anparupean! Nere aingeru gordetzalleak lagun degidala ta anpara nazala nere bizardaren azkeneraño. Ala izan dedilla.

(Egin ezazu, alik lasterren penitentziatzat eman dizutena).



Komunio Santua artzeko egin bear dana

COMUNIO AURRETIK

Fede, Esperantza ta amoriozko egintz
edo aktoak.

(San Alfonso'rena).

¡O nere Jesus, guziz maitea; Jaungoi-
koaren Seme egiazkoa, gurutziltzaturik,
oñaze ta atsekabezko it̄saso baten erdian
niganako amorioz illa! Sinisten det fe-
derik bizienarekiñ, aldareko Sakramen-
tu guziz Santu orretan egiaz zaudela.

Fede onegatik nere bizia emateko
prest nago.

¡O nere Salbatzalle guziz maitea! Zure
ontasun eta nigatik iñuritako Zure Odo-
laren merituagatik, uste det, nigana etor-
tzeaz mesede egitera zatozkidan goiz

onetan, irazekiko didazula nere biotza zure amorio santuan, eta emango dizkidatzula bear ditudan grazia guziak, zueganako leialtasun eta obedientzian ill arteraño irauteko.

¡O nere Jaungoiko, nere animaren maite bakar eta egiazkoa! ¿Zer geiago egiñ zentzakezun, Zu maitatzera ni bear tzeko? ¡O nere Jesus! Etzitzaitzun naira kua izan, nigatik iltzea, baizikan egiñ nai izan zenduan Sakramentu au, nere janari egiñ eta zeran guzia neri emateko alik ondoen, ni naizan kriatura esker gabe ta argal onekiñ elkartzeko, ta zure ondonaia aiñ andia da, nun deitzen didazun Zu artzera ta nai dezun bizi, nerekiñ elkartzea. ¡O guziro eman nairakidazen Jaungoikoaren amorio azken-gabea! ¡O nere Jaungoikoa!; amaten zaitut nere biotz guziaz, gauza guziaz gañetik, amaten zaitut nere bizia baño geiago, amaten zaitut, zuri atsegiñ emateagatik, Zuk nere amorioaren egarria daukazulako. Aldendu zaitezte nigandik lurreko gogorazioak. Zuri, nere Jesus, eman nai dizut nere amorio guzia, Zu gaur nai zakidaz eman, guziori osorik.

Begira, ni ere eman nai naitzatzu guzia osorik. Utzi zadazu, Zu amatzen, eztezadala nai izan, Zu besterik, ezta Zuk nai dezun gauzaz gañera besterik ere. Amatzen zaitut nere Salbatzallea; elkartzen det nere amorio argala Aingeru ta Santuak Zure Ama guziz Santuak eta zure zeruko Aitak daukakizutenarekiñ. ¡O ikusi albaneza guziak amatzen zaituztela! ¡O nik egiñ al baneza gizon guziak zu amatzea, merezi dezun bezela!

Umilltasunezko egintza edo aktoa.

(San Alfonso'rena).

Emen naukazu nere Jesus, Zugana urreratzen naiz, zure aragia jaten eman degidazun. Baña ¡o nere Jaungoikoa! ¿Nor zera Zu, ta nor naiz ni? Zu zera neurrigabeko ontasunezko Jaungoiko bat, eta ni lurreko ar errukarri bat, pekatuz betea; ta auekin urrutiratu zaitut nere biotzetik aiñ maiz. Nere Jaungoikoa eztet nik merezi Zure aurrean egoitea ta bai Zugandik osoro urruti betikotasun guzian infernuan erretzen arkitzea. Baña Zuk, nere Jaungoikoa, dei-

tzen didazu, nere biotzaren barruan artu zaitzadan.

Emen naukazu umill eta lotsaturik, ainbeste aldiz atsekabetu zaitudalako, baña zure errukitasunean eta neri didazun amorioan konfiantzaz beterik. ¡O zein bizia dan nere damua ainbeste aldiz atsekabetu zaitudalako! Zuk nigatik zure biziare eman dezu, ta nik, Zu serbitu bearrean, atsekabetu egin zaitut. Damu ditut nere utsegite tñiki ta andi guziak, oien bidez Zu atsekabetzeko zorigailza izan dedalako. Beldurtzen naute berak, ¡o Ontasun neurrigabea! Uste det barkatu dizkidatzula, baña ala ezpada eskatzen dizut biotz guzitik barka zaizkidatzula, Zu nere biotzean artu baño len. Nola bereala nere animan izango dezun zure ostatua, erregutzen dizut, eman zaizkidatzula lenago zure barkazioa ta zure grazia.

Deseosko aktoa.

(San Alfonso'rena).

Atoz, nere Jesus, atoz, Zugatik suspiruz dagoan nere biotz onetara. ¡O ne-

re Ondasun bakar eta neurrigabea, nere bizitza, nere amorioa, ta nere gauza guziak! ¡O, artu al bazindezket goiz onetan, geien maitatu zaituzten animak artu izan zaituzten amorio berarekiñ; o, artu al bazindezket zure Ama Maria guziz Santak bezela! Nik nere gaurko komunioa elkartzen det arenarekiñ.

¡O Maria; Birjiña doatsua, nere Ama maitea! Zu zedorrek eman zadazu gaur, zure Seme maitea; zure eskuetatik artu nai det. Esaiozu, zuri jaiera dizudala ta zure serbitzaria naizela, bada ala, nigana datorrenean, estutuko nau amorio andiagoarekiñ bere biotzaren gañean.

Jesu-Kristo nere Jauna, ez naiz ni diña, Zu nere anima errukarrian sartzeko, ta ez tet merezi ere, baña esan ezazu itz bat bakarrik, eta nere anima sendatua, salbatua ta barkatua geldituko da. (Iru aldiz).

Jesu-Kristo gure Jaunaren Gorputzak gorde dezala nere anima, betiko bizitzarako. Ala izan dedilla.

KOMUNIO ONDORIAN

Fedezko aktoa.

(Sales'ko San Franzisko'rena).

¡O nere Jaungoikoa! Eskale bat jua-
ten dan bezela aberats baten atera, ala
ni egon naiz zure ate-aurrean, eta eman
dizkidatzu zure graziaren tesoroak. Zure
aragi ta odol balio aiñ andikoarekiñ jan-
tzi nazu nere pekatuen biluztea (1) es-
taltzen duan amoriozko soñekoaz. Zure
aurrean egon naiz menpeko edo esklabo
bat bere nagusiaren aurrean bezela, ta
nere eskuan utzi didazu zu serbitzea.
Pekatori bat bezela egon naiz zure au-
rrean, eta zure odolarekin kendu dituzu
nere pekatuak. Orain nago adiskide bat
bere adiskidearen aurrean egoten dan
bezela, ta amorioaren bidez Zurekiñ bat
egiñik egon nai det. Zure aurrean nago
seme bat bere aitaren aurrean egoten
dan bezela, ta eskatzen dizut umillki,
eraman nazazula egun baten, zure pri-
mez edo erentziaren jabetasuna ar-
tzera.

(1) Desnudez.

Adoraziozko aktoa.

(Sales'ko San Franzisko'rena).

¡O Jesu-Kristo, nere Jaun eta Salbatzallea! ¿Nola bear ainbat bedeinkatuko zaitut?, bada zure ontasun azkengabeaz nai izan dezun sartu instante onetan nere biotzaren etse errukarrian zure Jaungoikotasun eta gizatasunaz zure gorputz ta animaz, zure aragi ta odolaz. Zu, nere Jaun eta Jaungoikoa, nere Berterosle edo Erredentore ta Sariatzallea, nere asiera ta azken guzia, Zu nere on bakarra zerana; Zu zaude atsedeten nere animaren barrunenean.

¡Milla ta milla aldiz agurtzen zaitut o Jesus, amorez betea, nere animaren Artzai ona! Beldurturik zure Majestadearen anditasunaz, ta zure urrikaltasunen atsegiñaz zorionez beterik, auspezten naiz nere ezereztasun ondogabea eta umillki adoratzen zaitut. Adoratzen ditut nere biziaren eutskarri ta nere zurekiko elkartasun egiazkoaren ezagun-garrizat, utzi dizkidatzun zure aragi ta zure odol sagraduak. Adoratzen det nigatik arantzaz koroatua izan zan zure

buru beneragarria; adoratzten ditut, nigatik ainbeste negar-malko iñuri dituzten zure begi bedeinkatuak; adoratzten det, egi betikoak erakutsi dizkidan zure ao sagradua; adoratzten det, nigatik matrallako aiñ andiak artu zituan arpegi guziz santu ori; adoratzten ditut, nigatik illtzez zulatuak eta gurutzeko arbolari lotuak izan ziran Zure oñak; adoratzten ditut, zure niganako amorioak, ni erruki andiz besarkatzeko luzarazi zizkitzun zure besoak; adoratzten det etsaiaren burniaz zulatua izan zan zure saietz sagradu, nere berteroste edo erredentzioaren testigutzat odola ta ura eman zituan. Adoratzten det zure Biotz, ontasunez bete, gurutzean desonraturik illtzerano maitatu nauana; adoratzten det zure Gorputz guziz santu, nigatik, konta eziñ ainbat zauri ta esan eziñalako oñazeak sufritu zituan; adoratzten det zure anima guziz santu, neri zerua idikitzeke Olibo'etako baratzen eriotzara arte triste egon zana.

O nere Jesus, adoratzten zaitut, seme bati dagokion errespetoarekiñ, eta nere amoriozko adorazioan nai det eriotza-

raño Zurekiñ elkaturik gelditzea. Be-
deinka itzatzu zure graziaz nere asmo
erabaki auk, etsaien tentazio batek ere,
desegiñ eta banatu ere egiñ ez ditzan.
Ala izan dedilla.

OTOITZA

Begira zadazu, jo nere Jesus maite ta
ona! Emen naukazu zure aurrean, eta
eskatzen dizut biotz-biotzetik, itsatši di-
tzatzula nigan, fede bizi, esperantza ta
karidadea, nere pekatuen damua, ta au-
rrerakoan beñere pekaturik ez egiteko
asmo erabakia, al dedan amorio ta da-
mutasun guziaz, zure bost zauriak go-
goan dabilzkidan bitartean, asiaz Dabid
igarle santuak Zuzaz, jo nere Jaungoi-
koa! esan zituan itz auetatik: *Zulatu di-
tuzte nere eskuak eta nere oñak eta
kontatu ditezke nere ezur guziak.*

Barkamena.—Barkamen osoa, otoitz au
egiten danian Jesus gurutziltzatuaren au-
rrean konfesatu ta komulgatu ondorian, Aita
Santuaren intentziora puskatso batean erre-
gututa. (Pio IX garrenak 1858'ko Uzta-
ren 31-n.)

Te Deum laudamus.

Alabatzen zaitugu, Jauna, Jaungoiko Guzialduna; aitortzen degu mundu guziko Jauna zerala.

Zu, Aita Betikoa, lurbira guziak adoratzeko zaituana.

Zu, aingeru guziak, Zu zeruak eta potestade guziak adoratzeko zaituzte ta zuri beldur dizute.

Zuri Kerubiñak eta Serafiñak iñilldu gabe deitzen dizute:

Santua, Santua, Santua, da ejerzitzen Jauna.

Zeruak eta lurra zure gloriaren anditasunaz beteak daude.

Zu, apostoluen koru gloriatsuak.

Zu, igarle miragarri ugariak.

Zu, martirien ejerzitu gaitz gabe ta andiak.

Zu aitortzen zaitu Eliza Santuak lurbira guzian.

Aita betiko Majestade guziz andikoa.

Zure Seme beneragarri egiazko ta bakarra, Aitagandik sortua.

Eta Espiritu Santu poz-emalle, Aita ta Semeagandik datorrena.

Zu, jo Kristo! gloriako Errege zerana.

Zu, Aitaren Seme betikoa zerana.

Zu, gizona mendetasunetik ateratzeko
Birjiña baten sabelean aragiz jantzitzeaz
desdiñatu etziñana.

Zu, eriotzaren akullua ausi ondoan
sinismendunai zeruetako erreinua idiki
diezuna.

Zu, Jaungoikoaren eskuitik eseririk
zaudena, Aitaren glorian.

Eta egunen baten mundua juzgatzera
etorriko zerana.

Beragatik erregutzen dizugu Jauna,
etorri zaiteala laguntzera zure Odol ba-
lio guziz andikoaz berterosi dituzunai.

Iguzu zure santuen artean betiko glo-
rian arkitzeko grazia.

Salba zazu Jauna, zure erria, ta be-
deinka ezazu zure primeza edo erentzia.

Goberna itzatzu, Jauna, ta etzaite as-
peltu mesedeak egiten.

Egun guzietan ematen dizkitzugu es-
kerrak, egiten dizkigutzun mesedeak-
gatik.

Eta alabatzen degu gelditure gabe zu-
re izena, ta alabatuko degu betikotasun
guzian ere.

Iguzu, Jauna, egun onetan pekatutik aldentzeko mesedea.

Iduki ezazu, Jauna, gure errukia; iduki ezazu gure errukia.

Iñuri bedi Jauna gure gain zure urrikaltasuna, zugandik espera izan degun bezela.

Zugan, Jauna, ipini det nere esperantza, ez nadilla lotsatua gelditu betikotasun guzian.

Amen.

OTOITZA

Eskatzen dizut Aita Betikoa, zure ontasun eta urrikaltasun neurrigabeagatik, Jesu-Kristo nere Jaunaren merituakgatik, Birjiña guziz Santaren, eta aingeru ta Santu guzien bitartekotasunagatik, begira dezazula gure fede santu katolikoa goitu dedin, printzipe kristauen artian pake ta alkartasunak iraun dezan, erejiya sustraitik atera dedin, Jerusalem eta leku Santu aiek gregandu ditzagun, Aita Santua osasunaz bizi dedin eta bear bezela goberna dezan Eliza, ta gañerako elizako ta errietako nagusi ta agintariak

bear bezela beren eginkizunak bete ditzaten. Eskatzen dizugu era berean Eliza Ama Santaren premi espiritu ta gorputzekoakgatik, praille ta mojak iraun, geitu ditezen eta beren erregela santuak ondo gorde ditzaten, fedegabeak eta pekatu illkorrean daudenak, Jaungoikoagana biurtu ditezen, pekaturako arriskuan edo bidean daudenak, andik irtetzeko laguntza indartsua izan dezaten, onak grazian iraun, eta grazi au geitu dezaten, anima guziak zeruratu ditezen, Purgatorioko animak, batez ere zuzentasunari, karidateari, ta zure borondateari begiraturik, nik geien zor diedanak, atsedeen dezaten; indazu barkamen auen tesoroa; izan ezazu nire errukia; etzadazu utzi illtzen nere pekatuen zorra ordaindu, birtute guziak nigandu, Sakramentu Santuak artu, zugarako amoriozko akto asko ta beroak egin, eta nere erruen barkazioa iritshi, ta zure grazia ugari geitugabe. Amen.

(Otoiz au egiten bada komulgatu ondorean, sei Aita Gure ta sei Abe Mariz egiten dan estazioa eskeintzeko bezela, irabazi diteke barkamen osoa).

Goizean, jaikitzean egiñ bear dan

OTOITZA

Eskerrak ematen dizkitzut jo nere Jaungoikoa! gaurko egunaren argia ikusten utzi didazulako, zure esku altsuaren anditasunak, lurraren gañera, aiñ ugari iñuri dituan mirariaz atsegintzen naizela. Zu bakarrik zera Santua, Zu bakarrik jakintsua, Jaungoiko Guzialdun eta Betikoa, ontasuna bera, kupida ta errukiarren iturria, ta egiñ diran gauza guzien jabe bakarra. Zu maitatzen zaitut Jauna, zu alabatzen zaitut, Zu adoratzen eta bedeinkatzen zaitut, eta zuri ematen dizkitzut esker ugariak, zure esku guziz santutik artu ditudan esan eziñ ainbat mesedegatik. Oien ordañaz artzen det asmo erabaki bat, zure lege santuak agintzen didana egiteko, ta zu atsekabetu zaitzakean gauzarik ezer ere ez egiteko. Zugana nator jo Maria Birjiña guziz errukitsua! nere asmo erabaki au betetzen lagundu degidazun, eta egun onetan nere pausoak zuzendu ditzatzun,

aren jainkozko Majestadea gogaitu dezaken gauzarik batere ez egiteko. Amen.

Ostia Santua goratu ondoan eta Sakramentu guziz Santuaren aurrean egiteko

OTOITZA

Jesus, nere Jaungoikoa, nere Berterosle edo Erredentorea, nere bizia ta nere argia, eskatzen dizut Jauna, sartu dezazula nere animan zure jainkozko graziaren argi-errañu bat, pentsatzen, esaten eta egiten dedan guzia izan dedin zure anparu guziz altsuaren azpian jarria, onela zure serbitzu santutik beñere ez aldentzea iritzi al izan dezadan.

Amen.

Gurasoak egiñ bear duten

OTOITZA

¡O Maria guziz maitea, gaiñoen osasuna; Birjiña guziz garbi, graziaz betea, Zeruko ta Aingeruen Erregiña! Zugana gatoz ¡o Jesu-Kristoren Ama guziz altsua!, gure premia guzietan lagundu de-

giguzun, Zure anparupean jartzen ditugu gure umetsoak, arrisku guzietatik aldendu ditzatzun; guk irakutsiko diegu Zure izen guziz Santua alabatzen eta bedeinkatzen, eta Zuk, nere Ama, zaitu itzatzu beren fedean beti iraun dezaten, beñere birtutezko bidetik aldendu gabe, guziok egun baten Zu zeruan alabatzera ta bedeinkatzera jua gaitean. Amen.

Birauren orde z gorapenak. ⁽¹⁾

Onetsia (bedeinkatua) izan bedi Jaungoikoa.

Onetsia bere Izen Santua.

Onetsia Jesu-Kristo Jaungoiko ta gizon egizkoa.

Onetsia Jesus'en Izen Santua.

Onetsia bere Biotz guziz Sagradua.

Onetsia Jesu-Kristo Altarako Sakramentu Santuan.

Onetsia Jaungoikoaren Ama goratu, Maria chit Santua.

Onetsia bere Sorkunde santu ta garbia.

Onetsia Ama ta Dontzella Mariaren Izena.

Onetsia Jaungoikoa bere aingeru ta Santuetan.

(1) Jaun Sakramentukoa bere tokian utzi aurrean esateko oso dira egokiak, eta oitura au erri askotako da.

Azterketa (esamiña) egiteko itaunak (*)

LENENGO AGINDUA:

Jaungoikoa gauza guztiak baño maiteago izatea.

¿Zenbat denpora da autortu (konfessau) zerala? ¿Ondo autortu ziñan? Charki egin baziñan, ¿zenbat bider autortu ta jaunartu dezu ordutik onera? (Urte edo il bakoitzean onenbeste, guchi-gora-bera).

¿Ba-dakizu ikasbide edo dotriña(1)*?

¿Ukatu dezu gure Erligio Santuko egirik, esateko, inpernua dagola*? ¿Eztabaidan ibilli edo dudatu dezu zeure-artian*? ¿Ukatu dezu aoz olako egirik, zeure barruan ziñestu arren*? ¿Olako

(1) Izar aundi, (beltzagoa), dauzkaten utseginak beti dira larriak, ezaupide ta nai osuaz egin ezkeru; ta orregatik esan zenbat bider egin diran. Izar chikidunak, pekatu larriak izateko ezaupide ta nayaz gañera, gai pisua euki bear dute. Izar bagekoak beti dira ariñak.

(*) A. Basabe'k, San Inazio'ren Ejertzijuetatik.

autuetan dabiltzanei aurrerapiderik eman diezu galdetuaz, arpegi argia ipiñita, edo parre eginda *? (1) Ziñestea galdu, naiz oztutzeko, paper edo libururik irakurri, saldu, erosi, euki, edo eman dezu *?

¿Egon zera luzaro otoitz edo erregurik egin bage *? ¿Nola egin dezu?

¿Apaiz jaunei (2) edo gauza santuei lotsa galdu diezu *?

¿Jaungoikoaren kontra jeiki zera, esanaz, esatebateko, eztala zuzena, edo errukiorra, zeu edo zeureak naigabetan daudelako *?

(1) Onelako zinezgalduei arpegi charra erakusten etzayelako, zabaltzen dijoaz euskalerrian ere, gure ziñiste ederraren kontrako esanak, kalterik aurdiena, fedearen oztasuna, dakuzkienak. Jaungoikoak irakatsi ta Eleiza-Amak ziñisteko erabakita dauzkan egiak ukatzea, iru pekatu aurdienetatik bat da erejiako pekatu ikaragarria, gure aurrekoak eriotzaz zeatu edo kastigatzen zutena.

(2) Apaizen kontra ekiteko oitura, kaltekorrena da, itsutzen dualako Jaungoikoaren grazia zerutik lurrera ekartzeko daukagun odi edo urbidea, apaiza. Jakitekoa da orixe artu lutela masoyak Erljioa galtzeko biderik ziu-
rentzat.

¿Salbatzeko ichodopenik galdu dezu, edo uste izan dezu, bestera, agindu guztiak bete gaberik salbatzea*?

¿Igarleagana (aztia) juan, edo juateko esan dezu*?

BIGARREN AGINDUA

Jaungoikoaren izen santua alperrik ez aitatzia.

¿Jaungoiko nai Santuei biraurik ezarri diezu*?* (1)

¿*Zin edo juramenturik egin dezu*

(1) Iru pekatu nagusienak utzita, auxe da beste gustiak baño aundiagoa: bere ondoan eztauko zer ikusi ezta gizona iltzeak ere.—Oituraz esaten det—Ainbat charrago, zer esaten dezun dakizula esaten badezu. Erdel-belarchar au euskalerrian ere sartzen dijua, guraso ta aginpidea dauken beste gustiak, egiñalak egiten ez dituztelako. Oitura deabruzko ori kentzeko, goizean-goizean erabaki biraurik ez esatea; ta uts egiten badezu, zigarrorik ez erre egun artan; edo zenbat bider esan dezun, ainbeste kurutze egin miñgañaz lurrean oera-kuan.

Re esanda, Jaungoikoaren izena aitatzia, ezta pekatu larria; ezta *como hay Dios*, gezurrez esatea ere; *Jaungoikoaren egia* ere ez.

gezurrez edo ezta-baidan, Jaungoikoa, naiz bere izatea berariz agertzen duten gauzak lekuko edo testigutzat ipiñita*?

¿Okerren bat egingo dezula-ta, zin edo juramenturik egin dezu*? (1)

¿Jaungoiko edo santuei egindako *eskeintzari edo botuak*, bete gaberik, alde zula, utzi dituzu*? (2)

(1) Olakoak ez dira bete bear.

Umeak, atzaparrak kurutzea eginda, muñ egiten duenean; edo *Jaungoikorako* esaten dubenean, eztirudi benetako zin edo juramentua. Baña ez dira, ez egiñ, ez esan bear, charragora oitu ezditezen, eta Jaungoikoaren izen santuari dagokian lotsagatik.

(2) Gauza ona da eskintzari edo botua; baña ezta ona ariñegi egitea, konfesoreari galdetu gabe.

Sarritan agintzen dio batek Jaungoiko nai santuei au edo bestea egingo duala, artarako pekatuaren azpian lotu gabe. Oek eztira eskintzariak, eta bai erabaki edo asmo onak; eta orrelako erabaki, asmo edo proposituak aus-tea, ezta, berez pekatu.

Guraso ta aginpidea dauken beste guztiak, kendu edo indargabetu ditzake mendekoen eskintzariak. Senar-emazteak ere bai, batak bestiagan dankan eskubidearen kaltezkoak badi-ra. Baita konfesoreak ere batzuetan aldatu ditzake Kruzada'ko Buldaren bidez.

IRUGARREN AGINDUA

Jai-igandeak gordetzea. (1)

¿Zabarkeriz utzi dezu Meza entzun gabe (2), edo Ofertorioa asita eldu zera*?

(1) Aita Santu Pio X.^{ak} zortzi jai-egun, igandez-ostean, beste guztiak kenduta, utzi ditu: Jesusen Jayotza (Natividad), Bill-ebai-kundia (Circuncisión), Andra-Mariaren Sor-kunde Garbia (Concepción), Jasokundia (Asun-ción), San Pedro ta San Paulo'rena, ta Santu Guztiena. Gutzat berriz beste iru berritu ditu: San Jose'rena, Corpuz Cristi'kua, ta Santiago Apostolua'rena: Gipuzkoa'rako gañera San Iñazio'rena.

(2) Eztauke obligaziorik Meza entzuteko:

I) EZIN DUTENAK, eta dira: 1. *Kalte aundi-choa* datorkienak; edo, bestetan eztaukaten irabazi aundia, galdu bear dutenak. 2. *Gaixoak gaixo-ostean*, bildur badira gaitz egingo diela echetik irtetzeak. 3. Beste edozein *bildur* edo *lotsa aundichoa* igaro bearko lutekenak. 4. Nai-naiezko *bidaldia* (beajea) egin bear dutenak, lenago edo geroago ezin entzun badute. 5. *Otsein edo serbitzariak*, nagusiak uzten ezpadiete; baña beste nagusi bat, aldala, billatu bear dute. 6. *Eleiza urruti daukatenak*.

II) OPIZIOGATIK egon litezke Meza gabe:

1. *Artzayak eta bizar-kentzalleak*, ezin ba-

¿Zure nagikeriz utzi dezu meza-nagusia, bezperak, errosarioa, sermoya, dotriña, ta onelako jaya ondo donesteko gauzak?

¿Mezatan izketan, edo gogo bage, egon zera?

¿Lanik egin edo eragin dezu ordu biterdi inguru*? (1)

dute beste bat euren ordeztu ipiñi. 2. Amak, umeak echean euki bear dituztenean, edo Eleizan ezin egon diranean, garraxika ibilli gabe, ez eurak Mezarik entzun, ez bestiei entzuten uztenez diela.

III) KARIDADEAGATIK egon litezke Meza gabe, gaixoak, naiz echea, norberena naiz besterena, zaintzen geratzen diranak.

(1) Eztaukate obligaziorik bearra uzteko:

I) EZIN DUTENAK. Oek dira: *Kalde aundichoa* datorkienak, esanbaterako, zoroko gauzak galtzeko arriskuan badaude. 2. *Irabazi aundichoa*, beztetan ez daukatena, galdu bear badute. 3. Astegunean euren edo echekoen *jantziak* garbitu edo konpondu ezin dituztenak, jantzi oek garbitu edo konpontzeko.

II) OPIZIOGATIK. 1. *Ille, naiz bizarkentzalleak*, besterik euren tokian ezin utzi badute. 2. *Sastre ta jostunak* ezkontza edo beste onen antzeko gauz bearrezkoa dau jantzia bukatu ezin badute; edo bezeruei, ala-bearrez, emandako itza, ezin bete badute. 3. *Nagusiak* agin-

¿Barauak egin dituzu edo egun debekatuetan aragirik jan*? (1)

tzen dutenean; baña, aldala, beste bat billatu bear da.

III) KARIDADEAGATIK: Erretzen dagon echea itzali, naiz gaisoari laguntzen, naiz beartsu batentzat lanean egon danak.

Mezarik ez-entzute ta lana egiteaz gauza bi adierazo bear dira: Bata da onetan eztala ibilli bear norberaren eta bai Parroko jaunaren iritziz, aldala. Bestea: ezin danean Mezarik entzun, edo lan egin lezakenean, ezta izango, esan degun bezela pekatu; baña Meza santua izanik berez, ta Meza nagusia oraindik geyago, gure animen janaria; Mezarik entzuten eztuana, ta batezere jai-egunetan lana egiten duana, arrisku aundian dago anima makaldu ta gorputzak azpiratuta geratzeko. Orrelakoak, abereak bezela, mundu onetako gauzetara guztiz makurtuta bizi oi dira, lantegi edo fabrika aundietan ikusten dana. Eta gorputzari janariren bat ezin eman zayonean, beste bat billatzen degun bezela, animarentzat ere, Mezarik ezin entzun danean, naiz dala erreguak egitea, naiz liburu on bat irakurtzea, guztiz izango da egokia. Baña, berez, eztago olako obligaziorik.

(1) Eztauke obligaziorik baraurik egiteko:

1. EZIN DUTELAKO: gaixoak gaisonduan, edo beste edozer makaltasuna daukatenak. Luzaro jan gabe ezin egon diranak, esateko,

LAUGARREN AGINDUA

Aita ta Ama onratzea.

SEME-ALABAK: ¿Egon izan zera echean *maiz* bekoki aztunaz, itz banakak eta gogorrak besterik esaten ezdituzula, gurasoak biguñ egin arren*?

¿Iseka edo burlarik egin diezu*?

¿Zematu edo amenazau dezu guraso-

aurdunak, naiz bularreko umeak dauzkatena; eta, eskekoak izan ez arren, barau-eguneko jatordu nagusian, baraua gordetzeko bear lezaken beste jan ezin dutenak.

2. *Opizioa gatik*. Ezdaukate obligaziorik barau egiteko: nekazariak, achurlariak, argiñak, ieltseruak, arotzak, errementariak, zapatariak, okin edo panaderuak, bidaldi luzea oñez egin bear dutenak, eta beste oen antzekoak. Jostunak, ala emakumeak nola gizonenak, berez eztaude libre edo askatuta: baña eurok, naiz beste edozeñek ezin badute bete euren egin bearra barau eginda, eztaude bear-tuta barau egitera, ta bai ez egitera.

3. *Urtea katik*. Eztauke barau egin bearririk ogeita bat urte bete ezdituetenak, edo irurogeigarren urtea, ta emakumeak berrogeita-amargarrena, asi dutenak. Garizuma guztian (ezta igandetan ere), ta beste barau egunetan ezin lezake jan aragirik. Baña aragi-buldak

rik bekoskoz, itzez, naiz eskuz; bultza egin edo jo dituzu*? (1)

¿Eriotzarik opa izan diezu euren ontasunak zeureganatzeko, edo lasayago bizitzeko*? ¿Biraunik ezarri*? ¿Euren esanak egin dituzu, Mezatarra ta beste gauza onetara juateko, lagun gaiztokin ez ibiltzeko, laister echeratzeko, ta beste oen antzeko gauza pisuak *gogor agindu* dizkitzutenean*?

¿Bete dezue euren azken-nai edo testamentua*?

¿Irabazten dezuna eman diezu, edo gorputzeko ta animako bear-izanetan lagundu diezu, esateko, laister konfesatzeko, zentzua galdu arte ichodon gabe*?

GURASUAK: ¿Ardura aundia euki de-

ematen du eskubidea, arraya bakarrik jan bear litzaken egunetan, arrai ordeaz aragia jateko. Ezeuki edo pobreak ez dute bulda bearrik. Bulda daukanak artu lezake aragi-salda ta gero arraya, jatordu batean; naiz arrai-salda, ta gero aragia, jatordu batean, buldaz aragia jan lezaken egunetan.

(1) Onelakoak iltzeko agindu zuan Jaungoikoak bere legean. (Exd. 21-15). Berdin gurasuei birauak ezartzen ziztenak ere. (Lev. 20-9).

zu zeure seme-alabei, ainbat laisterren irakasteko erreguak, dotriña ta dotriñaren azalketa edo esplikazioa, Meza entzun eragiteko, ta konfesau ta komulgau ditezen, ezaguerara iritzi ezkerro, au da, zaspí urtez guchi-gora-bera, Aita Santuak oraintsu agindu duan bezela*?

¿Lagun charretatik aldendu dituzu?
¿Erromerira, edo neska-mutillak biltzen diran beste lekuren batera, zainduko dituzten lagun gabe, juaten utzi diezu*? (1)

(1) Deabruak sartuta dauka, zoricharrean, euskalerrian erromerietako oitura, ainbeste animen galtzallea: ta, batezere baserrietan zorotsat dauzkate aldentzen diranak.

Baña oitura ori gora-bera, egia da Eleizako Irakaslari gustiak diotena: beartuak daudela gurasoak euren seme alabak pekatuko arriskuetatik, aldala, aldendutzera.

¿Gaurko erromeriak berriz, norentzat eztira pekatuko arrisku? ¡Eta gurasoak arkitzen dira, seme-alabei erromeriak galerazi bearrean, eurretara juateko zirikatzen dituztenak!

¡*Kolokatu* egin bear ditugu! ¡Ederki *kolokatu* dituzute askok inpernuaren erdian! Obeto *kolokatuko* zinduzten ondo azita, erririk-erri animen arrapatzalle ta bestien parregarri erabiliaz baño.

¿Illuntzera ezkerro, batezere alaba echeratu dezu*?

¿Lau, bost urtetik aurrera seme-alabei alkarrekin, edo senar-emaztien gelan (koartean), lo eragin diezu*? (1)

¿Senar edo emaztegayakin alaba edo semeari bakarrik egoten utzi diezu*? (2)

¿Pekaturako beste edozein arrisku edo okasiotik, aldezu, aldendu dituzu*? (3)

¿Agindu onetan galerazita dagola ikusten dezun gauzaren bat egin dute-

(1) Umeak gaur uste dan baño begi argiagoak dakarzkite: ¡Amaika umek santutasunaren bizilekua izan bear luken echean, euren errugabetasuna edo inozentzia galtzen dute, gurasoen ardura ezagaitik! ¡Oyek eztira gurasoak: euren biotzeko zatien, umien, eriozleak dira! *Non sunt parentes, sed preemtores.*

(2) Onelako gurasoak ezin egon litezke pakean euren kontzientzian, dio San Ligorio jakintsuak.

(3) Auxe da gurasoak euren seme-alabae-tako dauzkaten egin bearretan neurririk laburrena ta zuzenena. Ikusi nun eukitzen zinduzten gaztetan pekaturako arriskuak; anche eukiko dute zeuen seme-alabak ere. ¡Aldendu! Osterantzean daukazute zer ikusi Jaungoikoaren aurrean.

nean, atzeratzeko-aña errietan egin edo jo dituzu?

¿Bialdu dezu, edo, aldezula, juaten utzi diozu mutillari, bear aundirik gabe, urrutiko errietara, diru apur bat ekartzearren euren animak, eta ez guchitan gorputzak berak, galtzeko arriskurik aundienaz*? (1)

¿Bialdu dezu alaba mirabe edo serbitzera, nolako echean sartzen dan, edo nola dabillen begiratu gabe*?

¿Utzi diezu seme-alabei aukeran eta euren adin edo sasoyan bizibide (estadia) artzen*? ¿Galerazi diezu erlijioso naiz apaiz izatea (2); ala, bestera, orretarako beartu dituzu*?

(1) Mutil askok zerbait izateko, ta gurasoak Ameriketatik etorritako batzuen diruei begi argiegia ipiñita, artzen dute asmoa eurak juan; edo semeak, charrago oraindikan alabak, bialtzeko: etorri diranen diruei ainbeste begiratu gabe, obeto pentsatuko baluteke nolako bizitza, ta batezere, nolako eriotza Ameriketan askok eukitzen duten, eta euren siñesmen eta salbazioa bear dan ainbat maite baluteke, beste ardua izango luteke onetan. Besterik eziñean baizik, ez da bialdu bear.

(2) Au pekatu larria da bidegabe edo arra-

¿Erakutsi charrik eman diezu zeure biraubaz, apaiz edo erlijioaren kontra jardunaz, batari bestiari baño maitetasun geyago, bidegabero, erakutsiaz, echeratze berandukoaz, edo beste nolerebait*? (1)

SENAR-EMAZTEAK: ¿Irakatsi diezute alkarri zale-charrik, arpegi illuna *maiz* ipiñita, itz mingarriak edo asarreak esanda, naiz itzik egin gabe luzaro, gauza utsakaitik, egonda? ¿Irabazi dezuna eman diozu emazteari: ala gorde dezun gauza aundirik taberna, kafe ta batezere

zoigabe egiten bada, naiz kristau ontzat dau den askok sarritan egin. Onetan ez bakoitzak bere buruari ziñestu; galdetu konfesore jakintsu, kontzientzi aundiko bati. Baña eroan beragana seme edo alaba ere, bere arrazoyak ematera. Biei entzun gabe, ezin erabakirik eman lezake zuzen.

(1) Emen ezarri diran gurasoen egin-bearrak Eleizako Irakasletatik ateratakoak dira: oekin erabaki edo juzgatuko ditu Jaungoikoak. ¡A zein guchi izango diran, orduan, salbatzen diran gurasoak! Baña, beste aldetik, gaitsago da gizionezkoentzat, eskondu gabe Jaungoikoaren aginduak gordetzea.

jokurako, zure emazte ta seme-alabak gosez edo zorrez utzita?

¿Emaztearen baimena gabe aldendu zera luzaro zure echetik? ¿Etorri zera berandu echera, emazteari asarrea ta umiei erakutsi charra ematen diezula*?

¿Eskurik jaso diozu, edo asarraldi aundirik eman, batezere aurdun dagoa-la, edo lan geyegirik olakoetan eragin diozu*? (1).

¿Matrimonio Santuaren kontrako kezkarik badaukazu*?

ANAI-ARREBAK: ¿Asarre aundirik euki edo luzaro itza alkarri ukatu diozute*?

NAGUSIAK: ¿Mendekoei gauza onak irakasteko ta gaiztakerietatik aldentzeko ardura euki dezu, seme-alabagatik esan dan bezela*? ¿Gogorki artu dituzu*? ¿Eman dizkiezu, eta laister, euren irabaziak*?

¿Euren utsegiteak agertu dituzu, biarrik gabe*?

(1) Onegaitik ainbeste aur galtzen dira, ta beste asko jayo argal, indargabe, ezertarako gauza eztirala; edo beintzat izan bear luteken baño makalago: orixe da gure izakera ederra galtzen duan sustrayetatik bat.

MENDEKOAK: ¿Bizi zera asarre, otsein edo serbitzaria zeralako? (Jesus'ek berak esandu bere buruagaitik: Ez naiz etorri besteak menperatzeko, baizik neu menpeko izateko).

¿Zure ardurapeko gauzak galtzen utzi dituzu*?

¿Denbora asko igaro dezue alperkerian*?

¿Nagusien kontra jardun dezue, edo agertu ixillik gorde bear zan gauzarik*?

¿*Botua* eman diozue Erlijio ta erriaren alde geyen egingo dutenei, Aita Santuak dion bezela, begiratu gabe nork emango dizun diru geyago; nori zor diozun esker geyago; zein dan adizkidea, zein auzokoa ta orrelakoak*?

Endore (alkate), ziñegotzi (ayuntamentuko), auzi-epalle (juez), osalari (mediku), irakaslari (maixu) ta onelakoak aztertu bitzate ondo euren egin bearretan.

BOSGARREN AGINDUA

Ez iñor iltzea.

¿Iñor il* (1), zauritu edo jo dezu*?
¿Olakorik nai izan*?

¿Gorrotorik badiozu iñori*? (2) ¿Bira-
raurik ezarri*? (3)

¿Eriotzarik opa izan diozu zure bu-
ruari naigabe *chikiagatik**?

¿Edan (4) edo-jan dezu gaitz egitera-
ño*? ¿Beste zer-edo-zertan zure edo
bestien osasunari kalterik ekarri diozu?

(1) Uste dan baño maizagotan gertatzen
dana da au. Umea guztiz da biguna, batezere
jayo baño lenago. Onelakuei jakiñen ganera
eriotza ekartzen diena doibazkatua, (eskomul-
gatua) dago. Baña autorkuntzan (konfesioan)
zuzentzen eztan gauzarik eztago; ez, ba, atze-
ratu orregaitik.

(2) Gorrotoa ez dan gauza edo beintzat az-
tuna ez dana, pekatu aunditzat artuta, atze-
ratzen dira ez guchi konfesiotik; esan guztia,
dan bezela, konfesore jakintsu bati.

(3) Ilko al-zera ta onelakuak gogo edo in-
tentzio gabe esatia, pekatu arriña bakarrik da.
Baña ez esan, batezere gurasuak.

(4) Moskorren azkena, geyenean, zoro-eche
edo bideertza da, mundu onetan; bestean, in-
pernua.

¿Lagun urkuen animari gaitzik egin diozu, pekaturako bidea emanda, itzez, kiñuz edo egitez; kalean, plazan, tabernan, kafe ta beste batzarretan (1); eta, oraindik charrago dana, umiei naiz beste errugabeko edo inozentiei begirik argitu diezu*? ¿Asarratu zera? Bestien izakera (genio) charra eraman?

SEIGARREN ETA BEDERATZIGARREN

AGINDUAK

Aragizko pekaturik ez egitea.—Iñoren emazterik ez nai izatea.

¿Atsegin charrik, jakiñean, artu ote dezuz pentsamentuz, nayaz, itzez edo egiñaz: bakarrik, besteakin, eskondugabe edo eskonduekin, edo persona ez danakin*?

Esan zearo, lotsa gabe, Jaungoikoari bezela, bakoitzak zenbat bider, egunean, astean edo illean, guchi-gora-bera, iñor izentatu gabe.

(1) Auxe da gaizbide edo eskandaloko pekatu aundia. Beragatik dio Jaungoikuak: «*Animam pro anima*». ¿Anima ostu dezuz? Zeure animaz ordainduko dezuz.

Aitortu, gerta zaizkitzun beste argal-keri ta loikeri mueta (clase) guztiak, entsunaz, esanez (kontu, ipui ta kantan), ikusiaz, (zure edo bestien gorputz billoitz, estampa, komedia, zinematografo); irakurriaz (liburu, nobela ta oyen antze-koak), dantza, (1) musuka, estutze, bul-

(1) Naste-dantza edo *balseoa* berez ez dirudi pekatu, mortala edo aztuna beintzat. Esan nai da, naste-dantzan egiten duten guztiak, egiteaz bakarrik, beste zerbaitegaitik ez bada, ez dala ziur pekatu aztuna egiten dutela. Baña ala eta guziz ere, egiten da pekatu larria naste-dantzan, naiz beste edozeiñean: 1.º Ikutu charrak egiñaz edo kontu zatarrak esanez, naiz gogapen edo pensamentu, ta zalekeri loyei leku emanaz. 2.º Ikutu charrak egiten utziaz, naiz norberak atsegiñik artu ez, uzteko premian ez bada arkitzen; ba, lapurretan beste bati, lagundu bearrez aurkitu gabe, laguntzen dionak, berak ostu ez arren, pekatu egiten badu; baita ikutu charrak egiten uztea, nola dantzan, ala beste edozeiñetan, izango da pekatu larria, naiz norberak atsegin loirik artu ez.

Izan diteke, batzu-batzuek ez batera ta ez bestera pekaturik ez egitea. Baña bildu saill aundian, estu-estu, neska buruariñak, loikeriz eta ez guchitan ardoz betetako mutillakin; soñu, kanta, jantzinasai ta beste aragiaren piz-

tza, golpe, besarpetu, zirri ta beste aragizko atsegin artzera guztiak. Ba, gauza bat jakin bear da agindu onetan, ezaguera ta borondate osoaz, ezkontzaz-ostean artzen dan atsegin char guztia, pekatu astuna edo larria dala. Eztago, orduan, zer arritu ainbeste izatea kondenatzen diranak, eta kondenatzen diran eundik larogeita emeretzi, pekatu onekatik kondenatzea; bai Jaungoikoak pekatu

tubide guztiak dauden tokian; ibilli ordu bat edo bian loikeria besterik ez ikusi, ez entzun, ez billatzen estala: eta ala guziz ere pekatu larriz loitu gabe irtetzen dana, benebenetan, edo da aingerua edo da arria.

Orrechegaitik ezin ziñestu det, jolastea baño beste asmorik ez daukatela dioen guztiak, egia aitortzen dutela; ba zartzaruan edo eskontzeko egiten duten konfesioan, esan oi dute nastedantzagaitik: ¡Banekian gauza ona etzala, baña gaztiak izan!

Egin dezagun eztala orduan pekatuan erortzen, baña ¿nolako irudiak sartuko zaizka buruan? ¿Nolako gogapen edo pensamentu, zale ta pekaturako makurkeriya ez zayo ortik sortuko? Ala ikusten dira eun dantza-zaletik ez dirala pekatu larri gabe lau arkitzen. Balak gerretan gorputzak-aña anima, iltzen ditu nastedantza madarikatu onek. ¡Bai! Aragiak as-

itsusi, ezin-esaneko au, ainbeste gorrotatu ta neke edo kastigurik izugarrienaz, antziñatik onuntza, zigortu ta kastigatu izan du.

ZAZPIGARREN ETA AMARGARREN AGINDUAK

Ez ostutzea.—Ez besteren ondasunik (bidegabe) nai izatea

¿Ostu dezu, edo ostutzeko gogorik euki dezu*?

¿Saldu erosietan bidegabekerik egin dezu, gauza ez diranak salduta, edo onak charrez nastuta, bestiak oi duten baño

ten ditu naste-dantzak, aragiak dauzka oñian, eta aragiak jarraitzen die. ¡Kendu aragia! Eta munduko gauzarik zoruenak bezela, bertatik kenduko dira naste-dantzak. Orregaitik billatzen dute naste-dantza-zaleak, gauba, bakar-tasuna, edo erbestea.

¡Bai! Konfesore, sermolari, agintari ta batezere gurasuak, guztiak alkar-artuta, alegiñik aundienak egin bear dira, deabruak, askotan ardosaltzalliakin bat eginda, gure artean sartu diguten erbesteko oitura gorputz-animen ondatzalle au, albait laisterren euskalerra maite-tik bere tokira botatzeko.

goraguan emanda, neurri chikiagoak eukita, edo, jakiñean, ostutakoa erositu*?

¿Jokoetan tranpaz oker irabazi dezu*?

¿Testamentu ta beste azken-aginduak bete dituzu*?

¿Zorrik, aldezula, garbitu gabe badaukazu*?

¿Kalterik, jakiñean, egin dezu*?

¿Ostu, naiz kalterik egiteko agindu, edo orretarako biderik eman, edo nole-rebait lagundu dezu*?

¿Ostutakoa, edo jakiñean egindako kaltea, al-izanda, ez dezu biurtu edo ordaindu*?

ZORTZIGARREN AGINDUA

Gezurrik ez esatea. — Iñori egin ez duanik ez ezartzea.

¿Gezurrik esan dezu*? (1)

¿Esanda iñori kalterik ekarri*?

¿Erantsi edo jaso diozu iñori gezurrezko gauzarik*?

(1) Gezurrik ez da esan bear purgatorioko anima guztiak ateratzeagatik ere, ainbat guchiago gauzak *erremediatzeko*: onetarako ohea da egia ezkutatzea.

¿Gaizki-esaka egin dezu, bestien gauza ònak chartzat artuta, charrak geituta, onak ukatuta; edo bestiak goratzen dituztenean, ixillik, asmoz, geratuta*?

¿Murmuratzen edo gaizki-esaka dabiltzanei aurrerapiderik eman diezu, galderak eginda, edo arpegi argia erakutsiaz*?

¿Kartarik idiki dezu, jakiñik gauza aztunen bat daukala, edo chartzat jabeak artuko duala*?

¿Bata-bestien kaltez entzundakorik esan dezu, alkarren artian asarrea sartzten dezula*? ¿Izen onaren edo kredituaren kontrako gauzarik esan dezu, naiz egia izan, zabaldugabea danean*?

¿Iñoren kaltez uste edo juzgu charrik euki dezu uskeriak gaitik*?

¿Bestien izen ona galdu dezunean; naiz egia esanda, biurtzeko alegiña egin dezu, esanaz, esatebaterako, oker esan zenduala; edo beste gauza on bat bere alde aterata*?

JAUNARTU-ONDOREAN

S. INAZIO'REN OTOIZA

Artu, Jauna, ta zeuretu zadazu nere aukeramen (libertade) osoa, nere oroimen, adimen eta naimen osoa, daukadan eta dedan guztia. Zuk eman zizkidazun: zuregana, Jauna, biurtzen ditut, zurea da guztia; agindu gogo osoaz. Zure maitetasun eta grazia eman, eta naikoa det.

300 eguneko barkapenak, egunean bein esanda. (Leon XIII).

S. INAZIO'K ESAN OI ZUAN

OTOITZA

Kristo'ren anima, santu egin nazazu.

Kristo'ren gorputza, salba nazazu.

Kristo'ren odola, ase nazazu.

Kristo'ren bularreko ura, garbi nazazu.

Kristo'ren Pasioa, indar nazazu.

¡O Jesus ona! entzun zadazu.

Zure zaurien barruan gorde nazazu.

Zugandik aldentzen ez ni lagatu.

Etsai gaiztoagandik gorde nazazu.
Nere eriotz-aldian dei zadazu.
Eta Zuregana juateko agindu zadazu.
Santu guztiakin Zu gozatzeko
Betiraunde guztian. Amen.

300 eguneko nekaskitzak esan-aldi bakoitzean; zazpi urtekuak egunean bein Meza, naiz jaunartze ondorean, eta barkapen osoa illean bein konfesatu, jaunartu, Eleiza ikus-tatu ta bertan zerbait erregututa.

¡Eleiza Jaungoikoaren echea da!
¡Eleizan ez chisturik bota!
¡Eleizan ez itzik egin!
¡Eleizan ez errezatu altu!
¡Eleizan itzalez (errespetuz) egon!
¡Eleizan emakumeak burua estaldu!

AGURTZA (ERROSARIOA)

ESATEKO BIDEA

Kurutze Santuaren...

Jesu-Kristo nere Jauna...

V. *Domine, labia mea aperies. Esan
nai du:*

(Jauna, nere ezpañak idikiko diz-
kidatzu).

R. *Et os meum annuntiabit laudem
tuam.*

(Eta nere aubak Zure gorapena
esango du).

V. *Deus, in adiutorium meum in-
tende.*

(Jauna lagun zatzakit).

R. *Domine, ad adjuvandum me
festina.*

(Neri laguntzera, azkar zatozkit).

V. *Gloria Patri, et Filio, et Spiritui
Sancto.*

(Gorapena Aitari, ta Semearia ta
Espiritu Santuari).

R. *Sicut erat in principio, et nunc,
et semper, et in sæcula sæcu-
lorum. Amen. Alleluya.*

(Lenengotan zan bezela, orain ta beti ta betiraunde guztian. Alas̄en. Poza).

EDO. *Laus tibi, Domine, Rex æternæ gloriæ.*

(Gorapena Zuri, betiko atsegintzako Errege Jauna).

Batek: Maria grazia ta errukiaren Ama.

Besteak: Etsayetatik gordeaz, eramangu zugana.

POZEZKO ZIÑESKAYAK

(Astelen eta ostegunerako).

- 1.^a Jaungoikoaren Semea gizontzea.
Aita gure bat, amar Agur-Maria ta Gloria.
- 2.^a Ama Birgiñak Isabel aideari egin zion ikustaldia.
- 3.^a Jaungoikoaren Semea jayotea.
- 4.^a Ama Birgiñaren eliz-sartzea.
- 5.^a Jesus galdua arkitu zanekoa.

ATSEKABEZKO ZIÑESKAYAK

(Astearte ta ostiraletako).

- 1.^a Jesus'ek Jetsemani'ko baratzen egin zuan otoitza.
- 2.^a Jaungoikoaren Semea astindu zutenekoa.
- 3.^a Jaungoikoaren Semea arantzaz koroitu zutenekoa.
- 4.^a Jesus'ek Kalbariora Kurutze aztuna eraman zutenekoa.
- 5.^a Jaungoikoaren Semea Kurutzean josi ta il zutenekoa.

ATSEGIÑEZKO ZIÑESKAYAK

(Asteazken, larunbat eta igandetako).

- 1.^a Jaungoikoaren Semea piztu zanekoa.
- 2.^a Jaungoikoaren Semea zeruratu zanekoa.
- 3.^a Espiritu Santua etorri zanekoa.
- 4.^a Ama Birgiña zeruratu zanekoa.
- 5.^a Ama Birgiña zeruan koroitu zutenekoa.



BEGOÑA'KO GURE AMA

S. BERNARDO'K AMA BIRJIÑARI EGITEN ZION OTOITZA

Oroitu zaitez, Birgiña Maria guztiz errukiorrori, eztala iñoiz entzun Zuk utzi dezula, zugana irichi, ta Zure laguntasuna eskatu duanik. Ichodopen onezaz sendoturik, Zugana nator laisterka. Zure aurrean nago negarrez. Ez, Jaungoiko-Semearen Ama, nere itzei ezentzunik egin; eta bai arrera onaz aditu zadazu, ta eskatzen dizudana eman zadazu.

300 eguneko barkapenak, bakoitzean; osoa, illean.

ERIoTZA ONA IRISTEKO OTOIZA (1)

Ontasun utsezko Jaungoikoa ta Aita errukior nere Jaun Jesu-Kristo. Emen naukazu zure aurrean biotz apal eta damutuaz.—Zure eskuetan ipintzen det

(1) Eskari onek 15 urtekin katoliko biurtu, ta 18'g. santu-usayan il zan protestante neska batek asmatuak dira.

nere azken-ordua, ta bere ondoren etorriko zatan guztia.

Nere oñak, zirkin bage geratuaz, mundu onetako bidaldiaren azkenetan nagola adierazten diatenean: *Jesus errukiorra, erruki zatzakit.*

Nere eskuak ikaraz ta sor, oratuta dauken kurutzea estutu eziñik, oegañera erortzen uzten dutenean: *Jesus errukiorra, erruki zatzakit.*

Nere begiak, gañean dedan eriotzaren bildurrez kristaldu ta irtenik, euren begirakune erdi-illak Zugana zuzentzen dituztenean: *Jesus errukiorra, erruki zatzakit.*

Nere españ otz ta dardariak zure izen gozoa azkenez esaten dutenean: *Jesus errukiorra, erruki zatzakit.*

Nere arpegi ori ta zurbilduak ingurukuei tamal (lastima) eman eta bildurtzen dituanean; eta nere buruko illeak eriotz-izerdiaz azkortuta (goratuta), nere azkena urrean dagola agertzen dutenean: *Jesus errukiorra, erruki zatzakit.*

Nere belarriak gizonen izketara betiko ichi, ta betiraun osoan zorioneko edo zoricharreko egingo nauen epaya entzu-

teko idiki bear diranean: *Jesus errukiorra, erruki zatzakit.*

Nere irudimenak, irudi bildurgarriz ikaratuta, eriotzarañoko estutasunak dakarzkitanean; eta nere gogoa, zure zuzentasun eta nere erruen oroipenaz zorabiatuta, Zuganako ichodopena galdu nai ditan inpernuko etsayakin burrukan dabillenean: *Jesus errukiorra, erruki zatzakit.*

Nere biotza, gaixo ta miñez makal eta estu, eriotzako bildurrez konkortu, ta nere salbazioko etsayakin burrukan nekatu ta eratsita dagonean: *Jesus errukiorra, erruki zatzakit.*

Nere azkenengo negar malkoak, desegingo naizen ezaupideak, ixuritzen dituanean, artu, Jauna opagai bigungarritzat, nere pekatuen ordeztu il nadin. Eta ordu bildurgarri artan: *Jesus errukiorra, erruki zatzakit.*

Nere zentzuak illundurik, mundu osoak nere begietatik iges dijoanean; eta iltamuko (agoniako) estutasun eta eriotzako larritasunetan inzirika nabillenean: *Jesus errukiorra, erruki zatzakit.*

Nere biotzaren azken-zotiñak anima

gorputzetik irtetzeko beartutzen dutenean, artu zadazu, Jauna, Zugana juangogoak ateratzekotzat; eta orduan: *Jesus errukiorra, erruki zatzakit.*

Nere anima mundu onetatik betiko irtetzen danean, gorputza ori, otz, bizi gabe utzita: beronen usteltzea zure aunditasunari eskeiñitako opagaitzat artu zadazu; ta ordu artan: *Jesus errukiorra, erruki zatzakit.*

Azkenik, nere anima zure aurrean agertu ta zure aunditasunaren argia ikusten dedanean; ez, arren, Zugandik jaurti: Zure magal errukitzuan artu nazazu; Zure gorapenak betiko abestu (kantatu) ditzadan; eta beti: *Jesus errukiorra, erruki zatzakit.*

OTOITZA

Eriotzarako erabaki arren, bere ordu ta unea ezkutatu dirazun Jauna; egizu, nere bizitzako egun guztiak zuzentasun eta santutasunean igarorik, lur onetatik zure maitetasunean irten nadilla. Zurekin Espiritu Santuaren batasunean bizi ta agintzen duan Jesu-Kristo gure Jaiurenaren irabaziakatik.

Urrengo otoitza bizitzan bein biotzez egiten dutenai aita santu Pio X.^{ak} barkapen osoa eman die, autortu ta jaunartuaz.

OTOITZA

¡Ene Jaun eta Jaungoikoa! Gogo ta apaltasun oso-osoaz artzen det orain-
chetik, zure eskuetatik eman nai dirazun edozein eriotza, bere estutasun, atsekabe ta min guztiakin.

BARAU TA ARAGI UZTEAK

1915. ko Dagonillaren 12. an XV Benedikto Doipuruak España' rako eman zuan Buldaren arauz.

Aragirik jan gabe barautu bear dan egunak urtean **amar** dira: Garizumako zazpi Ostiralak, Goteun-Etorkunde, ta Andre Miren Jasokunde aurreko egunak, eta Eguberri aurreko Baraukaldi Larunbata.

Barau gabeko Aragiya uzteko egunak urtean **iru** dira: Iru Baraukaldiyetako Ostiralak: Irukoitz txit Deun (Orrill edo Babillean): Mai Deun: (Iraillean) Toma Deun: (Lotazillean).

Aragiya jan ditekean Barau egunak **ama-
au** dira: Berrogeikaro'ko Asteazken-Larunbatak.

OARKUNAK

1.^a Aragiya jan diteken egunetan, arraya ere jan diteke, ta otordu baten biyak nastu ere bai.

2.^a Aragiya gebendua dagoan egunetan, aragi-salda ere gebendua dago.

3.^a Aragi-koipe edo orren antzekoz jana-riyak kutsutzea beti zillegi da.

4.^a Arrautz ta esnekiyak jatea zillegi da beti, baita barau egunetako gozari ta apari txikiyetan ere.

5.^a Gallaldi aubek irabazteko, Gurutzada-koaz gañera, Aragi-Bulda eduki bear da. Ara-gi-Buldak badira sei lagun edo gutxigoko sen-diyentzat aldiña dutenak.

6.^a Españiyako biztanleak atzerriyan ere gallaldi aubek goza ditzakete, erakuspide txarrez izan ezik.

7.^a Edozein Aitor-Entzunlek barau-lege aubetatik azketsi dezake, zerbait ziyo badago (alotezkoa izanik ere).

8.^a Bulda auben gallalduyak, barreatzen diranetik, urte oso ta illabeteko eskubidea ematen dute.

9.^a Aragi-Buldaren gallalduyak Aita San-tuak txiroei biyotz onez ematen dizte; ori artu gabe, ta beste egin bearrik ez dutela. Oneta-rako, txiro aditzen dira, beren lansariz bizi diranak, naiz ta beste zerbait ongasun eduki.

AGURBENAK

Jesu-Kristo gure Jauna ez dagoan aldarean, bakarrik burua zerbait makurtu bear da.

Jesu-Kristo gure Jauna gorderik dagoan aldarean, eskuiko belauna lurreraño jatxi bear da.

Orobat Mezatan gure Jauna aldarean dagoan bitartean, eta Jauna artuta bereala bat bere tokira dijoanean.

(Gaubeko Jauresleak (adoratzalleak) Jauna artuta bereala dijoazenean, belaunezko agurbenik egiteko oiturarik ez dute).

Ospe andiz Jaun Sakramentatua agiriyan badago, belaun biyak lurrean ipiñita, burua sakonki makurtu bear da.

Kontriziozko Egintza itz guchitan

Nere Jaungoiko eta Jaun Jesu-Kristo, neurrigabe ona zeralako, damu det biotz guzitik, Zu ofenditu izana; lenago ill pekatu egiñ baño. (1)

(1) Kontriziozko Egintza onek serbi dezake estutasunetan, baita maiz esateko ere, bere bitartez, alik lenen, Jaungoikoaren graziara biurtu² dediñ, pekatu mortalen bat egitekō zorigaitza izan duana.

Mestoso

Pi ta tok a gin du du Ta

die ren ar te all il tzez go

gor jos te ko Je sus Gd ru tze

ru

GURUTZE-BIDE

- 1 Pilatok agindu du,
Lapurren artean
Iltzez gogor josteko
Jesus Gurutzean.
- 2 Sorbaldan arturikan
Gurutze astuna,
Iltzera bai dijoa
Jesus gure Jauna.
- 3 Lurrera erortzen da
Jesus nekaturik,
Altxatzen laguntzeko
Ez da errukirik.
- 4 Agertzen zayo Ama
Negarrez bidean:
¡Ay! ¡zer samintasunak!
Biyen Biyotzean.
- 5 Simon Zirinetarra
Artzen dute lagun;
Gurutzea eramaten
Ikasi dezagun.
- 6 Pekatariya ¿non da
Zure errukiya,

Jesusi garbitzeko
Malkoz arpegiya?

7 Ludiko pekatuen
Astunaren andiz;
Gurutzepean Jesus
Erortzen da berriz.

8 Jerusálengo alabak,
Ez neri negarrik;
Negar egin zazute
Pekatuagatik.

9 Ainbeste neke miñez
Aul egiñik Jauna;
Irugarren aldiyan
Emen jo du lurra.

10 Luidiyaren aurrean
Jantziya kendurik:
Or dago Jesus ona
Oso lotsaturik.

11 Gurutziltzatu dute
Zañak urraturik,
Ezurak azkatuaz
Beren giltzetatik.

12 Gurutzean jasota,
Miñez aseturik,
Il da Jesus maitea
Gure onagatik.

13 Semearen Gorputza
Jatxi dutenean;
¡Ay zer ezpata daukan!
Amak Biyotzean.

14 Obira dutenean
Jaunaren Gorputza,
Itsaso samiña da
Amaren Biyotza.



Jesus ona, nigatik
Gurutziltzatua,
Damu det biyotzetik
Zu naigabetua.

Jesus'en Biyotzaren eskaiñ-sariyak bera maitatzen dutenentzat

1. Emango dizkiet bizi bidean bear dituzten grazi guztiyak.
2. Beren sendietan pakea emango diet.
3. Atsekabeetan pozkidatuko ditut.
4. Bizitzan eta batez ere eriotz-orduan gorde leku segurua izango naitzaie.
5. Beren egikuntz guztiyetan onalben ugariryak ixuriko ditut.
6. Nere Biyotzean arkituko dute pekatariyak errukizko iturriya ta itsaso baztergabea.

7. Gogo epelak irazekiko dira.
8. Gogo irazekiyak laizter igoko dira obetande ta santutasun andira.
9. Nere Biyotz Deunaren antzekiyak ipiñi ta onratzen diran tokiak donetsi ta onalduko-ditut.
10. Biyotzik gogorrenak biguntzeko artea apaizei emango diet.
11. Nayeron au zabaltzen dutenen izena nere Biyotzean idatziya egongo da, ta andik beñere ez da kenduko.
12. Itz ematen dizutet: **bederatzi illabetez lenengo Ostiral jarraituetan Jaunartzen dutenei Nere Urrikaltasun neurrigabeak eta Nere Maitamen andiyak emango diyela aizken-irau-penezko graziya.**

¡O nere Jesus maitagarriya!

Zuri nere esker on biyotzekoa agertzeko, ta egin dizkitzudan okerreriya ordaintzeko, nere biyotza ematen dizut, osotoro Zugana doneskaintzen naizela; ta asmo sendoa artzen det, zure laguntzaz egundo geyago Zu ez laido-tzeko.

**Illeko lenengo bederatzi Ostiraletan Jauna
artuta gero ezan diteken**

OTOITZA

Nere Jesus txit gozoa, zure Biyotz Jainkozkoaren omenaz bederatzi lenengo Ostiral jarraituetan Jauna artzen dutenei, zure erruki

gutziz samur eta aizkengabeaz agindu diezu, aizken-lraupenezko graziya emango diezula: aginsari onezaz oroi zaite; ta neri, zure mirabe izateko diña ez naizen oni, asmo ta adigo onezaz Sakramentu Santuan artu zaitudan ezkerro, indazu, ill nadilla; nere pekatuak gorrotatzen, zure urrikaltasun andian itxegoten, eta zure Biyotz maitale maitagarriya maitatzen. Olaxe.

Jesusen Biyotz, Jainkoaren etxe ta zeruko atea, guzaz erruki zaite.

Jesusen Biyotz, deitzen dizuten guztiyentzat aberatsa, guzaz erruki zaite.

Jesusen Biyotz, zugaran iltzen diran guztiyen esperantza, guzaz erruki zaite.

OARKITZA

Bederatzi lenen-Ostiraletako Komunioak asteko aldirik egokiyena urte bakoitzeko Urrilla da, Garagarillean bukatzeko.

Gure animaren salbaziyoiko gayan ardurarik andiyena eduki bear degu: onetan alegiñik andiyenak egi-tea gauza gutxi da beti; orregatik bederatzi Jaunartze oyek, ez bein bakarrik; baizik urteoro edo aldegun maizen egin bear ditugu; onela erakutsiaz gure sendi ta adizkide guztiei ere.

E. Ogi deunan dagon Jesusen Biyotza donetsi bedi.

E. Donetsi ta aintzatu beti.

Jesusen-Biyotz Santuba guzaz erruki zaite.

Alde ta aldi guztiyetan maitatua izan bedi Jesus'en Biyotza.

PAKEA ESKATZEKO OTOITZA

(XV-N BENEDITA)

Erri ta laterriyak naspillatzen dituan gerra izugarriaz ikaraturik, gure aizken igeslekura bezela gatoz, jo Jesus ona! zure Biyotz maitale orrengana. Zuri, Jaun errukitsu orri, antziz ta negar-intziriz eskatzen dizugu, zigor-aldi astun eta zoritxarreko au laizter bukatu dedilla. Zerorrengandik, Bakaldun pakezkoa, itxegoten degu biziropa degun pakea. Zure Jainkozko Biyotz orretatik atera ta zabaldu zenduan lurbira guztiyan egizko paketasuna; gorroto ta aserre guztiyak ayenaturik; gizartean maitetasun utsa nagusitu zedin. Gizon ilkorren artean bizi ziñanean, zoritxarrez atsekabetuak zeudenei Biyotz errukitsuaz begiratu izan ziñien. ¡Ah! eriyo-gorrotoz ta ikaragarritzko ondamendiz beterik gauden aldi ontan ere ba, Biyotz orrek samurtasunez begira bezaigu.

Beren semeak galdurik ekustean, ainbeste ama gaixoen negarraz erruki zaite; guraso ta nagusi gabe gelditu diran ume-

zurtz ta sendiaz erruki zaite; bere gañe-
ra ainbeste ondamendi negartsu etorri
diran zoritxarreko Europaz erruki zaite.

Biyotz-biguntasunezko argiya agintari
ta erriyai eman zaiezu; ta aserre-gorro-
toz urraturik dabiltzan laterriyak onez
alkarturik, gizonak pakez laztandu dite-
zela; ala egizu, guztiyok anai egiteagatik,
zure Odol ederra ixuri zenduan Jaun
orrek. Eta bein batean Pedro apostolo
santuak esan zizunean “Salba gaitzatzu,
Jauna, salba gaitzatzu, galduko gera bes-
tela,, itsasoko ekaitza errukiz baretu
zenduan bezela; alaxe oraiñ ere, gure
otoitzak errukiz entzunik, ludi anabas-
tuari pake oparotsua biur zayozu.

Zuk ere bai, ¡O Birjin Ama txit san-
tua!, beste negarbide askotan lagundu
izan ziñiguzun orrek, oraiñ ere, lagun-
du, estalpetu ta salba gaitzatzu. Ala izan
bedi.

(300 eguneko nekaskitzak egun bakoitzean;
eta 20 egunez esan ezkerro, nekaskitz osoa).

ARKIBIDEA

Orrial-
deak

Itz Batzuek Jesu-Kristo gure Jaunaren Jaungoikotasuna ikuserazteko.....	3
Irakurleari (Itzulariak).....	10
Itzaurrea	11
Meza guzien eskeiñia.....	13
Lenengo burua. —Meza Santua zer dan.	14
Bigarren burua. —Meza Santuaren andi- tasuna	36
§ 1. Katolikoan Eliza baten Konsagra- zioa	38
§ 2. Apaizen Konsagrazioa	49
§ 3. Meza Santuko Apaiz nagusia.....	61
§ 4. Meza Santuan eskeintzen dan doai estimagarriaren gañean	75
Irugarren burua. —Meza Santuaren mis- terioak	86
Irurogeita amazapi grazi ta frutu Me- za Santua entzuteari dagozkionak...	103
Laugarren burua. —Meza Santuan Jesu- Kristok berritzen du bere gizon egitea	112
Bosgarren burua. —Jesu-Kristok Meza Santuan berritzen du bere jaiotza...	124
Seigarren burua. —Meza Santuan berri- tzen du Jesu-Kristok bere bizitza...	145
Zazpigarren burua. —Meza Santuan be- rritzen du Jesu-Kristok bere orazioa.	156
Zortzigarren burua. —Meza Santuan Je-	

su-Kristok berritzen du bere Pasioa.	167
Bederatzigarren burua. —Meza Santuan Jesu Kristok berritzen du bere eriotza	179
Amargarren burua. —Meza Santuan Jesu-Kristok berritzen du bere Odol-isurtzea	189
Amaikagarren burua. —Meza Santua da danerre edo Olokaustorik andiena ..	218
Amabigarren burua. —Meza Santua da alabantzazko Sakrifiziorik andiena..	227
Amairugarren burua. —Meza Santua da eskerrak emateko Sakrifizioa.....	238
Amalaugarren burua. —Meza Santua da mesedeak iristeko indarrik andieneko Sakrifizioa	246
Amabosgarren burua. —Meza Santua da Sakrifiziorik altsuena Jaungoikoarekin pakeak egin eta pekatuen zorra pagatzeko	259
Amaseigarren burua. —Meza Santua da pekatuen ordaña emateko Sakrifiziorik andien eta osoena.....	286
Amazazpigarren burua. —Meza Santua da Espiritu Santuak egin duan gauzarik andiena	298
Emezortzigarren burua. —Meza Santua da Jaungoikoaren Amaren eta Santuen pozik andiena.....	311
Emeretzigarren burua. —Meza Santua da kristauak daukaten tesororik andiena	333
Ogeigarren burua. —Meza Santua da biderik seguruena, grazia ta zeruko gloria gugan geitzeko	347

Ogeitabatgarren burua. —Meza Santua da iltzen daudenen esperantza.....	367
Ogeitabigarren burua. —Meza Santua da illdakoentzat obegarri edo alibiorik andiena	382
Ogeitairugarren burua. —Meza entzuten daudenakgatik apaizak egiten dituan otoitzak	399
Ogeitalaugarren burua. —Meza Santuak ezti egiten kalterik lanari, baizik bestera, mesede egiten dio.....	421
Ogeitaboskarren burua. —Meza Santua nola eskeiñi bear dan eta nolakoa dan eskeiñi onen balioa.....	435
Ogeitaseigarren burua. —Zeiñ ona dan Meza askotara norpera gomendatzea.	450
Ogeitazazpigarren burua. —Egunero Meza entzuteko dei zoli bat	460
Ogeitazortzigarren burua. —Meza debozioz entzuteko deia	477
Ogeitabederatzigarren burua. —Ostia ta kaliza goratzean agertu bear dan jaierraren gañean.....	489
Ogeitaamargarren burua. —Nolako errespetoz entzun bear dan Meza Santua.	512
<hr/>	
Meza Santua entzuteko lenengo modua, apaizaren oioitzakiñ elkartuaz.....	523
Meza Santua entzuteko bigarren modua. Sakrifizio Santuko misteriorik andienak gogoratuaz	551
Meza Santua entzuteko irugarren mo-	

dua. Jesu-Kristoren Pasio saminiaren onran	569
Meza Santua entzuteko laugarren mo- dua. Purgatorioko animen onerako..	586
Konfesatzeko egin bear dana. Konfesio aurretik	626-601
Konfesio ondorean	605
Komunio Santua artzeko egin bear da- na. Komunio aurretik	610
Komunio ondorean	648-615
Goizian jaikitzean egin bear dan otoitza	623
Ostia Santua goratu ondoan eta Sakra- mentu guziz Santuaren aurrean egi- teko otoitza	624
Gurasoak egin bear duten otqitza	624
Birauren orde z gorapenak	625
Azterketa (esamiña) egiteko itaunak	626
S. Inazio'k esan oi zuan otoitza	648
¡Eleiza Jaungoikoaren echea da!	649
Agurtza (Errosarioa) esateko bidea	650
S. Bernardo'k Ama Birjiñari egiten zion otoitza	653
Eriotza ona iristeko otoitza	653
Otoitza (barkapen osoa)	657
Barau ta aragi uzteak	657
Agurbenak	659
Kontriziozko Egintza itz guchitan	659
Gurutze-Bide	661
Jesus'en Biyotzaren eskaiñ-sariyak	663
Illeko lenengo bederatzi Ostiraletako otoitza	664
Pakea eskatzeko otoitza	666



Donetsi ta goretsi bedi Aldareko Sa-
kramentu txit Santua, ta Miren beti
Gizgarbiyaren Sorkunde orban gabea.



Jesus Sakramentatua goretsi bedi:
Goretsi ta guztiyak maite beti.



1917-garren urteko Ilbelta'ren 30'ean
amaitu zan liburu onen argitaratzea.





